

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**12902** 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

#### Aurkibidea

Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

I. kapitulua. Legearen xedea eta aplikazio-eremua.

1. atala. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

3. artikulua. Eremu subjektiboa.

2. atala. Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak.

4. artikulua. Kanpoan utzitako negozio juridikoei aplikatu beharreko araubidea.

5. artikulua. Defentsaren eta segurtasunaren eremuan kanpoan utzitako negozio juridikoak eta kontratuak.

6. artikulua. Hitzarmenak eta kudeaketa-esleipenak.

7. artikulua. Nazioarteko eremuan kanpoan utzitako negozio juridikoak eta kontratuak.

8. artikulua. Ikerketaren, Garapenaren eta Berrikuntzaren eremuan kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak.

9. artikulua. Jabari publikoaren eremuan eta ondarearen eremuan kanpoan utzitako harreman juridikoak, negozioak eta kontratuak.

10. artikulua. Eremu finantzarioan kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak.

11. artikulua. Kanpoan utzitako bestelako negozio eta kontratuak.

II. kapitulua. Sektore publikoko kontratuak.

1. atala. Kontratu motak zedarrantzea.

12. artikulua. Kontratuak kalifikatzea.

13. artikulua. Obra-kontratua.

14. artikulua. Obra-emakidako kontratua.

15. artikulua. Zerbitzu-emakidako kontratua.

16. artikulua. Hornidura-kontratua.

17. artikulua. Zerbitzu-kontratua.

18. artikulua. Kontratu mistoak.

2. atala. Erregulazio harmonizatuko kontratuak.

19. artikulua. Zedarrantze orokorra.

20. artikulua. Obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak, erregulazio harmonizatukoak: atalasea.

- 21. artikulua. Erregulazio harmonizatuko hornidura-kontratuak: atalasea.
  - 22. artikulua. Erregulazio harmonizatuko zerbitzu-kontratuak: atalasea.
  - 23. artikulua. Erregulazio harmonizatuko kontratu diruz lagunduak.
3. atala. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.
- 24. artikulua. Sektore publikoko kontratuei aplikatu beharreko araubide juridikoa.
  - 25. artikulua. Administrazio-kontratuak.
  - 26. artikulua. Kontratu pribatuak.
  - 27. artikulua. Jurisdikzio eskuduna.
- Lehen liburua. Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak.
- I. titulua. Sektore publikoko kontratuei buruzko xedapen orokorrak.
  - I. kapitulua. Sektore publikoko kontratazioaren arrazionaltasuna eta funtsa.
- 28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.
  - 29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta haien prestazioa emateko epea.
  - 30. artikulua. Administrazio Publikoak ematea zuzenean prestazioak, enpresaburu partikularren laguntzarekin edo bitarteko propio ez-pertsonifikatuen bitartez.
  - 31. artikulua. Auto-antolaketarako ahalmena eta lankidetzza publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.
  - 32. artikulua. Botere adjudikatzaileek bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuak.
  - 33. artikulua. Sektore publikokoak izan eta botere adjudikatzailetzat hartzen ez direnek bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuak.
- II. kapitulua. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia.
- 34. artikulua. Itunak egiteko askatasuna.
  - 35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia.
- III. kapitulua. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.
- 36. artikulua. Kontratua burutzea.
  - 37. artikulua. Sektore publikoko kontratuen izaera formala.
- IV. kapitulua. Baliogabetasun-araubidea.
- 38. artikulua. Baliogabetasun-kasuak.
  - 39. artikulua. Administrazio-zuzenbideko deuseztasun-kausak.
  - 40. artikulua. Administrazio-zuzenbideko deuseztagarritasun-kausak.
  - 41. artikulua. Ofizioz berrikustea.
  - 42. artikulua. Deuseztasuna deklaratzearen ondoreak eta deuseztagarritasun-kasuetako ondoreak.
  - 43. artikulua. Zuzenbide zibileko baliogabetasun-kausak.
- V. kapitulua. Errekurtso berezia.
- 44. artikulua. Kontratazio-arloko errekurtso berezia: zer egintzaren aurka jar daitekeen.
  - 45. artikulua. Estatuko Administrazio Orokorrean errekurtsoa ebazteko organo eskuduna.
  - 46. artikulua. Autonomia-erkidegoetan eta toki-entitateetan errekurtsoa ebazteko organo eskuduna.
  - 47. artikulua. Administrazio Publikoa ez diren botere adjudikatzaileen egintzen aurkako errekurtsoak.
  - 48. artikulua. Legitimazioa.
  - 49. artikulua. Kautela-neurriak eskatzea.

- 50. artikulua. Prozedura hastea eta epea.
  - 51. artikulua. Errekurtso berezia aurkezteko modua eta tokia.
  - 52. artikulua. Espedienterako sarbidea.
  - 53. artikulua. Errekurtsoa jartzearen ondoreak.
  - 54. artikulua. Komunikazioak eta jakinarazpenak.
  - 55. artikulua. Ez onartzea.
  - 56. artikulua. Prozedura izapidetzea.
  - 57. artikulua. Errekurtso bereziaren ebazpena.
  - 58. artikulua. Kalte-ordainak eta isunak.
  - 59. artikulua. Errekurtso bereziaren ebazpenaren ondoreak.
  - 60. artikulua. Alderdiei administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoetara deitzea.
- II. titulua. Kontratuko alderdiak.
- I. kapitulua. Kontratazio-organoa.
- 61. artikulua. Kontratatze eskumena.
  - 62. artikulua. Kontratuaren arduraduna.
  - 63. artikulua. Kontratatzailearen profila.
  - 64. artikulua. Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa.
- II. kapitulua. Enpresaburuaren gaitasuna eta kaudimena.
1. atala. Sektore publikoarekin kontratatze gaitasuna.
1. azpiatala. Ahalmenari buruzko arau orokorrak eta arau bereziak.
- 65. artikulua. Gaitasun-baldintzak.
  - 66. artikulua. Pertsona juridikoak.
  - 67. artikulua. Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak.
  - 68. artikulua. Europar Batasunaz kanpoko enpresak.
  - 69. artikulua. Enpresaburuaren elkarteak.
  - 70. artikulua. Bateragarritasun-baldintza bereziak.
2. azpiatala. Kontratatze debekuak.
- 71. artikulua. Kontratatze debekuak.
  - 72. artikulua. Kontratatze debekua aintzat hartzea. Eskumena eta prozedura.
  - 73. artikulua. Kontratatze debekua deklaratzeko dakartzan ondorioak.
3. azpiatala. Kaudimena.
- 74. artikulua. Kaudimena eskatzea.
  - 75. artikulua. Kaudimena eta sailkapena kanpoko bitartekoen bidez osatzea.
  - 76. artikulua. Kaudimenari buruzko baldintzak zehaztea.
4. azpiatala. Enpresen sailkapena.
- 77. artikulua. Sailkapena eskatu ahal izatea eta haren ondoreak.
  - 78. artikulua. Sailkatuta egoteko beharretik salbuestea.
  - 79. artikulua. Sailkapenerako aplikatu behar diren irizpideak eta baldintzak.
  - 80. artikulua. Sailkapenari buruzko akordioak edo erabakiak: gaitasuna, eraginkortasuna, errekurtsoa eta sailkapen dibergenteak.
  - 81. artikulua. Sailkapena erregistroan inskribatzea.
  - 82. artikulua. Sailkapenak: indarraldia eta berrikustea.
  - 83. artikulua. Sailkapeneko osagaiak egiaztatzea.

- 2. atala. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea.
  - 1. azpiatala. Jarduteko gaitasuna.
  - 84. artikulua. Jarduteko gaitasuna egiaztatzea.
  - 2. azpiatala. Kontratatzeko debekuak.
  - 85. artikulua. Kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzeko froga.
  - 3. azpiatala. Kaudimena.
    - 86. artikulua. Kaudimena egiaztatzeko moduak.
    - 87. artikulua. Ekonomia- eta finantza- kaudimena.
    - 88. artikulua. Kaudimen teknikoa obra-kontratuetan.
    - 89. artikulua. Kaudimen teknikoa hornidura-kontratuetan.
    - 90. artikulua. Kaudimen tekniko edota profesionala zerbitzu-kontratuetan.
    - 91. artikulua. Kaudimen tekniko edo profesionala gainerako kontratuetan.
    - 92. artikulua. Kaudimeneko baldintza eta irizpideen zehaztapena.
    - 93. artikulua. Kalitatea bermatzeko arauak betetzen direla egiaztatzea.
    - 94. artikulua. Ingurumena kudeatzeko arauak betetzen direla egiaztatzea.
    - 95. artikulua. Agiri eta informazio osagarriak.
  - 4. azpiatala. Sailkapenaren eta kontratatze gaitasunaren froga, kontratisten erregistro edo zerrenda ofizialen bidezkoa.
    - 96. artikulua. Lizitatzailen erregistroen ziurtagiriak.
    - 97. artikulua. Europar Batasuneko ziurtagiriak, kontratatze baimenduta dauden enpresaburuenak.
  - III. kapitulua. Kontratatzen ondorengotza.
    - 98. artikulua. Kontratatzen ondorengotza-kasuak.
  - III. titulua. Objektua, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta kontratuaren berrikuspena.
    - I. kapitulua. Arau orokorrak.
      - 99. artikulua. Kontratuaren objektua.
      - 100. artikulua. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua.
      - 101. artikulua. Balio zenbatetsia.
      - 102. artikulua. Prezioa.
    - II. kapitulua. Sektore publikoko erakundeen kontratuaren prezioak berrikustea.
      - 103. artikulua. Bidezketasuna eta mugak.
      - 104. artikulua. Berrikuspena, egikaritzea berandutzen den kasuetan.
      - 105. artikulua. Berrikuspenaren ondorengo zenbatekoa ordaintzea.
  - IV. titulua. Sektore publikoko kontratuaren eska daitezkeen bermeak.
    - I. kapitulua. Administrazio publikoekin egindako kontratuaren eska daitezkeen bermeak.
      - 1. atala. Behin-behineko bermea.
        - 106. artikulua. Behin-behineko bermea eskatzea eta haren araubidea.
      - 2. atala. Behin betiko bermea.
        - 107. artikulua. Behin betiko bermea eskatu ahal izatea.
        - 108. artikulua. Onar daitezkeen behin betiko bermeak.
        - 109. artikulua. Bermeak eratzea, berriz jartzea eta egokitzea.



- 110. artikulua. Bermeei dagozkien erantzukizunak.
  - 111. artikulua. Bermeak itzultzea eta ezereztea.
3. atala. Hirugarrenek emandako bermeak, eta lehentasuna bermeak exekutatzean.
- 112. artikulua. Hirugarrenek emandako bermeen araubidea.
  - 113. artikulua. Lehentasuna bermeak exekutatzean.
- II. kapitulua. Sektore publikoko beste kontratu batzuetan eska daitezkeen bermeak.
- 114. artikulua. Kasuak eta araubidea.
- Bigarren liburua. Administrazio publikoen kontratuak.
- I. titulua. Xedapen orokorrak.
- I. kapitulua. Administrazio publikoen kontratazioari buruzko jarduketak.
1. atala. Administrazio publikoen kontratuak prestatzea.
- 115. artikulua. Merkatuko alde zurretiko kontsultak.
1. azpiatala. Kontratazio-espeditentea.
- 116. artikulua. Kontratazio-espeditentea: hastea eta edukia.
  - 117. artikulua. Espeditentearen onespina.
  - 118. artikulua. Kontratazio-espeditentea kontratu txikietan.
  - 119. artikulua. Espeditentearen presako izapidetzea.
  - 120. artikulua. Larrialdiko izapidetzea.
2. azpiatala. Administrazio-klausulen agiriak eta preskripzio teknikoaren agiriak.
- 121. artikulua. Administrazio-klausula orokorren agiriak.
  - 122. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agiriak.
  - 123. artikulua. Preskripzio tekniko orokorren agiriak.
  - 124. artikulua. Preskripzio tekniko partikularren agiria.
  - 125. artikulua. Preskripzio tekniko batzuen definizioa.
  - 126. artikulua. Preskripzio teknikoak ezartzeko arauak.
  - 127. artikulua. Etiketak.
  - 128. artikulua. Froga-txostenak, ziurtatzea eta beste frogabide batzuk.
  - 129. artikulua. Fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei lotutako betebeharrari eta desgaitasuna duten pertsonen ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharrari buruzko informazioa.
- 130. artikulua. Lan-kontratuaren subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa.
2. atala. Administrazio publikoen kontratuen adjudikazioa.
1. azpiatala. Xedapen orokorrak.
- 131. artikulua. Adjudikazio-prozedura.
  - 132. artikulua. Berdintasun- eta gardentasun-printzipioak.
  - 133. artikulua. Konfidentzialtasuna.
  - 134. artikulua. Aurretiazko informazioaren iragarkia.
  - 135. artikulua. Lizitazio-iragarkia.
  - 136. artikulua. Parte hartzeko eskaerak eta proposamenak aurkezteko epeak.
  - 137. artikulua. Epeak laburtzea, izapidea presakoa bada.
  - 138. artikulua. Interesdunei informazioa ematea.
  - 139. artikulua. Interesdunen proposamenak.
  - 140. artikulua. Aurrez bete beharreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak aurkezteak.
  - 141. artikulua. Erantzukizunpeko deklarazioa eta bestelako dokumentazioa.
  - 142. artikulua. Aldaeren onarpena.

- 143. artikulua. Enkante elektronikoa.
  - 144. artikulua. Prozedurako ondorengotza.
  - 145. artikulua. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.
  - 146. artikulua. Adjudikazio-irizpideen aplikazioa.
  - 147. artikulua. Berdinketa hausteko irizpideak.
  - 148. artikulua. Bizi-zikloaren definizioa eta kalkulua.
  - 149. artikulua. Eskaintza nabarmenki baxuegiak.
  - 150. artikulua. Eskaintzen sailkapena eta kontratuaren adjudikazioa.
  - 151. artikulua. Adjudikazioa ebatzi eta jakinaraztea.
  - 152. artikulua. Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.
  - 153. artikulua. Kontratuak formalizatzea.
  - 154. artikulua. Kontratuen formalizazioaren publizitatea.
  - 155. artikulua. Hautagaiei eta lizitatzailerei komunikatzea.
2. azpiatala. Prozedura irekia.
- 156. artikulua. Zedarritzea, proposamenak aurkezteko epeak eta lizitazio-iragarkia argitaratzeko epea.
  - 157. artikulua. Proposamenak aztertzea eta adjudikazioa proposatzea.
  - 158. artikulua. Adjudikazioa.
  - 159. artikulua. Prozedura ireki sinplifikatua.
3. azpiatala. Prozedura murriztua.
- 160. artikulua. Ezaugarriak.
  - 161. artikulua. Parte hartzeko eskaerak.
  - 162. artikulua. Hautagaien aukeraketa.
  - 163. artikulua. Gonbidapenen edukia eta hautagaiei eman beharreko informazioa.
  - 164. artikulua. Proposamenak.
  - 165. artikulua. Adjudikazioa.
4. azpiatala. Negoziazioa duten prozedurak.
- 166. artikulua. Negoziatzekoa den gaiaren ezaugarriak eta haren zedarritzea.
  - 167. artikulua. Lizitazio-prozedura negoziatua aplikatzeko kasuak.
  - 168. artikulua. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzeko kasuak.
  - 169. artikulua. Lizitazio-prozedura negoziatuaren izapidetzea.
  - 170. artikulua. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izapidetzearen berezitasunak.
  - 171. artikulua. Lizitatzailerei eman beharreko informazioa.
5. azpiatala. Lehia-elkarrizketa.
- 172. artikulua. Ezaugarriak.
  - 173. artikulua. Primak edo kalte-ordainak.
  - 174. artikulua. Prozedura hastea eta parte hartzeko eskaerak.
  - 175. artikulua. Hautagaiekiko elkarrizketa.
  - 176. artikulua. Eskaintzak aurkeztea, aztertzea eta adjudikazioa.
6. azpiatala. Berrikuntzarako elkartzeko prozedura.
- 177. artikulua. Berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren ezaugarriak.
  - 178. artikulua. Prestakuntza.
  - 179. artikulua. Prozeduraren publizitatea.
  - 180. artikulua. Hautagaien aukeraketa.
  - 181. artikulua. Elkartearen egitura eta garapena.
  - 182. artikulua. Berrikuntzarako elkartzeko prozeduratik datozen kontratuak.

7. azpiatala. Proiektuen lehiaketei aplika dakizkiekeen arauak.
- 183. artikulua. Aplikazio-eremua.
  - 184. artikulua. Lehiaketaren oinarriak.
  - 185. artikulua. Parte-hartzaileak.
  - 186. artikulua. Publizitatea.
  - 187. artikulua. Epaimahaia eta lehiaketari buruzko erabakia.
3. atala. Administrazio-kontratuen ondoreak eta administrazio-kontratuak betetzea eta azkentzea.
1. azpiatala. Kontratuen ondoreak.
- 188. artikulua. Araubide juridikoa.
  - 189. artikulua. Kontratuen edukiarekiko lotura.
2. azpiatala. Administrazio Publikoak administrazio-kontratuetan dituen prerrogatibak.
- 190. artikulua. Zerrenda.
  - 191. artikulua. Prerrogatibak gauzatzeko prozedura.
3. azpiatala. Kontratuak egikaritzea.
- 192. artikulua. Ez-betetze partziala edo betetze akastuna.
  - 193. artikulua. Egikaritzean berandutzea.
  - 194. artikulua. Kalte-galerak eta zigor-ezarpena.
  - 195. artikulua. Berandutzeagatik kontratuak suntsiaraztea, eta kontratuak egikaritzeko epea luzatzea.
  - 196. artikulua. Hirugarrenei eragindako kalte-galeren ordainak.
  - 197. artikulua. Arrisku eta menturaren printzipioa.
  - 198. artikulua. Prezioa ordaintzea.
  - 199. artikulua. Administrazio publikoen zorrak ordainarazteko prozedura.
  - 200. artikulua. Kobrantza-eskubideak eskualdatzea.
  - 201. artikulua. Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak.
  - 202. artikulua. Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.
4. azpiatala. Kontratuak aldatzea.
- 203. artikulua. Kontratu aldatzeko ahala.
  - 204. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agirietan aurreikusitako aldaketak.
  - 205. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak: prestazio gehigarriak, ustekabeko inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak.
  - 206. artikulua. Kontratu-aldaketen nahitaezotasuna.
  - 207. artikulua. Prozedurako berezitasunak.
5. azpiatala. Kontratuak etetea edo azkentzea.
- 208. artikulua. Kontratuak etetea.
  - 209. artikulua. Kontratuak azkentzea.
  - 210. artikulua. Kontratuak betetzea eta prestazioa jasotzea.
  - 211. artikulua. Suntsiarazteko kausak.
  - 212. artikulua. Kontratu suntsiarazteko kausak aplikatzea.
  - 213. artikulua. Suntsiaraztearen ondoreak.
6. azpiatala. Kontratuak lagatzea eta azpikontratatzea.
- 214. artikulua. Kontratuak lagatzea.
  - 215. artikulua. Azpikontratatzea.



- 4. atala. Obra-kontratua betetzea.
  - 243. artikulua. Obrak hartzea eta berme-epea.
  - 244. artikulua. Ezkutuko akatsengatiko erantzukizuna.
- 5. atala. Obra-kontratua suntsiaraztea.
  - 245. artikulua. Suntsiarazteko kausak.
  - 246. artikulua. Suntsiaraztearen ondoreak.
- II. kapitulua. Obra-emakidako kontratua.
  - 1. atala. Obra-emakidako kontratua prestatzeko jarduketak.
    - 247. artikulua. Bideragarritasun-azterlana.
    - 248. artikulua. Obrak eraikitze eta ustiatzeko aurreproiektua.
    - 249. artikulua. Obraren proiektua eta proiektuaren zuinketa.
    - 250. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agiriak.
  - 2. azpiatala. Emakiden ondoreak, betetzea eta azkentzea.
    - 251. artikulua. Ondoreak, betetzea eta azkentzea.
  - 3. atala. Emakidaren xede diren obrak eraikitzea.
    - 252. artikulua. Obrak egiteko modalitateak.
    - 253. artikulua. Erantzukizuna obra hirugarren batzuek egiten dutenean.
    - 254. artikulua. Arrisku eta menturaren printzipioa obrak egitean.
    - 255. artikulua. Proiektua aldatzea.
    - 256. artikulua. Obrak egiaztatzea.
  - 4. atala. Emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak eta administrazio emakida-emailearen prerrogatibak.
    - 1. azpiatala. Emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak.
      - 257. artikulua. Emakidadunaren eskubideak.
      - 258. artikulua. Emakidadunaren betebeharrak.
      - 259. artikulua. Obrak erabiltzea eta kontserbatzea.
      - 260. artikulua. Merkataritza-ustiapeneko eremu osagarriak.
    - 2. azpiatala. Administrazioaren prerrogatibak eta eskubideak.
      - 261. artikulua. Administrazioaren prerrogatibak eta eskubideak.
      - 262. artikulua. Obrak aldatzea.
      - 263. artikulua. Emakida bahitzea edo hartan esku hartzea.
      - 264. artikulua. Emakidadunari kontratua ez betetzeagatik jarri beharreko zigorrak.
  - 5. atala. Emakidaren araubide ekonomiko-finantzarioa.
    - 265. artikulua. Obrak finantzatzea.
    - 266. artikulua. Eraikuntzarako ekarpen publikoak eta finantzaketarako bermeak.
    - 267. artikulua. Obra erabiltzearen ordainsaria.
    - 268. artikulua. Ustiapena finantzatzeko ekarpen publikoak.
    - 269. artikulua. Obra berezituak.
    - 270. artikulua. Kontratuaren oreka ekonomikoa zaintzea.
  - 6. atala. Finantzaketa pribatua.
    - 1. azpiatala. Emakidadunak tituluak jaulkitzea.
      - 271. artikulua. Obligazioak eta beste titulu batzuk jaulkitzea.
      - 272. artikulua. Emakidadunaren kreditu-eskubideak titulu negoziagarri bihurtzea.

- 2. azpiatala. Emakidaren hipoteka.
- 273. artikulua. Emakidaren hipotekaren objektua eta eskubideen pignorazioa.
- 274. artikulua. Hartzekodun hipotekarioaren eskubideak.
- 275. artikulua. Hipoteka exekutatzea.
- 276. artikulua. Emakidaren gainean inskribatutako edo oharrez idatzitako kargen titularren eskubideak, emakidarako kontratua suntsiarazten bada ere.
- 3. azpiatala. Beste finantzaketa-iturri batzuk.
- 277. artikulua. Partaidetza-kredituak.
- 7. atala. Emakidak azkentzea.
- 278. artikulua. Emakiden epeak luzatzea eta emakida azkentzea epea iragan delako.
- 279. artikulua. Suntsiarazteko kausak.
- 280. artikulua. Suntsiaraztearen ondoreak.
- 281. artikulua. Obra-emakidako adjudikazio-prozesu berria, suntsiaraztea Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen denean.
- 282. artikulua. Obra-emakidako lizitazio-tasa zehaztea, suntsiaraztea Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen denean.
- 283. artikulua. Emakida azkentzen denean obrekin zer egin.
- III. kapitulua. Zerbitzu-emakidako kontratua.
- 1. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua zedarritzea.
- 284. artikulua. Zerbitzu-emakidako kontratuaren eremua.
- 2. atala. Araubide juridikoa.
- 1. azpiatala. Zerbitzu-emakidako kontratua prestatzeko jarduketak.
- 285. artikulua. Baldintza-agiriak eta obra- eta ustiapen-aurreproiektua.
- 2. azpiatala. Zerbitzu-emakidako kontratuaren ondoreak, betetzea eta azkentzea.
- 286. artikulua. Ondoreak, betetzea eta azkentzea.
- 3. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua egikaritzea.
- 287. artikulua. Zerbitzu-emakidako kontratua egikaritzea.
- 288. artikulua. Betebehar orokorrak.
- 289. artikulua. Prestazio ekonomikoak.
- 4. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua aldatzea.
- 290. artikulua. Kontratua aldatzea eta haren oreka ekonomikoa zaintzea.
- 5. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua betetzea eta haren ondoreak.
- 291. artikulua. Itzultzea.
- 292. artikulua. Kontraprestazio ekonomikoak eta baliabide lagungarriak ez ematea.
- 293. artikulua. Emakidadunaren ez-betetzea.
- 6. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua suntsiaraztea.
- 294. artikulua. Suntsiarazteko kausak.
- 295. artikulua. Suntsiaraztearen ondoreak.
- 7. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua azpikontratatzea.
- 296. artikulua. Azpikontratatzea.
- 8. atala. Zerbitzu-emakidako kontratuaren ordezeko arautzea.
- 297. artikulua. Ordezko arautzea.

- IV. kapitulua. Hornidura-kontratua.
1. atala. Hornidura-kontratu jakin batzuen arautzea.
298. artikulua. Errentamendua.
299. artikulua. Fabrikazio-kontratuak.
2. atala. Hornidura-kontratua egikaritzea.
300. artikulua. Entregatu eta jasotzea.
301. artikulua. Prezioa ordaintzea.
302. artikulua. Eskudirutan ordaintzea eta beste ondasun batzuekin ordaintzea.
303. artikulua. Administrazioak fabrikazio-prozesuan dauzkan ahalmenak.
3. atala. Hornidura-kontratua betetzea.
304. artikulua. Entregatu eta jasotzeko gastuak.
305. artikulua. Berme-epeko akatsak edo hutsak.
4. atala. Hornidura-kontratua suntsiaraztea.
306. artikulua. Suntsiarazteko kausak.
307. artikulua. Suntsiaraztearen ondoreak.
- V. kapitulua. Zerbitzu-kontratua.
1. atala. Xedapen orokorrak.
308. artikulua. Edukia eta mugak.
309. artikulua. Prezioa zehaztea.
310. artikulua. Irakaskuntza-jardunetarako kontratazio-araubidea.
2. atala. Zerbitzu-kontratua egikaritzea.
311. artikulua. Egikaritzea, kontratistaren erantzukizuna, eta zerbitzu-kontratuak betetzea.
312. artikulua. Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuen berezitasunak.
3. atala. Zerbitzu-kontratuak suntsiaraztea.
313. artikulua. Suntsiaraztearen kausak eta ondoreak.
4. atala. Akatsak konpontzea, kalte-ordainak eta erantzukizunak obra-proiektuak egiteko kontratuetan.
314. artikulua. Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea.
315. artikulua. Obrak egitean gertatutako desbideratzeen ondoriozko kalte-ordainak eta proiektuaren akats edo okerren ondoriozko erantzukizuna.
- Hirugarren liburua. Sektorre publikoko beste ente batzuen kontratuak.
- I. titulua. Administrazio publiko ez diren botere adjudikatzaileen kontratuak.
316. artikulua. Araubide juridikoa.
317. artikulua. Erregulazio harmonizatuko kontratuak prestatu eta adjudikatzea.
318. artikulua. Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak adjudikatzea.
319. artikulua. Ondoreak eta azkentzea.
320. artikulua. Proiektuko akatsen edo errakuntzen ondorioz kontratistak duen erantzukizuna.
- II. titulua. Botere adjudikatzaileak ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuak.
321. artikulua. Botere adjudikatzaileak ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuak adjudikatzea.

322. artikulua. Kontratuen ondoreak, aldaketak eta azkentzea. Proiektuko akatsen edo errakuntzen ondorioz kontratistak duen erantzukizuna.

Laugarren liburua. Kontratazioa kudeatzeko administrazio-antolakuntza.

I. titulua. Kontratazioko organo eskudunak.

I. kapitulua. Kontratazio-organok.

323. artikulua. Estatuko kontratazio-organok.

324. artikulua. Kontratatzeko baimena.

325. artikulua. Deskontzentrazioa.

II. kapitulua. Laguntza-organok.

326. artikulua. Kontratazio-mahaiak.

327. artikulua. Lehia-elkarrizketarako mahai berezia edo berrikuntzarako elkartzeko prozedurarakoa.

III. kapitulua. Aholku-organok.

328. artikulua. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea.

329. artikulua. Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzakomitea.

330. artikulua. Autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako kontratazio publikoaren arloko aholku-organok.

331. artikulua. Autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen informazio-ekarpena.

332. artikulua. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea.

333. artikulua. Ebaluazioko Bulego Nazionala.

334. artikulua. Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionala.

IV. kapitulua. Informazioa prestatu eta igortzea.

335. artikulua. Kontratuak Kontuen Auzitegira bidaltzea.

336. artikulua. Kontratuak adjudikatzeko prozedurei buruzko berariazko txostenak.

II. titulua. Erregistro ofizialak.

I. kapitulua. Lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak.

337. artikulua. Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Sektore Publikoko Erregistro Ofiziala.

338. artikulua. Inskripzioak eta ofiziozko argitalpenak.

339. artikulua. Inskripzioak, interesdunek eskatuta.

340. artikulua. Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeko eskumena.

341. artikulua. Lizitatzailen eta enpresa sailkatuen autonomia-erkidegoetako erregistroak.

342. artikulua. Borondatez inskribatzeko aukera.

343. artikulua. Erregistroko informazioa eguneratzea.

344. artikulua. Publikotasuna.

345. artikulua. Erregistroen arteko lankidetzak.

II. kapitulua. Sektore publikoko kontratuak erregistratzea.

346. artikulua. Sektore publikoko kontratuak erregistratzea.

III. titulua. Bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoko erabilia kontratuei buruzko publizitatea kudeatzea.

347. artikulua. Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma.



- Lehenengo xedapen gehigarria. Atzerrian kontratatzea.
- Bigarren xedapen gehigarria. Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenak.
- Hirugarren xedapen gehigarria. Toki-entitateetarako kontratazio publikoaren arau bereziak.
- Laugarren xedapen gehigarria. Kontratu erreserbatuak.
- Bosgarren xedapen gehigarria. Iragarkien argitalpena.
- Seigarren xedapen gehigarria. Unibertsitate publikoetan aplikatu beharreko xedapenak.
- Zazpigarren xedapen gehigarria. Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak.
- Zortzigarren xedapen gehigarria. Uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektoreetan egindako kontratuak.
- Bederatzigarren xedapen gehigarria. Datu-baseetarako sarbidea kontratatzeke eta argitalpenen harpidetza egiteko arau bereziak.
- Hamargarren xedapen gehigarria. Zenbatekoen eta epeen aldaketak, eta Europar Batasuneko zuzentzaruetako eranskinen ondoriozko beste aldaketa batzuk.
- Hamaikagarren xedapen gehigarria. Europar Batasunak finkatutako zenbatekoak eguneratzea.
- Hamabigarren xedapen gehigarria. Epeen zenbaketa.
- Hamahirugarren xedapen gehigarria. Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko aipamenak.
- Hamalaugarren xedapen gehigarria. Kontratazio-mahaietan legelariak ordezkatzeta.
- Hamabosgarren xedapen gehigarria. Lege honetan araututako prozeduretan erabili ahalko diren komunikazio-bideei buruzko arauak.
- Hamaseigarren xedapen gehigarria. Bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoko erabiltzea Legean araututako prozeduretan.
- Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Dokumentuen harrera elektronikorako tresnei eta dispositiboiei buruzko berariazko baldintzak.
- Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Irisgarritasun-bermea desgaitasunen bat duten pertsonentzat.
- Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitateak, Mutualitate Orokor Judizialak eta Indar Armatuaren Gizarte Institutuak osasun- eta farmazia-sorospeneke prestazioetarako egindako itunak.
- Hogeigarren xedapen gehigarria. Informazioa eta komunikazioak tratatzeko ekipamenduak eta sistemak eskuratzeko eskumenei buruzko arau bereziak.
- Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Atzerriko enpresekiko hornidura-kontratuak.
- Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak ekonomia mistoko sozietateei adjudikatzea.
- Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Kontratazio-arloko errekurtsio bereziak ebazten dituzten organoen arteko koordinazioa.
- Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Empresa de Transformación Agraria SA, SME, MP (TRAGSA) enpresaren eta haren filial Tecnologías y Servicios Agrarios SA, SME, MP (TRAGSATEC) enpresaren araubide juridikoa.
- Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalen babesa.
- Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Lurralde-lankidetzako talde europarrak.
- Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Osasun Sistema Nazionalerako sendagaiak eta osasun-produktuak eskuratzeko sistema zentralizatua.
- Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Administrazio publikoen zerbitzura dauden agintarien eta langileen erantzukizuna.
- Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Estatuko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako erakunde kontratatzaileen errekurtsioak ebazteko eskumena duten organoen araubidea.
- Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Estatuaren eskumenekoak diren autobideen emakidetan Ministro Kontseiluak baimena ematea.

Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Baterako esparru-hitzarmenak formalizatzea lan-bitartekaritza errazteko zerbitzuak kontrata daitezten.

Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Fakturak administrazio-erregistro batean aurkezteko eta organoak identifikatzeko betebeharra.

Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. Beharren araberako horniduren eta zerbitzuen kontratuak.

Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuei buruzko aipamenak.

Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. Datuak e-Certisen argitaratzea eta Sektore Publikoko Lizitazaien eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren zuzendaritzari buruzko txostena.

Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. IV. eranskineko zerbitzu berezien emakidarako kontratuen lizitaziorako deialdia.

Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. Isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak.

Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. Gastuak ez handitzea.

Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Estatuko Portuak erakundearen eta Portu Agintaritzen kontratazio-araubidea.

Berrogeigarren xedapen gehigarria. Telekomunikazioen sektoreko operadore publikoak.

Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. Arkitektura-, ingeniari-, aholkularitza- eta hirigintza-zerbitzuen kontratazio publikoaren berariazko arauak.

Berrogeita bigarren xedapen gehigarria. Pradoko Museo Nazionalaren eta Reina Sofía Zentroa Museo Nazionalaren merkataritza-jarduera.

Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. Zuzenbide pribatuaren araubidearen pean obra publikoak ustiatzearen edo zerbitzu publikoak ematearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoen izaera juridikoa.

Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. Estatuko organo konstituzionalen eta autonomia-erkidegoetako legegintza- eta kontrol-organoen kontratazio-araubidea.

Berrogeita bosgarren xedapen gehigarria. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoari igortzea.

Berrogeita seigarren xedapen gehigarria. Sektore publiko autonomikoaren eta tokikoaren kontratazioari buruzko informazioa Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoari igortzea.

Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. IV. eranskineko zerbitzu-emakidako kontratuei eta izaera sozialeko edo sanitarioko edo hezkuntza-izaerako zerbitzuetarako kontratuei aplikatu beharreko printzipioak.

Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuetako kontratu jakin batzuk antolakunde zehatz batzuentzat uztea.

Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Autonomia-erkidegoen legeria, izaera sozialeko zerbitzu publikoak emateko kontratuzkoak ez diren tresnei buruzkoa.

Berrogeita hamargarren xedapen gehigarria. Paradisu fiskalak.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Azpikontratistentzako zuzeneko ordainketak.

Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. Legean Ceuta eta Melilla hiri autonomoei buruz egiten diren aipamenak.

Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. Estatuaren titulartasuneko albiste-zerbitzu publikoa.

Lehenengo xedapen iragankorra. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako espedienteak eta adjudikatutako kontratuak.

Bigarren xedapen iragankorra. Ministerio-departamentuek berei atxikita dauden botere adjudikazailentzat zenbatekoak zehaztea.

Hirugarren xedapen iragankorra. Lizitazaien Erregistroan inskribatzea 159. artikuluko prozedura ireki sinplifikatuan.

Laugarren xedapen iragankorra. Bitarteko propio pertsonifikatuen estatutuak.

Bosgarren xedapen iragankorra. Kontrataziorako barne-jarraibideak.

Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehena. Eskumen-tituluak.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Foru Komunitatea.

Azken xedapenetako hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoa.

Azken xedapenetako laugarrena. Lege honetan araututako prozedurei eta bitarteko propio pertsonalizatuei aplikatu beharreko arauak.

Azken xedapenetako bosgarrena. Erkidegoko zuzenbidea txertatzea.

Azken xedapenetako seigarrena. Bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoen arloan arauak egiteko gaikuntza eta faktura elektronikoen erabilera.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloko negozio eta kontratuak egin daitezen sustatzea.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Tasa eta Prezio Publikoen Araubide Juridikoaren apirilaren 13ko 8/1989 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako hamargarrena. Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. Abenduaren 17ko 58/2003 Tributuen Lege Orokorraren lehen xedapen gehigarria aldatzea.

Azken xedapenetako hamabigarrena. Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina aldatzea.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako hamalauugarrena. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testuategina aldatzea (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen).

Azken xedapenetako hamabosgarrena. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako hamaseigarrena. Indarrean jartzea.

I. eranskina. 13. artikuluan jasotako lanak.

II. eranskina. Defentsa-arloko kontratazio-organismoek adjudikatutako hornidura-kontratuei dagokienez 21.1.a) artikuluan aipatutako produktuen zerrenda.

III. eranskina. Iragarkietan agertu beharreko informazioa.

IV. eranskina. 22.1.c) eta 135.5 artikuluek eta hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituzten zerbitzu bereziak.

V. eranskina. 201. artikuluan aipatzen diren gizarte- eta ingurumen-eremuetako nazioarteko hitzarmenen zerrenda.

VI. eranskina. Laugarren xedapen gehigarriak edo kontratu erreserbatuei buruzkoak aipatzen dituen zerbitzu eta horniduren CPV kodeak.

#### ATARIKOA

##### I

Kontratu publikoei buruzko legeriak, izaera nazional markatua duen arren, erakunde askoren funtsa gure mugetatik haratago aurkitzen du; zehazki, nazioarteko izaerako erakundeen araugintza-jardueraren barruan; erakunde horietako batzuk ELGA, UNCITRAL –NBERen eremuan– eta, bereziki, Europar Batasuna dira. Gure zuzenbide nazionala araudi horri egokitzeko eskakizunak eragin izan ditu, azken hogeita hamar urteetan, Espainiako lege-testuetan egiten joan diren erreforma gehien-gehienak.

Zehazki, gure ordenamenduan Europar Batasunaren xedapen berri bat sartu behar izatea da sektore publikoko kontratuei buruzko azken legearen justifikazioa, beste arrazoi batzuen artean; xedapen hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko

martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentaraua da, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratu publikoak adjudikatzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa.

Gaur den egunean, «Europa 2020 Estrategia» izenekoak markatutako legegintza-panorama baten aurrean gaude, eta horren barruan kontratazio publikoak funtsezko zeregin bat dauka, zeren eta barne-merkatuan oinarrituta egon behar duten eta hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaile bat lortzeko erabili behar diren tresnetako bat baita, funts publikoak arrazionaltasun ekonomiko handiagoz erabiliko direla bermatuko duena aldi berean.

Xede horrekin agertu ziren Europar Batasunaren hiru zuzentarau berriak; honako hauek, hain zuzen ere: 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa; 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten diren erakundeen kontratazioari buruzkoa, eta 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida kontratuen adjudikazioari buruzkoa, berritzaileena, aurrekaririk ez baitu Europako araudian.

Zuzentarau horiek Europar Batasunean 2010ean hasitako prozesu baten gailurra dira. Izan ere, hainbat proposamen eta negoziazioen ondoren, lehenengo Batzordean, gero Europar Batasunaren Kontseiluan eta azkenean Parlamentuaren eta Kontseiluaren artean, 2014ko urtarrilaren 15ean onetsi ziren azkenekoz; arau horiek 2014ko martxoaren 28ko EBAOn argitaratu ziren.

Zuzentarau berri horiek honako bi zuzentarau hauek ordezttera datoz: 2004/18/EE Zuzentaraua, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoak adjudikatzeko prozeduren koordinazioari buruzkoa, eta 2004/17/EE Zuzentaraua, ur-, energia-, garraio- eta posta-zerbitzuen sektoreetako adjudikazio-prozeduren koordinazioari buruzkoa. Biak ere orain dela hamarkada bat onetsi ziren, eta Espainiako antolamendu juridikora ekarrita zeuden, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen bitartez eta Ur-, energia-, garraio eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legearen bitartez –geroztik, 30/2007 Legea indargabetu zen, eta haren ordeztze Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez–.

Europar Batasunak, araudi horrekin, kontratazio publikoari buruzko arau indardunak berrikusi eta modernizatzeko prozesu bat eman du bukatutzat. Horren bitartez, gastu publikoa efizienteagoa izatea eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan parte-hartze handiagoa izatea lortu nahi du, bai eta botere publikoek kontratazioa helburu sozial komunen alde erabiltzea ere. Halaber, beharrezkoa zen zenbait oinarritzko nozio eta kontzeptu argitzea, segurtasun juridikoa bermatzeko, eta kontratazio publikoari buruz Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Jurisprudentziak azpimarratutako alderdi batzuk jasotzea; eta hori, halaber, zuzentarau horiek lortu dute.

## II

Lege honetan jasotako araupetzearen oinarrian, helburu hauek daude: lehenbizi, kontratazio publikoan gardentasun handiagoa lortzea eta, bigarrenik, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio hobea lortzea.

Azken helburu hori lortzeko, lehenengo aldiz ezartzen da kontratazio-organismoek adjudikazio-irizpideen diseinua zaintzeko betebeharrak izango dutela, horren bidez kalitate handiko obrak, hornidurak eta zerbitzuak lortzeko; zehazki, kontratuaren objektuari lotutako alderdi kualitatiboak, ingurumenekoak, sozialak eta berritzaileak sartuz.

Hemen, halaber, izapideak sinplifikatzeko beharrari erantzuten zaio, eta, horrekin, lizitatzailerei burokrasia arintzeko beharrari eta enpresa txiki eta ertainei sarbide egokiagoa emateko beharrari. Lizitazio-prozesuak errazagoa izan behar du, eta asmoa da eremu honetan esku hartzen duten operadore ekonomiko guztien karga administratiboak gutxitzea eta, hala, mesede egitea bai lizitatzailerei eta bai kontratazio-organoei.

Arau zorrotzagoak sartzen dira, bai enpresen onerako, bai haietako langileen onerako, halako moduz non arau berriek arloari buruzko xedapenak gogortzen baitituzte eskaintza «nabarmenki baxuegiei» dagokienez. Hartara, ezartzen da kontratazio-organismoek eskaintzak baztertu egingo dituztela baldin eta egiaztatzen badute nabarmenki baxuegiak direla ez

dituztelako betetzen ingurumenaren arloan, arlo sozialean edo lan-arloan aplikatzekoak diren betebeharrak.

Azkenik, komeni da esatea ezen lege honen bitartez Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen direla emakidarako kontratuen adjudikazioari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua eta Kontratazio Publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB zuzentaraua, eta berriazko beste lege baterako uzten dela, berriz, Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten diren erakundeen kontratazioari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentaruaren transposizioa, eta lege horrek sartuko duela sektore horiei aplikatzekoa zaien 2014/23/EB Zuzentaruaren zatia Espainiako ordenamendu juridikoan.

Halaber, nabarmendu beharra dago ezen, lege honen arrazoi erabakigarria bada ere aipatutako bi zuzentaruaren transposizioa egitea, ez dela hori daukan helburu bakarra. Hartara, lege honek, abiapuntutzat transposizio hori badu ere, ez da horretara mugatzen; izan ere, kontratazio publikorako sistema efizienteagoa, gardenagoa eta osoagoa diseinatu nahi izan du, haren bidez helburu publikoak hobeki bete daitezela lortzeko, bai kontratazio-organoen beharrak betetz, bai operadore ekonomikoek lizitazio publikoetan sartzeko eta haietan parte hartzeko baldintzak hobetuz, bai eta, noski, haien erabiltzaileei zerbitzu hobek emanez ere.

### III

Lege honetan kontratazio publikorako ezartzen den lege-sistemak arau indardunak argitzea du helburu, segurtasun juridiko handiagoa izate aldera, eta lortu nahi du kontratazio publikoa tresna gisa erabil dadila honako arlo hauetako Europako eta nazioko politikak ezartzeko: gizarte arloa, ingurumena, berrikuntza eta garapena, enpresa txiki eta ertainen sustapena eta lehiaren defentsa. Gai horiek guztiak legearen egiazko helburuak dira, eta une oro lortu nahi da gastu publikoaren efizientzia eta tratu-berdintasunaren, diskriminazio ezaren, gardentasunaren, proportzionaltasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatzea.

Sistema honetan, 2007ko erregulazioak sortutako eskemari jarraitzen zaio; izan ere, sistema horrek xedatzen du botere adjudikatzaileraren kontzeptua dela legearen aplikaziorako ardatzetako bat, eta hori hala ezartzen da Europar Batasunaren 2004ko zuzentaraua Espainiako zuzenbidean sartzearen ondorioz. Tradizioz, kontratu publikoei buruzko araudia Administrazio Publikoaren kontratuaren kontzeptuaren inguruan ardatzu ohi zen. Europar Batasunaren aurreko zuzentaruak sartzek, baina, planteamendua aldatzea ekarri zuen berekin –eta orain, lege berrian, aldaketa horri eusten zaio, salbu eta kontrataziorako barne-jarraibideei dagokienean–, eta horrek aukera eman zuen kontratu publikoen araubide juridikoak bereizteko erakunde kontratatzailea botere adjudikatzaila izatearen ala ez izatearen arabera. Hala eta guztiz ere, planteamendu-aldaketa horrek ez du eragozten administrazio publikoen kontratuen erregulazioa izatea orain ere lege honen enborra eta sektore publikoko erakundeek egiten duten edozein kontratuen erreferentzia, bai bere xedapen orokorretan, bai kontratu mota bakoitzari dagozkion xedapenetan.

Ikuspuntu objektibo batetik, kontratu publikoak erregulatzeko lege honetako sistema oinarritzen den beste funtsezko ardatza, aurreko erregulazioan bertan bezala, erregulazio harmonizatukoak diren kontratuen eta erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuen artean egiten den bereizkuntza da, zeina oinarritzen baita zenbateko ekonomiko jakin batzuk –edo Europar Batasuneko atalaseak– gainditzean; eta horrek aukera ematen digu horietako bakoitzean aplikatzen den araubide juridikoa bereizteko: 2007ko erregulaziotik datorren araubidea da bakoitzarena gaur egun ere.

### IV

Lege honen artikulua honela egituratu dira: atariko titulu bat, zeinean arlo honetako xedapen orokorrak jaso baitira, eta ondoz ondoko lau liburu. Honako gai hauek jorratzen dituzte liburu horiek: sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak (I. liburua); administrazio-kontratuen prestaketa,

kontrataren hautaketa eta kontratu horien adjudikazioa, bai eta kontratu horien ondoreak, betetzea eta azkentzea ere (II. liburua); sektore publikoko beste ente batzuen kontratuak (III. liburua), eta, azkenik, kontratazioaren kudeaketari begirako antolamendu administratiboa (IV. liburua).

Lege honen berritasun nagusiak artikuluko guztietan zehar sartu dira. Halere, obra-kontratuari, hornidura-kontratuari eta zerbitzu-kontratuari dagokien araubide juridiko berriazkoa salbuetsi da; izan ere, araubide horren xedapenetan ez da aldaketa askorik sartu, gai oso jakin batzuetan ez bada.

Atariko tituluan, xedapen orokorreki buruzkoan, legea aplikatu beharreko hiru mailak mantentzen dira haren eremua egituratzen duten sektore publikoko erakundeei dagokienez; halaber, konfigurazio negatibo tradizionalari eusten zaio, alegia, hartan erregulatu gabeko kontratu eta negozioak kanpo uztekoari.

Kontratu-moten zedarritzeari dagokionez, eremu horretako berritasun nagusiak emakidarako kontratuaren araupetzean, kontratu mistoan eta lankidetzara publiko-pribatuko kontratuan sartu dira; azken hori kendu egin da.

Emakiden eremuan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren figura desagertu da, eta, horrekin batera, aurreko testu bateginaren 277. artikuluan zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa-moduez egiten zen erregulazioa. Horren ordean, emakidarako kontratuaren adjudikazioari buruzko zuzentarau berriaren indarrez, zerbitzu-emakidaren figura berria sortzen da, zeina lehendik existitzen zen obren emakidaren figurari gehitzen baitzaio emakiden kategoriaren barruan.

Hala ere, eusten zaio obra-emakidako kontratu bat edo zerbitzu-emakidako kontratu bat ekonomia mistoko sozietate bati zuzenean adjudikatzeko aukerari, hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotako eran, honako hauetan jasotako irizpideari jarraituz: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ACOSSET kasuari buruz emandako epaia (196/08 epaia) eta Europako Batzordearen 2008ko otsailaren 5eko Interpretazio-komunikazioa (kontratazio publikoaren arloan eta lankidetzara publiko-pribatu instituzionalizatuko emakidetan Europar Batasuneko zuzenbidea aplikatzeari buruzkoa).

Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuei dagokienez, nabarmendu beharra dago bi figura horietan nahitaez transferitu behar diola Administrazioak emakidadunari eragiketa-arriskua. Legearen 14. artikuluan zedarritzen da, emakidarako kontratuaren adjudikazioari buruzko zuzentarau berriaren ezarritakoaren ildotik, zer kasutan iritziko zaion emakidadunak bere gain hartzen duela eragiketa-arrisku hori.

Bestalde, jakina den bezala, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua, lege honen erregulaziora bitarte, zerbitzua zeharka kudeatzeko kasu bat zen, eta horrek berekin ekartzen zuen kontratu horren bitartez Administrazioak hirugarren bati agintzen ziola, enpresaburuari (normalean, emakidaduna), zerbitzu publiko jakin baten kudeaketa. Zerbitzua kudeatzen zuena, horrenbestez, enpresaburu edo emakidaduna zen; hori zela eta, zerbitzuaren erabilerari zegokion guztian, zuzeneko harreman bat ezartzen zen emakidadunaren eta zerbitzu horren erabiltzailearen artean.

Beraz, zerbitzu publikoa kudeatzen zuena eta –horrenbestez– erabiltzailearekin harremanak zeuzkana emakidaduna zen neurrian, alde aurretik zehaztu beharra zegoen zerbitzu horren oinarriko araubide juridikoa, eskumenak banatzeko eta administratuen aldeko prestazioak zehazteko. Halaber, ezarri beharra zegoen emakidadunak egiten zuen jarduera kasuan kasuko Administrazioak hartzen zuela bere gain, zeren eta ez baitzuen Administrazioak berak ematen zerbitzu hori zuzenean.

Azken batean, bi harreman mota zeuden: Administrazioaren eta enpresaburu edo emakidadunaren artean ezartzen zena, zeina kontratu bidezkoa baitzen (zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua), eta emakidadunaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen artean ezartzen zena, zeina ematen zen zerbitzuaren berezko araubidearen arabera erregulatzen baitzen.

Aitzitik, zerbitzu-kontratu baten objektu izan zitezkeen prestazioetan, Administrazioa zen haiek ematen zituena eta, horrenbestez, erabiltzailearekin harremanetan jartzen zena, eta bera zen bitartekoak aski ez baziren enpresaburu partikular batekin kontratu bat egiten zuena (zerbitzu-kontratua).



Bada, eskema horretan jartzen du azpimarra 2014/23/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, emakidarako kontratuak adjudikatzeari buruzkoak. Zuzentaru horren arabera, zerbitzu-emakidako kontratua eta zerbitzu-kontratua bereizten dituen irizpidea da, arestian aipatu den bezala, eragiketa-arriskua nor hartzen duen bere gain. Kontratistak hartzen badu bere gain, zerbitzu-emakidako kontratua izango da. Aitzitik, eragiketa-arriskua Administrazioak hartzen badu bere gain, zerbitzu-kontratu bat izango da.

Lege honek bereganatu egin du zerbitzu-emakidako kontratua eta zerbitzu-kontratua zedarrizten dituen irizpide hori bera. Hori dela eta, orain arte indarrean egon den araubide juridikoaren arabera zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratutzat sailkatzen ziren kontratu jakin batzuk, zeinetan enpresaburuak ez baitzuen eragiketa-arriskua bere gain hartzen, orain zerbitzu-kontratuak izango dira. Halere, sailkapen-aldaketa horrek ez dakar berekin kontratu honetatik heldu diren harreman juridikoen egituran aldaketarik izatea: haren bidez, izan ere, enpresaburua administrazio publiko baten titulartasuna duen zerbitzu bat kudeatzen hasiko da, eta harremanak enpresaburuaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen artean ezarriko dira zuzenean.

Hori dela eta, aurreko paragrafoan aipatzen den kontratuaren eta zerbitzu-emakidako kontratuaren arteko desberdintasuna denez eragiketa-arriskua enpresaburuak bere gain hartzen duen ala ez duen hartzen, zerbitzua emateko araubideari buruzko guztiak antzekoa izan beharko du. Hori dela eta, artikulua sartu da, 312.a, zeinean zerbitzu publikoak kudeatzeko antzinako kontratuaren arau berariazkoak jasotzen baitira, kontratatzen den zerbitzu publikoaren araubide substantiboari buruzkoak izan eta erregulazio berriak komunak direnak bai zerbitzuen emakidarako kontratuetan –zerbitzu horiek publikoak direnean, horixe izango baita kasurik orokorra–, bai zerbitzu-kontratuetan –enpresaburuak zerbitzuaren erabiltzaileari zuzenean ematen dion zerbitzu publiko bati buruzkoa denean–.

Aurreko legeriaren arabera zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak izan eta lege honetan zerbitzu-kontratu izatera pasatu direnak identifikatzeko, haien ezaugarrietako bati erreparatu zaio: harremana enpresaburuaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen artean zuzenean ezartzen dela; horregatik izendatzen dira esanez herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuak direla.

Azkenik, horri dagokionez, legeak, 2014/23/EB Zuzentaruari jarraituz, ez du mugatzen zerbitzuen emakida zerbitzu publikotzat kalifika daitezkeen zerbitzuetara. Horrenbestez, zerbitzuen emakida dela eta, zenbait arauen aplikazio berariazko eta berezitua ezartzen da emakida hori zerbitzu publikoei buruzkoa denean. Esate baterako, zerbitzu horien arestian aipatutako arau berariazkoen aplikazioa, hau da, haien araubide juridikoa ezartzea eta, besteak beste, zerbitzu-emateari buruzko alderdi juridiko, ekonomiko eta administratiboak (haien «publicatio» deitu ohi dena); ondasun atxikiak ezin enbargatzea; zerbitzu publikoa bahitzea edo hartan esku hartzea; zerbitzu publikoaren erreskatea; eta polizia-botereez baliatzea kasuan kasuko zerbitzu publikoaren martxa egokiari dagokionez.

Bestalde, esan beharra dago zerbitzu publikoek orain ere askatasuna izango dutela beren kabuz zerbitzu-kategoria jakin batzuk emateko; zehazki, pertsonentzako zerbitzu gisa ezagutzen direnak. Horien adibide dira zenbait gizarte- eta osasun-zerbitzu, farmazia-zerbitzuak barne, eta hezkuntza-zerbitzuak. Edo haiek halako moduz antolatu ahal izango dituzte, non ez den beharrezkoa izango kontratu publikorik egitea; esate baterako, zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzaileak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanez, mugarik edo kuotarik gabe, baldin eta sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatzen badu eta gardentasun-printzipioa eta diskriminazio-ezaren printzipioa betetzen baditu.

Kontratu mistoaren araupetzean, kontratuaren prestaketa eta adjudikazioa bereizten dira; azken horretan, zuzentaruak ezartzen dituzten arauak, ondoreak eta azkentzea jasotzen dira. Prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, arau orokorra da kontratu mistoari aplikatzen zaizkiola, kasuan-kasuan, prestazio nagusiari edo balio zenbatetsi handiena duenari dagokion kontratuaren arauak. Ondoreei eta azkentzeari dagokienez, kasuko administrazio-klausulen agiritan ezarritakora bidaltzen gaitu legeak.

Lankidetzaren publiko-pribatuko kontratuaren figura, berriz, kendu egin da, figura horrek praktikan erabilgarritasun eskasa izan duela eta. Esperientziak erakutsi du kontratu horren

objektua beste kontratu-modalitate batzuen bitartez gauza daitekeela; nagusiki, emakidarako kontratuaren bitartez.

Defentsaren eta Segurtasunaren eremuan egindako obretarako, horniduretarako eta zerbitzuetarako kontratuei dagokienez, haiek beren lege berariazkoaren arabera arautuko dira aurrerantzean ere, hartan zehaztutako kasuetan. Hala eta guztiz ere, eremu horietan beraietan egindako obra- eta zerbitzu-emakidak bai lotzen zaizkio lege honi.

Azkenik, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratuak xede dituzten kontratazio-prozedurei dagokienez, sistema logiko bat ezarri nahi izan da, dagozkion zuzentarauekin bat datorrena, haiei edo lege hau bera aplikatzeko, edo aipatutako sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko legea aplikatzeko. Hartara, lege honek arautuko ditu administrazio publikotzat hartzen diren erakundeek egiten dituzten kontratu guztiak, zein sektoreri dagozkion alde batera utzita.

Administrazio publikotzat hartzen ez diren erakundeek egiten dituzten kontratuak, berriz, Ur, energia, garraio eta telekomunikazio alorretan erabili beharreko kontratazio-prozedurei buruzko Legeak arautuko ditu eremu horietan jarduten denean eta kontratuak sektore horietako kontratazio-prozedurei buruzko aipatutako legean ezarritako atalaseak gainditzen dituztenean. Aitzitik, administrazio publikotzat hartzen ez diren erakundeek atalase horiek gainditzen ez dituzten kontratuak egiten badituzte, nahiz eta jarduera uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako izan, lege hau aplikatuko zaie.

I. liburuan, sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorrari eta kontratuen egiturazko elementuei buruzkoan, lehenbizi honako hauek agertzen dira: Administrazioaren «bitarteko propioa» deitutakoaren arautze berria, kudeaketa-esleipenak edo «in house» deitutakoaren teknikaren aplikazio praktikoa; teknika horri, izan ere, honela deituko zaio hemendik aurrera: «bitarteko propioei egindako mandatuak». Hartara, sektore publikoko erakundeek elkarri emandako mandatuaren kasuak aurkituko ditugu, nola baitira bitarteko propio pertsonifikatuen bitartez prestazioak zuzenean emateko kasuak, eta bereizi beharko da botere adjudikatzaile batek emandako mandatuaren eta botere adjudikatzailetzat hartzen ez den beste erakunde batek emandakoaren artean, eta eutsi egingo zaie Administrazio Publikoak enpresaburu partikularren lankidetzarekin nahiz baliabide propio ez-pertsonifikatuen bitartez prestazioak zuzenean emateko kasuei ere. Legean, kontratazioari buruzko zuzentarau berriaren jarraibideei jarraituz, gehiagotu egin dira erakunde hauek bete behar dituzten eskakizunak, eta, horrekin, saihestu egiten da lehia askearen printzipioari kalte egin diezaioketen zuzeneko adjudikazioak egitea. Hemen, baldintza hauek aurkitzen dira, esate baterako: «bitarteko propioetat» hartzen den erakundeak bitarteko pertsonal eta material egokiak eduki ditzala ematen zaion mandatua betetzeko, gainetik duen botere adjudikatzailearen baimena izan dezala, enpresa pribatu baten partaidetzarik ez dezala izan eta merkatuan ezin dezala aurrera eraman libreki bere jardueraren ehuneko 20 baino gehiago.

I. liburuaren barruan, deuseztasunaren gaia kentzen da, baina haren kausak balioarazi ahalko dira kontratazio-arloko errekurtsio bereziaren bitartez; eta sektore publikoko kontratuen baliogabetasun-araubidearen araupetzeari eta kontratazio-arloko errekurtsio bereziari eusten zaie.

Errekurtsio horren aplikazio-eremua zabaltzen da, baina zabaltze horrek ez du ukitzen sistemak errekurtsio horiek ebazterakoan eduki beharreko arintasuna, eta erregulazio harmonizatuko kontratuei lotuta egoteari uzten dio, halako moduz non errekurtsio hori aurkeztu ahalko baita obra-kontratuetan eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuetan, haien balio zenbatetsia hiru milioitik gorakoa denean, bai eta zerbitzu- eta hornidura-kontratuetan ere, haien balioa ehun mila eurotik gorakoa denean.

Errekurtsioak, gaur egun bezala, aukerakoa izaten jarraitzen du, eta etete-efektu automatikoak izango ditu errekurtsioa aurkeztutako egintza adjudikazioarena denean, salbu eta esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen edo eskuratzeko-sistema dinamiko baten esparruko berariazko kontratuen kasuan. Azken salbuespen horren funtsa da horrelako kontratuetan nahitaezko etete-epe bat egoteak eragina izan lezakeela lizitazio-prozedura horiekin lortu nahi den efizientzia-handitzeetan, Kontratu publikoen adjudikazioaren arloko errekurtsio-prozeduren eraginkortasuna hobetzeari dagokionez 89/665/EEE eta 92/13/EEE



zuzentarauak aldatzen dituen 2007/66/EE Zuzentarauaren 9. kontuan hartuzkoan ezartzen den bezala.

Errekurtso bereziari buruzko aipamena amaitzeko, azken hori honako hauen aurka aurkeztu ahalko da: lizitazio-iragarkia, baldintza-agiriak, kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriak, lege honen baldintzak betetzen dituzten izapide-ekintzak, botere adjudikatzailerik hartutako adjudikazio-erabakiak, bai eta kontratu-aldaketak, bitarteko propioentzako mandatuak –lege honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak– eta emakidak erreskatatzeko erabakiak ere.

I. liburu honen barruan, halaber, ustelkeriaren aurkako borrokari eta interes-gatazken prebentzioari buruzko arau berezi bat jasotzen da; haren bidez, kontratazio-organoei ezarri nahi zaie iruzurraren, faboritismoaren eta ustelkeriaren aurkako neurri egokiak hartzeko betebeharra, bai eta lizitazio-prozeduretan sor daitezkeen interes-gatazkek egiazki prebenitzeko, detektatzeko eta konpontzeko neurri egokiak ere. Ustelkeriaren aurkako neurrien ildotik, kontratatzeko debekuen araupetze berri bat dago, zeinak debeku-kasuak gehitzen baititu, gisa horretako adierazpen baten eskumena, prozedura eta ondorioak aldatuz; aldi berean, Europar Batasuneko zuzentarauak «autozuzenketarako neurri» deitutakoan transposizioa egiten du, halako moduz non kontratatzeko debeku jakin batzuk ez diren deklaratu edo ez diren aplikatu, kasuan-kasuan, enpresak zilegi ez den jokabideak sortutako kalteei konponbidea emateko hartu beharreko neurriak hartzen dituenean lege honetan arautzen diren baldintzetan.

Halaber, liburu honen barruan, enpresen sailkapenaren erregulazioa nabarmentzen da, eta hartan sartzen dira arlo horretan orain arte izan diren azken legegintza-neurri berriak.

Halaber, haiek homogeneousatzeari begira, aurreko testu bateginean erabiltzen ziren adierazpide batzuek berrikusi dira, kontratuen balioa aipatzekoak –esate baterako, «zenbatekoa» edo «kontratuaren kopurua»–, eta gehienetan kontratuaren «balio zenbatetsia» adierazpidea erabili da, horixe baita zuzena. Kontzeptu hori ederki zedarrituta dago lege berrian, «lizitazioaren oinarritzko aurrekontua» edo «kontratuaren prezioa» kontzeptuak dauden bezalaxe; hartara, izan ere, haien arteko nahaste oro saihesten da.

Bestalde, kontratu publikoen prezioen berrikuspenari buruzko arauak egokitzen dira Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legean ezarritakoaren arabera, halako moduz non prezioak ez diren berrikusiko adierazle orokorren bitartez, baizik eta berriazko adierazleen bitartez, zeinek kontratatutako prestazioaren kostuaren osagaiak islatzen dituzten formulen bitartez operatuko baitute.

II. liburuan, kontratuen prestaketari buruzko atalaren barruan, merkatuari buruzko alde aurretiko kontsulten erregulazioa sartzen da, lizitazioa zuzen prestatzeko eta operadore ekonomikoei informazioa emateko kasuko organoaren kontratazio-planei buruz eta prozeduran aurkezteko exijituko diren baldintzei buruz.

Aztergai diren obra, produktu, zerbitzu, prozesu edo prozedurek zenbait baldintza betetzen dituztela berresten dituzten egiaztatze-bide berrien araupetzea zabaltzen da, eta, horretarako, hemen etiketa berriak, froga-txostenak, ziurtagiriak eta bestelako bitartekoak sartzen dira. Bestalde, zuzentaru berrietan ezarritako kontratuen publizitatearen Europako Erkidegoko araubidea jasotzen da; araubide hori, zuzentaru horiek ahalbidetzen duten tartearen barruan, ahal den guztian sinplifikatu nahi izan da, kontratazio-organoei egiten dituzten kontratuei buruzko iragarkiak argitara emateko lana errazteko.

Administrazio publikoen kontratuen adjudikazioaren erregulazioan, erantzukizunpeko deklarazioaren araupetzea nabarmentzen da bereziki; izan ere, horren edukiak kontratazioari buruzko zuzentaru berrian ezarritakoa jasotzen du, eta bat dator Europako Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Exekuzio Erregelamenduan ezarritako Europako kontratazio agiri bakarraren formularioarekin; halaber, nabarmentzekoak dira bizi-zikloaren eta eskaintza nabarmenki baxuegien definizioa eta kostuaren kalkulua.

Adjudikazio-prozedurei dagokien atalean, gaur arte existitu diren prozedurez gainera –prozedura irekia, negoziatua, lehia-elkarrizketa eta prozedura murriztua; azken hori, egoki-egokia izaera intelektuala duten prestazioak xede dituzten kontratuen adjudikaziorako, nola baitira ingeniarietako eta arkitekturako zerbitzuak–, «berrikuntzarako elkartzeara» deitutako prozedura berri bat sartzen da, zeinari buruz aurrerago hitz egingo baitugu.

Prozedura irekiaren eremuan, prozedura ireki sinplifikatuaren figura sortzen da, zeina aplikatzekoa izango baita atalase jakin batzuetara bitarte, eta sortu ere sortzen da prozedura oso arin bat izateko bokazioarekin, bere diseinuagatik ahalbidetu beharko lukeena kontratua adjudikatuta egon dadila lizitazioarako deia egin eta hilabeteko epean. Haren izapideak ahal den guztian sinplifikatu dira. Esate baterako, agiria gutun-azal bakarrean aurkeztuko da; ez da eskatuko behin-behineko bermerik eratzea; nahitaezkoa izango da lizitazioaren erregistroan izena ematea, eta gastu-konpromisoaren fiskalizazioa une bakarrean egingo da, adjudikazioa baino lehen.

Prozedura negoziatuari dagokionez, prozedura negoziatua –publizitadeduna eta publizitaterik gabekoa– zenbatekoa dela-eta erabiltzeko aukera kentzen da, eta prozedura horren aplikazioa kentzen da obra eta zerbitzu osagarrien kasuan; eta lizitazioarekin lehia-ekarritzetan eskuratu ahal zaizkien sarien eta konpentsazioen erregulazio berri bat agertzen da.

Kontratuak egikaritzeari buruzko atalari dagokionez, aipamen berezi bat egin beharra dago kontratua aldatzeko araubideak dakarren berritasunari buruz, Europar Batasuneko zuzentarauetan ezarritakoaren ildotik –lehenengo aldiz arautzen dute gai hori–, eta beste aipamen berezi bat, era berean, azpikontratazioari eta kontratazioaren arrazionalizatzeko teknikorako neurriei buruz. Horiek bi elementutan egituraturik daude: esparru-akordioak eta eskuratzeko sistema dinamikoak. Horretan, lege honetan kontratazio zentralizatua dela-eta ezartzen den araubide berria nabarmentzen da. Arlo hau guztia, kontratazio teknikoki arrazionalizatzea, bigarren liburuaren I. tituluaren barruko berariazko kapitulu batean arautzen da, kontratuen prestaketari eta adjudikazioari buruzko arauetz bestekoa bera, zeren eta hark substantibotasun propioa baitu eta, hura arautzen duten artikulua asko kontratuen prestatze eta adjudikatze horretan sartzen badira ere, beste batzuek efektuei eta azkentzeari buruzko alderdiak arautzen baitituzte.

III. liburuan, administrazio publikoa ez diren botere adjudikazioaren kontratuen erregulazioa jasotzen da; horretan, berritasun nagusia da kontratazioarako jarraibideak kendu direla, eta gauza bera egin da botere adjudikazioaren izaera ez duten sektore publikoko gainerako enteen kasuan ere. Aplikatzekoa zaien erregulazioa argiro ezartzen da. Aurrez esan den bezala, erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetarako, jarraibideak ezabatzen dira botere adjudikazioarekin administrazio publikoak ez diren kasurako; izan ere, kontratu horiek adjudikatu beharko dira administrazio publiko horietarako ezarri diren prozedura berak erabiliz, baina aukera ematen da horietatik edozein modu berezi gabe erabili ahal izateko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izan ezik, azken hori aipatutako administrazioek erabil dezaketenean kasu berdinetan erabili ahalko baita. Bestalde, nabarmendu beharra dago Administrazioaren beharrezko baimena sartzen dela, Estatuko Kontseiluak aurrez irizpena emanda, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorako aldaketetarako (BEZik gabe) tutoretzarako edo atxikitzerako, sei milioi eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen kasuan.

IV. liburuan, estatu mailako hiru kide anitzeko organoren arabeko eskema bat ezartzen da, anbizio handikoa, bi helbururekin: Europako zuzentzarauak ezartzen dituzten gobernantza-betebeharrak betetzea eta kontratazio publikoari buruzko legeriaren aplikazioaren arloko irregulartasunen aurka egitea.

Lehenbizi, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea, zeina Europako Batzordearekiko lankidetzarako erreferentziako puntu gisa izendatzen baita eta, horrenbestez, Europar Batasuneko zuzentzarauetan ezartzen diren txostenak igortzeko betebeharra esleitzen baitzaio; izan ere, Aholku Batzordea erregulazio- eta kontsulta-organo espezifikoak izango da aurrerantzean ere Estatuko sektore publikoaren kontratazio publikoaren arloan.

Bigarrenik, Aholku Batzordearen barruan Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzako Komitea deitutakoa sortzen da, autonomia-erkidegoekin eta toki-entitateekin batera jarduteko arloetan koordinazioarako eta lankidetzarako espazio bat artikulatzeko nagusiki, bai eta Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionalaren proposamena egiteko ere; hori,

halere, ez da eragozpena autonomia-erkidegoek, beren lurralde-eremuetarako, lehenengoarekin koherenteak diren estrategiak onets ditzaten.

Hirugarrenik, Kontratazioa Gainbegiratzeko Bulegoa sortzen da, estatu-mailakoa hura ere, eta independentzia organiko eta funtzional osoa izango du. Lehendakari batek eta lau kidek osatuko dute, eta independenteak eta mugiezinak izango dira. Bulegoak urtero Gorte Nagusiei eta Kontuen Auzitegiari eman beharko die bere jarduketan berri. Bulegoak sektore publiko osoko botere adjudikatzailen kontratazio publikoaren arloko gainbegiratzeko-lana koordinatu beharko du, arlo horretako legeria zuzen aplikatzen dela zaintzeko, zeren eta autonomia-erkidegoek beren gainbegiratzeko-bulego propioak sortu ahalko baitituzte. Bulegoak ahalmena izango du fiskaltzari edo organo judizial zein administratibo eskudunei delitu edo arau-hauste diren egitateak jakinarazteko, haien berri baldin badu. Gainera, aipatutako Estrategia Nazionala onesteko organo eskuduna da; horren exekuzioan sartuta egongo dira jada aipatu diren hiru organoak, bai eta maila autonomikoko haien baliokideak ere.

Gainera, IV. liburuan kontratazio-mahaiaren araupetze berri bat egiten da, bai eta Kontuen Auzitegiari edo autonomia-erkidegoko dagokion organoari fiskalizazio-informazioa igortzeko betebeharrarena ere.

Azkenik, atal honetan, testuaren III. eranskinean, iragarkietan ageri behar den informazioa jasotzen da; informazio hori Europako Batzordeak normalizatu du, Batzordearen 2015eko azaroaren 11ko 2015/1986 Exekuzio Erregelamenduan; horren bidez, izan ere, formulario normalizatuak ezartzen dira kontratazio publikoaren eremuko iragarkiak argitaratzeko, eta indarrrik gabe uzten da 842/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua.

## V

Edukiari dagokionez, lege honen taxutzea gidatu duten Europako zuzentarau eta printzipioak erreferentzia gisa hartuta, berritasun nagusiek zerikusia dute, lehenengo, haren aplikazio-eremuarekin, zeinaren barruan eremu subjektiboa zabaldu baita, arau horiek lotuta ez dauden erakundeei ere aplikatzeari begira.

Hartara, honako hauek ere sartu dira: alderdi politikoak, sindikatu- eta enpresa-erakundeak, bai eta horietako edozeini lotutako fundazio eta elkarteak ere. Horretarako baldintza da inguruabar batzuk betetzea; esate baterako, haien finantzaketa nagusiki publikoa izatea, erregulazio harmonizatuaren peko kontratuei dagokienez. Bestalde, eremu subjektiboaren barruan sartutako erakundeen tipologia egokitu da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera. Aplikazioaren eremu objektiboan, zehatzago egituratu da zein diren kontratuei buruzko legerian sartzen ez diren kontratuak eta negozio juridikoak, eta zenbait kasu argitu dira –hala nola ondare arloko kontratuak–, baita kasu berriren bat gehitu ere –kanpaina politikoak egiteko kontratuak, kasurako, aurrerantzean ez baitira lege honen arauen menpe egongo–.

Kontratu publikoetan kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak, berrikuntzakoak eta garapenekoak jaso dira. Kontsiderazio horiek jaso ahalko dira bai adjudikazio-irizpideak diseinatzean, bai kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko irizpide kualitatiboak diseinatzean, edo exekuziorako baldintza berezi gisa; haiek sartzeko baldintza, halere, egin beharreko kontratuaren objektuarekin lotuta egotea izango da. Bereziki, exekuziorako baldintza berezien kasuan, legeak ezartzen du kontratazio-organismoaren betebeharra dela baldintza-agirian jasotzea 202. artikuluan ingurumena, arlo soziala edo enplegua direla-eta zerrendatzen diren exekuziorako baldintza berezietatik bat gutxienez ere.

Ingurumenaren eremuan, ingurumen-kudeaketarako ziurtagiriak exijitzen zaizkie enpresa lizitatzailerei, kaudimen teknikorako baldintza gisa; hau da, ingurumena babesteko eremuan enpresa horiek duten esperientzia edo «jardunbide ona» egiaztatzeko. Gai sozialei dagokienez, enplegu zentro berezietan erreserbatutako kontratuak arautzen jarraitzen da, edo enplegu babestuko programen esparruan haien exekuzioa erreserbatzeko aukera, erreserba hori zabalduz laneratzeko enpresetara, eta aipatutako erakunde guztiei galdatuz plantillan izan dezatela dagokien erregulazioan ezartzen den langile desgaituen ehunekoa.

Desgaitasunaren eremuan, sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko debekuaren kausatzat jasotzen da 50 langile edo gehiago dauzkaten enpresetan langile horien gutxienez ere ehuneko 2 desgaitasuna dutenak izateko baldintza ez betetzea; gai hori jada aurreratuta dago orain arte indarrean egon den Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak egin zuen aldaketarekin.

Gainera, giza eskubideekiko errespetuari eta bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako langileen eta ekoizle txikien eskubideekiko errespetuari bide emateko asmoz, aukera bat sartzen da bai adjudikazio-irizpideek, bai exekuziorako baldintza bereziek ekoizpen-eta merkaturatze-prozesuko alderdi sozialak jaso ditzaten kasuan kasuko kontratuaren arabera egin beharreko obretan, horniduretan edo zerbitzuetan; eta, bereziki, eskatu ahalko da prozesu horrek bete ditzala bidezko merkataritzari eta garapenari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpenak (2005/2245(INI)) 2. apartatuan ezartzen dituen bidezko merkataritzaren printzipioak.

Berrikuntzaren eta garapenaren eremuan, enpresa berritzaileen alde egiteko ideiarekin, bereziki nabarmentzen da berrikuntzarako elkartzeko prozedura berria sartu dela; izan ere, prozedura hori berriaz aurreikusi da obra, zerbitzu eta produktu berritzaileei dagozkien ikerketa- eta garapen-jarduerak egitea beharrezkoa den kasuetarako, Administrazioak gero haiek eskura ditzan. Kasu horiek, beraz, merkaturatze aukeran dauden konponbideek kontratazio-organoaren beharrak betetzen ez dituzten kasuak dira.

Prozedura berri horri dagokionez, zuzentarau berriak prozesu bat marrazten du, non lizitaziorako deialdi bat egin ondoren edozein enpresaburuk parte hartzeko eskaera bat egin dezakeen; horren ondotik, hautatu diren hautagaiak eskaintzak egin ahalko dituzte eta hartara lizitatzailerik bihurtu, negoziazio-prozesu baten esparruan. Prozesu hori ondoko ondoko faseetan garatu ahalko da, eta haren buruan berrikuntzarako elkartzea sortuko da. Berrikuntzarako elkartze hori, berriz, ondoko ondoko faseetan egituratuko da, baina ez da gertatuko kontratazio-organoaren eta lizitatzailerik artean, baizik eta haren eta bazkide baten edo gehiagoren artean; eta, oro har, sortutako hornidurak, zerbitzuak edo obrak eskuratzearekin amaituko da.

Horrenbestez, prozedura horretan, eskema moduan adierazita, lau une bereiz daitezke: hautagaiak hautatzea, lizitatzailerik negoziatzea, bazkideekin elkartzea eta sortu den produktua eskuratzea. Eskema horri erantzuten diote prozedura berri horren erregulazioari buruz legean dauden artikuluek.

Iruzuraren eta ustelkeriaren aurkako borroka errazteko arauak alde batera utzita, kontratuetan gardentasuna sustatzera bideratutako arau berriak sartzen dira. Hartara, aipatu beharra dago, besteak beste, berritasun adierazgarri bat sartu dela: zenbatekoa dela-eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzeko kasua kentzea.

Prozedura hori, praktikan askotan erabilitakoa, oso arina zen, baina gardentasun-gabezia bat zeukan, publizitaterik ez baitzuen; beraz, lizitatzailerik artean desberdintasunak sortzeko arriskua zegoen. Gabezia horiei konponbidea emateko, adjudikazio-prozedura berri bat sortzen da legean, prozedura ireki sinplifikatua deitutakoa, adjudikazio-prozedurei buruz hitz egitean arestian aipatu duguna. Prozedura horretan, kontratazio-prozesua halako moduz pentsatu da non haren iraupena oso laburra izango den, eta izapidetzea, berriz, oso erraza, betiere kontratua lizitatzeko prozeduraren arloan behar den publizitatea eta gardentasuna ahaztu gabe. Prozedura horretan, gainera, izapidetze bereziki sumarioa gaitzen da zenbateko eskasa duten kontratuetarako; bada, izapidetze horrek berekin ekarri behar du kontratu publiko guztietan publizitatea eta efizientzia finkatzea, zuzeneko kontratazioa ohiz kanpoko egoerarako utzita.

Aurreko guztiari kontratatzailearen profilaren figuraren erregulazio berria gehitu behar zaio, aurrekoa baino exhaustiboagoa, zeinak eginkizun nagusi bat ematen baitio erakunde bakoitzaren kontratuen egintzetarako eta izapidetze-faseetarako publizitate-tresna gisa. Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroaren erregulazioa ere gehitu behar zaio aurreko guztiari; izan ere, erregistro horretan inskribatuko dira sektore publikoko erakunde guztiek adjudikatutako kontratuak, eta, ondore horietarako, nahitaezkoa izango da egindako bost mila euroko edo gehiagoko kontratu guztiei buruzko datuak komunikatzea.

Karga administratiboak sinplifikatzeko eta gutxitzeko helburuarekin, erantzukizunpeko deklarazioaren erabilerari eusten zaio, baina hura erabiltzen den kasuen tartea zabaltzen da, eta xehetasun guztiekin erregulatzen da haren edukia, kontratazioari buruzko zuzentarau berrian ezarritakoari jarraituz, eta, jada adierazi dugun moduan, Europako Batzordeak onetsitako Europako kontratazio agiri bakarraren formularioarekin koherentzia gordez.

Aurrez adierazitako guztiarekin bat, ezinbestez aipatu beharra dago lege-testu berriak kontratazio elektronikoaren alde egiten duen apustu irmoa; izan ere, legearen arabera, kontratazio elektronikoa nahitaezkoa izango da, testuan ezarritako moduan, hura indarrean sartzen denetik, eta, horrenbestez, aurreratutako egiten ditu Europar Batasunean jarritako epeak.

Enpresa txiki eta ertainen aldeko neurrien artean, jada Ekintzaileei eta haien Nazioartekotzeari Laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean jasota zeudenak sartzen dira lege-testu honetan, eta, horrekin, berezko duten aplikazio-eremuan sartzen dira; eta beste urrats bat harago egiten da, kontratazio-organoari azpikontrataziora maizen jotzen den kontratuetan –zenbateko jakin bateko obra- eta zerbitzu-kontratuak– betebeharrak ezarrita, alegia, kontratista nagusiak azpikontratatari ordainketak zorrotz egiten dizkiola egiaztatzea; era berean, araubide hertsia jasotzen du bai Administrazioak, bai kontratista nagusiak bete beharreko ordainketa-epeei dagokienez, administrazio publikoek gainean daramaten berankortasunaren gaitza saiheste aldera. Azken horrekin, izan ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko otsailaren 16ko 2011/7/EB Zuzentarauan ezarritakoa betetzen da, zuzentarau horretan ezartzen baitira merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak.

Aurrekoek gainera, hemen, enpresa txiki eta ertainei laguntzeko neurri gisa, prozedura sinplifikatzeko eta karga administratiboak gutxitzeko neurri guztiak ageri dira, enpresei bultzada irmoa emateko helburuz sartutakoak. Neurri berariazkoago gisa, kontratuak sortatzen zatitzeari buruzko erregulazio berria sartu da (orain arte erabiltzen zen arau orokorrari buelta emanez, zeren eta orain espedientean justifikatu beharko baita kontratua sortatzen ez banatzeko arrazoia, eta horrek errazago egingo du enpresa gehiagok kontratazio publikora jo ahal izatea); eta, berritasun gisa, hornitzaileei ordaintzeari buruzko araudi indardunetan jarritako epeak betetzeko betebeharra jasotzen da, kontratuaren adjudikaziodunek justifikatu beharreko kaudimen-irizpide gisa; neurri horren bidez, adjudikaziodunak azpikontratatu dituen enpresa txiki eta ertainek beren zerbitzuak epeen barruan kobratzea sustatu nahi da.

Gogorarazi beharra dago enpresa txiki eta ertainekiko kontratazio publikoa sustatzeko politika kontratazio publikoari buruzko zuzentarau berri guztietan ageri den zerbait dela. Jada lehenengo kontuan hartuzkoetatik hasita, Europa 2020 Estrategian nabarmentzen den neurri bat da –estrategia horretan funtsezko zeregina betetzen du kontratazio publikoak–, eta lege-testu honen bitartez ekartzen da estrategia hori Espainiako ordenamendu juridikora.

Azkenik, ezinbestez aipatu behar dira legean lehiaren alde sartutako neurriak; izan ere, helburua da eremu horretan aurrerapen nabarmen bat gerta dadila, egiaz beteko diren neurrien bitartez. Hartara, esate baterako, jasota dago Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari kontratazio publikoaren arloko informazio handiagoa eskuratu behar zaiola (esate baterako, Europako Batzordeari hiru urtez behin bidali behar zaion gainbegiratze-txostenaren kopia igorriko zaio hari).

Bereziki nabarmentzekoa da, gainera, legearen 150.1 artikulua egiten duen erregulazioa; haren arabera, izan ere, kontratazio-mahaiek kontratazio-prozeduran kolusiozko jokabideak gertatu izanaren zantzu funtsatuen berri eman ahal izango diote, kontratua adjudikatu baino lehen, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, kasu bada, dagokion agintaritza autonomiko eskudunari. Haiek beren erabakiak hartzeko erabiliko duten prozedura sumarisimoa izango da, eta erregelamenduz zehaztuko da. Legean, ordea, jasota daude jakinarazpen horrek kontratazio-prozeduran izango dituen etete-ondorioak.



## VI

Legeak, azken xedapenetan, zerga-arau jakin batzuetan ezarritako erregulazioa aldatzen du.

Hartara, argitu egiten da erabiltzaileek obrak erabiltzeagatik edo zerbitzuak hartzeagatik ordaintzen dituzten tarifen izaera juridikoa, bai horiek Administrazioak berak zuzenean kudeatzen dituen kasuetan, bai emakidadunen bitartez zeharka kudeatzen diren kasuetan, nola gertatzen baita zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoetan. Horretarako, berridatzi egin dira honako hauek: abenduaren 17ko 58/2013 Tributuen Lege Orokorra; Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 20. artikulua –martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategina–, 6. apartatua gehituz; eta Tasa eta Prezio Publikoen Araubide Juridikoari buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legearen 2. artikulua, zeinari c) letra gehitzen baitzaio.

Halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu beharra dago; batetik, argi geratu dadin ente publikoek egindako eragiketa jakin batzuk ez daudela zergaren mendean, eta, bestetik, garbi uzteko prezioari lotutako diru-laguntzaren kontzeptua, bera BEZaren zerga-oinarrian sartze aldera.

Azaroaren 27ko 28/2014 Legeak BEZari buruzko Legearen 7.8.a artikulua aldatu zuen, honako hau ezartzeko: administrazio publikoek kontraprestaziorik gabe edo zerga-izaerako kontraprestazioarekin egiten dituzten eragiketak ez daudela zergaren mendean, ez eta sektore publikoko erakundeek nagusi dituzten administrazio publikoen barnean ematen dituzten zerbitzuak ere.

Hala ere, Europar Batasunaren araudiak berariaz ezartzen du zenbait jarduera-sektore nolanahi ere zergaren mendean egongo direla, nahiz eta administrazio publiko bat izan haietan diharduena: legean bertan aipatzen dira jarduera-sektore horiek. Jarduera horien barruan, Europar Batasuneko araudiari berari eta jurisprudentziari berari egokitzeko (Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren 2016ko ekainaren 22ko epaia, Český Rozhlas gaia dela-eta emana), argitu beharra dago sektore publikoko erakundeek egiten dituzten irrati-telebistako jarduerak zein lotura-araubide izango duen; izan ere, merkataritza-izaera dutenean soilik egongo dira zergaren mendean eta orduan soilik sortuko dute kenkari-eskubidea.

Aurreko guztia dela eta, berridatzi egiten da BEZari buruzko Legearen 7. artikulua 8. zenbakia.

Bestalde, araudiaren aldaketa hau indarrean sartzen den unetik aurrera, beharrezkoa izango da BEZari lotutako eragiketen zerga-oinarria osatzen duten eragiketen prezioari lotutako diru-laguntzat hartetik kanpo uztea administrazio publikoek eskumen publikoko zerbitzu jakin batzuen operadoreari egiten dizkieten ekarpen finantzarioak, lehiaren distorsiorik ez dagoenean, oro har Administrazioak guztiz edo partzialki finantzatutako jarduerak izanda ez direlako ematen konkurrentzia librean; horren adibidea dira udal-garraioko zerbitzuak edo ekarpen horien bitartez finantzatutako kultur jarduera jakin batzuk.

Ekarpen finantzario horiek, zeinak ez baitira eragiketen prezioari lotutako diru-laguntzak, ez dute mugatuko operadore horiek jasaten duten zergaren kenkarirako eskubidea.

Aurrekoa gorabehera, arrazoizkoa da prezioari lotutako diru-laguntzaren kontzeptutik kanpo uztea administrazio publikoak interes orokorreko jarduerak finantzatzeko egindako ekarpenak jarduera horien hartzailea gizarte osoa denean, zeren eta ez baitago hartzaile identifikagarriarik, ez eta inongo kontraprestaziorik ordaintzen duen erabiltzailerik ere. Horixe izango litzateke ikerketa-, garapen- edo berrikuntza-jarduerak finantzatzeko egindako ekarpenen kasua, edo irrati-difusio publikoko zerbitzuak, aipatutako baldintzetan; hori, halere, ez da eragozpena izango horretatik heldu daitezkeen ondorioetarako, kenkarirako eskubideaz baliatzeari dagokionez.

Aurrekoa gorabehera, eta zergari lotutako jarduerak eta zergari lotuta ez daudenak aldi berean egiten dituzten sektore publikoko erakundeen kenkariaren araubidea errazago zehazte aldera, berridatzi egiten da 93. artikulua. Bost.

Bidezkoa da EFE Agentzia SAU Estatuko merkataritza-sozietateak ematen duen estatuko titulartasuneko albiste-zerbitzu publikoa finantzatzeko araubide indarduna Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 106. artikulua beharkizunei egokitzea, Europako Batzordearen 2016ko abenduaren 9ko Erabakiari jarraituz. Egokitzapen hori, Espainiako Konstituzioaren 128. artikulua 2. apartatuan xedatutakoaren indarrez, lege-erreserbari lotuta dago, eta, aurrera eramateko, zerbitzu publiko horren oinarritzako baldintzak arautu behar dira, haren eginkizuna eta Estatuko Aurrekontu Orokorren kargurako konpentsazio-modalitateen kalkulurako metodoa definituz.

## ATARIKO TITULUA

### Xedapen orokorrak

#### I. KAPITULUA

### Legearen xedea eta aplikazio-eremua

#### 1. atala. Xedea eta aplikazio-eremua

##### 1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

1. Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari eta osotasunaren printzipioari lotuta, ziurtatu nahi da obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak efizientziaz erabiliko direla, dauden premiak aldeztatik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.

2. Era berean, aurrekoaz gain, lege honek badu beste xede bat ere: hain zuzen ere, administrazio-kontratuen ondorioak eta administrazio-kontratuak betetzea eta azkentzea arautuko dituen araubide juridikoa ezartzea, kontratu horien bidez gauzatu nahi diren izaera publikoko helburu instituzionalak aintzat hartuta.

3. Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-preziosa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da.

##### 2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Sektore publikoko kontratutzat joko dira –eta, beraz, lege honen mendean egongo dira, bertan ezarritako moduan eta bertan ezarritako baldintzen arabera– 3. artikuluan adierazitako erakundeek kostu bidez egindako kontratuak, kontratuen izaera juridikoa edozein dela ere.

Kontratatik zuzenean edo zeharka etekin ekonomikoren bat lortzen duenean joko da kontratua kostu bidezkotzat.

2. Era berean, lege honen mendean egongo dira, bertan aipatzen den eran, botere adjudikatzailatzat hartzen diren erakundeek diruz laguntzen dituzten eta beste pertsona fisiko nahiz juridiko batzuek erregulazio harmonizatuko kontratu diruz lagunduei buruzko 23. artikuluan jasotako kasuetan egiten dituzten kontratuak.

3. Autonomia-erkidegoek eta Toki-administrazioa osatzen duten erakundeek edo bi horien mendeko organismoek egiten dituzten kontratuetan, edo aurreko erakunde horietako edozeinek diruz lagundutako kontratuetan, lege hau aplikatu behar denean, lege honen

azken xedapenetako lehenean ezarritakoari jarraitu behar zaio, zeina eskumen-tituluei buruzkoa baita.

4. Lege honetan araututako kontratuen objektua diren prestazioak identifikatze aldera, «Kontratu publikoen izendegi bateratua» erabiliko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko azaroaren 5eko 2195/2002 (EE) Erregelamenduaren bidez onetsia –erregelamendu horrek kontratu publikoen izendegi bateratua onetsi zuen–, edo haren ordeztu onesten den Europar Batasuneko araudia.

### 3. artikulua. *Eremu subjektiboa.*

1. Lege honen ondorioetarako, honako erakunde hauek osatzen dute sektore publikoa:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, Ceuta eta Melilla hiri autonomikoetako administrazioak eta Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.

b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.

c) Organismo autonomoak, unibertsitate publikoak eta agintari administratibo independenteak.

d) Nortasun juridiko propioa duten partzuergoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta toki-araubideak aipatzen dituztenak, bai eta aduanei buruzko legeriak araututako partzuergoak ere.

e) Fundazio publikoak. Lege honen ondorioetarako, honako baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak joko dira fundazio publikotzat:

1.a Hasierako eraketarako ekarpenean nagusi izatea, zuzenean edo zeharka, sektore publikoan integratutako erakunde batek edo batzuek egindakoa, edo eratu eta gero jasotzea halako ekarpena.

2.a Fundazioaren ondarearen ehuneko 50 baino gehiago sektore publikoko subjektuek ekarritako edo lagatako ondasun edo eskubideek osatzea modu iraunkorrean.

3.a Fundazioaren patronatuan boto-eskubideen gehiengoa egokitzea sektore publikoko ordezkari.

f) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateak.

g) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak aipatzen dituen enpresa-erakunde publikoak, eta nortasun juridiko propioa duen zuzenbide publikoko edozein erakunde, sektore publikokoa den subjektu bati lotutakoa edo haren mendekoa dena.

h) Beren kapital sozialean apartatu honen a), b), c), d), e), g) eta h) letretan aipatutako erakunde zuzeneko zein zeharkako partaidetza duten merkataritza-sozietateak, partaidetza hori 100eko 50etik gorakoa denean; edo, ehuneko hori gainditu gabe ere, kapital sozial hori, erakunde horiei dagokienez, Balore Merkatuaren Legearen testu bateginak –urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak– 5. artikuluan aurreikusitako kasuan dagoenean.

i) Nortasun juridikorik gabeko funtsak.

j) Berezko nortasun juridikoa duten entitateak, berariaz industria- edo merkataritza-izaerarik ez duten interes orokorreko premiei erantzuteko sortuak, baldin eta sektore publikoko subjektu batek edo zenbaitek haien jarduna gehiengoz finantzatzen badu, kudeaketa kontrolatzen badu edo administrazio-, zuzendaritza- edo zaintza-organoko kideen erdiak baino gehiago izendatzen baditu.

k) Aurreko letretan adierazitako erakundeek sortutako elkarteak.

l) Lege honen ondorioetarako, Euskadiko foru-aldundiak eta lurralde historikoetako batzar nagusiak ere sektore publikoaren ataltzat joko dira beren kontratazio-jarduerari dagokienez.



2. Sektore publikoaren barruan, lege honen ondorioetarako, honako erakunde hauek joko dira administrazio publikotzat:

- a) Artikulu honen lehenengo apartatuko a), b), c) eta l) letretan aipatutakoak.
- b) Zuzenbide publikoko partzuegoak eta bestelako erakundeak, baldin eta haietan, botere adjudikatzailatzat hartu ahal izateko, hurrengo apartatuko d) letran ezarritako inguruabarrak gertatzen badira eta administrazio publiko bati edo batzuei lotuta badaude edo haien mendekoak badira, betiere haien finantzaketa gehiena merkatuko diru-sarrerren bidezkoa ez denean. Kontuen Europako Sistemaren arabera merkatuko ekoizletzat hartzen badira irizten zaio gehienbat merkatuko diru-sarrerekin finantzatzen direla.

3. Lege honen ondorioetarako, honako erakunde hauek joko dira botere adjudikatzailatzat:

- a) Administrazio publikoak.
- b) Fundazio publikoak.
- c) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateak.
- d) Berezko nortasun juridikoa duten gainerako entitate guztiak, aurreko letretan adierazitakoez bestelakoak, berariaz industria- edo merkataritza-izaerarik ez duten interes orokorreko premiei erantzuteko sortuak, baldin eta 3. apartatuan ezarritako irizpideen arabera botere adjudikatzaila den subjektu batek edo zenbaitek haien jarduna gehiengoz finantzatzen badu, kudeaketa kontrolatzen badu edo administrazio-, zuzendaritza- edo zaintza-organoko kideen erdiak baino gehiago izendatzen baditu.
- e) Aurreko letretan adierazitako erakundeek sortutako elkarteak.

4. Alderdi politikoak, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko 8/2007 Lege Organikoaren 1. artikuluan definitutako zentzuan; bai eta Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan araututako sindikatu-erakundeak eta Sindikatuetan Elkartzeko Eskubidea arautzen duen apirilaren 1eko 19/1977 Legeak aipatzen dituen enpresa-erakundeak eta profesionalen elkarteak ere. Horietaz gainera, horietako edozeini lotutako fundazio eta elkarteak, botere adjudikatzaila izateko baldintzak betetzen dituztenean artikulu honen 3. apartatuaren d) letraren arabera; eta, erregulazio harmonizatuko kontratuei dagokienez, publikotasun-, konkurrentzia-, gardentasun-, berdintasun-printzipioen eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren arabera jokatu beharko dute, borondatearen eta konfidentziasunaren autonomia errespetatuz hala dagokienean.

Betebeharra duten subjektuek barne-jarraibide batzuk onartu beharko dituzte kontratazioaren arloan; horiek aurreko paragrafoan aurreikusitakora eta Europar Batasuneko araudira egokituko dira eta, onartu aurretik, aholkularitza juridikoa ematea dagokion organoak horiei buruzko txostena egin beharko du. Jarraibide hauek haien webguneetan argitaratu beharko dira.

5. Halaber, zuzenbide publikoko korporazioak lege honen mendean geratuko dira botere adjudikatzaila izateko baldintzak betetzen dituztenean artikulu honen hirugarren apartatuaren d) letrari jarraituz.

## *2. atala. Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak*

4. artikulua. *Kanpoan utzitako negozio juridikoei aplikatu beharreko araubidea.*

Atal honetan aipatutako harreman juridikoak, negozioak eta kontratuak lege honen eremutik kanpo geratzen dira, eta beren arau bereziak izango dituzte. Lege honen printzipioak aplikatuko dira gerta daitezkeen kezka eta hutsuneak betetzeko.

5. artikulua. *Defentsaren eta segurtasunaren eremuan kanpoan utzitako negozio juridikoak eta kontratuak.*

1. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikulua eremuan defentsaren eta segurtasunaren arloari lotuta egiten diren hitzarmenak.

2. Halaber, lege honen eremutik kanpo geratzen dira segurtasunaren edo defentsaren eremuan egiten diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, Sektore Publikoko Defentsa eta Segurtasun arloko Kontratuaren abuztuaren 1eko 24/2011 Legearen aplikazio-eremuan daudenean; bai eta lege hori berorren 7. artikulua indarrez aplikatzen ez zaien kontratuak ere.

Halaber, kanpoan geratzen dira obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak, segurtasunaren eta defentsaren eremuan egiten direnak, haietan honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Produktu berri baten ikerketan eta garapenean oinarritutako lankidetzaprograma baten esparruan adjudikatutakoak izatea eta, kasua bada, haren bizi-zikloarekin edo ziklo horren atalen batzuekin lotuta egotea, baldin eta programan gutxienez ere Europar Batasuneko bi estatuk parte hartzen badute.

b) Europar Batasuneko kidea ez den hirugarren estatu batean adjudikatzen direnak erosketak egiteko, horren barnean direla izaera zibileko erosketak, betiere Indar Armatuak Europar Batasunaren lurraldetik kanpo hedatuta daudenean eta beharrian operatiboek kontratu horiek eragiketen eremuko enpresaburuekin egitera behartzen dutenean. Lege honen ondorioetarako, eragiketen eremuan base logistiko aurreratuak eta eremuaren beraren eraginpean dauden lurraldeak sartzen dira.

c) Ekipamendu militar sentikorrekin zuzenean lotutako obrak eta zerbitzuak direla-eta beste estatu bati adjudikatzen zaizkion emakidak, edo berariaz xede militarrik dituzten obrak eta zerbitzuak, edo obra eta zerbitzu sentikorrak.

3. Aurreko bi apartatuetan ezarritakoa aplikatuko da baita kasuko prestazioetako batzuk lege honen menpean badaude ere, baldin eta ez bada erabaki kontratuaren objektua diren prestazioetako bakoitzerako kontratu berezi bat adjudikatzea.

Hala eta guztiz ere, aurreko paragrafoan aipatutakoa aplikatzeko ezinbesteko baldintza izango da kontratu bakar bat adjudikatzearen edo kontratu batzuk banan-banan adjudikatzearen arteko hautua ez egitea kontratua edo kontratuak lege honen aplikazio-eremutik kanpo uzteko.

4. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira, halaber, defentsaren edo segurtasunaren eremuetan egiten diren kontratu eta itunak, honako modu hauetakoren batean ezarritako kontratazio-prozedura berariazko baten arabera adjudikatu beharrekoak:

a) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratua sinatu ez duen estatu batekin edo sinatu ez duten estatu batzuekin tratatu horren arabera egindako nazioarteko akordio edo hitzarmen baten indarrez, zeina estatu sinatzaileek proiektu bat batera ustiari edo garatzeko beharrezko diren obra, hornidura edo zerbitzuei buruzkoa den.

b) Tropen estazionamenduari buruzko nazioarteko akordio edo hitzarmen baten indarrez, zeina Europar Batasuneko kidea den estatu bateko edo hirugarren estatu bateko enpresei buruzkoa den.

c) Nazioarteko erakunde batek edo nazioarteko finantza-erakunde batek ezarritako kontratazio-arauen bitartez, eta adjudikatzen diren kontratuak, gainera, guztiz edo zati handi batean erakunde horrek finantzatuta daudela.

## 6. artikulua. *Hitzarmenak eta kudeaketa-esleipenak.*

1. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuaren edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, erakunde autonomoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-entitateak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatuak duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzailearen izaera badute.

Hitzarmen horiek kanpoan geratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izango. Merkatu irekian lankidetzeta-jardueren ehuneko 20 edo gehiago egiten dituztenean uste izango da halako bokazio bat dagoela. Ehuneko hori kalkulatzeko, aintzat hartuko da guztizko negozio-bolumenaren batezbestekoa edo jardueraren beste adierazle egokiren bat; esate baterako, kontratuaren adjudikazioaren aurretiko hiru ekitaldietan hitzarmenaren xedea den prestazioa dela-eta jasandako gastuak. Jardueraren sorrera-data edo hasiera-data dela-eta edo jarduerak berrantolatu direla-eta ez badago eskura aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumena edo jardueraren beste adierazle egokirik-gastuak, esate baterako—, edo horiek indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealtatearekin bat datorrela erakustea, negozio-proiektzioen bitartez bereziki.

b) Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzeta bat ezartzea edo garatzea, berraztertzea edo dagozkien zerbitzu publikoak halako moduz ematen direla non amankomunean dituzten helburuak lortuko baitira.

c) Lankidetzaren garapenerako gida bakarra interes publikoarekin lotutako alderdiak izatea.

2. Lege honen eremutik kanpo egongo dira, halaber, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago lege honetan nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

3. Halaber, lege honen eremutik kanpo geratzen dira sektore publikoaren araubide juridikoaren arloko legeria indardunearan araututako kudeaketa-esleipenak.

#### 7. artikulua. *Nazioarteko eremuan kanpoan utzitako negozio juridikoak eta kontratuak.*

1. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira Estatuak beste estatu batzuekin edo nazioarteko zuzenbidearen peko beste subjektu batzuekin egiten dituen akordioak.

2. Lege honen eremutik kanpo egongo dira, halaber, tresna juridiko baten indarrez ezarri den kontratazio-prozedura berariazko baten arabera adjudikatu beharreko kontratuak. Baina prozedura horrek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren arabera eginga beharko du izan, azken hori sinatu ez duen estatu batekin edo batzuekin, eta nazioarteko zuzenbidearen arloko betebeharrak sortuko ditu bera sinatu dutenek proiektu bat elkarrekin egikaritzeko edo aurrera eramateko beharrezko diren obra, hornidura edo zerbitzuei dagokienez.

3. Halaber, lege honen eremutik kanpo geratuko dira nazioarteko erakunde batek edo nazioarteko finantza-erakunde batek onetsitako kontratazio-arauen indarrez ezarri den kontratazio-prozedura berariazko baten arabera adjudikatu beharreko kontratuak, baldin eta erakunde horrek guztiz edo zatirik handienez finantzatuta badaude.

#### 8. artikulua. *Ikerketaren, Garapenaren eta Berrikuntzaren eremuan kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak.*

Lege honetatik kanpo geratzen dira ikerketaren eta garapenaren arloko kontratuak, salbu eta ondoren aipatzen diren kodeetan sartzeaz gainera hurrengo bi letretako baldintzak betetzen dituztenak: CPV 73000000-2 (ikerketa eta garapen zerbitzuak eta horrekin lotutako aholkularitza zerbitzuak); 73100000-3 (ikerketa eta garapen esperimentaleko zerbitzua); 73110000-6 (ikerketa zerbitzuak); 73111000-3 (ikerketa-laboregiko zerbitzuak); 73112000-0 (itsas ikerketako zerbitzuak); 73120000-9 (garapen esperimentaleko zerbitzuak); 73300000-5 (ikerketaren eta garapenaren arloko diseinua eta exekuzioa); 73420000-2 (aurre-bideragarritasunaren azterlana eta demostrazio teknologikoa) eta 73430000-5 (entsegua eta ebaluazioa).

a) Etekinak soilik botere adjudikatzailarenak izatea, bere jardueran bertan erabili ahal izateko.

b) Emandako zerbitzua botere adjudikatzailak guztiz ordaindua izatea.

9. artikulua. *Jabari publikoaren eremuan eta ondarearen eremuan kanpoan utzitako harreman juridikoak, negozioak eta kontratuak.*

1. Lege honetatik kanpo gelditzen dira ondare-ondasunak ustiatzeko kontratu batzuk eta jabari publikoko ondasunei buruzko baimen eta emakida batzuk, 14. artikuluan zehaztutakoez bestekoak, eta beren legeria espezifikoa izango dute araubide, berariaz lege honetako aginduak aplikatu behar zaizkiela adierazten denean izan ezik.

2. Halaber, lege honetatik kanpo gelditzen dira ondasun higiezinak, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren pean egongo dira. Kontratu horietan soilik sartu ahalko dira atariko tituluko II. kapituluko 1. atalean araututako kontratu tipikoek berezko dituzten prestazioak, baldin eta zenbateko balioetsiak negozioaren zenbateko osoaren 100eko 50 gainditzen ez badu eta aldi berean ondare-kontratuaren ohiko prestazioarekin lotura- edo osagarritasun-harremana badu 34.2. artikuluan aurreikusi bezala.

10. artikulua. *Eremu finantzarioan kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak.*

Lege honen eremutik kanpo daude baloreak edo bestelako tresna finantzarioak jaulki, erosi, saldu edo eskualdatzearekin lotutako finantza-zerbitzuei dagozkien kontratuak, Tresna finantzarioen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE zuzentarauaren ildotik; zuzentaru horrek honako hauek aldatu zituen: Kontseiluaren 85/611/EEE eta 93/6/EEE zuzentaruak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/12/EE zuzentaruak; eta indarrrik gabe utzi zuen 93/22/ EEE zuzentaruak. Halaber, kanpoan gelditzen dira Espainiako Bankuak ematen dituen zerbitzuak eta Finantza Egonkortzeko Funtz Europarrarekin eta Egonkortasun Mekanismo Europarrarekin egiten diren eragiketak, bai eta mailegu-kontratuak eta diruzaintza-eragiketak ere, baloreen nahiz bestelako finantza-tresnen jaulkipenarekin, salmentarekin, erosketarekin edo transferentziarekin lotuta egon zein ez.

11. artikulua. *Kanpoan utzitako bestelako negozio eta kontratuak.*

1. Funtzionario publikoen zerbitzu-harremanak eta laneko legerian araututako kontratuak lege honen eremutik kanpo geratzen dira.

2. Halaber, lege honetatik kanpo geratzen dira zerbitzu publikoren bat emateko harreman juridikoak, baldin eta erabilzaileek, zerbitzu hori jaso ahal izateko, guztiei aplikatu beharreko tarifa, tasa edo prezio publikoa ordaindu behar badute.

3. Arbitraje- eta adiskidetze-zerbitzuei buruzko kontratuak lege honetatik kanpo geratzen dira.

4. Halaber, lege honetatik kanpo geratzen dira sektore publikoko erakunde bat ondasunak edo eskubideak ematera edo zerbitzuren bat betetzera behartzen duten kontratuak; dena den, ondasunen eskurtaileak edo zerbitzuen hartzaileak lege honen peko sektore publikoko erakundea bada, dagokion kontratua egiteko, lege honetan ezarritako arauak bete beharko ditu.

5. Halaber, kanpoan gelditzen dira objektu gisa kanpaina politikoekin lotutako zerbitzuak dituzten kontratuak, CPV 79341400-0, 92111230-3 eta 92111240-6 kodeetan sartzen direnak, alderdi politiko batek adjudikatzen dituenen.

6. Lege honetatik kanpo geratzen da erakunde pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-emate hori egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publizitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie.

## II. KAPITULUA

### Sektore publikoko kontratuak

#### 1. atala. Kontratu motak zedarritzea

##### 12. artikulua. *Kontratuak kalifikatzea.*

1. Sektore publikoko erakundeek egiten dituzten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuak atal honetako arauen arabera kalifikatuko dira.

2. Sektore publikoko gainerako kontratuak aplikatzekoak zaizkien administrazio-zuzenbideko arauen arabera edo zuzenbide pribatuko arauen arabera kalifikatuko dira.

##### 13. artikulua. *Obra-kontratuak.*

1. Obra-kontratuak dira honako helburu hauetakoren bat dutenak:

a) Obra bat egitea, bereizirik edo proiektuaren idazketarekin batera, edo I. eranskinean aipatutako lanetatik bakarren bat egitea.

b) Sektore publikoko erakunde kontratatzaile batek finkatutako baldintzak betetzen dituen obra bat egitea, edozein bidez, baldin eta obra horrek eragin erabakigarria badu obraren motan edo proiektuan.

2. Obratzat joko da xedetzat ondasun higiezin bat duten eta berez eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko egiten diren eraikuntzako edo ingeniari-tza zibileko lan batzuen emaitza.

Halaber, obratzat joko dira lurraren edo haren hegalaren forma nahiz funtsa aldatzen duten lanak, edo ingurune fisiko edo naturala aldatzen dutenak.

3. Obra-kontratuak obra oso bati buruzkoak izango dira, eta obra osotzat erabilera orokorrerako edo kasuan kasuko zerbitzurako entrega daitekeena hartuko da –hori ez da eragozpena izango gero hartan zabalpenak egin ahal izateko–, eta obra hori erabiltzeko behar diren elementu guzti-guztiak edukiko ditu.

Aurrekoa gorabehera, proiektu independenteen bitartez finkatutako obrak kontratatu ahalko dira, obra oso baten ataletako bakoitzari dagozkionak, baldin eta atal horiek modu independentean erabili badaitezke erabilera orokorraren edo zerbitzuaren zentzuan, edo substantzialki definitu badaitezke eta aipatutako kontratazioaren komenigarritasuna oinarritzen duen baimen administratiboa eman badu aurrez kontratazio-organismoak.

Obra-kontratuak egin ahalko dira, obra oso bati buruzkoak izan gabe, lege honen 30. artikulua 4. apartatuan aurreikusitako kasuetan, obra osoaren erantzukizuna Administrazioarena denean, Administrazio Publikoak berak egingo dituen obraren kasu bat izateagatik.

##### 14. artikulua. *Obra-emakidako kontratuak.*

1. Obra-emakidako kontratuaren bidez, emakidadunak aurreko artikuluan aipatzen diren prestazioetako batzuk emango ditu, lehendik ziren eraikuntzak berriztatzea eta konpontzea barne, bai eta eraikitako elementuak kontserbatzea eta mantentzea ere. Emakidadunaren aldeko kontraprestazioa obra hurrengo laugarren apartatuan ezarritakoaren bidetik ustiatzeko eskubidea izaten da, ez besterik, edo eskubide hori izatekoa eta prezioa jasotzekoa.

2. Kontratuak, gainera, honako eduki hau izan ahalko du:

a) Obra egokitu, eraberritu eta modernizatzeko lanak, zerbitzuak behar bezala emateko edo obra bera euskarri duten jarduera ekonomikoak gauzatzeko behar diren ezaugarri tekniko eta funtzionalei egokitze aldera.

b) Obretako bakoitzak eduki behar dituen elementuek eskatzen dituzten lehengoratzelanak eta konponketa-lan handiak; hain zuzen ere, obra horien bitartez eman behar diren

zerbitzuak eta gauzatu behar diren jarduerak eskakizun ekonomikoen eta sozialen arabera eman eta gauzatu ahal izateko.

3. Obra-emakidako kontratuak behartu dezake emakidaduna, bertan hala jasotzen bada, obra nagusiaren osagarri diren edo hari lotuta dauden obrak, eraikuntzak bete beharreko helburua betetzeko eta haren funtzionamendua eta ustiapena hobetzeko beharrezkoak direnak, proiektatu, egin, kontserbatu, lehengoratu eta konpontzera, bai eta, horrez gain, obrekin zerikusia duten eta kontratuan aurreikusita dauden ingurumen-jardunak ere gauzatzera. Obra nagusiaren osagarri diren obrak edo hari lotutakoak ekonomikoki ustiatu edo aprobetxatzeko modukoak badira, emakidadunari dagokio ustiapen edo aprobetxamendu hori, obra nagusiaren ustiapenarekin batera, dagozkion baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera betiere.

4. Obrak ustiatzeko eskubideak, artikuluko honen lehenengo apartatuan aipatzen denak, berekin ekarri beharko du emakidadunari obra horiek ustiatzeko eragiketa-arrisku bat transferitzea, horren barnean dela demanda-arriskua edo hornidura-arriskua, edo bi arrisku horiek batera. Demanda-arriskutzat hau hartzen da: kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen demanda errealari zor zaiona. Eta hornidura-arriskutzat, berriz, kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen hornidurari dagokiona; bereziki, zerbitzuen prestazioa eskariari ez egokitzekoa.

Kasu honetan irizten zaio emakidadunak eragiketa-arrisku bat hartzen duela bere gain: emakidadunak bermatuta ez daukanean, funtzionamenduko baldintza normaletan, egindako inbertsioak berreskuratuko dituenik edo emakidaren xede diren obren ustiapenaren ondorioz izan dituen kostuak estaliko dituenik. Emakidadunak hartutako arriskuak merkatuko ziurgabetasunen aurreko esposizio erreal bat ekarri beharko du berekin, eta emakidadunak izan dezakeen galera zenbatetsi oro galera nominal hutsa ez izatea, baizik eta kontuan hartzeko modukoa.

#### 15. artikulua. *Zerbitzu-emakidako kontratua.*

1. Zerbitzu-emakidako kontratua halako kontratu bat da non haren indarrez botere adjudikatzaile batek edo batzuek kostu bidez adjudikatzen baitiete pertsona bati edo batzuei, naturalak zein juridikoak izan, zerbitzu bat –botere adjudikatzaile horien titulartasunekoa edo eskumenekoa– kudea dezaten, haren ordaina izanik edo kontratuaren objektua diren zerbitzuak ustiatzeko eskubidea, edo eskubide hori izatea eta harekin batera prezio bat jasotzea.

2. Zerbitzuak ustiatzeko eskubideak emakidadunari eragiketa-arriskua eskualdatzea ekarriko du berekin, aurreko artikuluaaren laugarren apartatuan adierazitako eran.

#### 16. artikulua. *Hornidura-kontratua.*

1. Hornidura-kontratua da produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea duena objektutzat.

2. Ez dira hornidura-kontratutzat joko jabetza gorpuzgabei eta balore negoziagarriei buruzko kontratuak, baina objektutzat ordenagailu-programak dituzten kontratuei buruz artikuluko honen 3. apartatuaren b) letran xedatutakoa ahaztu gabe.

3. Nolanahi ere, kontratu hauek joko dira hornidura-kontratutzat:

a) Enpresaburua hainbat ondasun hurrenez hurren eta unitateko prezioka entregatzera behartzen duten kontratuak, kopuru osoa kontratua egiteko unean zehaztasunez mugatu gabe egindakoak, ondasunak eskuratu behar dituenaren premien arabera egiteagatik entregak.

b) Objektutzat telekomunikazio-ekipamenduak edo -sistemak edo informazioa tratatzeko ekipamendu eta sistemak eta horien dispositibo eta programak eskuratu eta errentan hartzea dutenak, baita programak erabiltzeko eskubidea lagatzekoak ere, eskura jartzeko edozein modalitatetan, neurrirra garatutako ordenagailu-programak eskuratzeko kontratuak izan ezik, horiek zerbitzu-kontratutzat joko dira eta.



c) Fabrikazio-kontratuak, enpresaburuak horien bidez entregatu behar dituen gauzak (edo gauza) erakunde kontratatzaileak alde aurretik ezarritako ezaugarrien arabera egin behar direnean, nahiz eta erakunde kontratatzaileak bere gain hartu horretarako behar diren materialak osorik edo partez entregatzeko betebeharra.

d) Lehen mailako energia edo energia eraldatua eskuratzea daukatenak objektutzat.

## 17. artikulua. *Zerbitzu-kontrata.*

Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak.

Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.

## 18. artikulua. *Kontratu mistoak.*

1. Kontratu mistoa beste klase bateko kontratu bati edo batzuei dagozkien prestazioak biltzen dituena da.

Kontratu mistoak lege honen 34.2 artikuluan ezarritako baldintzetan egin ahalko dira soilik.

Kontratu mistoen prestaketari eta adjudikazioari buruzko araubide juridikoa artikuluko honetan ezarritakoari jarraituz zehaztuko da; eta haien ondoreen, betetzeen eta azkentzearen araubide juridikoa, berriz, 122.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lege honetan erregulatutako kontratu baten baino gehiagoren prestazioak objektutzat dauzkaten kontratu mistoen adjudikazioa zer arauk gidatuko duten zehazteko, honako arau hauei jarraituko zaie:

a) Kontratu misto batek bi obra-kontratu, hornidura-kontratu edo zerbitzu-kontratu edo gehiagoren prestazio propioak biltzen dituenean, prestazio nagusiaren izaerari erreparatuko zaio.

Zati batean IV. eranskineko zerbitzu bereziak eta beste zati batean beste zerbitzu batzuk biltzen dituzten kontratu mistoen kasuan, edo zati batean zerbitzuek eta beste batean hornidurek osatutako kontratu mistoen kasuan, kasuan kasuko zerbitzu edo horniduren balio zenbatetsietatik handiena zein den, horrexen arabera zehaztuko da objektu nagusia.

b) Kontratu mistoak obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuen prestazioak daukanean alde batetik eta obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuak beste alde batetik, honela jokatuko da:

1.a Prestazioak bereizezinak badira, prestazio nagusiaren izaerari erreparatuko zaio.

2.a Prestazioak bereizgarriak badira eta kontratu bakar bat adjudikatzea erabakitzen bada, obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuei buruzko arauak aplikatuko dira kontratu horiei dagozkien prestazioen balio zenbatetsiak lege honen 20., 21. eta 22. artikuluetan ezarritako zenbatekoak hurrenez hurren gainditzen dituenean. Nolanahi ere, obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuei buruzko arauak aplikatuko dira.

2. Kontratu mistoak lege honetan arautzen diren kontratuetako prestazioak jasotzen dituenean bertan arautzen ez diren bestelako kontratu batzuetako prestazioekin batera, honako arau hauei erreparatuko zaie haren adjudikazioari aplikatu beharreko arauak zehazteko:

a) Prestazioak bereizezinak badira, prestazio nagusiaren izaerari erreparatuko zaio.

b) Prestazioak bereizgarriak badira eta kontratu bakarra egitea erabakitzen bada, lege honetan xedatutakoa aplikatuko da.

3. 1. apartatuan ezarritakoa gorabehera, kontratu mistoaren elementu bat obra bat bada eta obra hori 50.000 eurotik gorakoa bada, proiektu bat egin beharko da eta lege honen 231. artikuluari eta ondokoei jarraituz izapidetu beharko da.

Kontratu mistoak obra-emakida baten edo zerbitzu-emakida baten elementuak baldin badauzka, dagokion bideragarritasun-azterlana erantsi beharko da, eta, kasua bada, eraikuntzarako aurreproiektua eta obren ustiapenekoa, lege honen 247., 248. eta 285. artikuluetan aurreikusitakoak.

## 2. atala. Erregulazio harmonizatuko kontratuak

### 19. artikulua. Zedarritze orokorra.

1. Hauek dira erregulazio harmonizatuko kontratuak: obra-kontratuak edo obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak, hornidura-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak, baldin eta haien balio zenbatetsia, 101. artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulaturik, ondorengo artikuluetan aipatzen diren zenbatekoetakoa edo handiagoa bada eta erakunde kontratatzailea botere adjudikatzailea bada. Erregulazio harmonizatuko kontratutzat joko dira erakunde horiek diruz lagunduak diren eta 23. artikuluan aipatzen diren kontratuak ere.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa gorabehera, honako hauek ez dira joko erregulazio harmonizatuko kontratutzat, balio zenbatetsia edozein dutela ere:

a) Objektutzat ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuetara edo irratik-komunikazioko zerbitzuetara bideratutako programak eskuratzea, garatzea, produzitzea edo koproduzitzea daukaten eta ikus-entzunezko edo irratiko komunikazioko zerbitzuaren hornitzaileek adjudikatutakoak diren kontratuak, edo irratik-difusioko denborari edo programak hornitzeari buruzkoak diren eta ikus-entzunezko edo irratiko komunikazioko zerbitzuaren hornitzaileei adjudikatutakoak diren kontratuak. Letra honen ondorioetarako, «ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzua» eta «komunikazioko zerbitzuaren hornitzailea» zera dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko martxoaren 10eko 2010/13/EB zuzentarauan –ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz estatu kideek dauzkaten lege-, erregelamendu- eta administrazio-mailako xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoan– 1. artikuluan 1. apartatuaren a) eta d) letratan halakotzat hartzen direnak, hurrenez hurren. Programatzat zuzentzarau horren beraren 1. artikuluan 1. apartatuaren b) letran halakotzat hartzen dena hartuko da, baina irratik-programak eta irratik-programen edukia ere barnean hartuta. Gainera, xedapen honen ondorioetarako, «programaren edukia» esapideak «programa» kontzeptuak daukan esanahi bera izango du.

b) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikuluan eremuan, defentsaren arloari lotuta egiten direnak.

c) Isilpeko edo erreserbatu deklaraturakoak, edo egikaritzeko orduan indarreko legeriari jarraituz segurtasun-neurri bereziak behar dituztenak, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestea eskatzen dutenak, kasuan kasuko funtsezko interesen babesa ezin denean bermatu lege honetan erregulazio harmonizatuko kontratuak gidatzen dituzten arauak aplikatuz.

Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babesteari buruzko gorabehera hori gertatzen delako adierazpena berariaz egin beharko du, kasuan-kasuan, Estatuako Administrazio Orokorraren, haren organismo autonomoen, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen eta estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen eremuan, kontratazio-organoa bere pean duen ministerio-departamentuko titularrak, autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hiru autonomoetako organo eskudunak edo, toki-entitateen eremuan, dagokion kontratua egiteko eskumena esleitua duen organoak. Adierazpen hori egiteko eskumena ezingo da eskuordetu, lege batek beren-beregi baimentzen duenean izan ezik.

d) Objektu nagusitzat hau daukatenak: kontratazio-organoei aukera ematea komunikazio-sare publikoak eskaintzeko edo ustiatzeko edo publikoari komunikazio elektronikoen bidezko zerbitzu bat edo gehiago emateko. Apartatu honen ondorioetarako,



«komunikazio-sare publikoa» eta «komunikazio elektronikoen zerbitzua» esapideek Komunikazio elektronikoko sareen eta zerbitzuen esparru arautzaile komunari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko martxoaren 7ko 2002/21/EE Zuzentarauan duten esanahi bera izango dute.

e) Objektu gisa honako zerbitzu juridiko hauetatik edozein dutenak:

1.a Prokuradore batek edo abokatu batek bezero bat ordezkatzera eta haren legezko defentsa egitea, dela estatu batean edo kontziliazioko edo arbitrajeko nazioarteko instantzia batean egindako arbitraje batean edo egindako kontziliazio batean, dela estatu bateko organo jurisdikzionalen edo agintari publikoen aurreko edo nazioarteko organo jurisdikzionalen edo erakundeen aurreko prozedura judizial batean.

2.a Letra honetan aurreko puntuan aipatutako prozeduretako bat prestatzeko emandako aholkularitza juridikoa, edo aholkularitzako gaia prozedura horien xede izateko probabilitate handia dagoenean ematen den aholkularitza, baldin eta aholkularitza-lana abokatu batek egiten badu.

3.a Notario publiko batek eman beharreko ziurtatze- edo autentifikatze-zerbitzuak.

4.a Administrazioaileek, tutoreek edo beste zerbitzu juridiko batzuek ematen dituzten zerbitzu juridikoak, zerbitzu-emaileak organo jurisdikzional batek izendatuak direnean edo legez izendatuak direnean eginkizun berariazko batzuk betetzeko organo jurisdikzional horiek gainbegiratuta.

5.a Botere publikoa baliatzearekin noizean behin bada ere lotuta dauden beste zerbitzu juridiko batzuk.

f) Irabazi asmorik gabeko antolakundeek edo elkarteek defentsa zibilaren, babes zibilaren eta laneko arriskuen prebentzioaren alorretan ematen dituzten eta honako CPV kode hauetakoak diren zerbitzuak dauzkatenak objektutzat: 75250000-3, 75251000-0, 75251100-1, 75251110-4, 75251120-7, 75252000-7, 75222000-8; 98113100-9; 85143000-3, salbu eta gaixoak anbulantziak garraiatzeko zerbitzuak.

g) Bidaiariak trenbidez edo metroz garraiatzeko zerbitzu publikoak dauzkatenak objektutzat, bai eta bidaiarien garraio-zerbitzuen emakidak dauzkatenak ere objektutzat. Dena den, hala badagokio, 2007ko urriaren 23ko 1370/2007 (EB) Erregelamendua aplikatuko da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, bidaiariak trenez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzkoa, zeinak indarrrik gabe utzi baitzituen Kontseiluaren 1191/69 (EEE) eta 1107/70 (EEE) erregelamenduak.

h) Honako hauetarako adjudikatutako emakida-kontratuak:

1.a Edateko ura ekoiztearekin, garraiatzearekin edo banatzearekin lotutako zerbitzu publiko bat ematera bideratutako sare finkoak eskaintzea edo ustiatzea.

2.a Sare horiek edateko urez hornitzea.

Aurreko 1 eta 2 zenbakietan jasotako jardurekin zerikusia duten emakida-kontratuak ere ez dira joko erregulazio harmonizatukotzat honako helburu hauetakoren bati edo biei buruzkoak badira:

I. Ingeniaritza hidraulikoko, ureztapeneko edo drainatzeko proiektuak, baldin eta edateko uraren hornidurara bideratutako bolumena proiektu horiei esker edo ureztatze- edo drainatze-instalazio horiei esker eskura dagoen ur-bolumen guztiaren ehuneko 20 baino gehiago bada, edo

II. Hondakin-urak deuseztatzea edo tratatzea.

20. artikulua. *Obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak, erregulazio harmonizatukoak: atalasea.*

1. Erregulazio harmonizatukoak dira 5.225.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak.

2. 101.12 artikuluan aurreikusten den kasuan –sorta bereziak adjudikatzen direneko obra-kontratuak balio zenbatetsia kalkulatzeari buruzkoa–, obraren sorten balio pilatua

aurreko apartatuan adierazitako zenbateko horretakoa edo handiagoa denean, erregulazio harmonizatuko arauak aplikatuko zaizkio sorta bakoitzaren adjudikazioari.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kontratazio-organoek salbuetsi egin ditzakete arau hauetatik milioi bat eurotik beherako balio zenbatetsia duten sortak, baldin eta salbuetsitako sorten zenbateko pilatuak ez badu gainditzen sorta guztiek batera duten balio pilatuaren 100eko 20.

## 21. artikulua. *Erregulazio harmonizatuko hornidura-kontratuak: atalasea.*

1. Erregulazio harmonizatukoak dira balio zenbatetsia zenbateko hauetakoa edo handiagokoa duten hornidura-kontratuak:

a) 135.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrak, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatutako kontratuak baldin badira. Hala ere, kontratuak defentsaren sektoreko organoek adjudikatzen dituztenean, objektutzat II. eranskinean adierazitako produktuak dauzkaten hornidura-kontratuetan bakarrik aplikatuko da gutxieneko zenbateko hori.

b) 209.000 euro, aurreko letran adierazitakoez bestelako hornidura-kontratuak izanez gero kontratatzailearen aldetik edo objektuaren aldetik.

2. 101.12 artikuluan aurreikusten den kasuan –sorta bereziak adjudikatzen direneko kontratuak balio zenbatetsia kalkulatzeari buruzkoa–, horniduraren sorten balio pilatua aurreko apartatuan adierazitako zenbateko horietakoa edo handiagoa denean, erregulazio harmonizatuko arauak aplikatuko zaizkio sorta bakoitzaren adjudikazioari. Hala ere, kontratazio-organoek salbuetsi ahalko dituzte arau hauetatik 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten sortak, baldin eta salbuetsitako sorten zenbateko pilatuak ez badu gainditzen sorta guztiek batera duten balio pilatuaren 100eko 20.

## 22. artikulua. *Erregulazio harmonizatuko zerbitzu-kontratuak: atalasea.*

1. Erregulazio harmonizatuko kontratuak dira balio zenbatetsia zenbateko hauetakoa edo handiagoa duten zerbitzu-kontratuak:

a) 135.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrak, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatutako kontratuak baldin badira.

b) 209.000 euro, sektore publikoko Estatuko Administrazio Orokorrak, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek besteko erakundeek adjudikatutako kontratuak baldin badira.

c) 750.000 euro, objektutzat gizarte-zerbitzuak eta IV. eranskinean aipatutako bestelako berariazko zerbitzuak dauzkaten kontratuak direnean.

2. 101.12 artikuluan aurreikusten den kasuan –sorta bereziak adjudikatzen direneko kontratuak balio zenbatetsia kalkulatzeari buruzkoa–, zerbitzuen kontratazioaren sorten balio pilatua aurreko apartatuan adierazitako kopuru horietakoa edo handiagoa denean, erregulazio harmonizatuko arauak aplikatuko zaizkio sorta bakoitzaren adjudikazioari. Hala ere, kontratazio-organoek salbuetsi ahalko dituzte arau hauetatik 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten sortak, baldin eta salbuetsitako sorten zenbateko pilatuak ez badu gainditzen sorta guztiek batera duten balio pilatuaren 100eko 20.

## 23. artikulua. *Erregulazio harmonizatuko kontratu diruz lagunduak.*

1. Erregulazio harmonizatuko kontratu diruz lagunduak dira 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztutako obra-kontratuak eta 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztutako zerbitzu-kontratuak, baldin eta botere adjudikatzaile diren erakundeek diruz laguntzen badituzte, zuzenean edo zeharka,

zenbateko osoaren 100eko 50 baino gehiago ordainduz, eta kategoria hauetakoren batean sartzen baldin badira:

a) Objektutzat NACE Europako Erkidegoko ekonomia-jardueren nomenklatura orokorreko 45. saileko 45.2 taldeko F ataleko ingeniari-tza zibileko jarduerak dauzkaten obra-kontratuak, edo objektutzat ospitaleak, kirol, jolas nahiz aisialdiko ekipamenduak, eskola nahiz unibertsitateko eraikinak eta administrazio-erabilerako eraikinak eraikitzea daukaten obra-kontratuak, betiere balio zenbatetsia 5.225.000 eurokoa edo handiagoa denean.

b) Aurreko a) letran zehaztutako obra-kontraturen bati lotuta dauden zerbitzu-kontratuak, balio zenbatetsia 209.000 eurokoa edo handiagoa denean.

2. Diruz lagundutako kontratu-erakundeentzako arauak aplikatuko zaizkie norbanakoek edo botere adjudikatzaileak diren sektore publikoko erakundeek izenpetutako kontratuei; azken kasu honetan, lege honen hirugarren liburuaren II. tituluan ezarritakoekin batera. Diruz lagundutako kontratua botere adjudikatzaileak diren sektore publikoko erakundeek adjudikatzen dutenean, erakunde horientzat aurreikusitako kontratazio-arauak aplikatuko dira, kontratuaren izaeraren arabera. Arau bat salbuetsiko da; kontratazio-erakundearen errekurtso berezia ebazteko eta adjudikazio-prozeduran kautela-neurriak ezartzeko eskumena nori dagokion zehazteko, hain zuzen; izan ere, kasu horretan, 47. artikuluan 2. apartatuan ezarritako araua aplikatuko da beti.

### 3. atala. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak

24. artikulua. *Sektore publikoko kontratuei aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

Sektore publikoko kontratuak zuzenbide administratiboko edo zuzenbide pribatuko araubide juridiko baten pean egon ahalko dira.

25. artikulua. *Administrazio-kontratuak.*

1. Administrazio-izaera izango dute kontratu hauek, administrazio publiko batek egiten baldin baditu:

a) Obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak, hornidura-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak. Hala ere, honako kontratu hauek izaera pribatua izango dute:

1.a Objektutzat 66100000-1etik 66720000-3rako CPV erreferentzia-zenbakiko zerbitzu finantzarioak dauzkaten zerbitzu-kontratuak, eta 79995000-5etik 79995200-7rako eta 92000000-1etik 92700000-8rako CPV erreferentzia-zenbakiko sorkuntza eta interpretazio artistiko eta literarioa eta ikuskizunak dauzkatenak, salbu eta 92230000-2, 92231000-9 eta 92232000-6 CPVkoak dauzkatenak objektutzat.

2.a Objektutzat aldizkarietako, aldizkako argitalpenetako eta datu-baseetako harpidetza daukatenak.

b) Lege batez horrela berriaz deklaraturakoak, bai eta aurreko letran adierazitakoak beste objektu bat duten beste batzuk ere, Administrazioarentzat izaera berezia daukatenak, Administrazio kontratatzailearen berriazko igorpen nahiz trafikari lotuta daudelako, edo Administrazioaren berriazko eskumenerako helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako.

2. Administrazio-kontratuen prestaketa, adjudikatzea, ondorioak, aldaketa eta azkentzea lege honen eta bera garatzeko xedapenen pean izango dira; horien ordezko modura, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, aurreko apartatuko b) letran aipatzen diren administrazio-kontratu bereziei beren arau espezifikoak aplikatuko zaizkie lehenbizi.

26. artikulua. *Kontratu pribatuak.*

## 1. Honako hauek joko dira kontratu pribatuztat:

- a) Administrazio publikoek egiten dituztenak aurreko artikulua lehenengo apartatuaren a) eta b) letretan aipatutakoez beste objektu batekin.
- b) Botere adjudikatzailerak izan eta administrazio publikoaren izaera ez duten sektore publikoko erakundeek egiten dituztenak.
- c) Botere adjudikatzaileraren izaera ez duten sektore publikoko erakundeek egiten dituztenak.

2. Administrazio publikoek egiten dituzten kontratu pribatuak, prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, berariazko araurik ezean, lege honen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 1. eta 2. atalen arabera arautuko dira, oro har, eta beren garapenerako xedapenen arabera; ordezkari moduan administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak, subjektu edo erakunde kontratatzailea dela-eta egokitzen denaren arabera. Horien ondorioei, aldatetari eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuak arautuko ditu kontratu horiek.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, aurreko artikulua lehenengo apartatuaren a) letrako 1. eta 2. zenbakietan aipatutako kontratuei, lege honen lehenengo liburuaz gainera, beronen bigarren liburua aplikatuko zaie prestatzeari eta adjudikazioari dagokienez. Ondoreei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatu beharko dira, salbu eta kontratuak egikaritzeari, aldatzeari, lagatzeari, kontratatzeari eta suntsiarazteari buruzko baldintza berezian gainean lege honetako artikuluetan ezarritakoa; izan ere, hori kontratua erregulazio harmonizatuko denean aplikatuko zaie.

3. Administrazio publikoaren kategorian sartzen ez diren eta artikulua honen lehenengo apartatuaren b) letran aipatu diren botere adjudikatzailerak egiten dituzten kontratu pribatuak, horien objektua lege honen eremuan sartuta dagoenean, lege honen beraren hirugarren liburuaren I. tituluaren xedatutakoaren arabera arautuko dira, prestaketari eta adjudikazioari dagokienez.

Haien ondoreei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatu beharko dira, bai eta ingurumenaren, arlo sozialaren edo lan-arloaren gaitan 319. artikulua lehenengo paragrafoak aipatzen dituen arauak ere, kontratua egikaritzeko baldintza bereziei, kontratua aldatzeari, lagapen eta azpikontratazioari eta kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeari buruzkoak; eta kontratua suntsiarazteko kausa, prestazioa hasieran itundutako eran ezin emateari buruzkoa, 204. eta 205. artikuluen arabera kontratua ezin alda daitekeenean.

4. Botere adjudikatzaileraren izaera ez duten sektore publikoko erakundeek egiten dituzten kontratuak 321. eta 322. artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Ondoreei, aldatetari eta azkentzeari dagokienez, aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauak erregulatuko dituzte.

27. artikulua. *Jurisdikzio eskuduna.*

1. Honako gai hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren eskumenekoak izango dira:

- a) Administrazio-kontratuen prestaketari, adjudikazioari, ondoreei, aldatetari eta azkentzeari buruzkoak.
- b) Administrazio publikoaren kontratu pribatuak prestatzearekin eta adjudikatzeari zerikusia dutenak.

Horretaz gainera, lege honen 25. artikulua lehenengo apartatuaren a) letrako 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren eta erregulazio harmonizatukoak diren kontratuei dagokienez, lege honen 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldateten aurkaratzeak, aldatetak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan aurkeztutakoak.

c) Kontratuen prestaketari, adjudikazioari eta aldaketei buruzkoak, azken horiek aurkaratzearen oinarria 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea denean, pentsatzen delako Administrazio Publiko ez diren botere adjudikatzailerik egindako kontratuak berriz adjudikatu behar zirela egindako aldaketa horiek zirela eta.

d) Botere adjudikatzaileraren izaera ez duten sektore publikoko erakundeen kontratuen prestaketari eta adjudikazioari buruzkoak.

e) Lege honen 44. artikuluan eta 321.5 artikuluan aurreikusitako errekursoak ebazteko organo administratiboek emandako ebazpenen aurka jarritako errekursoak.

f) Lege honen 23. artikulua aipatzen dituen diruz lagundutako kontratuen prestaketa, adjudikazioa eta aldaketa direla-eta sortzen diren gaiak.

2. Jurisdikzio-ordena zibila izango da honako hauek ebazteko eskuduna:

a) Aldeen artean sortzen diren gatazkak, botere adjudikatzailerik hartzen diren erakundeen kontratu pribatuaren ondoreei eta azkentzeari buruzkoak, botere horiek administrazio publikoak izan zein ez izan. Hemen ez dira sartzen aurreko apartatuko b) eta c) letretan aipatutako kontratu-aldaketei buruzko gatazkak.

b) Botere adjudikatzaileraren izaera ez duten sektore publikoko erakundeek egiten dituzten kontratuen ondoreei eta azkentzeari buruzko gaiak.

c) Obra publikoaren emakidarako edo zerbitzu-emakidako kontratuaren finantzaketa pribatuari buruzko gai gatazkatsuak ezagutzea; salbuespen izango dira lege honetan xedatutakoaren arabera Administrazio adjudikatzailerari esleitzen zaizkion administrazio-betebeharrak eta -ahalak betetzeko eta erabiltzeko izandako jardunak, horietan administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango baitu eskumena.

## LEHEN LIBURUA

### **Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak**

#### I. TITULUA

#### **Sektore publikoko kontratuei buruzko xedapen orokorrak**

#### I. KAPITULUA

#### **Sektore publikoko kontratazioaren arrazionaltasuna eta funtsa**

28. artikulua. *Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.*

1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla begiratu dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoaren prozeduretan alderdi positibo gisa hartuko dituzte kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

3. Artikulu honetan ezarritako beharraren, egokitasunaren eta efizientiaren printzipioen arabera, sektore publikoko erakundeek, legez ezarritako baldintzak bete ondoren, ekimen pribatuak sustatutako proiektuetatik heldu diren kontratuak egin ahalko

dituzte –obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak, bereziki– ekonomia mistoko sozietatearen modalitatean.

4. Sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren jarduera programatuko dute eta aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko aldietan garatuko, eta kontratazioari buruzko beren plana aurrez jakinaraziko dute, aurretiazko informazioaren iragarki baten bitartez; iragarki horretan, zeina 134. artikuluan aurreikusita baitago, gutxienez ere erregulazio harmonizatuko kontratuak agertuko dira.

29. artikulua. *Kontratuen iraupen-epea eta haien prestazioa emateko epea.*

1. Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldi-aldi prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, alde batera utzi gabe kontratu jakin batzuei aplikatu beharreko arau bereziak.

2. Kontratuak behin edo zenbait aldiz luzatzeko aukera jaso ahalko du, baldin eta haren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapen horiek irauten duten bitartean; hori ez da eragozpena izango lege honen 203. artikulutik 207. artikulura ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketetarako.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta aurreabisua kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago egiten bada; kontratuaren baldintza-agiriak hori baino epe luzeagoa ezar dezake. Aurreabisuaren betebeharretik salbuetsita daude bi hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuak.

Inolaz ere ezingo da kontratua luzatu aldean isilbidezko adostasunez.

Apartatu honetan ezarritako kontratu-luzapena ez da nahitaezkoa izango kontratistarentzat, kontratuan 198.6 artikuluan ezarritako suntsiarazte-kausa gertatzen bada, hau da, Administrazioa prezioaren ordainketan sei hilabete baino gehiago atzeratu bada.

3. Enpresaburua prestazioa ematen berandutzen denean, kontratazio-organoak epea luzatu ahalko dio, baina dagozkion zigorrak ere jarri ahalko dizkio; administrazio-kontratuetan, hain zuzen, lege honen 192. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa aplikatu daiteke.

4. Ondoz ondoko prestazioko hornidura- eta zerbitzu-kontratuek bost urte iraungo dute gehienez, denbora horren barnean direla artikuluan honen bigarren apartatua aplikatuz eta ente kontratatzaileari aplikatu beharreko aurrekontu-arauetan ezarritako baldintza eta mugak errespetatuz kontratazio-organoak erabakitzen dituen luzapenak.

Salbuespen gisa, zerbitzu-kontratuetan, aurreko paragrafoan ezarritakoaz gorako iraupen-epe bat ezarri ahalko da, kontratuarekin zuzenean lotutako inbertsioak berreskuratzeko aldiak hala eskatzen duenean eta inbertsio horiek kontratistaren gainerako ekoizpen-jardueran ezin direnean erabili edo haien erabilera ekonomiaren aurkakoa denean, eta betiere inbertsio horien amortizazioa zerbitzu-prestazioan kostu nabarmena denean; inguruabar horiek, nolahi ere, kontratazio-espeditentean justifikatu beharko dira, espeditenteari dagozkion inbertsioak eta haiek berreskuratzeko aldia adierazita. Zerbitzu-prestazioan kostu nabarmena izatea zer den erregelamendu bidez garatuko da.

Mantendu beharreko ondasun bat erosteko kontratuarekin batera egiten den mantentze-zerbitzuetarako kontratuak ondasun horren bizitza erabilgarria beste iraun ahalko du, baldin eta mantentze-lan hori, esklusibotasun-arrazoiak tarteko, ondasun horren enpresa hornitzaileak baizik ezin badu egin.

Halaber, pertsonentzako zerbitzuei dagozkien zerbitzu-kontratuetan iraupen-epe luzeagoa ezarri ahalko da, hala egitea beharrezkoa denean erabiltzaileek tratamenduak betetzen jarraitzeko eta zerbitzu-emailea aldatzea horren kalterako izan daitekeenean.

Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da



kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolana ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana.

5. Ondasun higiezin errentamendu-kontratuen iraupenak ezingo du gainditu bost urteko epea, horren barnean direla artikuluko honen bigarren apartatua aplikatuz kontratazio-organismoak erabaki litzakeen luzapenak.

6. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak iraupen-epe mugatua izango dute, eta epe hori haien objektua diren obren eta zerbitzuen arabera kalkulatu da, eta administrazio-klausula partikularren agirian jasoko da.

Obren edo zerbitzuen emakidak bost urteko epea gainditzeko baldin badu, haren gehieneko iraupenak ezingo du gainditu obrak edo zerbitzuak ustiatzeko emakidadunak egindako inbertsioak –eta, horiekin batera, inbertitutako kapitalaren gaineko etekina– berreskuratzeko kalkulatuak arrazoizko denbora, kontratuaren helburu berariazkoak lortzeko behar diren inbertsioak kontuan hartuta.

Kalkulua egiteko kontuan hartzen diren inbertsioetan, bai hasierako inbertsioak bai emakidaren bizitzan zehar egindakoak sartzen dira.

Nolana ere, obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuak iraupenak, apartatu honen bigarren lerrokadan aipatzen denak, ezingo ditu honako hauek gainditu, luzapenak barne:

- a) Berrogei urte, obra-emakidako kontratuarentarako, eta obrak egitea eta zerbitzua ustiatzea dakarten zerbitzu-emakidako kontratuarentarako.
- b) Hogeita bost urte, osasun-zerbitzuak ematearekin lotuta ez dagoen zerbitzu bat ustiatzea dakarten zerbitzu-emakidako kontratuarentarako.
- c) Hamar urte, osasun-zerbitzuak emateko zerbitzu bat ustiatzea jasotzen duten zerbitzu-emakidako kontratuarentarako, zerbitzu horiek a) letran bilduta ez daudenean.

Baldintza-agirietan ezarritako epeak hasierako iraupenaren ehuneko 15 baizik ezingo dira luzatu 270. eta 290. artikuluetan aurreikusitako egoeretan kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko.

Emakidaren iraunaldia eta obrak egiteko epea kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko administrazio emakida-emakidari egotz dakioken kausa batengatik edo ezinbestean obretan egin behar diren etenaldiak. Emakidaduna bada obrak atzeratzearen erantzulea, orduan, administrazio-klausula partikularren agirian eta lege honetan jasotako zigor-araubidean xedatutakoari jarraituko zaio, eta berandutze horrek ez du emakida-epea luzatzeko aukerarik emango.

7. Aurrez xedatutakoa gorabehera, obra-kontratuen zein hornidura-kontratuen osagarri diren zerbitzu-kontratuak 4. apartatuan aipatutakoa baino iraupen-epe luzeagoa izan ahalko dute, baina ez da izango kontratu nagusiaren iraupena baino luzeagoa, kontratu nagusia likidatzearekin zerikusia daukaten lanak hartzen dituzten kontratuen kasuan izan ezik; horien azken epea kontratu nagusiarena baino luzeagoa izango da, lanok amaitzeko behar den beste denboraz. Apartatu honek aipatzen duen kontratu osagarriaren hasiera eten egingo da dagokion kontratu nagusia egikaritzen hasi arte, non eta kontratu osagarriaren objektutik eta edukitik heldu den arrazoi justifikaturik ez dagoen.

Kontratu osagarriak beste kontratu baten –kontratu nagusiaren– mende daudenak dira, eta, kontratu osagarri izango badira, gainera, haien objektua beharrezkotzat jo behar da kontratu nagusi horren prestazioa edo prestazioak zuzen gauzatzeko.

8. Lege honen 118. artikuluan lehen apartatuan zehazten diren kontratu txikiek ezin dute iraun urtebete baino gehiago, eta luzatu ere ezin dira egin.

9. Artikulu honen 4. eta 6. apartatuek aipatzen duten inbertsioak berreskuratzeko epea kalkulatzeko, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legearen 4. eta 5. artikuluetan aipatzen den errege-dekretuan ezarritakoari jarraituko zaio.

30. artikulua. *Administrazio Publikoak ematea zuzenean prestazioak, enpresaburu partikularren laguntzarekin edo bitarteko propio ez-pertsonifikatuen bitartez.*

1. Administrazio Publikoaren zerbitzuek berek egin ahalko dituzte obrak, beren baliabide ez-pertsonifikatuak bakarrik erabiliz edo enpresaburu partikularrekin lankidetzan, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Administrazioak fabrika, armategi, arma-lantegi edo zerbitzu tekniko edo industrial egokiak edukitzea prestazioa emateko; hala bada, normalean, sistema hau erabili beharko da prestazioa emateko.

b) Administrazioak obretan erabiltzeko moduko gai lagungarriak edukitzea eta, horiek erabili, aurrekontuaren 100eko 5etik gora aurreztea edo obra arinago egitea; azken kasu horretan, justifikatu egin behar dira hortik datozen abantailak.

c) Aurrez egindako lizitazioan ezein enpresaburuk eskaintzarik ez aurkeztu izana.

d) Larrialdiko kasua izatea, 120. artikuluan adierazitakoaren arabera.

e) Prestazioaren izaera dela-eta, ezinezkoa izatea alde aurretik prezio zehatza edo lan-unitate sinpleen arabera aurrekontua ezartzea.

f) Prezio kontrajarrietan adostasunik lortu ez delako, kontratista nahitaez kendu behar izatea obra-unitate batzuk egitetik.

g) Ondasunak kontserbatzeko eta mantentzeko ez bestetarako obrak izatea, lege honen 232.5. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

h) Salbuespenez, aurreproiekturen batean zehaztutako obrak egiteko lanak izatea, eta 146.2. artikulua ez aplikatzea, adjudikazio-irizpide bat baino gehiago dituzten eskaintzen balorazioari buruzkoa.

Aurreko a), b), c), e) eta f) letretan jasotako kasuetan, dagokion proiektua idatzi beharko da, eta proiektu horren edukia erregelamendu bidez ezarriko da.

2. Ondasun higigarriak administrazioko zerbitzuek berek fabrikatu ahalko dituzte, dela beren bitarteko ez-pertsonifikatuak bakarrik erabiliz, dela enpresaburu partikularren lankidetzarekin; horretarako, baina, aurreko apartatuko a), c), d) eta e) letretan jasotako egoeraren bat gertatu behar da, edo, apartatu horretako b) letretan zehaztutako kasuan, aurreztu ahal den zenbatekoak horniduraren aurrekontua baino 100eko 20 handiagoa izan behar du, edo arinago gauzatzeko aukera izan behar du.

Muga horietatik salbuetsita daude defentsa nahiz interes militarreko arrazoiak direla medio Administrazioak egitea komeni den ondasun higigarrien fabrikazioak.

3. Zerbitzu-ematea normalean Administrazioak berak gauzatu du, bere bitartekoekin. Hala eta guztiz ere, behar adina bitarteko ez duenean, espedientean behar bezala justifikatuta, lege honen II. liburuaren II. tituluaren V. kapituluaren ezarritakoaren arabera kontratatu ahalko da.

4. Artikulu honen aurreko apartatuekin bat obrak edo ondasun higigarriak enpresaburu partikularrekin lankidetzan egiten edo fabrikatzen direnean, kontratuei aplikatu beharreko araubide juridikoa lege honetako obra- edo hornidura-kontratuetarako ezarritakoa izango da. Administrazioarekin lankidetzan jardungo duen enpresaburua hautatzeko, 131. artikuluan ezarritako adjudikazio-prozedurak erabiliko dira, artikulu honen 1. apartatuko d) letretan aurreikusitako kasuan izan ezik.

Artikulu honen 1. apartatuko a) eta b) letretako obren kasuetan, lankideekiko kontratazioa ezingo da izan proiektuaren zenbateko osoaren ehuneko 60 baino handiagoa.

5. Gastua onesteko eskumena daukan kontratazio-organoari edo autonomia-erkidegoetako xedapen organikoek beren eremuan zehazten duten organoari dagokio obrak egiteko eta ondasun higigarriak fabrikatzeko baimena ematea, eta, hala badagokio, proiektua onestea ere bai.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaie 32. eta 33. artikuluetan araututako bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuei ere.



31. artikulua. *Auto-antolaketarako ahalmena eta lankidetzaren publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.*

1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetakoren batean, lankidetzaren horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:

a) Lankidetzaren bertikaleko sistemen bitartez, alegia, bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz botere adjudikatzailerentzat 32. artikuluan eta botere adjudikatzaileraren izaera ez duten sektore publikoko enteentzat 33. artikuluan ezarritako zentzuarekin eta mugekin, beren burua antolatzeko ahalmenaz baliatuta, kasuan kasuko mandatu-akordioaren bitartez.

b) Sektore publikoko erakundearen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek, nolahi ere, berariazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute.

3. Kontratazio-prozedura bat bere osotasunean hainbat erakunde beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango da beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.

Kontratazio-prozedura bat erakunde interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eramaten dituzten atalei dagokienez izango da erakunde horien guztien erantzukizuna. Erakunde bakoitza bere betebeharrak betetzearen erantzule bakarria izango da bere izenean eta bere kontura aurrera eramaten dituen ataletan.

32. artikulua. *Botere adjudikatzailerak bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatuak.*

1. Botere adjudikatzailerak beren burua antolatu ahalko dute obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak zuzenean emateko beste pertsona juridiko batez baliatuta, hari alde aurretik mandatu emanda eta tarifa bidezko ordain baten truke; horretarako, artikuluan honetan xedatutakoari jarraituko diote, eta betiere erabiltzen duten pertsona juridikoak, zeina zuzenbide publikokoa zein zuzenbide pribatukoa izan baitaiteke, beren bitarteko propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa merezi behar du, hurrengo hiru apartatuetan xedatutakoarekin bat, eta, hala badagokio, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Estatuaren eremuko bitarteko propioetarako ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Baldintza horiek betetzen dituen mandatuak ez da hartuko kontratutzat.

2. Sektore publikoko erakunde zehatz bakar baten bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira ondoren ezartzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman ahal dituen botere adjudikatzailerak horien hartzailea den entearen gainean kontrol bat izatea, zuzeneko zein zeharkakoa, bere zerbitzu edo unitate propioekiko duenaren antzekoa, halako moduz non lehenengoak bigarrenaren eragin erabakigarria eduki ahalko duen helburu estrategikoetan eta erabaki garrantzitsuetan.

Nolahi ere, kasu honetan ulertuko da mandatuak eman ahal dizkion botere adjudikatzailerak mandatuaren hartzailea den entearen gainean kontrol bat duela, bere zerbitzu edo unitate propioen gainean duenaren antzekoa: hark berak edo beste botere adjudikatzailerak batek edo batzuek edo lehenengoak era berean kontrolatutako pertsona juridiko batzuek mandatuak eman ahal ditzaketenean, mandatuaren hartzaile den entearentzat nahitaez betetzekoak direnak, estatutuek edo sorrerako ekintzak halaxe ezarri dutelako, halako moduz non horien artean erabakitze-batasun bat egongo den, mandatuak egiten dituzten enteak alde bakarrez finkatutako jarraibide batzuen arabera.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzen: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta enkarguaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratzen diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratutako jarduerari tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoiztiko unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatuko dira.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela mandatu ematen duen eta hura kontrolatzen duen botere adjudikatzaileak –edo mandatu ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.

Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 hori kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira aintzat: negozioen bolumen orokorraren batezbestekoa; botere adjudikatzaileari emandako zerbitzuengatik izandako gastuak, edozein entitateri emandako prestazioen truke bitarteko propioak izan dituen gastu guztiak aintzat hartuta; edo jarduerari buruzko beste edozein adierazle fidagarri. Hori guztia mandatu formalizatu aurreko hiru ekitaldiei dagokienez.

Mandatu formalizatu aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumen orokorra edo –aurreko paragrafoan ezarri bezala– jarduerari buruzko beste adierazlerik eskura ez badago mandatu ematen duen botere adjudikatzailearen sorrera-data dela-eta, haren jardueraren hasiera dela-eta edo haren jarduerak berrantolatuta direla-eta, edo indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela egiaztatzea, negozio-proiekzioen bitartez bereziki.

Letra honetan ezarritako baldintza egiaz betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, oroitidazkian, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoria egitean, kontuen auditoriaren jarduera arautzen duen araudiari jarraituz.

c) Mandatuaren hartzailea den entea pertsonifikazio juridiko pribatuko ente bat denean, gainera, haren kapital edo ondare guztiak titulartasun edo ekarpen publikokoa izan beharko du.

d) Mandatuaren hartzaile den erakundeak berriaz aitortu beharko du, bere estatutuetan edo sorrera-ekintzetan, mandatu ematen duen botere adjudikatzaile jakinaren bitarteko propio pertsonifikatua dela, honako baldintza hauek bete ondoren:

1.a Zer botere adjudikatzailearekiko bitarteko propioa izango den, haren adostasuna edo berriazko baimena.

2.a Erakunde publikoak egiaztatu beharko du bere bitarteko propioa izango den ente horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak beren xede sozialaren arabera betetzeko.

Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuek edo sorrera-ekintzak honako hauek zehaztu beharko ditu: enteak izaera hori zer botere adjudikatzailearekiko duen, eta eman ahal zaizkion mandatuen araubide juridiko eta administratiboa zein den. Gainera, estatutuek edo sorrera-ekintzak bitarteko propioari debekua ezarriko diote bere botere adjudikatzaileak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko –halere, lizitatuak bakarrenean ere aurkeztu ez denean, mandatu eman ahal izango zaio enteari lizitazioaren xede diren prestazioak emateko–.

Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza, nolahi ere, enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean pentsatuko da betetzen dela.

3. Artikulu honen 2. apartatua aplikatuko da, halaber, kontrolatutako pertsona juridikoak, bera ere botere adjudikatzailea izanda, bera kontrolatzen duen botere adjudikatzaileari edo botere adjudikatzaile berak zuzenean zein zeharka kontrolatutako beste pertsona juridiko bati mandatu bat ematen dionean, non eta ez dagoen kapital pribatuaren zuzeneko partaidetzarik mandatu ematen zaion pertsona juridikoan.

4. Elkarrekiko independenteak diren bi botere adjudikatzailearen edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman diezazkioketen botere adjudikatzaileek beren zerbitzu edo unitate propioekiko izan lezaketaren antzeko kontrol bat izatea, batera, horien hartzailea den entearen gainean.

Baterako kontrol bat izateko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

1.a Mandatuaren hartzaile den entearen erabakitze-organoetan ordezkaritza izatea hari mandatuak eman ahal dizkioten ente guztiak; halakoetan, ordezkari bakoitzak azken horietako batzuk edo guztiak ordezkatu ahalko ditu.

2.a Azken horiek zuzenean eta batera eragin erabakigarria eduki ahal izatea mandatuaren hartzaile den entearen helburu estrategikoei eta erabaki garrantzitsuei buruz.

3.a Mandatuaren hartzaileak ez izatea mandatuak eman ahal dizkioten entearen interesen aurkakoak diren interesak.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta mandatuaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatu diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatuak jardueren tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoizitako unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatu dira.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzaileek –edo botere adjudikatzaile horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikuluan honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

Letra honetan ezarritako baldintza betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, oroitidazkian, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoria egitean, kontuen auditoriaren jarduera arautzen duen araudiari jarraituz.

c) Artikulu honek 2. apartatuko c) eta d) letretan ezarritako baldintzak betetzea.

5. 2. edo 4. apartatuetan kasuan-kasuan ezarritako baldintzetatik edozein gerora ez betetzeak bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera galtzea ekarriko du berekin, eta, horrenbestez, ukitutako pertsona juridikoari mandatuak ematen ezin jarraitzea; hori, halere, ez da eragozpena izango betetze-fasean mandaturik badago hura bururaino eramateko.

6. Sektore publikoko entitateek artikuluan honen bigarren, hirugarren edo laugarren apartatuen arabera lehenengoaren edo lehenengoaren bitarteko propio pertsonifikatutzat kalifika daitekeen ente bati ematen dizkioten mandatuak, juridikoki, ez dira hartuko kontratutzat, eta honako arau hauek baizik ez dute bete beharko:

a) Baliabide propio pertsonifikatuak dagokion kontratazio-plataforman honako hauek eduki beharko ditu argitaratuta: halakoaren izaera duela; zer botere adjudikatzaileekiko duen izaera hori, eta zer jarduera-sektorekiko izango litzatekeen gai mandatuaren xede diren prestazioak emateko, hain zuzen bere xede sozialean sartzen direlako.

b) Mandatua agiri baten bidez formalizatuko da, eta agiri hori dagokion kontratazio-plataforman argitaratuko da 63.6 artikuluan aurreikusitako kasuetan. Mandatua formalizatzeko agiriak mandatuaren iraupen-epea ezarriko du.

c) Lege honen 3.3 artikuluan xedatutakoaren indarrez botere adjudikatzailearen izaera duten Estatuko sektore publikoko erakundeetako organoek Ministro Kontseiluaren baimena beharko dute mandatuaren ondoriozko gastuaren zenbatekoa hamabi milioi eurokoa edo gehiagokoa denean.

Ministro Kontseiluaren baimena, aurreko paragrafoan aipaturik datorrena, organo eskudunak mandatua izenpetu baino lehenago lortu beharko da. Behin baimena lortuta, organo eskudunei egokituko zaie gastua onetsi eta mandatua izenpetzea, kasuan kasuko arauetan xedatutakoari jarraituz.

Aipatutako baimena lortzeko, organo eskudunek gutxienez ere honako agiri hauek igorri beharko dituzte: mandatuaren testua; zerbitzu juridikoaren txostena, eta kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria edo, gutxi gorabeherako aurrekontua duten botere adjudikatzailerak direnean, finantzaketa badagoela ziurtatzen duten agiri baliokideak.

Ministro Kontseiluak baimendutako mandatuaren aldaketek ere Ministro Kontseiluaren baimena beharko dute alde zuzenetik, mandatuaren zenbatekoaren ehuneko 20tik gorakoak direnean.

Ministro Kontseiluak ematen duen baimena orokorra izango da mandatua izenpetzeko, eta inolaz ere ez du berekin ekarriko egindako izapideak ontzat ematea, eta, gainera, ez ditu salbuetsiko aldeak mandatua zuzen izapidetzeko eta betetzeko duten erantzukizunetik.

7. Mandatuaren hartzaileak diren enteek artikulua honen arabera jasotako mandatua betetzeko egiten dituzten negozio juridikoei honako arau hauek aplikatuko zaizkie:

a) Kontratua lege honen pean geratuko da, dagozkion baldintzetan, negozio juridiko haiek egin dituen erakundearen izaeraren arabera eta haien mota eta balio zenbatetsiaren arabera. Nolanahi ere, bitarteko propioa botere adjudikatzailerak ez direnean, lege honen hirugarren liburuaren I. tituluaren jasotako arauak aplikatuko zaizkie.

b) Bitarteko propioak hirugarrenekin prestazio partzialak kontratatzen baditu, haien zenbatekoa ez da izango mandatuaren zenbatekoaren ehuneko 50etik gorakoa.

Letra honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko emakida bat –obretakoa zein zerbitzuetakoa– enkargatu zaien bitarteko propioek egiten dituzten obra-kontratuei. Halaber, ez da aplikatzen izango zerbitzu publikoa propio horretarako sortutako zuzenbide publikoko erakunde bidez kudeatzen den kasuetan, ez eta zerbitzu publikoa kapital osoa titulartasun publikokoa duen zuzenbide pribatuko sozietateren baten bidez kudeatzen den kasuetan ere.

33. artikulua. *Sektore publikokoak izan eta botere adjudikatzailerat hartzen ez direnek bitarteko propio pertsonifikatuei emandako mandatua.*

1. Botere adjudikatzailerat hartzen ez diren sektore publikoko erakundeek beste pertsona juridiko batez baliatuta eman ahalko dituzte zuzenean obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen prestazio propioak ordain baten truke, hari aurrez mandatua emanda eta artikulua honetan xedatutakoari jarraituta, baldin eta erakundeek erabiltzen duten pertsona juridiko horrek beraiekiko bitarteko propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa merezi badu, hurrengo apartatuan xedatutakoarekin bat. Baldintza horiek betetzen dituen mandatua ez da hartuko kontratatuz.

2. Botere adjudikatzailerat hartzen ez den sektore publikoko erakunde baten bitarteko propio pertsonifikatuz hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatua ematen duen enteak mandatuaren hartzaile den entearen kontrola izatea, zuzeneko zein zeharkakoa, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren zentzuan.

b) Mandatuaren hartzaile den entearen kapital edo ondare guztia titulartasun publikokoa izatea.

c) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela mandatua ematen duen eta hura kontrolatzen duen erakundeak –edo mandatua ematen duen erakundeak era berean kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez.

Letra honetan ezarritako baldintza egiaz betetzen dela mandatuaren ente hartzailearen urteko kontuetan islatu beharko da, oroitidazkian, eta, horrenbestez, kontuen auditoreak

egiaztatu beharko du, urteko kontu horien auditoria egitean, kontuen auditoriaren jarduera arautzen duen araudiari jarraituz.

3. Artikulu honen 2. apartatua aplikatuko da Estatuko sektore publikoko pertsona juridiko batek Estatuko sektore publikoko beste pertsona juridiko bati mandatu bat ematen dionean ere, baldin eta horietako batek, mandatua ematen duenak zein mandatua hartzen duenak, bestearen gaineko kontrola badu edo zuzenean edo zeharka haren kapital sozialean parte hartzen badu.

## II. KAPITULUA

### Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia

#### 34. artikulua. *Itunak egiteko askatasuna.*

1. Sektore publikoko kontratuetan, edozein itun, klausula eta baldintza sartu ahalko da, baldin eta interes publikoaren kontra, antolamendu juridikoaren kontra edo administrazio onaren printzipioen kontra ez badaude.

2. Kasu bakar batean bateratu ahalko dira kontratu bateko baino gehiagoko prestazioak kontratu misto batean: alegia, prestazio horiek elkarrekin zuzenean lotuta badaude eta, elkarren artean osagarri izanik, premia jakin bat betetzeko edo erakunde kontratatzailearen berezko erakunde-xederen bat lortzeko unitate funtzional gisa hartu eta tratatu behar badira.

#### 35. artikulua. *Kontratuaren gutxieneko edukia.*

1. Sektore publikoko erakundeek kontratuak egiteko erabiltzen dituzten agiriek, jada baldintza-agirietan jasota ez badaude, honako aipamen hauek jaso beharko dituzte nahitaez:

- a) Alderdiak zein diren.
- b) Alderdiek kontratua izenpetzeko duten gaitasunaren egiaztapena.
- c) Kontratuaren objektuaren eta motaren definizioa, objektuaren definizioan kontsiderazio sozial, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak kontuan hartuta.
- d) Kontratuari aplikatzekoa zaion legeriaren aipamena egitea.
- e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda zenbakitua. Kontratuan hala adieraziz gero, zerrenda hori hierarkizatua izan daiteke, alderdiek erabakitako lehentasun-hurrenkeraren arabera; horrelakoetan, ageriko akatsik ezean, hitzartutako hurrenkera erabiliko da dokumentuen artean kontraesanak daudenean bakoitzari dagokion prebalentzia zehazteko.
- f) Prezio zehatza, edo zehazteko modua.
- g) Kontratuaren iraupena edo kontratua betetzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, bai eta luzapenen edo luzapenen iraupena ere, baldin eta aurreikusita badaude.
- h) Prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.
- i) Ordaintzeko baldintzak.
- j) Zer kasutan alda daitekeen, hala badagokio.
- k) Zer kasutan suntsiaraziko den.
- l) Hala egokituz gero, prezioa zer aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.
- m) Hala egokituz gero, kontratistari ezartzen zaion konfidenzialtasun-betebeharrak zer hartzen duen eta zenbat denborarako den.
- n) Enpresa kontratistak duen betebeharra, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan finkatutako arau eta baldintzak kontratua egikaritzeko epe osoan betetzekoa.

2. Kontratu-agirian ezingo da ezarri baldintza-agirietan ezarritakoez besteko eskubide eta betebeharrak alderdientzat; baldintza-agiririk ezean, adjudikaziodunaren proposamenean edo

kontratua adjudikatzeko egintzan zehaztuko dira alderdien eskubide eta betebeharrak, prozeduran gauzatuak diren arabera.

### III. KAPITULUA

#### Kontratua burutzea eta kontratuaren forma

##### 36. artikulua. *Kontratua burutzea.*

1. Botere adjudikatzailerik egiten dituzten kontratuak, salbu eta kontratu txikiak eta esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak eta eskuratze-sistema dinamiko baten esparruan egiten diren eta artikuluko honen 3. apartatuak aipatzen dituen kontratu berariazkoak, formalizazioarekin batera burutuko dira.

2. Lege honen 23. artikuluko arabera erregulazio harmonizatuko kontratuen izaera duten diruz lagundutako kontratuak burutzeari dagokionez, kontratu horiek arautzen dituen legeria hartu beharko da aintzat. Alderdiak formalizazioaren berri eman beharko diote diru-laguntza eman zuen organoari.

3. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak eta eskuratze-sistema dinamiko batean egindako kontratu berariazkoak, berriz, adjudikazioarekin batera burutuko dira.

4. Klausuletan besterik adierazi ezean, kontratazio-organismoaren egoitza dagoen tokian egindakotzat hartuko dira sektore publikoko kontratuak.

##### 37. artikulua. *Sektore publikoko kontratuen izaera formala.*

1. Sektore publikoko erakundeek ezingo dute kontraturik egin ahoz, non eta kontratua ez den, 120.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, larrialdi-kasukoa.

2. Administrazio publikoek egindako kontratuak 153. artikuluko arabera formalizatuko dira, alde batera utzi gabe kontratu txikietarako 118. artikuluan adierazitakoa.

3. Administrazio Publikotzat hartzen ez diren botere adjudikatzailerik egiten dituzten kontratuak, 44. artikuluko arabera kontratazio-erloko errekurtsio berezia jarri ahal zaizkionean, 153. artikuluan ezarritako epeetan formalizatu beharko dira.

### IV. KAPITULUA

#### Baliogabetasun-araubidea

##### 38. artikulua. *Baliogabetasun-kasuak.*

Botere adjudikatzailerik egindako kontratuak, 23. artikuluan aipatzen diren kontratu diruz lagunduak horien barnean direla, baliogabeak izango dira:

a) Haietan zuzenbide zibileko xedapenen arabera baliogabetzeko arrazoiak bat dagoenean.

b) Kontratuak prestatzeko edo adjudikazio-prozedura betetzeko egintzaren bat baliogabea denean, hurrengo artikuluetan aipatzen diren Zuzenbide Administrazio boko arrazoiak bat gertatzen delako haietan.

c) Baliogabetasuna haien klausulak legez kanpokoak izateari zor zaizkionean.

##### 39. artikulua. *Administrazio-zuzenbideko deuseztasun-kausak.*

1. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikuluan aipatutakoak dira administrazio-zuzenbideko deuseztasun-kausak.

2. Halaber, erabat deusezak izango dira botere adjudikatzailerik egindako kontratuak, horietan honako kausa hauek diren bat gertatzen denean:

a) Jarduteko gaitasunik ez izatea edo kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalik ez izatea; edo gaikuntza enpresarial edo profesionalik ez izatea halakoa



eskatzekoa denean kontratuaren objektua den jarduera edo prestazioa aurrera eramateko; edo adjudikaziodunak sailkapena behar bezala ziurtatua ez izatea sailkapen hori izan behar duenean, edo adjudikaziodunak 71. artikuluan aipatzen diren kontratatzeke debekuetako bat izatea.

b) Batere krediturik edo kreditu nahikorik ez edukitzea; betiere, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean edo lege honen mendeko gainerako administrazio publikoetako aurrekontu-arauetan ezarritakoarekin bat etorritz, larrialdi-kasuak salbu.

c) Lizitazio-iragarkia ez argitaratzea Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman ostatatuta dagoen kontratzaile-profilean edo autonomia-erkidegoen antzeko informazio-zerbitzuetan, *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* edo aginduzkoa den publizitate-bidean 135. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

d) Kontratazio-organoak ez betetzea kontratua formalizatzeko epea, baldin eta bi baldintza hauek betetzen badira:

1.a Kausa horrengatik lizitatzailerak adjudikazio-prozeduraren egintzaren baten aurkako errekurtsua aurkezteko aukeraz gabetuta egotea.

2.a Gainera, kontratuak adjudikatzeke prozedura arautzen duen arauen bat urratu izana, eta horrek adjudikazioa lortzea eragotzi izana.

e) 44. artikulua eta hurrengoek aipatzen dituzten kontratazio-arloko errekurtsu berezia aurkeztu den kasuetan, kontratua honako hauek errespetatu gabe formalizatu izana: errekurtsua aurkeztu zaion egintzaren etendura automatikoa, hura bidezkoa den kasuetan, edo aurkeztutako kontratazio-arloko errekurtsu bereziaz arduratzeko asmoz organo eskudunak egintza eteteko hartutako kautelazko neurria.

f) Esparru-akordio batean oinarrituta zenbait enpresabururekin egindako kontratuak adjudikatzeke edo zenbait enpresaburu onartuta dauden eskuratzeko sistema dinamiko batean oinarritutako kontratu berariazkoak adjudikatzeke ezarritako arauak ez betetzea, ez betetze horrek kasuan kasuko kontratua beste lizitatzailerak bati adjudikatzea ekarri duenean berekin.

g) Europar Batasunak kontratazio publikoaren arloan emandako zuzenbide-arauen ez-betetze larria, kontratua kontratistari ez adjudikatzea ekarri behar zuena eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak prozedura batean deklaratu Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 260. artikuluari jarraituz.

#### 40. artikulua. *Administrazio-zuzenbideko deuseztagarritasun-kausak.*

Ordenamendu juridikoaren kontrako eta, bereziki, lege honetan jasotako arauen kontrako gainerako arau-haustek administrazio-zuzenbideko deuseztagarritasun-kausak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Bereziki, honako hauek sartzen dira aurreko paragrafoan aipatzen diren deuseztagarritasun-kausetan:

a) 204. eta 205. artikuluetan kontratuak aldatzeko eskatutako inguruabar eta baldintzak ez betetzea.

b) Edozein botere adjudikatzailek emandako xedapen, ebazpen, klausula edo egintza guztiak, zuzenean edo zeharka edozein administrazioarekin kontratatu duten enpresei abantailak ematen dizkietenak.

c) Botere adjudikatzaileek prestazioak bitarteko propioekin zuzenean ematea erabakita ematen dituzten mandatuak, 32. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuetan –bitarteko propioaren izaerari buruzkoetan– ezarritako baldintzetako bat betetzen ez denean.

#### 41. artikulua. *Ofizioz berrikustea.*

1. Kontratuak prestatzeko egintzak eta kontratuak adjudikatzeke egintzak ofizioz berrikusi behar direnean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legearen V. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera egingo da hori.

2. Soil-soilik lege honen ondorioetarako, administrazio publikoak ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuak prestatzeko egintzak eta adjudikatzeko egintzak hartuko dira administrazio-egintzatzat, bai eta lege honen 23. artikulua aipatzen dituen kontratu diruz lagunduak prestatzeko egintzak eta adjudikatzeko egintzak ere. Egintza horiek, ofizioz, aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera berrikusiko dira.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen diren egintza horien deuseztasuna edo kaltegarritasuna deklaratzeko eskumena kontratazio-organoak izango du administrazio publiko baten kontratuak direnean. Kontratatzailea administrazio publiko bat ez denean, ordea, erakunde kontratatzailea atxikita dagoen edo horren tutoretza duen sail, organo, erakunde edo organismoaren titularrak izango du eskumena. Dena den, autonomia-erkidegoek, beren eremuan, gai honen inguruko arauak eman ditzakete, baina bere erabakiekin administrazio-bidea amaitzen duen organo bati emango diote beti eskumen hori. Erakunde kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, kontrol edo partaidetza handiena duen administrazioan dagokion organoak izango du eskumena.

Diruz lagundutako kontratuen kasuan, diru-laguntza eman duen departamentuko titularrak edo hura eman duen erakundeko lehendakariak edo zuzendariak izango du eskumena. Diru-laguntza eman duen erakundea administrazio publiko bat ez bada eta sail, organo, ente edo organismo horietako bati atxikita badago, horien titularrari dagokio eskumena. Sektore publikoko hainbat subjektoren diru-laguntzak batera jasotzen badira, eskumena finkatzeko, diru-laguntza handiena hartuko da aintzat, eta zenbateko berberekoak izanez gero, lehenengo eman dena.

4. Berariaz besterik ezartzen ez bada, kontratatzeko eskumena eskuordetuta uzten bada, horrekin batera utziko da deuseztasuna edo kaltegarritasuna deklaratzeko eskumena ere. Hala ere, deuseztasun-kasuetan kalte-galeren ordaina ematea erabakitzeke ahalmena ezingo da eskuordetzan eman, eta organo eskuordetza-emaileak hartu behar du erabakia beti; hortaz, kalte-ordain bat ematea bidezko ikusten bada, espedientea organo eskuordetza-emaileari igorriko zaio, eta hark, alde aurretik ahalmena berriro eta berariaz bereganatu beharrik gabe, dagokion erabakia hartuko du deuseztasun-adierazpenaren inguruan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ezarritakoaren arabera.

5. Deuseztasun- eta deuseztagarritasun-kasuetan, kontratazio-organoen egintzak eteteari dagokionez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 108. artikuluan xedatutakoa beteko da.

#### 42. artikulua. *Deuseztasuna deklaratzearen ondoreak eta deuseztagarritasun-kasuetako ondoreak.*

1. Kontratuak prestatzeko egintzen edo adjudikazioaren gainean egindako deuseztasun-adierazpena irmoa denean, kontratua bera ere, beti, deuseztatu egingo da, eta likidazio-fasean sartuko da; alderdiek, ondorioz, kontratuaren indarrez jaso dituzten gauzak elkarri itzuli behar dizkiote, baina hori ezinezkoa bada, gauzen balioa itzuliko diote elkarri. Errudunak kalte-galeren ordaina eman beharko dio beste alderdiari.

2. Kontratuak prestatzekoak ez diren egintzen deuseztasunek egintza horiei eta horien ondorioei baino ez diete eragingo.

3. Baldin eta Administrazioak kontraturen baten deuseztasun-adierazpena ematen duenean zerbitzu publikoari eragozpen larriren bat sortzen bazaio, kontratu haren ondorioak jarraitzea xedatu dezake erabakian bertan, eta baldintza berberetan gainera, harik eta galerak ekiditeko urtegiak hartu arte.

4. Aurreko apartatuetan ezarritako ondoreak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 71. artikuluan ezarritakoari jarraituz, kaltegarritasuna deklaratu ondoren aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari amaiera ematen dion epaian erabaki ahalko dira.

43. artikulua. *Zuzenbide zibileko baliogabetasun-kausak.*

Kontratuak zuzenbide zibilean onartutako kausengatik baliogabetzeko, betiere kausa horiek 38. artikuluan aipatutako kontratuei aplikatzekoak badira, ordenamendu zibilean akzioak baliatzeko ezarritako baldintzak eta epeak bete behar dira; kausa horiez baliatzeko prozedura, ordea, kontratua administrazio publiko batek egin duenean, aurreko artikuluetan administrazio-egintza eta -kontratu deuseztagarrietarako ezarritakoaren menpe egongo da.

## V. KAPITULUA

### Errekurtso berezia

44. artikulua. *Kontratazio-arloko errekurtsu berezia: zer egintzaren aurka jar daitekeen.*

1. Kontratazio-arloko errekurtsu berezia jarri ahalko da artikulua honen 2. apartatuan adierazitako egintza eta erabakien aurka, baldin eta administrazio publikoek eta botere adjudikatzailaren izaera duten gainerako erakundeek egin nahi dituzten kontratu hauei badagozkie:

- a) Obra-kontratuak, haien balio zenbatetsia hiru milioi eurotik gorakoa denean, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia dutenean.
- b) Aurreko letran tipifikatutako kontraturen bat egitea xede duten esparru-akordioak eta eskuratze-sistema dinamikoak, bai eta horietako edozeinetan oinarritutako kontratuak ere.
- c) Obren edo zerbitzuen emakidak, hiru milioi eurotik gorako balio zenbatetsia dutenean.

Halaber, errekurtsuak aurkeztu ahalko dira administrazio-kontratu berezien aurka, haien ezaugarriak direla-eta haien lizitazio-prezioa ezin denean finkatu, edo, bestela, haien balio zenbatetsia zerbitzu-kontratuarentzako ezarritakotik gorakoa denean.

Halaber, kontratazio-arloko errekurtsu berezia jarri ahalko zaie 23. artikuluan aipatzen diren kontratu diruz lagunduei, bai eta mandatuari ere, haien ezaugarriak direla-eta haien zenbatekoa ezin denean finkatu edo, bestela, zenbateko hori, kontratu edo mandatuaren iraupen osoari erreparatuta –luzapenak barne–, zerbitzu-kontratuarentzako ezarritakoaren parekoa edo handiagoa denean.

2. Honako jarduera hauen kontra jar daiteke errekurtsua:

- a) Lizitazio-iragarkiak, baldintza-agiriak, eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-dokumentuak.
- b) Adjudikazio-prozeduran bete diren izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek zuzenean edo zeharka adjudikazioari buruz erabakitzen badute, prozedura bat betetzen jarraitzea eragozten badute edo defentsa-gabezia edo kalte konponezina ekartzen badute bidezko eskubide edo interesetan. Nolanahi ere, iritziko zaio kontratazio-mahaiak edo -organoak hautagaiak edo lizitatzailak onartzea edo ez onartzea erabakitzen duen egintzetan gertatzen direla aurreko inguruabarrak, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen duen egintzetan, horien barnean direla nabarmenki baxuegiak izateagatik 149. artikulua aplikatuta baztertzen diren eskaintzak.
- c) Adjudikazio-erabakiak.
- d) Lege honen 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketak, aldaketak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan.
- e) Bitarteko propioei emandako mandatuen formalizazioa, bitarteko propio horiek legezko baldintzak betetzen ez dituzten kasuetan.
- f) Emakidak erreskatatzeko erabakiak.

3. 2. apartatuan aipatutako egintzez bestelakoei eragiten dieten izapidetze-akatsak espedientearen instrukzioaren ardura duen organoari edo kontratazio-organuari jakinarazi ahal dizkiote interesdunek, Zuzenbidearen arabera zuzendu ditzaten. Nolanahi ere, interesdunek, adjudikazio-egintzari errekurtsua jartzean, aukera izango dute eragiten dieten irregulartasunak alegatzeko.

4. Larrialdiko izapideari jarraituz egiten diren adjudikazio-prozeduretan, errekurtsio hau ez da erabiliko.

5. Artikulu honetan aipatzen diren eta errekurtsio bereziaren bidez aurkaratu daitezkeen jarduketan aurka, ezingo da administrazio-errekurtsio arruntik aurkeztu.

6. Administrazio Publikoen kontratuak adjudikatzeko prozeduretan emandako egintzen aurka, 1. apartatuan jasotako baldintzak betetzen ez dituztenean, errekurtsioa aurkeztu ahalko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Administrazio publikoen izaera ez duten botere adjudikatzailerik egindako jarduketan kasuan, jarduketa horiek bide administratiboan aurkaratuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraituz, erakunde kontratatzailea atxikita dagoen edo haren tutoretza dagokion sail, organo, ente edo organismoaren titularrari zuzenduta. Erakunde kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, kontrol edo partaidetza handiena duen administrazioko dagokion organoak izango du eskumena.

7. Kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkeztea aukerakoa eta doakoa izango da errekurtsioa jartzen dutenentzat.

#### 45. artikulua. *Estatuko Administrazio Orokorrean errekurtsioa ebazteko organo eskuduna.*

1. Estatuko sektore publikoko botere adjudikatzailerik eremuan, Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusiari esleituko zaio aurreko artikuluan zehaztutako errekurtsioak aztertze eta ebazteko eskumena. Organo espezializatu horrek erabateko askatasun funtzionala izango du bere eskumenak gauzatzean. Organo hori Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikita egongo da, eta lehendakari batek eta gutxienez bi kidek osatuko dute. Handitu ahal izango da auzitegia osatuko duten kideen kopurua, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, aurkeztutako aztergaien tamaina dela-eta kide gehiago izatea komeni denean.

2. Lizentziadun-titulua edo graduiko titulua behar den kidego eta eskaletako karrerako funtzionarioak izendatu ahalko dira auzitegi honetako kide, baldin eta hamar urte baino gehiagoko jarduera profesionala badute, eta kontratazio publikoarekin zuzenean lotutako administrazio-zuzenbidearen arloan aritutakoak lehenetsiz.

3. Auzitegiko presidentek karrerako funtzionarioa izan beharko du, Zuzenbidean lizentziatua edo graduatua izatea eta lan-jarduera horretan hamabost urte baino gehiagoan aritu izana eskatzen duen kidego edo maila batekoa, eta kontratazio publikoarekin zuzenki lotutako administrazio-zuzenbidearen arlokoa izatea lehenetsiko da.

Kideek eta presidentek, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen diren karrerako funtzionarioen artean izendatzen badira, lege horren 76. artikuluko A1 azpitaldean sailkatutako kidego edo mailetakoak izan beharko dute.

4. Auzitegi honetako presidentea eta kideak Gobernuak izendatuko ditu, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak eta Justiziako ministroak batera proposamena eginda. Izendatutakoak independenteak eta mugiezinak izango dira, eta ezingo dira bota postutik, kausa hauetako batengatik ez bada:

- a) Agintaldia iraungitzea.
- b) Uko egitea eta Gobernuak uko hori onartzea.
- c) Espainiako nazionalitatea galtzea.
- d) Betebeharrak modu larrian bete gabe uztea.
- e) Askatasunaz gabetzen duen kondena bat epai irmoz jasotzea, edo enplegu edo kargu publikoa betetzeko erabateko desgaitasuna edo desgaitasuna berezia ezartzen duena, delitu bat dela medio.
- f) Eginkizunak betetzeko ezgaitasuna sortzea gerora.

Espedientea egin ondoren erabakiko du Gobernuak aurreko c), d), e) eta f) letretako kausetan oinarrituta kargugabetzea.

5. Apartatu honi jarraituz egindako izendapenen iraupena sei urtekoa izango da, eta ezingo dira luzatu. Zerbitzua ematen diharduten denboran, bai kideak zerbitzu berezien egoeran egongo dira beren jatorrizko kidegoaren barruan.

6. Dena den, auzitegiko kideek, kargua uzten dutenean, beren eginkizunak betetzen jarraituko dute ordezkoei kargua hartu arte.

7. Auzitegiko idazkari nagusia hango kidea izango da, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Lan egiteko behar diren zerbitzu administratiboak izango ditu Auzitegiak.

Idazkari nagusia eta zerbitzu administratiboetako langileak Funtzio Publikoa arautzen duen legerian ezarritako moduan izendatuko dira.

8. Auzitegiaren eratze- eta funtzionamendu-araubideari Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoei buruz emandako xedapenak aplikatuko zaizkio.

#### 46. artikulua. *Autonomia-erkidegoetan eta toki-entitateetan errekurtsioa ebazteko organo eskuduna.*

1. Autonomia-erkidegoen eremuan, dagozkien arauen bitartez zehaztuko da errekurtsioak ebazteko eskumena. Horretarako, organo independente bat sortu beharko da, eta titularrak –edo, kide anitzekoa izanez gero, gutxienez lehendakariak– prestakuntza juridiko eta profesional egokiak izango ditu, bere eskumenekoak diren gaiak behar bezala ezagutzen dituela bermatzeko. Organo independente horretako kideak izendatzean eta haien agintaldia amaitzean, haien independentzia eta mugiezintasuna bermatuko dituzten baldintzak bete beharko dira haiek izendatzeko ardura duen agintaritzari, agintaldiaren iraupenari eta kargutik kentzeari dagokienez.

2. Autonomia-erkidegoek, era berean, Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusiari esleitu ahalko diote errekurtsioak ebazteko eskumena. Horretarako, dagokion hitzarmena egin beharko dute Estatuko Administrazio Orokorrarekin, eta, hitzarmen horretan, autonomia-erkidegoak eskumen horiek bere gain hartzeak eragindako gastuak nola ordainduko dituen xedatuko da.

3. Ceuta eta Melilla hiri autonomoek organo independente propioak izendatu ahalko dituzte, apartatu honetan autonomia-erkidegoetako organoetarako finkatutako betebeharrekin bat etorrita, edota eskumena Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Zentralari esleitu, aurreko apartatuan aurreikusitako moduan hitzarmen bat eginda.

4. Toki-korporazioen kontratazioaren eremuan, haiei dagokien autonomia-erkidegoak araei jarraituz finkatuko da errekurtsioak ebazteko eskumena, autonomia-erkidego horiek beren esku daukatenean toki-araubidearen eta kontratazioaren arloetan arauak egiteko eta betearazteko eskumena.

Legeria autonomikoan berriazko aurreikuspenik ez badago, eta hurrengo paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, toki-korporazioa dagoen lurraldeko autonomia-erkidegoak bere eremuko errekurtsioak ebazteko eskudun izendatu duen organoak berak izango du errekurtsioak ebazteko eskumena.

Nolanahi ere, biztanleria handia duten udalerrietako udalek –hain zuzen ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikulua aipatzen dituen horiek– eta probintzia-diputazioak organo espezializatu eta funtzionalki independente bat sortu ahalko dute, eta organo horrek izango du errekurtsioak ebazteko eskumena. Haren eraketa eta funtzionamendua eta kideek bete behar dituzten baldintzak, haien izendatzea, haien kargutik kentzea eta haien agintaldiaren iraupena legeria autonomikoak ezartzen duenaren araberrakoak izango dira, edo, bestela, lege honen 45. artikuluan ezarritakoaren araberrakoak. Udalbatzaren Osoko Bilkurak izango du eskumena hura sortzeko eta haren kideak izendatu eta kargutik kentzeko. Gainerako udalek dagokien probintziako diputazioak sortutako organoari esleitu ahalko diote errekurtsioa ebazteko eskumena.

5. Foru-lurralde historikoen eremuko kontratazioari dagokionez, errekurtsuak ebazteko eskumena Kontratu Errekurtsuotarako organoei eta foru-auzitegi administratiboiei egokitu ahalko zaie.

47. artikulua. *Administrazio Publikoa ez diren botere adjudikatzaileen egintzen aurkako errekurtsuak, diruz lagundutako kontratuei buruzkoak.*

1. Errekurtsuak administrazio publikotzat jotzen ez diren botere adjudikatzaileen egintzen aurka jarri direnean, aurkaratutako egintza sortu duen erakundearekin lotutako administrazioaren kasuan eskumen hori daukan organo independentea izango da eskuduna.

Erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta baldin badago, kontrola edo parte-hartze handiena daukan erakundearen kasuan eskuduna den organoak izango du errekurtsua ebazteko eskumena, eta erakunde guztiek edo batzuek parte-hartze berdina baldin badaukate, apartatu honetako arauari jarraituz organo eskudun direnen artean errekurtsogileak aukeratzeko duenak.

2. Diruz lagundutako kontratuetan, diru-laguntza eman duen ente edo organismoa atxikita dagoen Administrazioaren kasuan bere funtzioak betetzen dituen organo independentea izango da eskuduna, edo, diru-laguntza eman duen erakundea Administrazio Publikoa ez bada, erakunde hori atxikita dagoen organoa. Sektore publikoko zenbait subjektoren diru-laguntzak batera jasotzen badira, diru-laguntza handienari erreparatuko zaio eskuduna nor den erabakitzeke, eta diru-laguntzen zenbatekoa bat bera bada, apartatu honetako arauen arabera eskudun diren organoen artean errekurtsogileak errekurtsua jartzeko aukeratzeko duena.

48. artikulua. *Legitimazioa.*

Edozein pertsona fisiko edo juridikok jar dezake kontratazio-arloko errekurtsu berezia, errekurtsuaren xede diren erabakiek zuzenean edo zeharka bere eskubide edo interes legitimo banakakoei zein kolektiboiei kalte egin badiete edo kalte egiteko arriskua badago.

Sindikatuak ere izango dute errekurtsua jar dakiekeen egintzen aurkako errekurtsu hori aurkezteko legitimazioa, baldin eta errekurtsua jar dakiekeen jarduketara edo erabakietatik ondorioz atera badaiteke, ondo oinarrituta atera ere, kontratua egikartzeko prozesuan enpresaburuak ez dituela bete prestazioa ematen parte hartzen duten langileekiko betebeharrak edo lan-arlokoak. Ukitutako interesak ordezkatzeko dituen enpresa-erakunde sektoriala legitimatutzat joko da beti.

49. artikulua. *Kautela-neurriak eskatzea.*

1. Errekurtsu berezia jar dezaketen pertsonak, hori jarri baino lehen, kautelazko neurriak hartzeko eskatu ahalko diote errekurtsua ebazteko eskumena daukan organoari. Neurri horiek prozedurako arau-hausteak zuzentzeko hartuko dira, edo ukitutako interesari beste kalte batzuk ez eragiteko; eta, haien artean, kontratuaren adjudikazio-prozedura eta kontratazio-organoen edozein erabaki eteteko edo etenarazteko neurriak sartu ahalko dira.

2. Errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak kautelazko neurrien inguruko erabaki arrazoitua hartu beharko du, neurri horiek eskatzeko idazkia aurkeztu eta bost egun balioduneko epearen barruan.

Horretarako, ebazpena eman behar duen organoak, kautelazko neurria ezartzeko eskaria jasotzen duen egunean bertan, horren berri emango dio kontratazio-organoari, eta azken horrek bi egun baliodun izango ditu eskatutako neurriak ezartzeari buruz edo erabaki-organok berak proposatutako neurriari buruz egokitutako jotzen dituen alegazioak aurkezteko. Epe horretan alegaziorik aurkeztu ez badu, prozedurak aurrera jarraituko du.

Ebazpena eman baino lehen errekurtsua jartzen bada, kautelazko neurriak hartzeko eskaera gehituko dio errekurtsuari hura ebazteko organo eskudunak.

Prozedura horretan emandako ebazpenen aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu; hori ez da eragozpena izango prozedura nagusian ematen diren ebazpenen aurka errekurtsuak jartzeko.

3. Kautelazko neurriak hartuta haietatik edozein eratako kalteak sor daitezkeela ikusten bada, kalte horiei erantzuteko besteko kausioa edo bermea eratzeko agindua eman



dezake ebazpenak; orduan, behin-behineko neurriek ez dute ondoriorik izango harik eta kauzioa edo bermea eratauta egon arte.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira eratu beharreko bermearen edukia eta forma, bai eta hura itzultzeko baldintzak ere; horiek, nolana ere, proportzionaltasun-printzipioari erantzun beharko diote, eta ukitutako subjektua eta objektua hartu beharko dituzte kontuan.

4. Organo eskudunak kontrakoa erabaki ezean, kautelaz prozedura etetea erabakitzen denean, horrek ez dio eragingo interesdunek eskaintzak edo proposamenak aurkezteko ezarritako epeari.

5. Kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkeztu aurretik eskatu eta erabakitzen diren kautelazko neurriek indarra galduko dute, errekurtsioa aurkezteko epean interesdunak errekurtsorik aurkeztu ez badu.

50. artikulua. *Prozedura hastea eta epea.*

1. Errekurtsio-prozedura idazki baten bidez hasiko da, eta idazki hori hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da. Epe hori honako kasu hauetan zenbatuko da:

a) Errekurtsioa lizitazio-iragarkiaren aurka jartzen bada, kontratatzailearen profileen iragarkia argitaratu eta biharamunean hasiko da kontaketa.

b) Errekurtsioa baldintza-agirien eta gainerako kontratu-agirien edukiaren aurka jartzen bada, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratu eta biharamunean hasiko da kontaketa, baldin eta lizitazio-iragarki horretan adierazi bada interesdunek haiek nola eskuratu ahal dituzten. Halakorik aipatzen ez denean, interesdunari haiek eskuratu zaizkion egunaren biharamunean edo interesduna haien edukira kontratatzailearen profileen bitartez sartu ahal izan den egunaren biharamunean hasiko da epea kontatzen.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren kasuan, aukeratutako hautagaiei gonbidapena bidali eta biharamunean hasiko da epearen kontaketa.

Lege honen 138.2 artikuluan ezarritakoarekin bat baldintza-agiriak bitarteko elektronikoen bitartez eskura jartzerik ez dagoen kasuetan, baldintza-agiri horiek errekurtsogileari eskuratu eta biharamunean hasiko da epea kontatzen.

Oro har, kontratazio bat gidatu behar duten baldintza-agiri eta kontratu-agirien aurkako errekurtsioa ez da onartuko, baldin eta errekurtsogileak, errekurtsioa jarri aurretik, kasuko lizitazioan parte hartzeko eskaintza edo eskaera aurkeztu badu; hori, halere, ez da eragozpena izango erabateko deuseztasun-kasuetarako ezarrita dagoenerako.

c) Errekurtsioa adjudikazio-prozedurako izapidetze-egintzen aurka edo publikizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzearen ondoriozko egintza baten aurka jartzen bada, uestezko arau-haustearen berri izan eta biharamunean hasiko da kontaketa.

d) Errekurtsioa kontratuaren adjudikazioaren aurka aurkezten denean, hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz adjudikazio hori prozeduran onartutako hautagai edo lizitatzaillei jakinarazi eta biharamunean hasiko da kontaketa.

e) Errekurtsioa lege honen 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukan aldaketaren baten aurka jartzen denean, aldaketa dela-eta beste adjudikazio bat egin behar zelakoan, kontratatzailearen profileen argitaratu eta biharamunean hasiko da kontatzen.

f) Errekurtsioa bitarteko propio bati emandako mandatu baten aurka aurkezten denean, lege honen 32. artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, kontratatzailearen profileen hura argitaratu eta biharamunean hasiko da kontatzen.

g) Gainerako kasu guztietan, jakinarazpena hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz egin eta biharamunean hasiko da kontatzen epea.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, errekurtsioa 39. artikuluan 2. apartatuaren c), d), e) edo f) letretan aurreikusitako deuseztasun-kausetako batean oinarritzen denean, honako hau izango da errekurtsioa jartzeko epea:

a) Hogeita hamar egun kontratuaren formalizazioa legean ezarritako moduan argitaratzen denetik kontatzen hasita, argitaratze horren barnean direla lizitazio-deialdia legezko moduan argitaratu ez izana justifikatzeko arrazoiak, edo ukitutako hautagai edo

lizitatzailerei beren hautagaitza edo proposamena baztertzeko arrazoiak eta adjudikazioa egiteko adjudikaziodunaren proposamenean erabakigarriak izan diren ezaugarriak jakinarazten zaizkienetik kontatzen hasita.

- b) Gainerako kasuetan, kontratua egiten denetik sei hilabete iragan baino lehen.

51. artikulua. *Errekurtso berezia aurkezteko modua eta tokia.*

1. Errekurtsoa jartzeko idazkian, honako alderdi hauek adierazi beharko dira: errekurtsoa zer egintzari jartzen zaion, errekurtsoa jartzeko arrazoa zein den, errekurtsogileak zer froga-bitarteko erabili nahi dituen eta, hala badagokio, 49. artikuluan aipatutakoen moduko zer neurri ezartzeko eskatzen den; honako hauek ere gehitu beharko dira:

a) Agertutako alderdiaren ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua, non eta organo berean aurkeztu den eta ebazteke dagoen beste errekurtso baten jarduketetan ez dagoen halakorik. Kasu horretan, ziurtagiria eskatu ahalko da, prozedurara batzeko.

b) Errekurtsogilearen legitimazioa frogatzen duen dokumentua (edo dokumentuak), legitimazioa herentziaz edo beste edozer tituluren bidez jaso duenean.

c) Aurkaratutako berariazko egintzaren kopia edo helarazpena, edota egintza jaso duen espedientearen aipamena, edo hura argitaratu den aldizkari ofizialarena edo kontratatzailearen profilarena.

d) Errekurtsogilearen eskubidea oinarritzen duen dokumentua edo dokumentuak.

e) «Gaitutako» helbide elektronikoko bat, zinetara komunikazioak eta jakinarazpenak bidaliko baitira, hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

2. Errekurtso-idazkiak akatsak izanez gero, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera hiru egun baliodun emango zaizkio interesdunari akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Kasu horretan, espedientearen izapidetzea etenda geldituko da, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako ondorioak sortuko ditu. Dokumentazio zuzendua errekurtsoa ebazteko eskuduna den organoaren erregistroan aurkeztuko da, nahitaez.

3. Errekurtsoa jartzeko idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen tokietako batean aurkeztu ahalko da. Halaber, kontratazio-organoren erregistroan edo errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan aurkeztu ahalko da.

Aipatutako bi horietaz beste erregistro batean aurkeztutako idazkiak ahal den bezain laster jakinarazi beharko zaizkio Auzitegiari.

4. Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak, bere webgunean eta bere lehendakariaren ebazpen baten bidez, idazkiak aurkezteko erregistroen helbideak jakinaraziko ditu, haiek Auzitegian bertan aurkeztu direla ulertu ahal izateko balio dutenak.

52. artikulua. *Espedienterako sarbidea.*

1. Baldin eta interesdunak kontratazio-espedientea aztertu nahi badu errekurtso berezia aurkeztu baino lehen, kontratazio-organori eskatu beharko dio hori, eta hark agerian jarri beharko du hori, baina legean ezarritako konfidentzialtasun-mugak igaro gabe.

2. Interesdunek espedientea ikusteko eskaera errekurtso berezia jartzeko epearen barruan aurkeztu ahalko dute, eta kontratazio-organok eskaera jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan utzi beharko die ikusten. Eskaera hori egiteak ez du inolaz ere geraraziko errekurtso berezia jartzeko epea.

3. Aurreko 1. apartatuan jasotako aurreikuspenak ez betetzeak ez ditu salbuetsiko interesdunak errekurtso berezia legezko epearen barruan aurkezteko betebeharretik. Hala eta guztiz ere, errekurtsogileak errekurtsoan alegatu ahalko du ez-betetze hori, eta, kasu horretan, hura ebazteko organo eskudunak bere bulegoan utzi beharko dio kontratazio-espedientea ikusten, hamar egunean, alegazioak aurkezteko izapidetaren aurretik,

errekurtsua burutu dezan. Kasu horretan, bi egun baliodun emango zaizkio kontratazio-organoari dagokion txostena eman dezan, eta bost egun baliodun, berriz, gainerako interesdunei egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

53. artikulua. *Errekurtsua jartzearen ondoreak.*

Behin errekurtsua aurkeztuta, etenda geratuko da prozeduraren izapidetzea, errekurtsua adjudikazioaren egintzari jarri bazaio, salbu eta esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen kasuan edo eskuratze-sistema dinamiko baten esparruan egindako kontratu berariazkoen kasuan; hori, halere, ez da eragozpena izango 56.3 artikuluan aipatutakoaren indarrez azken horiek direla-eta kautelazko neurriak hartzeko.

54. artikulua. *Komunikazioak eta jakinarazpenak.*

Errekurtsuak ebazteko organo eskudunen, kontratazio-organoen eta prozeduran interesa dutenen artean bitarteko elektronikoz egingo dira komunikazioak eta dokumentazio-trukeak.

55. artikulua. *Ez onartzea.*

Errekurtsua ebazteaz arduratzen den organoak, erreklamazioa jaso eta espediente administratiboa aztertu ondoren, hura ez dela onartu deklaratu ahalko du, zalantzarik gabeko modu agerikoan honako kasu hauetako bat gertatzen dela jasota dagoenean:

- a) Organoak errekurtsuaz arduratzeko gaitasun ez izatea.
- b) Errekurtsogileak legitimaziorik ez edukitzea, edo beste baten izenean errekurtsua jartzen duen pertsonak haren ordezkaritza duela ez ziurtatzea horretarako nahikoa den botere baten bitartez.
- c) 44. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aurkaratzeko modukoak ez diren egintzen aurkako errekurtsua aurkeztu izana.
- d) Errekurtsua epea amaitu ondoren jartzea.

Errekurtsua ebatzi behar duen organoak, ikusten baldin badu kasu horietakoren bat badagoela, errekurtsua ez onartzeko ebazpena emango du, 51.2 artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

56. artikulua. *Prozedura izapidetzea.*

1. Kontratazio-arloko errekurtsu bereziak izapidetzeko prozedura Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedapenetan adierazitakoa izango da, eta ondorengo paragrafoetan jasota dauden berezitasunak izango ditu.

2. Errekurtsogileak errekurtsua jarritakoan, errekurtsua ebazteko organo eskudunak egun horretan bertan emango dio horren berri kontratazio-organoari, eta errekurtsu-idazkiaren kopia igorriko dio. Halaber, kontratazio-espedientea eskatuko dio izapidetu duen erakunde, organo edo zerbitzuari, eta azken horrek ondorengo bi egun balioduneko epean igorri beharko dio, dagokion txostenarekin batera.

Aurkaratutako egintza sortu duen kontratazio-organoan jarri bada errekurtsua, organo horrek errekurtsua ebazteko organo eskudunari bidali beharko dio, errekurtsua jaso ondorengo bi egun balioduneko epean, administrazio-espedientearekin eta aurreko paragrafoan aipatutako txostenarekin batera.

3. Errekurtsogileak espedientea eskuratzeari buruz 52. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe, errekurtsua jarri eta hurrengo bost egun balioduneko epean, errekurtsua ebazteko organo eskudunak gainerako interesdunei helaraziko die hura, eta bost egun baliodun emango dizkie alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek, nahitaez, errekurtsua ebazteko organo eskudunaren erregistroan aurkeztu beharko dira.

Izapide horren aldi berean, bost egun balioduneko epean, kautelazko neurriei buruz erabakiko da, baldin eta halakoren bat hartzea eskatu bada errekurtsua jartzeko idazkian, edo metatzerik gertatu bada, hau da, neurri horiek errekurtsua aurkeztu baino lehen eskatu badira eta gero hari batu.

Halaber, eta hala badagokio, epe horretan bertan erabakiko du 53. artikuluan aurreikusitako etete automatikoari eutsiko dion edo ez. Etetea bertan behera uzteko berriazko ebazpenik ematen ez badu, eteteak indarrean jarraituko du. Kautelazko neurriak errekurtsua jarri ondoren eskatu badira, aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan hartuko du organo eskudunak haien gaineko erabakia, prozedura nagusia eten gabe.

Nolanahi ere, kautelazko neurriak ofizioz prozeduraren edozein fasetan erabaki ahalko ditu organo eskudunak, eta horri buruzko entzunaldia emango dio aurkaratutako egintzaren egile den kontratazio-organismoari, bi eguneko epean.

4. Errekurtsua ebazteko garrantzizkoak diren egitateak zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke. Errekurtsua ebazteaz arduratzen den organoak frogaldia hasi ahalko du interesdunek hala eskatzen badiote, organo horrek berak interesdunek alegatutako egitateak egiazkotzat jotzen ez baditu edota prozeduraren izaerak hala eskatzen badu. Frogaldiak hamar egun balioduneko iraupena izango du, eta organoak egokitzen dituen froga guztiak egin ahalko dira.

Errekurtsua ebazteko eskumena daukan organoak, ebazpen arrazoituaren bidez, errefusatu egin ditzake interesdunek proposatutako frogak, argi eta garbi desegokiak badira edo beharrezkoak ez badira.

Aldez aurretik jakinaraziko zaie interesdunei, behar besteko denborarekin, frogak egingo direla.

5. Errekurtsua ebazteko eskumena daukan organoak konfidentzialtasuna eta merkataritzako sekretua babesteko eskubidea bermatu beharko ditu beti kontratazio-espeditentean jasotako informazioari dagokionez; hala ere, ebazpena emateko orduan, aukera izango du informazio hori ezagutu eta kontuan hartzeko. Organo horrek erabakiko du nola bermatuko dituen kontratazio-espeditentean jasotako informazioaren konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna babes juridiko eraginkorra izateko eta prozeduran defendatzeko gainerako interesdunen eskubideari kalterik egin gabe.

#### 57. artikulua. *Errekurtsu bereziaren ebazpena.*

1. Interesdunen alegazioak jaso ondoren, edota alegazio horiek aurkezteko epea igaro ondoren, eta, hala badagokio, baita frogaldia ere, organo eskudunak hurrengo bost egun baliodunetan ebatzi beharko du errekurtsua; ondoren, interesdun guztiei jakinarazi beharko die ebazpena.

2. Errekurtsuari buruzko ebazpenak osorik edo partez baietsi ahalko ditu uziak, edota ezetsi, edo errekurtsua onartezina dela deklaratu; betiere, azaldu diren gaien inguruan erabaki arrazoituak eman beharko ditu. Edonola ere, ebazpenak eskaerari erantzungo dio, eta, hala badagokio, adjudikazio-prozeduran onartu eta zuzenbidearen araberakoak ez diren erabakiak deuseztatzeaz erabakiko du; halaber, lizitazio-iragarkian, iragarki adierazgarrian, baldintza-agirietan, kontratua arautzen duten baldintzetan edo lizitazioari edo adjudikazioari lotutako edozein agiritan diskriminazioa eragiten duten ezaugarri tekniko eta ekonomia- eta finantza-ezaugarriak kentzeaz ere erabakiko du, bai eta egintzen atzera-eraginaz ere, hala badagokio. Nolanahi ere, baldintza-agirien klausulak edo baldintzak edo antzeko kontratu-dokumentazioa deuseztatzea dakarren errekurtsu-baiesteak berekin ekarriko du hura onestearekin lotuta dauden kontratazio-espeditenteko egintzak ezeztatzea.

3. Ebazpenean, adjudikazio-egintzaren etenaldia bertan behera uzteko erabakia hartu beharko da, ebazpena emateko garaian egintzaren etenaldiak indarrean jarraitzen badu, baita gainerako kautelazko neurriak bertan behera uztekoa ere, eta kautelazko neurrien eraginkortasuna bermatzeko eratutako bermeak itzultzekoa ere bai, hala badagokio.

4. Errekurtsua guztiz edo partzialki baiesten bada, kontratazio-organismoak ebazpena eman duen organismoari jakinarazi beharko dizkio hura betetzeko egin diren jarduketak.

5. Errekurtsoa, jarri eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabete iragan badira haren ebazpena jakinarazi gabe, ezetsizat jo ahalko du interesdunak, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu nahi badu ere.

58. artikulua. *Kalte-ordainak eta isunak.*

1. Errekurtsoa ebazteko organo eskudunak, interesdunak eskatuta, erakunde kontratatzaileari ezarri ahalko dio interesdunari kalte-galeren ordaina emateko betebeharra –eskaintzaren prestaketak edo kontratazio-prozedurako parte-hartzeak eragindako gastuak ordaintzekoa gutxienez ere–, errekurtsoa ekarri duen lege-urratzeak halakorik eragin badio interesdunari. Kalte-ordainaren zenbatekoa, ahal dela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren IV. kapituluan ezarritako irizpideei jarraituz finkatuko da.

2. Organo eskudunaren iritzian errekurtsogileak errekurtsoa jartzean edo kautelazko neurriak eskatzean ausarkeriaz edo fede txarrez jokatu badu, errekurtsogileari isun bat ezartzea erabaki ahalko du.

Isun horren zenbatekoa 1.000 eta 30.000 euro bitartekoa izango da. Isunaren kopurua hautemandako fede txarraren eta kontratazio-organoari zein gainerako lizitatzaileri eragindako kaltearen arabera finkatuko da, bai eta lortutako etekinen kalkuluaren arabera ere.

Ezarritako isunaren zenbatekoaren diru-sarrera, nolana ere, Altxor Publikoan egingo da.

Apartatu honetan aipatutako zenbatekoak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren aginduz gaurkotu ahalko dira.

59. artikulua. *Errekurtso bereziaren ebazpenaren ondoreak.*

1. Prozedura honetan emandako ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik jarri ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikuluan 1. apartatuko k) eta l) letretan eta 11. artikuluan 1. apartatuko f) letrean xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, ebazpena zuzenean exekutiboa izango da.

3. Ez da aukerarik izango ez ebazpena, ez eta errekurtsoa ebazteko organo eskudunek emandako egintzetako bakarra ere ofizioz berrikusteko. Era berean, horietako bakoitza atxikita dagoen administrazioaren barne-kontrolerako organoen fiskalizazioaren mende ere ez dira egongo.

Errekurtsoa ebazteko organo eskudunek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetan –errekurtsoaren ebazpena barne– egindako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

60. artikulua. *Alderdiei administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoetara deitzea.*

1. Errekurtsoa ebazteko organo eskudunaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten denean, organo hark, espediente administratiboa erreklamatzeko aldera auzitegi jurisdikzionalak egindako diligentzia jaso ondoren, errekurtsoaren xede izan den egintzaren egile den kontratazio-organoari eta prozeduran agertu beharreko gainerako guztiei deituko die kasuko salara.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako deia Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49. artikuluan ezarritako moduan egingo da.

## II. TITULUA

### Kontratuko alderdiak

#### I. KAPITULUA

### Kontratazio-organoa

#### 61. artikulua. *Kontratatze eskumena.*

1. Sektore publikoko kontratuen alorrean, pertsona bakarreko zein kide anitzeko kontratazio-organoak izango dira erakundeen ordezkari, baldin eta, lege- edo erregelamendu-mailako arau baten edo estatutu-mailako xedapen baten indarrez, horien izenean kontratuak egiteko ahalmena badute.

2. Kontratazio-organoek arlo honetako eskumenak edo ahalmenak deskontzentratu edo eskuordetzan eman ahalko dituzte, kasu bakoitzean aplikatu beharreko arau eta formalitateak betez betiere, hau da, eskuordetzarako edo deskontzentrazioarako arauak administrazio-organoen kasuan eta ahalmenak emateko arauak sozietateetako edo fundazioetako organoen kasuan.

#### 62. artikulua. *Kontratuaren arduraduna.*

1. Baldintza-agirien arabera kontratuaren jarraipena egiteaz eta haren egikaritze arruntaz arduratzen den unitatea zein ere den, kontratazio-organoek kontratuaren arduradun bat izendatu beharko dute. Pertsona horrek, esleitu dizkioten ahalmenen barruan, kontratua nola egikaritzen den gainbegiratuko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko. Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari lotua edo loturarik gabea.

2. Obra-kontratuetan, kontratuaren arduradunaren ahalmenak zuzendari fakultatiboak beteko ditu, 237. artikulutik 246. artikulura xedatutakoari jarraituz.

3. Obra publikoen emakidetan eta zerbitzu-emakidetan, Administrazioak interes orokorraren alde jardungo duen pertsona bat izendatuko du, emakidadunak bere betebeharrak betetzea lortzeko eta hori egiaztatzeko, bereziki zerbitzuaren prestazioaren edo obraren kalitateari dagokionez.

#### 63. artikulua. *Kontratatzailearen profila.*

1. Kontratazio-organoek beren kontratatzaile-profila soilik Interneten bitartez zabalduko dute: hor bilduko dituzte beren kontratazio-jarduerari buruzko informazioa eta dokumentuak gardentasuna eta dokumentu horietarako sarbide publikoa segurtatze aldera. Kontratatzailearen profileraz sartzeko modua baldintza-agirietan eta agiri baliokidetan jaso beharko da, bai eta, kasu guztietan, lizitazio-iragarkietan ere. Kontratatzailearen profila zabaltzea ez da eragozpena izango bestelako publizitate-bitarteko batzuk ere erabil daitezkeen hala ezartzen den kasuetan.

Kontratatzailearen profileko informazioa edozeinek eskuratu ahal izango du, eta ez zaio alde zuzenetik identifikaziorik eskatuko. Hala eta guztiz ere, identifikatzeko eskatu ahalko zaio kontratatzailearen profilaraz edukiarekin lotutako zerbitzu pertsonalizatu batzuk eskuratzeko; honako zerbitzu hauek, besteak beste: harpidetzak, alerten bidalketa, komunikazio elektronikoak eta eskaintzen bidalketa. Kontratatzailearen profiletan jasotako informazio guztia formatu ireki eta berrerabilgarrietan argitaratuko da, eta jendeak eskuratzeko moduan egongo da gutxienez ere 5 urtez; hori, halere, ez da eragozpena izango informazio-eskaerak aurkeztuta lehenagoko espedienteak ere eskuratu ahal izateko.

2. Kontratatzailearen profila kontratazio-organoen kontratazio-jarduerari buruzko edozein datu eta agiri jaso ahalko ditu. Nolanahi ere, jaso beharko du bai kontratazio-organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitekeen informazio orokorra –esate baterako,



kontaktu-guneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, informazio, iragarki eta dokumentu orokorrak, nola baitira kontrataziorako barne-jarraibideak eta dokumentu-ereduak, bai egiten dituen kontratuei buruzko informazio zehatza ere.

3. Kontratuei buruzko informazioaren kasuan, gutxienez ere honako informazio hau argitaratu beharko da:

a) Kontratua justifikatzeko oroitidazkia; bitartekoak nahiko ez izateari buruzko txostena, zerbitzuak kontratatze kasuan; adjudikaziorako erabilitako prozeduraren justifikazioa, prozedura irekiaz edo prozedura murriztuaz beste bat erabiltzen denean; kontratua gidatu behar duten administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria, edo antzeko agiriak, kasua bada; eta espedientea onesten duen agiria.

b) Kontratuaren objektu xehakaturia, kontratuaren iraupena, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua eta lizitazioaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barnean dela.

c) Honako iragarki hauek, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen arauetan ezarritako salbuespenekin: aurretiazko informazioa ematekoak; lizitazioen deialdia egitekoak; kontratuak adjudikatzeari eta egiteari buruzkoak; aldaketak egitekoak eta haien justifikazioari buruzkoak; proiektuen lehiaketei eta proiektuen lehiaketan emaitzei buruzkoak.

d) Kasua bada, kontratuaren publizitatea egiteko erabili diren bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak.

e) Prozeduran parte hartutako lizitatuzaileen kopurua eta haien izena, bai eta kontratazio-mahaiak adjudikazio-prozedurari buruz egindako akta guztiak ere edo, mahaiak jarduten ez badu, dagokion kontratazio-zerbitzu edo -organoaren ebazpenak; eskaintza bakoitzaren balio-iritzi bat eginez kuantifika daitezkeen adjudikazio-irizpideak baloratzeko txostena; kasua bada, 149.4 artikulua aipatzen duen ustezko anormaltasunean sartzen diren eskaintzei buruzko txostenak, eta, nolahi ere den, kontratua adjudikatze ezbazpena.

Halaber, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira: kontratua ez adjudikatze edo ez egiteko erabakia; adjudikazio-prozeduran atzera egitea; prozedura hutsik deklaratzera, bai eta errekurtsoen aurkezpena eta kontratuen behin-behineko etetea ere, errekurtsuak aurkeztearen ondoriozkoa.

4. Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez ere hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu mota horretarako, informazio hau argitaratu beharko da, gutxienez ere: objektua, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa –balio erantsiaren gaineko zerga barne– eta adjudikaziodunaren izena. Kontratuak adjudikaziodunaren izenaren arabera ordenatuko dira.

Aurreko paragrafoan aipatzen den argitaratzetik salbuetsita egongo dira bost mila eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, betiere botere adjudikatzaileek erabilitako ordainketa-sistema kutxa finkoko aurrerakina denean, edo ordainketa txikiak egiteko antzekoa den beste sistema bat.

5. Kontratatzaile-profilean argitaratu beharko dira hauek ere: deuseztaturiko prozedurak, kontratazio-organoei laguntzen dieten kontratazio-mahaien osaera, eta balio-judizio baten arabera diren adjudikazio-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeetako edo erakunde tekniko espezializatuetako kideen hautaketa, horiek beharrezkoak diren prozeduretan.

Beti ere, kontratazio-mahaietako eta adituen batzordeetako kideen kargua argitaratu beharko da, eta ez da zilegi izango aipamen orokorrak edo zehaztugabeak egitea, edo kide haiek ordezkatzeko duten edo lan egiten duten administrazioa, erakundea edo entitatea aipatzea bakar-bakarrik.

6. Bitarteko propioei BEZik gabe 50.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten mandatuek emanez gero, mandatu horien formalizazioa ere kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

5.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten mandatuei buruzko informazioa hiru hilabetean behin argitaratu beharko da, gutxienez ere. Horrelako mandatuetarako,

informazio hau argitaratu beharko da gutxienez ere: haien xedea, iraupena, aplikatzekoak diren tarifak eta enkarguaren hartzaile den bitarteko propioaren izena. Mandatuak bitarteko propioaren izenaren arabera antolatuko dira.

7. Kontratazaile-profilaren sistema informatikoak aukera eman beharko du modu sinesgarrian frogatzeko bertan jasota dagoen informazioa publikoki noiz hasi zen zabaltzen.

8. Aukera egongo da kontratuaren formalizazioari buruzko datu jakin batzuk ez argitaratzeko, 154.7 artikulua ezartzen dituen kasuetan.

Nolanahi ere, kontratazio-organoak, aurreko paragrafoan xedatuari jarraituz informazioaren bat kanpoan uztea erabakitzen duen bakoitzean, hori espedientean arrazoitu beharko du.

64. artikulua. *Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa.*

1. Kontratazio-organoek neurri egokiak hartu beharko dituzte iruzurraren aurka, mesedekeriaren aurka eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko, eta modu eraginkorren detektatu eta konpondu beharko dituzte lizitazio-prozeduretan sor daitezkeen interes-gatazkak, lehiaren distortsio oro saihesteko eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitazzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

2. Ondorio horietarako, interes-gatazka kontzeptuak hau jasoko du gutxienez ere: kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik.

Ustezko interes-gatazka baten berri duten pertsonak edo erakundeek berehala eman beharko diote hori aditzera kontratazio-organoari.

## II. KAPITULUA

### Enpresaburuaren gaitasuna eta kaudimena

#### 1. atala. *Sektore publikoarekin kontratatze gaitasuna*

##### 1. azpitatala. Ahalmenari buruzko arau orokorrak eta arau bereziak

65. artikulua. *Gaitasun-baldintzak.*

1. Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek izango dute sektore publikoarekin kontratatze gaitasuna, baina bakar-bakarrik baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatze debekuren bat jaso ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatu badute edo, lege honek hala eskatzen duenean, sailkatuta badaude.

Aplikatzekoa den araudia horrela zehaztu duelako kontratistari zenbait baldintza eskatzen zaizkionean –bere antolamenduari, etekinen zertarakoari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoari buruz– kasuko adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko, lizitazzaileak egiaztatu egin beharko du betetzen dituela, lehiatu ahal izateko.

2. Kontratistek, halaber, kontratuaren objektua diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

3. Lege honetako 23. artikuluan aipatzen diren diruz lagundutako kontratuetan, kontratistak bere kaudimena egiaztatu beharko du, eta ezingo du izan 71. artikuluan 1. apartatuko a) letran aipatzen den kontratatze debekua.

66. artikulua. *Pertsona juridikoak.*

1. Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-eremua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

2. Banaka zein beste batzuekin batera obren edo zerbitzuen emakida hartzeko lizitazioan parte hartzen dutenak emakidaren titularra izango den sozietate bat eratzeko konpromisoa hartuta lehiatu ahalko dira. Sozietate hori eratzeko modua, eta, hala badagokio, sozietatearen forma ere bai, arlo horri berariaz dagokion legeria espezifikokoak emakida mota jakin batzuetarako ezarritakoari egokitu beharko zaio.

67. artikulua. *Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa.*

1. Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek edo Espainiakoak ez izanik Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu bateko enpresek sektore publikoarekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude dena delako prestazioa gauzatzeko.

2. Estatu bateko legediak estatu horretan ezarrita dauden enpresei baimen bereziren bat izatea edo organizazio jakin batekoak izatea eskatzen badie dena delako zerbitzu hori emateko, enpresek egiaztatu beharko dute betetzen dutela baldintza hori.

68. artikulua. *Europar Batasunaz kanpoko enpresak.*

1. Nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetakoa pertsona fisiko edo juridikoei txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen kasuan kasuko bulego ekonomiko eta merkataritzakoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa enpresek ez dute aurkeztu behar elkarrekikotasunari buruzko txostena.

2. Horretaz gainera, administrazio-klausula partikularren agiriak Europar Batasunaz kanpokoak diren eta obra-kontratuaren adjudikaziodun suertatzen diren enpresei exijitu ahalko die Espainian sukurtsal bat irekitzea, eragiketak egiteko ahalordedunak edo ordezkariak izendatuz, eta sukurtsal horiek Merkataritzako Erregistroan inskribaturik egotea.

69. artikulua. *Enpresaburuen elkarteak.*

1. Prestazio hori emateko denbora baterako osatzen diren enpresaburuen elkarteek kontratuak egin ahalko dituzte sektore publikoarekin; ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua adjudikatzen zaien arte.

2. Kontratazio-mahaiak edo –bestela– kontratazio-organoak, bere eginkizunetan diharduela kolusioko ustezko zantzuak aurkitzen baditu aldi baterako elkarte batean bilduta lehiatzen diren enpresen artean, errekerimendua egingo die enpresei, behar den epea emanda, berariaz eta arrazoibideak emanez justifika dezaten elkartuta lehiatzeko arrazoiak.

Kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak, enpresen justifikazioa aztertu eta haien arteko kolusioko zantzu funtsatuak badaudela irizten badio, horiek Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari helaraziko dizkio edo, bestela, dagokion eskumen autonomikoko agintaritzari, 150.1 artikuluaaren hirugarren paragrafoak aipatzen duen prozedura sumarisimoa gauzatu baino lehen, haiei buruzko iritzia eman dezan.

3. Aldi baterako elkartuta lehiatzen diren enpresaburuek betebeharrak solidarioa hartuko dute, eta enpresaburuen elkartearen izenean ordezkari edo ahalordedun bakar bat

izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko besteko ahalordeak izango dituen kontratua amaitu arte. Hala ere, enpresek, kopuru handiak kobratu eta ordaintzeko, ahalorde mankomunatuak eman ahalko dituzte.

Lizitazioari begira, lizitazioari aldi baterako elkarte bat eginez aurkeztu nahi duten enpresaburuek partaideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzak zenbateko partaidetza duen ere. Gainera, kontratua adjudikatzen bazaie, orobat adierazi beharko dute aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela.

4. Aldi baterako enpresa-elkarte horiek, gutxienez ere, kontratua amaitzen den arte iraungo dute.

5. Saikapena eskatu behar den kasuetan, enpresaburuen elkartean Espainiako estatuko enpresaburuek, Europar Batasuneko estatu kide batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoak ez diren atzerritarrek eta Europar Batasuneko estatu kide batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoak diren atzerritarrek parte hartzen badute, lehenengo bi taldeetakoek saikapena egiaztatu beharko dute, eta hirugarren taldekoek, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko edo profesionala.

6. Elkartuta aurkezten diren enpresaburuek saikapenaren eskakizuna betetzen ote duten baloratu eta ebazteko, enpresaburu bakoitzaren ezaugarriak metatuta hartuko dira kontuan, erregelamenduz zehazten den moduan, bakoitzaren saikapenetan azaltzen denari erreparatuz. Nolanahi ere, metaketa hori egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da enpresa guztiek obra-enpresaren saikapena aurrez lortu izana; kontuan hartuko da, halere, artikulua honen 4. apartatuak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatu etakoak diren enpresaburu ez-espainiarrentzat ezarritakoa.

7. Artikulu honek aipatzen dituen batasunak sortu nahi dituzten enpresaburuek alta eman ahalko dute Sektore Publikoko Lizitazioaren eta Enpresa Saikatuen Erregistro Ofizialean, eta hark inguruabar hori zehaztuko du. Erregistro horretan lehenik baldin badaude izena emanda, beren interes hori komunikatu besterik ez dute egin beharko, erregelamenduz ezartzen den moduan.

8. Prozedura bat izapidetzean eta kontratua egin aurretik aldi baterako enpresa-elkartearen osaera aldatzen bada, enpresa-elkarte hori prozeduratik kanpo geratuko da. Ez da osaeraren aldatetzea hartuko enpresaren parte-hartzearen aldatzea, baldin eta saikapen berari eusten bazaio. Aldi baterako enpresa-elkartea kontratuaren adjudikazio-prozeduratik kanpo geratuko da, halaber, hura osatzen duten enpresetako bati edo gehiagori kontratatzeke debekua ezartzen bazaie.

Aldi baterako enpresa-elkarte bateko enpresa bat edo batzuk bat-egite eragiketetan, banantze-eragiketetan eta jarduera-adar baten ekarpen nahiz transmisioa egiteko eragiketetan sartzeak ez du eragotziko hark adjudikazio-prozeduran jarraitzea. Sozietate bereganatzaileak, bat-egitearen emaitza denak, banantzearen onuradunak edo jarduera-adarraren eskuratzaileak, ez badira aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresetakoak, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, ez dute kontratatzeke debekurik ez izan behar eta exijitutako kaudimen, gaitasun edo saikapenari eutsi beharko diote.

9. Behin kontratua aldi baterako enpresa-elkarte batekin eginda, honako arau hauek bete beharko dira:

a) Aldi baterako enpresa-elkartearen osaera aldatzeak berekin enpresa kopurua handitzea, hura gutxitzea edo enpresa bat edo batzuk beste batzuekin ordeztzea dakarrenean, kontratazio-organoaren alde aurretiko eta berariazko baimena beharko da, eta kontratuaren zenbatekoaren gutxienez ere ehuneko 20 egikarituta egon beharko du edo, obra- edo zerbitzu-emakidako kontratu bat denean, kontratuaren iraupen-epaiekin bosten baten ustiatzea egina, gutxienez. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da eskatutako kaudimen edo saikapenari eustea eta aldi baterako enpresa-elkartearen konfigurazio berriko enpresek jarduteko gaitasun osoa izatea eta kontratatzeke debekurik ez izatea.

b) Aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresetako batean edo batzuetan bat-egiteak, banantzeak edo jarduera-adarraren eskualdatzeren bat gertatzen badira, aldi baterako enpresa-elkarte adjudikaziodunarekin jarraituko da kontratua egikaritzen. Sozietate bereganatzaileak, bat-egitearen emaitza denak, banantzearen onuradunak edo jarduera-adarraren eskuratzaileak, ez badira aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresetakoak, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, ez dute kontratatzeke debekurik izan behar eta exijitutako kaudimen, gaitasun edo sailkapenari eutsi beharko diote.

c) Aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresetako bat edo batzuk hartzekodunen lehiaketan daudela deklaritzen denean, nahiz eta likidazio-fasea oraindik ere ireki ez, kontratua gainerako enpresekin egikaritzen jarraituko da, baldin eta exijitzen diren kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen badituzte.

10. Elkarte horiei adjudikatutako kontratuei buruzko informazio publikoan, enpresa parte-hartzaileen izenak eta enpresa horietako bakoitzak aldi baterako enpresa-elkartean ehunekoetan duen partaidetza jasoko dira; eta hori ez da eragozpena izango haiek Aldi Baterako Enpresa-elkarteen Erregistro Berezian ere argitaratzeko.

## 70. artikulua. *Bateragarritasun-baldintza bereziak.*

1. Zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten edo kontratazio-prozeduraren prestaketan kontratazio-organoari aholku ematen aurrez jardun duten enpresek lizitazioan parte hartu behar badute ere, kontratazio-organoak behar diren neurriak hartuko ditu horrek ez dezan faltsutu lehia. Neurri horien artean ezarri ahalko da lizitazio horietatik kanpo geratu ahalko direla aipatutako enpresak eta haiei lotutakoak –Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuetako batean daudenak hartuta halakotzat–, tratu-berdintasunaren printzipioa beteko dela bermatzeko beste biderik ez dagoenean.

Nolanahi ere, kontratuaren prestaketan parte hartu zuen hautagaiari edo lizitatzailari, baztertu baino lehen, entzunaldia eman beharko zaio, justifika dezan prestaketa-fasean izan duen parte-hartzeak ezin duela ekarri lehia faltsutzea edo berari pribilegiozko tratu bat ematea gainerako enpresa lizitatzailerekiko.

Apartatu honen lehen paragrafoak aipatzen dituen neurrien artean hau dago: kontratazio-prozeduraren prestaketan izandako parte-hartzearen esparruan edo haren emaitza gisa trukaturako informazioa komunikatzea gainerako hautagai edo lizitatzailari, eta eskaintzak aurkezteko epe egokiak ezartzea.

Hartutako neurriak 336. artikuluan aurreikusitako txosten berariazkoetan jasoko dira.

2. Objektutzat edozein kontratu egikaritzen dela zaintzea, gainbegiratzea, kontrolatzea eta zuzentzea daukaten kontratuak, bai eta objektutzat segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazioa daukatenak ere, ezingo zaizkie adjudikatu dagozkien kontratuen adjudikaziodun diren enpresa berei, ez eta aurreko apartatuan ezarritako zentzuan enpresa horiei lotutako enpresei ere.

## 2. azpiatala. Kontratatzeke debekuak

### 71. artikulua. *Kontratatzeke debekuak.*

1. Honako egoera hauetako batean dauden pertsonak ezingo dute kontraturik egin lege honen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin, eta horrek 73. artikuluan ezarritako ondorioak ekarriko ditu:

a) Epai irmo bidez kondena jaso izana honako delitu hauengatik: terrorismoa; antolakunde edo talde kriminal bat eratu edo integratzea; zilegi ez den elkartzea; alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa; gizakien salerosketa; negozioetako ustelkeria; influentzia-trafikoa; funtzionario-eroskeria; iruzurra; Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak; langileen eskubideen aurkako delituak; prebarkazioa;

bidegabeko eralgitzea; funtzionarioei debekatutako negoziazioak; kapitalak zuritzea; lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren aurkako delituak, eta ondare historikoaren eta ingurumenaren babesaren aurkakoak; edo lanbidean, ogibidean, industrian edo merkataritzan aritzeko desgaitasuna bereziaren zigorra jaso izana.

Kontratatzeko debekuak hauek ere hartuko ditu barrenean: erantzule penal deklaraturako pertsona juridikoak, bai eta zuzenbidezko nahiz egitatezko administratzaile edo ordezkariak apartatu honetan aipatzen den egoeran dauzkatenak ere, karguak edo ordezkariak indarra duen bitartean eta kargua uzten duten arte.

b) Zehapen irmo bat jaso izana arau-hauste astuna egiteagatik lanbide-arloan (integritatea zalantzan jartzeko moduan), merkatuko diziplina-arloan, lehia faltsutzearen arloan, laneko integrazioaren arloan eta aukera-berdintasunaren arloan eta desgaitasuna duten pertsonen edo atzerritarren diskriminaziorik ezaren arloan, araudi indardunear ezarritakoari jarraituz; edo oso arau-hauste astuna egiteagatik ingurumenaren arloan, araudi indardunear ezarritakoari jarraituz, edo oso arau-hauste astuna egiteagatik lanaren arloan edo arlo sozialean, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera (abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), bai eta aipatutako testuaren 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste astuna egiteagatik ere.

c) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaraturia izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturia egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu edo ordainketetarako akordio estrajudizial bat hasi bada), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

d) Indarrean dauden xedapenek ezarritako tributu-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez edukitzea, erregelamenduz zehaztutako moduan; edo, 50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, enplegatuen % 2 gutxienez desgaitasunen bat duten langileak izatearen betekizuna ez betetzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikulua arabera, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzekin; edo, 250 langiletik gorako enpresen kasuan, berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra ez betetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez, enpresek halakoak egunean dituztela ulertuko da zorrak atzeratuta edo zatikatuta daudenean, edo zorrak aurkaratzearen ondorioz haiek etetea erabakitzen denean.

Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen ehuneko 2ko erreserba-kuota betetzeko eta letra honen lehenengo paragrafoak aipatzen duen berdintasun-plana edukitzeko betebeharrak 140. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztuz egiaztatuko dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Ministro Kontseiluak, errege-dekretu bidez, egiaztatzeko beste modu bat ezarri ahalko du, zeina, nolahi ere, izango baita edo dagokion administrazio-organoaren ziurtagiriaren bidezkoa, gutxienez ere sei hileko indarraldiarekin, edo dagokion lizitatzaileren erregistroaren ziurtagiriaren bidezkoa, inguruabar hori erregistroan inskribatuta dagoen kasuetan.

e) Lege honetako 140. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko deklarazioa egitean edo gaitasunari eta kaudimenari buruzko deklarazioan datu faltsuak eman izana edo 82.4 artikuluan eta 343.1 artikuluan aurreikusitako informazioa jakinarazteko beharra bete ez izana beraiei egotzi ahal zaizkien arrazoiengatik.

f) Administrazio-zehapen irmo baten ondorioz ezarritako kontratatzeko debekuren baten eraginpean egotea, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituz.



Kontratatzeko debekurako kausa hori aplikatzeari utziko zaio kontratazio-organoak, 72.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, egiaztatzen duenean enpresak bere ordainketa-betebeharrak bete dituela edo akordio lotesle bat egin duela zor dituen zenbatekoak ordaintzeko, horren barnean direla –kasua bada– metatutako interesak edo ezarritako isunak.

g) Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legean, autonomia-erkidegoetako arauetan edo Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aipatutako kasuren batean sartuta egotea pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren administratzaileak, edota Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargudun izatea, bertan ezarritako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren langileek eta goi-kargudunek edo administrazio horien zerbitzura diharduten hautetsiek pertsona juridiko baten kapitalean parte hartzen badute, aipatutako legerian zehaztutako moduan eta zenbatekoekin, pertsona juridiko hori ere debekuaren barruan sartuko da.

Debekuak berdin hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen ezkontideak, bizikidetzatza afektiboz horien antzeko lotura daukaten pertsonak, aurrekoak eta ondorengoak, bai eta bigarren mailako odol- edo ezkontza-ahaideak ere, baldin eta interes-gatazka sortu bada kontratazio-organoaren titularrekin edo kontratatze ahalmena delegatua duten organoetako titularrekin edo kontratazio-organoaren titularren ordezkoeekin.

h) Kargu bat utzi ondorengo bi urteetan karguaren eskumenekin zuzenean erlazionatutako enpresa edo sozietate pribatuetan zerbitzuak eman dituzten pertsonak kontratatu izana, eta pertsona horiek Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 15.1 artikuluan edo autonomia-erkidegoetako arauetan aipatutako ez-betetzean erori izana eta hori *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu izana. Kontratutako pertsona enpresako antolaketan dagoen bitartean iraungo du kontratatze debekuak, eta, gehienez ere, bi urtez, goi-kargua uzten duenetik aurrera.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kasuetan ez ezik, enpresaburuek ondorengo kasu hauetan ere ezingo dute kontraturik egin lege honen 3. artikuluan jasotako erakundeekin, 73. artikuluan ezarritako baldintzetan:

a) Adjudikatzeko prozedura batean beren proposamena edo hautagaitza bidegabeki erretiratu badute; edo kontratua beren alde adjudikatzea eragotzi badute, 150. artikuluan 2. apartatuan ezarrita dagoena epe barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria dela medio.

b) Beren alde adjudikatutako kontratua formalizatzeari utzi badiote, 153. artikuluan aurreikusitako epeetan, adjudikaziodunari egotz dakizkioken arrazoiengatik.

c) Kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez badituzte –202. artikulurekin bat etorri kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza bereziak barne–, ez-betetze hori baldintza-agirietan edo kontratuan arau-hauste astuntzat jotzen denean eta tartean enpresaburuaren doloa, errua edo zabarkeria izan denean, eta betiere zigorrak ezarri badira edo kalte-galerak ordaindu badira.

d) Lege honen 3. artikuluan azaldutako erakundeetatik edozeinekin egindako edozein kontraturen suntsiarazte irmoa eragin badute eta suntsiarazte-arrazoi horren errudun jo badituzte.

3. Halaber, ezingo da kontraturik egin enpresekin, baldin eta, zuzendaritzan dauden pertsonen edo bestelako inguruabarrei erreparatuta, pentsa badaiteke enpresa horiek kontratazio-debekua jaso duten beste enpresa batzuen jarraipena direla edo eraldatze, bat-egite edo ondorengotza bitartez haiengandik datozenak direla.

## 72. artikulua. *Kontratatzeko debekua aintzat hartzea. Eskumena eta prozedura.*

1. Kontratazio-organoeek zuzenean hartuko dute aintzat aurreko artikuluen 1. apartatuko c), d), f), g) eta h) letretan jasotako kontratatzeko debekurik ba ote dagoen, eta debeku horiek indarrean egongo dira sorrarazi dituzten inguruabarrek dirauten bitartean.

2. Kontratatzeko debekua aurreko artikuluen 1. apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako arrazoiengatik bada, kontratazio-organoeek zuzenean hartuko dute aintzat, baldin eta epaiak edo administrazio-ebazpenak debekuaren irismena eta iraupena espresuki zehazten baditu. Debekuak, hala, epaian zehaztutako iraupena izango du.

Epaian edo administrazio-ebazpenean erabakirik agertzen ez bada kontratatzeko debekuaren irismenari edo iraupenari buruz, eta aurreko artikuluen lehen apartatuko e) letrako kasuetan eta aurreko artikuluen bigarren apartatuan aurreikusitakoetan, debekuaren irismena eta iraupena horretarako izapidetutako prozedura baten bitartez zehaztu beharko dira, artikulua honetan xedatuta dagoenaren arabera.

3. Aurreko artikuluen 1. apartatuko a) eta b) letren kasuan kontratatzeko debekuaren iraupena eta irismena ezartzeko eskumena, dagokion epai edo ebazpenean agertzen ez den kasuetan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak izango du, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aurretiaz hala proposatuta, eta aurreko artikuluen lehen apartatuko e) letraren kasuan 82.4 artikuluan eta 343. artikuluan aurreikusitako informazioa komunikatzeko betebeharrari dagokionez kontratatzeko debekua deklaratzeko eskumena ere Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak izango du, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aurretiaz hala proposatuta, edo autonomia-erkidegoen eremuan eskumena duten organoek.

Aurreko paragrafoan ezarrita dagoena betetzeko, epaia edo administrazio-ebazpena ematen duen organo judizialak edo administrazio-organok ofizioz epai horren testigantza edo administrazio-ebazpenaren kopia igorri beharko dio Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari. Dena dela, batzordeak, halakorik dagoela jakiten badu eta epai horren lekukotasunik edo administrazio-ebazpenaren kopiarik jaso ez badu, eman zituen organoari eskatu ahalko dizkio.

Aurreko artikuluen 1. apartatuko e) letran, 140. artikuluan aipatutako erantzukizunpeko deklarazioa egitean edo bere gaitasunari edo kaudimenari buruzko bestelako datuak ematean datu faltsuak eman diren kasuak azaltzen dira. Bada, kasu horietan, eta 71. artikuluen bigarren apartatuan aurreikusitako kasuetan, kontratatzeko debekua kontratazio-organok deklaratu beharko du.

4. Erakunde kontratatzailea administrazio publikoa ez denean, kontuan izango da erakunde kontratatzailea zer organismotara atxikita dagoen edo zer organismoen mendean dagoen edo nori dagokion haren babes eta kontrola, eta organismo horretako lehendakariak edo zuzendariak edo departamentuko titularrak izango du eskumena kontratatzeko debekua deklaratzeko. Erakunde kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, kontrol edo partaidetza handiena zer administrazioek duen, hari dagokion organoak izango du eskumena.

5. Artikulu honetan azaldu denaren arabera kontratatzeko debekua dagoela aurretiaz deklaratu behar bada, lege hau garatzen duten arauetan ezartzen den prozedurari jarraituz zehaztuko dira debekuaren irismena eta iraupena.

Halere, kasuan kasuko prozeduraren entzunaldiaren izapidea egiten ari denean, ezin izango da deklaratu kontratatzeko debekua debekuaren kausan sartutako pertsonak frogatzen duenean kontratatzeko debekua ekarri duen epaiak edo ebazpen administratiiboak finkatutako isun eta kalte-ordainak ordaindu dituela edo ordaintzeko konpromisoa duela, betiere aipatutako pertsonak jada hura ordaintzeko erantzule deklaratu direnean aipatutako epai edo ebazpenean, eta ziurtatzen duenean, halaber, neurri tekniko eta antolamenduzko eta langile-arloko neurri egokiak hartu dituela etorkizunean arau-hauste administratiiboak ez egiteko; horien artean, lehia faltsutzearen arloko barkaberatasun-programan sartzea egongo da. Paragrafo hau ez da aplikatzekoa izango 71.1 artikuluen a) letran aipatzen den kontratatzeko debekuaren kausa aplikatzekoa denean.

Kontratatzeko debekua, horrela deklaratu, bere indarraldiaren edozein unetan berrikusi ahalko da, kontratatzeko debekuko egoeran deklaratu den pertsonak aurreko

paragrafoan aipatzen direnak bete dituela frogatzen duenean. Aipatutako berrikuspen horretaz arduratzeko organo eskuduna kontratatzeke debekua deklaratzeko ebazpena eman zuen organo eskudun bera izango da.

6. Epai penal irmo baten bidez hala aurreikusten den kasuetan, kontratatzeke debekuaren iraupena epaian aurreikusita dagoena izango da. Epaian eperik ezarrita ez badago, gehienez bost urte iraungo du, kondena epai irmo bidez ezartzen den egunetik aurrera.

Gainerako kasuetan, iraupen-epaia gehienez hiru urte izango da. Epe hori zenbatzeko, 73. artikulua hiru urte apartatua ezarrita dagoena bete beharko da.

7. Aurreko artikulua 1. apartatuko a) letraren kasuan, prozedura –baldin eta beharrezkoa bada– ezingo da hasi zigorraren agindurako ezarritako epea igaro bada, eta, artikulua beraren 2. apartatuko b) letraren kasuan, adjudikazioa gertatu zenetik hiru hilabete baino gehiago igaro badira.

Artikulu horretan aurreikusitako gainerako kasuetan, kontratatzeke debekua deklaratzeko prozedura ez da hasiko hiru urte baino gehiago igaro badira honako data hauetatik:

a) Ebazpen zehatzailea irmo egin zenetik, aurreko artikulua 1. apartatuko b) letraren kasuan;

b) Datu faltsuak eman ziren egunetik edo dagokion informazioa komunikatu behar zen egunetik, aurreko artikulua 1. apartatuko e) letran aurreikusitako kasuetan;

c) Kontratuaren suntsiaraztea irmo egin zen egunetik, aurreko artikulua 2. zenbakiko d) letraren kasuan;

d) Aurreko artikulua 2. apartatuko a) letran adierazitako kasuetan, kontratua adjudikatu zen egunetik, baldin eta debekuaren arrazoiak proposamenak edo hautagaitzak bidegabeki erretiratzea bada, edota adjudikazioa egin behar zen egunetik, baldin eta debekuaren oinarria 150. artikulua bigarren apartatua ezarritakoa ez betetzea bada;

e) Erakunde kontratzaileak jakin zuenetik 71. artikulua bigarren apartatuko c) letran aurreikusitako kasuetan kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ez zirela betetzen.

73. artikulua. *Kontratatzeke debekua deklaratzeko dakartzen ondorioak.*

1. 71. artikulua bigarren apartatua eta artikulua beraren lehen apartatuko e) letran ezarritako inguruabarrak gertatuz gero, hau da, 140. artikulua erantzukizunpeko deklarazioa egitean edo gaitasunari edo kaudimenari buruzko datuak ematean datu faltsuak emanez gero, kontratatzeke debekuak deklarazioa egiteko eskumena duen kontratazio-organoren eremuari eragingo dio.

Kontratazio-organoa zer sektore publikotan dagoen integratuta, sektore publiko horretara hedatu ahalko da debekua. Estatuko sektore publikoaren kasuan, debekuaren eragina Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak hedatu beharko du, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aurretiaz hala proposatuta.

Aurreko artikulua hirugarren apartatuko lehenengo paragrafoan 71. artikulua e) letrari dagokionez ezarrita dagoenaren arabera, kontratatzeke debekua deklaratzeko eskumena autonomia-erkidegoetako organo eskudunek badute, kontratatzeke debeku horrek dagokion sektore publikoko kontratazio-organoz guztiei eragingo die.

Salbuespenez, aurreko paragrafoetan azaldutako kontratatzeke debekuen ondoreak sektore publiko osora hedatu ahalko dira, baldin eta lehenago lurraldeko sektore publikora hedatu badira. Ondoreak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak hedatuko ditu sektore publiko osora, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aurretiaz hala proposatuta, eta dagokion autonomia-erkidegoak edo toki-entitateak eskatuta, kontratatzeke debekua eremu horietan sortu bada.

Kontratatzeke debekua deklaratzeko eskumena Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak duen kasuetan, debeku horrek sektore publiko osoan izango ditu ondorioak.

2. Kontratatzeke debeku guztiak, salbu eta 71. artikulua lehen apartatuko c), d), g) eta h) letratan aurreikusitako inguruabarren bat dutenak, behin dagokien ebazpena emanda, luzamendurik gabe komunikatuko dira, Sektore Publikoko Lizitazioaren eta

Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo autonomia-erkidegoetan horren baliokidea den batean inskribatzeko, kontuan hartuta zein den kontratatze debekuaren eremua eta zer organok deklaratu duen debekua.

Autonomia-erkidegoen, Ceuta eta Melilla hiri autonomoen edo horietako lurraldean dauden toki-entitateen eremuko kontratazio-organismoek kontratatze debekua jakinaraziko diete dagozkien autonomia-erkidegoetako lizitaztaileen erregistroei, edo, halako erregistrorik ez badago, Sektore Publikoko Lizitaztaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari.

Lizitaztaileen Erregistroan, kontratatze debekuaren inskripzioa haren iraupena amaitu eta 3 hilabete igaro ondoren iraungiko da, eta, epe horren ondoren, ofizios ezeztatu beharko da inskripzioa erregistroan.

3. 71. artikulua lehen apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako kontratatze debekuek epaia edo administrazio-ebazpena irmo bihurtzen diren egunetik izango dituzte ondorioak, epai horretan edo administrazio-ebazpen horretan debekuaren irismenari eta iraupenari buruzko erabaki bat badago.

Gainerako kasuetan, debekua dagokion erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera izango dira ondorioak.

Aurreko hori gorabehera, 71. artikulua lehen apartatuko a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, kontratatze debekuaren ondorioak debekua dagokion erregistroan inskribatzen denetik sortzen badira, debekuaren irismena eta iraupena zehazteko prozedura ebazteko eskumena duen organoak, ofizios edo alderdi batek eskaturik, har daitekeen ebazpena efikaza izan dadila ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahalko ditu.

4. Kontratatze debekuaren arrazoia 71. artikulua lehen apartatuko f) letretan aurreikusitakoa bada, kontratatze debekuek ebazpen hori irmo bihurtzen den egunetik aurrera izango dituzte ondorioak debekuek ezarri zituen ebazpen zehatzailean ezartzen diren administrazio publikoei dagokienez.

### 3. azpiatala. Kaudimena

#### 74. artikulua. *Kaudimena eskatzea.*

1. Sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izateko, enpresaburuek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte kontratazio-organismoak ezarritako ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokienez. Baldintza horren ordez, sailkatuta egotea eskatu ahalko zaie, baldin eta, lege honetan ezarritakoaren arabera, hala eska badakieke.

2. Enpresaburuak bete behar dituen gutxieneko kaudimen-baldintzak eta horiek egiaztatze behar den dokumentazioa lizitazio-iragarkian adieraziko dira, eta kontratuaren baldintza-agirian zehaztu; helburuari lotuak eta proportzionalak izan behar dute.

#### 75. artikulua. *Kaudimena eta gaitasuna kanpoko bitartekoekin osatzea.*

1. Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatze, enpresaburua beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahalko da, erakunde horiekin dituen harremanen izaera juridikoa dena dela ere, baldin eta kaudimen eta bitarteko horiek kontratua egikaritzeko aldi osoan izango dituela egiaztatzen badu eta oinarritzat aurkezten duen erakundeak kontratatze debekurik ez badu.

Baldintza berdinetan, 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako enpresa-elkarteetan bildurik aurkezten diren enpresaburuak aldi baterako elkarteaz kanpoko erakundeen gaitasunaz baliatu ahalko dira.

Hala eta guztiz ere, 90.1.e) artikuluan aipatzen diren ikasketa-tituluei eta lanbide-tituluei buruzko irizpideei dagokienez edo egoki den esperientzia profesionalari dagokienez, enpresek soilik jo ahalko dute beste erakunde batzuetara haien gaitasunaz baliatzeko baldin eta erakunde horiek egin behar badituzte gaitasun horiexek beharrezko dituzten obra edo zerbitzuak.

2. Enpresa batek, beste erakunde batzuen gaitasunaz baliatu nahi duenean, behar diren baliabideak jarriko dituela frogatu beharko dio botere adjudikatzailerari, horretarako erakunde horien konpromiso idatzia aurkeztuz.

Aurreko paragrafoan aipatzen den konpromisoa 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitzaileak aurkeztuko du. Horretarako, aurrez errekerimendua egingo zaio hari, eta 150. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera beteko da, alde batera utzi gabe 140. artikulua 3. apartatua ezarritakoa.

3. Enpresa batek beste erakunde batzuetara jotzen duenean haien gaitasunaz baliatzeko ekonomia- eta finantza-kaudimenari buruzko irizpideak direla eta, botere adjudikatzailerak erakunde horren eta gainerakoen arteko baterako erantzukizun-moduak exijitu ahalko ditu kontratua egikartzeko, baita izaera solidarioarekin ere.

4. Obra-kontratuen kasuan, zerbitzu-kontratuen kasuan edo hornidura-kontratu baten barruko kokatze- edo instalazio-zerbitzu edo -lanen kasuan, botere adjudikatzailerak exijitu ahalko dute atal edo lan batzuk, haien izaera berezia dela eta, lizitzaileak berak zuzenean egin ditzala edo, enpresaburuaren elkarrekin batek aurkeztutako eskaintza baten kasuan, elkarrekin horretako partaideetako batek egin ditzala, dagokion baldintza-agirian hala aurreikusitako baldin bada eta lanak adierazten badira.

#### 76. artikulua. *Kaudimenari buruzko baldintzak zehaztea.*

1. Obra-kontratuetan, zerbitzu-kontratuetan eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuetan, bai eta zerbitzuak ematea edo zerbait kokatzea edo instalatzea eskatzen duten hornidura-kontratuetan ere, pertsona juridikoei eskatu ahalko zaie prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak jar ditzatela eskaintzan edo parte hartzeko eskaeran.

2. Kontratazio-organismoek aukera izango dute lehiatzaileei edo lizitzaileei eskatzeko, baldintza-agirietan horrela jasota utzi badute, beren kaudimena edo -hala badagokio- sailkapena egiaztatzeaz gain konpromisoa har dezatela kontratua egikartzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko. Konpromiso horiek kontratuan sartuko dira, eta baldintza-agirietan edo kontratuaren agirian funtsezko obligaziotzat jo beharko dira, 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zigorrak ezarri beharko dituzte, 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak konpromiso horiek betetzen ez baditu ere.

Daukaten zailtasun teknikoa dela-eta kontratua egikartzeko behar diren bitarteko pertsonalak edo materialak zehaztea erabakigarria den kontratuen kasuan, kontratazio-organismoek aurreko paragrafoan aipatzen den konpromisoa exijituko dute.

3. Kontratazioaren sailkapenerako kaudimen-baldintza gehigarri moduan bitarteko pertsonal edo materialak atxikitzea zentzuz, justifikatuta eta entitatearekiko eta kontratuaren izaerarekiko eta ezaugarriarekiko modu proportzionalan egingo da, halako moduz non ez duen mugatuko enpresek lizitazioan parte har dezatela.

#### 4. azpiatala. Enpresen sailkapena

#### 77. artikulua. *Sailkapena eskatu ahal izatea eta haren ondoreak.*

1. Eskatu ahalko da enpresaburuak botere adjudikatzaileraren obra-kontrata edo zerbitzu-kontrata gisa sailkatuta egotea, eta kasu eta baldintza hauetan ondoreak izango ditu kontratatzeke haien kaudimena egiaztatzeke orduan:

a) 500.000 euro edo hortik gorako balio zenbatetsia duten obra-kontratuarako ezinbesteko betebeharra izango da enpresaburuak botere adjudikatzaileraren obra-kontrata gisa behar bezala sailkatuta egotea. Kontratu horietarako, kontratuaren objektuaren arabera dagokion taldean edo azpitaldean kontraturako exijitzen den kategoriarekin edo goragoko batekin sailkatuta egonda egiaztatuko ditu enpresaburuak bere kaudimen-baldintzak.

500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuarentzako, kontratuaren objektuaren arabera dagokion eta kontratuaren baldintza-agirietan jasoko den taldean edo azpitaldean sailkatuta egonda egiaztatuko ditu enpresaburuak ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kontratatzeke kaudimen teknikoa. Kasu horietan, enpresaburuak bi modutara egiaztatu ahalko du bere kaudimena: kontratuari dagokion taldean edo azpitaldean obra-kontratista gisa sailkatuta egotearen bitartez, edota lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eskatzen diren eta kontratuaren baldintza-agirietan zehazturik datozen berariazko kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatuz. Baldin eta baldintza-agiriek ez badituzte zehazten ekonomia- eta finantza- kaudimeneke baldintzak edo kaudimen teknikoko edo profesionaleko baldintzak, 87. artikulua 3. apartatuaren bigarren tartekian bildutako irizpide, baldintza eta bitartekoen arabera egiaztatuko da kaudimena; horiek erabiliko dira, izan ere, horiei buruz baldintza-agirietan jaso ez denari edo zehaztu ez denari dagokionez.

b) Zerbitzu-kontratuarentzako ez da eskatuko enpresaburuaren sailkapena. Lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan zehazturik dira ekonomia- eta finantza-kaudimeneke eta kaudimen tekniko edo profesionaleko gutxieneke irizpideak eta betebeharrak, bai legearen 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoari dagokionez, bai sailkapeneke talde edo azpitaldeei eta eskatzekoa den gutxieneke kategoriari dagokionez, baldin eta kontratuaren objektua indarrean den sailkapeneke talde edo azpitalderen baten sailkapen-eremuan sartzen bada. Horretarako, kontratuaren CPV kodea hartuko da aintzat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko azaroaren 5eko 2195/2002 (EE) Erregelamenduak kontratu publikoarentzako onetsitako hiztegi komunaren arabera.

Kasu horietan, enpresaburuak bi modutara egiaztatu ahalko du bere kaudimena: kontratuari dagozkion sailkapen- eta kategoria-taldean edo -azpitaldean sailkatuta egotearen bitartez, edota lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eskatzen diren eta kontratuaren baldintza-agirietan zehazturik datozen berariazko kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatuz. Baldin eta baldintza-agiriek ez badituzte zehazten ekonomia- eta finantza- kaudimeneke baldintzak edo kaudimen teknikoko edo profesionaleko baldintzak, 87. artikulua 3. apartatuaren bigarren tartekian bildutako irizpide, baldintza eta bitartekoen arabera egiaztatuko da kaudimena; horiek erabiliko dira, izan ere, horiei buruz baldintza-agirietan jaso ez denari edo zehaztu ez denari dagokionez.

c) Gainerako kontratu motetarako ez da eskatuko sailkapena. Kontratu horietarako eskatzen diren berariazko kaudimen-baldintzak lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean adieraziko dira, eta kontratuaren baldintza-agirietan zehazturik dira.

2. Kontratu baten lagapen-hartzaileari ere eskatu ahalko zaio sailkatuta egotea, baldin eta lagatzaileari halakorik eskatu bazitzaion.

3. Errege-dekretu bidez, salbuespen gisa, sailkapenaren beharra ezarri ahalko da obra-kontratuaren mota jakin batzuetarako, baldintza hori exijitzekoa denean, eta salbuespen hori kontratu haietan gertatzen diren inguruabar berezi eta apartekoetan oinarritu beharko da.

4. Sailkatuta egotea eskatzen duen kontratu bat adjudikatzeko prozeduran ez bada sailkatutako enpresarik aurkeztu, kontratazio-organoak baldintza hori ken dezake kontratu horixe bera adjudikatzeko egiten den hurrengo prozeduran, baldin eta haren baldintzak aldatzen ez badira. Horrelakoetan, baldintza-agirian eta, hala badagokio, iragarkian, kaudimena eta gaitasuna nola egiaztatu behar diren jakinaraziko du, 87. eta 88. artikuluetan adierazitako moduen artetik aukeratuta betiere.

5. Botere adjudikatzailen izaera ez duten sektore publikoko erakundeek erabaki ahalko dute artikulua honen 1. apartatuan xedatutakoa aplikatzea.

78. artikulua. *Sailkatuta egoteko beharretik salbuestea.*

1. Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresaburuei, espainiarrak ez badira, ezingo zaie ezarri sailkatuta egoteko beharra, ez kontraturako bakarrik aurkezten direnean, ez elkarte



batean aurkezten direnean; horrek ez du esan nahi beren gaitasuna egiaztatu behar ez dutenik.

2. Salbuespenez, eta interes publikoetarako komenigarria denean, Ministro Kontseiluak baimena eman dezake Estatuko Administrazio Orokorrak eta haren mendeko ente, organismo eta erakundeek sailkatu gabeko pertsonekin kontratuak egiteko, baina, horretarako, alde aurretik, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak bere irizpena eman behar du. Autonomia-erkidegoen eremuan, autonomia-erkidegoak berak erabakiko du zer organori ematen dion eskumena horrelako baimenak emateko.

79. artikulua. *Sailkapenerako aplikatu behar diren irizpideak eta baldintzak.*

1. Enpresak kaudimenaren eta gaitasunaren arabera sailkatuko dira, eta kaudimen eta gaitasun hori 87., 88. eta 90. artikuluetan erregelamenduz ezarritako irizpideei jarraituz baloratuko da. Sailkapenak finkatuko du enpresa zer eratako kontratuen adjudikazioetara aurkez daitekeen, objektuaren eta diru-zenbatekoaren arabera. Ondorio horietarako, kontratuak talde orokorretan eta azpitaldetan banatuko dira, beren izaera bereziaren arabera, eta, haien barruan, kategoriatan, zenbatekoaren arabera.

Zenbatekoa zehazteko erreferentzia kontratuaren balio zenbatetsia izango da kontratuaren iraupena urtebetekoa edo laburragoa denean, eta urteko batez besteko balioa, berriz, iraupen luzeagoa duenean.

2. Sailkatu ahal izateko, enpresaburuak honako hauek egiaztatu behar ditu: nortasuna, jarduteko gaitasuna, dagokion jarduera egiteko legez gaituta dagoela (hau da, beharrezkoak diren enpresa- edo lanbide-baimenak edo enpresa- edo lanbide-gaikuntzak dituela), elkargoko kide egiteko eta inskribatzeko baldintzak eta antzekoak beteak dituela, eta kontratatzeke debekurik ez duela.

3. Sozietate-talde bateko kide diren pertsona juridikoen kasuan, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala baloratzeari begira, taldeko sozietateak hartu ahalko dira kontuan, baldin eta pertsona juridiko horrek egiaztatzen badu benetan bere eskura izango dituela, 82 artikulua 2. apartatuan aipatutako epean zehar, sozietate horiek kontratua egikaritzeko dituzten bitartekoak.

Bitarteko pertsonalak eskura jarritz gero, nolana ere, horrek bateragarria izan beharko du lan arloan eta lanaren zuzenbidearen arloan aplikatu beharreko xedapenekin, eta erabaki horrek eragiten dien langileen adostasuna bildu beharko da.

Apartatu honetan aurreikusitako kasuak ezingo du berekin ekarri, inolaz ere, soilik bitarteko pertsonalak eskura jarri ahal izatea.

4. Enpresei ukatu egingo zaie sailkapena, baldin eta, zuzendaritzako pertsona edo bestelako inguruabarrei erreparatuta, susmatzen bada kontratatzeke debekua duen enpresa baten jarraipena direla edo eraldaketaz, bat-egitez edo ondorengotzaz harengandik datozenak direla.

5. Azpitalde gisa ezarritako motaren bati dagokion izaera duten obretan, baldin eta ez badute beren klaserako normalak eta orokorrak direnez bestelako berezitasunik, kasuan kasuko azpitalde orokorraren sailkapena baizik ez da eskatuko.

Aurreko kasuan, beren klaserako normalak eta orokorrak direnez bestelako berezitasunik ez duten obrek azpitalde nagusiaz beste azpitalde batzuei dagozkien obra motekin parekagarriak diren berezitasunak badituzte, sailkapenaren eskakizuna azpitalde horietara ere zabalduko da, honako muga hauekin:

a) Eskatzekoak diren azpitaldeen kopurua, aparteko kasuetan izan ezik, ezingo da izan lau baino gehiagokoa.

b) Bere berezitasuna dela-eta dagokion azpitaldean sailkatuta egotea eskatzen zaion obra partzialaren zenbatekoak kontratuaren guztizko prezioaren 100eko 20tik gorakoa izan beharko du, kasu berezietan izan ezik; horrelakoak, izan ere, arrazoiz egiaztatu beharko dira baldintza-agirietan.

80. artikulua. *Sailkapenari buruzko akordioak edo erabakiak: gaitasuna, eraginkortasuna, errekurtsua eta sailkapen dibergenteak.*

1. Enpresen sailkapenari buruzko erabakiak Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Sailkapen Batzordeek hartuko dituzte, eta kontratazio-organo guztientzat izango dira eraginkorrak. Erabaki horien aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko zaio Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroari.

2. Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek ere hartu ahalko dituzte enpresen sailkapenari buruzko erabakiak, baina honako kontratu hauetan bakarrik izango dira eraginkor: erabaki hori hartu duen autonomia-erkidegoarekin egin beharreko kontratuetan, autonomia-erkidegoko lurraldean dauden toki-entitateekin egin beharreko kontratuetan, eta bataren zein besteen menpe dauden sektore publikoko ente, organismo eta erakundeekin egin beharreko kontratuetan. Erabaki horiek hartzean, lege honetan eta lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako arauak eta irizpideak errespetatuko dira beti.

Nolanahi ere, enpresa batek ezingo ditu aldi berean eduki talde jakin baten edo azpitalde jakin baten sailkapena, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Sailkapen Batzordeek emana eta autonomia-erkidego batek edo gehiagok emana, edo bi autonomia-erkidegok baino gehiagok emana, sailkapen-kategoria desberdinekin. Horretarako, enpresek, sailkatzeko edo sailkapena berrikusteko egiten dituzten eskaeretan, adierazi beharko dute zer sailkapen dituzten indarrean, eskaera zuzentzen dioten hartaz beste administrazio batzuek emanak, eta enpresa eskatzaileari ezingo zaio eman lehendik beste edozein administrazio azpitalde batean emana dionaz gorako kategoria bat azpitalde horretan.

Erregelamendu bidez, behar diren neurriak ezarriko dira sailkapeneko talde edo azpitalde berean gerora sailkapen indardun kontrajarriak batera gerta ez daitezen enpresa bererako.

81. artikulua. *Sailkapena erregistroan inskribatzea.*

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Sailkapen Batzordeek enpresen sailkapena dela-eta hartutako erabakiak ofizioz inskribatuko dira Sektore Publikoko Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean.

Eskumen hori eskuratu duten autonomia-erkidegoetako organo eskudunek enpresen sailkapenari buruz hartutako erabakiak ofizioz inskribatuko dira kasuko autonomia-erkidegoko Lizitatzaileren Erregistroan, baldin eta halako erregistrorik badu, eta erabaki horiek hartu zituen organoak Sektore Publikoko Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari komunikatuko dizkio.

82. artikulua. *Sailkapenak: indarraldia eta berrikustea.*

1. Enpresen sailkapenak mugagabeko indarraldia izango du, baldin eta enpresaburuak sailkapena eman ziotenean oinarritzat hartu ziren baldintzei eta inguruabarrei eusten badie.

2. Dena dela, eta artikuluko 3. apartatuan eta hurrengo artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, sailkapenari eusteko, enpresaburuak urtero justifikatu beharko du ekonomia- eta finantza-kaudimenari eusten diola, eta, hiru urtetik behin, kaudimen tekniko eta profesionalari eusten diola. Horretarako, enpresaburuak dagokion erantzukizunpeko deklarazioa edo, bestela, dokumentazio gaurkotua aurkeztu beharko du, erregelamenduz ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren deklarazio edo dokumentuak erregelamenduz ezarritako epeetan ez aurkezteak berekin ekarriko du lortutako sailkapenak automatikoki etetea, bai eta sailkapena berrikusteko espedientea zabaltzea ere. Sailkapenen etetea kendu egingo da deklarazio edo agiri horiek aurkeztuta, interesdunari oraindik ere ez bazaio komunikatu berrikuspen-espedientearen hasiera, edo, bestela, organo eskudunak sailkapena berrikusteko erabakia hartuta.

3. Saikapena emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira, aukera izango da sailkapen hori berrikusteko, interesdunen eskariz edo administrazioak ofizioz.

4. Edonola ere, saikapena emateko orduan kontuan hartu ziren inguruabarrak aldatu badira eta, ondorioz, saikapena berrikusi egin behar bada, enpresaburuak nahitaez eman behar dio aldaketa horren berri saikapenaren arloan eskumena duen organoari. Jakinarazpen hori egiten ez badu, enpresaburua 71. artikulua 1. apartatuko e) letran aurreikusitako kontratatzeke debekuan eroriko da.

83. artikulua. *Saikapeneko osagaiak egiaztatzea.*

Saikapenaren arloan eskumena duten organoek edozein unetan eskatu ahal dizkiete sailkatutako enpresei edo sailkatzeko bidean daudenei beharrezko deritzeten dokumentuak, izapidetzen dituzten espedienteetan enpresek egindako adierazpenak eta egintzak egiaztatzeke; halaber, puntu horiei buruzko txostena eskatu ahal diote administrazio publikoetako edozein organori.

## 2. atala. Kontratatzeke gaitasuna egiaztatzea

### 1. azpiatala Jarduteko gaitasuna

84. artikulua. *Jarduteko gaitasuna egiaztatzea.*

1. Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eratze-aktaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da; betiere, haien jarduera erregulatzeko arauak agiri horietan egon beharko dira jasota. Eta pertsona juridiko horiek pertsona juridikoaren motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egon beharko dira, hala badagokie.

2. Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatuetakako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakako herritarrak direnean, haiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda egiaztatuko da, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiri bat erregelamenduz ezarritakoaren arabera aurkeztuta, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.

3. Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiak beren estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresaren egoitzaren lurralde-eremuari dagokion Kotsuletzeko Bulegoaren txostena erakutsita.

### 2. azpiatala. Kontratatzeke debekuak

85. artikulua. *Kontratatzeke debekurik ez dagoela egiaztatzeke frogatzea.*

140. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, enpresaburuek, berekin kontratuak egiteko debekurik ez dutela frogatzeko, lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria erabil dezakete, kasuan-kasuan.

Eskumena daukan agintariak ezin badu agiri hori eman, aukeran da, horren ordez, administrazioko agintari baten aurrean, notario publiko baten aurrean edo organismo kualifikatu profesional baten aurrean egindako erantzukizunpeko deklarazio bat entregatzea.

### 3. azpiatala. Kaudimena

86. artikulua. *Kaudimena egiaztatzeke moduak.*

1. Kontratu baterako ekonomia- edo finantza- kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeke, kontratazio-organismoak lege honen 87. artikulutik 91. artikulura aurreikusitako dokumentuen artean zehaztutakoak aurkeztu beharko dira.

Hurrengo paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetarako, kontratazio-organoak, lehenengo paragrafoan aipatzen diren agiriez gainera, kaudimenerako 87. artikulutik 91. artikulura ezarritakoez beste frogabide batzuk onartu ahalko ditu.

Onartzeko moduko arrazoi bat tarteko operadore ekonomiko batek ezin baditu aurkeztu kontratazio-organoak eskatutako erreferentzia horiek, baimena emango zaio botere adjudikatzailleak egokitzen jotzen duen beste edozein agiriren bidez egiazta dezan bere ekonomia- eta finantza- kaudimena.

2. Enpresak sailkatzeko ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko, lege honen 87. artikulutik 91. artikulura aurreikusitako agirien artean erregelamenduz ezartzen direnak aurkeztu beharko dira.

Enpresaburuaren sailkapenak egiaztatuko du badituela sailkapenarekin egin ditzakeen motako eta zenbatekoko kontratuak egiteko kaudimena eta gaitasuna horrelako sailkapena edukitzea beharrezkoa ez denean.

3. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuetan, egikaritzeko orduan ondoko ondoko faseak identifika badaitezke eta fase bakoitzak bere bitarteko eta gaitasunak eskatzen baditu, baldintza-agiriek fase bakoitzerako bere kaudimen-baldintzak bereizi ahalko dituzte, eta lizitatzailleek faseetako bakoitzaren exekuzioa hasi baino lehen egiaztatu ahalko dute kaudimen hori.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako aukeraz baliatuta beren kaudimena unean uneko fasearen exekuzioa hasi baino lehen egiaztatzen ez duten enpresaburuaren kasuan, kontratua enpresaburuari egoztekoak zaizkion kausengatik suntsiaraziko da.

87. artikulua. *Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren egiaztapena.*

1. Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

a) Urteko negozio-bolumenak edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumenak –eratzte-daten arabera edo enpresaburuaren jarduerak hasi ziren edo eskaintzak aurkeztu ziren dataren arabera, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldi onenari dagokionak– lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du. Eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena ez da kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako baino handiagoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, nola baitira obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako arrisku bereziekin lotutakoak. Kontratazio-organoak baldintza hori ezartzeko arrazoi nagusiak adieraziko ditu kontrataziorako baldintza-agirietan edo 336. artikuluan aipatzen den txosten berariazkoan.

Kontratu bat sortatan zatitzen denean, irizpide hau sortetako bakoitzari dagokionez aplikatuko da. Hala eta guztiz ere, kontratazio-organoak sorta-multzoak erreferentziatzen hartuta ezarri ahalko du lizitatzaillei eskatzen zaien urteko negozio-bolumen gutxienekoa, baldin eta aldi berean gauzatu beharreko sorta bat baino gehiago adjudikatzen bazaio adjudikaziodunari.

b) Egoki den kasuetan, arrisku profesionalak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzearen egiaztapena, lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gaindituko duena.

c) Ondare garbiak –edo, urteko kontuak onartuta edukitzeko obligazioak harrapatzen duen azken ekitaldi ekonomikoaren itxierako aktiboen eta pasiboen arteko ratioak– lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du. Aktiboaren eta pasiboaren arteko ratioa kontuan hartu ahalko da baldin eta botere adjudikatzailleak kontratazioaren baldintza-agirietan zehazten baditu datu hori baloratzeko erabiliko diren metodo eta irizpideak. Metodo eta irizpide horiek gardenak eta objektiboak izan beharko dute, eta baztertzailleak ez direnak.

Apartatu honetako aurreko letretan ezarritako bitartekoen gehigarri moduan, kontratazio-organoak eskatu ahalko du enpresaburuak hornitzaileei ordaintzeko duen batez besteko epeak ez dezala gainditu berankotasunari buruzko araudia aintzat hartuta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroaren aginduak helburu horretarako ezarritako muga, baldin eta galeren eta irabazien kontu laburtua ezin aurkez dezakeen elkarte bat bada.

d) Obra- eta zerbitzu-emakidako kontratueterako edo objektuan kontratatistak finantzatu beharreko inbertsio garrantzitsuak biltzen dituzten beste horietarako, kontratazio-organoak ekonomia- eta finantza- kaudimena egiaztatzeke aurrekoen bestelakoak diren bitartekoak ezarri ahalko ditu, baldin eta kontratatistak kontratua zuzen egikaritzeko behar diren funtsak aurkezteko duen gaitasuna bermatzen badute.

2. Enpresaburuak, ekonomia- eta finantza-kaudimen nahikoa duela agiri bidez egiaztatzeke, kasuan-kasuan erregelamenduz zehazten diren ziurtagiriak eta agiriak aurkeztu beharko ditu honako hauen artetik: bankuaren ziurtagiria, lanbide-arriskuengatik aseguruaren poliza edo ziurtagiria, urteko kontuak eta enpresaburuak enpresaren negozio-bolumen orokorrari buruz egindako deklarazioa. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egoteak egiaztatuko ditu, sektore publikoko kontratazio-organo guztien aurrean, berorretan islatuaren arabera eta kontraktorik frogatu ezean, enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimenaren baldintzak.

3. Prozeduran parte hartzeke gonbidapenean edo lizitazio-iragarkian eta kontratuaren baldintza-agirietan zehaztuko da artikulua honetan biltzen direnetatik zein bitarteko onartzen diren kontratua beraiei adjudikatzea nahi duten enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeke; horretarako, haietako bakoitzaren gutxieneko zenbatekoa zehaztu beharko da, eurotan adierazita. Sailkapenaren baldintzaren pekoak ez diren kontratueterako, baldintza-agiriek egiaztatzerako gutxieneko irizpide eta baldintzak zehazten ez dituztenean, kasuan-kasuan kontratuari dagokion sailkapena ez duten lizitatzailerek edo hautagaiak honako irizpide, gutxieneko baldintza eta egiaztatze-bide hauen arabera egiaztatuko dute beren ekonomia- eta finantza-kaudimena:

a) Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeke irizpidea lizitatzailen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena izango da; bolumen horrek, amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan den urteko erreferentzia hartuta, gutxienez ere kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako izan beharko du, eta kontratuaren urteko batez besteko balioaren gutxienez ere bat eta erdi halako, iraupena urtebetetik gorakoa bada.

Lizitatzailen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da: onetsitako eta Merkataritza Erregistroan gordailutatuko urteko kontuen bitartez, baldin eta enpresaburuaren erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailutatuko urteko kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuak, berriz, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuaren eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute beren urteko bolumen-negozioa.

b) Zerbitzu profesionalak emateko kontratueteran, ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeke, urteko negozio-bolumena erabili beharrean, lanbide-arriskuengatik kalte-ordainak emateko aseguru bat edukitzea erabili ahalko da. Aseguru horrek eskaintzak aurkezteke epea amaitu arte egon behar du indarrean, eta haren zenbatekoa ez da izango kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa. Gainera, aseguru hori berritzeko edo luzatzeko konpromisoa aurkeztu beharko da, haren estaldura kontratuaren egikaritzeak iraun bitartean izango dela bermatze aldera. Lizitatzailak edo hautagaiak aseguru egiteke konpromiso lotesle bat jasotzen badu bere eskaintzan, eskatutako aseguru edukitzeke adjudikaziodun suertatuz gero, ulertuko da baldintza hori bete dela; lege honen 150. artikulua 2. apartatuak aipatzen duen hamar egun balioduneko epearen barruan bete beharko du konpromiso hori.

Baldintza hori aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da –ziurtagiri horretan, aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren muga-eguna jasoko dira–, eta aseguru egiteko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bitartez, hala dagokion kasuetan.

4. Eskatutako ekonomia- eta finantza-kaudimena proportzionala izango da kontratuaren objektuarekiko, 74.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta inolaz ere ez da oztopo bat izango enpresa txiki eta ertainek parte har dezaten.

88. artikulua. *Kaudimen teknikoa obra-kontratuetan.*

1. Obra-kontratuetan, enpresaburuaren kaudimen teknikoa ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

a) Azken bost urteetan egindako obren zerrenda, haiek ondo egin izanaren ziurtagiriek batera. Ziurtagiri horietan honako hauek adieraziko dira: obren zenbatekoa, noiz egin diren eta non egin diren. Halaber, lanbideko arauen arabera egin direnez zehaztuko da, eta ea ondo bukatu diren. Hala badagokio, agintaritzak eskudunak emango dio zuzenean ziurtagiri horien berri kontratazio-organoari. Gaitasun-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoa denean, botere adjudikatzailerik adierazi ahalko dute kontuan hartuko direla bost urte lehenago arte egindako obrei buruzko frogak.

Horretarako, obra-kontratatistaren eskumendeko atzerriko sozietate batek egindako obrak kontratatistak berak zuzenean egin balitu bezala hartuko dira, baldin eta kontratatistak badauka, zuzenean edo zeharka, esandako sozietatearen kontrola Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontratista partaide den atzerriko sozietate batek egindako obrak direnean, baina aurreko baldintza hori bete gabe, kontratatistak atzerriko sozietatearen kapital sozialean duen partaidetzaren proportzio berean baino ez da onartuko esandako sozietateak egindako obra kontratatistaren esperientzia modura.

b) Obrak egiteko enpresak dauzkan langile teknikoak edo organismo teknikoak adierazten dituen deklarazioa, enpresan integraturik ez daudenak ere barnean direla, eta, horrekin batera, kasuan kasuko egiaztagiria, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek halakorik eskatzen dutenean.

c) Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritza-taldeko kideen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, eta, batez ere, obrak egiteko arduradunarenak edo arduradunenak, bai eta obrak zuzenean arduratuko diren teknikarienak ere, baldin eta adjudikaziorako irizpide gisa ebaluatzen ez badira.

d) Egoki den kasuetan, enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriei buruzko adierazpena.

e) Azken hiru urteetan enpresak izan duen urteko batez besteko langile kopuruari eta izan dituen zuzendaritza-taldeko kideen kopuruari buruzko deklarazioa, eta, deklarazioarekin batera, dagozkion egiaztagiria, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean.

f) Enpresak obrak egiteko zer makina, material eta ekipamendu tekniko edukiko dituen zehazten duen deklarazioa, eta, deklarazioarekin batera, dagozkion egiaztagiria, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean.

2. 500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan, kontratista enpresa sortu berri bat denean –bost urtetik beherako antzintasuna dutenak hartuta halakotzat–, aurreko b) letratik f) letrara bitartean aipatzen diren bideetako baten edo batzuen bitartez egiaztatuko da kaudimen teknikoa; inolaz ere ez da aplikatzekoa izango obren kopuru jakin bat egin izanari buruz a) letran ezarritakoa.

3. Prozeduran parte hartzeko gonbidapenean edo lizitazio-iragarkian eta kontratuaren baldintza-agirietan zehaztuko da artikulua honetan biltzen direnetatik zein bitarteko onartzen diren kontratua beraiei adjudikatzea nahi duten enpresaburuaren kaudimen teknikoa egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, haietako bakoitzarentzat eskatuko diren gutxienezko balioak berriaz adierazi beharko dira. Halakorik ezean, sailkapena eskatzekoa ez den



kasuetan, kaudimen teknikoak honela egiaztatuko da: azken bost urteetan egindako obren zerrendaren bitartez, kontratuari dagokion sailkapen-talde edo -azpitalde bereko obrak sartuta zerrendan edo kontraturako garrantzitsuena den taldekoak edo azpitaldekoak sartuta, baldin eta kontratuak azpitalde baten baino gehiagoren lanak jasotzen baditu; betiere, haien urteko zenbateko metatua, exekuzio handieneko urtean, kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren ehuneko 70ekoa edo goragokoa izango da.

89. artikulua. *Kaudimen teknikoak hornidura-kontratuetan.*

1. Hornidura-kontratuetan, enpresaburuaren kaudimen teknikoak ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

a) Gehienez ere azken hiru urteetan egindako hornidura-lan nagusien zerrenda, kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko hornidura-lanena. Zerrenda horretan, zenbatekoa, data eta haien hartzaile publikoa zein pribatua aipatuko dira. Gaitasun-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoa denean, botere adjudikatzaileek adierazi ahalko dute kontuan hartuko direla hiru urte lehenago arte egindako hornidura-lanei buruzko frogak. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dutenean, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira egindako hornidura-lanak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark egindako ziurtagiriaren bidez eta, halakorik ezean, enpresaburuaren deklarazio baten bidez eta, horrekin batera, bere esku dituen eta prestazioa eman izana egiaztatzen duten agirien bidez; behar izanez gero, agintaritza eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio-organoari.

Hornidurak hornidura-kontratuaren objektua den horniduraren izaera berekoak edo antzeko izaerakoak direla zehazteko, administrazio-klausula partikularren agiriak, CPV kodeak ez ezik, jardueren eta produktuen beste sailkapen-sistema batzuk ere erabili ahalko ditu; esate baterako, Produktu eta zerbitzuen Nazio Batuen kode normalizatua (UNSPSC), Produktuen Sailkapen Zentrala (CPC) edo Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (CNAE). Betiere, kontratua adjudikatzeko benetako gaitasuna bermatuko dute horiek. Baldintza-agirian aurreikusi ez bada, CPV kodeetako kasuan kasuko lehenengo hiru digituei erreparatuko zaie. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak gomendioak egin ahalko ditu adierazteko kasuan kasuko sailkapenetatik zein kode egokitzen zaizkien zehaztasun handienarekin kontratazio publikoan ohikoenak diren prestazioei.

b) Kontratua egikaritzeko enpresak dituen teknikariei edo unitate teknikoiei buruzko azalpena, enpresa barrukoak izan edo ez; bereziki, kalitate-kontrolako arduradunei buruzkoa.

c) Enpresako instalazio teknikoaren, kalitatea bermatzeko erabilitako neurrien, eta azterketa- eta ikerketa-bitartekoen deskribapena.

d) Sektore publikoko erakunde kontratatzaileak egindako kontrola, edo enpresaburuaren kokatuta dagoen Estatuko organismo ofizial gaitu batek haren izenean eginikoa, betiere organismo horren adostasuna tarteko dela, hornigaiak konplexuak direnean edo, salbuespenez, egiteko berezi bati erantzun behar diotenean. Kontrol horretan, enpresaburuaren ekoizpen-ahalmena ez ezik, beharrezkoa bada, hark dituen azterketa- eta ikerketa-bitartekoak ere ikuskatuko dira, baita kalitatea kontrolatzeko erabiltzen dituen neurriak ere.

e) Hornigaien laginak, deskribapenak eta argazkiak, benetakoak direla ziurtatu beharko direnak, erakunde kontratatzaileak hala eskatuz gero.

f) Kalitate-kontrolaz arduratzen diren eta gaitasuna aitortua duten erakunde edo zerbitzu ofizialek jaulkitako ziurtagiriak, non, arau tekniko edo espezifikazio jakin batzuk aipatuz eta xehetasun guztiekin, produktuen kalitatea egiaztatuko den.

g) Enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ditzakeen hornidura-kateko kudeaketa-sistemen eta jarraipen-sistemen aipamena, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzen direla bermatzen duten kudeaketa-sistemak barnean direla.

h) Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetan, kontratista enpresa sortu berri bat denean –bost urtetik beherako antzintasuna duena hartuta halakotzat–, aurreko b) letratik g) letrara bitartean aipatzen diren bideetako baten edo batzuen bitartez egiaztatuko da kaudimen teknikoa; inolaz ere ez da aplikatzekoa izango horniduren kopuru jakin bat egin izanari buruz a) letran ezarritakoa.

2. Kokatze- edo instalazio-obrak egitea, zerbitzuak ematea edo obrak egitea eskatzen duten hornidura-kontratuetan, operadore ekonomikoen ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, eskarmentua eta fidagarritasuna bereziki aintzat hartuta ebaluatu ahalko da zerbitzu horiek emateko edo esandako instalazioak edo obrak egiteko operadore ekonomikoek duten ahalmena.

3. Prozeduran parte hartzeko gonbidapenean edo lizitazio-iragarkian eta kontratuaren baldintza-agirietan zehaztuko da artikulua honetan biltzen direnetatik zein bitarteko onartzen diren kontratua beraiei adjudikatzea nahi duten enpresaburuen kaudimen teknikoa egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, berariaz adieraziko dira haietako bakoitzarentzat eskatuko diren gutxieneko balioak eta, hala badagokio, produktuen kalitatea egiaztatzeko eskatuko diren arauak edo zehaztapen teknikoak. Halakorik ezean, azken hiru urteetan egindako eta kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko hornidura-lan nagusien zerrendaren bitartez egiaztatuko da kaudimen teknikoa. Horretarako, urteko zenbateko metatua exekuzio handieneko urtean kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren ehuneko 70ekoa edo gorakoa duten hornidurak bakarrik hartuko dira kontuan.

90. artikulua. *Kaudimen tekniko edota profesionala zerbitzu-kontratuetan.*

1. Zerbitzu-kontratuetan, enpresaburuen kaudimen teknikoa edo profesionala balioesteko, haien ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, eskarmentua eta fidagarritasuna hartuko dira aintzat, eta, kontratuaren objektuaren arabera, ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko dira horiek guztiak, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

a) Gehienez ere azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu eta lanena. Zerrenda horretan, zenbatekoa, data eta haien hartzaile publikoa zein pribatua aipatuko dira. Gaitasun-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoa denean, botere adjudikatzaileek adierazi ahalko dute kontuan hartuko direla hiru urte lehenago arte egindako zerbitzuei buruzko frogak. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dutenean, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzu edo lanak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark egindako ziurtagiriaren bidez eta, halakorik ezean, enpresaburuaren deklarazio baten bidez eta, horrekin batera, bere esku dituen eta prestazioa eman izana egiaztatzen duten agirien bidez; behar izanez gero, agintaritza eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio-organoari.

Lan edo zerbitzuak kontratuaren objektua diren lan edo zerbitzuen izaera berekoak edo antzeko izaerakoak direla zehazteko, administrazio-klausula partikularren agiriak, CPV kodeak ez ezik, jardueren eta produktuen beste sailkapen-sistema batzuk ere erabili ahalko ditu; esate baterako, Produktu eta zerbitzuen Nazio Batuen kode normalizatua (UNSPSC), Produktuen Sailkapen Zentrala (CPC) edo Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (CNAE). Betiere, kontratua adjudikatzeko benetako gaitasuna bermatuko dute horiek. Baldintza-agirian aurreikusi ez bada, CPV kodeetako kasuan kasuko lehenengo hiru digituei erreparatuko zaie. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak gomendioak egin ahalko ditu adierazteko kasuan kasuko sailkapenetatik zein kode egokitzen zaizkien zehaztasun handienarekin kontratazio publikoan ohikoenak diren prestazioei.

b) Kontratuan parte hartzen duten teknikariei edo unitate teknikoei buruzko azalpena, enpresa barrukoak izan edo ez; bereziki, kalitate-kontrolako arduradunei buruzkoa.

c) Enpresako instalazio teknikoen, enpresaburuak kalitatea bermatzeko erabilitako neurrien, eta azterketa- eta ikerketa-bitartekoen deskribapena.

d) Zerbitzu edo lan konplexuak direnean edo, salbuespenez, egiteko berezi bati erantzun behar diotenean kontratazio-organoak egindako kontrola, edo enpresaburuak kokatuta dagoen Estatuko organismo ofizial edo homologatu gaitu batek haren izenean egina, betiere organismo horren adostasuna tarteko dela. Kontrol horretan, enpresaburuaren gaitasun teknikoa ez ezik, beharrezkoa bada, hark dituen azterketa- eta ikerketa-bitartekoak ere ikuskatuko dira, baita kalitatea kontrolatzeko neurriak ere.

e) Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritza-taldeko kideen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, eta, batez ere, kontratua egikaritzeko arduradunarenak edo arduradunenak, bai eta obraz zuzenean arduratuko diren teknikarienak ere, baldin eta adjudikaziorako irizpide gisa ebaluatzen ez badira.

f) Egoki den kasuetan, enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriei buruzko adierazpena.

g) Azken hiru urteetan enpresak izan duen urteko batez besteko langile kopuruari eta izan dituen zuzendaritza-taldeko kideen kopuruari buruzko deklarazioa, eta, deklarazioarekin batera, dagozkion egiaztagiria, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean.

h) Enpresak lanak egiteko edo prestazioak emateko zer makina, material eta ekipamendu tekniko edukiko dituen zehazten duen deklarazioa, eta, deklarazioarekin batera, dagozkion egiaztagiria, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean.

i) Enpresaburuak behin-behinean zer kontratu zati azpikontratatzeko asmoa duen azaltzen duen adierazpena.

2. Prozeduran parte hartzeko gonbidapenean edo lizitazio-iragarkian eta kontratuaren baldintza-agirietan zehaztuko da artikulua honetan biltzen direnetatik zein bitarteko onartzen diren kontratua beraiei adjudikatzea nahi duten enpresaburuaren kaudimen teknikoa egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, berariaz adieraziko dira haietako bakoitzarentzat eskatuko diren gutxieneko balioak. Eta hauek buruzko zehaztapenak egingo dira, aplikatzekoak direnean: titulazio akademikoak edo profesionalak, azterketa- eta ikerketa-bitartekoak, kalitate-kontrolak, gaitasun teknikoaren ziurtagiriak, makineria, tresneria eta instalazioak, eta eskatzen diren ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak. Halakorik ezean, azken hiru urteetan egindako eta kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrendaren bitartez egiaztatuko da kaudimen tekniko edo profesionala. Horretarako, urteko zenbateko metatua exekuzio handieneko urtean kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren ehuneko 70ekoa edo gorakoa duten zerbitzuak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. Arlo sozialean, hurbiltasun-zerbitzuak emateko arloan edo antzeko beste batzuetan gaitasun berariazkoak eduki behar badira kontratuaren objektua betetzeko, arlo horietan esperientzia zehatza, ezagutzak eta bitartekoak edukitzea eskatuko da kaudimen tekniko edo profesionala baldintza gisa, eta hori artikulua honen 1. apartatuan ezarritako bitartekoekin egiaztatu beharko da.

4. Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetan, kontratista enpresa sortu berri bat denean –bost urtetik beherako antzinatasuna duena hartuta halakotzat–, aurreko b) letratik i) letrara bitartean aipatzen diren bideetako baten edo batzuen bitartez egiaztatuko da kaudimen teknikoa; inolaz ere ez da aplikatzekoa izango zerbitzuen kopuru jakin bat egin izanari buruz a) letran ezarritakoa.

91. artikulua. *Kaudimen tekniko edo profesionala gainerako kontratuetan.*

Obra-, zerbitzu- edo hornidura-kontratuak ez diren gainerakoetan, kaudimen tekniko edo profesionala aurreko artikuluan aipatzen diren agiri eta bitartekoen bidez egiaztatu ahalko da.

92. artikulua. *Kaudimeneko baldintza eta irizpideen zehaztapena.*

Kontratazio-organoak zehaztuko ditu kontratueterako eskatzen diren ekonomia- eta finantza-kaudimeneko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko gutxieneko baldintzak, baita haiek egiaztatzeko onartzen diren bitartekoak ere, eta prozeduran parte hartzeko gonbidapenean edo lizitazio-iragarkian adieraziko dira, eta kontratuaren baldintza-agirietan xehatuko, hor zehaztuko baitira eskaintzaile edo hautagaiak onartzea edo baztertzea ekarriko duten magnitudeak, parametroak edo ratioak eta gutxieneko mailak edo balio-tarteak. Horiek ezean, 87. artikulutik 90. artikulura dagokion kontratu motarako ezarritakoak aplikatuko dira, zeinak, era berean, baldintza-agirietan zehaztu ez direnen ordeko izango baitira.

Nolanahi ere, enpresaburua talde edo azpitalde jakin batean sailkatuta egotea haren kaudimenearen froga nahikotzat hartuko da, baldin eta kontratuaren objektua esandako talde edo azpitaldearen jarduera- edo lan-eremuan sartzen bada eta haren urteko batez besteko zenbatekoa haren taldeko edo azpitaldeko sailkapen-kategoriari dagokionaren bestekoa edo txikiagoa bada. Horretarako, kontratuaren objektuari dagozkion Kontratu Publikoen Izendegi Bateratuko (CPV) kodea edo kodeak zehaztu beharko dira prozeduran parte hartzeko gonbidapenean edo lizitazio-iragarkian eta kontratuaren baldintza-agirietan, eta haiek esango dute kontratua sailkapeneko zein taldetan edo azpitaldetan dagoen, halakorik baldin badago.

Erregelamendu bidez, salbuetsi ahalko da ekonomia- eta finantza-kaudimena edo kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea beharra, kopuru jakin bateko zenbatekoa gainditzen ez duten kontratuen kasuan.

93. artikulua. *Kalitatea bermatzeko arauak betetzen direla egiaztatzea.*

1. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan kontratazio-organoek esaten badute organismo independenteek emandako ziurtagiriak aurkeztu behar dituela enpresaburuak kalitate-bermerako arau jakin batzuk –zehazki, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunari buruzkoak– betetzen dituela egiaztatze aldera, kalitatea bermatzeko arauetan oinarritutako sistemak aipatu beharko dira kontratuetan, hau da, kalitatea ziurtatzeari buruzko Europako arauak betetzen dituzten organismoek ziurtatutako sistemak.

2. Kontratazio-organoek onartu egingo dituzte Europar Batasuneko edozein estatutako organismoek emandako ziurtagiri baliokideak, eta kalitatea bermatzeko beste neurri baliokide batzuk ezarri dituztela frogatzeko enpresaburuek aurkeztutako frogak ere onartuko dituzte.

94. artikulua. *Ingurumena kudeatzeko arauak betetzen direla egiaztatzea.*

1. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, kontratazio-organoek eskatzen dutenean organismo independenteek emandako ziurtagiriak aurkez daitezela kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko bitarteko gisa, haien bidez egiaztatzeko lizitatzailak bete egiten dituela ingurumena kudeatzeko zenbait arau, hauetako bat aipatuko da: Batasunaren Ingurumen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sistema (EMAS), edo ingurumena kudeatzeko beste sistema batzuk, 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 (EE) Erregelamenduaren 45. artikuluari jarraituz onetsitakoak, edo ingurumena kudeatzeko bestelako arauak, onetsitako organismoek alor horretan emandako Europako zein nazioarteko arauetan oinarritutakoak.

2. Kontratazio-organoek onartu emango dituzte Europar Batasuneko edozein estatutan ezarritako organismoek egindako ziurtagiri baliokideak, eta halaber onartuko dituzte lizitatzailak aurkezten dituen ingurumena kudeatzeko neurri baliokideen bestelako frogak, eta, bereziki, ingurumena kudeatzeko hartutako neurrien deskribapen bat, baldin eta lizitatzailak demostratzen badu neurri horiek eta aplikatzekoa den ingurumena kudeatzeko sistemaren edo arauaren arabera eskatzekoak baliokideak direla.

95. artikulua. *Agiri eta informazio osagarriak.*

Kontratazio-organoak edo horri laguntzen dion organoak argibideak eskatu ahalko dizkio enpresaburuari aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera aurkeztutako ziurtagirien eta agirien inguruan, edo agiri osagarriak aurkezteko eskatu ahalko dio.

4. azpiatala. Saikapenaren eta kontratatze gaitasunaren froga, kontratisten erregistro edo zerrenda ofizialen bidezkoa

96. artikulua. *Lizitazailen erregistroen ziurtagiriak.*

1. Sektore Publikoko Lizitazailen eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialean izena emateak, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago, enpresaren gaitasun-baldintzak egiaztatuko ditu sektore publikoko kontratazio-organo guztien aurrean, honako hauei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, enpresa- edo lanbide-gaikuntza, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala, saikapena eta inskribatutako gainerako inguruabarrak, eta, orobat, kontratatze eta erregistroan jaso beharreko debekuren batek eragiten ote dion.

2. Autonomia-erkidego bateko Lizitazailen Erregistroan izena emateak alderdi horiek berak egiaztatuko ditu autonomia-erkidego horrekin kontratuak egiteko orduan, eta autonomia-erkidegoaren lurraldeko toki-entitateekin eta autonomia-erkidegoaren edo toki-entitateen mendeko sektore publikoko gainerako ente, organismo edo erakundeekin kontratuak egiteko orduan.

3. Lizitazailen erregistroen edukiaren froga erregistroaren ardura duen organoaren ziurtagiria izango da; ziurtagiri hori bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez eman ahalko da. Ziurtagirietan, zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria emateko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, bai eta, hala badagokio, lortutako saikapena ere.

97. artikulua. *Europar Batasuneko ziurtagiriak, kontratatze baimenduta dauden enpresaburuenak.*

1. Kontratatze baimendutako enpresaburuekin Europar Batasuneko estatuek egindako zerrenda ofizialak kudeatzeko organo eskudunek emandako inskripzio-ziurtagiriek, ziurtagiria ematen duen estatu kidean ezarritako enpresaburuei buruzkoek, gaitasun-presuntzio bat ekarriko dute haietan agertzen den hautaketa kualitatiboaren baldintzei dagokienez.

2. Presuntzio-balio berbera izango dute, haietan ziurtatutako gaiei dagokienez, enpresaburua ezarrita dagoen estatu kideko legeriarekin bat datozen ziurtatze-organismo eskudunek emandako ziurtagiriek, Europako ziurtapen-arauak betetzen dituztenean.

3. Aurreko apartatuan aipatutako agirietan, enpresaburua zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria emateko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, baita lortutako saikapena ere.

### III. KAPITULUA

#### Kontratatzen ondorengotza

98. artikulua. *Kontratatzen ondorengotza-kasuak.*

1. Sozietate kontratatzen enpresen bat-egite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bat-egitearen ondorioz sortu den erakundearekin edo erakunde beregatzailarekin; izan ere, erakunde hori kontratatzen sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da. Era berean, enpresen (edo haien jarduera-adarren) zatiketa, ekarpena edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratu eskuratuko duen erakundearekin; erakunde horrek kontratatzen eratorritako eskubide eta betebeharrak guztiak hartuko ditu subrogazio bidez, baldin eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu, kontratatzea debekatua ez badu eta kontratuak adjudikatu zenean beharrezko ziren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu edota aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek eta zatitutako ondare, enpresa edo adarren iturburua den sozietateak –artearen irauten badu– haren erantzukizun solidarioa hartzen badute kontratuak egikaritzeari dagokionez. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratuak eskuratuko duen erakundeak beharrezkoak diren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen ez dituelako,

kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela iritziko zaio ondorio guztietarako.

Aurreko ondoreetarako, enpresak kontratazio-organoari komunikatu beharko dio gertatutako inguruabarra.

Lehenengo paragrafoak aipatzen dituen merkataritza-eragiketen ondorioz kontratua beste erakunde bati esleitzen zaionean, behin betiko bermea, hura ematen duen erakundearen irizpidearen arabera, berriro ahalko da edo erakunde berriak izenpetzen duen beste berme batekin ordeztu ahalko da, kontuan hartuta azken erakunde horrek daukan arrisku-ezaugarri bereziak. Kasu horretan, aurreko behin betiko bermeak bere indarraldiari eutsiko dio berme berria eratu arte.

2. Hasierako kontratista aldi baterako enpresa-elkarte bat denean, 69. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da.

### III. TITULUA

#### **Objektua, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa, eta kontratuaren berrikuspena**

### I. KAPITULUA

#### **Arau orokorrak**

99. artikulua. *Kontratuaren objektua.*

1. Sektore publikoko kontratuen objektuak zehatza izan behar du. Objektu hori bete nahi diren beharrian edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasangarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

2. Kontratua ezin da zatitu haren zenbatekoa gutxitzeko eta, horrela, dagozkion publikotasun-betekizunak edo adjudikazio-prozedurako betekizunak saihesteko asmoarekin.

3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta. Sortak erreserbatu ahalko dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–, salbu eta obra-emakidako kontratuetan.

Nolanahi ere, honako hauek joko dira baleko arrazoitzat kontratuaren objektua sortaka ez zatitzea justifikatzeko:

a) Kontratuaren objektua sortaka zatitzeak lehia justifikaziorik gabe murrizteko arriskua ekartzea. Irizpide hori aplikatzeko, kontratazio-organoak alde aurretiko txostena eskatu beharko dio lehiaren defentsarako kasuan kasuko agintaritzari, inguruabar hori gertatzeari buruzko iritzia eman dezan.

b) Kontratuaren objektuan jasotako prestazioak modu independentean emateak zailtasunak ekartzea kontratua ikuspuntu teknikitik zuzen egikaritu dadin; edo kontratua zuzen ez egikaritzeko arriskua etortzea haren objektuaren izaeratik, zeren eta berekin baitakar prestazioak emateko koordinatu beharra eta hori ezinezko gerta baitaiteke sortaka zatitzearen eta hainbat kontratistaren artean gauzatzearen ondorioz. Bi egoera horiek, kasuan-kasuan, behar bezala justifikatu beharko dira espedientean.

4. Kontratazio-organoak, kontratuaren objektua sortaka zatitzen duenean, honako muga hauek ezarri ahalko ditu, betiere espedientean egoki justifikatuta:

a) Hautagai edo lizitaztaile berak eskaintza aurkeztu ahal duen sorta kopurua mugatu ahalko du.

b) Halaber, lizitaztaile bakoitzari adjudikatu ahal zaion sorta kopurua mugatu ahalko du.



Kontratazio-organoak, egokitzat jotzen duenean aurreko a) eta b) letretan aipatzen diren bi muga horietakoren bat jartzea, horrela adierazi beharko du berariaz lizitazio-iragarkian eta administrazio-klausula partikularren agirian.

Aurreko b) letretan aipatzen den muga jartzen denean, gainera, administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da zer irizpide eta arau aplikatuko diren lizitatuak bat iragarkian eta baldintza-agirian aipatutako gehienekotik gora dagoen sorta kopuruaren adjudikaziodun suertatuz gero adjudikazio-irizpideak aplikatzearen ondorioz. Irizpide eta arau horiek, nolana ere, objektiboak izango dira eta baztertzailak ez direnak.

Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako mugen ondoretarako, enpresaburuaren elkarrekin elkarrekin berak hartuko dira hautagaitzat edo lizitatuak, eta ez haiek osatzen dituztenak, non eta administrazio-klausula partikularren agirian ez den besterik xedatzen.

Sortetako bat edo batzuk erreserbatu ahalko dira enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako, edo, bestela, kontratu horiek egikaritzeko erreserbako gutxienezko ehuneko bat ezarri ahalko da enplegu babestuko programetarako, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz. Halaber, sortak erreserbatu ahalko dira berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren erakundeentzat, aipatutako xedapenean ezarritako baldintzetan.

5. Kontratazio-organoak erabakitzen duenean kontratuaren objektua sortaka zatitzea eta, gainera, aukera ematea lizitatuak berari sorta bat baino gehiago adjudikatu ahal izateko, organo horrek eskaintza integratuak bati adjudikatu ahalko dio kontratua, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Aukera hori kontratua arautzen duen baldintza-agirian ezarrita egotea eta lizitazio-iragarkian jasota egotea. Aurreikuspen horrek zehaztu beharko du zer konbinazio onartuko den edo onartuko diren, kasua bada, bai eta horietako bakoitzari eskatzen zaizkion kaudimena eta gaitasuna ere.

b) Adjudikazio-irizpide bat baino gehiago dauden kasuak izatea.

c) Aldez aurretik ebaluazio konparatibo bat egitea, zehazte aldera ea lizitatuak zehatz batek sorten konbinazio zehatz baterako aurkeztutako eskaintzek oro har hobeki beteko lituzketen sorta horiek direla-eta baldintza-agirian ezarritako adjudikazio-irizpideak, kasuan kasuko sorta berezietarako aurkeztutako eskaintzek baino azken horiek banan-banan hartuta.

d) Enpresaburuak behar den kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoaren egiaztatzea, edo, kasua bada, lizitatzen duten sorten multzoari dagokion sailkapena.

6. Sortaka zatitzeari ekiten zaionean, sorta edo prestazio berezi bakoitzaren adjudikazioan aplikatu beharreko prozedurazko edo publikitateko arauak osotasunaren balio metatuaren arabera zehaztuko dira, azken hori 101. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu, salbu eta 20.2, 21.2 eta 22.2 artikuluetan aipatzen diren salbuespenetatik bat gertatzen bada.

7. Sortaka adjudikatutako kontratuetan, kontratua arautzen duen baldintza-agirian beste aurreikuspenik ezarri ezean, sorta bakoitzarentzat kontratu bat izango da, salbu eta eskaintza integratuak aurkezten direnean, zeinetan eskaintza guztiek kontratu bat eratuko baitute.

100. artikulua. *Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua.*

1. Lege honen ondorioetarako, hau hartzen da lizitazioaren oinarritzko aurrekontutzat: kontratuaren indarrez kontratazio-organoak konprometitu dezakeen gehieneko gastu-muga, horren barnean dela balio erantsiaren gaineko zerga, kontrakoa ezartzen ez bada.

2. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua egiteko orduan, kontratazio-organoek zainduko dute aurrekontu hori merkatuko prezioetara egokitu dadila. Horretarako, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua xehakatu egingo da, hura kalkulatzeko zuzeneko eta zeharkako kostuak eta izan daitezkeen beste gastu batzuk adieraziz administrazio-klausula partikularren agirian edo lizitazioa arautzen duen agirian. Kontratua egikaritzeko

enplegatutako pertsonen ordainsarien kostua kontratuaren guztizko prezioan sartuta dagoen kontratuetan, lizitazioaren oinarriko aurrekontua xehakaturik emango da, erreferentziako lan-hitzarmenaren arabera zenbatetsitako ordainsari-kosten generoaren eta lanbide-kategoriaren arabera.

3. Esparru-akordio bat edo eskuratze-sistema dinamikoa izapidetu baino lehen, ez da beharrezkoa izango lizitazioaren oinarriko aurrekontu bat onestea.

101. artikulua. *Balio zenbatetsia.*

1. Lege honetan aurreikusitako ondore guztietarako, kontratuen balio zenbatetsia honela zehaztuko da:

a) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuen kasuan, kontratazio-organoak bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

b) Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen kasuan, kontratazio-organoak hau hartuko du aintzat: bere zenbatespenen arabera enpresa emakidadunak kontratua egikaritzeko denbora osoan zehar kontratuaren objektua diren obren eta zerbitzuen kontraprestazio gisa sortuko duen negozio-zifraren eta obra eta zerbitzu horiekin lotutako horniduren zenbateko garbia, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

2. Balio zenbatetsiaren kalkuluan, kontuan hartu beharko dira, gutxienez ere, indarrean diren lan-araudien aplikaziotik heldutako kostuak ez ezik, zerbitzuen gauzatzeko materialetik heldutako beste kostu batzuk ere, egituraren gastu orokorrak eta mozkin industriala. Halaber, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Kontratuaren behin-behineko edozein aukera-modu eta kontratuaren luzapenak.
- b) Hautagaiei edo lizitatzaileri primak ordaintzea edo ordainketak egitea aurreikusi denean, horien zenbatekoa.
- c) Baldin eta, 204. artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazio-klausula partikularren agirian edo lizitazio-iragarkian kontratua aldatzeko aukera aurreikusi bada, aurreikusitako goranzko aldaketa guztiak kontuan hartuta kontratuak gehienez ere izan dezakeen zenbatekoa joko da kontratuaren balio zenbatetsizat.

Eskulana garrantzitsua den zerbitzu-kontratuetan eta zerbitzu-emakidako kontratuetan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektibo sektorialetatik heldutako lan-kostuak hartuko dira bereziki kontuan aurreko paragrafoan aipatzen den lan-araudi indarduna aplikatzean.

3. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaz gainera, obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen balio zenbatetsiaren kalkuluan honako kontzeptu hauek hartuko dira kontuan, hala dagokionean:

- a) Obren edo zerbitzuen erabiltzaileek tasak eta isunak –botere adjudikatzailerearen izenean bildutakoez bestekoak direnak– ordaintzetik heldutako errenta.
- b) Botere adjudikatzailereak edo beste edozein agintari publikok emakidadunari egindako edozein eratako ordainketak eta emandako edozein eratako abantaila finantzarioak, horien barnean direla zerbitzu publikoaren betebeharrak bat betetzeagatik konpentsazioa eta inbertsio publikoetarako diru-laguntzak ere.
- c) Emakidaren exekuzioaren truke hirugarrenengandik etorritako edozein eratako subsidio edo abantaila finantzarioen balioa.
- d) Emakidaren barruko edozein aktibo saltzearen prezioa.
- e) Botere adjudikatzailereak emakidadunaren eskura jartzen dituen hornidura eta zerbitzu guztien balioa, obrak egiteko eta zerbitzuak emateko beharrezkoak diren bitartean.

4. Balio zenbatetsia kalkulatzeko metodo bat edo beste hautatzerakoan, asmoa ezin da izan dagozkion adjudikazio-arauei ihes egitea.

5. Kontratazio-organoak balio zenbatetsia kalkulatzeko aplikatutako kalkulu-metodoak, nolahi ere, administrazio-klausula partikularren agirietan egon beharko du.

6. Kontratazio-organo bat unitate funtzional berezietan osatuta dagoenean, banakako unitate funtzional guztietarako zenbatetsitako guztizko balioa hartuko da kontuan.

Hala eta guztiz ere, unitate funtzional berezi bat modu autonomoan erantzulea denean bere kontratazioarekiko edo haren kategoria jakin batzuekiko, balioak kasuan kasuko unitatearen mailaren arabera zenbatetsi ahalko dira.

Nolanahi ere, unitate funtzional berezi horrek berariazko finantzaketa eta kontratuaren adjudikaziorako eskumenak dauzkanean ulertuko da aurreko paragrafoan aipatutako inguruabar hori gertatzen dela.

7. Zenbatespena merkatuko ohiko prezioak kontuan hartuta egin beharko da; prezio horiek lizitazio-iragarkia bidali zen unekoak izan behar dute, eta, horrelako iragarkirik behar ez denean, kontratazio-organoak kontratua adjudikatzeko prozedura hasitako unekoak.

8. Obra-kontratuetan, balio zenbatetsia kalkulatzeko, obren zenbatekoa hartu behar da kontuan, baita kontratuak egikartzeko kontratazio-organoak kontratistaren eskura jarritako horniduren balio zenbatetsi osoa ere.

9. Objektuzat finantza-errentamendua, errentamendua edo produktuak epeka saltzea daukaten hornidura-kontratuetan, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, balio hau hartuko da oinarritzat:

a) Iraupen jakineko kontratuetan, iraupena hamabi hilabetekoa edo gutxiagokoa dutenean, kontratuaren iraupenerako zenbatetsitako balio osoa; iraupena hamabi hilabetetik gorakoa dutenean, balio osoa, hondar-balio zenbatetsia barne.

b) Iraupena denbora-tarte jakin bati lotuta ez daukaten kontratuetan, hilabeteko balioa bider 48.

10. Aldizkakoak diren hornidura- edo zerbitzu-kontratuetan, edo denbora-tarte jakin batean berri behar diren kontratuetan, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, honako zenbateko hauetakoren bat hartuko da oinarritzat:

a) Aurreko ekitaldian edo aurreko hamabi hilabeteetan hurrenez hurren adjudikatutako antzeko kontratuen benetako balio osoa, hasierako kontratuaren osteko hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kantitate- edo balio-aldaketen arabera egokituta, ahal denean.

b) Lehenengo entrega egin eta hurrengo hamabi hilabeteetan edo ekitaldian zehar –hamabi hilabetekoa baino luzeagoa bada– hurrenez hurren adjudikatutako kontratuen balio zenbatetsi osoa.

11. Zerbitzu-kontratuetan, balio zenbatetsia kalkulatzeko, honako zenbateko hauek hartuko dira oinarritzat, kasuan-kasuan:

a) Aseguru-zerbitzuetan, ordaindu beharreko prima eta bestelako ordainketa-era batzuk.

b) Banku-zerbitzuetan eta beste finantza-zerbitzu batzuetan, ordainsariak, komisioak, interesak eta bestelako ordainketa-era batzuk.

c) Proiektu bati lotutako kontratuetan, ordainsariak, ordaindu beharreko komisioak eta bestelako ordainketa-era batzuk; baita, hala badagokio, lehiaketan parte hartzen dutenentzat finkatutako primak edo kontraprestazioak ere.

d) Prezio osoa zehazten ez den zerbitzu-kontratuetan, berrogeita zortzi hilabeteko edo gutxiagoko iraupena badute, iraupen osoari dagokion balio zenbatetsi osoa. Iraupena berrogeita zortzi hilabetetik gorakoa bada, edo denbora-tarte jakin bati lotuta ez bada, hilabeteko balioa bider 48.

12. Obra bat gauzatzeko, zerbitzu batzuk kontratatzeak edo erabilera berdinetarako nahiz antzekoetarako hornidura batzuk lortzeak kontratuak sorta berezietan eta aldi berean adjudikatzea ekar dezakeenean, sorta guztien balio zenbatetsi osoa hartu beharko da kontuan.

Halaber, proposatutako obra batek edo zerbitzu batek obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuen aldibereko adjudikazioa sortaka ematea ekar dezakeenean, sorta guztien balio orokor zenbatetsia hartu beharko da kontuan.

13. Esparru-akordioetarako eta eskuratzeko sistema dinamikoetarako, horiek iraun bitartean aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

14. Berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, gehieneko balio zenbatetsia hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta, elkartzearen iraupen osoan zehar egin asmo diren ikerketa- eta garapen-jardueretan eta aurreikusitako elkartzearen amaieran gauzatu edo eskuratu asmo diren hornidura, zerbitzu edo obretan.

102. artikulua. *Prezioa.*

1. Sektore publikoko kontratuek beti prezio zehatza edukiko dute, eta prezio hori kontratistari ordainduko zaio, egiazki eman duen prestazioaren arabera eta hitzartutakoari jarraituz. Ulertuko da prezioan jasota dagoela balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan ordaindu beharreko kopurua; kopuru hori, nolahi ere, partida independente gisa adieraziko da.

2. Oro har, prezioa eurotan adierazi beharko da, nahiz eta ordainketa beste kontraprestazio batzuk emanda ere egin daitekeen, lege honek edo beste batzuek horrela aurreikusten dutenean.

Aurrekoa gora-behera, kontratuetan, prezio osoa edo zati bat euroaz beste dibisa batean ordaindu ahal izatea aurreikusi ahalko da. Kasu horretan, dagokion dibisan adieraziko da ordaindu behar den zenbatekoa, eta kontratuaren zenbateko osoaren zenbatespen bat gehituko da eurotan.

3. Kontratazio-organoei, kontratua benetan bete dadin, prezioa egokia izatea zainduko dute, zenbatekoaren balioespen egokia eginez. Horretarako, lizitazioaren oinarriko aurrekontua finkatzerakoan, merkatu-prezio orokorra hartuko dute kontuan, eta, hala badagokio, eskaintza ezohiko edo itxuragabeei buruzko arauak aplikatuko dituzte.

Kostu ekonomiko nagusia laneko kostuak diren zerbitzuetan, zerbitzuak ematen diren tokian aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo, sektorial, nazional, autonomiko eta probintzialen baldintza ekonomikoak hartu beharko dira aintzat.

4. Kontratuaren prezioa adierazteko, unitateko prezioak erabili ahalko dira, prestazioaren osagaiei edo entregatzen edo gauzatzen diren prestazioaren unitateei dagozkienak, edo, bestela, kontratuaren prestazio guztiei edo batzuei aplikatu beharreko honenbesteko finko bateko prezioak.

5. Sektore publikoko kontratuetan finkatutako prezioak titulu honetako II. kapituluan aurreikusitakoaren arabera berrikusi ahalko dira, prezioak gorantz edo beherantz doitu behar direnean kontratua egikaritu bitartean izan daitezkeen aldaketa ekonomikoak kontuan hartzeko.

6. Kontratuetan, haien izaerak eta objektuak aukera ematen dutenean, prezioak aldatzeko klausulak jaso ahalko dira, prezioak epe- edo errendimendu-helburu batzuen arabera aldatzeko. Zehatz-mehatz adierazi beharko da zer kasutan gertatuko diren prezio-aldaketa horiek, eta orobat haiek zehazteko arauak, edonola ere prezioa zehazteko modukoa izan dadin.

7. Salbuespen modura, behin-behineko prezioekin egin ahalko dira kontratuak, baldin eta argi geratzen bada, prozedura negoziatua, lehia-elkarrizketa edo berrikuntzarako elkartzeko prozedura izapidetu ondoren, prezioa zehaztu baino lehenago hasi behar dela egikaritzen kontratua, prestazioak konplexuak direlako edo teknika berri bat erabili behar delako prezioa zehazteko; orobat argi geratzen bada ez dagoela informaziorik antzeko prestazioen kostuei buruz, edo prezio zehatz bat zehaztasunez negoziatzeko elementu teknikoari edo kontabilitatekoari buruz.

Behin-behineko prezioekin egindako kontratuetan, prezioa gehieneko prezioarentzat finkatutako mugen barruan zehaztuko da, kontratistak izango dituen benetako kostuak eta

adostutako etekina kontuan hartuta. Horretarako, kontratuan, honako hauek zehaztuko dira:

- a) Behin betiko prezioa zehazteko prozedura, etekina kalkulatzeko formula eta benetako kostuak aipatuta.
- b) Adjudikaziodunak prestazioen kostua zehazteko aplikatu beharreko kontabilitate-arauak.
- c) Adjudikaziodunak ekoizpen-kostuko elementu teknikoetara eta kontabilitatekoetara buruz egin ahalko dituen agiri bidezko kontrolak eta ekoizpen-prozesuaren kontrolak.

Behin-behineko prezioekin egindako kontratuetan ezingo dira prezioak berrikusi.

8. Administrazio publikoen kontratuetan, debeku da prezioaren ordainketa geroratzea, honako kasu hauetan izan ezik: ordainketa-sistema finantza-errentamenduaren modalitatearen bidez edo erosteko aukeradun errentamenduaren modalitatearen bidez izatea ezartzen denean eta lege honek edo beste batek berriaz baimentzen duenean.

## II. KAPITULUA

### Sektore publikoko erakundeen kontratuetan prezioak berrikustea

103. artikulua. *Bidezkotasuna eta mugak.*

1. Sektore publikoko kontratuen prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusteko, kapitulu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Erregulazio harmonizatukoak ez diren eta 19. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren kontratuetan izan ezik, ezingo da egin kontratuetako prezioei buruzko aldizkako berrikuspenik aurrez zehaztu ez denik, ez eta aldizkakoa ez denik ere.

Kontratuaren edozer ordainsari edo kontraprestazio ekonomiko joko da prezioztat, Administrazioak edo erabiltzaileek ordaindutakoak izan.

2. Espedientean justifikatuz gero eta Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legearen 4. eta 5. artikuluetan aipatzen den errege-dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energia-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea duten kontratuetan. Epe hori aipatutako errege-dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz kalkulatu da.

Ez dira inola ere berrikusiko amortizazio-kostuekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edota egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere. Obra-kontratuak edo Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren kontratuetako eskulanaren kostuak berrikusiko dira, baldin eta inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa bada eta lan-faktorearen erabilera handia bada, betiere errege-dekretuan ezarritako kasuekin eta mugekin bat etorriz.

3. Egokia den kasuetan, kontratazio-organoak prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusteko eskubidea ezarri ahalko du eta aplikatu beharreko berrikuspen-formula zehaztuko du, kontratu bakoitzaren izaera eta kontratuetako prestazioen kostuen egitura eta bilakaera kontuan hartuta.

4. Administrazio-klausula partikularren agiriak, halako kasuetan, berrikusteko aplikatu beharreko formula zehaztu beharko du; aldezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta hark zehaztuko du noiz berrikusiko diren prezioak, kontratua egiteko eguna kontuan hartuta, baldin eta kontratua eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean egiten bada; kontratua geroago egiten bada, hiru hilabeteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta zehaztuko da noiz berrikusi prezioak.

5. Energia-hornidurako kontratuetan izan ezik, eta hala badagokio, sektore publikoko kontratuen prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena egingo da kontratuaren

zenbatekoaren ehuneko 20 gutxienez egikaritu denean eta formalizatu zenetik bi urte igaro direnean, kapitulu honetan ezarritako baldintzetan. Beraz, egikaritutako lehenengo ehuneko 20a eta kontratua formalizatu zenetik igarotako lehen bi urteak berrikuspenetik kanpo geldituko dira.

Zerbitzu-emakidako kontratuetan, hala eta guztiz ere, kontratua egikaritu izanaren ehunekoari buruzko baldintza ez da eskatzekoa izango aurrez zehaztutako aldizkako berrikuspenari ekiteko.

6. Ministro Kontseiluak aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspenaren formula motak onetsi ahalko ditu 2. apartatuan aurreikusitako kontratuen kasuan, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen eta Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuaren txostenak jaso ondoren.

Kontratazioan eskumena duen Administrazio Publikoak proposatuta, Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Nagusiak zehaztuko du zer jardueratan ezarri beharko litzatekeen formula tipo bat; prestatuko ditu formula horiek, eta Ministro Kontseilura bidaliko ditu, han onar ditzaten.

Kontratu mota jakin baterako azaldutako prozeduraren bidez formula tipoak onesten direnean, kontratazio-organoak ezingo du gehitu beste berrikuspen-formularik baldintza-agirietan eta kontratuan.

7. Xedapen honen 2. apartatuan aipatzen den errege-dekretuko printzipio eta metodologiei jarraituz ezartzen diren formula tipoek islatu beharko dute kontratuko xede diren prestazioak sortzeko prozesuari lotutako kostuen oinarritzko osagaiek kontratuaren prezioan duten haztapena.

8. Estatistikako Institutu Nazionalak kontratuen prezioak berrikusteko formula tipoetako kostuen oinarritzko osagaien prezioen hileroko indizeak prestatuko ditu. Horiek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren agindu baten bidez onartuko dira, Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Nagusiaren txostena jaso ondoren.

Energiaren eta oinarritzko materialen prezioek merkatuan gorantz eta beherantz izandako aldakuntzak islatuko dituzte indizeek, eta bakarrak izan daitezke Estatuko lurralde osorako, edo geografia-eremuen arabera bereziak.

Erregelamenduz, apartatu honetan aipatzen diren formula tipoetan gehitu beharreko kostuen oinarritzko osagaien zerrenda ezarriko da. Zerrenda hori Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aginduz handitu ahalko da, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena jaso ondoren, baldin eta hala eskatzen badute prozesu produktiboen bilakaerak, kontratu jakinen kostuan parte-hartze nabarmena duten material berriak agertzeak edota lege honetan eta beronen garapenean ezarritakoarekin bat etorriz formula tipo berriak prestatu beharrak.

Prezioak berrikusteko formulatan erabiltzen den indize bakoitza zehazteko arauak edo adierazleak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aginduz ezarriko dira, Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Nagusiak hala proposatuta.

9. Xedapen honen 6. apartatuan aurreikusitako formula tipoen bidez prezioak berrikustea aplikatu beharrekoa denean, 7. apartatuko haztapenak 8. apartatuaren arabera zehazten diren prezio-indizeei aplikatuta, data bakoitzerako koefiziente bat lortu ahalko da, 4. apartatuan jasotzen diren egun eta epeak kontuan hartuta. Berrikuste-eskubidea duten prestazioen zenbateko likidoei aplikatuko zaie koefiziente hori, ordaindu beharreko prezioa kalkulatu ahal izateko.

10. Artikulu honetan eta Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legean ezarritakoan, nolahi ere, ez da alde batera utziko oreka ekonomikoari 270. eta 290. artikuluetan aurreikusitako egoeretan eusteko aukera.

104. artikulua. *Berrikuspena, egikaritzea berandutzen den kasuetan.*

Berrikuspen-klausula kontratista berandutu den aldian aplikatu behar bada, eta dagozkion zigorrek alde batera utzi gabe, prestazioa epe barruan gauzatzeko kontratuan ezarritako datei dagozkienak izango dira aplikatu beharreko prezio-indizeak, baldin eta kontratua egikaritzeko egiazko epeei dagozkien indizeek ez badute koefiziente txikiago ematen, orduan indize horiek aplikatuko baitira.



105. artikulua. *Berrikuspenaren ondorengo zenbatekoa ordaintzea.*

Dagozkion berrikuspenen zenbatekoa ofizioz ordainduko da, ziurtagirietan edo ordainketa partzialetan dagozkion ordainketa edo deskontua eginez; horretarako, hori estaltzeko behar den gastu espedientea izapidetuko da ekitaldi ekonomikoaren hasieran. Ekitaldian onetsitako gastu-espedientea dela-eta gerta daitezkeen desdoitzeak –esate baterako, kontratuari aplikatu beharreko prezio-indizeen onespenean denbora-diferentzietatik heldutakoak– amaierako ziurtagirian edo kontratuaren likidazioan ordaindu ahalko dira.

## IV. TITULUA

### Sektore publikoko kontratuetan eska daitezkeen bermeak

#### I. KAPITULUA

#### Administrazio publikoekin egindako kontratuetan eska daitezkeen bermeak

##### 1. atala. *Behin-behineko bermea*

106. artikulua. *Behin-behineko bermea eskatzea eta haren araubidea.*

1. Kontratazio-prozeduran, ez da aukerarik izango behin-behineko bermea eskatzeko, salbu eta aparteko kasuetan kontratazio-organismoak, interes publikoko arrazoiak tarteko, beharrezkotzat jotzen duenean eta espedientean arrazoiz justifikatzen duenean. Azken kasu horretan, lizitatzailerei berme bat era dezaten exijitu ahalko zaie aurrez, egin dituzten eskaintzei kontratua burutzen den arte eustea ekarriko duena.

2. Kontratazio-organismoak behin-behineko berme bat eskatzea erabaki duen kasuetan, administrazio-klausula partikularren agirietan, batetik, behin-behineko berme horren zenbatekoa zehaztuko da, eta ezingo da izan kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekonturen 100eko 3 baino handiagoa –balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita–; bestetik, bermea itzultzeko araubidea ere zehaztuko da. Behin-behineko bermea 108. artikulua 1. apartatuan aurreikusitako moduetatik edozeinetan eratu ahalko da.

Sortakako banaketaren kasuan, soilik lizitatzailak eskaintza aurkeztuko duen sorten zenbatekoari erreparatuta finkatuko da behin-behineko bermea, eta ez kontratuaren guztizko aurrekontuaren zenbatekoaren arabera.

Esparru-akordioetan eta eskuratzeko-sistema dinamikoetan, behin-behineko bermearen zenbatekoa, halakorik eskatuz gero, Administrazio Publikoak finkatuko du, oroharreko prezio batekin; prezio hori ezingo da inolaz ere izan kontratuaren balio zenbatetsiaren 100eko 3tik gorakoa.

3. Behin-behineko bermeak eskatzen direnean, honako modu hauetakoren batean jarriko dira, lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak beteta:

a) Eskudirutan egindako bermeak direnean, Gordailuen Kutxa Orokorrean edo kutxa horrek Ekonomia eta Ogasuneko ordezkartzetan dituen sukurtsaletan, edo, bestela, autonomia-erkidego edo toki-entitate kontratatzaileen kutxa nahiz pareko establezimendu publikoan, kontuan hartuta zer administraziotan izan behar duen eragina.

b) Idatzitako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio-organoan.

4. Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzailerei. Nolanahi ere, behin-behineko bermea behin betiko bermea eratzen denean itzuliko zaio adjudikaziodun hautatutako lizitatzaileari. Baina behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermerako erabili ahalko da; bestela, behin betiko berme berri bat jarri beharko da.

*2. atala. Behin betiko bermea**107. artikulua. Behin betiko bermea eskatu ahal izatea.*

1. 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoa alde batera utzita, administrazio publikoek egiten dituzten kontratuen lizitazioetan, 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onenak aurkezten dituzten lizitatzailleek haiek berek eskaintako amaierako prezioaren 100eko 5eko berme bat jarri beharko dute kontratazio-organoaren esku, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Behin-behineko prezioekin egindako kontratuen kasuan –lege honen 102. artikulua 7. apartatua aipatzen dira–, finkatutako gehieneko prezioa kontuan hartuta kalkulatu da ehunekoa, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta.

Hala eta guztiz ere, kontratuko inguruabarrei erreparatuta, kontratazio-organoak salbuets dezake adjudikazioduna behin betiko bermea eratzeko betebeharretik, administrazio-klausula partikularren agirian egoki justifikatuta; bereziki, prezioa ordaindu baino lehen entregatu eta hartu behar diren ondasun kontsumigarrien horniduren kasuan, objektutzat gizarte-zerbitzuak ematea edo gizarte-bazterketaren arriskuan dauden kolektiboetako pertsonak gizarteratzerako edo laneratzerako zerbitzuak ematea daukaten kontratuen kasuan, bai eta lege honen 25. artikulua 1. apartatua a) letrako 1. eta 2. puntuetan aipatzen diren Administrazioaren kontratu pribatuen kasuan ere. Obra-kontratuetan eta obra-emakidako kontratuetan ezingo da horrelako salbuespenik egin.

2. Zenbait kasu berezitan, aurreko paragrafoan zehaztutako bermeaz gainera beste berme osagarri bat ere aurkeztu behar dela ezarri ahalko du kontratazio-organoak baldintza-agirian; berme hori ez da izango 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu zuen lizitatzailleak eskaintako azkeneko prezioaren 100eko 5etik gorakoa, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta, eta berme osoa prezio horren 100eko 10ekoa izango da gehienez.

Ondorio horietarako, kontratu hauek joko dira kasu berezitzat: aurreko apartatua aipatzen den behin betiko berme arruntaren ehunekoa handitzea gomendagarria izatea dakartenak, haien izaera, ordainketa-araubidea edo betetze-baldintzak bereziak direla-eta kontratazio-organoak hartzen duen arriskuarengatik. Nolanahi ere, erabakia ebazpen batez hartu beharko da, arrazoituta. Zehazki, adjudikaziodunaren eskaintzan hasiera batean ustezko anormaltasun bat dagoenean aurreikusitako ahalko da berme osagarri hori aurkeztu behar izatea.

3. Kontratuaren prezioa unitateko prezioen arabera formulatzen denean, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren arabera izango da, BEZik gabe.

4. Obren emakidan eta zerbitzuen emakidan, kontratazio-organoak finkatuko du, kasuan-kasuan, behin betiko bermearen zenbatekoa administrazio-klausula partikularren agirian, kasuan kasuko emakidaren izaeraren, garrantziaren eta iraupenaren arabera.

5. Esparru-akordioak eta eskuratze-sistema dinamikoak arautzen dituzten baldintza-agiriek ezarriko dute ea behin betiko bermea Administrazioaren zenbatespenaren bidez finkatzen den edo esparru-akordio batean edo eskuratze-sistema dinamiko batean oinarritutako kontratu bakoitzerako finkatzen den, adjudikazio-zenbatekoaren arabera.

Administrazioaren zenbatespenaren bidez esparru-akordioaren edo eskuratze-sistema dinamikoaren behin betiko berme orokor bat eratzeko aukerak bada, esparru-akordioetan edo eskuratze-sistema dinamikoetan oinarritutako kontratuetako kopuruen batura –BEZik gabe– behin betiko bermearen kopurua 100eko 5ean kapitalizatzen ateratzen den zenbatekoaren bi halako baino gehiago denean, berme hori beste hainbeste handitu beharko da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen den behin betiko bermeak erantzuna emango du bai esparru-akordioaren eta eskuratze-sistema dinamikoaren ez-betetzeak gertatzen direnean, bai dena delako oinarritutako kontratuaren edo kontratu bereziaren ez-betetzeak gertatzen direnean.

108. artikulua. *Onar daitezkeen behin betiko bermeak.*

1. Administrazio publikoekin egindako kontratuetan eman beharreko behin betiko bermeak honako modu hauetako batean eratu ahalko dira:

a) Eskudirutan edo baloreetan, zeinak nolahi ere zor publikoarenak izango baitira, eta, betiere, lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak beteta. Eskudirua eta dagokien liburuetan idatzitako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean edo kutxa horrek Ekonomia eta Ogasuneko ordezkarietara dituen sukurtsaletan jarri behar dira, edo, bestela, autonomia-erkidego edo toki-entitate kontratatzaileen kutxa nahiz pareko establezimendu publikoetan, kontuan hartuta zer administraziotan izan behar duten eragina, eta, betiere, lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten era eta baldintzak beteta, ezertan galarazi gabe atzerrian egiten diren kontratuetarako xedatutakoa.

b) Abalaren bidez. Abal hori lege hau garatzeko arauak ezarritako eran eta baldintzen arabera eman behar dute Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki-kutxek, kreditu-kooperatibek, kredituko finantza-erakundeek eta elkarren bermerako sozietateek, aurreko a) letran aipatzen diren establezimenduetan.

c) Kauzio-aseguruko kontratu baten bidez. Kontratu hori arlo horretan lan egiteko baimena duen erakunde aseguratzailer batekin egin behar da, lege hau garatzeko arauak ezartzen duten eran eta baldintzen arabera. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) letran adierazitako establezimenduetan aurkeztu beharko da.

2. Administrazio-klausula partikularren agirian horrela aurreikusten denean, obretarako, horniduretarako eta zerbitzuetarako kontratuen behin betiko bermea prezioan atxikipena eginez eratu ahalko da; eta zerbitzu-emakidako kontratuetan hori bera egin ahalko da tarifak administrazio kontratatzaileak ordaintzen dituztenean. Administrazio-klausula partikularren agirian finkatuko dira atxikipena egiteko modua eta baldintzak.

3. Bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahalko da behin betiko bermea eratu izana.

109. artikulua. *Bermeak eratzea, berriz jartzea eta egokitzea.*

1. 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerak 150. artikuluan 2. apartatuan adierazten den epean egiaztatu beharko du behin betiko bermea eratu izana. Berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio baldintza hori betetzen ez badu, Administrazioak ez du haren aldeko adjudikazioa egingo, eta 150 artikuluan 2. apartatuaren azken-aurreko paragrafoan adierazitakoa aplikatuko da.

2. Kontratatzaileak, eska dakizkiokeen kalte-ordainak edo zigorrak behin betiko bermearen bitartez ordaintzen badira, berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa handitu, dagokion heinean. Kalte-ordainak edo zigorrak ordaintzen direnetik hamabost egun izango ditu horretarako, eta hala ez egitea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

3. Baldin eta kontratua aldatu delako kontratuaren prezioa ere aldatu egiten bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia enpresaburuari jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, prezio berriaren eta bermearen artean dagokion proportzioa egon dadin. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko liburu honetako III. tituluko II. kapituluaren ezarritakoaren arabera egindako berrikusteen ondorioz izandako prezio-aldaketak.

4. Behin betiko bermea kauzio-aseguruko kontratu baten bidez eratu denean eta kontratuaren iraupena bost urtetik gorakoa denean, kontratatzaileak kauzio-aseguruko kontratu bat aurkeztu ahalko du behin betiko berme gisa, kontratuak irauten duena baino epe laburragokoa; kasu horretan, behartuta egongo da, kauzio-aseguruko kontratuaren muga-eguna baino gutxienez ere bi hilabete lehenagotik, edo beste berme bat jartzera, edo kauzio-aseguruko kontratua luzatzera eta hori kontratazio-organoari egiaztatzen. Hala egin ezean, behin betiko bermea bahituko da, 110.c) artikulua aplikatuta.

110. artikulua. *Bermeei dagozkien erantzukizunak.*

Behin betiko bermeei soilik honako kontzeptu hauei egin beharko diete aurre:

- a) Kontratua epean egiteko betebeharra, 153. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Kontratistari lege honen 192. artikuluan ezarritakoaren arabera ezartzen zaizkion zigorrak.
- c) Kontratuan jasotako prestazioak behar bezala ematea, horien barnean direla kontratistak eskaini eta kontratazio-organoak onartu dituen hobekuntzak; kontratistak bere betebeharrak betetzen berandutzeagatik Administrazioari eragindako gastuak, eta kontratua bete gabe uztean edo kontratua egikaritzean Administrazioari eragindako kalte-galerak, kontratua suntsiaraztea ez badagokio.
- d) Kontratua suntsiarazten denean ezarritako bahitzea (baldin eta ezartzen bada), kontratuan bertan edo lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz.
- e) Obra-kontratuetan, zerbitzu-kontratuetan eta hornidura-kontratuetan, gainera, eraikitako ondasunetan, emandako zerbitzuetan edo hornigaietan akatsik edo hutsik ez egoteko erantzukizunari egin behar dio aurre behin betiko bermeak, kontratuan aurreikusitako berme-epe osoan.

111. artikulua. *Behin betiko bermeak itzuli eta kitzatzea.*

1. Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko, harik eta berme-epea amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edota kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

2. Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, eta berme-epea amaitu eta gero, bermearen kontra gauzatu beharreko erantzukizunik agertzen ez bada, itzuli egingo da eratutako bermea, edo ezereztu egingo da abala edo kauzio-asegurua.

Bermea itzultzeko erabakia berme-epea bukatu eta bi hilabeteko epean hartu beharko da, eta jakinarazi egin beharko zaio interesdunari. Epe hori amaitutakoan, zor zaion zenbatekoa ordaindu beharko dio Administrazioak kontratistari, berme-epea amaitu zenetik bermea itzuli arteko aldiari dagozkion diruaren legezko interesak gehituta, baldin eta bermea ez itzultzeko arrazoiak Administrazioari egotz badakioke.

3. Kontratuaren zati bat baino hartzen ez denean, bermearen hein bereko zatia itzultzeko edo ezereztuko eska dezake kontratistak, administrazio-klausula partikularren agirian berariaz hala onartuta badago.

4. Kontratuaren lagapena egiten denean, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

5. Kontratua amaitzen denetik urtebete igarota, eta berme-epea amaituta, kontratistari egotz ezin dakizkiokeen kausak direla medio ez jasotzeko egintza formalik eta ez likidaziorik egin ez bada, itzuli edo ezereztu egingo dira bermeak, luzapen gehiagorik gabe, 110. artikuluan aipatutako erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren.

Epea sei hilabetera beheratuko da kontratuaren balio zenbatetsia 1.000.000 eurotik beherakoa denean obra-kontratuaren kasuan, edo 100.000 eurotik beherakoa beste kontratu batzuen kasuan, edo enpresa lizitatzailerik enpresa txiki edo ertainaren baldintzak betetzen dituztenean Batzordearen 2008ko abuztuaren 6ko 800/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz eta ez daudenean zuzenean edo zeharka baldintza horiek betetzen ez dituen beste enpresa batek kontrolatuta –erregelamendu horren bidez barnermerkatuarekin bateragarriak diren laguntzen zenbait kategoria deklaritzen dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta–.

3. atala. *Hirugarrenek emandako bermeak, eta lehentasuna bermeak exekutatzean*112. artikulua. *Hirugarrenek emandako bermeen araubidea.*

1. Kontratista bera ez diren pertsonak edo erakundeak, kontratistaren alde bermeak ematen badituzte, ezingo dute Kode Zibileko 1.830. artikuluan eta horrekin bat datozen artikuluetan aipatutako eskusio-onurarik erabili.

2. Emandako bermeari dagozkion prozeduretan, abal-emailea edo aseguratzailea alderdi interesduntzat joko da, administrazio-prozedura erkideari buruzko legeria indardunean aurreikusitako moduan.

3. Kauzio-aseguruko kontratuan, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Kontratista aseguru-hartzaile izango da, eta administrazio kontratatzailea, asegurudun.

b) Prima ez ordaintzeak –bakarra izan, lehenbizikoa izan edo ondorengoak izan– ez dio aseguratzaileari eskubiderik emango kontratua azkentzeko; asegurua ez da azkenduko, asegurua babesa ez da etengo, eta aseguratzailea ez da aske geratuko bermea ordaintzeko betebeharretik, berak ordaindu behar badu bermea.

c) Aseguratzaileak ezingo ditu baliatu asegurudunaren kontra aseguru-hartzailearen kontra legezkiokkeen salbuespenak.

113. artikulua. *Lehentasuna bermeak exekutatzean.*

1. Behin-behineko zein behin betiko bermeak exekutatzeko orduan, administrazio kontratatzaileak lehentasuna izango du, beste edozein hartzekodunen gainetik, edozein direla ere hartzekodunaren izaera eta haren kredituaren jatorrian dagoen titulua.

2. Bermea dagozkion erantzukizunei aurre egiteko adinakoa ez bada, Administrazioak premiamenduzko administrazio-prozeduraz kobratuko du aldea, diru-bilketarako arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

3. Uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 90. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, konkurtsoetan ex lege betebeharretatik datozen kredituak edo administrazio-egintzen indarrez sortutakoak pribilegio orokorreko kreditutzat hartuko dira, 22/2003 Legearen 91.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## II. KAPITULUA

### **Sektore publikoko beste kontratu batzuetan eska daitezkeen bermeak**

114. artikulua. *Kasuak eta araubidea.*

1. Administrazio publiko ez diren sektore publikoko erakundeek egindako kontratuetan, kontratazio-organoek bermea eratzeko eskatu ahalko diete lizitatzaleei edo hautagaiei, adjudikazioa egin arte, eta, hala badagokio, kontratua formalizatu arte, beren eskaintzei eutsiko dietela ziurtatzeko; edo adjudikaziodunari eskatu ahalko diote, prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko.

2. Kontratazio-organoak finkatuko ditu bermearen zenbatekoa eta bermea itzultzeko edo ezerezteko araubidea, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, eta ez da beharrezkoa izango hura Gordailuen Kutxa Orokorrean eratzea; nolahi ere, ezingo dira gainditu 106.2 eta 107.2 artikuluetan ezarritako mugak. Bermea 108. artikuluan aurreikusitako moduren batean aurkeztu ahalko da.

## BIGARREN LIBURUA

### **Administrazio publikoen kontratuak**

#### I. TITULUA

#### **Xedapen orokorrak**

#### I. KAPITULUA

### **Administrazio publikoen kontratazioari buruzko jarduketak**

*1. atala. Administrazio publikoen kontratuak prestatzea*

115. artikulua. *Merkatuko aldez aurretiko kontsultak.*

1. Kontratazio-organoek merkatuari buruzko azterlanak egin ahalko dituzte eta kontsultak egin ahalko dizkiete merkaturan jarduten duten operadore ekonomikoei, lizitazioa

zuzen prestatzeko eta operadore ekonomiko horiei informazioa eman ahal izateko beren planei buruz eta prozedurara aurkezteko eskatuko diren baldintzei buruz. Horretarako, kontratazio-organoak hirugarrenen aholkuaz baliatu ahalko dira. Hirugarren horiek adituak edo agintari independenteak, lanbide-elkargoak edo, kasu berezietan, merkatuan jarduten duten operadore ekonomikoak izan ahalko dira. Kontratazio-organoak, kontsulta hasi baino lehen, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman edo maila autonomikoan baliokidea den informazio zerbitzuan kokatutako kontratatzailearen profilean argitaratuko ditu haren xedea, hura hasteko eguna eta kontsultan parte hartuko duten hirugarrenen izenak, izan daitezkeen interesdun guztiek sarbidea izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan ditzaten. Halaber, aukeratu diren kanpoko aholkulariak aukeratzeko arrazoiak argitaratuko dira kontratatzailearen profilean.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den aholkularitza lizitazio-prozeduraren plangintza egiteko erabiliko du kontratazio-organoak, eta, halaber, hura gauzatzen den bitartean, betiere horrek berekin ez dakarrenean lehia faltsutzea edo diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak urratzea.

Egindako kontsultetatik ezingo da atera, zehatzaren zehatzaz eta mugatuaren mugatuaz, kontsulta egin zaieneta baten ezaugarri teknikoei bakarrik egokitzen zaien kontratu-objektu bat. Azterlanen eta kontsulten emaitza, kasua bada, interes publikoak hobeki beteko direla ziurtatzen duten ezaugarri orokorrak, betekizun orokorrak edo formula abstraktuak sartuta zehaztu beharko da; halere, egindako kontsultek ezingo diete abantailarik ekarri haietan parte hartu duten enpresei kontratuaren adjudikaziorari begira.

3. Kontratazio-organoak, artikulua honetan aipatzen diren kontsultak egin dituenean, txosten batean adierazi beharko ditu egindako jarduketak. Txostenean, hauek zerrendatuko dira: egindako azterlanak eta haien egileak, kontsulta egin zaien erakundeak, haiei egin zaizkien galderak eta galderei emandako erantzunak. Txostenak zioak izango ditu, kontratazio-espeditentean txertatuta egongo da eta baldintza-agiriek dauzkaten publizitate-betebehar berak bete beharko ditu; nolana ere, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Artikulu honetan aipatzen den kontsulta-prozesuan zehar kontratazio-organoak ezingo dizkie jakitera eman hartan parte hartzen dutenei beste parte-hartzaileek proposatutako konponbideak; horiek, izan ere, hark beste inork ezingo ditu guztiz ezagutu.

Oro har, kontratazio-organoak kontuan hartu beharko ditu egindako kontsulten emaitzak baldintza-agiriak egitean; hala ez bada, aurreko paragrafoan aipatzen den txostenean utzi beharko ditu jasota horretarako arrazoiak.

Kontsultan parte hartzeak ez du eragozten geroztik kasuan-kasuan izapidetzen den kontratazio-prozeduran esku hartu ahal izatea.

#### 1. azpiatala Kontratazio-espeditentea

##### 116. artikulua. *Kontratazio-espeditentea: hastea eta edukia.*

1. Administrazio publikoek, kontratuak egiteko, dagokien espeditentea izapidetu beharko dute aldez aurretik. Kontratazio-organoa hasiko da espeditentea izapidetzen, eta, horretarako, kontratuaren beharrezanaren arrazoiak emango ditu, lege honen 28. artikuluan ezarri bezala, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko du.

2. Espeditenteak kontratuaren objektu osoari buruzkoa izan behar du, alde batera utzi gabe 99. artikuluan 7. apartatuan sortatan zatituta adjudikatzen diren kontratuetarako ezarritakoa.

3. Espeditentearekin batera, kontratua arautuko duten administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoaren agiria erantsi behar dira. Baldin eta, kontratua adjudikatzeko, lehia-elkarriketa aukeratzeko bada (prozedura hori II. liburu I. tituluko I. kapituluaren 2. atalaren 5. azpiatalean dago araututa), administrazio-klausulen eta preskripzio teknikoaren agirien ordez, 174. artikuluan 1. apartatuan aipatzen den deskripzio-agiria erabiliko da. Esparru-akordioetan oinarritutako kontratuak adjudikatzeko prozeduretan, esparru-akordio horietan parte hartzen duten enpresei beste lizitazio baterako gonbidapena egiten zaien horietan –221.4 artikuluan arautzen dira horiek–,



administrazio-klausulen eta preskripzio teknikoen agirien orde, 221.5 artikulua azken paragrafoan aipatzen den lizitazio-agiria erabili beharko da.

Orobat, gehitu beharko da kreditua badagoela egiaztatzeke ziurtagiria edo, aurrekontu zenbatetsia duten Estatuko sektore publikoko erakundeen kasuan, finantzaketa badagoela egiaztatzen duen dokumentu baliokidea, bai eta kontu-hartzaitzaren alde aurretiko fiskalizazioa ere, kasua bada, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legean ezarritako moduan.

4. Espedientean, honako hauek justifikatu beharko dira behar bezala:

- a) Lizitazio-prozeduraren hautapena.
- b) Parte-hartzaileei eskatzen zaien sailkapena.
- c) Kaudimen tekniko edo profesionaleko eta ekonomiko eta finantzarioko irizpideak, bai eta kontratua adjudikatzeko aintzat hartuko diren irizpideak eta hura egikaritzeko baldintza bereziak ere.
- d) Kontratuaren balio zenbatetsia, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita; horren barnean, lan-kostuak egongo dira, halakorik bada.
- e) Kasuan kasuko prestazioak kontratatuz Administrazioan bete nahi den beharrezana; eta kontratuaren objektuarekin daukan lotura, zeinak zuzena, argia eta proportzionala izan beharko baitu.
- f) Zerbitzu-kontratuetan, baliabide nahikorik ez egoteari buruzko txostena.
- g) Kontratuaren objektua sortatan ez zatitzeko erabakia, kasua bada.

5. Kontratua jatorri berekoak ez diren ekarpenekin finantzatu behar denean, ekarpen horiek egin dituztenak administrazio publiko bereko organoak izanda ere, kontratua adjudikatu behar duen kontratazio-organoak espediente bakar batean izapidetuko du dena delako kontratua; espedientean, ekarpen guztiak osorik erabiltzeko moduan daudela egiaztatu beharko da eta ordaintzeko hurrenkera ezarri; haien eraginkortasuna ziurtatzeko bermea ere sartu egin behar da.

117. artikulua. *Espedientearen onespena.*

1. Kontratazio-espedientea osatu eta gero, arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du kontratazio-organoak, espedientea onartzeko, eta adjudikazio-prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen horrek gastuaren onespena ere ekarriko du, salbu eta aurrekontua aurrez ezarri ezin izan den aparteko kasuetan edo deskontzentrazio-arauek edo eskuordetze-egintzak kontrakoa ezartzen dutenean, halakoetan onespena eskatu beharko baitzaio organo eskudunari. Ebazpen hori kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

2. Kontratazio-espedienteak dagokien kontratua adjudikatuz eta formalizatuz ere amaitu daitezke, nahiz eta hura hurrengo ekitaldian egikaritzen hastekoa izan eta urte batean edo gehiagotan banatuta egikaritzekoa. Horretarako, kredituak izendatu daitezke, lege honetara lotuta dauden administrazio publiko bakoitzaren aurrekontuetako arauetan zehaztutako mugekin.

118. artikulua. *Kontratazio-espedientea kontratu txikietan.*

1. Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira, alde batera utzi gabe estatu-mailan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta horniketeei buruz 229. artikuluan ezarritakoa.

Kontratu txikietan, espedientearen izapidetzeak kontratazio-organoaren txostena eskatuko du, kontratuaren beharrezanaren zioak ematen dituena. Halaber, gastua onestea eskatuko da, eta dagokion faktura espedienteari gehitzea; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

2. Obra-kontratu txikian, obren aurrekontua ere gehitu beharko da; nolana ere, dagokion proiektua ere beharko da arau espezifikoek horrela eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze-bulego edo -unitateen txostena eskatu

beharko da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.

3. Espedientean, justifikatuko da ez dela kontratuaren objektua aldatzen ari kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko, eta kontratistak ez duela izenpetu kontratu txiki gehiagorik, banaka edo guztiak batera artikulua honen lehenengo apartatuan ageri den kopurua gainditzen duenik. Kontratazio-organoak egiaztatuko du arau hori bete egiten dela. Kanpoan gelditzen dira 168.a).2.a artikuluan jasotako kasuak.

4. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako eran argitaratuko dira.

119. artikulua. *Espedientearen presako izapidetzea.*

1. Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espedienteak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia-adierazpena eduki behar du espedienteak, behar bezala arrazoitua.

2. Presakotzat jotako espedienteak espediente arrunten prozedura bera betez izapidetuko dira, baina berezitasun batzuk egongo dira izapidetzean:

a) Presako espedienteek lehentasuna izango dute izapideetan parte hartzen duten organoek bideratuak izateko; organo horiek bost egun edukiko dituzte dagozkien txostenak eta izapideak egiteko.

Espedientearen zailtasunak eraginda edo justifikatutako beste edozein arrazoi dela medio ezinezkoa bada epe hori betetzea, izapidea egin behar duten organoek espedientearen urgentzia adierazi duen kontratazio-organoari jakinaraziko diote hori. Kasu horretan, epea hamar egunera arte luzatu ahalko da.

b) Adjudikazio-prozedura hastea erabaki ondoren, erdira ekarriko dira kontratua lizitatu, adjudikatu eta formalizatzeko lege honetan ezarritako epeak, honako hauek izan ezik:

1.a Kontratu formalizatu aurreko itxaronaldi gisa 153. artikulua 3. apartatuan ezarritako hamabost eguneko epea.

2.a Erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak prozedura irekian proposamenak aurkezteko epea, zeina 156. artikulua 3. apartatuko b) letran ezarritakoaren arabera laburtu ahalko baita.

3.a Erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak prozedura murriztuan eta lizitazio-prozedura negoziatuan eskaerak eta proposamenak aurkezteko epeak, zeinak, hurrenez hurren, 161. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoan eta 164. artikulua 1. apartatuko b) letran ezarritakoaren arabera laburtu ahalko baitira.

4.a Ezingo dira laburtu erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak lehia-elkarrizketaren prozeduran eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran eskaerak aurkezteko epeak.

5.a Eskaintzak aurkezteko finkatutako epea amaitu baino lehenagoko 6 eguneko epea, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hautagaiari edo lizitatzailari eskatutako informazio gehigarria ematekoa, gehienez ere 4 eguneko epea izango da erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak epe hori amaitu aurretik, baldin eta prozedura irekiaren eta murriztuaren bidez adjudikatzen badira.

Aurreko murrizketa ez zaie aplikatuko aipatutako kontratuei adjudikazio-prozedura irekiaz edo murriztuaz beste bat denean.

6.a Prozedura ireki sinplifikatuaren izapidetzeari dagokionez 159. artikuluan ezarritako epeak, artikulua horren 5. apartatuan aipatutakoari jarraituz.

Aurreko 2., 3. eta 5. puntuetan ezarritako epe-murrizketak ez dira aplikatuko erregulazio harmonizatuko obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen adjudikazioan, edozein dela ere erabiltzen den adjudikazio-prozedura; izan ere, puntu horiek aipatzen dituzten epeak, kontratu horietan, ezingo dira murriztu.

c) Kontratu egikaritzen hasteko epea ezingo da izan hilabetetik gorakoa, kontratua egiten den egunetik kontatzen hasita.

120. artikulua. *Larrialdiko izapidetzea.*

1. Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu, horrelakoetan, salbuespeneko araubide hau bete behar da:

a) Kontratazio-organoak agin dezake, administrazio-espeditentea izapidetzeko beharrik gabe, gertatutakoa konpontzeko edo gerora sortutako beharri erantzuteko behar den oro egitea, edo xedea libreki kontrata dezake, osorik edo partez, lege honetan ezarritako betebeharrak formalen pean egon gabe, eta are kreditu nahikoa izateko betebeharrak ere. Kreditu egokirik eta nahikorik ez badago, behin erabakia hartuta, zuzkitu egingo da, Aurrekontu Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituz.

b) Kontratua Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek, Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaile edo zerbitzu erkideek edo gainerako estatu-erakunde publikoek egin badute, Ministro Kontseiluari jakinaraziko zaio, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean.

c) Prestazioak ematen hasteko epea ez da hilabete baino luzeagoa izango, a) letran aurreikusitako erabakia onartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori gaindituz gero, prestazio horiek kontratatuzko, prozedura arrunta izapidetu beharko da.

d) Salbuespenezko araubide honen xede diren jarduerak gauzatu ondoren, kontratuak egikaritzeari eta prestazioa jaso eta likidatzeari buruz lege honetan ezarritakoa beteko da.

Behar diren funtsen ordainketa justifikazioa aurkezteko baldintzarekin egin den kasuan, aurreko c) letran ezarritako epea iraganda, haren justifikazio-kontua emango da, eta inbertitu gabeko funtsak itzuliko dira.

2. Administrazioak egindako jarduera osatzeko behar diren gainerako prestazioak, larrialdikoak ez badira, lege honetan araututako izapidetze arruntaren arabera kontratatutako dira.

2. azpiatala. *Administrazio-klausulen agiriak eta preskripzio teknikoaren agiriak*

121. artikulua. *Administrazio-klausula orokorren agiriak.*

1. Ministro Kontseiluak, interesatutako ministerioen ekimenez, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren proposamenez eta Estatu Kontseiluaren irizpena jaso ondoren, administrazio-klausula orokorren agiriak onartu ahalko ditu, lege honetako eta legea garatzeko xedapenetako aginduen edukira egokituta, Estatuko Administrazio Orokorren, haren organismo autonomoen, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideen eta estatuko sektore publikoa osatzen duten eta administrazio publikoaren izaera duten gainerako erakundeen kontratazio-organoek egiten dituzten kontratuetan erabiltzeko.

2. Autonomia-erkidegoek eta Toki-administrazioa osatzen duten erakundeek administrazio-klausula orokorren agiriak onartu ahalko dituzte, bakoitzaren arau berezien arabera; horretarako, alde aurretik Estatuko Kontseiluak edo autonomia-erkidego bakoitzean baliokidea den aholku-organoak, halakorik badago, irizpena eman beharko du.

122. artikulua. *Administrazio-klausula partikularren agiriak.*

1. Administrazio-klausula partikularren agiriak gastua baimendu aurretik edo baimentzarekin batera onartu behar dira, baina beti kontratua lizitatu aurretik edo, lizitaziorik egon ezean, adjudikatu aurretik, eta, ondoren, akats materialak, izatezko akatsak edo akats aritmetikoak egin badira aldatu ahal izango dira bakarrik. Gainerakoetan, baldintza-agiria aldatzeak jarduketak atzera ekartzea ekarriko du berekin.

2. Administrazio-klausula partikularren agirian, honako hauek jasoko dira: kontratuaren kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak; kaudimen-irizpide eta adjudikazio-irizpide moduan edo egikaritzeko baldintza berezi moduan ezartzen diren gizarte-

baldintzak, lan-baldintzak eta ingurumen-baldintzak; kontratuko alderdien eskubideak eta betebeharrak definitzen dituzten itunak eta baldintzak; kontratuaren lagapen-aurreikuspena, salbu eta hori ezinezkoa denean 214.1 artikuluaaren bigarren paragrafoan ezarritakoari jarraituz; langileen lan-baldintzak sektorean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboari jarraituz betetzeko adjudikaziodunaren betebeharra, eta lege honek eta berau garatzeko arauak eskatutako gainerako aipamenak. Kontratuak mistoak direnean, kontratuaren ondorioei, egikaritzeari eta azkentzeari aplikatu beharreko arubide juridikoa zehaztuko da, kontratuotan batutako prestazioei aplikatu beharreko arauak kontuan hartuz.

Baldintza-agiriek, halaber, zehaztu ahalko dute jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideen transferentzia exijituko den, zerbitzu-kontratuei buruz 308. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

3. Administrazio-klausula partikularren agirietan, zigorrak ezar daitezke, 192. artikuluaaren 1. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorritik, prestazioa bete ez edo behar bezala bete ez eta haren ezaugarri eragiten zaien kasuetarako, eta, bereziki, ezaugarri horiek adjudikazio-irizpideak zehazteko kontuan hartu diren kasuetarako; edo funtsezko kontratu-betebehartzat jo daiteke ezaugarri horiek zehatz-mehatz betetzea, 211. artikuluaaren 1. apartatuaren f) letran adierazitako ondorioetarako. Halaber 130. eta 201. artikuluetakoa betetzen ez den kasuetarako.

4. Kontratuak administrazio-klausula partikularren agirien edukira egokitu behar dira, eta horien klausulak kontratuen klausulatzat joko dira.

5. Kontratazio-organoak onartuko ditu administrazio-klausula partikularren agiriak; baldintza-agiri partikularren ereduak ere onartu ahalko ditu izaera antzekoa duten kontratuen kategoria jakin batzuetarako.

6. Estatuaren Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aldeztu aurretik txosten bat egin beharko du kasuan kasuko baldintza-agiri orokorretan aurreikusitakoaren kontrako estipulazioak sartzea proposatzen duten administrazio-klausula partikularren agiri guztien gainean.

7. Estatuko Administrazio Orokorrean, haren organismo autonomoetan, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideetan eta estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako administrazio publikoetan, baldintza-agiriak eta ereduak onartzeko, bakoitzari dagokion zerbitzu juridikoaren txostena beharko da aldeztu aurretik. Administrazio-klausula partikularren agiria baldintza-agirien eredu bati egokitzen bazaio, eta baldintza-agirien ereduari buruz txosten hori egin badaigo lehenagotik, ez da txostenik egin beharko administrazio-klausula partikularren agiriari buruz.

#### 123. artikulua. *Preskripzio tekniko orokorren agiria.*

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aldeztu aurretik txostena egin ondoren, Ministro Kontseiluak, dagokion ministroaren proposamenez, preskripzio tekniko orokorren agiriak ezarri ahalko dizkie Estatuko Administrazio Orokorrari, haren organismo autonomoari, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei eta zerbitzu erkideei eta estatuko sektore publikoa osatzen duten eta administrazio publikoaren izaera duten gainerako erakundeak, eta horiek agiri haiei jarraitu beharko diete.

#### 124. artikulua. *Preskripzio tekniko partikularren agiria.*

Gastua baimendu aurretik onartu behar ditu kontratazio-organoak, edo gastua baimentzearekin batera, prestazioa arautuko duten eta haren kalitateak, gizarte-baldintzak eta ingurumen-baldintzak definituko dituzten preskripzio tekniko partikularrak jasotzen dituzten baldintza-agiriak eta dokumentuak, eta, betiere, kontratua lizitatu aurretik, eta, lizitaziorik ezean, adjudikatu aurretik, eta lege honek kontratu bakoitzerako ezarritako baldintzekin bat etorritik; ondoren, akats materialak, izatezko akatsak edo akats aritmetikoak egin badira aldatu ahal izango dira bakarrik. Gainerakoetan, baldintza-agiria aldatzeak jarduketak atzera ekartzea ekarriko du berekin.

125. artikulua. *Preskripzio tekniko batzuen definizioa.*

Lege honen ondorioetarako, termino hauek honela ulertuko dira:

1. «Preskripzio edo zehaztapen teknikoa»:

a) Obra-kontratuak direnean, nagusiki kontratazioaren baldintza-agiritan jasotako preskripzio teknikoen multzoa, material, produktu edo hornidura bati eskatzen zaizkion ezaugarriak definitzen dituztenak eta aukera ematen dutenak haren taxuera zehazteko, botere adjudikatzailerak nahi duen erabilerari erantzun diezaion; era berean, kalitatea ziurtatzeko prozedurak; material horien inpaktu soziala, lanekoa, ingurumenekoa edo klimatikoa; haien prestaketan edo erabileran garatzen diren produktu edo jarduerak; beharrian guztietarako diseinua (horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta diseinu unibertsala edo pertsona guztientzakoa); terminologia, sinboloak, frogak eta frogatzeko metodoak; ontziratzea, markatzea eta etiketatzea; erabiltzeko jarraibideak eta ekoizpen-prozesuak eta -metodoak, obren bizi-zikloko fase guztietan. Barnean hartzen ditu, halaber, proiektua egiteko arauak eta obren kalkulua, obren froga-, kontrol- eta harrera-baldintzak, bai eta eraikuntzako teknikak edo metodoak eta botere adjudikatzailerak agindu ditzakeen gainerako baldintza teknikoak, erregelamendu orokorren nahiz berariazkoen bidez, amaitutako lanei eta horiek osatzen dituzten material edo elementuei dagokienez;

b) Hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, produktu edo zerbitzu bati eskatzen zaizkion ezaugarriak definitzen dituen agiri batean jasotako zehaztapena; esate baterako, kalitate-mailak, portaera-mailak ingurumen eta klima aldetik, beharrian guztietarako diseinua (horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta diseinu unibertsala edo pertsona guztientzakoa) eta adostasunaren ebaluazioa, etekina, produktuaren erabilera, haren segurtasuna edo neurriak; horrekin batera, alderdi hauei dagokienez produktuari aplikatu beharreko eskakizunak: salmentarako izena, terminologia, sinboloak, frogak eta froga-metodoak, ontziratzea, markatzea eta etiketatzea, erabilerarako jarraibideak, ekoizpen-prozesuak eta -metodoak horniduraren edo zerbitzuaren bizi-zikloaren edozein fasetan, bai eta adostasuna ebaluatzeko prozedurak ere.

2. «Araua»: aitortutako normalizazio-erakunde batek onetsitako zehaztapen teknikoa, behin eta berriz edo etengabe aplikatzekoa, nahitaez bete beharrik ez dagoena eta kategoria hauetako batean sarturik dagoena:

a) «Nazioarteko araua»: Nazioarteko normalizazio-erakunde batek hartutako araua, jendearen eskura jarria.

b) «Europar araua»: Europako normalizazio-erakunde batek hartutako araua, jendearen eskura jarria.

c) «Arau nazionala»: Normalizazio-erakunde nazional batek hartutako araua, jendearen eskura jarria.

3. «Europar ebaluazio teknikoa»: Eraikuntzako produktu baten prestazioen ebaluazio dokumentatua, haren funtsezko ezaugarriei buruzkoa, Europako kasuan kasuko balioespen-agiriarekin bat datorrena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 305/2011 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua 12. puntuan definitzen den moduan.

4. «Zehaztapen tekniko komuna»: IKTen arloko zehaztapen teknikoa, 1025/2012 (EB) Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluen arabera prestatua.

5. «Erreferentzia teknikoa»: Europako normalizazio-erakundeek egindako edozein agiri, Europako arauetz bestelakoa, merkatuko beharren bilakaerari egokitutako prozeduren araberakoa.

126. artikulua. *Preskripzio teknikoak ezartzeko arauak.*

1. 123. eta 124. artikuluek aipatzen dituzten preskripzio teknikoek aukera emango diete enpresaburuei berdintasun-baldintzetan sar daitezten kontratazio-prozeduran, eta,

ondorioz, ezin izango diote justifikaziorik gabeko oztoporik jarri kontratazio publikoa lehiakideei zabaltzeari.

2. Eskatutako obrak, hornidurak edo zerbitzuak produzitzeko edo emateko prozesu edo metodo zehatzari buruzkoak izan ahalko dira preskripzio teknikoak, edo haien bizikloko beste fase bateko prozesu zehatz bati buruzkoak –148. artikuluan ezarritako definizioari jarraituz–, baita faktore horiek obren, horniduren eta zerbitzuen substantzia materialekoak ez direnean ere; betiere, kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute eta proportzionalak izan beharko dute haren balioarekiko edo helburuekiko.

3. Pertsona fisikoek erabiltzekoa den kontratazio orotarako, dela jendeak oro har erabiltzekoa, dela Administrazio Publiko kontratatzaileak erabiltzekoa, preskripzio teknikoak halako moduz idatzi beharko dira –behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik– non kontuan hartuko baitira bai desgaitasuna duten pertsonen buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, bai irisgarritasun unibertsalaren eta diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren irizpideak ere, termino horiek Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean duten definizioari jarraituz (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

Preskripzio teknikoak ezin badira irisgarritasun unibertsalaren eta diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren irizpideak kontuan hartuta definitu, behar bezala arrazoitu beharko da.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, Europar Batasunaren egintza juridiko baten bitartez irisgarritasunari buruz nahitaezko baldintzak jarrita baldin badaude, zehaztapen teknikoak arau horiei erreferentzia eginez definitu beharko dira, desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasunari edo erabiltzaile guztientzako diseinuari buruzko irizpideei dagokienez.

4. Kontratuaren objektuak ingurumenean eragiten badu edo eragin badezake, ingurumen-iraunkortasunaren eta -babesaren irizpideak aplikatuta definituko dira preskripzio teknikoak, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 3. eta 4. artikuluetan hurrenez hurren araututako definizioen eta printzipioen arabera.

5. Alde batera utzi gabe bete beharrekoak diren estatuko jarraibide edo erregelamendu teknikoak –Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak diren heinean–, preskripzio teknikoak ondorengo modu hauetako batean formulatuko dira:

a) Errendimenduaren edo betekizun funtzionalen arabera, horren barnean direla ingurumen-ezaugarriak, baldin eta parametroak behar bezain zehatzak badira lizitatzaleek kontratuaren objektua zehaztu ahal izateko eta kontratazio-organismoak kontratua adjudikatu ahal izateko;

b) Honako hauek aipatuz, hurrenkera honetan: Europako arauetatik Estatuko arauetara ekarritako zehaztapen teknikoak, Europako ebaluazio teknikoak, zehaztapen tekniko komunak, nazioarteko arauak, europar normalizazio-organismoek egindako erreferentzia teknikoak buruzko beste sistema batzuk; edo, aurreko horiek guztiak ezean, arau nazionalak, egokitasun teknikoari buruzko agiri nazionalak, edo obren proiektuari, kalkuluari eta obrak egiteari eta hornidurak erabiltzeari buruz egindako zehaztapen tekniko nazionalak, aipamen bakoitzari «edo baliokidea» aipamena gehituz;

c) Errendimenduaren edo betekizun funtzionalen arabera eta a) letran azaldutakoari jarraituz, b) letrako zehaztapenak aipatuz, errendimenduko baldintza horiekin edo betekizun funtzionalekin bat datoze-lako presuntzioa ezartzeko modu gisa;

d) Zenbait ezaugarritarako, b) letran aipatutako zehaztapen teknikoak aipatuz, eta, beste ezaugarri batzuetarako, a) letran aipatzen diren errendimendua eta betekizun funtzionalak aipatuz.

6. Kontratuaren objektua dela-eta bidezkoa denean izan ezik, preskripzio teknikoetan ezin izango da aipatu fabrikazio edo jatorri zehatzik, edo prozedura zehatzik enpresaburu jakin batek eskaintako produktu edo zerbitzuak ezaugarritzen dituenik, ez eta marka, patente edo mota zehatzik ere, edo jatorri edo produkzio jakinik ere, enpresa edo produktu zehatz batzuk faboratzeko edo baztertze-ko. Aipamen hori salbuespen gisa baimenduko



da, 5. apartatua aplikatuz kontratuaren objektuaren deskribapen behar bezain zehatz eta ulergarrikin ezin denean egin; halakoetan, «edo baliokidea» esapidea gehitu beharko zaio aipamenari.

7. Kontratazio-organoek, 5. apartatuaren a) letran aurreikusitako aukeraz baliatzen direnean –hau da, preskripzio teknikoak errendimendu-terminoetan edo betekizun funtzionalen terminoetan egiten dituztenean–, ezingo dute obren, horniduren edo zerbitzuen eskaintza bat errefusatu eskaintza hori baldin badator europar arau baten transposizioa egiten duen arau nazional batekin, Europako egokitasun teknikoari buruzko dokumentu batekin, zehaztapen tekniko komun batekin, nazioarteko arau batekin edo normalizaziorako erakunde europar batek landutako erreferentzia teknikoaren sistema batekin, eta zehaztapen horien xedea preskripzio teknikoek eskatutako errendimendu-baldintzak edo betekizun funtzionalen baldintzak ezartzea baldin bada; betiere, eskaintzan, lizitatuzaileek frogatu beharko dute, edozein bide egokiren bitartez –127. eta 128. artikuluetan aipatutako frogabideak barne–, arauaren arabera obrak, hornidurak edo zerbitzuak kontratazio-organoak ezarritako errendimendu-baldintzak edo betekizun funtzionalen baldintzak betetzen dituela.

8. Kontratazio-organoek, 5. apartatuaren b) letran aurreikusitako zehaztapen teknikoak aipatzeko aukeraz baliatzen direnean, ezingo dute eskaintza bat errefusatu horretarako oinarritzat hartuz eskaintako obra, hornidura edo zerbitzuak ez zaizkiela egokitzen aipatutako zehaztapen teknikoari, baldin eta lizitatuzaileak bere eskaintzan frogatzen badu, edozein bide egokiren bitartez –128. artikuluan aipatutako frogabideak barne–, proposatzen dituen konponbideek modu berean betetzen dituztela kasuko preskripzio teknikoetan eskatutako baldintzak.

127. artikulua. *Etiketak.*

1. Lege honen ondorioetarako, «etiketa» da kasuko obrek, produktuek, zerbitzuek, prozesuek edo prozedurek zenbait baldintza zehatz betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri.

2. Kontratazio-organoek, ezaugarri bereziak –ingurumen arlokoak, sozialak edo bestelakoak– dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean, berariazko etiketa bat eskatu ahal dute preskripzio teknikoetan, adjudikatzeko irizpideetan edo kontratua egikartzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa: etiketa sozial edo ingurumenekoak, nola baitira nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin edo genero-berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzako konbentzioak betetzea bermatzen dutenak. Halakoak eskatzeko, betiere, baldintza hauek guztiak bete beharko dira:

a) Etiketa lortzeko eskatutako baldintzak kontratuaren objektuarekin lotutako irizpideen ingurukoak izatea bakarrik, eta egokiak izatea objektu hori osatzen duten obren, horniduren edo zerbitzuen ezaugarriak definitzeko.

b) Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzen oinarria objektiboki egiaztatzen ahal diren irizpideak izatea, diskriminatzaileak ez direnak.

c) Etiketarako prozedura ireki eta garden baten arabera hartzea, zeinetan zerikusia duten alderdi guztiek parte hartzen ahal dute, hala nola gobernuko erakundeek, kontsumitzaileek, gizarte-solaskideek, fabrikatzaileek, banatzaileek eta gobernu kanpoko erakundeek.

d) Etiketarako interesdun guztien eskura egotea.

e) Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzak hirugarren batek jarriak izatea, hau da, enpresaburuak modu erabakigarrian ezin eragin diezaiokkeen batek jarriak.

f) Etiketari buruzko erreferentziek berrikuntza ez murriztea.

Etiketa batek 2. apartatuko b), c), d) eta e) letretako baldintzak betetzen dituztenean baina kontratuaren objektuarekin loturarik ez duten baldintzak ezartzen dituztenean, kontratazio-organoek ez dute eskatuko etiketa, baina, haren ordez, preskripzio teknikoak

etiketa horretako zehaztapen xeheen arabera definitzen ahalko dituzte, edo, hala badagokio, haren zenbait zatiren arabera, kontratuaren objektuarekin lotuta badaude eta objektu horren ezaugarriak definitzeko egokiak badira.

3. Berriazko etiketa bat eskatzen duten kontratazio-organismoek onartu beharko dituzte obrek, hornidurek edo zerbitzuek hura lortzeko eskatzen diren baldintzen baliokideak diren beste batzuk betetzen dituztela frogatzen duten etiketa guztiak.

Kontratazio-organismoak beste frogabide egoki batzuk onartuko ditu, 128. artikuluan aipatutakoak barne, kontratista izango denak eman beharreko obrek, hornidurek edo zerbitzuek berriaz eskatzen den etiketaren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko balio badute.

4. Kontratazio-organismoek, baldintza-agirietan ez badute esaten obrek, hornidurek eta zerbitzuek eskatzen diren baldintza guztiak bete behar dituztela etiketa bat lortzeko, adierazi beharko dute baldintza horietatik zeini buruz ari diren.

5. Preskripzio teknikoetan etiketa jakin bat adierazi arren, kontratazio-organismoak baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu beharra dauka beti zer ezaugarri eta baldintza ezarri nahi dituen, hau da, eskatutako etiketa zehatzarekin egiaztatu nahi diren ezaugarri eta baldintzak argi eta garbi zehazteko betebeharra dauka beti.

6. Baliokidetasuna frogatzeko karga, nolana ere, hautagaiak edo lizitatuak hartuko dute beren gain beti.

128. artikulua. *Froga-txostenak, ziurtatzea eta beste frogabide batzuk.*

1. Kontratazio-organismoek eskatzen ahalko dute operadore ekonomikoek froga-txosten bat aurkez dezaten, adostasuna ebaluatzeko erakunde batena, edo erakunde horrek emandako ziurtagiri bat, eskatutako preskripzio teknikoak, adjudikazio irizpideak edo kontratua egikaritzeko baldintzak betetzen dituztela frogatzeko.

Kontratazio-organismoek, adostasuna ebaluatzeko erakunde zehatz batek emandako ziurtagiriak aurkeztea eskatzen dutenean, adostasuna ebaluatzeko beste erakunde baliokide batzuek emandako ziurtagiriak ere onartu beharko dituzte.

Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kalibratze-, saiakuntza-, ziurtatze- eta ikuskatze-lanak betetzen dituzten eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 765/2008 (EE) Erregelamenduaren arabera egiaztatuta dauden horiek dira «adostasuna ebaluatzeko erakundeak».

2. Modu osagarrian, kontratazio-organismoek beste frogabide egoki batzuk ere onartu beharko dituzte, lehen apartatuan aurreikusitakoak ez direnak –fabrikatzailearen txosten tekniko bat, esate baterako–, kasuan kasuko enpresaburuak ez baditu eskura eta ezin baditu jarritako epeetan lortu ziurtagiri edo froga-txostenak eta horiek eskuratzetik ez izateko arrazoia ezin bazaio egotzi berari. Beste frogabide horiek, betiere, frogatu behar dute enpresaburuak eman behar dituen obrek, hornidurek edo zerbitzuek preskripzio teknikoak, adjudikazio-irizpideak edo kontratua egikaritzeko baldintzak betetzen dituztela, kasuan kasukoa.

129. artikulua. *Fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei lotutako betebeharrari eta desgaitasuna duten pertsonen ehuneko jakin bat kontratatzeke betebeharrari buruzko informazioa.*

1. Kontratazio-organismoak baldintza-agirian adieraz dezake zer organismoetara jo behar duten hautagaiak edo lizitatuak fiskalitateari edo ingurumena babesteari buruz dituzten betebeharren gaineko informazioa lortzeko, edo enplegua babesteari, genero-berdintasunari, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeke betebeharrari buruz indarrean dauden xedapenen gaineko informazioa lortzeko. Betebehar horiek obran egindako lanetan aplikatu beharko dira, edo kontratua egikaritzean emandako zerbitzuetan.

2. 1. apartatuan aipatzen den informazioa ematen denean, kontratazio-organismoak lizitatuak edo kontratuak adjudikatzeke prozedura batean parte hartzen duten hautagaiak

eskatuko die adieraz dezatela honako arlo hauetan indarrean dauden xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak kontuan hartu dituztela eskaintzak egitean: fiskalitatea; ingurumena babestea; enplegua babestea; genero-berdintasuna; lan-baldintzak; lan-arriskuen prebentzioa, eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, bai eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzea.

Nolanahi ere, horrek ez du kentzen ezohiko balioak edo balio itxuragabeak dituzten eskaintzak egiaztatzeari dagokionez 149. artikuluan ezarritakoa aplikatzea.

### 130. artikulua. *Lan-kontratuetan subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa.*

1. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektibo batek adjudikaziodunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek lizitatzaileei, baldintza-agirian bertan, informazioa eman beharko diete subrogazioaren eraginpeko lan-kontratuaren baldintzei buruz; hain zuzen ere, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egiteko beharrezkoa den informazioa. Halaber, jasota utzi beharko da artikulua honetan ezarritakoa betetzeko ematen dela informazio hori.

Horretarako, adjudikatu beharreko kontratuaren objektu den prestazioa ematen ari den enpresak, subrogazioak eragiten dien langileak enplegatzen dituenak, kontratazio-organoaren esku jarri beharko du informazio hori, hark eskatutakoan. Informazio horren atal gisa, nolanahi ere, subrogazioaren xede diren langileen zerrendak eman beharko dira, honako hauek adieraziz: aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta langile bakoitzaren kategoriari, kontratu motari, lanaldiari, antzinasun-datari, kontratuaren mugaeguneratzeari eta urteko soldata gordinari buruzko xehetasunak, bai eta indarrean diren itun guztiak ere, subrogazioaren eraginpeko langileei aplikatu behar zaizkienak. Aurreko kontratistak emandako informazioa eskuratu beharko dio Administrazioak enpresaburu berriari.

2. Artikulu honetan langileen subrogazioa dela-eta ezarritakoa berdin aplikatuko zaie kooperatibetako bazkide diren langileei, halakoak subrogazioaren xede den zerbitzuari edo jarduerari atxikita daudenean.

Adjudikatzekoa den kontratuaren objektua den prestazioa ematen jardun duen enpresa enplegu-zentro berezi bat denean, adjudikaziodun suertatzen den enpresa behartuta egongo da aipatutako kontratua egikaritzu lanean aritzen diren pertsona desgaitu guztien enplegatzaile gisa subrogatzeko.

3. Administrazio publiko batek erabakitzen badu ordura arte operadore ekonomiko batek ematen jardun duen zerbitzu bat berak zuzenean ematea, zerbitzu hori ematen ziharduten langileak direla-eta subrogatu beharko du administrazio horrek, legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek horrela ezartzen baldin badu.

4. Administrazio-klausula partikularren agiriak nahitaez aurreikusiko du kontratistari zigorrak ezartzea artikulua honetan ezarritako betebeharra betetzen ez den kasuetarako, 192. artikuluan ezarritako mugen barruan.

5. Subrogazioa eginda lan-kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak zuzeneko akzioa erabili ahalko du aurreko kontratistaren aurka.

6. Era berean, eta alde batera utzi gabe hala badagokio Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak –urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak– 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzea, administrazio-klausula partikularren agirian beti aurreikusi beharko da subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioen erantzule izateko kontratistak duen betebeharra,, baita kontratua suntsitzen denean eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituen ere; betebeharrak ez da inola ere izango kontratista berriarena. Kasu horretan, Administrazioak, aipatutako soldatak ez direla ordaindu egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru kopuruak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.

*2. atala. Administrazio publikoen kontratuak adjudikatzea**1. azpiatala. Arau orokorrak**131. artikulua. Adjudikazio-prozedura.*

1. Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuak atal honetako arauen arabera adjudikatuko dira.

2. Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuetan; izan ere, horiek azken prozedura horren arabera adjudikatuko dira.

168. artikuluan ezarritako kasuetan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko da; 167. artikuluan aurreikusitakoetan, lehia-elkarrizketara edo lizitazio negoziatura jo ahalko da, eta, 177. artikuluan aipatutakoetan, azkenik, berrikuntzarako elkartzeko prozedura erabili ahalko da.

3. Kontratu txikiak zuzenean adjudikatu ahalko dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi adjudikatu ahalko zaizkio, 118. artikuluan ezarritako baldintzak betez betiere.

4. Osasun-sorospeneko prestazioa urgentzia-kasuetan emateari buruzko kontratuetan, 30.000 euroko balio zenbatetsitik beherakoak direnean, ez dira aplikatuko lege honetan kontratuak prestatzeari eta adjudikatzeari buruz ezarritako xedapenak.

Kontratazioa egiteko, kasu horietan nahikoa izango da, urgentzia justifikatzeaz gainera, prestazioaren xedea zehaztea, sorospen horren truke ordaindu beharreko prezioa finkatzea eta kontratazio-organoak zerbitzu hori emango duen enpresa izendatzea.

5. Proiektuen lehiaketetan, atal honen 7. azpiatalean araututako prozedurari jarraituko zaio.

*132. artikulua. Berdintasunaren, gardentasunaren eta lehia askearen printzipioak.*

1. Kontratazio-organoek berdintasunez tratatuko dituzte lizitatzailleak eta hautagaiak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute.

Inolaz ere ezingo da mugatu parte-hartzea forma juridikoarengatik edo kontratazioko irabazi asmoarengatik, ez bada laugarren xedapen gehigarrian jasotako erakundeentzat erreserbatutako kontratuetan.

2. Kontratazioa ez da antolatuko publizitate-baldintzak edo kasuan kasuko adjudikazio-prozedurari dagozkionak saihesteko asmoarekin, ez eta lehia artifizialki murrizteko asmoarekin ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede eginez nahiz kalte eginez.

3. Kontratazio-organoek une oro zainduko dute adjudikazio-prozedura, lehia askea babeste aldera. Hartara, bai kontratazio-organoek, bai Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak edo, kasua bada, autonomia-erkidegoetako kontratazio publikoaren arloko aholku-organoek edo haien baliokideek, eta lege honen 44. artikuluan aipatzen den errekurtsio berezia ebazteko eskumena daukaten organoek, beren eginkizunak betetzean ezagutzen duten zernahi gertakari jakinarazi beharko diete Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, kasua bada, agintari autonomiko eskudunei, baldin eta gertakari horiek lehiaren babesari buruzko legeria hausten badute. Bereziki, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboen zantzu oro edo lizitatzailen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jarduera oro jakinaraziko dute, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea izan badaiteke.

*133. artikulua. Konfidentzialtasuna.*

1. Kontratazio-organoek ezingo dute ezagutarazi enpresaburuek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jotako informazioa, non eta besterik ez den xedatzen

informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legedian eta adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei eta lizitatzaillei eman beharreko informazioari buruz lege honetan bildutako xedapenetan. Konfidentziasuna, besteak beste, sekretu tekniko edo merkataritzakoetan, eskaintzen alderdi konfidentzietan eta bere edukia dela-eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen gainerako edozein informaziotan gorde beharko da, dela lizitazio-prozesu horretan, dela geroko gainerako prozesuetan.

Kontratazio-organoak eta haren mendeko zerbitzuek konfidentziasuna dela-eta duten betebeharrak ezingo da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txostenen eta dokumentazioaren eduki osora ere. Soilik, zabalkunde murriztua duten dokumentuetara hedatu ahalko da, eta ez, inolaz ere ez, publikoki eskuragarriak diren dokumentuetara.

Konfidentziasunaren betebeharrak ezingo du eragotzi, ezta ere, egindako kontratuen atal ez-konfidentzialen zabalkunde publikoa; besteak beste, kasua bada, likidazioa, obra egiteko amaierako epeak, kontratatu eta azpikontratatu diren enpresak eta, nolahi ere, eskaintzaren funtsezko atalak eta kontratuaren geroztiko aldaketak, betiere une oro errespetatuz Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa.

2. Kontratatutak gorde beharko du kontratua egikaritzean eskura dezakeen informazioaren konfidentziasuna, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio informazio horri, edo, informazio mota dela-eta, halakotzat jo beharrekoa bada. Betebehar hori informazioaren berri izan eta bost urtez egongo da indarrean, non eta kontratuak edo baldintza-agiriez ez duten epe luzeagoa ezartzen; epe hori, nolahi ere, zehatza eta denboran mugatua izango da.

#### 134. artikulua. *Aurretzako informazioaren iragarkia.*

1. Kontratazio-organoek aurretzako informazioaren iragarki bat argitaratu ahalko dute, erregulazio harmonizatukoak izan eta artikulua honen 5. apartatuan aipatzen den epean adjudikatu asmo dituzten obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak ezagutzera emateko.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren aurretzako informazioaren iragarkiak III. eranskinean ezarritako edukiarekin argitaratuko dira. Kontratazio-organoak aukeratu ahalko du non argitaratu: *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu, ala kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean, 63. artikulua aipatzen duen horretan argitaratu, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman nahiz maila autonomikoko informazio-zerbitzu baliokidean ostatatuta dagoenean.

3. Aurretzako informazioaren iragarkiak Europar Batasunaren Argitalpenen Bulegora igorriko dira, edo, bestela, kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko dira, ahalik eta lasterren, behin kontratu hauek egitea aurreikusten duen programa baimenduz gero obra-kontratuen kasuan eta behin aurrekontu-ekitaldia hasiz gero gainerako kontratu moten kasuan.

Nolanahi ere, botere adjudikatzaileek modua eduki beharko dute aurretzako informazioaren iragarkia zein egunetan igorri zuten demostratzeko.

Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoak botere adjudikatzaileari berretsiko dio iragarkia jaso duela eta igorritako informazioa argitaratu egin dela, eta argitaratze horren eguna adieraziko dio. Berrespen hori informazioa argitaratu izanaren frogaz izango da.

4. Aurretzako informazioaren iragarkia, *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratzen bada, maila nazionalean ez da lehenago argitaratuko. Halere, nazio mailan argitaratu ahalko da baldin eta Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoak iragarkia jaso izana berretsi eta berrogeita zortzi orduren buruan botere adjudikatzaileek ez badute jaso hura argitaratu izanaren jakinarazpena.

5. Aurretzako informazioaren iragarkiaren argitalpena –lehenengo apartatuak aipatua– kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean egitekoa bada, organo horrek bere profilean argitaratzeko iragarkia igorri beharko dio Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoari.

Kontratatzailearen profilean, aurretiatzko informazioaren iragarkia ez da argitaratuko esandako moduan argitaratuko dela dioen iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoari igorri baino lehen, eta igorpen horren eguna adieraziko du.

6. Aurretiatzko informazioaren iragarkiak estalitako aldia gehienez ere 12 hilekoa izango da, iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora igortzen denetik kontatzen hasita, edo, kasua bada, kontratatzailearen profilean argitaratzeko iragarkia –aurreko bosgarren apartatuak aipatzen duena– bulego horri berari igortzen zaion egunetik kontatzen hasita.

Hala eta guztiz ere, objektutzat IV. eranskineko zerbitzu berezietatik bat daukaten zerbitzu-kontratuen kasuan, aurretiatzko informazioaren iragarkiak 12 hilabetetik gorako epea hartu ahalko du.

7. Artikulu honen lehenengo apartatuak aipatzen duen aldez aurreko iragarkia 156. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta 164. artikulua 1. apartatuan ezarritako baldintzen arabera egiten bada, laburtu egingo da prozedura irekietan eta murriztuetan proposamenak aurkezteko epea, arau horietan ezarritakoari jarraituz.

#### 135. artikulua. *Lizitazio-iragarkia.*

1. Administrazio publikoen kontratuen adjudikazioa lizitzatzeko iragarkia, publizaterik gabeko prozedura negoziatuetan izan ezik, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Estatuko Administrazio Orokorra edo Administrazio Publikoaren izaera duten eta hari lotutako dauden erakundeek egindako kontratuetan, lizitazio-iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* ere argitaratuko da.

Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, gainera, *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko da lizitazioa, eta botere adjudikatzaileek lizitazio-iragarkia zein egunetan igorri duten demostratzeko modua eduki beharko dute.

Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoak botere adjudikatzaileari berretsiko dio iragarkia jaso duela eta igorritako informazioa argitaratu egin dela, eta argitaratze horren data adieraziko dio. Berrespen hori lizitazioa argitaratu izanaren froga izango da.

2. Kontratazio-organoari komenigarri iruditzen zaionean, erregulazio harmonizatukoak ez diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak adjudikatzeko prozedurak *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* ere iragarri ahalko dira.

3. Lizitazio-iragarkiek eta aurretiatzko informazioaren iragarkiak, hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituenak, ez dira argitaratutako aurreko lehenengo apartatuaren lehen paragrafoan adierazitako tokietan *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu baino lehen, baldin eta aldizkari ofizial horretan argitaratzekoak badira, eta igorpen horren data adierazi beharko dute; izan ere, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek espedientean horri buruzko behar besteko froga bat utzi beharko dute, eta ezingo dute jaso iragarki horretan jasotakoez beste jarraibiderik. Hala eta guztiz ere, beti argitaratu ahalko dira baldin eta kontratazio-organoak argitalpenaren jakinarazpenik jaso ez badu igorritako iragarkia jaso izanaren berrespena izan eta 48 orduren buruan.

4. Kontratuen lizitazio-iragarkiek III. eranskineko informazioa izango dute.

5. IV. eranskineko zerbitzu berezien emakidarako kontratuetan, lizitazioaren deialdia, nolana ere, hogeita hamasei xedapen gehigarriak aipatzen duen aurretiatzko informazioaren iragarkiaren bitartez egingo da.

#### 136. artikulua. *Parte hartzeko eskaerak eta proposamenak aurkezteko epeak.*

1. Kontratazio-organoek ezarriko dituzte eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak, kontuan izanik horiek prestatzeko zenbat denbora behar den, kontratuaren zailtasunaren arabera, eta lege honetan ezarritako gutxienezko epeak errespetatuz betiere.

2. Kontratazio-organoek luzatu egin beharko dute parte hartzeko eskaintzak eta eskaerak aurkezteko hasierako epea, halako moduz non lizitazioan interesa izan dezaketen



guztiek behar duten informazio guztia eskuratu ahalko duten eskaintzak eta eskaerak egiteko, baldin eta kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek edozer dela-eta ez badiote erantzun interesdunak behar den denborarekin egindako informazio-errekerimenduari 138. artikulua 3. apartatua adierazitako moduan.

Kausa hori ez da aplikatuko, eskatutako informazio osagarriak garrantzirik ez badu balio duten eskaintzak edo eskaerak egiteko.

Nolanahi ere, honako hau joko da informazio garrantzitsutzat artikulua honen ondorioetarako:

- a) Lizitatzailerak bati transmititutako informazio gehigarri oro.
- b) Kontratazioaren baldintza-agiri eta dokumentuetan aipatutako elementuei lotutako informazio oro.

Kontratazioaren baldintza-agirietan aldaketa nabarmenak egiten direnean ere, kontratazio-organoek luzatu egin beharko dute eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko hasierako epea, 122.1 eta 124. artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta.

Nolanahi ere, honako hauetan eragiten dutenak hartuko dira baldintza-agirien aldaketa adierazgarritzat:

- a) Eskatutako sailkapena.
- b) Kontratuaren zenbatekoa eta epea.
- c) Adjudikaziodunaren betebeharrak.
- d) Kontratuaren objektua aldatzea edo mudatzea.

Luzapenaren iraupena, nolanahi ere, interesdunak eskatutako informazioaren garrantziaren proportziokoa izango da.

3. Proposamenak lekuan bertan ikustaldi bat egin ondoren edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa «in situ» kontsultatzu soilik egin daitezkeenean, halako moduz luzatuko dira eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko lege honek ezartzen dituen gutxieneko epeak, non ukitutako interesdun guztiek haiek prestatzeko behar duten informazio guztia ezagutu ahalko duten.

4. Proposamenak aurkezteak edo haiek aurkezteko behar den dokumentazioa euskarri elektronikoan jasotzeak inongo prozeduratan ezingo du berekin ekarri lizitatzailerari inongo diru kopururik eskatzea.

137. artikulua. *Epeak laburtzea, izapidea presakoa bada.*

Kontratazio-espeditzea presaz izapidetu beharrekotzat jo bada, atal honetan ezarritako epeak 119. artikulua 2. paragrafoko b) letran eta lege honen gainerako xedapenetan aurreikusitako eran laburtuko dira.

138. artikulua. *Interesdunei informazioa ematea.*

1. Kontratazio-organoek kontratatzailearen profilaren bitartez jarriko dituzte eskura baldintza-agiriak eta gainerako informazio osagarria bitarteko elektronikoetatik; haietarako sarbide hori librea, zuzena, osoa eta doakoa izango da, eta lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik ikusi ahalko dira, edo, bestela, gonbidapena aukeratutako hautagaiei igortzen zaien egunetik.

2. Salbuespen gisa, ondoren adieraziko diren kasuetan, kontratazio-organoek elektronikoak ez diren baliabideez baliatuz jarri ahal izango dituzte eskura baldintza-agiriak eta lizitazioari buruzko gainerako dokumentazio osagarria. Kasu horretan, lizitazio-iragarkiak edo aukeratutako hautagaien gonbidapenak inguruabar horretaz ohartaraziko dute; eta proposamenak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bost egunetz luzatuko da, salbu eta espeditzearen presako izapidetzea dela-eta 119. artikulua aipatzen duen kasuan.

Honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean egongo da justifikatuta baldintza-agirietarako sarbidea eta lizitazio gainerako dokumentazio osagarriarako sarbidea elektronikoa ez izatea:

- a) Sarbide elektronikoa eragozten duten inguruabar teknikoak gertatzen direnean, hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatutako moduan.
- b) Konfidentzialtasun-arrazoiak daudenean, 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.
- c) Obra- eta zerbitzu-emakiden kasuan, aparteko segurtasun-arrazoiak daudenean.

3. Kontratazio-organismoek lizitazio-prozeduran interesdun diren guztiei emango diete, eskaintzak aurkezteko finkatutako epea amaitu baino 6 egun lehenago beranduenez, baldintza-agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria; horretarako, proposamenak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea iragan baino 12 egun lehenago eskatu behar dute informazio hori interesdunek, salbu eta lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan beste eperen bat ezartzen denean. Urgentzetzat sailkatu diren espedienteetan, eskaintzak aurkezteko finkatuta dagoen epea amaitu aurreko sei eguneko epea, beranduenez, 4 eguneko izango da erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, baldin eta prozedura irekiaren eta murriztuaren bidez adjudikatzen badira.

Eskatutakoa baldintza-agirietan edo gainerako dokumentazioan ezarritakoari buruzko argitasunak direnean eta administrazio-klausula partikularren agiriak hala ezartzen duenean, erantzunak lotesleak izango dira, eta, kasu horretan, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira, lizitazio-prozeduran berdintasuna eta konkurrentzia bermatzeko moduan.

139. artikulua. *Interesdunen proposamenak.*

1. Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta mahaiari eta kontratazio-organismoari baimena ematea ere Sektore Publikoko Lizitazioaren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko ere.

2. Proposamenak isilpekoak izango dira, eta neurriak hartu beharko dira proposamenak ireki arte isilpean gordeko direla bermatzeko, hargatik eragotzi gabe 143., 175. eta 179. artikuluek enkante elektronikoa batean, lehia-elkarrizketa batean edo berrikuntzarako elkartearen prozedura batean parte hartzen dutenei eman beharreko informazioari buruz ezarritakoa.

3. Lizitazio bakoitzak proposamen bakar bat baino ezingo du aurkeztu, hargatik eragotzi gabe aldaerak onartzeari buruz lege honen 142. artikuluan ezarritakoa eta enkante elektronikoa prezio edo balio berriak aurkezteari buruz 143. artikuluan ezarritakoa. Halaber, ezingo du proposamenik aurkeztu beste lizitazio bakoitzekin batera aldi baterako elkarte eginez, aurretik bakarka aurkeztu badu, eta ezingo da egon aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

4. Proposamenean, aparteko partida batean adierazi beharko da balio erantsiaren gaineko zergaren izenean jasanarazi beharreko zenbatekoa.

140. artikulua. *Aurrez bete beharreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak aurkeztea.*

1. Aldez aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapenak aurkezteari dagokionez, arau hauek bete beharko dira:

a) Prozedura irekiaren bidez egindako proposamenekin batera, erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztu beharko da, Europako kontratazio agiri bakarraren formularioari

egokituko zaiona, hurrengo artikuluan adierazitakoari jarraituz. Adierazpenak sinatuta egon beharko du eta behar den identifikazioa izango du, eta hartan honako hau adieraziko du lizitatuzaileak:

1.a Sozietatea balio duen eran eratuta dagoela eta bere xede sozialaren arabera lizitaziora aurkeztu ahal dela, eta adierazpenaren sinatzaileak behar den ordezkartza duela proposamena aurkezteko eta hura ordezkatzeko.

2.a Behar den sailkapena duela, hala badagokio, edo eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, baldintza-agiriak ezartzen dituen baldintzetan, hurrengo artikulua aipatzen duen Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

3.a Ez duela ez berez, ez hedapenez, lege honen 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, kontratatzeke debekurik.

4.a Posta elektronikoko helbide bat izendatzea, zeinean jakinarazpenak egingo baitira; helbide hori hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera «gaitu» beharko da, kontratazio-organoak jakinarazpenak haren bitartez egiteko hautua egin duen kasuetan. Inguruabar hori administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da.

b) Prozedura murriztuetan, lizitazio-prozedura negoziatuan, lehia-elkarriketaren prozeduran eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran parte hartzeko eskaeren kasuan, aurreko a) letrak aipatzen duen erantzukizunpeko deklarazioak jaso egingo du, gainera, lege honen 162. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako baldintza objektiboak betetzen direla, baldintza-agiriak ezartzen dituen baldintzetan, hurrengo artikulua aipatzen duen Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

c) Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimenera eta baliabideetara jotzen duen kasuetan, lege honen 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztu beharko du. Deklarazio horretan, kasu hauetarako behar den informazioa jasoko da, hurrengo artikulua aipatzen duen Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuari jarraituz.

75. artikuluan 2. apartatuak aipatzen duen konpromisoa artikuluan honen hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera aurkeztuko da.

d) Prozeduran behin-behineko bermea eratzeko eskatzen den guztietan, eratu izana frogatzen duen agiria aurkeztuko da.

e) Enpresaburu batzuk aldi baterako enpresa-elkarte batean bildurik aurkeztzen diren kasu guztietan, enpresa parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztuko da. Deklarazio horretan, kasu hauetan Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan –hurrengo artikuluan aipatzen den horretan– eskatzen den informazioa jasoko da.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen adierazpenaz edo adierazpenez gainera, aldi baterako enpresa-elkartean parte diren enpresaburuak elkarre hori eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko da, lege honen 69. artikuluan 3. apartatuan eskatutakoari jarraituz.

f) Aurreko a) letran aipatzen diren erantzukizunpeko deklarazioaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian egikaritzekoa baldin bada, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta kasua suertatuko balitz lizitatuzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo lioketela jakinaraziko dute bertan.

g) Baldintza-agiriak kontratuaren objektua sortatzen banatzea aurreikusten duenean, eskatzen diren ekonomia- eta finantza-kaudimenerako edo kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak sortatik sortara aldatzen badira, kaudimen-betekizun berak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzari edo sorta multzo bakoitzari buruzko erantzukizunpeko deklarazio bana aurkeztuko da.

2. Administrazio-klausula partikularren agiriak edo deskripzio-agiriak hurrengo artikuluan aipatzen diren Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioak jasotzen dituzenez beste inguruabar batzuk egiaztatzea eskatzen dutenean lege honi jarraituz, halakoak egiaztatzeke modua adierazi beharko dute dokumentu horiek.

3. Kontratazio-organoak edo -mahaiak egiaztagiri guztiak edo haietako batzuk aurkezteko eskatu ahalko diete hautagaiei edo lizitatzailerei, baldin eta uste badute arazoizko zalantzak daudela adierazpena indarrean egoteari buruz edo haren fidagarritasunari buruz, hori prozedura egoki garatzeko beharrezkoa denean eta, nolana ere, kontratua adjudikatu baino lehen.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu baten datu-base nazional batean ageri denean –esate baterako, enpresaren espediente birtual batean, dokumentuen biltegitratze elektronikorako sistema batean edo aurrekalifikaziorako sistema batean–, eta horiek organo horietarako doan eskuragarri daudenean, enpresaburuak ez du izango aipatutako tokietan inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo dokumentu-frogarik aurkezteko betebeharririk.

4. Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatze debekuei buruz aurreko apartatueta aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

#### 141. artikulua. *Erantzukizunpeko deklarazioa eta bestelako dokumentazioa.*

1. Kontratazio-organoek, erantzukizunpeko deklarazioa aurkezteko betebeharra adieraztearekin batera, deklarazio hura egiteko eredu ere jasoko dute baldintza-agirian. Baldintza-agiriak jasotzen duen ereduak Europar Batasunean onetsitako Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioari jarraituko dio, alde batera utzi gabe 159. artikulua 4. apartatuko c) letran ezarritakoa.

2. Kontratazio-mahaiaren esku-hartzea ezartzen den kasuetan, hark erantzukizunpeko deklarazioa kalifikatuko du, bai eta aurreko artikuluan aipatzen den dokumentazioa ere.

Hark, zuzentzekoak diren akatsak atzematen baditu, hiru egun emango dizkio enpresaburuari haiek zuzen ditzan.

#### 142. artikulua. *Aldaeren onarpena.*

1. Adjudikazioan diruaz besteko irizpideak ere kontuan izan behar direnean, kontratazio-organoak kontuan hartu ahalko ditu lizitatzailerek aurkeztutako aldaerak, baldin eta baldintza-agirietan aldaerak aurreikusten badira. Haien gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak eta kontratuaren objektuarekiko behar duten lotura adierazten direnean iritziko zaio baldintza hori betetzen dela.

2. Kontratuaren lizitazio-iragarkian jakinaraziko da lizitatzailerek aldaerak aurkezteko aukera dutela, eta zer elementuri buruz eta zer baldintzatan aurkez daitezkeen zehaztuko da.

Onar daitezkeen aldaerei buruzko zehaztapenak hauei buruzkoak izan daitezke: kontratuaren objektua diren ondasun, obra edo zerbitzuek eduki ditzaketan funtzionaltasun jakin batzuei buruzkoak, edo beharrian jakin batzuk egoki betetzeari buruzkoak.

3. Hornidura- edo zerbitzu-kontratuak adjudikatzeko prozeduretan, aldaerak aurkeztea baimendu duten kontratazio-organoek ezingo dute haietako bat ezetsi arrazoi bakar honengatik: aldaera aukeratuz gero hornidura-kontratua zerbitzu-kontratu bihurtzea ekartzea, edo zerbitzu-kontratua hornidura-kontratu.

#### 143. artikulua. *Enkante elektronikoa.*

1. Kontratua adjudikatzeko, enkante elektronikoa egin ahalko da, errepikapeneko prozesu elektronikoko moduan antolatuta. Eskaintzen lehen balorazio osoa egin ondoren egiten da enkante elektronikoa, prezio hobeak aurkezteko edo eskaintzen elementu jakin batzuetan balio erlatibo berriak aurkezteko (hartara eskaintzak osorik hobetuz); prozesu hori eskaintzak ebaluazio-metodo automatizatuen bidez sailkatzeko bide ematen duen dispositibo elektronikoko batean oinarrituko da, eta zaindu beharko da dispositibo elektronikoko horrek sarbide ez-baztertzaila eta guztion eskura dagoena ahalbidetzen duela, bai eta enkante-prozesuko parte-hartze guztien erregistro aldaezina ere.

2. Enkante elektronikoa erabili ahalko da prozedura irekietan, prozedura murriztuetan eta negoziazioa duten lizitazioetan, baldin eta adjudikatu beharreko kontratuaren zehaztapenak xehetasun osoz ezar badaitezke lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan eta prozeduraren xede diren prestazioek izaera intelektuala ez badute, ingeniariaritzako, aholkularitzako edo arkitekturako zerbitzuetan gertatzen den bezala. Enkante elektronikoa ezin dira gehiegikeriaz erabili, ezin dute lehia eragotzi, mugatu edo faltsutu, ez eta kontratuaren objektua aldatu ere.

3. Enkante elektronikoa honako irizpide hauetako batean oinarrituko da:

- a) soilik prezioetan, kontratua soilik prezioari erreparatuz adjudikatzen denean;
- b) prezioetan eta eskaintzako elementu objektiboen balio berrietan, kuantifikagarriak direnean eta zenbateko edo ehunekoetan adieraz daitezkeenean, betiere kontratua adjudikazio-irizpide batean baino gehiagotan oinarrituta adjudikatzen denean.

4. Enkante elektronikoa baliatzea erabakitzen duten kontratazio-organismoek lizitazio-iragarkian adierazi beharko dute, eta baldintza-agirian honako informazio hau eman beharko dute gutxienez:

- a) Enkante elektronikoa aipatzen diren balioak zer elementu objektibori buruzkoak diren.
- b) Hala badagokio, aurkez daitezkeen balioen mugak, kontratuaren objektuari buruzko zehaztapenetan jasotakoaren arabera.
- c) Enkante elektronikoa zer informazio jarriko den lizitatzaileren eskura, eta, hala dagokionean, zer unetan emango den.
- d) Enkantea nola egingo den.
- e) Lizitatzailerek zer baldintzaren arabera eskain dezaketzen gehiago, eta, zehazki, kasuan-kasuan, eskaintza bakoitzerako eskatuko diren gutxienerako hobekuntzak.
- f) Erabilitako dispositibo elektronikoa eta konexioaren modalitate eta espezifikazio teknikoak.

5. Enkante elektronikoa egin baino lehen, kontratazio-organismoak eskaintzen lehen ebaluazio osoa egingo du, adjudikazio-irizpideen arabera, eta, ondoren, eskaintza onargarriak aurkeztu dituzten lizitatzaille guztiei, denei batera, bitarteko elektronikoa erabilia, gonbidapena egingo die enkante elektronikoa parte har dezaten.

Eskaintzak onargarritzat jotzeko, baztertu ez den eta hautapen-irizpideak betetzen dituen lizitatzaille batek aurkeztu behar ditu, eta bat etorri behar dute zehaztapen teknikoekin, irregularrak, onartezinak edo desegokiak izan gabe, lege honen 167. eta 168. artikuluetan ezarritako moduan.

6. Gonbidapen horretan, erabilitako dispositibo elektronikoa konektatu ahal izateko beharrezko den informazio guztia jasoko da, eta enkante elektronikoa zer egun eta ordutan hasiko den zehaztuko da.

Halaber, gonbidapenean adieraziko da zein den lizitatzaileren kasuko eskaintzaren ebaluazio osoaren emaitza, eta zer formula matematiko erabiliko den eskaintzen birsailkapen automatikoa egiteko prezio berrien arabera, beherantz berrikusi direnean, edo eskaintza hobetze aldera aurkezten diren balio berrien arabera.

Ekonomikoki aldekoena den eskaintza soilik prezioan oinarrituta erabakitzen den kasuan izan ezik, formula horrek ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko ezarritako irizpide guztien haztapena jasoko du, lizitazio-iragarkian edo hasiera batean aukeratutako hautagaiei igorritako gonbidapenean eta baldintza-agirian adierazi bezala, eta, horretarako, balizko balio-tarteak balio zehatz batekin adierazi beharko dira alde zurretik.

Aldaerak aurkezteko aukera baimentzen den kasuetan, horietako bakoitzarentzako formula bat emango da.

7. Gonbidapenak igortzen direnetik enkante elektronikoa hasi bitartean, gutxienez, bi egun baliodun igaro behar dira.

8. Enkante elektronikoa ondoz ondoko hainbat fasetan egin daiteke.

Enkantearen fase bakoitzean, eta etengabe eta berehalakoan, lizitzaileei une oro bakoitzaren sailkapenaren berri izateko informazioa emango zaie, gutxienez.

Horrez gain, gainerako lizitzaileek aurkeztutako prezio edo balioei buruzko datuak eman ahalko dira, baldin eta lizitazioa arautzen duen baldintza-agirian hala jasota badago; halaber, enkantearen fase horretan zenbat lizitzaile parte hartzen ari diren adierazi ahalko da, inolaz ere haien nortasunaren berri eman gabe.

9. Enkantea ixteko, ondorengo irizpide hauetako bati edo batzuei jarraituko zaie:

a) Egun eta ordu jakin bat ezartzea; enkantean parte hartzeko gonbidapenean zehaztu beharko dira.

b) Gutxienezko hobekuntzak egiteko ezarritako baldintzak betetzen dituen prezio berririk edo balio berririk ez aurkeztea.

Erreferentzia hori erabiltzen bada, enkantean parte hartzeko gonbidapenean zehaztuko da zer epe igaro behar den azken eskaintza jasotzen denetik enkantea amaitutzat eman arte.

c) Enkantean parte hartzeko gonbidapenean ezarritako fase kopurua amaitzea. Enkantea irizpide hau aplikatuz amaitu behar bada, enkantean parte hartzeko gonbidapenean fase bakoitzean bete beharreko egutegia adieraziko da.

10. Behin enkante elektronikoa amaituta, kontratua 150. artikuluan ezarritakoaren arabera adjudikatuko da, emaitzak kontuan hartuta.

11. Ez dira enkante elektronikoko bidez adjudikatuko objektutzat elikagaien kalitatearekin zerikusia duen zerbait daukaten kontratuak.

144. artikulua. *Prozedurako ondorengotza.*

Bat egiteko, zatitzeko edo enpresaren ondarea edo jarduera-adar bat eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada prozedura izapidetzen den bitartean eta kontratua egin baino lehen, sozietate bereganatzailea, bat-egitearen emaitza dena, zatiketaren onuraduna dena edo enpresa-ondarearen edo jarduera-adarraren eskuratzzailea izango da enpresa lizitzailearen edo hautagaiaren ondorengoa prozeduran, baldin eta horretarako gaitasuna badu eta kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimena nahiz sailkapena egiaztatzen baditu, adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula partikularren agirian eskatutako baldintzak beteta.

145. artikulua. *Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide motak.*

1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Espedientean alde zuzenetik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera adjudikatu ahalko dira kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta; esate baterako, 148. artikulua arabera bizi-zikloaren kostuaren kalkulua erabiliz.

2. Kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboaren arabera ebaluatuko da.

Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikulua honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

1.a Kalitatea –balio teknikoa barne–, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak.

Ingurumen-baldintzak, besteak beste, honako hauei buruzkoak izan ahalko dira: berotegi-efektuko gasen jaulkipena gutxitzea, aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurriak erabiltzea eta kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietatik datorren energia



erabiltzea, eta kontratua egikaritzeak uki ditzakeen baliabide naturalei eustea edo haiek hobetzea.

Kontratuaren ezaugarri sozialak, besteak beste, honako xede hauei buruzkoak izango dira: desgaitasuna duten pertsonen, beharrea dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzea kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean, eta, oro har, desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; enplegu-zentro bereziekin eta laneratze-enpresekin azpikontratatzea; kontratua egikaritzean aplikatzen diren genero-berdintasuneko planak eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea; lan- eta soldata-baldintzak hobetzea; enpleguaren egonkortasuna; kontratua egikaritzeko pertsona kopuru handiena kontratatzea; prestakuntza eta osasunaren eta laneko segurtasunaren babesa; irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea kontratuaren prestazioan; edo kontratua egikaritzen den bitartean merkataritza ekitatiboan oinarritutako produktuen hornidurari edo erabilerari buruzko irizpideak erabiltzea.

2.a Kontratua egikaritu behar duten eta hari atxikita dauden langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki egikaritzeko.

3.a Saldu ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa eta entregarako baldintzak; adibidez, azken hori egin behar den eguna, entregarako prozesua eta entrega- edo gauzatze-epea eta horniduraren ordezeko piezei eta segurtasunari buruzko konpromisoak.

Irizpide kualitatiboekin batera, kostuekin lotutako irizpide bat agertu beharko da; irizpide hori kontratazio-organoak aukeratuko du eta prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat izan ahalko da; esate baterako, bizi-zikloaren kostua, 148. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu.

3. Adjudikazio-irizpide bat baino gehiago, nolahi ere, ondorengo kontratu hauetan erabili ahal izango da:

a) Aurrez zehaztu ezin izan direlako, kontratuen proiektuak edo aurrekontuak hautagaiek edo lizitatuzaileek aurkeztu behar dituztenean.

b) Kontratazio-organoaren ustez prestazioaren zehaztasunak hobetzeko aukera dagoenean, edo bestelako konponbide teknikoak erabiliz edo prestazioa emateko epeak laburtuz.

c) Organo, organismo edo erakunde kontratatzaileak kontratua egikaritzeko materialak edo baliabide lagungarriak uzten dituelako, kontratistei haiek ondo zaintzeko berme bereziak eskatu behar zaizkienean.

d) Teknologia bereziki aurreratua erabili behar denean, edo kontratu hauek egikaritzeko modua bereziki zaila denean.

e) Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak.

f) Hornidura-kontratuetan, honako kasu honetan izan ezik: eskuratu beharreko produktuak zeharo definituta daudenean eta ezin denean ez entrega-eperik aldatu, ez kontratuan inolako aldaketarik sartu, eta, ondorioz, prezioa denean adjudikazioa erabakitzeke faktore bakarra.

g) Zerbitzu-kontratuetan, kasu honetan izan ezik: prestazioak teknikoki zeharo definituta daudenean eta ezin denean ez entrega-eperik aldatu, ez eta kontratuan inolako aldaketarik sartu ere, eta, ondorioz, prezioa denean adjudikazioa erabakitzeke faktore bakarra.

Zerbitzu-kontratu hauetan, berriz, prezioa ezingo da izan adjudikaziorako faktore erabakigarri bakarra: objektutzat izaera intelektualeko prestazioak –esate baterako, ingeniartzako eta arkitekturako zerbitzuak– dauzkaten zerbitzu-kontratuetan; gizarte-zerbitzuen prestaziorako kontratuetan, baldin eta beharrea dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzen badute kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun zehatzak dituzten pertsonen enplegua sustatzen badute; berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gizarte-zerbitzuetako, osasun-zerbitzuetako edo hezkuntza-zerbitzuetako kontratuetan, eta

eskulaneke zerbitzu intentsiboko kontratueta. Halaber, segurtasun pribatuko zerbitzuen kontratueta adjudikazio-irizpide bat baino gehiago aplikatu beharko da.

h) Ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen kontratueta; kontratu horiek adjudikatzeke, ingurumen-baldintza neurgarriak baloratuko dira: esate baterako, ingurumenean eragin txikiagoa izatea; ura, energia eta materialak aurrezte eta neurrian erabiltzea; bizi-zikloak ingurumenean duen kostua; prozedura eta ekoizpen-metodo ekologikoak; hondakinak sortu eta kudeatzea, edo material birziklatuak edo berrerabiliak nahiz material ekologikoak erabiltzea.

4. Kontratazio-organoek ardura hartuko dute kalitate handikoak diren eta beharrei ahal den hobekien erantzuten dieten obrak, hornidurak eta zerbitzuak lortzeko moduko adjudikazio-irizpideak ezar daitezten; bereziki, objektutzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten zerbitzuen kontratu-prozeduretan, nola baitira ingeniarietako eta arkitekturako zerbitzuak.

IV. eranskineko zerbitzu-kontratueta, bai eta objektutzat izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten kontratueta ere, kalitatearekin lotutako irizpideak eskaintzen balorazioari eman ahal zaion puntuazioaren gutxienez ere ehuneko 51 izango dira, alde batera utzi gabe 146. artikulua 2.a) apartatuan xedatutakoa.

5. 1. apartatuan aipatzen diren irizpideak, kontratua adjudikatzeke oinarri izan behar dutenak, administrazio-klausula partikularren agirietan edo deskripzio-agirian ezarriko dira, eta lizitaziorako deialdi gisa balio duen iragarkian agertu beharko dira, honako baldintza hauek betez:

a) Kontratuaren objektuari lotuta egongo dira beti, artikulua honen hurrengo apartatuan adierazitakoaren bidetik.

b) Modu objektiboan formulatu beharko dira, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak guztiz errespetatuz, eta ez diote erabakitzeke askatasun mugagaberik emango kontratazio-organoari.

c) Bermatu beharko dute aukera egon dadila eskaintzak lehia efektiboko baldintzetan ebaluatu daitezten, eta haiekin batera zehaztapenak aurkeztuko dira, zeinek aukera emango baitute modu efektiboan egiaztatzeke lizitatzailleek emandako informazioa, honako helburu honekin: ebaluatu ahal izatea eskaintzek noraino betetzen dituzten adjudikazio-irizpideak. Zalantza izanez gero, modu efektiboan egiaztatu beharko da informazioa eta lizitatzailleek emandako frogak noraino diren zehatzak.

6. Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak:

a) Obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia eginez ingurumenean eta gizartearen ikuspuntutik jasagarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduei;

b) edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere.

7. Adjudikazio-irizpide gisa hobekuntzak ezartzen diren kasuan, halakoek behar adina zehazturik egon beharko dute. Betekizun hori honako hauek zehaztasunez eta modu haztatuan zehazten direnean joko da betetzat: haien baldintzak, mugak, modalitateak eta ezaugarriak, bai eta kontratuaren objektuarekiko behar den lotura ere.

Nolanahi ere, balorazioa hurrengo artikulua a) letraren bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera egiten den kasuetan, ezingo zaio eman ehuneko 2,5etik gorako balorazioa.

Horri dagokionez, proiektuan edo preskripzio teknikoetan zehaztuta zeudenen gehigarri diren prestazioak hartuko dira hobekuntzatzat, baldin eta ez prestazio haien izaera, ez kontratuaren objektua aldatzen ez badituzte.

Adjudikaziodunaren hobekuntza-proposamenak kontratuan txertatuta egongo dira aurrerantzean, eta ezingo dira aldatu.

146. artikulua. *Adjudikazio-irizpideen aplikazioa.*

1. Aurreko artikulua lehenean eta hirugarren apartatuetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, adjudikaziorako irizpide bakarra erabiltzen denean, irizpide horrek kostuekin egon behar du lotuta, eta prezioa edo errentagarritasunean oinarritutako irizpide bat izan ahalko da; esate baterako, 148. artikuluan aipatutakoaren arabera kalkulaturako bizi-zikloaren kostua.

2. Adjudikazio-irizpide ugari erabiltzen direnean, haiek aukeratzeko, lehenetsua emango zaie, ahal dela, baldintza-agirietan ezarritako formulen aplikazio hutsez lortzen diren zifra edo ehunekoen bidez kontratuaren objektuan balora daitezkeen ezaugarriei buruzkoak direnei.

Honako organo hauek aplikatuko dituzte adjudikazio-irizpideak:

a) Administrazio publikoetako organoek egindako adjudikazio-prozeduretan, irekietan nahiz murriztuetan, kualifikazio egokia duten adituen komite batek baloratuko ditu balio-iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideak, hala egitea badagokio irizpide horiei pisu handiagoa eman zaielako modu automatikoan ebaluagarriak diren irizpideei dagokiena baino. Komite horrek gutxienez ere hiru kide izango ditu, eta kontratazio-organoren mendeko zerbitzuetakoak izan ahalko dira, baina inolaz ere ezingo dira atxikita egon kontratua proposatzen duen organoari. Organo horri, berriz, eskaintzak ebaluatzea dagokio, edo, bestela, ebaluazio hori baldintza-agirietan behar bezala identifikatuta egongo den organismo tekniko espezializatu bati enkargatzea.

b) Gainerako kasuetan, kontratazio-mahaiak baloratuko ditu, esku hartzen baldin badu, balio-iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideak, bai eta, nolana ere, formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideak ere, edo, bestela, kontratazio-organoren mendeko zerbitzuek. Horretarako, egokitzat jotzen diren txosten teknikoak eskatu ahalko dira, lege honen 150.1 eta 157.5 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Formulen aukeraketa espedientean justifikatu behar da.

Nolana ere, eskaintzak formulak aplikatu hutsez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera ebaluatzeko, lehenbizi, bestelako irizpideen arabera ebaluatuko dira, eta ebaluazio horren berri idatziz jasoko da.

Aldez aurretiko ebaluazio hori jendaurrean jakinaraziko da, formulen aplikazio hutsaren bidez baloratuko diren eskaintzako elementuak biltzen dituen gutun-azala irekitzen den ekitaldian.

Obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuetan aukera baldin badago eraikuntzarako edo ustiapenerako ekarpen publikoak egiteko edo enpresarentzat bermeak, abalak edo bestelako laguntzak eratzeko, kasu guztietan, automatikoki ebaluatzeko adjudikazio-irizpide gisa agertuko da kontratazio-espedientean aurreikusitako ekarpenen gainean lizitatzailiek eskaintzen duten murriztapenaren zenbatekoa.

3. Aintzat hartzen dena soilik prezioa den kasuetan izan ezik, balorazio-irizpideetako bakoitzari zer haztapen erlatibo ematen zaion zehaztu behar da administrazio-klausula partikularren agirian edo deskripzio-agirian, zeina gehieneko tarte egoki bat duen balio-banda bat zehaztuz adierazi ahalko baita.

Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da, eta irizpide kualitatibo guztien puntuazioaren ehuneko 50eko gutxieneko atalasea ezarriko da hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko.

Hautatutako irizpideak haztatzerik ez badago behar bezala frogatutako arrazoi objektiboak tarteko, garrantziaren arabera zerrendatuko dira irizpideok, garrantzitsuenetik hasita.

147. artikulua. *Berdinketa ebazteko irizpideak.*

1. Kontratazio-organoek administrazio-klausula partikularren agirietan adjudikazio-irizpide zehatzak ezarri ahalko dituzte berdinketa ebazteko, adjudikazio-irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen den kasuetan.

Berdinketa ebazteko adjudikazio-irizpide berriazko horiek kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute, eta honako hauei buruzkoak izango dira:

a) Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean beren plantillan araudiak ezartzen dienaz gorako langile desgaituen ehunekoa duten enpresek aurkeztutako proposamenak.

Kasu horretan, enpresa lizitatzailer batzuen artean berdinketa gertatzen bada proposamenik onuragarrienari dagokionez, eta horiek guztiek desgaitasunen bat duten langileak badituzte plantillan araudiak ezartzen duen baino proportzio handiagoan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen ehuneko handiena duen lizitatzailerak izango du lehentasuna kontratua adjudikatzean.

b) Laneratze-enpresen araubideari buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratze-enpresek aurkeztutako proposamenak; laneratze-enpresatzat hartzeko, araudi horretan ezarritako baldintzak bete behar dituzte enpresek.

c) Izaera soziala edo laguntzazkoa duten prestazioei buruzko kontratuak adjudikatzeari dagokionez, irabazi-asmorik gabeko erakundeek nortasun juridikoa dutela aurkeztutako proposamenak; erakunde horien helburuak edo jardunak, betiere, zerikusizuzena eduki behar du kontratuaren objektuarekin, estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera, eta erakundeek dagokien erregistro ofizialean erregistratuta egon behar dute.

d) Bidezko merkataritzako antolakunde moduan aitortuta dauden erakundeen eskaintzak, bidezko merkataritzaren hautabidea duten produktuak objektutzat dauzkaten kontratuak adjudikatzekoak.

e) Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko gizarte- eta lan-arloetako neurriak biltzen dituzten proposamenak, eskaintzak aurkezteko epearen mugaeguna baino lehen enpresek aurkeztutakoak.

Berdinketa ebazteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa, apartatu honetan aipatzen dena, berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzailerak, eta ez hori gertatu baino lehenago.

2. Aurreko apartatuak aipatzen duen baldintza-agirietako aurreikuspena falta denean, honako irizpide sozial hauek aplikatuz ebatziko da berdinketa, baldin eta kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren zenbait eskaintzaren artean berdinketa gertatzen bada, eta, betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta eta hurrenkera honetan aplikatuz:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

148. artikulua. *Bizi-zikloaren definizioa eta kalkulua.*

1. Lege honen ondorioetarako jotzen da produktu, obra edo zerbitzu baten «bizi-zikloaren» barruan jasota daudela haren existentzian ondoz ondo gertatzen diren fase edo elkarrekin lotutako fase guztiak, eta, betiere, honako hauek: egin beharreko ikerketa eta garapena; fabrikazioa edo produkzioa; merkaturatzea eta hartan gertatzen diren baldintzak; garraio, erabilera eta mantentzea; behar diren lehengaiak eskuratzea eta baliabideak sortzea. Hori guztia deuseztatzea, eraistea edo erabileraren amaiera gertatzen ez diren bitartean.

2. Bizi-zikloaren kostuan, produktu, zerbitzu edo obra baten bizi-zikloan zehar eragindako kostu hauek sartzen dira; denak edo haien zati bat, kasuan-kasuan:

a) Kontratazio-organoak edo beste erabiltzaile batzuek ordaindutako kostuak; honako hauek, esate baterako:

- 1.a Eskuratzeari dagozkion kostuak.
- 2.a Erabilerari dagozkion kostuak; esate baterako, energiaren eta beste baliabide batzuen kontsumoa.
- 3.a Mantentze-kostuak.
- 4.a Bizi-amaierako kostuak; esate baterako, bilketaren eta birziklatzearen kostuak.

b) Produktuari, zerbitzuari edo obrari bere zikloan zehar lotuta dauden ingurumeneko kanpo-efektuei egotzitako kostuak, baldin eta haien diru-balioa zehaztu eta egiaztatu ahal bada; kostu horietan, berotegi-efektuko gasen isurpenen eta beste isuri kutsatzaile batzuen kostua sar daiteke, bai eta klima-aldaketa apaltzeko beste kostu batzuk ere.

Europar Batasunaren arau batek bizi-zikloaren kostuak kalkulatzeko metodo komun bat erabiltzera behartzen duen kasuetan, metodo hori aplikatuko da kostu horiek ebaluatzeko.

3. Kontratazio-organoek, bizi-zikloaren kostuaren kalkuluan oinarritutako planteamendu baten bidez ebaluatzen badituzte kostuak, baldintza-agirietan adieraziko dute zer datu eman beharko dituzten lizitatzailleek, bai eta zer metodo erabiliko duten ere bizi-zikloaren kostuak zehazteko datu horietan oinarrituta.

Ingurumeneko kanpo-efektuei egotzitako kostuak ebaluatzeko erabilitako metodoak baldintza hauek guztiak bete beharko ditu:

a) modu objektiboan egiaztatu daitezkeen eta diskriminatzaileak ez diren irizpideetan oinarrituta egotea; zehazki, ez bada ezarri behin baino gehiagotan edo modu jarraituan aplikatzeko, ez die mesederik edo kalterik egingo enpresa jakin batzuei bidegabeki;

b) interesdun guztien eskura egotea;

c) behar den informazioa emateko modua egongo da enpresek ahalegin arrazoizko bat eginda, baita Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren edo Espainia nahiz Europar Batasuna lotzen dituen beste nazioarteko akordioaren baten sinatzaile diren estatuetatik datozen enpresen kasuan ere.

4. Kontratazio-organoek, ahal dela, bizi-zikloaren kostuari erreparatuz kalkulatu dituzte 145. artikulua lehenera eta bigarren apartatuetan aipatzen diren kostuak.

149. artikulua. *Eskaintza nabarmenki baxuegiak.*

1. Kontratazio-organoak uste baldin badu eskaintza bat eginezina dela nabarmenki baxua izateko moduan formulatuta dagoelako, artikulua honetan ezarritako prozedura izapidetu ondoren soilik utzi ahalko du lizitazio-prozeduratik kanpo.

2. Kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak ustez anormalak diren eskaintzak identifikatu beharko ditu, eta, horretarako, baldintza-agirietan parametro objektibo batzuk jaso beharko dira eskaintza bat anormala dela jotzeko kasuak identifikatzeko.

Kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak irizpide hauei jarraituz beteko dute aurreko paragrafoan azaldutako eginkizuna:

a) Baldintza-agiriekin besterik ezartzen ez badute, adjudikazio-irizpide bakarra prezioa denean, haietan besterik aurreikusi ezean, erregelamendu bidez ezartzen diren parametro objektiboak aplikatuko dira, eta parametro horiek, nolahi ere, anormaltasunaren atalasea zehaztuko dute aurkeztu diren eskaintza baliadunen multzoari erreferentzia eginez, hurrengo apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

b) Hainbat adjudikazio-irizpide erabiltzen direnean, kontratua arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoari begiratuko zaio; horietan, parametro objektibo batzuk

ezarriko dira, betiere eskaintza bere osotasunean kontuan hartzen dutenak, eskaintza bat anormaltzat jotzen den kasuak identifikatzeko.

3. Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako moduan talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, ustezko anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, baxuena hartuko da bakarrik, alde batera utzita eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldekoa ez den beste enpresa batekin edo batzuekin batera aurkeztu duten haiekin aldi baterako enpresa-elkarte bat osatuta.

4. Kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak, ustez anormala den eskaintza bat edo batzuk identifikatu dituztenean, errekerimendua egingo dio hura aurkeztu duen lizitatuzaileari edo haiek aurkeztu dituzten lizitatuzaileei, eta nahikoa den epe bat emango die prezioen edo kostuen maila baxua edo eskaintzaren anormaltasuna definitu duen beste edozein parametro arrazoiz eta xehetasunez justifikatu eta xehaka dezaten, horretarako beharrezkoak diren informazioa eta dokumentuak aurkeztuz.

Kontratazio-mahaiak edo bestela kontratazio-organoak lizitatuzaileari zuzentzen dion informazio-eskaria argitasunez formulatu beharko da, halako moduz non horrek modua edukiko baitu eskaintzaren bideragarritasuna guztiz eta egoki justifikatzeko.

Zehazki, kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak justifikazioa eskatu ahaliko die lizitatuzaile horiei prezioaren edo kostuen maila baxua ekar dezaketen eskaintzaren baldintzei buruz eta, bereziki, honako balio hauei dagokienez:

- a) Fabrikazio-prozedurak, emandako zerbitzuek edo eraikuntza-metodoak ekar dezaketen aurrezkoa.
- b) Lizitatuzaileak produktuak eta zerbitzuak emateko edo obrak egiteko hartutako itenbide teknikoak eta bere alde dituen ohiz kanpoko baldintzak.
- c) Produktuz hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko proposatutako konponbideen berrikuntza eta originaltasuna.
- d) Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren eta azpikontratazioaren arloko betebeharren errespetua; ez dira justifikagarriak izango merkatuko prezioetik behera dauden prezioak edo 201. artikuluan ezarritakoa urratzen dutenak.
- e) Edo Estatuaren laguntza bat jasotzeko aukera izatea.

Prozeduran kasuan kasuko aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Nolanahi ere, kontratazio-organoek baztertu egingo dituzte eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badute nabarmenki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo aplikatzekoak diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak –naziokoak nahiz nazioartekoak– urratzen dituztelako, horren barnean dela hitzarmen kolektibo sektorial indardunak urratzea, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Nolanahi ere, justifikazioa ez da ontzat joko lizitatuzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua azaltzeko, baldin eta justifikazio hori osatu gabea bada edo ikuspuntu tekniko, juridiko edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo jokabideetan oinarritzen bada.

5. Lizitatuzaileak Estatuaren laguntza jaso duela-eta eskaintza nabarmenki baxuegia dela egiaztatzen den kasuetan, hau izango da proposamena arrazoi horrexengatik bakarrik atzera botatzeko motiboa: lizitatuzaileak ezin egiaztatzea laguntza hori diru-laguntza publikoen arloan indarrean dauden Europar Batasuneko xedapenak urratu gabe eman dela. Arrazoi hori dela-eta eskaintza bat atzera botatzen duen kontratazio-organoak horren berri eman beharko dio Europako Batzordeari, erregulazio harmonizatuko kontratu bat adjudikatzeko prozedura baldin bada.

6. Kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak epearen barruan ebaluatuko du lizitatuzaileak aurkeztutako informazio eta dokumentazio guztia, eta kontratazio-mahaia baldin bada, dagokion proposamena aurkeztuko dio, onartzekoa nahiz baztertzekoa, kontratazio-organoari. Inolaz ere ez da erabakiko eskaintza onartzea kontratazio-mahaiak horri buruz egiten duen proposamena behar bezala arrazoitu gabe badago.



Baldin eta kontratazio-organoak, lizitatzaillearen justifikazioa eta laugarren paragrafoan aipatutako txostenak kontuan hartuta, uste badu bildutako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzailleak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua eta, horrenbestez, eskaintza ezin dela bete balio anormalak dituelako, sailkapenetik kanpo utziko du, eta eskaintza onenaren aldeko adjudikazioa egingo du, 150. artikuluko 1. paragrafoan adierazitakoaren arabera sailkapen-hurrenkeran kontuan hartuta. Oro har, baztertu egingo dira ustez anormaltasuna duten eskaintzak, baldin eta ikuspegi tekniko, ekonomiko edo juridikotik desegokiak diren hipotesi edo jokabideetan oinarrituta badaude.

7. Kontratua ustezko anormaltasun batean sarturik egon den enpresa bati adjudikatzen zaionean, kontratazio-organoak mekanismo egokiak ezarriko ditu kontratuaren jarraipen xehe-xeha egiteko, zuzen egikaritzen dela bermatze aldera, kontratatutako zerbitzu, obra edo horniduren kalitatean galerarik gertatu gabe.

150. artikulua. *Eskaintzen sailkapena eta kontratuaren adjudikazioa.*

1. Kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak behezko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, eta, gero, kasuko proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari, baldin eta sailkapena kontratazio-mahaiak egiten badu.

Aipatutako sailkapena egiteko, baldintza-agirian adierazitako adjudikazio-irizpideak hartuko ditu kontuan, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatuko ditu. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, preziorik baxuena duena joko da eskaintza onentzat.

Bere eginkizunak betetzen diharduela, kontratazio-mahaiak edo bestela kontratazio-organoak, kontratazio-prozeduran kolusiozko jokabideak gertatu izanaren zantzu funtsatuak baldin baditu, Lehia Babesteko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikuluan definitutako zentzuan, horiek kontratua adjudikatu baino lehenago jakinaraziko dizkio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo, kasua bada, dagokion agintari autonomikoari, prozedura sumarisimo baten bitartez haiei buruzko iritzia eman dezan. Azterna horiek igortzeak kontratazio-prozedura etetea eragingo du. Kontratazio-mahaiak igortzen baditu, horren berri eman beharko dio hark kontratazio-organoari. Erregelamendu bidez arautuko da paragrafo honetan aipatzen den prozedura.

2. Behin kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartuta, kasuko zerbitzuek egiaztagiri hauek eskatuko dizkiote 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailleari: 140. artikuluan 1. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren inguruabarrei buruzko egiaztagiriak, aurrez aurkeztu ez baditu, bai lizitatzailleari dagokionez, bai baliatuko dituen gainerako enpresei dagokienez ere –alde batera utzi gabe, halere, artikulua horren 3. apartatuaren bigarren paragrafoan ezarritakoa–; kontratua egikaritzeko hitzeman dituen baliabideak egiazki badituela egiaztatzen duten agiriak, 76.2 artikuluari jarraituz eskatutakoak, eta dagokion behin betiko bermea jarri izanari buruzko egiaztagiriak. Hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu egiaztagiriok, errekerimendua jaso duen egunetik kontatzen hasita. Dagozkion ziurtagiriak bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikokoak erabilita egin ahalko dira, baldintza-agirietan besterik ezartzen ez bada.

Errekerimendua aipatutako epean egoki betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailleak bere eskaintza erretiratu duela, eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZa barne, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada, alde batera utzi gabe 71. artikuluan 2. apartatuko a) letretan ezarritakoa.

Aurreko lerrokadan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailleari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

3. Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatuko du kontratua. Prozedura negoziatuetan, lehia-elkarrizketa bidezkoetan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan, adjudikazioak kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta finkatuko ditu.

Ezingo da lizitazio bat adjudikatu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamena bat badago.

4. 44. artikuluko errekurso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitzaile bati adjudikatu behar badio, hamar egun baliodun emango zaizkio lizitzaile horri, behar diren izapideak bete ditzan.

151. artikulua. *Adjudikazioa ebatzi eta jakinaraztea.*

1. Adjudikazioaren ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta hautagai eta lizitzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

2. 155. artikulua 1. apartatuan ezarritakoa alde batera gabe, aurreko apartatuak aipatzen dituen jakinarazpenak eta argitalpenak behar adina informazio eman beharko dute adjudikazio-prozeduran interesa dutenek modua izan dezaten adjudikazioaren erabakiaren aurka behar besteko oinarriarekin errekurtoa aurkezteko, eta informazio horretan, besteak beste, honako hau jaso beharko da:

a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitza ez onartzeko arrazoen laburpena.

b) Adjudikazio-prozeduratik kanpo geratu diren lizitzaileei dagokienez, haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, horien barnean direla –126. artikulua 7. eta 8. apartatuetako kasuetan– baliokidetasunik ez dagoela erabakitze arrazoiak edo obrak, hornidurak edo zerbitzuak errendimendu-baldintzei edo betekizun funtzionalei egokitzen ez zaizkiela erabakitze arrazoiak; eta lizitzaile guztiei emandako balorazioen xehakitze bat, adjudikaziodunaren balorazioa barne.

c) Edozein kasutan, adjudikaziodunaren izena eta, orobat, adjudikaziodunaren proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak, gainerako lizitzaileek aurkeztu dituzten eta onartu diren proposamenen aldean adjudikaziodunarena lehenesteko balio izan dutenak; eta, kasua bada, lizitzaileekin izandako negoziazioen edo elkarrizketaren garapena.

Jakinarazpenean, kontratua egiteko epea aipatuko da, lege honen 153. artikulua 3. apartatuan ezarritakoari jarraituz.

3. Jakinarazpena bitarteko elektronikoak erabiliz egingo da, hamabosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

152. artikulua. *Administrazioak kontratua ez adjudikatze edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.*

1. Kontratazio-organoak dagokion deialdia egina duen adjudikazio-prozedurari uko egiten badio edo kontratu bat ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei eta lizitzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordea ere erabaki horren jakinarean gainean jarriko du, baldin eta kontratua *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* iragarri bada.

2. Kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahalko du kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea edo prozeduran atzera egitea. Halakoetan kalte-ordaina emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren hautagaiei edo lizitzaileei, egin dituzten gastuak direla eta, iragarkian edo baldintza-agirian ezarritako moduan edo, bestela, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen izapideak erabiliz.

3. Espedientean behar bezala justifikatuta dauden interes publikoko arrazoiengatik soilik hartu ahalko da kontratua ez adjudikatze edo ez egiteko erabakia. Kasu honetan, ezingo da helburu bera duen beste lizitaziorik bultzatu, erabakiaren oinarri moduan emandako arrazoiak bere horretan dirauten artean.

4. Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauen arau-hausteren bat egon behar du, zuzendu ezin daitekeena, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoa. Atzera egiteak ez du eragotziko berehala lizitazio-prozedura bat hastea.

5. Esparru-akordioen kasuan, atzera egitea eta haiek ez adjudikatze edo ez egiteko erabakia haiek egiteko prozedura hasi zuen kontratazio-organoari dagozkio. Esparru-

akordio batean oinarritutako kontratuen kasuan eta eskuratze-sistema dinamiko baten esparruko kontratu berariazkoen kasuan, atzera egiteko eta haiek ez adjudikatze edo ez egiteko erabakia ofizioz hartuko du kontratazio-organoak, edo prestazioaren hartzaile den organismoak proposatuta.

153. artikulua. *Kontratuak formalizatzea.*

1. Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuak administrazio-agiri batean formalizatu beharko dira. Agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie, estu-estu, eta nahikoa titulu emango du edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu adjudikazio-irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.

Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuetan edo eskuratze-sistema dinamiko baten barruko kontratu berariazkoetan, ez da beharrezkoa izango kontratua formalizatzea.

2. 118. artikuluan zehaztutako kontratu txikiak, berriz, artikulua horretan aipatzen diren dokumentuen bitartez egiaztatuko dira.

3. Kontratua, lege honen 44. artikulua araberako kontratazio-arloko errekurtsio berezia jar badakioke, ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen. Autonomia-erkidegoek aukeran dute epea luzatzea, baina gehienez ere hilabetez.

Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igarotakoan, eta kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsio jarri ez bada epe horretan, adjudikaziodunari eskatuko diote formaliza dezala kontratua, gehienez ere bost eguneko epean formalizatu ere, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontatzen hasita. Berdin jokatu dute errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

Gainerako kasuetan, kontratua gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, lizitatzailerei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena 151. artikuluan aurreikusi bezala egiten zaien egunaren ondorengotik kontatzen hasita.

4. Adjudikaziodunari egoztekoak zaizkion arrazoiak tarteko kontratua ez bada formalizatu aipatutako epearen barruan, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZa barne, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada, 71. artikulua 2. apartatuko b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileri adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz. Horretarako, lege honen 150. artikulua 2. apartatuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko du hark aurrez, eta aurreko apartatuan ezarritako epeak izango dira aplikatzekoak.

5. Kontratua ez formalizatzea Administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio kontratistari.

6. Alde batera utzi gabe kontratu txikiarako 36.1 eta 131.3 artikuluetan ezarritakoa eta esparru-akordio batean oinarritutako kontratuarentarako eta eskuratze-sistema dinamiko baten esparruko kontratu berezientarako 36.3 artikuluan ezarritakoa, ezingo da kontratua egikaritu bera formalizatu baino lehen, kontratazio-espeditzearen izapidetzea 120. artikuluan xedatutakoari jarraituz larrialdikoa denean izan ezik.

154. artikulua. *Kontratuen formalizazioaren publizitatea.*

1. Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, hamabost eguneko epea baino lehen argitaratu beharko da, kontratua burutu ondoren, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Kontratua erregulazio harmonizatutakoa denean, formalizazioari buruzko iragarkia, gainera, *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko da.

2. Estatuko Administrazio Orokorra edo hari lotuta dauden eta Administrazio Publikoaren izaera duten erakundeek egindako kontratuetan, formalizazioari buruzko

iragarkia, gainera, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da, aurreko apartatuan aipatutako epean.

3. Kontratazio-organoak, hala dagokionean, kontratua formalizatu eta 10 egun iragan baino lehen igorriko du kontratuaren formalizazioari buruzko iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera*.

Formalizazioari buruzko iragarkiak ez dira argitaratutako artikulua honen lehen eta bigarren apartatuetan aipatutako tokietan *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu baino lehen, baldin eta aldizkari ofizial horretan argitaratzekoak badira, eta igorpen horren data adierazi beharko dute; izan ere, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek espedientean horri buruzko behar besteko frogak utzi beharko dute, eta ezingo dute jaso iragarki horretan jasotako beste oharrik. Hala eta guztiz ere, beti argitaratu ahalko dira, baldin eta kontratazio-organoak argitalpenaren jakinarazpenik jaso ez badu igorritako iragarkia jaso izanaren berrespena izan eta 48 orduren buruan.

4. Hiru hilean behin argitaratuko du kontratazio-organoak esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen edo eskuratze-sistema dinamiko baten esparruko kontratu berriaren adjudikazioa, halakoak jada 36.3 artikuluan ezarritakoaren indarrez burututa. Hiruhileko bakoitza amaitu eta hurrengo 30 egunetan argitaratuko da, artikulua honetan aurreikusitako moduan.

5. Kontratu txikiak 63. artikulua 4. apartatuan ezarritako baldintzetan argitaratuko dira.

6. Kontratuak formalizatzeari buruzko iragarkiek III. eranskinean jasotako informazioa izango dute.

7. Kontratuaren sinadurari buruzko datu jakin batzuk argitaratu gabe eduki ahalko dira, baldin eta uste bada, espedientean behar bezala justifikatuz, informazio hori zabaltzea eragozpena izan daitekeela arau bat aplikatzeko, edo interes publikoaren aurkako gerta daitekeela, edo enpresa publiko edo pribatuaren merkataritza-interes legitimoen edo haien arteko lehia leialari kalte egin diezaiekeela; gauza bera egin daiteke kontratua isilpeko edo erreserbatu deklaraturakoa denean edo kontratua egikaritzeko segurtasun-neurri bereziak aplikatu behar direnean indarreko legeriaren arabera, halaber estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babesteko beharrezkoa denean (kasu horretan, babes-beharra 19. artikulua 2. apartatuaren c) letran ezarritakoaren arabera adierazi behar da).

Nolanahi ere den, kontratua egiteari buruzko datu batzuk ez argitaratzeko erabakia hartu ondoren, kontratazio-organoek txostena eskatu beharko diote Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari, hala aurreikusten baitu Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak; txosten horretan, jaso beharko da informazio publikorako eskubidea nagusitzen den ala ez datu batzuk ez argitaratzearekin babestu nahi diren ondasunen gainetik. Txostena beranduenez hamar eguneko epean eman beharko da.

Aurrekoa gorabehera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren txosten hori ez da eskatuko aurretik kontratazio-organoak gai berdinari edo antzekoari buruzko kontsulta egin badu; hori, halere, ez da eragozpena izango espedientean haren baztertea behar bezala justifikatzeko, apartatu honetan ezarritako moduan.

155. artikulua. *Hautagaiei eta lizitatzailerei komunikatzea.*

1. Kontratazio-organoek hautagai eta lizitatzaille bakoitza informatuko dute, ahal den epe laburrenean, esparru-akordio bat egiteari buruz, kontratuaren adjudikazioari buruz edo eskuratze-sistema dinamiko bat onartzeari buruz hartutako erabakiez; besteak beste, arrazoiak emango dituzte erabakia hartzen badute esparru-akordioa ez egiteko, lizitazio-deialdi bat egin ondoren ere kontratu bat ez adjudikatzeko edo prozedura berriz hasteko edo eskuratze-sistema dinamiko bat ez aplikatzeko.

2. Kasuan kasuko hautagaiak edo lizitatzailleak eskatuta, kontratazio-organoek honako hauek komunikatuko dituzte, ahal bezain laster eta, nolanahi ere, idatzizko eskaera bat jasotzen denetik hamabost eguneko epean:

a) Baztertutako hautagaiei guztiei, beren hautagaitza ez onartzeko arrazoiak.

b) Baztertutako lizitatzaille guztiei, beren eskaintza ezesteko arrazoiak, horien barnean direla –126. artikulua 7. eta 8. apartatuetako kasuetan– baliokidetasunik ez dagoela erabakitze arrazoiak edo obrak, hornidurak edo zerbitzuak errendimendubaldintzei edo betekizun funtzionalei egokitzen ez zaizkiela erabakitze arrazoiak.

c) Eskaintza onargarri bat aurkeztu duten lizitatzaille guztiei, aukeratutako eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak, bai eta adjudikaziodunaren izena edo esparru-akordioaren aldeak ere.

d) Eskaintza onargarri bat aurkeztu duten lizitatzaille guztiei, negoziazioak eta lizitatzailleekiko elkarrizketa nola garatu diren.

3. Botere adjudikatzaileek erabaki ahalko dute datu batzuk ez ematea, 1. eta 2. apartatuetan aipatutakoak, kontratuaren adjudikazioari buruz, esparru-akordioak egiteari buruz edo eskuratze-sistema dinamiko bat onartzeari buruz, baldin eta datu horien zabalkundeak legearen aplikazioa oztopa badezake, interes publikoaren aurkakoa izan badaiteke, enpresa publiko zein pribatu jakin baten merkataritza-interes legitimoei kalte egin badiezaieke edo enpresaburuen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke.

## 2. azpiatala. Prozedura irekia

156. artikulua. *Zedarritzea, proposamenak aurkezteko epeak eta lizitazio-iragarkia argitaratzeko epea.*

1. Prozedura irekian, interesa duten enpresaburu guztiek aurkez ditzakete proposamenak, eta ezingo dira negoziatu kontratuaren baldintzak lizitatzailleekin.

2. Erregulazio harmonizatuko kontratuak adjudikatzeko prozedura irekietan, proposamenak aurkezteko epea ez da izango hogeita hamabost egunetik beherakoa obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuetarako, eta hogeita hamar egunetik beherakoa obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuetan, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora igortzen den egunetik kontatzen hasita.

3. Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, honako kasu hauetan laburtu ahalko da aurreko apartatuan jarritako epe orokorra:

a) Kontratazio-organoak aurretiazko informazioaren iragarki bat bidali badu, proposamenak aurkezteko epe orokorra hamabost egunera arte gutxitu ahalko da. Epearen laburtze hori onargarria izango bada, aurretiazko informazioaren iragarki boluntarioa lizitazio-iragarkia bidaltzeko eguna baino gehienez ere hamabi hilabete eta gutxienez ere hogeita hamar egun lehenago igorri behar da argitaratzera. Gainera, aurretiazko informazioaren iragarki horretan, lizitaziorako behar den informazio guztia eskaini behar da, baldin eta emateko moduan badago.

b) Proposamenak aurkezteko epe orokorra ezin denean eman presako egoera bat tarteko, kontratazio-organoak beste epe bat jarri ahalko du, 119. artikuluan deskribatutako baldintzetan. Epe hori ez da izango hamabost eguneko baina laburragoa, lizitazio-iragarkia igortzen den egunetik kontatzen hasita.

c) Baldin eta kontratazio-organoak onartzen badu eskaintzak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkez daitezela, proposamenak aurkezteko epe orokorra bost egunetik gutxitu ahalko da.

4. Obra- eta zerbitzu-emakidetan, aurreko apartatuko c) letran ezarritako inguruabarra gertatzen denean soilik gutxitu ahalko da epe orokorra.

5. Aldez aurretik *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratzeko betebeharrak dela-eta 135. artikulua 3. apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe, prozedura irekietan lizitazio-iragarkia, nolnahi ere, kontratatzailearen profilean aurretiaz argitaratu behar da; hain zuzen ere, proposamenak aurkezteko hurrengo apartatuan ezarritako epea bezainbesteko denboraz, gutxienez.

6. Administrazio publikoek egiten dituzten eta erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetan, proposamenak aurkezteko epea ez da izango hamabost egun baino



txikiagoa, kontratuaren iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Obra-kontratuetan, obra-emakidako kontratuetan eta zerbitzu-emakidako kontratuetan, hogeita sei egunekoa izango da epea, gutxienez.

157. artikulua. *Proposamenak aztertzea eta adjudikazioa proposatzea.*

1. Kontratazio-mahaiak 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatuko du, zeina lizitatzailleek proposamena biltzen duenaz beste gutun edo artxibo elektronikoko batean aurkeztu beharko baitute.

Gero, organo horrek berak gutun-azala ireki eta proposamenak aztertuko ditu, eta adjudikazio-proposamena egingo dio kontratazio-organoari, adjudikazioduna hautatzeko aplikatu beharreko irizpideak haztatu ondoren.

2. 145. artikuluan ezarritakoari jarraituz adjudikaziorako hainbat irizpide erabiltzen direnean, lizitatzailleek proposamena bi gutun-azaletan edo artxibo elektronikotan aurkeztu beharko dute: batean, balio-iritzi baten bidez haztatu beharreko irizpideen arabera baloratu behar den dokumentazioa aurkeztuko dute; bestean, berriz, formulen aplikazio hutsez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa.

3. Nolanahi ere, proposamenen gutun-azala irekitzeko epea hogeit egunekoa izango da gehienez ere, haiek aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.

Proposamena gutun-azal edo artxibo elektronikoko batean baino gehiagotan baldin badago, halako moduz non horiek ekitaldi independenteetan ireki behar baitira, proposamena osatzen duten gutun-azal edo artxibo elektronikoen lehena epe horren barrenean ireki denean iritziko zaio aurreko epea bete dela.

4. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoaren gutun-azala jendaurrean irekiko da, non eta ez den aurrekusten lizitazioan bitarteko elektronikoak erabil daitezkeela.

5. Proposamenak baloratzeko prezioaz besteko irizpideak hartu behar direnean kontuan, horretarako eskumena duen organoak behar adina txosten tekniko eskatu ahalko ditu adjudikazio-proposamena egin aurretik. Eskaintzek baldintza-agirietako espezifikazio teknikoak betetzen dituztenetz egiaztatu behar denean ere eskatu ahalko dira txosten horiek.

Halaber, txostenak eskatu ahalko zaizkie prestazioaren hartzaile diren erabiltzaileen erakunde sozialei, kontratuaren objektuari dagokion jarduera-eremua ordezkatzeko erakundeei, sindikatuari, genero-berdintasuna aldeztu duten erakundeei eta alderdi sozial eta ingurumenekoak egiaztatuko dituzten beste erakunde batzuei.

6. Adjudikazio-proposamenak ez du inolako eskubiderik sorrarazten adjudikazioduntzat proposatutako lizitatzaillearen alde Administrazioan. Nolanahi ere, kontratazio-organoak, ez badu proposamenaren arabera adjudikatzen kontratua, arrazoitu egin beharko du erabakia.

158. artikulua. *Adjudikazioa.*

1. Kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, kontratua adjudikatzeko epea, gehienez ere, hamabost egunekoa izango da, proposamenen gutun-azalak irekitzeko egunaren ondorengotik kontatzen hasita.

2. Kontratua adjudikatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak hainbat direnean, edo irizpide bakarra erabilita bizi-zikloan kostu txikiena duena bera denean, gehienez bi hilabetekoa izango da kontratua adjudikatzeko epea, proposamenen gutun-azalak irekitzen direnetik kontatzen hasita, non eta administrazio-klausula partikularren agirian ez den beste epe bat ezarri.

Proposamena gutun-azal edo artxibo elektronikoko batean baino gehiagotan baldin badago, halako moduz non horiek ekitaldi independenteetan ireki behar baitira, proposamenaren atal bat biltzen duen gutun-azala edo artxibo elektronikoa irekitzen den lehenengo ekitalditik aurrera kontatuko da aurreko epea.

3. Aurreko apartatu horietan aipatutako epeak beste hamabost egun baliodunetz luzatuko dira, baldin eta lege honen 149. artikulua 4. apartatuak aipatzen dituen irizpideei jarraitzea beharrezkoa bada.



4. Adjudikazioa ez bada aipatutako epe horietan egiten, lizitatuak eskubidea izango dute atzera egin eta beren proposamena kentzeko, eta behin-behineko bermea itzuli dakien, halakorik badago.

159. artikulua. *Prozedura ireki sinplifikatua.*

1. Kontratazio-organoek erabaki ahalko dute prozedura ireki sinplifikatu bat erabili dadin obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, honako bi baldintza hauek betetzen direnean:

a) Balio zenbatetsia 2.000.000 eurokoa edo txikiagoa izatea obra-kontratuen kasuan eta 100.000 eurokoa edo txikiagoa izatea hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan.

b) Baldintza-agirian aurreikusitako adjudikazio-irizpideetan bakar bat ere ez egotea balio-iritzi batez ebalua daitekeena edo, halakorik badago, haien haztatzeak ez gaituzte gutzizkoaren ehuneko hogeita bost; salbuespena izango da kontratuaren objektua izatera intelektualeko prestazioak ematea denean, nola baitira ingeniari- edo arkitekturen zerbitzuak, horietan haztatzea ezin izango baita gutzizkoaren eguneko berrogeita bostetik gorakoa.

2. Kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean baizik ez da argitaratu behar. Eskaintza aurkezteko behar den dokumentazio guztiak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko moduan egon behar du iragarkia kontratatzailearen profil horretan argitaratzen den egunetik.

3. Proposamenak aurkezteko epea ezingo da izan hamabost egunetik beherakoa, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Obra-kontratuetan hogei eguneko izango da epea, gutxienez.

4. Prozedura izapidetzeko, honako berezitasun hauek beteko dira:

a) Prozedura sinplifikatu honen bidez egindako lizitazioetara aurkezten diren lizitatuak guztiak Sektore Publikoko Lizitatuak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute, edo, 96. artikuluan 2. apartatuan ezarritakoaren arabera bidezko denean, dagokien autonomia-erkidegoaren erregistro ofizialean, eskaintzak aurkezteko azken egunetan, baldin eta konkurrentzia mugatzen ez bada.

b) Lizitatuak ez dute behin-behineko bermerik jarriko.

c) Proposamenak, nahitaez, lizitazio-iragarkian adierazitako erregistroan baizik ezingo dira aurkeztu.

Eskaintza aurkezteko, sinatzaileak erantzukizunpeko deklarazioa egin behar du, honako hauek dituela esaten duena: eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkaria; kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko egokia edo, kasua bada, dagokion sailkapena; jardueran aritzeko behar diren baimenak, eta kontratatze inongo debekurik ez; eta 75.2 artikuluan aipatzen duen konpromisoa badagoen adieraziko du. Ondore horietarako, baldintza-agiriaren eranskin gisa agertzen den eskaintza-ereduak erantzukizunpeko deklarazio hori jasoko du.

Gainera, enpresa atzerrikoa baldin bada, erantzukizunpeko deklarazioak jasoko du hura Espainiako foruaren pean egongo dela.

Eskaintza enpresaburuen aldi baterako elkarte batek aurkezten baldin badu, elkarte eratzeko konpromisoa gehitu behar du.

d) Eskaintza gutun-azal bakarrean aurkeztuko da prozedurak balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren adjudikazio-irizpideak jasotzen ez dituenetan. Hala ez bada, eskaintza bi gutun-azalera aurkeztuko da.

Proposamena jasotzen duten gutun-azalak 145. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokien hurrenkeran irekiko dira, baldintza-agirietan ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratze aplikatzeko den metodoaren arabera. Lege honen 326. artikuluan 6. apartatuak aipatzen duen kontratazio-mahaiak irekiko ditu. Nolanahi ere, jendaurrekoa izango da baldintza-agirietan ezarritako formulak aplikatze hutsez eskaintzaren irizpide kuantifikagarrien bidez ebaluatzea den eskaintzaren zatia biltzen duten gutun-azalak

irekitzeko ekitaldia. Horretarako, baldintza-agiriaren eranskin gisa agertzen den eskaintza-ereduak xehetasun horiek jasoko ditu.

e) Balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren adjudikazio-irizpideak jasotzen baditu prozedurak, kontratazio-organoaren zerbitzu teknikoek zazpi eguneko bako bako gehiagokoa ez den epe batean baloratuko dituzte proposamenak, eta balorazioa egiten duen teknikariak edo egiten duten teknikariek izenpetu beharko dituzte.

f) Nolanahi ere, aurreko letrak aipatzen duen balorazioak eginda egon beharko du formulen aplikazio hutsez kuantifikatzekoak diren irizpideen bitartez ebaluatu beharreko eskaintzaren gutun-azala irekitzeko jendaurreko ekitaldia baino lehen. Jendaurreko ekitaldi horretan, haren emaitza irakurriko da.

Jendaurreko ekitaldi horren ondoren, saio berean, mahaiak honako hauek egingo ditu:

1.a Kasua bada, baldintza-agiriko baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu eta, ondoren, eskaintzak ebaluatu eta sailkatzea.

2.a Puntuazio onena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egitea.

3.a Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko behar adinako boterea duela eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko duela, edo, bestela, dagokion sailkapena duela, eta kontratatze inongo debekurik ez duela.

4.a Puntuazio onena lortu duen enpresari komunikazio elektronikoaren bitartez eskatzea behin betiko bermea eman dezan, eta aurrez ditzan 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa, batetik, eta kontratua egikaritzeko 76.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz hitzeman dituen bitartekoak egiazki badituela egiaztatze dokumentazioa bestetik; eta hori guztia, komunikazioa igortzen denetik 7 egun balioduneko epean egingo du.

Baldin eta susmatzen bada puntuazio onena lortu duen lizitatzaileren eskaintza nabarmenki baxua dela 149. artikuluan aurreikusitako kasuak gertatzen direlako, mahaiak, aurreko 1. eta 2. puntuetako jarduketak eginda, artikulua horretako prozedurari jarraituko dio, baina lizitatzailerekin bere eskaintza justifikatzeko gehieneko epea ez da izango 5 egun baliodunetik gorakoa, dagokion komunikazioa igortzen denetik kontatzen hasita.

Behin betiko bermea aurkeztuta eta aginduzkoa den kasuetan Kontu-hartzailetzak gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren Aurrekontu Orokorrei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legean ezarritako baldintzetan, kontratua adjudikatuko zaio adjudikaziodun gisa proposatu den lizitatzaileri, 5 egunetik gorakoa ez den epe batean, eta, behin hura adjudikatuta, kontratua formalizatu egingo da.

Baldin eta horretarako emandako epean adjudikaziodun gisa proposatutako hautagaiak ez badu behin betiko bermerik aurkeztu, puntuazioan hurrengo den hautagaiaren aldeko esleipen-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio aipatutako behin betiko bermea jartzeko.

Enpresaburuak, Lizitatzaileren Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein dokumentazio aurkeztu behar badu, dokumentazio hori behin betiko bermea aurkezteko ezarritako 7 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du.

g) Lizitazioa Europar Batasuneko kide den edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioaren sinatzaile den estatu bateko enpresaburuak aurkeztzen diren kasuetan, haien gaitasuna, kaudimena eta debeku-eza honela egiaztatu ahalko dira: dela estatu kide batek baimendutako operadore ekonomikoen kasuko zerrenda ofizialean kontsulta eginez, dela xehetasun horiek egiaztatze dokumentazioa aurkeztuz; azken kasu horretan, behin betiko bermea aurkezteko emandako epean aurkeztu beharko du.

h) Artikulu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, prozedura irekiari aplikatu beharreko arau orokorrak beteko dira.

5. Kontratazio-espeditentea presakoa dela deklaratu bada eta erabiliko den adjudikazio-prozedura artikulua honetan araututako prozedura ireki sinplifikatua bada, ez da egingo 119. artikuluan 2. apartatuaren b) letran aipatzen den epe-murrizketa.

6. 80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak eta 35.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, objektutat

izaera intelektualeko prestazioa dutenetan izan ezik, zeinei ez baitzaie apartatu hau aplikatuko, prozedura ireki sinplifikatuak honako izapidetze honi jarraitu ahalko dio:

a) Proposamenak aurkezteko epea ez da hamar egun baliodunetik beherakoa izango, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, merkatuan eskura daitezkeen ondasunen erosketa arrunten kasuan, epea 5 egun baliodunekoa izango da.

b) Lizitatzzaileak salbuetsita egongo dira ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen.

c) Eskaintza gutun-azal edo artxibo elektronikoa bakarrean aurkeztuko da, eta, nolana ere, baldintza-agirietan ezarritako formulen aplikazio hutsez kuantifikagarriak diren adjudikazio-irizpideei jarraituz ebaluatuko da.

d) Eskaintzak automatikoki baloratu ahalko dira, gailu informatikoak erabiliz, edo kontratazio-organoari laguntza emango dion unitate tekniko baten laguntzarekin.

Gailu elektronikoa baten bitartez bermatuko da proposamenak ez direla irekitzen haiek aurkezteko epea amaitu arte; hori dela eta, ez da jendaurreko ekitaldirik egingo haiek irekitzeko.

e) Aurkeztutako eskaintzak eta haien balorazioari buruzko dokumentazioa modu irekian eskuratu ahalko dira, bitarteko informatikoen bitartez, inongo murrizketarik izan gabe, kontratuaren adjudikazioa jakinarazten den unetik.

f) Ez da eskatuko behin betiko bermea jartzea.

g) Kontratazioaren adjudikazio-ebazpena onartzeko sinadura emanez formalizatu ahalko da kontratua.

Nolana ere, apartatu honetan aurreikusi ez den guztirako, prozedura ireki sinplifikatuari buruz artikulua honetan jasotako arau orokorrak aplikatuko dira.

### 3. azpiatala. Prozedura murriztua

#### 160. artikulua. *Ezaugarriak.*

1. Prozedura murriztuan, edozein enpresa interesdunek aurkeztu ahalko du parte hartzeko eskaera bat lizitazio-deialdi bati erantzuteko.

2. Prozedura horretan, eskaera egindakoen artean kontratazio-organoak kaudimenaren arabera hautatutako enpresaburuek soilik aurkeztu ahalko dituzte proposamenak.

Administrazio-klausula partikularren agiriek sari edo konpentsazio batzuk emateko aukera jaso ahalko dute, zerbitzu-kontratuaren lizitatzzaileek beren eskaintza aurkezteko izan dituzten gastuengatik, aurkezte horrek zenbait garapen egitea dakarren kasuetan.

3. Prozedura honetan, debekaturik dago eskatzaileekin edo hautagaiekin kontratuaren baldintzak negoziatzea.

4. Prozedura hau, bereziki, konplexutasun bereziko zerbitzu intelektualen kasuan da egokia; horixe dira aholkularitza-, arkitektura- edo ingeniarietako zerbitzu batzuen kasua.

#### 161. artikulua. *Parte hartzeko eskaerak.*

1. Erregulazio harmonizatutako kontratuaren adjudikazio-prozeduretan, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak nahikoa izan beharko du baldintza-agiriak eta kontratua egikaritzeko inguruabar eta baldintza nabarmenak egoki aztertzeko; hori guztia kontratuaren irismenari eta konplexutasunari erreparatuta. Nolanahi ere, ezingo da izan hogeita hamar egun baino gutxiagokoa, Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora lizitazio-iragarkia bidaltzen den egunetik hasita.

Eskaerak aurkezteko epe orokorra ezin denean eman presako egoera bat tarteko, kontratazio-organoak, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuarentako, beste epe bat jarri ahalko du, 119. artikuluan deskribatutako baldintzetan. Epe hori ez da izango hamabost egunekoa baino laburragoa, lizitazio-iragarkia igortzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Lehenengo eta behin *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratzeko betebeharra dela-eta 135. artikulua 3. apartatua ezarritakoa alde batera utzi gabe, prozedura mugatuetan lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean aurretiaz argitaratu beharko da; hain zuzen ere, parte hartzeko eskaerak aurkezteko hurrengo apartatua ezarritako epea bezainbesteko aurrerapenez, gutxienez.

3. Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuen kasuan, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, gutxienez, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

4. Parte hartzeko eskaerekin batera, 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da, behin-behineko bermea jartzeko egiaztatzea kenduta.

#### 162. artikulua. *Hautagaien aukeraketa.*

1. Kontratazio-organoak lizitazio-iragarkia argitaratu baino lehen zehaztu behar du 87. artikulutik 91.era arteko kaudimeneko eta gaitasun teknikoko irizpide objektiboen arteko zeintzuen arabera hautatuko dituen proposamenak egiteko gonbidapena egingo zaien hautagaiak.

2. Prozeduran parte hartzeko gonbidapena gutxienez zenbat enpresabururi egingo zaion zehaztuko du kontratazio-organoak. Ezingo dira izan bost baino gutxiago. Hautapen-irizpideak betetzen dituzten hautagaien kopurua gutxienez hori baino txikiagoa denean, irizpideak betetzen dituzten horiekin jarraitu ahalko du aurrera kontratazio-organoak, eta prozeduran parte hartzeko eskaera egin ez duten enpresaburuei edo baldintza horiek betetzen ez dituzten hautagaiei ezingo zaie egin parte hartzeko gonbidapena.

Egoki iritziz gero, kontratazio-organoak gehieneko zenbatekoa ere ezarri ahalko du; alegia, gehienez ere zenbat hautagairi egingo zaion eskaintza aurkezteko gonbidapena.

Nolanahi ere, hautagai gonbidatuen kopurua lehia egiazkoa izango dela ziurtatzeko bestekoa izan beharko da.

3. Lizitazio-iragarkian adierazi beharko da zeintzuk diren hautagaiak hautatzeko irizpide edo arau objektiboak eta diskriminaziorik eragiten ez dutenak, bai eta eskaintzak aurkezteko gonbidapena egingo zaien hautagaien gutxienezko kopurua ere, eta, hala badagokio, gehienekoa ere bai.

4. Kontratazio-organoak, eskatzaileen nortasuna eta kaudimena eta gaitasun teknikoa egiaztatu ondoren, hurrengo fasera igaro behar dutenak hautatuko ditu, eta gonbidapena egingo die, denei aldi berean eta idatziz, beren proposamenak aurkez ditzaten, 164. artikuluan aipatzen denaren arabera dagokion epean.

#### 163. artikulua. *Gonbidapenen edukia eta hautagaiei eman beharreko informazioa.*

1. Gonbidapenetan, argitaratutako lizitazio-iragarkiaren aipamen bat egingo da, eta honako hauek ere aipatuko dira: eskaintzak hartzeko azken eguna zein den, zer helbidetara igorri behar diren eta zer hizkuntzatan (batean zein gehiagotan) idatzi behar diren; modu osagarri gisan erantsi behar diren dokumentuak, hala badagokio; kontratua adjudikatzeko zer irizpide hartuko diren kontuan, eta irizpide bakoitzak zer pisu izango duen, edo, hala badagokio, irizpide bakoitzaren garrantzia, handienetik hasita txikienera, baldin eta lizitazio-iragarkian ez badira ageri; orobat, zer lekutan, egunetan eta ordutan irekiko diren proposamenak.

2. Hautagaietarako gonbidapenak behar diren jarraibideak izango ditu bitarteko elektronikoekin baldintza-agirietara eta gainerako dokumentazio osagarria sartu ahal izateko.

138. artikulua 2. apartatua xedatuari jarraituz baimenduta dagoenean elektronikoak ez diren bitartekoak erabiliz baldintza-agirietara eta gainerako dokumentazio osagarria sartzea, gonbidapenak inguruabar hori adieraziko du, bai eta dokumentazioa hautagaiei helarazteko modua ere. Kasu horretan, aipatutako dokumentazioa prozedura izapidetzen ari denaz beste organo edo erakunde baten esku dagoenean, gonbidapenean, halaber, agiri horiek nola eskuratu ahalko diren zehaztuko da, eta, hala badagokio, haiek eskatzeko azken eguna ere bai; orobat, ordaindu beharreko diru-zenbatekoa eta ordainketa-

modalitateak, baldin eta ordaindu beharrik badago. Zerbitzu eskudunek, eskaera jaso ondoren, geroratu gabe igorriko diete dokumentazio hori interesdunei.

164. artikulua. *Proposamenak.*

1. Erregulazio harmonizatuko kontratuei buruzko prozedura murriztuetan proposamenak aurkezteko epe orokorra behar bestekoa izango da proposamenak egoki lantzeko, kontratuaren irismenaren eta konplexutasunaren arabera. Nolanahi ere, ez da hogeita hamar egunetik beherakoa izango, gonbidapen idatzia bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

Honako kasu hauetan laburtu ahalko da aurreko paragrafoan aurreikusitako epe orokorra:

a) Aurretiazko informazioaren iragarki bat bidali badu, epe orokorra hamar egunera arte gutxitu ahalko da. Epearen laburtze hori onartuko bada, 156. artikulua 3. apartatuaren a) letran ezarritako baldintzak betez bidali beharko da aurretiazko informazioaren iragarkia.

b) Proposamenak aurkezteko epe orokorra ezin denean eman presako egoera bat tarteko, kontratazio-organoak beste epe bat jarri ahalko du, 119. artikuluan deskribatutako baldintzetan. Epe hori ez da izango hamar egunekoa baino laburragoa, idatzizko gonbidapena igortzen den egunetik kontatzen hasita.

c) Baldin eta kontratazio-organoak onartzen badu eskaintzak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkez daitezela, proposamenak aurkezteko epe orokorra bost egunetz gutxitu ahalko da.

Obra- eta zerbitzu-emakidetan, aurreko c) letran ezarritako inguruabarra gertatzen denean soilik gutxitu ahalko da epe orokorra.

2. Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuei buruzko prozedura murriztuetan, proposamenak aurkezteko epea ez da izango hamar egunekoa baino laburragoa, gonbidapena bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

165. artikulua. *Adjudikazioa.*

Kontrata adjudikatzerakoan, lege honetan prozedura irekirako aurreikusitakoa aplikatuko da, 140. artikulua aipatzen duen agiriak aldeztu aurretik kalifikatzeko beharizanari dagokiona izan ezik.

4. azpiatala. *Negoiazioa duten prozedurak*

166. artikulua. *Negoizatzekoa den gaiaren ezaugarriak eta haren zedarritzea.*

1. Negoiazioa duten prozeduretan, kontratuaren baldintzak hautagaietako batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren kontratazio-organoak hautatutako lizitatzailari adjudikatuko zaio kontratua. Hautaketa arrazoitu egin beharko da.

2. Administrazio-klausula partikularren agirian, hauek zehaztuko dira: enprekin negoziatu beharko diren alderdi ekonomiko eta teknikoak; kontratazio-organoen beharizanen deskribapena eta kontratatu beharreko horniduretarako, obretarako edo zerbitzuetarako eskatzen diren ezaugarrien deskribapena; negoziatzeko jarraituko den prozedura, zeinak une oro bermatuko baitu negoziazioan ahal den gardentasunik handiena izatea, hari buruzko publizitatea egitea eta parte hartzen duten lizitatzailen artean diskriminaziorik ez izatea; kontratuaren objektua den prestazioan eskaintza guztiek bete beharreko gutxieneko baldintza edo elementuak, eta adjudikazio-irizpideak.

Emandako informazioa behar bezain zehatza izango da, operadore ekonomikoek kontratazioaren izaera eta eremua identifikatu ahal izateko eta prozeduran parte hartzea eskatzen duten erabaki ahal izateko.

3. Negoziazioa duten prozedurak 167. eta 168. artikuluetan aipatutako kasuetan erabili ahalgo dira. 168. artikuluan jasotako aparteko inguruabarrak gertatzen direnean izan ezik, kontratazio-organoek lizitazio-iragarki bat argitaratu beharko dute.

167. artikulua. *Lizitazio-prozedura negoziatua aplikatzeko kasuak.*

Kontratazio-organoek honako egoera hauetakoren batean adjudikatu ahalko dituzte obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak lizitazio-prozedura negoziatua erabiliz:

a) Kontratazio-organoaren beharrianak betetzeko ezinbesteko gertatzen denean prestazioa merkatuan eskuragarri dagoen bezala hartuta lizitatzailleek alde aurretik diseinu- edo egokitze-lan bat egitea haren gainean.

b) Kontratuaren objektua den prestazioak proiektu edo konponbide berritzaileak biltzen dituenean.

c) Kontrata ezin denean adjudikatu alde aurretiko negoziatorik gabe, haren xede den prestazioaren izaerari, konplexutasunari edo konfigurazio juridiko edo finantzarioari lotutako inguruabar berariazkoengatik edo prestazioari berez datxezkion arriskuengatik.

d) Kontratazio-organoak zehaztaper teknikoak behar besteko zehaztasunez ezin dituenean ezarri erreferentzia eginez arau bati, europar ebaluazio tekniko bati, zehaztaper tekniko komun bati edo erreferentzia tekniko bati, lege honetan ezarritako baldintzetan.

e) Aurretik jarraitutako prozedura ireki edo murriztuetan soilik eskaintza irregular edo onartezinak aurkeztu direnean.

Irregularizat joko dira, bereziki, kontratazioaren baldintza-agiriei ez dagozkien eskaintzak, epez kanpo jaso direnak, kolusio- edo ustelkeria-zantzuak dituztenak edo kontratazio-organoak nabarmenki baxutzat jo dituenak. Onartezintzat joko dira, bereziki, eskatutako kualifikazioa ez duten lizitatzailleek aurkeztutakoak eta kontratazio-organoaren aurrekontua gainditzen duen prezioa duten eskaintzak, kontratazio-prozedurari hasiera eman baino lehen zehaztu eta dokumentatutakoari erreparatuta.

f) Gizarte-zerbitzu guztiz pertsonaletarako kontratuak direnean, pertsonak arreta sozialaren ingurunean errotzea dutenak beren ezaugarri erabakigarrietako bat, betiere kontratuaren objektua lehendik zerbitzu horren onuradun ziren pertsonari arreta ematen jarraitzea denean.

168. artikulua. *Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzeko kasuak.*

Kontratazio-organoek soilik honako kasu hauetan adjudikatu ahalko dituzte kontratuak alde aurretik lizitazio-iragarkia argitaratu gabe prozedura negoziatuaren bitartez:

a) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak, honako kasu hauetan:

1.a Prozedura ireki edo prozedura murriztu baterako inongo eskaintzarik aurkeztu ez denean, eskaintza egokirik aurkeztu ez denean, parte hartzeko eskaerarik ez dagoenean edo parte hartzeko eskaera egokirik ez dagoenean, baldin eta kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira; gainera, inongo kasutan ezingo da handitu lizitazioaren oinarriko aurrekontua, ez eta aldatu ere ordainketarako sistema, eta txosten bat bidali beharko zaio Europako Batzordeari, azken horrek hala eskatzen duenean.

Eskaintzak desegokitzat joko dira kontraturako egokiak ez direnean, nabarmenki ez direlako gai muntako aldaketarik egin ezean kontratazio-organoaren beharrianak eta baldintzak betetzeko, kontratazioa arautzen duten baldintza-agirietan zehaztutakoak. Parte hartzeko eskariak desegokitzat joko dira baldin eta kasuko enpresaburua baztertuta geratu behar bada edo gera badaiteke lege honetan ezarritako arrazoiengatik edo ez baditu betetzen kontratazio-organoak ezarritako hautapen-irizpideak.

2.a Obrak, hornidurak edo zerbitzuak enpresaburu jakin bati baizik ezin zaizkionean enkargatu honako arrazoi hauetako batengatik: bakarra den eta Espainiako Ondare Historikoan ez dagoen artelan bat edo errepresentazio artistiko bat sortzea edo eskuratzea



izatea kontratuaren objektua; arrazoi teknikoengatik lehiarik ez egotea; edo eskubide eksklusiboak babestu behar izatea, horien barnean direla jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak.

Arrazoi teknikoengatik lehiarik ez egoteko kasua eta eskubide eksklusiboak babesteko kasua, horren barnean dela jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak babestekoa, beste aukera edo ordezeko arrazoizkorik ez dagoenean aplikatuko dira soilik, eta lehiarik ez egotea ez denean kontratua adjudikatzeko baldintzen eta irizpideen konfigurazio murriztaile baten ondorioa.

3.a Kontratua isilpeko edo erreserbatu deklaratu denean, edo kontratua egikaritzeko segurtasun-neurri bereziak ezarri behar direnean indarrean den legeriaren arabera, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestu behar direnean eta halaxe adierazi denean 19. artikulua 2. apartatuaren c) letran aurreikusitakoaren arabera.

b) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, honako kasu hauetan:

1.a Kontratazio-organoak ezin aurreikusi dituen eta berari egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko urgentzia batek eskatzea kontratua lehenbailehen egikaritu dadila, 119. artikulua arautzen duen presako izapidetzea aplikatuz lortu ezin delako.

2.a 167. artikulua e) letran aipatzen den egoera gertatzen denean, baldin eta negoziatioan sartzen badira aurreko prozeduran kontratazio-prozeduraren baldintza formalekin bat datozen eskaintzak aurkeztu dituzten lizitaztaile guztiak, eta, betiere, kontratuaren hasierako baldintzak ez direnean funtsean aldatzen. Nolanahi ere, ezingo da inoiz lizitazio-preziora handitu edo ordainketarako sistema aldatu.

c) Hornidura-kontratuetan, gainera, honako kasu hauetan:

1.a Produktuak ikerketarako, saiakuntzarako, azterlanerako edo garapenerako ez bestetarako fabrikatzen direnean; baldintza hori ez zaio aplikatuko produktua merkatuan bideragarria den jakiteko edo ikerketaren eta garapenaren kostuak berreskuratzeko egiten den serieko produkzioari.

2.a Hasierako hornitzaileak entrega gehigarriak egiteko denean, dela ohiko erabilerako hornigaiz edo instalazioz hornitzen jarraitzeko, dela egon dauden hornigaiak edo instalazioak gehitzeko, eta hornitzailez aldatzeak Administrazioa bestelako ezaugarri teknikoak dituzten materialak eskuratzera behartuko balu eta horrek neurrigabeko bateraezintasunak nahiz zailtasun teknikoak sortuko balitu bai erabilerarako bai mantentze-lanerako. Kontratu horien iraupena ezingo da izan, oro har, hiru urtetik gorakoa.

3.a Lehengaien merkatu antolatuetan edo burtsetan kotizatzen duten hornigaiak eskuratzeko denean.

4.a Merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen hornitzaile batekin edo konkurtso bateko administratzaileekin baldintza biziki onuragarrien arabera itundutako horniketa baterako denean, edo hitzarmen judizial bat edo izaera bereko prozedura bat dela medio itundutako horniketa baterako denean.

d) Zerbitzu-kontratuetan, gainera, dena delako kontratua proiektuen lehiaketa baten ondorioa denean eta aplikatu beharreko arauen arabera irabazleari adjudikatu behar zaionean. Hainbat irabazle izanez gero, guztiei egin behar zaie negoziatioetan parte hartzeko gonbidapena.

Halaber merkataritza-jarduera behin betiko utzi behar duen hornitzaile batekin edo konkurtso bateko administratzaileekin baldintza biziki onuragarrien arabera itundutako zerbitzu baterako denean, edo hitzarmen judizial bat edo izaera bereko prozedura bat dela medio itundutako horniketa baterako denean.

e) Obra- eta zerbitzu-kontratuetan, gainera, haien objektua diren obra edo zerbitzuak kontratista berari lege honetan araututako lizitazio-prozeduraren bat erabiliz eta dagokion lizitazio-iragarkia argitaratu ondoren adjudikatu zaizkion antzeko beste batzuen errepikapena direnean, baldin eta zerbitzu edo obra horiek prozedura horien bidez adjudikatutako hasierako kontratuaren objektua izan den oinarritzko proiektu bati egokitzen

bazaizkio, prozedura hau erabiltzeko aukera hasierako kontratuaren lizitazio-iragarkian adierazi bada, obra edo zerbitzu berrien zenbatekoa kontuan hartu bada hasierako kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzekoan, eta hasierako kontratua egin zenetik hiru urte baino gehiago iragan ez badira. Oinarritzko proiektuan nahitaez aipatuko da zenbat obra edo zerbitzu gehigarri egongo diren, bai eta haiek zer baldintzatan adjudikatuko diren.

169. artikulua. *Lizitazio-prozedura negoziatuaren izapidetzea.*

1. Lizitazio-prozedura negoziatura jotzen denean 167. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak tartean direlako, kontratazio-organoak, nolahi ere, lizitazio-iragarki bat argitaratu beharko du 135. artikuluan aurreikusitako eran.

2. Lizitazio-prozedura negoziatua izapidetzean, prozedura murriztuari buruzko artikuluetako arau hauek aplikatuko dira: 160. artikulua 1. apartatuan eta 161., 162., 163. eta 164.1 artikuluetan jasotako arauak. Hala eta guztiz ere, negoziatzaera gonbidatuko diren enpresen zenbatekoa mugatzea erabakitzen bada, kontratazio-organoak eta haren mendeko zerbitzuek bermatu beharko dute gonbidatutako hautagaiak gutxienez ere hiru direla. Hautapen-irizpideak betetzen dituzten hautagaien kopurua gutxienez hori baino txikiagoa denean, irizpideak betetzen dituzten horiekin jarraitu ahalko du aurrera kontratazio-organoak, eta prozeduran parte hartzeko eskaera egin ez duten enpresaburuei edo baldintza horiek betetzen ez dituzten hautagaiei ezingo zaie parte hartzeko gonbidapena egin.

3. Kontratazio-organoek elkarren segidako hainbat fase ezarri ahalko dituzte artikulua honetan araututako prozedurarako, lizitazio-iragarkian edo administrazio-klausula partikularren agirian zehaztutako adjudikazio-irizpideak aplikatuz negoziatu beharreko eskaintzen kopurua pixkanaka murriztearren. Hala, ahalmen hori erabiliko den edo ez adierazi beharko dute klausulen agirian eta lizitazio-iragarkian. Azken faseraino iristen diren eskaintzen kopurua lehia egiazkoa dela bermatzeko bestekoa izan beharko da, baldin eta behar beste eskaintza edo hautagai egoki aurkeztu badira.

4. Negoziazioan zehar, lizitzaile guztiek tratu bera jasotzen dutela zaindu beharko dute kontratazio-mahaiek eta kontratazio-organoek. Bereziki, ez dute informaziorik emango diskriminazioa eraginez eta lizitzaile batzuei besteen gaineko abantaila emanez.

Kontratazio-organoek idatziz jakinaraziko diete eskaintzak baztertu ez dizkieten lizitzaile guztiei zehaztutako teknikoetan egiten den aldaketa oro edo 166. artikuluan aipatzen diren gutxienezko baldintzak ezartzen ez dituzten kontratazioari buruzko bestelako dokumentuetan egiten den aldaketa oro, eta behar besteko epea emango diete beren eskaintza berrikusi eta beste bat aurkezteko.

5. Kontratazio-organoek, hala badagokio, beren mendeko zerbitzu teknikoaren bitartez, lizitzaileekin negoziatutako dituzte horiek aurkeztutako hasierako eskaintzak eta geroko eskaintza guztiak –artikulu honen zortzigarren apartatuan aipatzen direnak izan ezik–, edukia hobetzeko eta administrazio-klausula partikularren agirian eta lizitazio-iragarkian –kasua bada– eta izan daitezkeen dokumentu osagarrietan adierazitako baldintzei egokitzeko aurkeztutakoak, eskaintzarik onena identifikatze aldera, 145. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ez dira negoziatutako kontratuaren objektua den prestazioaren gutxienezko baldintzak, ez eta adjudikazio-irizpideak ere.

6. Espedientean, egindako gonbidapenen, jasotako eskaintzen eta eskaintzak jasotzeko edo baztertzeko arrazoien berri jaso beharko da, bai eta negoziazioan lortutako abantailak ere.

7. Prozeduran zehar, kontratazio-mahaiek eta kontratazio-organoek beren konfidentzialtasun-betebeharra beteko dute, lege honetan ezarritako baldintzetan; hori dela eta, gainerako parte-hartzaileei ez dizkiete emango hautagai edo lizitzaile batek jakinarazi eta konfidentzialtat jota dauden datuak, azken hori ados ez badago. Adostasun hori ezingo da izan orokorra; izan ere, zer informaziori buruzkoa den zehaztu beharko du.

8. Kontratazio-organoak, negoziazioak amaitzea erabakitzen duenean, lizitzaile guztiei jakinaraziko die, eta epe komun bat ezarriko du eskaintza berriak edo berrikusitakoak aurkezteko. Ondoren, kontratazio-mahaiek egiaztatuko du behin betiko eskaintzak bat

datozela gutxieneko baldintzekin eta baldintza-agirian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela; haiek adjudikazio-irizpideen arabera baloratuko ditu; dagokion proposamena aurkeztuko du, eta kontratazio-organoak kontratua adjudikatuko du.

170. artikulua. *Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izapidetzearen berezitasunak.*

1. Kontratazio-organoek 168. artikuluan ezartzen diren inguruabarretakoren bat gertatzen denean erabiliko dute soilik lizitazio-iragarki baten aurretzako publizitaterik gabeko prozedura negoziatua, eta 169. artikuluan ezarritako arauen arabera izapidetuko dute, horiek aplikatzekoak diren guztian –aurretzako publizitateari dagokionean izan ezik–, kasuan-kasuan aurkezten diren parte-hartzaileen kopuruaren arabera.

2. Hautagai bakarrak parte hartzen duenean, kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak, 169. artikuluan 5. apartatuan aipatzen diren baldintzetan negoziatu beharko du harekin, posible baldin bada.

171. artikulua. *Lizitatzailerik eman beharreko informazioa.*

Eskaintza onargarri bat aurkeztu duen lizitatzailerik eskatuta, kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek ahal den bezain laster jakinaraziko dute negoziazioak nola garatu diren; edonola ere, haren idatzizko eskaera jaso eta hamabost eguneko epearen barruan.

Aurrekoa gorabehera, mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak erabaki ahalko du zenbait datu ez jakinaraztea, 155. artikuluan 3. apartatuan jasotako konfidentzialtasunaren salbuespenean babestuta.

#### 5. azpiatala. Lehia-elkarrizketa

172. artikulua. *Ezaugarriak.*

1. Lehia-elkarrizketan, lehia-elkarrizketaren mahai bereziak hautagai hautatuekiko elkarrizketa bat zuzentzen du, haiek aldeztu aurretik eskatutakoa, bere beharrei erantzuteko modukoa den eta hautagai hautatuek eskaintza bat aurkezteko oinarri gisa baliagarria den konponbide bat edo batzuk lantze aldera.

2. Interesa duen edozein enpresak parte hartzeko eskaera bat aurkeztu ahalko du lizitazio-iragarki bati erantzunez, kontratazio-organoak hautaketa kualitatiborako eskatu duen informazioa eta dokumentazioa emanez.

3. Lehia-elkarrizketaren prozedura 167. artikuluan aipatutako kasuetan erabili ahalko da, baina aurretik lizitazio-iragarki bat argitaratu beharko da.

4. Kontratazio-organoak deskripzio-agirian erabaki ahalko du 234. artikuluan 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoa aplikatzea lehia-elkarrizketaren bidez adjudikatzen diren kontratuei.

173. artikulua. *Primak edo kalte-ordainak.*

1. Konponbide egokiagoak eta berritzaileagoak eskain ditzaketen enpresen parte-hartzea sustatzeko, kontratazio-organoek deskripzio-agirian primak edo konpentsazioak ezarri ahalko dituzte elkarrizketan parte hartzen duten guztientzat edo haietako batzuentzat.

Primak edo konpentsazioak parte-hartzaile guztientzat aitortzen ez badira, horiek eskaintzen sailkapen-hurrenkeran lehenengo postuak lortu dituztenei aitortuko zaizkie. Finkatzen diren zenbatekoek nahikoak izan beharko dute aurreko paragrafoan aipatutako helburua betetzeko.

2. Primak edo konpentsazioak aitortzen badira, haiek ordaintzeko behar den finantza-estaldura badagoela egiaztatu beharko da kontratazio-espeditentean.

3. Artikulu honen lehen apartatuan aipatzen diren kopuruak 198. artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dira, eta hartan aurreikusitako epeak kontratua formalizatu zen egunaren biharamunetik aurrera kontatuko dira.

174. artikulua. *Prozedura hastea eta parte hartzeko eskaerak.*

1. Kontratazio-organoek beren behar eta baldintzak lizitazio-iragarkian eman beharko dituzte jakitera, eta iragarki horretan edo deskripzio-agiri batean zehaztu beharko dituzte. Dokumentua gero ezingo da aldatu. Aldi berean eta dokumentu beretan, kontratazio-organoek hautatutako adjudikazio-irizpideak jakitera eman eta zehaztuko dituzte, eta egikaritzeko gutxi gorabeherako epe bat emango dute.

2. Prozedura horretan, prozedura murriztuari buruz honako hauetan ezarritako arauak izango dira aplikatzekoak: 160. artikulua 2. apartatuaren lehen paragrafoa; 161. artikulua, lehen apartatuko bigarren paragrafoa kenduta, eta 162. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak, batetik, eta, bestetik, artikulua beraren 4. apartatuan, eskatzaileak hautatzeari dagokiona. Hala eta guztiz ere, negoziatzaera gonbidatuko diren enpresen zenbatekoa mugatzea erabakitzen bada, kontratazio-organoak ziurtatu beharko du kontratuaren objektua egikaritzeko gai diren hautagaiak gutxienez ere hiru direla.

3. Gonbidapenetan, argitaratutako lizitazio-iragarkiaren aipamen bat egingo da, eta honako hauek ere aipatuko dira: zein egunetan eta non hasiko den kontsulta-aldia; zein hizkuntza erabiliko den edo diren; gaitasun-baldintzei buruzko agiriak, baldin eta aurkeztu behar badira; eta kontratua adjudikatzeko irizpideen haztatze erlatiboa, edo, hala badagokio, irizpide horien zerrenda, garrantzirik handiena dutenetatik hasi eta gutxien dutenetara arte.

Hautagaiantzako gonbidapenak behar diren jarraibideak izango ditu bitarteko elektronikoekin deskripzio-agirira eta gainerako dokumentazio osagarrira sartu ahal izateko.

138. artikulua 2. apartatuan xedatuari jarraituz baimenduta dagoenean elektronikoak ez diren bitartekoak erabiliz deskripzio-agirira eta gainerako dokumentazio osagarrira sartzea, gonbidapenak hala adieraziko du, eta dokumentazioa hautagaien eskura jartzeko modua ere adieraziko du. Kasu horretan, aipatutako dokumentazioa prozedura izapidetzen ari denaz beste organo edo erakunde baten esku dagoenean, gonbidapenean, halaber, agiri horiek nola eskuratu ahalko diren zehaztuko da, eta, hala badagokio, eskaera egiteko azken eguna ere bai; orobat, ordaindu beharreko diru-zenbatekoa eta ordainketa-modalitateak, baldin eta ordaindu beharrik badago. Zerbitzu eskudunek dokumentazio hori geroratu gabe igorriko diete interesdunei, horien eskaera jaso ondoren.

175. artikulua. *Hautagaiekiko elkarrizketa.*

1. Lehia-elkarrizketarako mahai berezia hautatutako hautagaiekin elkarrizketatuko da, bere beharrezanean erantzuteko bitarteko egokiak zeintzuk diren zehaztearren. Elkarrizketa horretan, kontratuaren alderdi guztiak eztabaidatu ahalko dira hautatutako hautagaiekin.

2. Elkarrizketan, mahaiak berdin tratatuko ditu lizitatzailerak guztiak, eta, batez ere, ez du informaziorik emango diskriminazioa eraginez eta lizitatzailerak batzuei besteen gaineko abantaila emanez.

Mahaiak ezingo dizkie gainerako parte-hartzaileei jakinarazi parte-hartzaile batek proposatutako konponbideak edo hark jakinarazitako isilpeko datuak, azken hori aurrez ados ez badago, 169. artikulua 7. apartatuan ezarritako moduan.

3. Kontratazio-organoek hurrenez hurrengo hainbat fase ezarri ahalko dituzte prozedura honetarako, lizitazio-iragarkian edo deskripzio-agirian zehaztutako adjudikazio-irizpideak aplikatuz negoziatu beharreko eskaintzen kopurua pixkanaka murriztearren. Hala, ahalmen hori erabiliko den edo ez adierazi beharko dute baldintza-agirian eta lizitazio-iragarkian.

Azken fasean aztertzen diren konponbideen kopurua lehia egiazkoa dela bermatzeko bestekoa izan beharko da, baldin eta behar beste konponbide edo hautagai egoki aurkeztu badira.

4. Elkarrizketa-fasean baztertu den lizitatzailerak eskatuta, mahaiak ahal bezain laster jakinaraziko du lizitatzailerak elkarrizketa nola garatu den, edo, behintzat, haren idatzizko eskaera jaso eta hamabost eguneko epearen barruan.

5. Mahaiak elkarrizketak eginez jarraituko du, eta, beharrezkoa bada, parte-hartzaile bakoitzak elkarrizketa-fasean zehar aurkeztutako konponbidea edo konponbideak alderatuko ditu, harik eta bere beharrezko erantzuteko haietatik zeinek balio duen edo duten erabakitzeko moduan egon arte.

Behin kontratazio-organoak lizitazio-prozesuaren azken faserako hartu beharreko konponbidea edo konponbideak zehaztuta, mahaiak proposatuko du elkarrizketaren amaiera deklaratu dadila, bai eta zer konponbide hartuko diren ere, eta amaierako fasera gonbidatuko dira konponbide onenak aurkeztu dituzten parte-hartzaileak.

Kontratazio-organoak elkarrizketa amaitutzat eman eta parte hartu duten guztiei hala jakinarazi ondoren, mahaiak hautatu diren konponbideak aurkeztu dituzten parte-hartzaileak gonbidatuko ditu beren behin betiko eskaintza aurkez dezaten, elkarrizketa-fasean zehar zehaztutako konponbide bideragarrian edo konponbide bideragarrietan oinarrituta. Gonbidapen horretan, honako hauek adieraziko ditu mahaiak: eskaintzak aurkezteko muga-eguna zein den, horiek zein helbidetara bidali behar diren eta zein hizkuntzatan idatzita egon behar duten (hizkuntza bat baino gehiago izan daitezke).

176. artikulua. *Eskaintzak aurkeztea, aztertzea eta adjudikazioa.*

1. Eskaintzetan, proiektuak gauzatzeko behar diren eta eskatzen diren osagai guztiak sartu behar dira.

Mahaiak zehaztapenak edo argibideak eskatu ahalko ditu aurkeztutako eskaintzei buruz, bai eta haietan doikuntzak egiteko edo haiei buruzko informazio osagarria emateko ere, baldin eta horrekin ez baditu aldatzen eskaintzaren edo lizitazio publikoaren funtsezko elementuak –zehazki, lizitazio-iragarkian edo deskripzio-agirian ezarritako beharrezko baldintzak–, eta ez badu ekartzen lehia faltsutu dezakeen edo diskriminazio-efektu bat izan dezakeen aldaketarik.

2. Lizitazio-iragarkian edo deskripzio-agirian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera ebaluatuko ditu mahaiak lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzak, eta kalitate-prezio erlazio onena biltzen duen eskaintza hautatuko du, 145. artikulua 3. apartatuaren b) letran ezarritakoari jarraituz.

3. Mahaiak bere ustez kalitate-prezio erlazio onena aurkezten duen lizitatzailerarekin negoziatu ahalko du, 145. artikulua 3. apartatuaren b) letraren arabera, konpromiso finantzarioak edo eskaintzan jasotako beste baldintza batzuk konfirmatzeko. Horretarako, kontratuaren baldintzen azken xehetasunak erabakiko dira, baldin eta horrekin eskaintzaren edo lizitazio publikoaren funtsezko elementuak aldatzen ez badira –bereziki, lizitazio-iragarkian edo deskripzio-agirian ezarritako beharrezko baldintzak–, eta horrekin lehia faltsutzeko arriskurik hartzen ez bada eta diskriminazio-efekturik sortzen ez bada.

4. Proposamena eginda, kontratazio-organoak kontratua adjudikatuko du.

6. azpiatala. Berrikuntzarako elkartzeko prozedura

177. artikulua. *Berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren ezaugarriak.*

1. Berrikuntzarako elkartzea prozedura bat da, produktu, zerbitzu edo obra berritzaileak garatzea eta gero horretatik datozen hornidura, zerbitzu edo obrak erostea xede duena, baldin eta halakoak bat badatoz kontratazio-organoen eta parte-hartzaileen artean erabakitako errendimendu-mailekin eta gehieneko kostuekin.

Horretarako, administrazio-klausula partikularren agirietan, kontratazio-organoak zehaztuko du zein den produktu, zerbitzu edo obra berritzaile baten beharra, merkatuan jada eskuragarri dauden produktu, zerbitzu edo obrak eskuratuz bete ezin daitekeena. Halaber, adieraziko du deskribapeneko zein elementu osatzen dituzten lizitatzailerak guztiek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, eta jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideei aplikatu beharreko xedapenak zehaztuko ditu. Emandako informazioa behar bezain zehatza izango da enpresaburuek eskatzen den konponbidearen izaera eta eremua identifikatu ahal izateko eta prozeduran parte hartzea eskatzen duten erabaki ahal izateko.

2. Kontratazio-organoak erabaki ahalko du bazkide batekin edo ikerketa- eta garapen-jarduerak bakoitzak bere aldetik egingo dituzten zenbait bazkiderekin sortzea berrikuntzarako elkartzea.

Bazkidea edo bazkideak, aurrez, lege honen 178. eta 179. artikuluetan araututako moduan hautatu behar dira.

3. Prozedura honen bidez adjudikatzen diren kontratuek arau hauei jarraituko diete:

a) Ikerketa- eta garapen-fasean, erregelamenduz ezartzen diren arauak, bai eta dagozkion baldintza-agirietan jasotako preskripzioak eta, osagarri gisa, zerbitzu-kontratuaren gaineko arauak ere.

b) Prozedura honek eragindako obrak, zerbitzuak edo hornidurak egiteko edo emateko fasean, kasuan kasuko prestazioari dagozkion kontratuaren gaineko arauak.

178. artikulua. *Hautagaien aukeraketa.*

1. Berrikuntzarako elkartzeetan, edozein enpresaburuk aurkeztu ahalko du parte hartzeko eskaera bat lizitazio-deialdi bati erantzunez, eta kaudimen-irizpide objektiboek buruz kontratazio-organoak eskatu duen informazio eman beharko du.

2. Parte hartzeko eskaerak jasotzeko gutxienerako epea hogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio-iragarkia bidaltzen den egunetik kontatzen hasita, kontratua erregulazio harmonizatuko denean. Beste kasu batean, epe hori ezingo da izan hogeita hamar egunekoa baino laburragoa, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

3. Hautagaiak aukeratzeko, kontratazio-organoek, bereziki, hautagaiek ikerketaren eta garapenaren arloetan daukaten gaitasunari buruzko kaudimen-irizpide objektiboak aplikatuko dituzte, bai eta konponbide berritzaileak aurkitu eta aplikatzeko daukaten gaitasunari buruzkoak ere.

Eskatutako informazioa ebaluatu ondoren kontratazio-organoak gonbidatzen dituen enpresaburuek baizik ezingo dituzte ikerketa- edo berrikuntza-proiektuak aurkeztu organo horrek adierazi dituen eta ordura arteko konponbideekin ezin bete daitezkeen beharrei erantzuteko.

Kontratazio-organoek mugatu ahalko dute gai diren eta prozeduran parte hartzera gonbidatuko diren hautagaien kopurua, 162.2 artikuluari jarraituz. Hiru da negoziatzera gonbidatuko diren enpresaburuen gutxienerako kopurua.

179. artikulua. *Negoiazioa eta elkarrearen adjudikazioa.*

1. Hautagaien aukeraketa amaituta, kontratazio-organoak gonbidapena egingo die beren ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak aurkez ditzaten, bete beharreko beharrezanez erantzute aldera.

2. Kontratuak adjudikatzeko erabiliko den irizpide bakarra kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena izango da, 145.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3. Kontratazio-organoek, besterik xedatzen ez bada, aukeratutako hautagaiekin negoziatuko dituzte haiek aurkeztutako hasierako eskaintzak eta geroztik aurkeztu dituzten eskaintza guztiak, behin betikoa izan ezik, haien edukia hobetze aldera.

Ez dira negoziatuko gutxienerako baldintzak, ez eta adjudikazio-irizpideak ere.

4. Berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan zehar egiten diren negoziazioak ondoko faseetan egin ahalko dira, negoziatu beharreko eskaintzen kopurua gutxitze aldera, eta administrazio-klausula partikularren agirietan zehaztu eta lizitazio-iragarkian jaso diren adjudikazio-irizpideak aplikatuko dira. Kontratazio-organoak, lizitazio-iragarkian eta administrazio-klausula partikularren agirietan, argi adieraziko du aukera horretaz baliatuko den.

5. Negoziazioan zehar, lizitatzailerak guztiak tratatu bera jasotzen dutela zaindu beharko dute kontratazio-organoek. Xede horrekin, ez dute informaziorik emango diskriminazioa eraginez eta lizitatzailerak batzuei beste gainerako abantaila emanaz. Idatziz jakinaraziko dizkiete aurreko apartatuan ezarritakoari jarraituz eskaintzak baztertu ez dizkieten



lizitzaile guztiei zehaztaper teknikoetan edo gutxieneko baldintzak ezartzen ez dituzten kontratazioaren beste dokumentu batzuetan egin diren aldaketa guztiak. Aldaketa horietan oinarrituta, kontratazio-organoek lizitzaileei behar beste denbora emango diete eskaintzak aldatzeko eta aldatutako eskaintza horiek aurkezteko, dagokionaren arabera.

6. Kontratazio-organoak ez die emango negoziazioan parte hartu duen hautagai edo lizitzaile batek komunikatutako datu konfidentzialik beste parte-hartzaileei, aurrez azken hori ados ez badago. Adostasuna ematekotan, ez da izango uko orokorra eginez, berriazko informazioa nahita jakinarazteko baizik.

180. artikulua. *Berrikuntzarako elkartearen egitura.*

1. Berrikuntzarako elkartzea ondoz ondoko faseetan egituratuko da, ikerketa- eta berrikuntza-prozesuaren etapan sekuentziari jarraituz; prozesuaren barnean, produktuak fabrikatu, zerbitzuak eman edo obrak egin ahalko dira. Berrikuntzarako elkarteak bazkideek erdietsi beharreko tarteko helburu batzuk finkatuko ditu, eta ordainsaria epe egokietan ordainduko du.

Helburu horietan oinarrituta, kontratazio-organoak, fase bakoitzaren amaieran, erabaki ahalko du berrikuntzarako elkartzea suntsiaraztea edo, bazkide bat baino gehiago dituen berrikuntzarako elkarte baten kasuan, bazkideen kopurua gutxitzea banakako kontratuak suntsiaraziz, baldin eta kontratazio-organoak administrazio-klausula partikularren agirietan adierazi badu halako aukerez balia daitekeela eta zer baldintzatan baliatu beharra dagoen.

Berrikuntzarako elkartzea suntsiarazteak edo parte hartzen duten bazkideen kopurua gutxitzeak ez du inoiz ere kalte-ordainik sortuko; hori, halere, ez da eragozpena izango egindako lanengatik kontraprestazio bat egokitzeko baldintza-agirian ezarritako baldintzetan.

2. Bazkide bat baino gehiago dituzten berrikuntzarako elkartearen kasuan, kontratazio-organoak ez die bazkide guztiei jakitera emango bazkide batek elkartearen esparruan proposatutako konponbideak edo aditzera emandako datu konfidentzialak, azken hori ados ez badago. Adostasuna ematekotan, ez da izango uko orokorra eginez, berriazko informazioa nahita jakinarazteko baizik.

181. artikulua. *Berrikuntzarako elkartzeko prozeduratik datozen eskuratzeak.*

1. Ikerketa- eta garapen-faseak amaituta, kontratazio-organoak aztertuko du horien emaitzak hitzartu diren etekinak eta kostuak betetzen ote dituen, eta ondoriozko obrak, zerbitzuak edo hornidurak eskuratzeari buruz dagokion erabakia hartuko du.

2. Berrikuntzarako elkarteetatik datozen eskuratzeak administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako baldintzetan egingo dira. Elkarte bat hainbat enpresabururekin egiten denean, eskuratze horiek zein enpresabururekin egingo diren aukeratzeko, baldintza-agirian ezarritako irizpide objektiboak erabiliko dira oinarritzat.

3. Obrak, zerbitzuak edo hornidurak eskuratzeak ondoz ondoko prestazioak egitea badakar berekin, eskuratzea lau urtean egiten ahalko da gehienez, obrak, zerbitzuak edo hornidurak eskuratu izanari buruz artikulua honen 1. apartatuan aipatzen den ebazpena jasotzen denetik hasita, non ez den epe luzeagoa behar salbuespeneko inguruabarrengatik.

182. artikulua. *Kontratazio-organoak berrikuntzarako elkartzea konfiguraztea eta haren jarraipena egitea.*

Kontratazio-organoa adi egongo da elkartearen egiturak eta, bereziki, faseen iraupenak eta balioak hauek isla ditzaten: proposatutako konponbideak dakarren berritasuna, eta merkatuan oraindik ere eskuragarri ez dagoen konponbide berritzaile bat garatzeko behar diren ikerketa- eta berrikuntza-jardueren sekuentzia. Horniduren, zerbitzuen edo obren balio zenbatetsia ez da neurritz kanpokoa izango haiek garatzeko behar den inbertsioarekiko.

## 7. azpiatala. Proiektuen lehiaketei aplika dakizkiekeen arauak

183. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Proiektuen lehiaketak planoak eta proiektuak eskuratzeko prozedurak dira; batez ere, arkitekturaren, hirigintzaren, ingeniartzaren eta datu-prozesatzearen arlokoak. Proiektu eta plano horiek eskuratzeko, lizitazioa egiten da lehenbizi eta, ondoren, epaimahai baten esku uzten da aukeratzeko erabakia.

2. Atal honetako arauak proiektuen lehiaketa mota hauei aplikatuko zaizkie:

a) Zerbitzu-kontratu bat adjudikatzeko prozeduren barruan antolatutako proiektu-lehiaketak, zeinetan behin-behineko sariak edo ordainak eman ahalko diren.

Proiektuen lehiaketaren emaitza den zerbitzu-kontratuak, gainera, kasuan kasuko obren zuzendaritza fakultatiboa izan ahalko du objektutzat, baldin eta lehiaketa iragartzeko iragarkian hala aipatzen bada.

b) Sariak edo ordainak dituzten proiektu-lehiaketak.

3. Esleitu behar diren zerbitzuen kontratuaren objektua konplexutasun berezia duten arkitektura-, ingeniartza- eta hirigintza-proiektuen idazketari buruzkoa denean, eta horiek aurreko proiektuen idazketarekin batera kontratatzen direnean, kontratazio-organoek atal honetako arauak aplikatu beharko dizkiete lan osagarri eta obren zuzendaritzari.

4. Erregulazio harmonizatukoak izango dira balio zenbatetsia 22. artikuluan 1. apartatuko a) eta b) letretan ezarritako atalase-zenbatekoaren parekoa edo handiagoa duten proiektu-lehiaketak (deialdia egiten duen organoaren arabera daude ezarrita zenbateko horiek).

Proiektuen lehiaketen balio zenbatetsia kalkulatzeko, artikuluan honetako 2. apartatuan aurreikusitako kasuei ondorengo arau hauek aplikatuko zaizkie: a) letraren kasuan, zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia hartuko da kontuan, bai eta parte-hartzaileei noizbehinka ematen zaizkien sariak eta ordainak ere; b) letran aurreikusitako kasuan, sarien eta ordainen zenbateko osoa hartuko da kontuan, horren barnean dela 168. artikuluan d) letraren arabera adjudikatu daitekeen zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia, baldin eta kontratazio-organoak lizitazio-iragarkian kontratu hori adjudikatzeko asmoaz ohartarazi badu.

184. artikulua. *Lehiaketaren oinarriak.*

1. Proiektuen lehiaketak antolatzeko arauak azpiatal honetan araututakoaren arabera ezarriko dira, eta parte hartzeko interesa dutenen eskura jarriko dira.

2. Saririk edo ordainketarik onartuz gero, lehiaketako oinarrietan zehaztu beharko da, kasuaren arabera, zer kopuru finko ordainduko den sari gisa edo parte-hartzaileek izandako gastuen konpentsazio gisa.

3. Proiektuen lehiaketetan, proposamenen balorazioa haien kalitateari eta haien balio tekniko funtzional, arkitektoniko, kultural eta ingurumenekoei buruzkoa izango da.

185. artikulua. *Parte-hartzaileak.*

1. Kontratazio-organoak proiektuen lehiaketan parte hartzen dutenen kopurua mugatu ahalko du. Kasu horretan, lehiaketak bi fase izango ditu: lehenengoan, kontratazio-organoak parte-hartzaileak aukeratzeko parte hartzeko eskaera aurkeztu duten hautagaien artetik, hurrengo apartatuan aipatzen diren irizpideak aplikatuz; eta, bigarrenetan, kontratazio-organoak aldi berean eta idatziz gonbidatuko ditu hautatutako hautagaiak, beren proiektu-proposamenak kontratazio-organoari aurkez diezazkioten 136. artikuluan aipatutakoaren arabera dagokien epean.

2. Parte-hartzaileen kopurua mugatzea erabakitzen bada, irizpide objektibo, argi eta ez-baztertzailak aplikatu beharko dira parte-hartzaileak hautatzeko; irizpide horiek lehiaketaren oinarrietan eta lizitazio-iragarkian agertu beharko dute. Parte hartzeko aukera ezin da mugatu lurralde-eremu baterako bakarrik, edo pertsona fisikoentzat bakarrik,

pertsona juridikoak baztertuta, ez eta alderantziz ere. Nolanahi ere, parte hartzera gonbidatutako hautagaien kopurua ezartzerakoan, lehia benetakoa izan dadin bermatzeko beharizana hartu beharko da kontuan.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen den bigarren fase hori ondoz ondoko bi azpifasetan gauzatu ahalko da, lehiatzaileen kopurua gutxitu ahal izateko.

Lehenengo azpifasean, aldi berean gonbidatuko dira, eta idatziz, aukeratutako hautagaiak, ideia zehatz bat aurkez diezaioten kontratazio-organoari lehiaketaren xedeari buruz, 136. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokien epean. Ideia horiek epaimahaiak baloratu beharko ditu, aurrez ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera, aurreko apartatuan ezarritakoari jarraituz.

Bigarren azpifasean, aukeratutako parte-hartzaileak beren proiektu-proposamenak aurkeztera gonbidatuko dituzte, orduan ere aldi berean eta idatziz, hasierako ideia gara dezaten, 136. artikuluan aipatutakoaren arabera dagokien epean, eta epaimahaiak aurrez ezarrita dauden adjudikazio-irizpideen arabera baloratu beharko ditu.

Nolanahi ere, hautagai gonbidatuen kopurua lehia egiazkoa izango dela ziurtatzeko bestekoa izan beharko da. Hautagaien gutxieneko kopurua hirukoa izango da.

Nolanahi ere, proiektuen lehiaketan parte hartzen dutenek, baldin eta haien ideiak aukeratu badira eta, horrenbestez, lehen azpifasea gainditu badute, eskubidea izango dute egin dituzten gastuengatik konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko; hain zuzen ere, aurreko artikuluen 2. apartatuan aipatzen dena.

Baldintza-agirietan, kontratazio-organoak adieraziko du aukera horretaz baliatuko den.

4. Baldin eta kontratazio-organoak proiektuen lehiaketa baten ondorengo zerbitzu-kontratu bat adjudikatzeko asmoa badu publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bat erabiliz, eta hura proiektuen lehiaketako irabazleari edo irabazleetako bati adjudikatu behar bazaio proiektuen lehiaketan aurreikusitako arauari jarraituz, azken kasu horretan lehiaketako irabazle guztiak gonbidatu beharko dira negoziazioetan parte hartzera.

#### 186. artikulua. *Publizitatea.*

1. Proiektuen lehiaketaren lizitazioa 135. artikuluan eta aplikatzekoak diren lege honetako gainerako xedapenetan ezarritako moduan argitaratuko da.

2. Kontratazio-organoak, geroagoko zerbitzu-kontratu bat adjudikatzeko asmoa duenean publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, lehiaketaren lizitazio-iragarkian adierazi beharko du hori.

3. Lehiaketaren emaitzak 154. artikuluan aurreikusitako eran argitaratuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratazio-organoak ezingo du proiektuen lehiaketaren emaitzari buruzko informaziorik argitaratu, baldin eta uste bada hura zabaltzeak legearen aplikazioa zailduko lukeela, interes publikoaren aurkakoa izango litzatekeela, enpresa publiko edo pribatuen merkataritza-interes legitimoen aurkakoa litzatekeela edo zerbitzu-hornitzaileen arteko lehia leialari kalte egin liezaiokeela.

#### 187. artikulua. *Epaimahaia eta lehiaketari buruzko erabakia.*

1. Behin proiektu-proposamenak aurkezteko epea amaituta, epaimahai bat eratuko da. Horko kideak lehiaketaren oinarrietan ezarritakoari jarraituz izendatuko dira.

Proiektuen lehiaketetan, kontratazio-mahaiak ez du esku hartuko. Epaimahaiari berariaz esleitu ez zaizkion eginkizun administratiboak nahiz bestelakoak kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek egingo dituzte.

2. Proiektuen lehiaketan parte hartzen dutenekin loturarik ez duten pertsona fisikoek osatuko dute epaimahaia.

3. Proiektuen lehiaketa batean parte hartzeko kualifikazio profesional jakin bat eskatzen denean, epaimahaia osatzen duten kideen bi herenek gutxienez kualifikazio hori eduki beharko dute, edo beste kualifikazio baliokide bat.

4. Epaimahaiak autonomia eta independentzia osoz hartu behar ditu erabaki edo irizpenak, aurkeztuko dizkioten proiektuak oinarri dituela eta lehiaketako lizitazio-iragarkian adierazitako irizpideak bakarrik kontuan hartuta. Proiektuak izenik gabe aurkeztuko dizkiote.

Ondore horietarako, egilearen izena ez aipatzeaz gainera egilea edo egileak nor diren zeharka jakiteko moduko daturik edo aztarnarik ez dutenak joko dira modu anonimoan aurkeztutako proiektuzat.

5. Epaimahaiak txosten batean jasoko du, kide guztiek sinatuta, proiektuen sailkapena. Horretarako, proiektu bakoitzaren merezimenduak hartuko ditu kontuan. Oharrak eta argibideren bat behar duten alderdiak ere jasoko ditu txostenean, zeina kontratazio-organoari helarazi beharko baitzaio.

6. Anonimatua errespetatu egin beharko da epaimahaiak bere irizpena eman edo erabakia hartu arte.

7. Beharrezkoa izanez gero, proiektuen edozein alderdi argitzeko asmoz epaimahaiak aktan jaso dituen galderei erantzuteko gonbidapena egingo zaie parte-hartzaileei, eta epaimahaiko kideen eta parte-hartzaileen arteko elkarriketaren akta osoa egin beharko da.

8. Epaimahaiak, behin erabakia hartuta, haren berri emango dio kontratazio-organoari, azken horrek proiektuen lehiaketa esleie diezaion berak adierazitako parte-hartzaileari.

9. Lehiaketaren oinarrietan sariak eta ordainketak ezarri badira, horiek 198. artikulua xedatutakoaren arabera ordainduko dira, eta hartan ezarritako epeak adjudikazioa jakinarazten den unetik aurrera kontatuko dira.

Ondore horietarako, sari edo ordainketa horiei aurre egiteko behar den finantza-estaldura badagoela egiaztatu beharko da gastu-espeditentean.

10. Azpiatal honetan aurreikusi ez den guztian, proiektuen lehiaketak prozedura murrizturako arauak hartuko ditu kontuan, baldin eta parte-hartzaileen kopurua mugatzen bada, eta, bestela, prozedura irekirako arauak, bateraezinak ez diren horretan guztian, eta zerbitzuen kontratazioa arautzen duten xedapenak.

11. Azpiatal honetan proiektuen lehiaketak direla-eta ezarritako arauak erregelamendu bidez garatuko dira.

### 3. atala. Administrazio-kontratuen ondoreak eta administrazio-kontratuak betetzea eta azkentzea

#### 1. azpiatala. Kontratuen ondoreak

##### 188. artikulua. *Araubide juridikoa.*

Administrazio-kontratuen ondoreak 25. artikulua 2. apartatuak aipatzen dituen arauak eta administrazio-klausula eta preskripzio tekniko orokor eta partikularren agiriek arautuko dituzte, edo haien ordean dagoen deskripzio-agiriak.

##### 189. artikulua. *Kontratuen edukiarekiko lotura.*

Kontratuak beren klausuletan ezarritakoaren arabera bete beharko dira, hargatik eragotzi gabe oinarritzko legerian administrazio publikoen alde ezarritako prerrogatibak.

#### 2. azpiatala. Administrazio Publikoak administrazio-kontratuetan dituen prerrogatibak

##### 190. artikulua. *Zerrenda.*

Kontratazio-organoak, lege honetan aipatutako mugen barruan eta bertan adierazitako baldintzei eta ondoreei lotuta, prerrogatiba dauka administrazio-kontratuak interpretatzeko, kontratu horiek betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egoztekota zaion erantzukizuna deklaratzeko, kontratuaren egikaritzea eteteko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta suntsiaraztearen ondoreak zehazteko.

Kontratazio-organoak, halaber, kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmena edukiko du kontratua egikaritzen den bitartean, lege honek kontratu mota bakoitzerako ezartzen dituen mugekin. Ikuskatze-ahalmen horrek inolaz ere ezingo du berekin ekarri

kontratazio-organoak eskubide orokorra izan dezan kontratistak bere jarduerak garatzen dituen instalazio, bulego eta gainerako tokiak ikuskatzeko, salbu eta toki horiek eta haien baldintza teknikoak erabakigarriak direnean kontratuaren objektua diren prestazioak garatzeko. Kasu horretan, contratazio-organoak berariaz eta xehetasunez justifikatu beharko du hori espediente administratiboan.

191. artikulua. *Prerrogatibak gauzatzeko prozedura.*

1. Aurreko artikuluan ezarritako prerrogatibei buruzko erabakiak hartzeko bideratzen diren prozeduretan, entzun egin beharko zaio kontratistari.

2. Estatuko Administrazio Orokorrean, haren organismo autonomoetan, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideetan eta estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako administrazio publikoetan, aurreko apartatuan aipatutako erabakiak hartzeko, bakoitzari dagokion zerbitzu juridikoaren txostena beharko da aurrez, 109. eta 195. artikuluetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

3. Aurrekoa hala izan arren, kasu hauetan nahitaezkoa izango da Estatuko Kontseiluaren irizpena, edo autonomia-erkidego bakoitzean baliokidea den aholku-organoarena, ondoren aipatzen diren kasu eta kontratuei dagokienez:

a) Kontratuen interpretazioa, deuseztatzea eta suntsiaraztea, kontratista aurka jartzen denean.

b) Kontratu-aldaketak, administrazio-klausula partikularren agirietan aurreikusita ez daudenean eta haien zenbatekoa –bakoitzarena edo orokorrean– kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorakoa denean BEZa kenduta eta haien prezioa 6.000.000 eurokoa edo gehiagokoa denean.

c) Administrazioari zuzendutako erreklamazioak, azken horrek izan dituen kontratu-erantzukizunetan oinarritzen direnak, baldin eta erreklamaturako kalte-ordainak 50.000 eurorenak edo gehiagorenak badira. Zenbateko hori kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren araudian beheratu ahalko da.

4. Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

### 3. azpiatala Kontratuak egikaritzea

192. artikulua. *Ez-betetze partziala edo betetze akastuna.*

1. Baldintza-agirietan edo kontratuaren deskripzio-agirian zigorrak ezarri ahalko dira kontratuaren helburu den prestazioa behar ez bezala emateagatik edo kontratua egikaritzeko konpromisoak edo baldintza bereziak –76. artikulua 2. apartatuarekin eta 202. artikulua 1. apartatuarekin bat etorritakoak– ez betetzeagatik. Zigor horiek proportzionalak izan beharko dute ez-betetzearen larritasunarekiko, eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira izan kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorakoak BEZik gabe, eta haien guztizkoak ezingo du gainditu, ezta ere, kontratuaren prezioaren ehuneko 50a.

2. Kontratistak kontratuan zehazten diren prestazioak emateko zeregina partzialki urratu badu berari egotz dakizkiokkeen arrazoiengatik, Administrazioak, kasuaren inguruabarrei erreparatu ondoren, bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsitu, edo administrazio-klausula partikularren agirian edo deskripzio-agirian egoera horietarako zehaztuta dauden zigorrak ezarri.

3. Esparru-akordioak arautzen dituzten baldintza-agiriei aurreikusi ahalko dituzte esparru-akordiotik eta hartan oinarritutako kontratuetatik datozen betebeharrak direla-eta artikulua honetan ezarritako zigorrak.

193. artikulua. *Egikaritzean berandutzea.*

1. Kontratastak kontratua egikaritzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian jarritako epe partzialak ere bete egin behar ditu.

2. Kontratista berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak alde aurretik ohartarazpena egitea.

3. Baldin eta kontratista azken epea betetzeko orduan berandutu bada berari egotz dakizkiokeen kausak direla eta, Administrazioak, kasuaren inguruabarrei erreparatuta, aukeran izango du, edo kontratua suntsiaraztea, edo zigorrak ezartzea, proportzio honetan: kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euro, eguneko, BEZik gabe.

Kontratazio-organoak erabaki dezake aurreko paragrafoan zehaztutako zigorrez bestelakoak ezartzea administrazio-klausula partikularren agirian, baldin eta, kontratuaren ezaugarri bereziak aintzat hartuta, beharrezko irizten bazaio kontratua behar bezala egikaritzeko, eta halaxe justifikatzen bada espedientean.

4. Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratastak kontratua egikaritzen jarraitzea erabakitzeke.

5. Administrazioak aurreko apartatuetan adierazten diren ahalmen berberak edukiko ditu kontratastak epe partzialak betetzen ez dituenean, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirian halaxe jasota badago, edo, epe partzial hauek betetzen berandututa, guztirako epea ere ezingo dela bete uste izateko nahiko arrazoi ikusten bada.

194. artikulua. *Kalte-galerak eta zigor-ezarpena.*

1. Ez-betetze partzialetan, betetze akastunetan eta berandutzeetan, zigorra aurreikusita ez badago edo aurreikusita egonik ere Administrazioari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galerak ordaintzeko exijituko dio hark kontratistari.

2. Aurreko bi artikuluetan aurreikusitako zigorrak kontratazio-organoaren erabaki baten bidez ezarriko dira. Erabaki hori kontratuaren arduradunak proposatu ondoren hartuko da, baldin eta arduradunik izendatu bada, eta berehala egikaritzeko izango da. Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira edo, hala badagokio, jarritako bermetik, aipatutako ordain horietatik kendu ezin direnean.

195. artikulua. *Berandutzeagatik kontratuak suntsiaraztea, eta kontratuak egikaritzeko epea luzatzea.*

1. 193. artikuluan aipatutako kasuan, Administrazioak kontratua suntsiaraztea erabakitzen badu, kontratazio-organoak edo autonomia-erkidegoetan horretarako eskumena duenak hartu behar du erabaki hori, eta nahitaezko izapide bakarra kontratistari entzutea izango da; baina, kontratista aurka azaltzen bada, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidego bakoitzean baliokidea den aholku-organoaren irizpena ere behar da.

2. Baldin eta atzerapena kontratistari egoztekoak ez zaizkion arrazoiengatik sortu bada baina hura prest azaltzen bada bere konpromisoak betetzeko kontratua egikaritzeko hasieran jarritako epea luzatuz gero, kontratazio-organoak epe bat emango dio, galdutako denboraren bestekoa izango dena gutxienez ere, kontratastak berak epe laburragoa eskatu ezik. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, zeinean zehaztuko baitu ea izandako atzerapena kontratistari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik gertatu den.

196. artikulua. *Hirugarrenei eragindako kalte-galeren ordainak.*

1. Kontratistaren betebeharra izango da kontratua egikaritzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien kalte-ordaina ematea.

2. Baldin eta kalte-galera horiek Administrazioak emandako agindu baten ondoriozuzenez eta berehala sortutakoak badira, Administrazioa izango da erantzule, legetan aipatutako mugen barruan. Halaber, Administrazioa izango da hirugarrenei obra-



kontratuaren edo fabrikazio-hornidurarako kontratuaren proiektuko akatsen ondorioz sortutako kalteen erantzulea; hori, halere, obra-kontratuaren kasuan ez da eragozpena izango proiektua idatzi duenaren aurka jotzeko, 315. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Egitatea gertatu eta hurrengo urtearen barruan, hirugarrenek errekerimendua egin ahalko diote kontratazio-organoari, azken horrek informa dezan, kontratistari entzun ondoren, zer alderdi kontratugileri dagokion kalteen erantzukizuna. Ahalmen horretaz baliatzeak eten egiten du akzioa preskribatzeko epea.

4. Aipatutako hirugarren horien erreklamazioa, nolana ere, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legerian ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

197. artikulua. *Arrisku eta menturaren printzipioa.*

Kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua egikaritzean, 239. artikuluan obra-kontraturako ezarritakoari kalterik egin gabe.

198. artikulua. *Prezioa ordaintzea.*

1. Kontratistak eskubidea izango du prestazioa emateagatik hitzartutako prezioa jasotzeko, lege honetan eta kontratuan ezarritako baldintzetan.

Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen eta kontratazio-sistema dinamiko batetik heldu diren berariazko kontratuen kasuan, eskatzaileak ordaindu ahalko du prezioa.

2. Ordainketa osorik egin ahalko da, edo zatika, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemuga bakoitzean ordainduz.

Konturako ordainketen zenbateko metatua hurrengo ordainketaren harira kontratuko prezioaren ehuneko 90ekoa edo handiagoa bada –barnean direla, kasua bada, onetsitako aldaketak–, izapidetzen den ordainketa-espeditiarekin batera, aginduzkoa denean, dagokion kontu-hartzailetzari egindako komunikazioa gehitu beharko da, hark inbertsioa benetan egiaztatzeko bere eginkizunen barruan harreraren laguntza emateko egindakoa.

3. Kontratistek eskubidea edukiko dute, halaber, kontratuaren objektuan dauden eta kontratua egikaritzeko diren prestakuntza-eragiketen zenbatekoaren adinako konturako ordainketak jasotzeko, kontratu bakoitzeko baldintza-agirietan adierazitako baldintzetan; bermea jarrita ziurtatu behar dira ordainketa horiek.

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoki buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

210. artikuluan 4. apartatuan eta 243. artikuluan 1. apartatuan ezarritakoa betetzeari utzi gabe, Administrazioak obra-ziurtagiriak eman behar ditu, edo ondasunak edo zerbitzuak kontratuan hitzartutako moduan entregatu edo eman direla egiaztatzen duten agiriak, haiek egiaz entregatu edo eman ondorengo hogeita hamar egunen barruan.

Edonola ere, kontratistak ez badu aurkezten faktura dagokion administrazio-erregistroan hogeita hamar eguneko epean faktura elektronikoki buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar egun igarotzen diren arte faktura zuzen aurkezten duen egunetik, baldin eta Administrazioak ez badu fakturarekiko onarpenik eman, hala badagokio ere, eta ez badu dagokion ordainketarik egin.

5. Ordainketa lau hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak etenda utz dezake kontratuaren egikaritzea; baina Administrazioari jakinarazi behar dio inguruabar hori,

hilabete lehenago, etenaldi horretatik sor daitezkeen eskubideak onar daitezzen, lege honetan ezarritakoaren arabera.

6. Administrazioa sei hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak kontratua suntsiarazteko eskubidea ere izango du, baita horren ondorioz sortutako galeren kalte-ordainak jasotzeko ere.

7. Zerga-gaiei eta Gizarte Segurantzari buruzko arauetan ezarritakoari kalterik egin gabe, kontratua egikaritzeagatik egin beharreko konturako ordainketak egoera hauetan bakarrik enbargatu ahalko dira:

a) Kontratua egikaritzean kontratistaren langileek sorrarazitako soldatak ordaintzeko eta soldata horietatik datozen gizarte-segurantzako kuotak ordaintzeko.

b) Kontratua egikaritzeari dagokionez kontratistak azpikontratistekin eta hornitzaileekin hartutako betebeharrak ordaintzeko.

8. Autonomia-erkidegoek aukeran dute artikulua honen 4., 5. eta 6. apartatuetan ezarritako hogeita hamar egun, lau hilabete eta sei hilabeteko epeak laburtzea.

199. artikulua. *Administrazio publikoen zorrak ordainarazteko prozedura.*

Lege honen 198. artikulua 4. apartatuan adierazitako epea igarotakoan, kontratistek administrazio kontratatzaileari eskatu ahalko diote, idatziz, ordaintzeko obligazioa betetzeko eta, hala badagokio, berandutze-interesak ordaintzeko. Hilabeteko epea igarotakoan Administrazioak ez badu erantzun, ordainketa-epea bukatu dela onartu duela iritziko zaio, eta interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahalko dute Administrazioaren ez-egitearen kontra, zorra berehala ordaintzea kautelazko neurri gisa eskatuta. Organo judizialak kautelazko neurri hori ezarriko du, non eta Administrazioak ez duen frogatzen ez direla gertatu ordainketa egitea justifikatzen duten inguruabarrak edo eskatutako zenbatekoa ez datorrela bat eska daitekeenarekin; azken kasu horretan, eska daitekeen zenbateko hori baizik ezingo da ordainarazi kautelazko neurriarekin. Epaia kostuak ordaintzeko kondena ezarriko dio auzitara eramandako Administrazioari, kobrantza-uzia erabat baietsi bada.

200. artikulua. *Kobratzeko eskubideak eskualdatzea.*

1. Administrazioarekiko kobratzeko eskubidea daukaten kontratistek laga egin dezakete eskubide hori, zuzenbidearen arabera.

2. Kobratzeko eskubidearen lagapena Administrazioarekiko eraginkorra izan dadin, ezinbesteko betekizuna da Administrazioari lagapen-erabakiaren jakinarazpena helaraztea modu frogagarrian.

3. Kontratistak lagatuko kobratzeko eskubideen bigarren eta hurrengo lagapenak eragingarri izan daitezzen, aurreko zenbakian ezarritakoa izango da bete beharreko baldintza.

4. Administrazioak lagapen-erabakiaren berri izan ondoren, lagapen-hartzailearen alde egin behar da ordaintzeko agindua. Administrazioari lagapenaren berri eman aurretik, kontratistaren edo lagatzailearen izenean egindako ordainketa-aginduek kitatze-ondorioak sortuko dituzte.

5. Kobratzeko eskubideak jatorri duen harreman juridikoa sortu aurreko lagapenek ez dute eraginik sortuko Administrazioaren aurrean. Nolanahi ere, Administrazioak kontratu-harremanetik heldutako kausazko salbuespen guztiak jarri ahalko ditu lagatzailearen aurka.

201. artikulua. *Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak.*

Kontratazio-organoek behar diren neurriak hartuko dituzte, xedatze aldera kontratuak egikaritzeko orduan kontratistek bete egiten dituztela ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatu beharreko betebeharrak, ezarrita datozenak Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalen, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarentzat

lotesleak diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetako nazioarteko zuzenbideko xedapenetan –bereziki, V. eranskinean jasotakoetan–.

Aurreko paragrafoan adierazitakoak ez du kentzen kontratazio-organismoek duten ahala baliatzea eta behar diren neurriak hartzea lizitazio-prozeduran zehar egiaztatzeko hautagaiek eta lizitatuzaileek paragrafo horretan jasotzen diren betebeharrak bete egiten dituztela.

192. artikulua aipatzen dituen zigorrak ezarriko dira, lehen paragrafoan jasotako betebeharrak betetzen ez badira eta, batez ere, soldaten ordainketan urraketak edo atzerapen errepikatuak gertatzen badira, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorriak direnak baino soldata-baldintza baxuagoak aplikatzen badira eta aplikazio hori astuna eta doluzkoa bada.

202. artikulua. *Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.*

1. Kontratazio-organismoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola baldintza-agirietan adierazten badira.

Beti ere, nahitaezkoa izango da hurrengo apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat gutxienez ere ezartzea administrazio-klausula partikularren agirian.

2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko kontsiderazioak ezarri ahalko dira ingurumen-arloan: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea –horrekin Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduko da–; kontratua egikarituta ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa izatea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktu-birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera indartzea, edo solteko produktu-banaketari eta ekoizpen ekologikoari bultzada ematea.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauek erdiesteko ezarri ahalko dira: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatea; legeria nazionalak exijitzen duen baino desgaitu kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiaren uztartzea erraztea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere; laneko istripuak saihesteko neurriak hartzea; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatua aipatuz ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezkeen exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxienezko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa egotea.

3. Baldintza-agiriei zigorrak ezarri ahalko dituzte, 192. artikulua 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen diren erako,

edo kontratuko funtsezko betebehartzat jo ahalko du baldintza bereziok betetzea, 211. artikulua f) letran ezarritako ondoreetarako. Baldintza horiek ez betetzea ez bada kontratua suntsiarazteko kausatzat tipifikatzen, ez-betetze hori arau-hauste larritzat jo ahalko da baldintza-agirietan, erregelamenduz zehaztutako moduan, 71. artikulua 2. apartatuko c) letran ezarritako ondoreetarako.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

#### 4. azpiatala. Kontratuak aldatzea

203. artikulua. *Kontratua aldatzeko ahala.*

1. Kontratatzen ondorengotzari, kontratua lagatzeari, prezioak berrikusteari eta kontratua egikaritzeko epea luzatzeari buruz lege honetan aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe, administrazio-kontratuak soilik interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahalko dira, eta azpiatal honetan aurreikusitako moduan, 191. artikuluan araututako prozedurari jarraituz betiere, 207. artikuluan ezarritako berezitasunekin.

2. Kontratazio-organoei egindako administrazio-kontratuak, indarrean daudenean, honako kasu hauetako bat gertatzen denean aldatu ahalko dira soilik:

a) Administrazio-klausula partikularren agirian hala aurreikusi denean, 204. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan;

b) Aparteko kasuetan, administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, betiere 205. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean.

Beste edozein kasutan, baldin eta beharrezkoa bada itundutakoaz beste modu batean egikaritzea indarrean den kontratua, kontratua suntsiaraziko da eta beste bat egingo da kasuan kasuko baldintzekin, eta, beharrezkoa bada, lizitazio publiko berri baterako deialdia egin eta gauzatuko da aurrez, lege honetan ezarritakoari jarraituz, eta alde batera utzi gabe segurtasun-arrazoiengatik, zerbitzu publikoaren arrazoiengatik edo hondamen-arriskuagatik beharrezkoak diren neurriak hartzeko kontratatzen duen betebeharrari dagokionez 213. artikulua 6. apartatuan xedatutakoa.

3. Kontratu-aldaketak 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoari jarraituz argitaratu beharko dira.

204. artikulua. *Administrazio-klausula partikularren agirietan aurreikusitako aldaketak.*

1. Administrazio publikoen kontratuak, indarrean daudenean, soilik hasierako prezioaren ehuneko hogeira arte aldatu ahalko dira, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirietan berariaz aukera horri buruz ohartarazi bada modu honetan eta eduki hauekin:

a) Aldaketa-klausulak modu argi, zehatz eta zalantzagabean formulatuta egon beharko du.

b) Halaber, haren edukiari dagokionez, aldaketa-klausulak honako hauek zehaztu beharko ditu behar besteko xehetasunarekin: norainokoa, mugak eta izaera; hartaz baliatu ahal izateko baldintzak, erreferentzia eginez modu objektiboan egiazta daitezkeen inguruabarrei, eta aldaketarako jarraitu beharreko prozedura. Aldaketa-klausulak ezarriko du, halaber, aldaketak ezingo duela berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk.

Aldaketa-klausularen formulazioak eta edukiak halakoak izan beharko dute, non, batetik, hautagaiek eta lizitatuzaileek haien norainoko zehatza ulertu ahalko duten eta modu berean interpretatu ahalko duten eta, bestetik, kontratazio-organismoari aukera emango dioten bai egiazki egiaztatuzko lehenengoek eskatzen diren gaitasun-baldintzak betetzen dituztela eta bai zuzen baloratuzko horiek aurkeztutako eskaintzak.

2. Kontratazio-organoek ezingo dute inoiz ere aurreikusi administrazio-klausula partikularren agirian hasierako kontratuaren izaera orokorra alda dezakeen aldaketarik. Nolanahi ere, izaera orokorraren aldaketatzat hartuko da eskuratuko diren obrak, hornidurak edo zerbitzuak beste batzuekin ordeztzea edo kontratu mota aldatzea. Ez da hartuko kontratuaren izaera orokorraren aldaketatzat obra-unitateren bat, horniduraren bat edo zerbitzu jakinen bat ordeztzea.

205. artikulua. *Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak: prestazio gehigarriak, ustekabeko inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak.*

1. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, honako baldintza hauek betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:

a) Justifikazioa izatea artikuluko honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren kasuetako batean.

b) Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko zorrozki ezinbestekoak diren aldaketak sartzera.

2. Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikuluko honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:

a) Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei obra, hornidura edo zerbitzu gehigarriak gehitzea, betiere honako bi baldintza hauek beteta:

1.a Kontratatuz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoek bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzea, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratatuz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.

Inolaz ere ez da eragozpen handitzat hartuko kontratatuz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.

2.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

b) Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.a Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.

2.a Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.

3.a Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

c) Aldaketak funtsezkoak ez izatea. Kasu horretan, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoi dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko.

Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:

1.a Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko,

hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratistari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zitzaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.

2.a Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.

Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:

(i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuaren kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuaren kasuan; edo, bestela, 20. artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea.

(ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentzaren izapidetzea hasita egotea.

#### 206. artikulua. *Kontratu-aldaketen nahitaezotasuna.*

1. 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuetan, kontratazio-organismoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, berekin dakartenean, bakarka edo osotara, kontratuaren hasierako prezioaren zenbatekoa ehuneko 20 edo hortik behera aldaraztea, BEZik gabe.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera aldaketa nahitaezkoa ez denean kontratistarentzat, kontratazio-organismoak aldaketa hori egitea erabakitzeko, idatzizko adostasuna adierazi behar du kontratistak aurrez; bestela, kontratua suntsiarazi egingo da, 211. artikulua 1. apartatuaren g) letran ezarritakoari jarraituz.

#### 207. artikulua. *Prozedurako berezitasunak.*

1. Lege honen 204. artikuluan aurreikusitako kasuan, kontratu-aldaketak administrazio-klausula partikularren agirietan zehaztutako moduan egingo dira.

2. Kontratua 205. artikuluari jarraituz aldatu aurretik, entzun egin beharko zaio proiektua edo zehaztapan teknikoak idatzi dituenari, baldin eta kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek idatzi baditu, zerbitzu-kontratu baten ondorioz. Hala, hiru eguneko edo gehiagoko epean, egokitzen jotzen dituen oharra egin ahalko ditu.

3. Erregulazio harmonizatutako kontratu bat aldatzen duten kontratazio-organismoek –IV. eranskinean zerrendatutako zerbitzuen kontratuaren eta zerbitzu horien emakiden kontratuaren kasuetan izan ezik–, 205. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko dute aldaketari buruzko iragarkia, lege honetan ezarritakoari jarraituz.

Halaber, indarrean dagoen bitartean kontratua aldatu duten kontratazio-organismoek, alde batera utzita kontratu hori erregulazio harmonizatutakoa den ala ez eta zein den aldaketa justifikatzen duen arrazoia, argitaratu egin beharko dute, nolanahi ere, aldaketari buruzko iragarki bat kontratazio-organismoaren kontratatzailearen profilean hura onesten denetik 5 eguneko epean; eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere aurkeztu beharko dira, horren barnean direla adjudikaziodunak aurkeztutakoak edo kontratazio-organismoak berak emandakoak.

4. Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten 191. artikuluan ezarritakoa.



## 5. azpiatala. Kontratuak etetea edo azkentzea

208. artikulua. *Kontratuak etetea.*

1. Baldin eta Administrazioak kontraturen bat etenda uztea erabakitzen badu, edo 198.5. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik badator etenda uztea, akta bat egin behar da, ofizios nahiz kontratistak eskatuta, egoera hori sorrarazi duten inguruabarrak jasotzeko, eta kontratuaren egikaritzea nolako egoeran geratu den agertzeko.

2. Etenda uztea erabaki eta gero, benetan jasandako kalte-galerak ordaindu behar dizkio kontratistari Administrazioak, honako arau hauei jarraituz:

a) Kontratua gidatzen duen baldintza-agiriak besterik ezarri ezean, ordainketa horrek soilik honako kontzeptu hauek jasoko ditu, baldin eta 1. puntutik 4. puntura haien errealtatea, eraginkortasuna eta zenbatekoa fede emateko moduan egiaztatzen bada:

1.a Behin betiko bermearen mantentze-gastuak.

2.a Kontratua egikaritzeko kontratistak etenaldia hasten den garaian itunduta dauzkan lan-kontratuak azkentzeagatiko edo eteteagatiko kalte-ordainak.

3.a Etenaldian nahitaez kontratuari atxikita geratu behar duten langileen soldata-gastuak.

4.a Makineriaren, instalazioen eta ekipamenduen alokairuak edo mantentze-kostua, baldin eta kontratistak egiaztatzen badu bitarteko horiek ezin izan zirela erabili etendako kontratua egikaritzeaz beste xede batzuetarako.

5.a Kontratistak etenaldian zehar eman beharko zituen prestazioen prezioaren 100eko 3, lan-programan edo kontratuan bertan aurreikusitakoari jarraituz.

6.a Kontratistak izenpetutako aseguru-polizei dagozkien gastuak, kontratuaren objektuari lotutako administrazio-klausulen agirian aurreikusitakoak.

b) Dagokion aktaren bitartez dokumentatuta dauden etenaldiengatik soilik emango dira kalte-ordainak. Kontratistak akta hori egin dadila eskatu ahalko du. Baldin eta Administrazioak ez badio erantzuten eskaera horri, ulertuko da, kontrakoa frogatu ezean, etetea kontratistak bere eskaeran aipatutako datan hasi dela.

c) Erreklamatzeko eskubidea kontratistak kontratua egikaritzeari berrekiteko agindua jaso eta urtebeteko epean iraugiko da.

209. artikulua. *Kontratuak azkentzea.*

Kontratuak bete direlako edo suntsiarazi direlako azkenduko dira, erabaki hori 5. azpiatal honetan araututakoaren arabera hartuta.

210. artikulua. *Kontratuak betetzea eta prestazioa jasotzea.*

1. Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik eta kontratuko baldintzen arabera eta Administrazioaren nahierara gauzatu duenean.

2. Nolanahi ere, hori egiaztatzeko, Administrazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat egin behar du kontratuaren objektua entregatu edo betetzen denetik hurrengo hilaren barruan, edo, prestazioaren ezaugarriak aintzakotzat hartuta, administrazio-klausula partikularren agirian zehaztuta datorren epearen barruan. Jakinarazpena egitea aginduzkoa denean, administrazio horretako kontu-hartzailetzari jakinaraziko zaizkio egintza horren data eta lekua, egintza horretara joan dadin inbertsioa egiaztatzeko eginkizunak betetzera, hala behar badu.

3. Kontratuaren berme-epe bat finkatuko da, harrera- edo adostasun-egintza egiten denetik kontatuta. Administrazioak eragozpenik jarri gabe igarotzen bada epe hori, lege honetan zein beste arau batzuetan beste eperen bat ezartzen den kasuetan izan ezik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da. Ez dute berme-eperik edukiko beren izaera edo ezaugarriak direla-eta beharrezko ez duten kontratuek; behar bezala justifikatu behar da hori kontratazio-espeditetan, eta berariaz jaso behar da baldintza-agirian.

4. Obra-kontratueta izan ezik (243. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie), harrera-edo adostasun-akta jaso ondorengo hogeita hamar eguneko epearen barruan erabaki eta jakinarazi behar zaio kontratistari kontratuaren likidazioa, kasua bada eta kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean, eta, hala behar badu, hari dagokion saldoa ordaindu. Hala ere, harrera hori gertatu ondorengo egunen batean jasotzen badu faktura Administrazio Publikoak, kontratistak faktura hori dagokion erregistroan eta faktura elektronikoari buruzko arau indardunak dioen moduan aurkezten duen egunetik aurrera kontatuko da hogeita hamar eguneko epea. Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak eskubidea edukiko du berandutza-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

211. artikulua. *Suntsiarazteko kausak.*

1. Hauek dira kontratua suntsiarazteko kausak:

a) Kontratista pertsona partikularra bada, haren heriotza edo gerora etorritako ezgaitasuna, eta kontratista sozietatea bada, nortasun juridikoa azkentzea, hargatik eragotzi gabe 98. artikuluan kontratistaren ondorengotzari buruz ezarritakoa.

b) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko edo kaudimengabezia deklaratzeko.

c) Administrazioa eta kontratista ados jartzea.

d) Kontratista epeak betetzen berandutzea.

Nolanahi ere, baldintza-agirian edo kontratuan ezarritako lan-planarekiko atzerapen justifikatu gabea, edozein jardueratan, baldin eta kontratuaren hasierako iraupen-epearen heren batetik gorakoa bada, izan daitezkeen luzapenak barnean direla.

e) Administrazioa ordainketa egiten berandutzea, 198. artikuluan 6. apartatuan ezarritako epea edo 8. apartatuaren babespean zehaztutako epe laburragoa gaindituz.

f) Kontratuaren betebeharrak nagusia ez betetzea.

Halaber, kontratua suntsiarazteko kausa izango da funtsezko gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta azken horiek halakotzat kalifikatu badira baldintza-agirietan edo kasuko deskripzio-agirian, honako bi baldintza hauek gertatzen direnean:

1.a 34. artikuluan 1. apartatuak itunen askatasunerako ezartzen dituen mugak errespetatzea betebeharrak horiek.

2.a Zehaztasunez, argitasunez eta modu zalantzagabea aipatuta agertzea baldintza-agirietan edo deskripzio-agirian; klausula orokorrak ez dira onartuko.

g) Prestazioa ezin ematea hasiera batean itundutako baldintzetan, kontratua ezin denean aldatu 204. eta 205. artikuluei jarraituz; edo, 205. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatuta, aldaketek –bakarka nahiz baturik– gutxi gorabehera kontratuaren hasierako prezioan ehuneko 20 baino handiagoko aldaketak dakartzatenean, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta.

h) Lege honetan kontratu-kategoria bakoitzerako berariaz adierazitakoak.

i) Kontratistak kontratuan lan egiten ari diren langileei soldadak ez ordaintzea kontratua egikaritzen ari den bitartean, edo langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea kontratua egikaritzen ari den bitartean.

2. Kontratua suntsiarazteko kausa bat baino gehiago dagoen kasuetan, azkentzearen ondorio ekonomikoak direla-eta ondore desberdinak dituztenak, denboran lehenengo agertu direnei erantzun beharko zaie.

212. artikulua. *Kontratua suntsiarazteko kausak aplikatzea.*

1. Kontratua suntsiarazteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du, ofizioz nahiz kontratistak eskatuta, kasuan-kasuan, lege hau garatzeko arauetan ezarritako prozeduraren arabera.

Aurrekoa gorabehera, kontratua 211.1 artikulua i) letran aipatzen den arrazoiarengatik suntsiaraztea soilik erabakiko da, oro har, enpresa kontratatiko langileen ordezkariak eskatuta; horretan, salbuespena izango da soldatak ez ordaintzeak ukitutako langileak subrogazio batetik heldu diren langileak direnean, 130. artikuluari jarraituz, eta enpresa kontratistak zor dituen soldaten zenbatekoak ehuneko 5 gainditzen duenean kontratuaren adjudikazio-prezioa; izan ere, kasu horretan, suntsiaraztea ofizioz erabaki ahalko du zuzenean kontratazio-organok.

2. Edozein prozeduratako kaudimen gabeziako adierazpenek eta kontratu-aldaketek –204. eta 205. artikuluetan ezarritako inguruabarrak gertatzen ez diren kasuetan– kontratua suntsiaraztea ekarriko dute beti.

Administrazioarentzat eta kontratistarentzat aukerakoak izango dira kontratuan aurreikusi gabeko gainerako aldaketak, baldin eta banaka zein osotara zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gora aldaraztea badakarte BEZik gabe.

Gainerako kasuetan, suntsiaraztea eragin dezakeen inguruabarraren erantzukizunik egotzi ezin zaion aldeak eskatu ahalko du suntsiaraztea.

3. Baldin eta kontratua suntsiarazteko kausa kontratista partikularraren heriotza edo hari etorritako ezgaitasuna bada, Administrazioak kontratua haren jaraunsle edo oinordekoekin jarraitzeko erabakia har dezake.

4. Kontratua bi aldeen adostasunez suntsiarazteko bada, ezin da egon kontratua suntsiarazteko kontratistari egotz dakioken kausarik, eta, gainera, ez du ez beharrezko ez komenigarri izan behar kontratuak irautea, interes publikoko arrazoiak direla-eta.

5. Konkurtso-deklarazioaren kasuan, Administrazioak aukera izango du kontratuarekin jarraitzeko, baldin eta interes publikoko arrazoiak tarteko gomendagarria bada, eta kontratistak hura egikartzeko behar adina berme jartzen baditu.

Nolanahi ere, ulertuko da honako hauek berme nahikoak direla:

a) Kontratuaren prezioaren gutxienez ere 100eko 5eko berme osagarria, zeina 108. artikuluan jasotako moduetatik edozeinetan jarri beharko baita.

b) Fidantza gisa kopuru baten gordailua egitea. 108.1 artikulua a) letran ezarritakoari jarraituz egingo da hori, eta fidantza hori zigor-klausula moduan eratuta geratuko da, kontratistak ez-betetzerik egingo balu ere.

6. Aurreko artikuluko lehenengo apartatuko d) letran aipatutako berandutze-kasuan, epea betetzen izandako atzerapenaren ondorioz sorrarazitako zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen badira, 193. artikulua 4. apartatuan xedatutakoa bete behar da.

7. Administrazioa bada kontratutik sortutako betebeharrak bete ez dituen, lege honetan aurreikusitako kasuetan baino ez da etengo kontratua.

8. Kontratuak suntsiarazteko espedienteak zortzi hilabeteko gehieneko epean bideratu eta ebatzi beharko dira.

213. artikulua. *Suntsiaraztearen ondoreak.*

1. Kontratua bi aldeak ados jarrita suntsiarazten denean, alde batekoen eta bestekoaren eskubideak aldeak balio osoz onartutakora egokitu behar dira.

2. Administrazioa bada kontratuko betebeharrak bete ez dituen, hori dela-eta kontratistari sortutako kalte-galerak ordaindu beharra ekarriko dio hari orokorrean.

3. Kontratistaren erruz kontratua bete gabe gelditu eta suntsiarazten bada, bahitu egingo zaio bermea, eta, gainera, sortutako kalte-galeren kalte-ordainak eman behar dizkio Administrazioari, bahitutako bermearen gaintetik doan zenbatekoraino.

4. Kontratua 211. artikuluko g) letran jasotako kausengatik suntsiarazten baldin bada, kontratistak eskubidea izango du eman gabe utzitako prestazioaren 100eko 3ko zenbatekoa kalte-ordain gisa jasotzeko, kausa kontratistari egotzi ahal zaionean izan ezik edo 205. artikulua babesean Administrazioak proposatutako kontratu-aldaketa errefusatzen duenean izan ezik.

5. Nolanahi ere, kontratua suntsiarazteko erabakian, eraturako bermea –eratu beharra izan bada– galdu, itzuli edo ezereztea dagokion den edo ez adierazteko berariazko aipamen bat egon behar da.

6. Kontratua 211. artikuluko 1. apartatuko b), d), f) eta g) letretan ezarritako kausengatik suntsiarazteko ebazpenaren administrazio-espeditentea hastean, aldi berean, kontratu berria adjudikatzeko prozedura abiatu ahalko da, baina horren adjudikazioa suntsiarazte-espeditentea bukatzearen mende geratuko den. Bi prozeduretan presako izapidetzea aplikatuko da.

Kontratu berria formalizatzen den arte, kontratista behartuta egongo da segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzera, edo zerbitzu publikoan eragozpen larria eragitea edo eraikitakoa edo fabrikatutakoa hondatzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak ezartzera, kontratazio-organoak erabakitzen duen moduan eta helmenarekin. Adostasunik ezean, kontratistaren ordainsaria kontratazio-organoak finkatuko du, lanak amaitu ondoren; kontratistak eskatuta finkatuko du ordainsaria, kontratua egiteko oinarriztat erabili ziren prezioak erreferentziatzen hartuta. Kontratistak erabakiaren aurka egin ahalko du kontratazio-organoan, eta hark hamabost egun balioduneko epean eman beharko du ebazpena.

Kontratistak aurreko paragrafoan ezarritako ezinbesteko neurriak bermatzeko modurik ez badu, Administrazioak esku hartu ahalko du bermatuz neurri horiek bete egingo direla, dela bitarteko propioak erabiliz, dela hirugarren batekin egindako kontratuaren bitartez.

#### 6. azpiatala. Kontratuak lagatzea eta azpikontratatzea

##### 214. artikulua. *Kontratuak lagatzea.*

1. 98. artikuluan kontratistaren ondorengotza dela-eta ezarritako kasuak alde batera utzita, eta 274.2 artikulua arabera hartzekodun hipotekarioaren alde gerta litekeen subrogazioa kendu gabe, edo adjudikaziodunaren alde gerta litekeena, 275. artikulua indarrez egindako exekuzio hipotekarioaren prozeduran, kontratuen aldaketa subjektiboa soilik izango da posible kontratu-lagapen baten bitartez, baldintza-agirietako zalantza gabeko aukera bati erantzuten dionean, betiere hurrengo paragrafoan ezarritako mugen barruan.

Ondorio horietarako, baldintza-agiriek nahitaez ezarriko dute kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahalko dizkiola kontratistak baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira eta lagapenak merkatuan lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu. 2. apartatuko b) letran ezarritakoa eragotzi gabe, ezingo da baimendu lagapena hirugarren bati egitea, horrek kontratistaren ezaugarrietan funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

Baldintza-agiriek, aurreikusten dutenean adjudikaziodun suertatzen diren lizitatzailleek sozietate bat eratzea berariaz kontratua egikaritzeko, sozietate horretako partaidetzen lagapenaren aukera ezarriko dute; halaber, kontratista dela-eta kontrol-aldaketa bat gertatzen denean, partaidetzen lagapen hori kontratu-lagapen batekin parekatu beharko da, bera artikulua honetan ezarritakoaren arabera baimentzearen ondoretarako. Baldintza-agiriek partaidetzen lagapena kontrolatzeko mekanismoak aurreikusi ahalko dituzte, behar bezala justifikatuta dauden kasuetan kontrol-aldaketa bat ez dakartenean.

2. Kontratistek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, baldintza-agiriek, gutxienez, betekizun hauek eskatu beharko dituzte:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta alde zuzenetik eman behar du lagapena egiteko baimena. Baimen hori hurrengo letretan aurreikusitako baldintzak betetzen badira emango da. Baimen-eskaerari buruzko ebazpenaren jakinarazpenerako epea bi hilabeteko izango da; epe hori iraganda, administrazio-isiltasunez eman dela iritzi beharko zaio.

b) Lagatzaileak kontratuaren 100eko 20 gutxienez egikarituta izan behar du edo, obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratu bat denean, kontratuaren iraupen-epetaren bosten bateko aldian ustiatu behar izan du. Baldintza hori ez da aplikatzekoa

izango baldin eta lagapena gertatzen bada kontratista konkurtsoan dagoela, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan, edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi bazaio negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko konkurtsoei buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

Aurrekoa gorabehera, hartzekodun pignorazioak edo hartzekodun hipotekarioak lagapena eskatu ahalko dute, obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuetan baldintza-agiriak aurreikusten badute –klausula argi eta zalantza gabeen bitartez– aukera dagoela emakidadunaren eskubide eta betebeharrak guztiak hirugarren batengan subrogatzeko, zantzu argi eta predeterminatuak daudelako emakida ezin izango dela gauzatu orain edo etorkizunean, hain zuzen ere alde aurreko suntsiaraztea saiheste aldera.

c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, kontratua egikartzeko fasearen arabera eskatzekoa zaion kaudimena izan behar du; gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta ez dio eragin behar kontratatzeke ezein debekuk.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.

3. Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

#### 215. artikulua. *Azpikontratatzea.*

1. Kontratatzaileak hirugarrenekin itundu ahalko du prestazioaren parte bat ematea, baldintza-agirietan xedatutakoari lotuta, salbu eta artikuluko honen 2. apartatuaren d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera prestazioa edo haren zati bat berak zuzenean eman behar duenean.

Azpikontratazioaren mugak ez du inolaz ere berekin ekarriko lehiaren murrizketa efektiboa gertatzea, alde batera utzi gabe lege honetan isilpeko kontratuei edo kontratu erreserbatuei buruz ezarritakoa, edo legezko edo erregelamenduzko xedapenei jarraituz edo Estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babesteko segurtasun-neurri bereziak hartuta egikaritu behar diren kontratuei buruz ezarritakoa.

2. Azpikontratuak egiteko, betekizun hauek bete behar dira:

a) Baldintza-agirietan hala ezarrita egonez gero, lizitatuak kontratuaren zer atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren atal horren zehazketa ere adierazi behar dute, eta azpikontratista izena edo enpresaburu-profila ere eman behar dute, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

b) Dena dela, kontratatzaileak idatziz jakinarazi beharko dio kontratatzaile-organuari, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduenez hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen aipatuko du, bai eta azpikontratista izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere, eta behar beste justifikatuko du azken horrek gaitasuna duela hura egikartzeko, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia aipatuta, eta egiaztatuta azpikontratista horrek ez duela kontratatzeke debekurik 71. artikuluari jarraituta.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratatzaile-organuari kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

Baldin eta azpikontratista azpikontratatu den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeke.

Azpikontratista gaitasuna azpikontratatu egin eta berehala egiaztatuta ahalko da, baldin eta beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteke edo presako neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

c) Baldin eta baldintza-agirietan ezarri bada lizitatuak apartatu honen a) letran adierazitako inguruabarrak jakinarazi behar dituztela, eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak –eskaintzan izenez adierazitako enpresaburuekin barik beste batzuekin egin direlako, edo eskaintzan adierazitako prestazioaren atalari buruzkoak barik beste atal batzuei buruzkoak direlako– ezingo dira egin harik eta hogeitun egun igarotzen diren arte jakinarazpena egiten denetik eta apartatu honen b) letran adierazitako egiaztagiriak aurkezten direnetik, non eta azpikontratu horiek ez diren alde aurretik eta berriaz baimendu, eta, betiere, Administrazioak ez badu horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin epe horren barruan. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratatik lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira eskaintzan.

Hogei eguneko epea igaro gabe ere egin ahalko dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

d) Isilpeko kontratuak edo kontratu erreserbatuak direnean, edo lege- edo erregelamendu-xedapenen arabera edo Estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrek hala eskatuta segurtasun-neurri bereziz babestuta egikaritu beharrek direnean, azpikontratazioa egiteko, kontratazio-organoaren berriazko baimena beharko da beti.

e) 75. artikuluan 4. apartatuan ezarritakoari jarraituz, obra-kontratuaren, zerbitzu-kontratuaren edo hornidura-kontratu baten barruko kokatze- edo instalazio-zerbitzu edo -lanen kasuan, kontratazio-organoek baldintza-agirietan ezarri ahalko dute lan kritiko batzuk ezin izango direla azpikontratu, eta, halakoetan, egiteko horiek zuzenean kontratista nagusiak egin beharko ditu. Lan kritikoak zein diren kontratazio-espeditan justifikatu beharko da.

3. Azpikontratazioak egiteko aurreko apartatuan ezarritako baldintzak urratuz gero, edo azpikontratatik gaitasuna egiaztatu ez bada, edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatu ez badira, ondorio hauetako bat izango da lege honetan ezarritakoen artean, kontratuaren egikaritzeak daukan eraginaren arabera, betiere baldintza-agirietan hala aurreikusitako denean:

a) Kontratatari azpikontratuaren zenbatekoaren 100eko 50erainoko zigorra ezarri ahalko zaio.

b) Kontratuaren suntsiarazi ahalko da, baldin eta 211. artikuluan 1. apartatuan f) letrako bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4. Kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango azpikontratatik, eta hark bereganatuko du, beraz, Administrazioarekiko erantzukizun osoa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agiriari edo deskripzio-agiriari eta kontratuaren baldintzei estu-estu lotuta egikaritzeko; horren barnean egongo da 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak betetzea.

Artikulu honen 2. apartatuan b) eta c) letratan adierazitako komunikazioak direla bide Administrazioak egin diren azpikontratuaren berri izateak edo d) letran ezarritako kasuan hark baimena emateak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun eksklusiboan.

5. Kontratatik inola ere ezingo du kontratu zati bat egikaritzeko itunik egin ordenamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo 71. artikuluan jasotako egoeretako batean dauden pertsonekin.

6. Kontratatik langileen ordezkari azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-legeriarekin bat etorriz.

7. 215. artikulutik 217. artikulura aipatzen diren hornidurarako azpikontratuak eta kontratuak, nolahi ere, izaera pribatua izango dute.

8. Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa eragotzi gabe, azpikontratatik ez dute administrazio kontratatzailearen aurkako zuzeneko akziorik izango



kontratu nagusia eta azpikontratuak egikaritzea dela-eta kontratistak haiekin hartutako betebeharrangatik.

216. artikulua. *Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea.*

1. Kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei prezio itundua ordaintzeko betebeharra du, ondoren zehaztutako epe eta baldintzetan.

2. Finkatutako epeak ezingo dira izan kaltegarriagoak abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoak baino –lege horren bidez merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dira–, eta kontratista nagusiak ondasun edo zerbitzuak onartzen edo egiaztatzen dituen egunetik aurrera kontatuko dira, betiere azpikontratatistak edo hornitzaileak faktura legez ezarritako epean aurkeztuta.

3. Ondasunak eskuratzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik hogeita hamar eguneko epean onartu beharko dira gehienez. Epe horretan bertan aurkeztu behar dira desadostasun-arrazoia ere, izanez gero. Baldin eta epe horretan aurkezten ez badira, ulertuko da ondasunak onartu egin direla edo zerbitzu-prestazioa egiaztatu eta ontzat jo dela.

4. Artikulu honetako 2. apartatuan ezarritakoaren arabera finkatutako epean ordaindu beharko ditu kontratistak fakturak. Ordainketan berandutuz gero, azpikontratatistak edo hornitzaileak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak kobratzeko eskubidea edukiko du, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

5. Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduaren 69.bis artikulua fakturazio-erregistroak modu elektronikoa bidaltzeari buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe –abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori–, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeko eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan 1. apartatuan ezarritako kasuetan dauden azpikontratatistek faktura elektronikoa erabili beharko dute kontratista nagusiarekiko harremanetan, haren zenbatekoa 5.000 eurotik gorakoa denean. Faktura hori hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aipatzen den erregistroaren bitartez aurkeztu beharko diote kontratista nagusiari, xedapen horretan aurreikusitako egunetik aurrera.

Aurrekoetz bestelakoak diren kasuetan, azpikontratatistek hautazkoa izango dute faktura elektrikoa erabiltzea eta hura hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aipatutako erregistroan aurkeztea.

5.000 euroko zenbatekoa Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren agindu baten bidez aldatu ahalko da.

6. Azpikontratatistek balio duen eran uko egin ahalko diete, eskuratu aurretik edo geroago, artikulu honetan aitortuta dauzkaten eskubideei; horri buruz, ez da aplikatzekoa izango Kode Zibilaren 1110. artikulua.

217. artikulua. *Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea.*

1. Administrazio publikoek eta gainerako ente publiko kontratatzaileek egiaztatu ahalko dute zorrotz egiten direla 12. artikuluan kontratu publikotzat kalifikatutako kontratuen adjudikaziodun diren kontratatistek haietan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaile guztiei egin behar dizkieten ordainketak.

Kasu horretan, kontratista adjudikaziodunek kontratuan parte hartzen duten azpikontratatisten edo hornitzaileen zerrenda xehakaturik igorriko diote ente publiko kontratatzaileari hark hala eskatzen duenean, azpikontratatisten edo hornitzaileen parte-hartzea burutzen denean; bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute. Halaber, ente publiko kontratatzaileak eskatuta, haiei ordainketak egin izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko dute, behin prestazioa amaituta, 216. artikuluan eta –aplikatzekoa den neurrian– Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako legezko ordainketa-epeen

barruan. Betebehar horiek, zeinak nolnahi ere lizitazio-iragarkietan jasoko baitira, bai eta kasuko baldintza-agirietan edo kontratuetan ere, bete beharreko baldintza berezizat jotzen dira, eta haiek ez betetzeak, ordenamendu juridikoak aurreikusitako ondorioak ekartzeaz gainera, aukera emango du baldintza-agirietan horretarako jasotako zigorrak ezartzeko, betiere arrazoi hori dela-eta ezartzen diren zigorren behin betiko bermeari erantzunez.

2. Ez-betetzea dela-eta 1. apartatuan aurreikusitako egiaztatze-jarduketak eta zigor-ezarpenak nahitaezkoak izango dira administrazio publikoentzat eta gainerako ente publiko kontratatzaileentzat obra-kontratuetan eta zerbitzu-kontratuetan, baldin eta haien balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada edo azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuko prezioaren ehuneko 30ekoa edo handiagoa bada, kontratista nagusiarekin obra-atal edo -unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa kontratu bidez beren gain hartu duten azpikontratatentzako ordainketei dagokienez.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren aginduaren bidez, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek proposatuta eta Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak aurrez txostena emanda, zabaldu ahalko da 1. apartatuan aurreikusitako egiaztatze-jarduketa horiek eta zigor-ezarpen horiek nahitaezkoak diren kontratuen eremua.

## II. KAPITULUA

### Kontratazioa teknikoki arrazionalizatzea

#### 1. atala. Arau orokorrak

218. artikulua. *Administrazio publikoetan kontratazioa arrazionalizatzeko sistemak.*

Kontratuen adjudikazioa arrazionalizatu eta antolatzeko, administrazio publikoek esparru-akordioak egin ahalko dituzte, bai eta sistema dinamikoak artikulatu edo zerbitzu espezializatuetakoa obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioa zentralizatu ere, kapitulu honetan ezarritako arauen arabera.

#### 2. atala. Esparru-akordioak

219. artikulua. *Funtzionalitatea eta mugak.*

1. Sektore publikoko kontratazio-organismo batek edo zenbaitek esparru-akordioak egin ahalko dituzte enpresa batekin edo zenbaitekin, aldi jakin batean adjudikatuko dituzten kontratuek bete beharko dituzten baldintzak zehazte aldera, bereziki prezioei dagokienez eta, kasua bada, aurreikusitako zenbatekoei dagokienez. Horretarako, betiere, gehiegikeriarik gabe erabili beharko dira tresna horiek, edo lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu gabe.

2. Esparru-akordioak ezingo du iraun lau urte baino gehiago, behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik. Nolanahi ere, esparru-akordioaren iraupena espedientean justifikatu beharko da, eta kontuan hartuko ditu, bereziki, haren xedeak aipagai duen jarduera-sektorearen berezitasun eta ezaugarriak.

3. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen iraupena ez da egongo lotuta esparru-akordioaren iraupenera, eta lege honen 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta esparru-akordia arautzen duten baldintza-agirien arabera izango da –kontratuen iraupenari eta prestazioa emateari buruzkoa da 29. artikulua–.

Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak soilik adjudikatu ahalko dira esparru-akordio hori indarrean dagoen bitartean. Honako hau izango da baldintza hori bete dela ulertzeko garrantzia duen data:

a) 221. artikuluari jarraituz adjudikaziorako lizitazio bat egitea eskatzen duten oinarritutako kontratuen kasuan, lizitazioan parte hartzeko gonbidapenak esparru-

akordioako adjudikaziodunei igortzeko data, baldin eta adjudikazio-proposamenak kasuan kasuko esparru-akordioan horretarako ezarritako epearen barruan jasotzen badira.

b) Adjudikaziorako lizitazioa egitea eskatzen ez duten oinarritutako kontratuen kasuan, oinarritutako kontratuaren adjudikazioarena izango da garrantzia duen data.

220. artikulua. *Esparru-akordioak egiteko prozedura.*

1. Esparru-akordioak egiteko, lege honen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 1. eta 2. ataletan ezarritako prozedura-arauei jarraituko zaie.

2. Kontratuak esparru-akordio batean oinarrituta adjudikatzeko aukerak honako baldintza hau izango du: formalizatzen denetik hogeita hamar eguneko epean horri buruzko iragarkia Europar Batasunaren Argitalpenen Bulegora igortzea, baldin eta erregulazio harmonizatuko kontratuak badira, eta kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean eta *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzea, Estatuko Administrazio Orokorrean egindako esparru-akordioen kasuan.

3. 155. artikulua 3. apartatuak aipatzen dituen kasuetan, kontratazio-organoak aukeratu dezake esparru-akordioari buruzko informazio batzuk ez argitaratzea, espedientean behar bezala arrazoituz.

221. artikulua. *Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak adjudikatzea.*

1. Esparru-akordioa batean oinarritutako kontratuak esparru-akordioa egiten parte hartu duten enpresek eta kontratazio-organoek baino ezingo dituzte egin; horretan, salbuespena izango da kontratazio-zentralek egindako esparru-akordioei buruz 227. artikulua 4. apartatuan ezarritakoa.

2. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak artikulua honetako 3., 4. eta 5. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera adjudikatuko dira.

3. Esparru-akordioa enpresa bakar batekin egin denean, akordio horretan ezarritako baldintzen arabera adjudikatuko dira akordio horretan oinarritutako kontratuak. Kontratazio-organoek idatziz egin ahalko diote kontsulta enpresaburuari. Beharrezkoa bada, eskaintza osatzeko eskatu ahalko diote.

4. Esparru-akordioa enpresa batekin baino gehiagorekin egin bada, hartan oinarritutako kontratuak honela adjudikatuko dira:

a) Esparru-akordioak termino guztiak ezartzen dituenean, izan lizitazio berria egin gabe, izan lizitazio berria eginda. Bi sistemak aplikatzeko aukerak aurreikusita egon beharko du esparru-akordioa arautzeko baldintza-agirian, eta baldintza-agiri horrek zehaztu beharko du zer kasutan joko den ala ez den joko beste lizitazio bat egitera, bai eta zer termino izango diren lizitazio berriaren xede ere, baldin eta hori bada adjudikaziorako aplikatzekoa den sistema. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak termino guztiak zehaztuta eta beste lizitazio bat egin gabe adjudikatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da esparru-akordioak baldintza objektiboak aurreikus ditzala honako hau zehazteko: esparru-akordioan partaide direnen artean zein enpresak izan behar duen oinarritutako kontratuaren adjudikazioduna eta eman behar duen prestazioa.

Aurreko aurreikuspenak aplikatu beharko zaizkie, halaber, esparru-akordio bateko sorta jakin batzuei, baldin eta, sorta zehatz hori edo sorta zehatz horiek direla eta, aipatutako apartatuan finkatutako baldintzak bete badira, eta alde batera utzita baldintza-agirietan nolako aurreikuspenak dauden esparru-akordioko gainerako sortei buruz.

b) Esparru-akordioak termino guztiak ezarri ez eta esparru-akordioan partaide diren enpresei beste lizitazio bat egiteko gonbidapena egiten zaienean.

5. Aurreko 4. apartatuan xedatutakoa aplikatu eta esparru-akordio batean oinarritutako kontratu bat adjudikatzeko beste lizitazio bat egiten denean, azken hori oinarrituko da, edo esparru-akordioaren adjudikaziora aplikatutako termino berrietan, haiek zehaztuz beharrezkoa bada, edo beste termino batzuetan. Azken kasu horretan, beharrezkoa izango da termino horiek aurreikusita egotea esparru-akordioaren

kontratazioaren baldintza-agirietan, eta haiek zehaztea, oinarritutako kontratua adjudikatzeko lizitazioa egin baino lehen.

Bestalde, esparru-akordio bateko baldintza-agiriek ez badute zehaztasunez jasotzen oinarritutako kontratuei aplikatzekoa zaien erregulazioa, azken hori nahitaez sartu beharko da oinarritutako kontratu horiei dagozkien lizitazio-agirietan.

6. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak adjudikatzeko lizitazioa honako prozedura honi jarraituz egingo da:

a) Adjudikatu beharreko kontratu bakoitzeko, esparru-akordioan parte hartzen duten enpresa guztiak gonbidatuko dira lizitaziora, baldin eta, adjudikazioaren terminoen arabera, oinarritutako kontratuaren objektua gauzatzeko baldintzak betetzen badituzte. Esparru-akordioa arautzen duen baldintza-agirian ezarritako bitartekoekin egingo da gonbidapena.

Aurrekoa gorabehera, adjudikatu beharreko kontratuak erregulazio harmonizatukoak ez direnean, kontratazio-organoak erabaki ahalko du, espedientean behar bezala justifikatuta, enpresa guztiak ez gonbidatzea lizitaziora, baldin eta gutxienez ere hiruri eskaintzak eskatzen badizkie.

b) Behar besteko epea emango da oinarritutako kontratu bakoitzari buruzko eskaintzak aurkezteko, eta, horretarako, kontuan hartuko dira, besteak beste, kontratuaren objektuaren zailtasuna, balorazio-irizpideetan aniztasuna dagoen ala ez dagoen eta irizpide horien konplexutasuna, bai eta eskaintzak igortzeko behar den denbora ere.

c) Eskaintzak idatziz aurkeztuko dira, eta haien edukia konfidentziala izango da gutun-azalak irekitzeko unea iritsi arte.

Esparru-akordioan parte hartzen duten enpresek, aurreko a) letran xedatutakoaren arabera lizitaziora gonbidatu direnek, nahitaez aurkeztu beharko dute balio duen eskaintza bat oinarritutako kontratua adjudikatzeko lizitazioan, esparru-akordioan finkatutako baldintzetan.

d) Kontratazio-organoak erabaki ahalko du oinarritutako kontratuaren adjudikaziorako enkante elektronikoko baten bitartez egitea esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak adjudikatzeko lizitazioa, lege honen 143. artikuluan ezarritakoari jarraituz, baldin eta hala aurreikusi bada esparru-akordioa arautzen duten baldintza-agirietan.

e) Kontratua eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitazileari adjudikatuko zaio, 145. artikuluan ezarritakoari jarraituz, betiere esparru-akordioan ezarritako irizpideen arabera baloratuta.

f) Adjudikaziodun suertatu ez diren enpresei esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak adjudikatu ez izanari buruz egin beharreko jakinarazpena egin ordez, esparru-akordioari buruzko baldintza-agirietan zehaztutako komunikabidean argitaratu ahalko da hori.

222. artikulua. *Esparru-akordioen eta esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen aldaketa.*

1. Esparru-akordioak eta oinarritutako kontratuak kontratuak aldatzeari buruzko arau orokorreari jarraituz aldatu ahalko dira. Nolanahi ere, oinarritutako kontratuaren bidez ezingo da funtsezko aldaketarik sartu esparru-akordioan ezarritakoan.

Esparru-akordioaren aldaketatik ateratzen diren prezio unitarioek ezingo dituzte ehuneko 20an gainditu aldaketaren aurreko prezioak, eta inolaz ere ezingo dira izan esparru-akordioaren alderdi diren enpresek merkatuan produktu berdinetarako eskaintzen dituztenak baino handiagoak.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe, adjudikatutako ondasunak beste batzuekin ordezkatzeko proposatu ahalko diote esparru-akordio bateko adjudikaziodunek kontratazio-organoari, adjudikatutakoaren prestazioak edo ezaugarriak hobetzen dituzten aurrerapen edo berrikuntza teknologikoak badituzte, eta horien prezioak ez badu 100eko 10 baino gehiago handitzen adjudikazioaren hasierako prezioa, salbu eta administrazio-klausula partikularren agiriak beste muga bat ezartzen badu.

Horrekin batera, kontratazio-organoak, bere ekimenez eta hornitzailea ados dagoela edo azken horrek eskatuta, adjudikatutakoaren mota bereko edo haren antzeko ondasun berri batzuk jaso ahalko ditu, interes publikoko arrazoiak daudenean edo adjudikatutakoaren

aldean teknologia edo konfigurazio berrikoak badira; horien merkaturatzeak, betiere, eskaintzak aurkezteko muga-eguna baino geroago hasia beharko du, eta prezioak ezingo du gainditu aurreko paragrafoan ezarritako muga.

### 3. atala. Eskuratze-sistema dinamikoak

#### 223. artikulua. Zedarritzea.

1. Kontratazio-organoek kontratazio-sistema dinamikoak ezarri ahalko dituzte obrak, zerbitzuak eta ohiko erabilerako hornidurak eskuratzeko, baldin eta horien ezaugarriek beren beharrianak betetzen badituzte eta ezaugarriok gehienetan merkatuan eskura badaitezke, eta sistema hau erabiltzean ez bada inolaz ere lehia oztopatu, mugatu edo faltsutzen.

2. Eskuratze-sistema dinamikoa prozesu guztiz elektronikoa da, baldintza-agirietan iraupen mugatu eta jakin bat duena, eta indarraldi osoan zabalik egon behar du hautapenerako irizpideak betetzen dituen eta interesa duen enpresa ororentzat.

3. Kontratazio-organoek produktu, obra nahiz zerbitzuen kategorien arabera antolatu ahalko dute eskuratze-sistema dinamikoa, kategoriok objektiboki zehaztuta.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira kategoriak zehazteko balio duten irizpide objektibotzat, besteak beste: kontratazio-organoak sistemaren esparruan adjudikatzea aurreikusten duen kontratuen gehieneko bolumen onargarria, eta berariazko kontratu horiek egikarrituko diren eskualde geografiko zehatzak.

#### 224. artikulua. Ezarpena.

1. Eskuratze-sistema dinamiko baten esparruan kontratatzeke, kontratazio-organoek prozedura murriztuaren arauari jarraituko diete, atal honetan ezartzen diren berezitasunekin.

2. Sistemari, hautapen-irizpideak betetzen dituzten eskatzaile guztiak onartuko dira, eta ezingo da mugatu sistemari onar daitezkeen hautagaien kopurua.

3. Kontratazio-organoek, sistema produktuen, obren edo zerbitzuen kategorien arabera zatitu dutenean aurreko artikuluan xedatutakoari jarraituz, kategoria bakoitzari aplikatu beharreko hautapen-irizpideak zehaztuko dituzte.

4. Eskuratze-sistema dinamiko baten testuinguruan egiten diren komunikazio guztietarako soilik bitarteko elektronikoa erabiliko dira, lege honetan xedatutakoari jarraituz.

5. Berariazko kontratuak eskuratze-sistema dinamikoaren esparruan adjudikatu baino lehen, kontratazio-organoek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Lizitazio-iragarkia argitaratu kontratatzailearen profilean, bertan zehaztuta eskuratze-sistema dinamiko bat dela eta zenbat iraungo duen.

b) Baldintza-agirietan adierazi, gutxienez ere, aurreikusitako erosketen izaera eta zenbatetsitako kopurua, bai eta eskuratze-sistema dinamikoari buruz behar den informazioa eman ere, bereziki honako hauei erreparatuta: funtzionamendu modua, erabilitako ekipamendu elektronikoa eta konexioaren modalitateak eta zehaztuen teknikoak.

c) Produktuen, obren edo zerbitzuen kategorien arabeko banaketa guztiak adierazi, eta kategoria horien ezaugarriak.

d) Kontratazioaren baldintza-agirietarako sarbide libre, zuzen eta osoa eman, sistemaren indarraldi osoan, 138. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

6. Enpresentzat doakoa izango da sistema honetan parte hartzea; izan ere, ezingo zaie inolako gasturik kargatu.

7. Lizitazio-iragarkian ezarritako indarraldia dela-eta egindako aldaketa ororen berri emango diote kontratazio-organoek Europako Batzordeari, honela:

a) Indarraldia sistema amaitu baino lehen aldatzen den kasuetan, eskuratze-sistema dinamikoaren lizitazio-deialdirako hasiera baten erabilitako iragarki-ereduaren bitartez.

b) Sistema amaitu den kasuetan, kontratuaren adjudikazio-iragarkiaren bitartez.

## 225. artikulua. *Enpresak sisteman sartzea.*

1. Eskuratze-sistema dinamikoaren indarraldi osoan zehar, edozein enpresaburu interesdunek eskatu ahalko du sisteman parte hartzea, aurreko artikuluan adierazitako baldintzetan.

2. Parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epea hogeita hamar egunekoa izango da, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori ezingo da inolaz ere luzatu hautagaiei idatzizko gonbidapena jada bidali zaienean eskuratze-sistema dinamikoaren esparruan lehenengo kontratazio berariazkoa egiteko.

3. Kontratazio-organismoek hautapen-irizpideei jarraituz ebaluatuko dituzte parte hartzeko eskaera horiek, haiek jaso eta hamar egun balioduneko epean.

Epe hori hamabost egun balioduneko ere izan ahalko da kasu zehatz eta justifikatuetan; bereziki, dokumentazio osagarria aztertu behar bada edo beste moduren batean egiaztatu behar bada hautapen-irizpideak betetzen direla.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa gorabehera, eskuratze-sistema dinamikoaren esparruko lehen kontratazio berariazko gonbidapena bidaltzen ez den bitartean, kontratazio-organismoak berriz ere luzatu ahalko du ebaluaziorako epea. Eskaerak baloratzeko erabilitako denbora horretan zehar, kontratazio-organismoak ezingo du bidali eskaintzak aurkezteko inongo gonbidapenik.

Kontratazio-organismoek baldintza-agirietan adierazi beharko dute ea apartatu honetan aipatzen den epea luzatzeko aukerarik baden, eta, baiezkoan, zenbat luza daitekeen.

4. Kontratazio-organismoek ahal bezain laster adieraziko diote eskuratze-sistema dinamikoari atxikitzea eskatu zuen enpresari onartua izan den ala ez.

5. Hautagaiek hautapen-irizpideak bete dituztela egiaztatu dutenean lege honen 140. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztuz, kontratazio-organismoek, eskuratze-sistema dinamikoaren indarraldiaren edozein unetan, eskatu ahalko diete erantzukizunpeko deklarazio berri eta gaurkotua aurkez dezaten. Deklarazio hori bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du hautagaiak, hura eskatu zitzaion egunetik kontatzen hasita.

Eskuratze-sistema dinamikoaren indarraldi osoan izango da aplikatzekoa 140. artikulua 3. apartatua.

## 226. artikulua. *Kontratu bereziak eskuratze-sistema dinamikoaren barruan adjudikatzea.*

1. Eskuratze-sistema dinamikoaren barruan adjudikatu nahi den kontratu bakoitzerako, lizitazioa egin beharko da.

2. Kontratazio-organismoek aurrez eskuratze-sistema dinamikoan onartu diren enpresa guztiei gonbidapena egingo diete sistema horren esparruan egiten den lizitazio bakoitzean eskaintza bat aurkez dezaten, 162. artikulua 4. apartatua eta 163. artikulua 2. apartatua xedatutakoari jarraituz.

Eskuratze-sistema dinamikoa produktuen, obren edo zerbitzuen hainbat kategoriaren arabera banatu denean, kontratazio-organismoek gonbidapena egingo diete kasuan kasuko kategorian aurrez onartu diren enpresa guztiei.

3. Proposamenak aurkezteko gutxieneko epea hamasei egunekoa izango da, idatzizko gonbidapena bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

4. Kontratazio-organismoek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuileari adjudikatuko diote berariazko kontratua, eskuratze-sistema dinamikorako lizitazio-iragarkian xehakatutako adjudikazio-irizpideei jarraituz. Hala dagokionean, irizpide horiek zehaztasun handiagoz formulatu ahalko dira hautagaiarentzako gonbidapenean. 167. artikulua e) letran xedatutakoaren arabera, irregulartzat edo onartezintzat joko dira baldintza-agirietan aurreikusitakoaren arabera ez diren eskaintza guztiak, epez kanpo aurkeztutakoak, kolusio- edo ustelkeria-zantzuak dituztenak, kontratazio-organismoak nabarmenki baxuegiak izatea irizitakoak eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gainditzen duen prezioa dutenak.



#### 4. azpiatala Kontratazio-zentralak

##### 1. azpiatala. Arau orokorrak

###### 227. artikulua. *Funtzionaltasuna eta jarduteko printzipioak.*

1. Sektore publikoko erakundeek zentralizatu ahalko dute lan, zerbitzu eta horniduren kontratazioa, eta zerbitzu espezializatuari esleitu.

2. Kontratazio-zentralek sektore publikoko beste ente batzuentzako hornidurak eta zerbitzuak eskuratuko dituzte, edo kontratuak adjudikatu edo esparru-akordioak eta eskuratze-sistema dinamikoak egingo dituzte, kontratazio-organo horientzako obrak, hornidurak edo zerbitzuak egiteko.

3. Kontratazio-zentralek, kontratuak adjudikatzeko eta esparru-akordioak eta eskuratze-sistema dinamikoak egiteko, lege honen xedapenak eta lege hau garatzeko arauak bete beharko dituzte.

4. Kontratazio zentralizatuko esparru-akordioetan, oinarritutako kontratuak egin ahalko dira esparru-akordioaren alderdi diren enpresen eta sektore publikoko enteen artean; halaber, sektore publikoko beste ente, erakunde edo organismo batzuek ere egin ahalko dituzte kontratuak, baldin eta esparru-akordioa arautzeko baldintza-agirian identifikatu badira eta inguruabar hori lizitazio-deialdian jasota utzi bada.

###### 228. artikulua. *Autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek kontratazio-zentralak sortzea.*

1. Autonomia-erkidegoek, kontratazio-zentralak sortzeko eta haien eremu subjektiboa zehazteko, lege hau garatzeko beren eskumenak erabiliz egindako arauetan xedatutakoa bete beharko dute.

2. Hirugarren xedapen gehigarriaren 10. apartatuan xedatutakoa kendu gabe, toki-administrazioaren eremuan, toki-korporazioek kontratazio-zentralak sortu ahalko dituzte, Osoko Bilkurak hala erabakita. Ceuta eta Melilla hiri autonomoek ere beren kontratazio-zentralak sortu ahalko dituzte.

3. Kasuan kasuko akordioek bitartez, autonomia-erkidegoak, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta toki-entitateak, bai eta horien mendeko organismo eta erakundeak ere, sektore publikoko beste erakunde batzuen eskuratze zentralizatuko sistemei atxiki ahalko zaizkie, lege honen aplikazio eremuan baldin badaude. Kontratazio zentralizatuko estatu-sistemari atxikitzeko, lege honen 229. artikuluan 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoari jarraituko zaio. Administrazio, ente edo organismo berak ezingo du inolaz ere prestazio bera kontratatu hainbat kontratazio-zentralen bitartez.

##### 2. azpiatala. Kontratazio zentralizatua estatuaren eremuan. Kontratazio zentralizatuko estatu-sistema

###### 229. artikulua. *Araubide orokorra.*

1. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak kontratazio zentralizatukotzat deklaratu ahalko ditu oro har kontratatzen diren eta funtsean ezaugarri homogeenak dituzten hornidura, obra eta zerbitzuak, zentralizatze-prozesua zer baldintzatan egingo den zehaztuta.

2. Aurreko apartatuak aipatzen duen adierazpenak berekin ekarriko du lege honen 3. artikuluan 1. apartatuaren a), b), c), d) eta g) letretan adierazi eta Estatu sektore publikokoak diren ente, erakunde eta organismoek nahitaez kontratazio zentralizatuko estatu-sistemaren bitartez kontratatu behar izatea hartan jasotako hornidurak, obrak eta zerbitzuak, salbu eta kontratuak isilpeko edo erreserbatu deklaratu badira sekretu ofizialak arautzen dituen legerian xedatutakoaren arabera.

3. Sektore publikoko gainerako erakundeek atxikpen-akordio bat itxi ahalko dute Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta

Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiarekin, kontratazio zentralizatukotzat jo diren obra, zerbitzu eta hornidurak kontratatzeke, kontratazio zentralizatuko estatu-sistemaren bitartez.

4. Aurreko apartatuak aipatzen dituen atxikipen-akordioen edukia eta prozedura Osasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aginduaren bitartez ezarriko dira.

5. Kontratazio zentralizatuko estatu-sistemaren kontratazio-organoa Kontratazio Zentralizatuko Batzordea da, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Kontratazio Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiari atxikia; hori, halere, ez da eragozpena izango kontratatzeke eskumenari buruz hurrengo 6. apartatuan xedatutakorako, erakunde atxikiak hartzaile dituzten oinarritutako kontratuen kasuan.

Kontratazio Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak behar den babes teknikoa emango du kontratazio zentralizatuko estatu-sistemak egoki funtziona dezan, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak ere beteko ditu.

6. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak adjudikatzeko edo eskuratze-sistema dinamiko baten esparruko kontratuak adjudikatzeko kontratazio-organoa hau izango da kontratuaren hartzailea administrazio bat edo hari atxikitako organismo edo erakunde bat denean: administrazio, organismo edo erakunde horiei aplikatu beharreko arau orokorretan ezarritakoa.

Kontratazio Zentralizatuko Batzordeak, esparru-akordio bakoitzerako eta eskuratze-sistema dinamiko bakoitzerako, egokitzen jotzen dituen neurriak ezarriko ditu bermatzeko atxikitako erakunde bidez izapidetutako kontratazio-espeditenteek, haiek lizitazio-arauak eta kontratistak aukeratzeko arauak aplikatzeko moduak, erabakitzen diren adjudikazioek eta oinarritutako kontratuen egikaritzeak bete egiten dituztela akordio edo sistema horiek gidatutako baldintza-agirietan ezarritako terminoak eta baldintzak; horretarako, erabaki ahalko du berriazko tresna informatikoak erabiltzea, nahitaezko txostenak eta txosten lotesleak egitea edo xede horretarako egokia den beste edozein bide baliatzea.

7. Prozedura hauen bidez egin ahalko da obren, horniduren edo zerbitzuen kontratazio zentralizatua:

a) Dagokion kontratua eginez. Kontratu hori liburu honen I. tituluaren I. kapituluaren jasotako prozedura-arauekin bat etorri adjudikatuko da.

b) Esparru-akordioaren bitartez.

c) Eskuratze-sistema dinamikoaren bitartez.

Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen kontratazio-organoa edo eskuratze-sistema dinamiko baten esparruko berriazko kontratuena Kontratazio Zentralizatuko Batzordea denean eta beste lizitazio bat egin behar denean, prestazioaren hartzaile den organismoak egingo ditu, oro har, adjudikazioaren aurreko lizitazio horri buruzko jarduketak.

Hartzaileak bat baino gehiago diren kasuetan, jarduketa horiek Kontratazio Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak egingo ditu, edo horrek izendatutako organismo hartzaileak, baldintza-agirietan horretarako ezarritako irizpideak aplikatuz. Halakorik ezean, jarduketak Kontratazio Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak egingo ditu.

8. Eskuratzeke estatu-sistema zentralizatuaren nahitaezko eremuan integratutako enteeke kontratazio zentralizatukotzat jo ez diren ondasun, zerbitzu edo obrak xede dituzten eta haietako bati baino gehiagori eragiten dioten esparru-akordioak ixten dituztenean, edo modu orokorrean kontratatzen diren ezaugarri funtsean homogeneousko ondasun, zerbitzu edo obrak xede dituzten esparru-akordioak ixten dituztenean, aldeko txostena egin beharko du aurrez Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Kontratazio Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak, eta txosten hori haien adjudikazio-prozedura hasi baino lehen lortu beharko da.

9. Ondasunen eta zerbitzuen harrera eta ordainketa haiek eskatu dituzten organismoek egingo dituzte esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen kasuan eta eskuratze-sistema dinamiko baten esparruan adjudikatutako berriazko kontratuen kasuan.

230. artikulua. *Informazioa tratatzeko ekipamenduak eta sistemak eskuratzeko sistema zentralizatua.*

1. Aurreko artikulua 2. apartatuan zehaztutako derrigorrezko eremuan, informazioa tratatzeko ekipamenduak eta sistemak eta haien elementu osagarri edo lagungarriak –apartatu horretan adierazitakoaren arabera zentralizatuta eskuratzekotzat jo ez direnak– eskuratzeko eskumena kontratazio zentralizatuko estatu-sistemaren kontratazio-organoari dagokio kasu guztietan, beharizanak direla-eta erosteko interesa duten ministerioetako departamentuei edo erakundeei entzun ondoren.

2. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak Estatuko Administrazio Orokorraren beste organo batzuei, organismo autonomoei, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideei eta Estatuko erakunde publikoei eman ahalko die artikulua honetan adierazitako ondasunak eskuratzeko eskumena, baldintza bereziek edo egiten diren eskuratzeko bolumenak hala eskatzen dutenean.

## II. TITULUA

### Administrazio publikoen kontratu motak

#### I. KAPITULUA

##### Obra-kontratua

###### 1. atala. *Obra-kontratua prestatzeko jarduketak*

231. artikulua. *Obra-proiektua.*

1. Lege honetan ezarritakoaren arabera, obra-kontratu bat adjudikatzeko, alde zuzenetik proiektua egin, gainbegiratu eta onetsi egin behar da, baita haren zuinketa egin ere; proiektuak zehatz-mehatz adierazi behar du kontratuaren objektua. Kontratazio-organoak onetsiko du proiektua, salbu eta eskumen hori arau juridiko baten bidez beste organo bati eman bazaio berariaz.

2. Proiektua eta obra biak batera adjudikatzekoak direnean, obra egin ahal izateko, kontratazio-organoak proiektua gainbegiratu eta onetsi egin beharko du, eta proiektuaren zuinketa egin.

232. artikulua. *Obren sailkapena.*

1. Proiektuak egiteko, talde hauetan sailkatuko dira obrak, objektuaren eta izaeraren arabera:

- a) Lehen ezarpeneko obrak, eraberritze-obrak, zaharberitze-obrak, birgaitze-obrak edo konponketa handiko obrak.
- b) Konponketa errazeko obrak.
- c) Kontserbazio-obrak eta mantentze-obrak.
- d) Eraispin-obrak.

2. Lehen ezarpeneko obrak ondasun higiezinak sortzeko dira.

3. Eraberritzearen kontzeptu orokorrean, hauek sartzen dira: aurrez dagoen ondasun higiezinaren bat handitu, hobetu, eguneratu, egokitu, moldatu eta indartzeko egindako obra guztiak.

4. Konponketa-obrak, berriz, ondasun higiezin batean ustekabearen edo halabeharrez sortutako kalteak konpontzeko beharrezkoak direnak dira. Funtsean egitura euskarriari eragiten badiete, konponketa handikotzat joko dira, eta, bestela, konponketa errazeko obratzat.

5. Kalteak denboran zehar gertatzen badira, ondasunaren erabileraren erabileraz, haiek konpontzeko obrak kontserbaziokoak izango dira. Mantentze-obrek kontserbazio-obren izaera bera edukiko dute.

6. Zaharberritze-obrak eraikuntza bat konpontzeko egiten dira, haren estetikari, balio historikoari eta funtzionaltasunari eutsiz.

7. Birgaitze-obrak eraikuntza bat konpontzeko egiten dira, haren estetikari eta balio historikoari eutsiz, baina eraikuntzari beste funtzionaltasun bat emanez; funtzionaltasunak bateragarria izan behar du higiezinaren jatorrizko elementuekin eta balioekin.

8. Eraispin-obrak ondasun higiezinaren bat lurrera bota edo desegiteko dira.

233. artikulua. *Proiektuen edukia eta proiektuak egitetik sortzen den erantzukizuna.*

1. Obra-proiektuetan hauek sartu behar dira gutxienez:

a) Txostena, obraren objektua deskribatuta. Honako hauek jasoko dira txosten horretan: aurrekariak eta obrak hasi aurreko egoera, bete beharreko beharrianak eta aukeratutako konponbidearen justifikazioa; betiere, aintzakotzat hartu beharreko faktore guztiak zehaztuta.

b) Delako obra erabat zehazteko beharrezkoak diren plano orokorrak eta xehetasun-planoak, eta, orobat, lursailen okupazioa eta zortasun-eskubideen eta gainerako eskubide errealen itzulketa zedarritzeko planoak, eta, hala badagokio, obrak eginez ukituko diren zerbitzuak zedarritzekoak.

c) Preskripzio tekniko partikularren agiria. Bertan, obrak deskribatuko dira eta obrak nola egingo diren arautuko da, honako hauek adieraziz: lan horiek zer erataraz egingo diren, kontratistak zer betebeharrak tekniko izango dituen, gauzatutako unitateak nola neurtuko diren eta erabilitako materialen kalitatea eta obrak egiteko prozesua nola kontrolatuko diren.

d) Aurrekontua, aurrekontu partzialez osatuta edo ez; unitateko prezioak eta, hala dagokionean, prezio xehatuak ere adierazi beharko ditu, baita neurketen egoera-orrria eta aurrekontua balioesteko beharrezkoak diren zehaztasunak ere. Aurrekontua funtsezko obraren arabera antolatuko da, erregelamenduz ezartzen den eran.

e) Argibide moduan, lanak garatzeko egitaraua edo obra egiteko plana; hala badagokio, iraupena eta kostua zehaztuko dira.

f) Obraren zuinetak oinarri izango dituen era guztietako erreferentziak.

g) Segurtasun- eta osasun-azterlana edo, bestela, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzeko azterlana, obretako segurtasun- eta osasun-arauetan ezarritakoaren arabera.

h) Legezko edo erregelamenduzko arauetan ezarritako agiri guztiak.

2. Hala ere, lizitazioaren oinarritzeko aurrekontu moduan BEZik gabe 500.000 eurotik behera dituzten lehen ezarpeneko, eraberritzeko zein konponketa handiak egiteko obraren proiektuetarako, eta aurreko artikuluan zerrendatutako gainerako proiektuetarako, erraztu, bateratu zein ezabatu ere egin daiteke goian aipatutako agirietakoren bat edo beste, lege hau garatzeko arauetan zehaztutako moduan, baldin eta horrela egindako agiri hauek nahikoa badira obrak zehaztu, balioetsi eta egiteko. Dena den, arau espezifikoa horrela aurreikusten denean baino ezingo dira aurkeztu gabe utzi aurreko apartatuko g) letran aipatzen diren agiriak.

3. Obrak egiteko erabiliko diren lurren azterlan geotekniko bat ere sartu behar da proiektuan, obraren izaerarekin bateraezina ez bada behintzat; baita kontratuaren objektua hobeto zehazteko beharrezkoak diren alde aurreko txostenak eta azterlanak ere.

4. Proiektua osorik Administrazioak berak kontratatu duenean, proiektuaren egileak edo egileek lege honetan ezartzen den moduan hartuko dute bere gain erantzukizuna. Prestazioa Administrazioaren lankidetzaz eta hark gainbegiraturik ematen bada, lankidetzaren arlokoak soilik izango dira erantzukizunak.

Proiektu batek azterlan geotekniko bat biltzen duenean eta hartan ez direnean aurreikusi egikaritzen ari den kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10etik gorako

igoera dakarten inguruabar jakin batzuk, haren egileari edo egileei 315. artikulua ezartzen duen kalte-ordaina eskatu ahalko zaie, baina, haren 1. apartatua aipatzen den ehuneko 20ko portzentajearen orde, horretarako, ehuneko 10eko portzentajea ezarri beharko da.

5. Proiektuak nahitaez bete beharrekoak diren jarraibide teknikoaren arabera egingo dira.

6. Obrak Administrazio Publikoak ustiatzen dituztenean, obra ustiatu behar duen Administrazioaren inbertsioen egungo balio garbia, kostuak eta diru-sarrerak jaso beharko da proiektuan.

#### 234. artikulua. *Enpresaburuak proiektua aurkeztea.*

1. Proiektua egiteko lana eta dagozkion obrak egiteko lana biak batera kontratatzea salbuespeneko kasua izango da, eta bakar-bakarrik honako kasu hauetan aplikatu ahalko da, espedientean behar bezala justifikatuz:

a) Arrazoi teknikoak direla-eta enpresaburuaren obraren azterlanekin lotu behar denean ezinbestean. Arrazoi horiek obraren xedearekin edo obra egiteko teknikekin lotuta egon behar dira nahitaez.

b) Obraren tamaina ezohikoa edo zailtasun tekniko bereziak direla-eta, enpresaren beraren baliabide edo gaitasun teknikoaren bidez eman beharreko konponbideak behar direnean.

2. Nolanahi ere, era horretako kontratuaren lizitazioa egin aurretik, Administrazioak edo erakunde kontratatzaileak dagokion aurreproiektua edo antzeko agiria idatzi beharko du; justifikatutako arrazoiak direla-eta interes publikorako komenigarria denean, beste inoiz ez, proiektuak bete beharreko oinarri teknikoak bakarrik idatzi ahalko ditu aukeran.

3. Kontratazio-organuari aurkeztuko dio proiektua, organo horrek proiektua gainbegiratu, onetsi eta zuzentzea egin dezan. Administrazioak edo erakunde kontratatzaileak, ikusten badu jasotako proiektuan akatsak daudela edo prezioak ezegokiak direla, akatsak zuzentzeko eskatuko dio kontratazio-organuari, 314. artikuluan ezarritakoaren arabera; bitartean, eta Administrazioak edo erakunde kontratatzaileak berriz ere proiektua gainbegiratu, onetsi eta zuzentzea egin arte, ezingo da obra egiten hasi. Kontratazio-organoa eta kontratazio-organoa ez bada ados jartzen prezioei buruz, kontratazio-organoa salbuespeneko kasu geratu da eta ez du obrak egin beharrik izango, eta eskubide bakarra izango du kontratazio-organoren aurrean: hark proiektua idazteko lanak ordaintzea.

4. Artikulu honetan jasotako egoerei dagokionez, espedientea hasteko aginduan eta dagokion kreditu-erreserban finkatuko da egiteko den kontratuaren aurreikusitakoaren arabera har dezakeen gehieneko zenbatekoa. Nolanahi ere, gastua ez da ikuskatuko, ez da onetsiko, eta horri lotutako konpromisorik ere ez da hartuko, harik eta, aukeratutako proposamenaren arabera, kontratuaren zenbatekoa eta baldintzak zeintzuk diren jakin arte; inguruabar horiek guztiak jaso behar dira administrazio-klausula partikularren agirian.

5. Azpiegitura hidraulikoetan edo garraio-azpiegiturretan ohiz bestelako obrak egiteko proiektua egin behar denean eta obrak egiteko kopuru zenbatetsirik ezin daitekeenean finkatu oso obra handiak direlako edo oso konplexuak direlako, proiektuari bakarrik eragingo dio aurreko apartatua jasotako gehieneko prezioak. Obra egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da obra-finantzaketaren bideragarritasuna aztertzea eta dagokion gastu-espedientea izapidetzea.

Obra egiteari uko eginen bada, edo hiru hilabeteko epean erabakirik hartzen ez bada, kontratazio-organoren prezioa kobratzeko eskubidea izango du, prezioa 100eko 5 gehituta konpentsazio modura, non eta administrazio-klausula partikularren agirian ez den epe luzeagoa ezartzen.

#### 235. artikulua. *Proiektuak gainbegiratzea.*

Proiektua onartu aurretik, obra-kontratuaren lizitazioaren oinarriko aurrekontua 500.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean BEZik gabe, kontratazio-organoei txostena eskatu beharko diete proiektuak gainbegiratzeko bulego eta lantaldeei, proiektu mota

bakoitzari dagokionez aplikatu beharreko legezko edo erregelamenduzko xedapen orokorrak eta arau teknikoak aintzakotzat hartu direla egiaztatzeko ardura daukaten heinean. Egin beharreko azterketa eta kalkuluetan xedapen eta arau horiek modu ezegokian aplikatzearen erantzukizuna lege honen 233. artikulua 4. apartatuan xedatutakoari jarraituz eskatuko da.

Lizitazioaren oinarriko aurrekontua aipatutako zenbatekotik beherakoa duten proiektuen kasuan, txostena egitea aukerakoa izango da, obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten dioten obraren kasuan izan ezik. Halako kasuetan, gainbegiratze-txostena ere nahitaezkoa izango da.

236. artikulua. *Proiektuaren zuinketa.*

1. Proiektua onartu ondoren, eta obraren kontratazio-espeditentia onetsi aurretik, haren zuinketa egingo da; obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko da zuinketa, eta obra hori arazorik gabe egiteko behar diren lurak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrikoak diren kasu guztiak egiaztatu behar dira.

2. Azpiegitura hidraulikoetan eta garraio- eta errepide-azpiegiturretan egin beharreko obreri dagokienez, kontratazio-espeditentia izapidetzean, lurak erabilgarri izateko aurrez bete beharreko betekizuna salbuesita geratuko da; halere, ezingo dira obrak egiten hasi okupazioa formalizatu arte indarrean dagoen Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen indarrez.

3. Erakunde publikoek lagatako lurak edo lokalak direnean, lursailak erabilgarri daudela egiaztatzeko orduan, nahikoa izango da horretan eskumena duten organoek ondasun hauek lagatzeko eta hori onartzeko hartutako erabakiak aurkeztea.

4. Zuinketa egin ondoren, kontratazio-espeditenteari gehitu behar zaio proiektua.

## 2. atala *Obra-kontratua egikaritzea*

237. artikulua. *Zuinketa egiaztatzea.*

Obra-kontratua zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da egikaritzen. Horretarako, obraren ardura daukan administrazioko zerbitzuak, kontratista aurrean dela, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du kontratuan jasotako epearen barruan –justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik, epea, kontratua formalizatzen den egunetik kontatuta, ezingo da hilabetetik gorakoa izan–; emaitzak akta batean jasoko dira, eta, interesatuta dauden bi alderdiek izenpetu ondoren, kontratua egin zuen organoari bidali beharko zaio aktaren ale bat.

238. artikulua. *Obrak egitea eta kontratistaren erantzukizuna.*

1. Obrak, egin, administrazio-klausula partikularren agirian jasotako estipulazioei eta kontratuaren oinarri den proiektuari estu-estu lotuta egingo dira, eta obraren zuzendaritza fakultatiboak interpretazio teknikoak eginez kontratistari emandako jarraibideen arabera.

2. Jarraibideok, berbaz emandakoak badira, idatziz berretsi behar dira ahalik lasterrena, alderdi bientzat lotesleak izan daitezten.

3. Obrek iraun bitartean, eta berme-epea bete arte, kontratista da eraikuntzan agertzen diren akats guztien erantzule.

239. artikulua. *Ezinbesteko kasua.*

1. Ezinbesteko kasuetan, kontratistak, zuhurtziaz gabe jardun ez badu, eskubidea edukiko du berari kontratua egikaritzean sortutako kalte-galeren ordainak jasotzeko.

2. Hauek dira ezinbesteko kasuak:

a) Atmosferako elektrizitateak sortutako suteak.



b) Hondamendiak eragiten dituzten naturako fenomenoak: itsasikarak, lurrikarak, sumendi-erupzioak, lur-mugimenduak, itsasoko ekaitzak, uholdeak eta antzeko beste batzuk.

c) Gerra-denboran indarkeriaz egindako triskantzak, lapurreta zalapartatsuak eta ordena publikoaren urratze larriak.

240. artikulua. *Ziurtagiriak eta konturako ordainketak.*

1. Ordainketetarako, Administrazioak hilero egin behar ditu, dagokion hilaren ondorengo lehen hamar egunetan, aldi horretan proiektuari jarraituz egindako obrak jasoko dituzten ziurtagiriak, administrazio-klausula partikularren agirian kontraktorik aurreikusita ez badago behintzat; ordainketa horiek kontura egindako ordainketa izango dira, eta azken neurketan egiten diren zuzenketek eta aldaketek agindutakoaren menpe geldituko dira; baina horrek inola ere ez du esan nahi ziurtagiriotan jasotako obrak ontzat eman eta hartu egiten direnik.

Konturako ordainketetan, 198. artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoan xedatutakoa beteko da.

2. Kontratatistak, halaber, eskubidea izango du konturako ordainketak jasotzeko prestaketa-lanengatik, hala nola obrara atxikitako materialak nahiz makina astunak eta ekipamenduak instalatu eta biltzeagatik, kasu bakoitzeko administrazio-klausula partikularren agirietan adierazitako baldintzak aintzat hartuta, eta erregelamenduz oro har ezarritako araubidea eta mugak errespetatuta; bermea jarriz aseguratuta behar dira aipatutako ordainketok.

241. artikulua. *Prezioa honenbesteko bat duten obrak eta prezio itxiko obrak.*

1. Obraren ezaugarriek aukera ematen dutenean, honenbesteko finko baten arabera ordaintzeko sistema ezarri ahalko da, unitateko preziorik gabe, hurrengo apartatueta ezarritakoarekin bat etorritik eta ordainketa-irizpidea prezio itxia denean edo, gainerako kasuetarako, lege hau garatzeko arauetan ezarritako baldintzen eta inguruabarren arabera.

2. Honenbesteko finko baten arabera ordaintzeko sistematzat, hala badagokio, prezio itxikoa ezarri ahalko da, eta, horrela, adjudikaziodunak eskainitako prezioa ez da aldatuko, eta ez dira ordaintzekoak izango proiektua idaztean egindako akatsak edo utzitako hutsuneak zuzentzeko kontratuan egin beharreko aldaketak.

3. Obrak honenbesteko finko baten arabera eta prezio itxiarekin kontratatuzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian horrela ezarrita egotea. Baldintza-agiriak ezar dezake obraren unitate edo atal batzuk sistema honetatik kanpo uztea eta unitateko prezioetan ordaintzea.

b) Sistema honen arabera ordainduko diren obra-unitateak aldeztu aurretik definitu behar dira proiektuan, eta lizitazioaren aurretik zuzentzeko beharko dira. Kontratazio-organoak bermatu egin beharko die interesdunei obrak izango diren lursailera sartzeko modua, egoki irizitako egiaztapenak egin ahal izan ditzaten lekuan bertan, eskaintzak aurkezteko ezarritako muga-eguna baino lehen eta behar bezalako aurretiaz.

c) Honenbesteko finko baten arabera eta prezio itxiaren bidez kontratatutako obra-unitateei edo kontratu-atalei dagokien prezioa hilero-hilero ordaintzea, hilabete horretan egindako obrak dagokion obra-unitate edo -elementuaren osotasunarekin daukan proportzioan.

d) Lizitatuzaileei obra-elementu edo -unitate jakin batzuen gainean aldaerak aurkezteko baimena ematen zaienean baldintza-agirian ezarritakoarekin bat etorritik, eta kontratuaren administrazio-klausula partikularren agiria arabera obra-elementu edo -unitate horiek prezio itxiko sistemaren bidez eskaini behar direnean, aldaera horiek ere sistema horrekin aurkeztu beharko dira.

Kasu horretan, lizitatzailerik oinarritako proiektu bat aurkeztu beharko dute nahitaez, eta proiektu horren edukia kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian zehaztuko da.

Kontratuaren adjudikaziodunak, baldintza-agiri horretan zehaztutako epean, eskaintako aldaeren erakuntza-proiektua aurkeztu beharko du, aginduzko gainbegiratzeko eta onespenerako. Proiektu hori onartzeak ez du ekarriko, ezein kasutan, adjudikazioaren prezioa edo epea aldatzea.

### 3. atala. Obra-kontratua aldatzea

#### 242. artikulua. Obra-kontratua aldatzea.

1. Lege honen 206. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitzen diren obra-kontratuaren aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. Aldaketaren eraginez obra-unitateak ezabatzen edo murrizten badira, kontratistak ez du batera kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

2. Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoak ez bezalakoak badira, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, Administrazioak finkatuko ditu aplikatu beharreko prezioak, kontratistari gutxienez hiru egun baliodunetz entzun ondoren. Kontratistak finkatu diren prezioak onartzen ez dituenean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahalko ditu aldaketok, finkatutako prezio horietan, edo zuzenean egikaritu ahalko ditu, edo kontratua suntsiarazi ahalko du, lege honen 211. artikuluari jarraituz.

3. Aldaketak geroan behin betiko ezkutaturik geratuko diren obra-unitateak hartzen dituenean, haien neurketa partziala egin baino lehen, dagokion administrazioaren Kontu-hartzailetzari eman beharko zaio horren berri, gutxienez ere bost egun lehenagotik, egokitze jotzen badu neurketa horretara joan dadin inbertsioa materialki egiaztatzeko bere eginkizunak betetzera; hori, halere, ez da eragozpena izango obrak amaituta haien harrera egiteko 243. artikulua 1. apartatuan xedatutakoari jarraituz –210. artikulua 2. apartatuarekin lotuta dago hori–.

4. Obra-zuzendari fakultatiboak, proiektua aldatu beharra ikusten badu eta horretarako lege honetan araututako baldintzak betetzen badira, baimena eskatuko dio kontratazio-organoari, dagokion espedientea hasteko. Espedientea honela gauzatuko da:

- a) Proiektuaren aldaketa idatziz eta onspen teknikoa emanez.
- b) Kontratistari eta proiektuaren idazleari entzunez, gutxienez hiru egunez.
- c) Kontratazio-organoak espedientea eta beharrezko gastu osagarriak onetsiz.

Hala eta guztiz ere, honako hauek ez dira aldaketatzat joko:

i. Neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea soilik, betiere orokorrean ez dutenean egiten hasierako kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorako gastu-igoera. Neurriak gehiegizkoak izate hori obra-amaierako ziurtagirian jaso beharko da.

ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanek finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gaintu gabe eraginik ez badute.

5. Baldin eta obra-kontratua aldatzeko izapidea dela-eta obrak osorik aldi baterako bertan behera utzi behar badira, eta horrek interes publikoari kalte larriak eragiten badizkio, eta obrak agindu dituen Estatuko Administrazio Orokorra, haren organismo autonomoak, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzailearen bat edo zerbitzu erkideak direnean, edo Estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakunde publikoak direnean, halakoetan, ministroak aukera izango du obrek behin-behinean aurrera jarrai dezatela

agintzeko zuzendaritza teknikoak egindako proposamen teknikoan ezarritakoaren arabera, baldin eta aurreikusitako gehieneko zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren 100eko 20tik gorakoa ez bada BEZik gabe, eta kreditu egoki eta nahikoa badago obra finantzatzeko.

Kasu horretan izapidetu beharreko behin-behineko jarraipen-espeditentean, honako hauek baino ez dira sartu beharko:

- a) Obra-zuzendari fakultatiboaren proposamen tekniko arrazoitua; bertan, hauek jasoko dira: aldaketaren gutxi gorabeherako zenbatekoa, egin beharreko obren oinarritzko deskribapena, eta aldaketa 203. artikulua 2. apartatuan aurreikusitako kasuetako baten arabera izateari buruzko justifikazioa.
- b) Kontratatari entzunaldia ematea.
- c) Kontratazio-organoaren adostasuna.
- d) Kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria.
- e) Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoaren txostena, baldin eta proposamen tekniko arrazoituan prezio berriak sartzen badira. Txostenean arrazoitu beharko da prezio berriak nola egokitzen zaizkien merkatuko prezio orokorre, 102. artikulua 3. apartatuan ezarritakoari jarraituz.

Behin-behineko baimena emateko erabakia hartzen denetik sei hilabetera, teknikoki onartua behar du proiektuak, eta, zortzi hilabetera, kontratuaren aldaketari buruzko espedienteak.

Zortzi hilabeteko epe horren barruan, aurreikusitako obra-unitateen artean, gerora behin betiko ezkutuan geratuko ez diren zatiak gauzatzeari emango zaio lehentasuna.

Behin-behinean obrak hasteko ministroaren baimenak, zeina ministerio-sailaren estatu-idazkariei bakarrik eskuordetu ahalko baitzaie –hala egin behar izanez gero–, berekin ekarriko du Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan gastua onestea; hori, halere, ez da eragozpena izango kontratuaren aldaketa onesteko unean egin beharreko doikuntzak egiteko.

Zortzi hilabeteko epearen barruan egindako obrak direla-eta, ziurtagiria emango da, eta lege honetan aurreikusitako eran ordainduko dira, honako berezitasun honekin:

Espediente aldatuaren izapidetzean zehar egin beharreko ziurtagiriek, hasierako proiektuan aurreikusi gabeko unitateak dituztenek, erreferentziatzen hartuko dituzte proposamen tekniko arrazoituan ageri diren prezioak; haien ordainketak kontura egindako behin-behineko ordainketak izango dira, eta proiektu aldatua onetsi ondoren egin daitezkeen zuzenketen eta aldaketen menpe egongo dira; hori guztia, halere, ez da eragozpena izango amaierako neurketan gertatzen diren zuzenketetarako eta aldaketarako, eta ez dute inolaz ere berekin ekarriko biltzen dituzten obrak onestea eta hartzea.

#### 4. atala Obra-kontratua betetzea

##### 243. artikulua. Obrak hartzea eta berme-epea.

1. Obrak amaitzen direnean, haiek hartzeko eta lege honetan ezarritako ondorioetarako, Administrazioak bere ordezkoa egiteko izendatutako teknikari bat, obren zuzendaritzaz arduratutako teknikaria eta kontratista bilduko dira; azken hori, teknikari baten laguntzaz, berak egoki baderitzo.

Obrak hartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, egindako obren azken ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak, eta ordaindu egingo zaio kontratatari, kontratuaren likidazioaren kontura, lege honetan aurreikusitako epean.

Hamabi milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten eta likidazio- eta neurketa-eragiketarik biziki korapilatsuak diren obren kasuan, baldintza-agiriek aurreikusi ahalko dute amaierako ziurtagiria onesteko aurreko paragrafoak ezartzen duen hiru hilabeteko epea luzatu ahal izatea; nolana ere, epe hori ez da sekula izango bost hilabetetik gorakoa.

2. Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera egin badira, administrazio kontratatzaileak bere ordezkari izendatutako funtzionario teknikariak hartutakotzat joko ditu; harrera-akta egingo da, eta orduan hasiko da berme-epea.

Alabaina, obrak ez badaude hartzeko moduan, halaxe adieraziko da aktan. Orobat adieraziko dira obra-zuzendariak sumatutako akatsak, eta beharrezko diren jarraibideak ere zehaztuko dira, bai eta akatsak zuzentzeko epe bat ere. Aipatutako epea igarota kontratistak ez baditu oraindik zuzenketak egin, bi aukera izango dira orduan: beste epe bat eman (luza ezinezkoa) edo kontratua suntsiarazi.

3. Berme-epea administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako horixe izango da, obraren izaera eta zailtasunen arabera zehaztuta. Edonola ere, berme-epe hori ezingo da urtebetetik beherakoa izan, kasu berezietan izan ezik.

Berme-epea amaitu aurreko hamabost eguneko aldian, obra-zuzendari fakultatiboak, bere kabuz edo kontratistak halaxe eskatuta, txosten bat egingo du obraren egoerari buruz. Txosten hori aldekoa bada, kontratista erantzukizun orotatik libre geratuko da, ondorengo artikuluan ezarritako salbuespenarekin; bermea itzuli edo ezereztu, kontratua likidatu, eta, hala badagokio, ordaindu gabeko betebeharrak ere ordainduko zaizkio, hirurogei eguneko epean. Txostena ez bada aldekoa, eta ikusitako akatsak obrak egitean agertu badira eta ez eraikitakoa erabiltzean, zuzendari fakultatiboak, berme-epeak dirauen bitartean, dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan; horretarako, epe bat jarriko dio, eta, epe horrek dirauen bitartean, kontratistak izango du obrak kontserbatzeko ardura, eta ez du eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik dirurik jasotzeko.

4. Hala ere, ez da berme-eperik eskatuko obraren iraupenak helburu praktikorik ez daukanean –esate baterako, emaitzarik lortu ez duten zundaketa eta prospekzioak direnean–, edo diren modukoak direlako kontserbazio soiletik haragoko lanak eskatzen dituzten obrak direnean –draga-lanetan, esate baterako–.

5. Zatika hartu ahalko dira aldika egin eta jendearen erabilerarako entrega daitezkeen obra-zatiak, kontratuan ezarritakoaren arabera betiere.

6. Baldin eta, espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiak agertzen direlako, kontratazio-organoak erabakitzen badu obrak benetan okupatzea edo obra horiek erabilera publikorako martxan jartzea, nahiz eta harrera-egintza formalki beteta ez egon, halakoetan, obrak hartzeko egintzari dagozkion efektuak eta ondorioak sortuko dira berdin-berdin, erabakitakoa betetzen den unetik beretik, erregelamenduz ezarritakoaren arabera betiere.

#### 244. artikulua. *Ezkituko akatsengatiko erantzukizuna.*

1. Berme-epea amaitu eta gero, obra hondatu egiten bada edo bere eginkizunarekin bateraezinak diren narriatze larriak baditu kontratistak kontratua bete ez duelako eta horren ondorioz eraikinak ezkituko akatsak dituelako, kontratistak hamabost urtez erantzun beharko die, obra hartzen denetik kontatzen hasita, sortzen edo agertzen diren kalte-galerei.

Halaber, epe horretan kontratistak erantzukizuna izango du baldin eta zimendu, euskarri, habe, forjatu, karga-horma edo bestelako egitura-elementuen akatsen ondorioz, hau da, eraikuntzari zuzenean erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna ematen dizkieten elementuen ondorioz obran kalte materialik gertatzen bada, obra eragozpenik gabe onartzen den edo obra onartzeko eragozpenak konpontzen diren egunetik hasita.

2. Akats edo hutsetatik datozen kalte materialak direla-eta aurreko apartatuan aurreikusitako erantzukizuna eskatzeko ekintzak bi urteko epean preskribituko dira, kalte horiek gertatzen edo agertzen direnetik kontatzen hasita; hori, halere, ez da eragozpena izango kontratua ez betetzeagatik erantzukizunak eskatzeko dauden ekintzetarako.

3. Artikulu honen lehen apartatuan ezarritako hamabost urteko epea igaro bada eta oraindik inolako kalterik edo galerarik agertu ez bada, orduan, iraungiko da kontratistaren erantzukizun oro.

## 5. atala. Obra-kontratua suntsiaraztea

### 245. artikulua. *Suntsiarazteko kausak.*

Lege honetan aipatutako kausa orokorrez gain, hauek dira obra-kontratuak suntsiarazteko kausak:

- a) Zuinetaren egiaztapena arrazoi justifikaturik gabe berandutzea.
- b) Obren hasiera lau hilabete baino gehiago etetea.
- c) Administrazioak zortzi hilabete baino gehiagoz obrak etetea.
- d) Atzera egitea.

### 246. artikulua. *Suntsiaraztearen ondoreak.*

1. Kontratua suntsiaraziz gero, proiektuaren arabera egindako obrak egiaztatu, neurtu eta likidatu egin behar dira, eta alde edo kontra kontratistari dagozkion saldoak finkatu. Beharrezkoa izango da kontratistari deitzea kontratazio-espeditentean ageri den helbidera, obrak egiaztatu eta neurtzeko egintzara ager dadin.

2. Zuinetaren egiaztapena justifikaziorik gabe geroratu delako kontratua suntsiarazten bada, adjudikazio-prezioaren 100eko 2koaren pareko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea baino ez du edukiko kontratistak, BEZik gabe, kontzeptu guztiengatik.

3. Administrazioak obrei hasiera eman baino lehen atzera egiten badu edo obren hasiera lau hilabetetik gorako epe batez etenda uzten badu, adjudikazio-prezioaren ehuneko 3ko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, BEZik gabe, kontzeptu guztiengatik.

4. Behin obrak egiten hasita atzera egiten bada edo hasitako obrak zortzi hilabete baino gehiagoz eteten badira, egin gabe utzitako obra-kontratuaren adjudikazio-prezioaren 100eko 6 jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, kontzeptu guztiengatik, mozkin industrial moduan, BEZik gabe; hau joko da egin gabe utzitako obratzat: batetik, hasierako kontratuan agertzen diren obren eta haiei buruz onetsitako aldaketen eta, bestetik, atzera egin dela nahiz obrak etenda geratu direla jakinarazteko egunera arte egin diren obren artean geratzen den aldea.

5. Segurtasun-arrazoiak direla-eta edo eraikitakoa aurreratu bihurtzeko arriskua dagoela-eta presaz beste enpresaburu batek edo Administrazioak berak jarraitu behar duenean obrak egiten, kontratazio-organoak, ordura arte egindako obren likidazioa kontratistari jakinarazi ondoren, obrak egiten jarraitzea erabaki ahalko du; kontratistak, berriz, balioespen hori kontratazio-organoan aurkaratzeko aukera izango du. Kontratazio-organoak bidezkoa dena ebatziko du hamabost eguneko epean.

## II. KAPITULUA

### Obra-emakidako kontratua

#### 1. atala. *Obra-emakidako kontratua prestatzeko jarduketak*

### 247. artikulua. *Bideragarritasun-azterlana.*

1. Obra batzuk eraikitzeko eta emakida bidez ustiatzeko erabakia hartu aurretik, administrazio emakida-emailearen barruan dagokion organoak horiei buruzko bideragarritasun-azterlana egitea erabakiko du.

2. Bideragarritasun-azterlan horrek, gutxienez, behar diren datuak, analisiak, txostenak eta ikerlanak jaso beharko ditu honako hauei buruz:

- a) Obren xedea eta justifikazioa, baita haien funtsezko ezaugarrien definizioa ere.
- b) Beste kontratu mota batzuen ordean obra-emakidako kontratu bat erabiltzea gomendatzen duten abantaila kuantitatibo eta kualitatiboaren justifikazioa, hauek adierazita:

bete behar diren kalitate-mailak, prestazioa egiaztatzeko behar den egitura administratiboa eta emakidak aurrekontu-egonkortasunean duen eraginari lotutako aldagaiak.

c) Obrek beren eragin-esparruan izango duten erabilera-mailaren eta eragin ekonomiko eta sozialaren gaineko aurreikuspenak eta emakidaren errentagarritasunaren gainekoak.

d) Sektore-, lurralde- eta hirigintza-plangintzari buruz eskuragarri dauden datuen eta txostenen balorazioa.

e) Ingurumen-inpaktuaren azterketa, indarrean dauden legeen arabera nahitaez egin beharrekoa denean. Gainerako kasuetan, ingurumenari buruzko aukerei eta haiek berekin dakartzaten eta beharrezkoak diren zuzenketa- eta babes-neurriei buruzko azterketa.

f) Aukeratu den konponbidea justifikatzea, eta, aukeren artean, bide-azpiegiturak edo azpiegitura linealak direnean, haien trazaduraren ezaugarriak adieraztea.

g) Obrak eraiki eta ustiatzean dauden arrisku operatibo eta teknologikoak.

h) Egin beharreko inbertsioaren kostua, eta obrak eraikitzeko proposatutako finantzaketa-sistema, eta, horrez gain, obrak egitea bidezkoa delako justifikazioa.

i) Segurtasun- eta osasun-azterlana, edo, hala badagokio, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana, eraikuntza-obretan segurtasunaren eta osasunaren arloetan bete beharreko gutxieneko arauetan ezarritakoaren arabera.

j) Emakidadunaren inbertsio, kostu eta diru-sarrera guztien egungo balio garbia, eragiketa-arriskuaren ebaluazioaren ondoretarako, bai eta beherapen-tasa baloratzeko behar diren irizpideak ere.

k) Estatuaren laguntza bat egotea eta hura bateragarria izatea Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin, emakidaren bideragarritasunari begira eraikitzeko edo bera ustiatzeko laguntzak aurreikusten diren kasuetan.

3. Administrazio emakida-emaileak jendaurreko informazio-aldian jarriko du bideragarritasun-azterlana hilabete batez; azterlan horren konplexutasunaren arabera, epe hori beste horrenbeste luzatu ahalko da. Horrez gainera, obra hori dagokion hirigintza-plangintzan agertzen ez bada, Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen barruan dagokien organoei igorriko die azterlana, hilabeteko epean txostena eman dezaten.

4. Jendaurreko informazioari buruz aurreko apartatuan jasotako izapide horretan bertan, ingurumen-inpaktuaren adierazpena nahitaezkoa denean, ingurumen-inpaktuaren azterketari dagokion izapidea ere beteko da.

5. Ekimen pribatua ere onartuko da esleitzekoak diren emakidei buruzko bideragarritasun-azterlanak aurkezteko orduan. Azterlana aurkeztu ondoren, organo eskudunari igorriko zaio, izapidetuko duen ala ez jakinaraz diezaion partikularri hiru hilabeteko epean, edo azterlana aztertzeko epe luzeagoa finka dezan; epe hori ezin da inola ere izan sei hilabetetik gorakoa. Dagokion administrazioak edo erakundeak ezer adierazi ezean, horrek esan nahiko du azterlana ez dela onartu.

Baldin eta bideragarritasun-azterlana dagokion emakida emanaz amaitzen bada, salbu eta azterlan hori nahikoa ez denean bere helburu propioari dagokionez, egileak eskubidea izango du dagokion lizitazioan ehuneko 5 puntu gehigarri izateko, kasuan kasuko administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako adjudikazio-irizpideak aplikatuz lortu dituen gainera. Adjudikaziodun gertatu ez den kasurako, eskubidea izango du hura taxutzeko egindako gastuak ordain diezazkioten, zenbateko horri ehuneko 5 gehituta konpentsazio modura; gastu horiek emakidadunari ezarri ahalko zaizkio kontratu-baldintza moduan administrazio-klausula partikularren agirian. Azterlana aurkeztu duenak justifikatzen dituen gastuen arabera zehaztuko da gastuen zenbatekoa.

6. Administrazio emakida-emaileak erabaki dezake, betiere arrazoituz, aurreko apartatuetan aipatutako bideragarritasun-azterlanaren ordezkaria ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterlana aurkeztu behar dela, baldin eta uste badu, obren izaera edo xedea kontuan hartuta, edo egin beharreko inbertsioa zenbatekoa den ikusita, nahikoa dela finantza- eta ekonomia-bideragarritasuneko azterlana. Kasu horietan, gainera, Administrazioak, emakida lizitatu aurretik, dagokion aurreproiektua edo proiektua egingo



du, hurrengo artikuluko 3. eta 4. apartatuetan ezarritako izapideak beteko direla bermatzeko.

7. Administrazio emakida-emailearen dagokion organoak bideragarritasun-azterlana onetsi beharko du edo, kasua bada, aurreko apartatuan aipatutako ordezte-erabakia hartu, eta erabaki horiek kontratatzailearen kasuko profilean argitaratu beharko ditu.

248. artikulua. *Obrak eraikitze eta ustiatzeko aurreproiektua.*

1. Obrek zer konplexutasun duten eta haien ezaugarriek zenbaterainoko zehaztasuna duten aintzat hartuta, administrazio emakida-emaileak, bideragarritasun-azterlana onartu ondoren, dagokion aurreproiektua egiteko erabakia hartu ahalko du. Aurreproiektu horretan, obren izaera nolakoa den, merkataritza-ustiapeneko eremu osagarriak ere sartu ahalko dira.

2. Obrak eraikitze eta ustiatzeko aurreproiektuak, gutxienez, honako dokumentazio hau jaso beharko du:

a) Memoria bat, honako hauek azalduko dituena: bete beharreko beharrianak, aurrez finkatutako helburua betetzeko aintzat hartu diren faktoreak (gizarte-, teknika-, ekonomia-, ingurumen- eta administrazio-arlokoak), eta proposatutako konponbidea aukeratzeko egon diren arrazoiak. Memoria horrekin batera, eman beharreko datu eta kalkulu oinarritzaileak ere aurkeztuko dira.

b) Obrak definitzeko beharrezko diren kokapen-planoak, bai orokorrak, bai multzo osokoak.

c) Aurrekontua, obrak egiteko gastu guztiak jasota, egin beharreko desjabetzeak ordaintzeko dirua ere zehaztuta dagoela, eta, betiere, balioespenak eta gutxi gorabeherako neurketak oinarritzat hartuta. Desjabetzeen kostua kalkulatzeko, indarrean dagoen legezko balioespen-sistema hartuko da kontuan.

d) Obrak erabiltzeko eta ustiatzeko moduari buruzko azterlana, honako datu hauek zehaztuta: emakidaren finantzabidea eta tarifa-araubidea, eta, hala badagokio, merkataritza ustiatzeko guneak sortutako irabaziek finantzabidean eta tarifa-araubidean izan dezaketen eragina edo ekarpena.

3. Aurreproiektua jendaurreko informazio-aldian egongo da hilabeteko epean, eta, oso konplexua bada, aukeran izango da epe hori beste horrenbeste luzatzea, egoki irizitako ohar guztiak egin daitezzen obren kokapenari eta ezaugarriari buruz, eta onura publikoaren deklarazioaren edozein inguruabarri buruz; halaber, Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia-erkidegoetan eta toki-entitateetan eragiten dien organoei igorriko zaie aurreproiektua, txostena egin dezaten. Jendaurreko informazio-aldiaren izapide horretan bertan, ingurumen-inpaktuaren adierazpena nahitaezkoa den kasuetan, ingurumen-inpaktuaren azterlanari dagokion izapidea ere beteko da, baldin eta, aurreko artikuluko 6. apartatuan jasotako kasua izateagatik, izapide hori lehenago bete ez bada.

4. Administrazio emakida-emaileak obren aurreproiektua onetsiko du, egindako alegazioak aintzat hartuta eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenak dakartzan aginduak erantsita, eta berariaz onura publikotzat aitortzeko eskatuko du, nahitaezko desjabetzeari buruzko legedian jasotako xedapenei begira.

5. Administrazio-klausula partikularren agirian horretarako baimena ematen denean, emakida eskuratzeko lehiatzen diren lizitatzailleek, agiri horretan ezarritako moduan, ondo irizten dieten aldaerak sartu ahalko dituzte aurreproiektuan.

249. artikulua. *Obraren proiektua eta proiektuaren zuinketa.*

1. Administrazio emakida-emaileak obren ezaugarri guztiak erabat zehazten baditu, orduan, dagokion proiektua idatzi, gainbegiratu eta onetsiko da, eta proiektuaren zuinketa ere egingo da, lege honetako artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrita betiere; era berean, obra onura publikokoa dela deklaratu da, nahitaezko desjabetzeari buruzko legedian jasotako xedapenei begira.

2. Aurreproiekturik ez dagoenean, administrazio emakida-emaileak, proiektua behin betiko onetsi aurretik, aurreproiektuei buruz aurreko artikulua 3. eta 4. ataletan ezarritako izapideak beteko ditu.

3. Obren proiektura ekar litezkeen hobekuntzei dagokienez, aurreko artikulua 5. apartatuan ezarritakoa aplikatu beharko da.

4. Emakidadunak proiektuko akatsetatik etorritako kalteen erantzukizuna izango du, emakidan zehaztutakoaren arabera, proiektua aurkeztea berari dagokionean edo Administrazioak aurkeztutako proiektuan hobekuntzak egin dituenean.

250. artikulua. *Administrazio-klausula partikularren agiriak.*

1. Obra-emakidako kontratuen administrazio-klausula partikularren agirietan, hemen aipatzen diren alderdi hauek azaldu behar dira, gutxienez:

a) Kontratuaren objektuaren definizioa, dagokion aurreproiektua edo proiektua adierazita, eta, horrekin batera, kontratu-izaera duten agiriak ere berariaz aipatuta. Hala dagokionean, merkataritza-ustiapeneko eremu osagarria ere zehaztu beharko da.

b) Gaitasun eta kaudimen finantzario, ekonomiko eta teknikoko baldintzak, lizitazaileri eska dakizkiekeenak. Kaudimena dela-eta, zenbait baldintza finkatu ahalko dira, kontratuaren faseen arabera, 86.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, 214.2.c) artikuluan ezarritako moduan lagapen bat egiten bada ere.

c) 214. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz kontratuaren lagapena egiteko aukera ere aurreikusiko dute, bai eta sozietate emakidadunean partaidetzen lagapena egiteko ere, lizitazailerek kontratua egikaritzeko helburu zehatza duen sozietate bat eratzen dutenean.

Halaber, irizpide batzuk ezarriko dira zehazteko partaidetzen lagapena noiz hartu beharko den aintzat benetako kontrol-aldaketa bat eragiteagatik, eta, kontratuaren ezaugarriak direla-eta justifikatuta dagoen kasuan, kontrol-mekanismo batzuk ezarriko dira kontratuaren lagapen batekin ezin pareka daitezkeen eta sozietate emakidadunean egiten diren partaidetza-lagapenentarako. Nolanahi ere, partaidetzen ehuneko 51ren lagapena egitea joko da benetako kontrol-aldaketatzat.

d) Proposamenen edukia; honako alderdi hauek jaso behar dituzte, gutxienez:

1.a Gerora sozietate emakidaduna izango den horren sustatzaile izango diren zerrenda, baldin eta horrelako sozietate bat eratzeko asmorik badago, eta haren ezaugarri juridikoak eta finantzarioak.

2.a Obrak egiteko plana, hauek zehazturik: obrak noiz hasiko diren, noiz bukatuko diren eta beren xederako erabiltzen noiz hasiko den.

3.a Emakidaren iraupen-epea, emakidaren finantzaketa-sistemari lotua.

4.a Emakidaren plan ekonomiko eta finantzarioa; hor jasoko dira, berez dagozkion alderdiez gain, tarifa-sistema, inbertsioa eta ustiapen-kostuak, errentagarritasuna edo itzulketa direla-eta zenbatetsitako barne-tasa, eta ordainketa-betebeharrak eta finantza-gastu zenbatetsiak, zuzenak zein zeharkakoak. Berariaz aintzakotzat hartu beharko da zer eragin duten tarifetan eta amortizazio-aurreikuspenetan, emakidaren epean eta baldintza-agiriak emakidan ezarritako beste aldagai batzuetan obren erabileraren errendimenduek eta merkataritza-eremurik egonez gero haren ustiapenek eragindako etekinek errendimendu eta etekin horiek eskaintzan aurrez proposatutako gutxienerako mailara iristen ez direnean edo gehieneko mailatik gora doazenean. Dena den, merkataritza-eremuak dakartzen errendimenduak, administrazio-klausulen agirian finkatutako gutxienerako maila gainditzen ez badute, ez dira aintzat hartuko arestian aipatutako osagaiak berrikusteko.

5.a Obraren finantzaketa mistoa denean, baliabide publikoen kontura izango den finantzaketa-ehunekoaren proposamena; betiere, administrazio-klausula partikularren agirian ezarrita dauden ehunekoak baino txikiagoa izan behar du.

6.a Sozietate emakidadunak baldintza-agirian ezartzen den kontabilitate-eredua aplikatu beharreko arauen arabera hartuko duelako konpromisoa, merkataritza-ustiapeneko eremu osagarriak kudeatzeko zereginari dagokion kontabilitate-eredua ere barnean dela,

hargatik eragotzi gabe gune horien errendimenduak emakidaren errendimenduetan sartzea ondorio guztietarako.

7.a Lizitatzailleek egoki irizitako hobekuntza guztiak sartu ahalko dituzte, baldintza-agirian finkatutako moduan eta ezarritako mugak errespetatuta, honako hauetan: obraren egiturazko ezaugarriak, ustiapen-araubidea eta ingurumenean eta baliabide naturaletan ahalik eta kalterik gutxien eragiteko neurriak; funtsezko hobekuntzak ere izan daitezke, kokapenari buruzkoak izan ezik.

e) Emakidadunari ordaintzeko sistema; bertan, eskaintza egitean emango diren aukerak ere sartuko dira, eta, hala dagokionean, obrak ustiatu bitartean kostuak berrikusteko erabiliko diren formulak ere bai; emakidaren objektua zein den aintzat hartuta, dagozkien tarifetan izan dezaketen eragina ere nahitaez zehaztu beharko da.

f) Merkataritza-eremuaren ustiapenak dakartzan etekinetan gutxienez lortu beharreko maila, hortik beherakoak izanez gero emakidaren osagai ekonomikoei ezin eragitea dakarrena eta haren arriskua emakidadunaren gain izatea dakarrena.

g) Bermeen zenbatekoa eta motak.

h) Sozietate emakidadunaren ezaugarri bereziak, hala dagokionean.

i) Hala dagokionean, proiektua egiteko epea, obrak egiteko epea eta obrak ustiatzeko epea; epe horiek finkoak edo aldakorrak izan daitezke, baldintza-agirian ezarritako irizpideen arabera.

j) Alderdiek obrak egiteko eta ustiatzeko faseetan izango dituzten eskubideak eta betebeharrak espezifikoak.

k) Zigorren araubidea, eta emakida bahitzea edo hartan esku hartzea ekar dezaketen egoerak.

l) Eskaintzak aurkezteko tokia, eguna eta epea.

m) Arrisku nabarmenak Administrazioaren eta emakidadunaren artean banatzea, kontratuaren ezaugarrien arabera; nolana ere, eragiketa-arriskua kontratistak hartuko du bere gain.

2. 138. artikulua aipatzen duen informazio-eskubidea galarazi gabe, kontratazio-organoak, baldintza-agiriaren izaera eta konplexutasuna aintzat hartuta, epe bat jarri ahalko du baldintza-agirian bertan, lizitatzailleek egoki irizitako zenbanahi argibide eskatzeko modua izan dezaten haren edukiari buruz. Epe horrek, gutxienez ere, 138. artikulua 3. apartatuan ezarritakoa errespetatu beharko du. Erantzunak lotesleak izango dira, eta jendaurrean argitaratu beharko dira, lizitazio-prozesuan berdintasuna eta konkurrentzia bermatuta egon daitezen.

### *2. azpiatala. Emakiden ondoreak, betetzea eta azkentzea*

251. artikulua. *Ondoreak, betetzea eta azkentzea.*

Obra-emakidako kontratuen ondoreak, betetzea eta azkentzea lege honek arautuko ditu, 208. eta 210. artikulua kenduta. Ez dira aplikatzekoak izango, ezta ere, eraikuntza-fasean ez bada, 192. artikulua 2. apartatua, 193. artikulua eta 195. artikulua.

### *3. atala. Emakidaren xede diren obrak eraikitzea*

252. artikulua. *Obrak egiteko modalitateak.*

1. Kontratazio-organoak onartutako proiektuaren arabera egingo dira obrak, administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako epeetan; Administrazioaren laguntza ere jaso ahalko da obrak egiteko. Emakidadunak hirugarren batzuekin kontrata dezake dagokion obra hori osorik edo haren zati bat egiteko zeregina, lege honetan eta administrazio-klausula partikularren agirian ezarritakoaren arabera.

2. Administrazioak, obra eraikitzeko orduan, laguntza eman dezake, bai obraren zati bat berak eginda bere kontura, bai obraren zati bat finantzatuta. Lehendabiziko aukera

hartuz gero, Administrazioak egindako obra-zatiak bere ezaugarri propioak izan beharko ditu, gainerakotik bereizitako trataera izateko aukera ematen dutenak, eta, amaitutakoan, obrak hartzeko egintza formala egin beharko da. Administrazio-klausula partikularren agiriak bestelakorik agindu ezean, 240. artikulua agintzen duen bezala ordainduko da obraren zenbatekoa.

Bigarren kasuan, emandako finantzaketaren zenbatekoa itundutako baldintzen arabera ordaindu ahalko da: obrak egiten ari diren bitartean, 240. artikulua xedatzen duen bezala, edo obrak egiten amaitutakoan, 266. artikulua zehazten duen moduan.

3. Laguntza publikoen sistemak, nolahi ere, beti errespetatu beharko du eragiketa-arriskuaren egiazko transferentzia.

253. artikulua. *Erantzukizuna obra hirugarren batzuek egiten dutenean.*

Emakidadunari dagokio hirugarrenekin kontratatutako obrak nola ari diren egiten kontrolatzea; langintza horretan, emakidadunak egin eta kontratazio-organoak onartu duen planari egokitu behar zaio kontrol hori. Kontratazio-organoak, edozein unetan, informazioa eskatu ahalko du obrak nola doazen jakiteko, eta egoki irizten dionean ikuskapen-bisitaldiak egin ahalko ditu obretara.

254. artikulua. *Arrisku eta menturaren printzipioa obrak egitean.*

1. Arriskua eta mentura emakidadunaren gain direla egingo dira obrak, eta emakidadunak hartuko du bere gain emakidaren eragiketa-arriskua ere, lege honen 197. eta 239. artikuluetan xedatutakoaren arabera, salbu eta 252. artikulua 2. apartatuak aurreikusitakoari jarraituz Administrazioaren kontura egin daitekeen obra-zatiari dagokiona; halakoetan, obra-kontratueterako ezarritako erregimen orokorra izango da jarraitu beharrekoa.

2. Ezinbesteko kasu batek kostu handiagoak eragiten badizkio emakidadunari, ekonomia- eta finantza-plana egokitu egingo da. Baldin eta ezinbestekak erabat eragozten badu obrak egitea, kontratua suntsiarazi egingo da, eta ordura arte egindako obren zenbateko osoa ordainduko dio kontratazio-organoak emakidadunari, bai eta hirugarren batzuekin izandako zorren ondorioz sortutako kostu gehigarriak ere.

255. artikulua. *Proiektua aldatzea.*

Kontratua burututakoan, kontratazio-organoak lege honen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. atalaren 4. azpiatalean eta 261. artikulua 1. apartatuaren b) letran xedatutakoaren arabera baino ezingo ditu sartu aldaketak. Emakidaren ekonomia- eta finantza-planak beti jaso beharko ditu, horretarako egin beharreko doikuntzak eginda, kostuak handitzeak edo murrizteak dakartzan ondoreak.

256. artikulua. *Obrak egiaztatzea.*

1. Obrak amaitzean, emakidaduna kontratua behar bezala betetzen ari dela ziurtatzeko, egiaztapenaren akta egin beharko du emakida egin duen administrazioak. Egiaztapenaren akta administrazio-klausula partikularren agirian xedatutakoari jarraituz egingo da, eta haren edukia ere horrekin bat etorriko da.

2. Egiaztapenaren aktarekin batera dokumentu bat aurkeztuko da, egindako obra publikoa balioesteko, eta, hala dagokionean, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako baldintzak bete direlako adierazpena ere bai; dokumentu hori kontratazio-organoak emango du, eta egin den inbertsioa ere jasoko da bertan.

3. Egindako obren hileroko ziurtagirietan oinarrituz emakidadunari zatika ordainketak eginda administrazio emakida-emaiak partez finantzatu dituen obretan, obra-bukaerako ziurtagiria aurkeztu beharko da, aurreko apartatuan adierazitako egiaztapen-aktarekin eta balioespen-agiriarekin batera.

4. Administrazio emakida-emaiak obrei buruzko egiaztapen-akta onartzeak berekin ekarriko du, modu inplizituan, obrak zabaltzeko eta jendeak erabiltzeko baimena; obrak

emakidadunak egin beharrean hirugarren batzuek egin badituzte, onarpenaren une horretan bertan hasiko da obraren berme-epea, baita ustiapen-fasea ere.

*4. atala. Emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak, eta administrazio emakida-emailearen prerrogatibak*

1. azpiatala. Emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak

257. artikulua. *Emakidadunaren eskubideak.*

Emakidadunak honako eskubide hauek izango ditu:

a) Obrak ustiatzeko eskubidea, bai eta, emakidak dirauen bitartean, kontratuan adierazitako erabilera-tarifa jasotzeko eskubidea ere, kontraprestazio ekonomiko gisa.

b) Emakidaren oreka ekonomikoari eusteko eskubidea, 270. artikuluan ezarritako moduan eta neurrian.

c) Administrazio emakida-emailearenak diren jabari publikoko ondasunak erabiltzeko eskubidea, obrak eraikitzeko, aldatzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko beharrezko direnean. Eskubide horren barruan egongo da obretan azaleratzen diren urak edo agertzen diren materialak obrak eraikitzeko ez bestetarako erabiltzeko eskubidea. Dena den, administrazio eskudunak, aldez aurretik, dagokion jabari publikoa kudeatzeko baimena eman beharko du.

d) Administrazioari eskatu ahal izango dio nahitaezko desjabetzen prozedura, zortasunak ezartzeko prozedura eta utzarazpen administratiboaren prozedura izapidetzeko, obrak eraiki, aldatu eta ustiatzearen, eta eskubidea izango du, halaber, bere eskubideak erabili ahal izateko behar diren ekintza guztiak eskatzeko hari.

Nolanahi ere, desjabetu eta gero emakidari atxikita geratzen diren ondasunak eta eskubideak jabari publikoaren barruan geratuko dira.

e) Emakida 214. artikuluan ezarritakoarekin bat lagatzeko eskubidea, eta legeak ezarritako baldintzen arabera hipotekatzea, kontratazio-organoak aurretiaz baimena emanda, kasu batean zein bestean.

f) Kreditu-eskubideak balio negoziagarri bihurtzeko ahalmena, legeak agintzen duen moduan.

g) Lege honetan zein beste batzuetan edo baldintza-agirietan aitortutako beste edozein eskubide.

258. artikulua. *Emakidadunaren betebeharrak.*

Emakidadunaren betebeharrak dira:

a) Obrak egitea, kontratuan xedatutakoaren arabera.

b) Obrak ustiatzea, kudeaketak dakartzan eragiketa-arriskuak bere gain hartuta, kontratuan ezarritako edo gerora kontratazio-organoak agindutako jarraitutasuna eta baldintzak errespetatuz.

c) Obrak erabiltzaile guztiak erabil ditzaketela onartzea, berdintasunaren, unibertsaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera ezarrita dauden baldintzak errespetatuta, eta, hala dagokionean, dagokion tarifa ordainduta.

d) Obren ordena zuzena eta kalitatea, baita erabilera bera ere, egokiro zaintzea, komeni diren jarraibideak aginduta behar izanez gero, kontratazio-organoari dagokion polizia-ahalari kalte egin gabe.

e) Obrak egitean edo ustiatzean hirugarrenei egindako kalteak ordaintzea, baldin eta kalte horiek lege honen 196. artikulua arabera emakidadunari egozteko modukoak badira.

f) Emakidari lotuta geratzen den jabari publikoa babestea, haren balio ekologikoak eta ingurumenari dagozkionak zainduz batez ere.

g) Lege honetan zein beste batean edo administrazio-klausula partikularren agirian jasotako beste edozein betebeharrak.

259. artikulua. *Obrak erabiltzea eta kontserbatzea.*

1. Emakidadunak obren erabilera, zaintza eta kontserbazioa direla-eta emandako arauak era egokian aplikatuko direla begiratu beharko du.

2. Obrak ustiatzeaz arduratzen diren langileek, bertan agintaritzaren agenterik egon ezean, hartu beharreko neurriak hartu ahalko dituzte obrak egokiro erabil daitezkeen, eta, hala dagokionean, salaketak ere jarriko dituzte. Horretarako, emakidadunaren langileek lortutako frogabideak erabili ahalko dira frogamodura, baita zuzenbidean onartutako beste edozein bide ere; betiere, langile horiek behar bezalako sinestamendua eduki behar dute, eta administrazio eskudunak aurretiaz homologatutako baliabideak erabiliz lortu behar dira frogabide horiek.

3. Emakidadunak obrak erabiltzea debekatu ahalko die ordaindu beharreko tarifa ordaindu ez duten erabiltzaileei, dagokion arloko legerian gai honetaz ezarritakoari kalterik egin gabe.

4. Emakidadunak egokiro mantendu beharko ditu obrak, teknikaren, ingurumenaren, irisgarritasunaren, oztopoak kentzearen eta erabiltzaileen segurtasunaren arloetako arau aplikagarriekin unean-unean eta zientzia aurrera doan heinean ezarritakoari jarraituz.

5. Emakidadunak eskainitako zerbitzuaren kalitatea neurtzeko mekanismoak jaso ahalko ditu Administrazioak baldintza-agirian, eta, horien arabera, abantailak eman ahalko dizkio, edo zigor ekonomikoak ezarri.

Edozein kasutan ere, aukera hau ezingo da erabili emakidaren eragiketa-arriskua mugatzeko.

260. artikulua. *Merkataritza-ustiapeneko eremu osagarriak.*

1. Obren barruan, haien ezaugarrien arabera beharrezko den lurzoruz gainera, beste orube edo lursail batzuk ere sartu ahalko dira, erabiltzaileei zer-nolako zerbitzua ematen dieten aintzat hartuta beharrezkoak edo komenigarriak diren beste era bateko jardunak gauzatu ahal izateko (osagarriak, merkataritzakoak edo industrialak), baldin eta aprobetxamendu ekonomiko berezia izateko modukoak badira, hala nola ostalaritzako establezimenduak, gasolina-zerbitzuguneak, aisialdi-guneak, aparkalekuak, merkataritza-lokalak eta ustiatzeko modukoak izan daitezkeen beste batzuk.

2. Jarduera osagarri horiek abian jarri behar direnean, beti jokatu beharko da emakida arautzeko baldintza-agiri orokor zein partikularretan ezarritakoaren arabera, edo, hala badagokio, erabili beharrezkoa den legerian edo hirigintza-plangintzan ezarritakoaren arabera.

3. Aipatutako gune edo esparru horiek administrazio publiko emakida-emaelearen kudeaketa- eta kontrol-batasunaren printzipioaren pean geratuko dira, eta emakidadunak ustiatuko ditu, obrekin batera, zuzenean edo hirugarren batzuen bitartez, emakidaren baldintza-agirian ezarritako moduan.

2. azpitatala. *Administrazioaren prerrogatibak eta eskubideak*

261. artikulua. *Administrazioaren prerrogatibak eta eskubideak.*

1. Lege honetan ezarritako mugak, baldintzak eta ondoreak aintzat hartuz, kontratazio-organoak edo, hala dagokionean, berariazko legeriak ezarritako organoak honako prerrogatiba eta eskubide hauek izango ditu obra-emakidako kontratuei buruz:

a) Kontratuak interpretatzea, eta kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak ebaztea.

b) Bere kasa kontratuak aldatzea, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, lege honetan ezarritakoaren arabera.



- c) Emakidaren oreka ekonomikoa berrezar dadin erabakitzea, interes publikoaren alde, 270. artikuluan aurreikusitako moduan eta neurrian.
- d) Kontratuak suntsiarazteko erabakia hartzea, 279. eta 280. artikuluetan ezarritako kasu eta baldintzen arabera.
- e) Obrak erabiltzeagatik gehieneko tarifak ezartzeko eskubidea, hala dagokionean.
- f) Emakidadunak bere betebeharrak betetzen dituela begiratu eta kontrolatzea; horretarako, emakidaren xedearekin zerikusia duten zerbitzuak, obrak, instalazioak eta lokalak ikuskatu ahalko ditu, baita dokumentazioa ere.
- g) Emakida bahitzen denean edo hartan esku hartzen denean, obrak ustiatzeko zeregina bereganatzea.
- h) Emakidadunari betebeharrak bete gabe uzteagatik ezarri beharreko zigorrak ezartzea.
- i) Obrak erabiltzean eta ustiatzean, polizia-eginkizunak betetzea, arloz arloko legeria espezifikoan ezarritako moduan.
- j) Interes orokorreko arazo salbuespenezkoak konpondu behar direnean, aldi baterako baldintzak ezartzea obrak dagokion kalte-ordaina ordainduta erabiltzeko.
- k) Lege honetan zein beste batzuetan aitortutako beste edozein eskubide.

2. Artikulu honetan jasotako administrazio-prerrogatibak baliatzean, lege honetan eta aplikatu beharreko berariazko legerian ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

#### 262. artikulua. *Obrak aldatzea.*

1. Kontratazio-organoak erabaki ahalko du, interes publikoak hala eskatzen duenean eta lege honetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean, obrak aldatzea, bai eta haiek zabaltzea ere. Beharrezkoa bada, plan ekonomiko-finantzarioa berrikusteari ekingo zaio, inguruabar berrietara egokitze aldera.
2. Emakidaren oreka ekonomikoan eragina duen edozein aldaketa egiteko, aldaketarako arau orokorrei eta lege honetako 270. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

#### 263. artikulua. *Emakida bahitzea edo hartan esku hartzea.*

1. Kontratazio-organoak, emakidadunari entzun ondoren, emakida bahitzeko edo hartan esku hartzeko erabakia hartu ahalko du, baldin eta emakidadunak, errua berea izan gabe, aldi baterako eta gizarteari kalte larria eginda, obra ustiatzea ezinezko badu, edo emakidadunak, ustiapena bera arriskuan jarrita, bere betebeharrak modu larrian bete gabe uzten baditu. Kontratazio-organoaren erabakia emakidadunari jakinaraziko zaio, eta, emakidadunak okerra zuzentzen ez badu horretarako emandako epearen barruan, emakida bahitu edo hartan esku hartuko da. Era berean, lege honek aurreikusitako gainerako kasuetan ere emakida bahitzeko edo hartan esku hartzeko erabakia hartu ahalko da, legean bertan adierazitako ondorioekin.
2. Emakida bahitu edo hartan esku hartutakoan, kontratazio-organoak izango du obra publikoa zuzenean ustiatzeko ardura, baita aurrez ezarritako kontraprestazioa jasotzekoa ere, eta, zeregin horretan, emakidadunaren langile eta bitarteko berberak erabili ahalko ditu. Kontratazio-organoak kontu-hartzaile bat edo batzuk izendatuko ditu enpresa emakidaduneko zuzendaritza-taldekoen ordezkari jardun dezaten erabat zein partez. Bahitutako edo esku hartutako obra arriskua emakidadunaren gain dela ustiatuko da, eta, bahiketa amaitutakoan, emakidadunari itzuliko zaio obraren ustiapena, gastu guztiak ordaindu ostean (kontu-hartzaileen zerbitzu-sariak ere barnean direla) eta, hala badagokio, ezarri zaizkion zigorren zenbatekoa ordaindu ostean geratzen den saldoarekin.
3. Bahiketa edo esku-hartzea aldi baterako izango da; iraupen hori kontratazio-organoak erabakiko du, baina ezingo da izan, luzapenak ere barnean direla, hiru urtetik gorakoa. Kontratazio-organoak, ofizios edo emakidadunak hala eskatuta, bahiketa edo esku-hartzea amaitzeko erabakia hartuko du, horretarako kausak desagertu egin direla egiaztatzen denean eta emakidadunak obra normal ustiatzen jarraitzeko moduan dagoela justifikatzen duenean. Emakidaren bahiketarako edo esku-hartzerako epea igarota,

emakidadunak ez badu bermatu bere gain hartzen dituela dagozkion betebeharrak guztiak, kontratazio-organoak emakidarako kontratua suntsiaraziko du.

264. artikulua. *Emakidadunari kontratua ez betetzeagatik jarri beharreko zigorrak.*

1. Administrazio-klausula partikularren agirietan, ez-betetzeei buruzko katalogoa ezarriko da; hor zehaztuko da emakidadunak dituen betebeharrak noiz geratzen diren bete gabe, ez-betetze arinak eta larriak bereizita. Zigorrezko modukotzat joko da emakidadunak partez edo osorik urratzea lege honetan ezarritako debekuak, legearen arabera nahitaezkoak diren jarduerak huts egitea eta, bereziki, obra egiteko epeak ez betetzea, obra erabiltzeko, zaintzeko eta kontserbatzeko arauak betetzerakoan zabarkeriaz jokatzeko, obraren erabilera partez zein osorik arrazoitu gabe etetea eta lege baimendutakoak baino diru-zenbateko handiagoak kobratzea erabiltzaileari.

2. Kontratazio-organoak zigor ekonomikoak ezarri ahalko ditu, eta baldintza-agirietan zehaztuko dira, era proportzionalean, ez-betetzea nolakoa izan den eta ustiapenaren garrantzi ekonomikoa zein den. Zigorren diru-zenbatekoa ezingo da izan obrak eraikuntza-fasean izan duen aurrekontu osoaren ehuneko 10 baino handiagoa. Emakida ustiapen-fasean badago, urtean ezarritako zigorren diru-zenbatekoa ezin da izan obra publikoaren ustiapenak aurreko urtean eman dituen diru-sarreraren ehuneko 20 baino handiagoa.

Zigorretarako ezarritako mugak aurreko paragrafoan finkatutakoak izango dira, baldin eta eragindako kalteak ez badu gainditzen haietan finkatutako gehieneko zenbatekoa. Baldin eta eragindako kaltearen zenbatekoa artikuluko honetan ezarritako gehieneko zigorra baino handiagoa bada, muga eragindako kaltearen baliora arte igoko da.

3. Ez-betetzea larria denean, aurreko ondorioez gainera, emakida suntsiaraztea ere etorriko da, baldintza-agirian ezarritako egoerak gertatuz gero.

4. Lege honetan ezarritako egoerez gainera, emakida aldi baterako bahitzea ekar dezaketen ez-betetze larriak zein diren zehaztuko da baldintza-agirietan, ez-betetzeagatik kasuan-kasuan ezarri beharreko zigorrak gorabehera.

5. Obra egiteko fasean emakidadunari ezarri beharreko zigor-araubidea lege honen 192. artikuluan ezarritakoa izango da.

6. Baldintza-agirian ezarritako araubidea alde batera utzita, Administrazioak hertsatzeko isunak ere ezarri ahalko dizkio emakidadunari, bete beharrekoak bete gabe jarraituz gero, baldin eta aurrez errekerimendua egin bazaio eta eman zaion epearen barruan bete ez baditu bete beharrekoak. Legeak berriaz bestelakorik ezarri ezean, isunaren zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da egun bakoitzeko.

#### 5. atala. *Emakidaren araubide ekonomiko-finantzarioa*

265. artikulua. *Obrak finantzatzea.*

1. Emakidadunak osorik edo zati batean finantzatuko ditu emakidako obrak, eta, betiere, bere gain hartuko du eragiketa-arriskua, 14. artikuluko laugarren apartatuan finkatutako moduan.

2. Administrazioak ere, errentagarritasun ekonomikoa edo soziala dela-eta, edo emakidan utzitako obren xede publikoak edo interes orokorrak berriaz halaxe eskatuta, baliabide publikoak eman ahalko ditu obrak finantzatzeko, eta Administrazioak eta emakidadunak elkarrekin egindako finantzaketa izango da; itzultzeko diru-laguntzen edo maileguen bidezko finantzaketa izango da, interesekin edo interesik gabe, 252. artikuluan eta atal honetan ezarritakoaren arabera eta administrazio-klausula partikularren agirian ezarritakoaren arabera, eta, betiere, emakidadunak eragiketa-arriskua bere gain hartzeko printzipioa errespetatu beharko da.

3. Emakidan utzitako obren eraikuntza finantzatzeko orduan, administrazio publiko emakida-emakidaren beste administrazio publiko batzuek ere egin ahalko dituzte ekarpenak, dagokion hitzarmenean jasotako xedapenen arabera, eta estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuek ere parte hartu ahalko dute finantzaketan.

266. artikulua. *Eraikuntzarako ekarpen publikoak eta finantzaketarako bermeak.*

1. Administrazio publikoek obren finantzaketan parte hartu ahalko dute, ekarpenak eginda; ekarpen horiek obrak egiteko fasean egingo dira, 252. artikulua ezarritako moduan, edo obrak bukatutakoan. Ekarpen horien zenbatekoa lizitatzailleek berek finkatuko dute beren eskaintzetan, baldintza-agirietan ezarrita dagoen gehieneko kopuruaren barruan.

2. Aurreko apartatuan adierazitako ekarpen publikoak kontratazio-organoak egindako diruaz besteko ekarpenak ere izan daitezke, edo beste edozein administrazio egindakoak, baldin eta harekin horretarako hitzarmenik egin bada, eta, betiere, ekarpen haiei buruz administrazio-klausula partikularren agirian jasotako balioztatzearen arabera.

Emakidadunari entregatutako ondasun higiezinak ere emakidari atxikitako ondarearen barruan sartuko dira; obra-proiektuan aurreikusitako erabilera emango zaie, eta, emakida azkentzean, berriz ere Administrazioaren eskuetara itzuliko dira; betiere, hiri-antolamendurako planek edo plan sektorialek xedatutakoa errespetatu beharko da.

3. Ekarpen publiko guztiek baldintza-agirian aurreikusita egon behar dute. Ekarpenen zenbatekoa adjudikazio-prozeduran zehaztuko da, eta kontratua adjudikatu ostean ezingo dira handitu.

4. Ekarpenetarako ezarritako araubide berbera aplikatuko zaie mota guztietako berme eta abalei, baita emakidadunaren finantzaketan laguntzeko beste neurri batzuei ere; betiere, halakoek baldintza-agirietan aurreikusita egon beharko dute.

267. artikulua. *Obra erabiltzearen ordainsaria.*

1. Emakidadunak eskubidea izango du erabiltzaileek edo Administrazioak ordainsaria eman diezaioten obrak erabiltzeagatik; administrazio-klausula partikularren agirian jasotako moduan eman beharko zaio ordainsaria, artikulua honetan ezarritakoaren arabera. Tarifa deituko zaio, eta zergaz kanpoko ondare-prestazio publiko bat izango da.

2. Erabiltzaileek obrak erabiltzeagatik ordaindu behar dituzten tarifak kontratazio-organoak finkatuko ditu, adjudikazio-erabakian. Finkatutako tarifa horiek gehienekoak dira, eta emakidadunak, egoki irudituz gero, tarifa horietatik beherakoak ere aplikatu ahalko ditu.

3. Tarifak lege honen I. liburuaren III. tituluaren II. kapituluaren arabera berrikusiko dira.

4. Administrazioak honela ordaindu ahalko du emakidadunak obra erabiltzeagatik jaso behar duen ordainsaria: emakidadunak eskainitako eskuragarritasun-gradua aintzat hartuta edo/eta erabiltzaileek hura nola erabiltzen duten aintzat hartuta, administrazio-klausula partikularren agirian jasotako moduan. Baldin eta ordainsaria eskuragarritasunaren arabera ordainketen bitartez ematen bada, eskuragarritasun-mailaren arabera zuzenketa automatikoko adierazleak aurreikusi beharko dira administrazio-klausula partikularren agirietan, emakidadunak zerbitzua ematean izan ditzakeen zigorrekin loturarik izango ez dutenak.

5. Emakidadunak, era berean, emakidari zuzenean lotutako merkataritza-eremuetako ustiapenetik datozen diru-sarreraren bitartez ere jasoko du ordainsaria, halakorik badago behintzat eta, betiere, administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako moduan.

6. Emakidadunak kontabilitate-liburuan bereizi egin beharko ditu, batetik, ekarpen publikoetatik datozen sarrerak eta, bestetik, obren erabiltzaileek ordaindutako tarifetatik sortutakoak, eta, azkenik, halakorik badago, merkataritza-eremuaren ustiapenak dakartzan etekinak.

268. artikulua. *Ustiapena finantzatzeko ekarpen publikoak.*

Administrazio publikoek honako ekarpen hauek egin ahalko dizkiote emakidadunari, obren ustiapenaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzearen. Betiere, ekarpen horiek baldintza-agirian aurreikusita egon beharko dute, eta kontratua adjudikatu ondoren ezingo dira handitu, hargatik eragotzi gabe 270. artikuluan aurreikusita dagoen oreka berrezartzea:

a) Diru-laguntzak, aurrerakin itzulgarriak, partaidetza-maileguak, mendeko maileguak edo beste era batekoak, obrak ustiatzen hasten denetik edo obrek irauten duten bitartean

ematekoak. Emakidan ezarritakoaren arabera itzuliko dira maileguak eta ordainduko dira haiek sortutako interesak, halakorik sortu bada.

b) Laguntzak, mota guztietako bermeak barnean direla, interes publikoagatik eta salbuespenezko kasuetan obraren erabilera sustatzea komeni denean, obren ustiapena errentagarritasunaren gutxieneko atalaserira iritsi baino lehen.

269. artikulua. *Obra berezituak.*

1. Bi obrak edo gehiagok euren artean erlazio funtzionala dutenean, nahiz eta eraikitako obren zati baten erabilera ordaindu beharrekoa ez izan, obrak emakidan uzteko kontratuak ez du galtzen bere izaera, baldin eta, aldi berean, zati hori administrazio emakida-emailearen eskumenekoa bada eta emakidaren ustiapenean eragina badu.

2. Kasu bakoitzeko administrazio-klausula partikularren agiriak argi eta garbi zehaztuko ditu emakidako obrei dagozkien inguruabarrak, lege honetan xedatutakoaren arabera, eta, hala, ondo bereiziko ditu ordaina jaso behar duen zatia eta ordainik jaso behar ez duena.

Lizitatzailleek dagokion plana aurkeztu beharko dute ekonomia- eta finantza-arloak zehazteko, aipatutako obra-zatietako bata eta bestea kontuan hartuta.

3. Nolanahi den ere, emakidan utzitako obrak erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak zehazterakoan, egindako obra guztien zenbateko osoa hartuko da aintzakotzat.

270. artikulua. *Kontratuaren oreka ekonomikoa zaintzea.*

1. Obra-emakidako kontratuak, adjudikaziorako kontuan izan ziren inguruabarrei jarraituz, oreka ekonomikoari eutsi beharko dio, interes orokorra eta emakidadunaren interesa –biak– aintzakotzat hartuta, eta hurrengo apartatuan ezarritakoaren arabera.

2. Egoera hauetakoren bat gertatuz gero, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri beharko da, dagokion aldearen mesedetan:

a) Administrazioak 262. artikuluan aipatutako aldaketaren bat egiten duenean.

b) Administrazio publiko emakida-emailearen jarduketek, emakidadunak bete beharrekoak izateagatik, kontratuaren ekonomiaren funtsa haustea eragiten dutenean zuzen-zuzenean.

Aurreko letretan aurreikusitako kasuetatik kanpo, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri ahalko da soilik ezinbesteko kausek dakartenean zuzenean kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura. Horrelakoetan, 239. artikuluan jasotakoak joko dira ezinbesteko kausatzat.

Nolanahi ere, ez da izango oreka ekonomiko finantzarioa berrezartzeko eskubiderik Administrazioaren azterlanean edo –halakorik egin badu– emakidadunarenean eskaerari buruz jasotako aurreikuspenak ez betetzeagatik.

3. Aurreko apartatuan adierazitako egoeretan, kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak hartu beharko dira kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko. Neurri horiek honako hauek izan daitezke: obrak erabiltzeagatik ezarrita dauden tarifak aldatzea, administrazio emakida-emaileak ordaindu beharreko ordainsaria aldatzea, emakidaren epea murriztea eta, oro har, kontratuan eduki ekonomikoa duten klausulak era batera edo bestera aldatzea. Halaber, b) letran eta aurreko 2. apartatuaren azken paragrafoan aurreikusitako kasuetan, emakidaren epea luzatzeko aukera egongo da (gehienez ere, hasierako epearen 100eko 15), baldin eta emakidadunaren ordainsariaren 100eko 50 baino gehiago erabiltzailleek ordaindutako tarifatik badator.

4. Kontratistak eskubidea izango du kontratuan atzera egiteko kontratu horrek kostu izugarri handia dakarkionean honako inguruabar hauetakoren bat tarteko:

a) Emakida-emaileaz beste administrazio batek xedapen orokor bat onestea kontratua egin ondoren.

b) Emakidadunak, legez edo kontratu bidez horretarako behartuta dagoelako, obretan edo haien ustiapenean haiek nabarmen hobetzen dituzten aurrerapen teknikoak aplikatu

behar izatea; aurrerapen tekniko horiek merkatuan teknikaren egoeraren arabera kontratuaren formalizazioaren ondoren eskuragarri jarri direnak izan behar dute betiere.

Hau izango da kontratua betetzeak kostu izugarri handia izatea emakidadunarentzat: administrazioen xedapenen eraginak edo aplikatu beharreko hobekuntza teknikoaren diruzenbatekoak gutxienez ere emakidaren negozio-zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 5eko urteko igoera garbi bat ekartzea kostuetan, emakida amaitzeko gelditzen den epe osorako. Igoeraren kalkulua egiteko, kasua bada, neurriak sor ditzakeen diru-sarrera gehigarriak kenduko dira.

Kontratistak kontratuan atzera egiten duenean apartatu honetan ezarritakoaren ondorioz, suntsiarazteak ez dio aldeetako bakarrari ere emango inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

5. Obren emakidaren ustiapena garatzeko kontratazio-organoak emandako erabakiek ondorio ekonomikorik ez badute, emakidadunak ez du eskubiderik izango haiengatik kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko.

#### 6. atala. *Finantzaketa pribatua*

##### 1. azpiatala. Emakidadunak tituluak jaulkitzea

###### 271. artikulua. *Obligazioak eta beste titulu batzuk jaulkitzea.*

1. Emakidadunak, zuzenbidean onartutako era guztietako obligazioak, bonuak edo antzeko beste titulu batzuk jaulkita, kreditua eskatu ahalko du kapital-merkatuan, barnekoan zein kanpokoan.

2. Itzulketa osoa edo partziala egiteko epea emakida bukatu ondoren amaitzen zaion titulurik ezingo da jaulki.

3. Obligazio-jaulkipen horiek Estatuaren eta haren erakunde autonomoen abala eduki ahalko dute; abal hori, betiere, aurrekontuen arauetan ezarritako aginduen arabera eman beharko da. Autonomia-erkidegoek, toki-entitateek, haien organismo publikoek eta lege honen mende dauden gainerako guztiek, abala eman behar dutenean, berariazko araudietan ezarritakoaren arabera jardungo dute.

4. Obligazioak, bonuak edo bestelako tituluak jaulkiz gero, kontratazio-organoari eman beharko zaio horren berri, jaulkipen bakoitza egin den egunetik hasita, hilabeteko epean gehienez ere.

5. Artikulu honetan eta hurrengoan araututa dauden balore-jaulkipenei Balore Merkatuari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoa aplikatu beharko zaie (urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onetsi zen testu hori).

6. Jaulkipena Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen erregistratu bada, eta erakunde gainbegiratzaille horrek onartutako erakunde kalifikatzaile batek aldeko irizpena eman badu balore horien gaineko finantza-arriskuari dagokionez, orduan, ez da aplikatuko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 401. artikuluan ezarritako gehieneko muga.

###### 272. artikulua. *Emakidadunaren kreditu-eskubideak titulu negoziagarri bihurtzea.*

1. Emakidadunaren aldeko kreditu-eskubideetako bateko edo batzuetako partaidetza ordezkatzan duten baloreak jaulki ahal izango dira; tarifak kobratzeko eskubidea, emakidari lotutako merkataritza-eremuetako ustiapenetik datozen diru-sarrerak eta, hala dagokionean, Administrazioak egin beharreko ekarpenei dagozkienak izango dira kreditu-eskubide horiek. Eskubide horien lagapena eskritura publikoa eratuta gauzatu behar da; Administrazioak egin beharreko ekarpenak laga behar izanez gero, kontratazio-organoari eman beharko zaio horren berri, hargatik eragotzi gabe apartatu honen bosgarren paragrafoan ezarritakoa.

Arestian aipatutako balore negoziagarriak tituluen bidez edo kontuan oharra eginez adieraziko dira; jaulkipen bat edo bat baino gehiago egin ahalko dira, eta ekitaldi ekonomiko baterako edo batzuetarako diren kreditu-eskubideetan izango dute eragina.

Apartatu honen lehen paragrafoan aipatutako hala partaidetzak nola kreditu-eskubideak aktiboak balore negoziagarri bihurtzeko funtsetan sartu ahalko dira, eta horiei dagokien berariazko araudiaren pean izango dira.

Balore hauek harpidetzea eta edukitzea inbertsiogile instituzional edo profesionalentzat mugatuta ez dagoen heinean, dagokion emakidaren erregistroko inskripzioan orribazterreko oharra idatziko da horren berri emateko. Halaber, jaulkipen-ezaugarriak ere jasota geratu behar dira jaulkipena egin duten sozietateen urteko txostenean.

Balore hauek jaulki ahal izateko, kontratazio-organoak horretarako administrazio-baimena eman beharko du aurretiaz; emakida ondo bukatzeak edo interes publikoko beste arrazoiren batek halaxe eskatzen duenean bakarrik ukatu ahalko da baimen hori. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da; epe hori berariazko ebazpenik eman gabe iragaten bada, eskaera ezetsi dela iritzi beharko zaio.

2. Baldin eta apartatu honetan jasotako ondorioetarako soilik aurretiaz pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzen bada Administrazioaren aurrean ordezkari bakar modura jarduteko, 274. artikuluan hartzekodun hipotekarioari aitortzen zaizkion ahalmen berberak baliatu ahalko dituzte artikulua honetako 1. apartatuan aipatutako baloreen edukitzaileek ere. Horrez gain, lehen apartatu horretan aipatutako eragiketetan berariaz jasota badago edukitzaileen eskubideak emakida-epea igaro baino lehenago gauzatuko direla, orduan, aipatutako 274. artikulua 3. apartatuan adierazitako ahalmen horiek baliatu ahalko dituzte edukitzaileek tituluen epemugatik aurrera.

3. Emakidadunari egotz dakioken arrazoiren bat dela-eta emakida suntsiarazi bada eta hartzekodunek ez badute eskuratu beren tituluei dagokien diru-itzulketak, administrazio emakida-emakideak neurri hauetakoren bat aukeratu ahalko du:

a) Lege honen 263. artikuluan ezarritakoaren arabera emakida bahitzeko edo hartan esku hartzeko erabakia hartzea, non eta suntsiarazteko kausak ez diren 211. artikulua 1. apartatuaren b) letran jasotakoak; hartzekodunen eskubideak gauzatzeko ez bestetarako hartzen da erabaki hori, eta emakidadunak ezin izango du diru-sarrerarik batere jaso.

b) Emakida suntsiaraztea; hartara, Administrazioa libre geratuko da, diru-zenbateko hauetatik txikiena hartzekodunentzat eskuragarri utzita:

1.a 280. artikuluan jasotakoa aplikatuz emakidadunari dagokion kalte-ordainaren zenbatekoa.

2.a Batetik jaulkipenaren balio izendatua eta bestetik interes gisa zein amortizazio partzial gisa emakida suntsiarazteko unera arte jasotako diru-zenbatekoak oinarri hartuta, bien artean sortzen den aldea.

4. Emakida suntsiarazteko kausa ezin egotz badakioke emakidadunari, eta hartzekodunek beren eskubideak erabat gauzatu ez badituzte, orduan, Administrazioak aukeran izango du, edo aurreko apartatuaren a) letran ezarritakoaren arabera jokatu, edo emakida suntsiarazi eta hartzekodunen ordezkariarekin akordioa lortu zorraren zenbatekoari eta zorra amortizatzeko baldintzei buruz. Akordiorik lortu ezean, Administrazioa libre geratuko da, bi zenbateko hauen arteko aldea eskuragarri utzita: batetik, bere inbertsioaren balio izendatua eta, bestetik, interes gisa zein amortizazio partzial gisa emakida suntsiarazteko unera arte jasotako diru-zenbatekoak.

5. Beti egongo da aukera, aurreko emakida suntsiarazitakoan, beste emakida bat lizitatzeko erabakia hartzeko.

6. Administrazio-baimenak direla-eta artikulua honetan adierazitako eskaerak hilabeteko epean ebartziko ditu organo eskudunak, eta, epe horretan ebazten eta jakinarazten ez badira, ezetsitatzeko behar dira.

## 2. azpiatala. Emakidaren hipoteka

273. artikulua. *Emakidaren hipotekaren objektua eta eskubideen pignorazioa.*

1. Obra-emakidak eta emakida horiei lotutako ondasunak eta eskubideak, hipotekei buruzko legerian ezarritakoaren arabera, hipotekatu egin ahalko dira, aurretiaz kontratazio-organoak horretarako baimena emanda.



Obra-emakiden hipotekarik ez da onartuko zorren berme gisa, baldin eta zorrek ez badute zerikusirik dagokion emakidarekin.

2. Administrazio-baimenak direla-eta artikulua honetan eta hurrengoan adierazitako eskaerak hilabeteko epean ebatziko ditu organo eskudunak, eta, epe horretan ebazten eta jakinarazten ez badira, ezetsizat jo behar dira.

3. Obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratu bat suntsiaraztearen ondorioz sortutako eskubideak, 282. eta 295. artikuluetako lehen apartatuetan azaltzen diren horiek, bai eta ekarpen publikoetatik eta bermeak exekutatzetik eratorritakoak ere, 266. eta 268. artikuluetan ezarrita dauden horiek, emakidarekin edo kontratuarekin zerikusia duten zorren berme gisa soilik pignoratu ahalko dira, kontratazio-organoa aurretiaz baimena ematen badu. Baimen hori *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo autonomia-erkidegoetako edo probintzietako egunkari ofizialetan argitaratu beharko da.

274. artikulua. *Hartzekodun hipotekarioaren eskubideak.*

1. Hipotekatuta dagoen emakidaren balioa emakidadunari egotz dakioken arrazoiren bat dela-eta larri hondatu bada, hartzekodun hipotekarioak kontratazio-organori eska diezaiolke benetan hondatuta dagoela jakinarazteko erabakia har dezan. Halaber, hondatze hori badagoela baietsiz gero, Administrazioari eskatu ahal izango dio agin diezaiola emakidadunari, hari entzun eta gero, kaltea saihesteko edo konpontzeko dagokiona egiteko edo ez egiteko, hargatik eragotzi gabe Hipoteka Legearen 117. artikuluan ezarritako hondapen-akzioa erabiltzeko aukera. Dena dela, apartatu honetan adierazitako administrazio-ekintza baliatuz gero, ulertuko da hartzekodun hipotekarioak uko egin diola Hipoteka Legearen 117. artikuluan ezarritako akzioa erabiltzeari.

2. Emakidadunak betebeharren bat bete gabe utzi duelako emakida suntsiaraztea bidezko denean, Administrazioak, ezer ebatzi aurretik, entzun egingo dio hartzekodun hipotekarioari, emakida betetzeko bere burua subrogatzea eskaintzen badu ere eta Administrazioak eskaintza horri emakidaren bukaera onarekin bateragarri irizten badio ere.

3. Obligazio bermatua ez bada mugaegunerako erabat edo zati batean ordaintzen, dagokion exekuzio-prozedura sustatu aurretik, hartzekodun hipotekarioak honako ahalmen hauek baliatu ahalko ditu, baldin eta hipoteka eratzeko eskrituran hala ezarrita badago:

a) Administrazio emakida-emaileari eskatu ahalko dio xeda dezala honako hau, emakidadunari entzun ondoren: Administrazioak emakidadunari eman behar dizkion zenbatekoen eta bildutako diruen zati batek zorra amortizatzeko izan beharko duela. Horretarako, aukeran izango da kontu-hartzaile bat izendatzea, hartzekodunak arriskua bere gain hartuta, horrela eskuratutako diru-sarrerak egiazta ditzan eta bere gain har dezan adierazitako zati horren ardura, zeina ezingo baita izan aurretiaz ezarritako ehunekoa edo zenbatekoa baino handiagoa.

b) Administrazio emakida-emaileari eskatu ahalko dio eman diezaiola, emakidadunari entzun ondoren, merkataritza-ustiapeneko eremu osagarriak osorik nahiz partez aldi batez ustiatzeko modua, horretarako ondasun egokirik egonez gero. Ordurako hirugarren bat ari bada emakidadunarekin duen harreman juridiko pribatu bati esker merkataritza-eremu horiek ustiatzen, apartatu honetan jasotako neurriaren berri eman beharko zaio hari, eta jakinarazi emakidadunari egin beharko lizkiokeen ordainketak aurrerantzean hartzekodun hipotekarioari egin beharko dizkiola.

275. artikulua. *Hipoteka exekutatzeko.*

1. Hipoteka exekutatzeko prozeduran adjudikaziodun dena, administrazio-baimena aurretiaz hartuta, emakidadunaren lekuan geratuko da subrogatuta, hurrengo apartatuan ezarritako nondik norakoen arabera.

2. Hipoteka exekutatzeko prozeduran eskaintzaile modura edo adjudikazioduna izateko gai modura parte hartu nahi duen orok, baita, arlo horretako legeriak halakorik eragozten ez badu, hartzekodun hipotekarioak berak ere, kontratazio-organori jakinarazi behar dio hori, dagokion administrazio-baimena eskuratzeko, baimenik ezean ez baita

onartua izango prozeduran; Administrazioak gehienez 15 eguneko epean igorri behar dio baimena interesdunari. Baimena arautua da, eta emakidadunari eskatzen zaizkion baldintza berberak betetzen baldin baditu bakarrik emango zaio eskatzaileari.

Eraikuntza-fasea bukatuta badago, edo eraikuntza ez bada sartzen emakidaren objektuan, obra ustiatzeko behar diren baldintzak baino ez dira eskatuko.

3. Enkantea eman gabe utziz gero, edo kontratazio-organoak ez badio interesdunetako inori ere baimenik ematen hipoteka exekutatzeko prozeduran parte hartzeko, administrazio emakida-emaileak honako aukera hauetakoren bat egin dezake, baldin eta emakidadun izateko baimena eskuratu duen hartzekodun hipotekarioak ez badu baliatu nahi Prozedura Zibilarren urtarilaren 7ko 1/2000 Legeak 671. artikuluan aukeran emandako eskubidea:

a) Emakida bahitzeko edo hartan esku hartzeko erabakia hartzea lege honen 263. artikuluan ezarritakoaren arabera, emakidadunak inolako diru-sarrerarik jasotzeko aukerarik ez duela. Hartzekodun hipotekarioari entzunaldi-izapidea eskainiko zaio, beste emakidadun bat proposatzeko aukera emateko. Hartzekodun hipotekarioak proposamenik egiten ez badu, edo proposatutako hautagaiak aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera baldintzak betetzen ez baditu, emakida hori bera lizitatzeari ekingo zaio ahalik eta eperik laburrenean.

b) Emakida suntsiaraztea, eta Administrazioa libre geratzea, hartzekodunen esku utzita 280. artikuluan jasotakoa aplikatu ondoren emakidadunari dagokion kalte-ordainaren zenbatekoa.

276. artikulua. *Emakidaren gainean inskribatutako edo oharrez idatzitako kargen titularren eskubideak, emakidarako kontratua suntsiarazten bada ere.*

Emakida suntsiarazten denean, Jabetza Erregistroan emakidaren gainean jasotako edo inskribatutako kargen edo eskubideen titularrik badago, honako jarraibide hauei begiratuko zaie:

a) Administrazioak, prozedura hasitakoan, Jabetza Erregistroko ziurtagiria eskatu behar du espedientean sartzeko; era horretara, karga edo eskubide horien titular guztien berri izanik, entzunaldi-prozeduran parte hartu ahaliko dute.

b) Jabetza-erregistratzaileak, ziurtagiri hori emateaz batera, orri-bazterreko oharra ere idatzi behar du emakida-inskripzioaren ondoan, emakida suntsiarazteko prozedura hasi dela jakinarazteko.

c) Aipatutako karga edo eskubide horien titularren alde egindako idazpenak ezerezteko, aurrez administrazio-ebazpen irmoa eman behar da, honako hau deklaratzeko: emakida suntsiarazita dagoela eta titular horiei karga horiengatik bermatutako diru-zenbatekoak ordainduko zaizkiela edo haien gordailua egingo dela, 280. artikuluan ezarritakoaren arabera Administrazioak ordaindu beharreko balizko kalte-ordainen mugarekin.

### 3. azpiatala. Beste finantzaketa-iturri batzuk

277. artikulua. *Partaidetza-kredituak.*

1. Partaidetza-kredituak onargarri dira emakidako obrak eraikitzeko eta ustiatzeko finantzaketan, eta ustiapenaren finantzaketa hutsean ere bai. Kasu horietan, emakidadunaren diru-sarreretan izango da mailegu-emailearen partaidetza.

2. Emakidadunak epea bete aurretik amortizatu ahaliko du maileguan hartutako kapitala, itundutako baldintzetan.

3. Salbuespen modura, administrazio publikoek ere lagundu ahaliko dute obra finantzatzen partaidetza-kredituak emanda. Kasu horietan, berariaz kontrakorik xedatzen ez bada, emakidadunak ezingo du alde aurretik amortizatu maileguan hartutako kapitala; amortizazio aurreratua, salbuespenez, kasu bakarrean egin ahaliko da: Administrazioa

organo eskudunak kapitala itzuli behar den unean berrikusi eta onetsitako ekonomia- eta finantza-planaren arabera etorkizunean lortuko liratekeen mozkinen egungo balio garbia ordaintzen badu emakidadunak.

4. Kreditu horiek lortuz gero, kontratazio-organoari emango zaio horren berri, kredituetako bakoitza eman den egunetik hasita, hilabeteko epean gehienez ere.

#### 7. atala. Emakidak azkentzea

278. artikulua. *Emakiden epeak luzatzea eta emakida azkentzea epea iragan delako.*

1. Baldintza-agirietan 29. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatutako epeak, soilik, 270. artikulua 3. apartatuko azken tartekian ezarritakoari jarraituz luzatu ahalko dira.

2. Obra hidraulikoak egiteko emakidak, iraupenari dagokionez, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Uren Legearen testu bateginaren 134.a) artikulua xedatutakoaren pean egongo dira.

3. Hasieran ezarritako epea igarotakoan joko da emakida azkendutzat beteta dagoelakoan, edo, hala badagokio, epe horri 270. artikulua 3. apartatuan oinarrituta adostu diren luzapenak erantsiz edo murrizketak eginez azkenean eman zaion epea igarotakoan.

4. Aurrekoez gain, emakidari eta merkataritza-eremuetako ustiapenari lotutako kontratu guztiak ere amaitutzat joko dira.

279. artikulua. *Suntsiarazteko kausak.*

Lege honen 211. artikuluan aipatutakoez gainera (artikulu horretako d) eta e) letrak salbu), hauek dira obra-emakidako kontratua suntsiarazteko kausak:

a) Hipoteka exekutatzeko prozedura huts deklaratzeko, edo hipoteka exekutatzeko prozedura hastea ezinezko izatea interesdun baimendunik ez egoteagatik hala dagokionean, legean ezarritakoaren arabera.

b) Kontratazio-organoa sei hilabete baino gehiago berandutzea emakidadunari kontratuaren arabera agindu zizkion kontraprestazioak, lursailak edo baliabide lagungarriak entregatzeko orduan.

c) Kontratazio-organoak obren ustiapena berreskuratzea. Ustiapena berreskuratu dela ulertuko da kontratazio-organoak, interes publikoko arrazoiak tarteko, emakida amaitutzat jotzeko aldebarreko adierazpena egitea, nahiz eta titularrak ustiapena ondo kudeatu izan, hortik aurrera Administrazioak zuzenean kudea dezan. Emakida berreskuratzeke, egiaztatu beharko da, gainera, zuzeneko kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa dela emakida bidezko kudeaketa baino.

d) Obren ustiapena ezabatzea interes publikoko arrazoiak direla-eta.

e) Kontratua egin eta gero administrazio emakida-emaileak hartutako erabakien ondorioz obrak ezin ustiatzea.

f) Emakida bahituta edo esku hartuta edukitzea 263. artikulua 3. apartatuaren arabera ezarritakoaz gorako epe batez, eta kontratistak oraindik guztiz bermatu gabe izatea bere betebeharrak guztiak bere gain hartzen dituela.

280. artikulua. *Suntsiaraztearen ondoreak.*

1. Kontratua Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik suntsiarazten denean, egindako inbertsio hauen zenbatekoa ordainduko dio beti Administrazioak emakidadunari, zenbateraino amortizatu den kontuan hartuta: lursailak desjabetzeko inbertsioak, eraikuntza-lanak egitekoak eta emakidan utzitako obra ustiatzeko behar diren ondasunak eskuratzekoak. Horretarako, amortizazio linealaren irizpidea aplikatuko da. Kalkulu horietatik ateratako zenbatekoa hiru hilabeteko epean finkatuko da, administrazio-klausula partikularren agirian bestelakorik ezarri ezean behintzat.

Kontratua Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik suntsiarazten denean, emakidadunari posible diren kausetatik edozeinengatik ordaindu beharreko zenbatekoa

emakidaren baloraziotik ateratzen dena izango da, 281. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuta.

Nolanahi ere, emakidaren suntsiarazpena ezingo zaio Administrazioari egotzi 211. artikulua a), b) eta f) letretan eta 279. artikulua a) eta f) letretan aurreikusitako kausa batengatik gertatzen bada.

2. Baldin eta kontratua emakidadunari egotz dakiokkeen kausaren bat dela-eta suntsiarazten bada, bermea bahituko zaio emakidadunari, eta, horrez gain, bahitutako bermearen zenbatekotik gorakoak badira kalte-ordainak, zenbateko horretatik gorakoa ere ordaindu beharko dio Administrazioari.

3. 279. artikulua b), c), d) eta e) letretan azaltzen diren kasuetan eta –oro kontratua Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik suntsitzen denean, artikulua honetako 1. apartatua xedatutakoa begiratzuz betiere, administrazio emakida-emaileak emakidadunari kalte-ordaina emango dio eragindakoa kalte-galerengatik.

Kalte-ordainaren zenbatekoa zehazteko, hauek hartuko dira kontuan:

a) Emakidadunak etorkizunean jasoko ez dituen mozkinak, honela kuantifikatuta: emakida amaitu arte geratzen diren urteen baliokidea den epealdi batean zergen aurretik lortutako mozkinen batezbesteko aritmetikoa. Geratzen den denbora luzeagoa bada igarotako denbora baino, azken hori hartuko da erreferentzia gisa. Aplikatu beharreko deskontu-tasa emakidadunaren azken urteko kontuei dagokien batez besteko kapital haztatuaren kostutik aterako da.

b) Administrazioari itzuli behar ez zaizkion obra eta instalazioek galdu duten balioa, amortizazio-maila kontuan hartuta.

4. Kontratazio-organoak, gainera, aukeran izango du emakidadunak eremu osagarriak aprobetxatzeko egindako kontratuak ere suntsiaraztea. Halaber, kontratazio-organoak erabaki dezake, emakida suntsiaraztearen ondorio modura, merkataritza-ustiapenerako egindako kontratuak ere suntsiaraztea, ordaindu beharreko kalte-ordaina ordainduta –hala badagokio–. Kalte-ordain hori emakidadunaren kontura ordainduko da, kontratua berari egotz dakiokkeen kausaren bat dela-eta suntsitzen bada. Kontratu horiek suntsiaraztea erabakitzen ez denean, aprobetxamendu-eskubideen titularrek jarraitu egingo dute eskubide horiek erabiltzen, eta kontratazio-organoarekin izango dituzten betebeharrak emakidadunarekin zituzten berberak izango dira, non eta, alde biak ados jarrita, dagokion kontratua berrikustea ez duten erabakitzen.

5. Emakidadunak desjabetzeetan ez baditu betetzen onuradunaren betebeharrak, eta ebazpen judizial baten arabera –edozein datatakoa izanik ere– administrazio emakida-emaileak desjabetuei kalte-ordainak eman behar badizkie, Administrazioak desjabetua subrogatuko du kredituan. Nolanahi ere, administrazio emakida-emailearen kargurako ordaindu beharra deklaratzeko unetik, ordaintzen ez zaizkion kopuruek murriztu egingo dute artikulua honetako lehenengo apartatua xedatutakoaren arabera dagokion zenbateko globala.

6. 279. artikulua b) letretan jasota datorren kasuan, kontratistak eskubidea izango du, entrega-epea amaitzen denetik eta suntsiaraztetik sortutako kalte-ordainaren likidazioa egin arte, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen berandutza-interesak jasotzeko, hau da, zor zaizkion zenbatekoen edo itundutako balio ekonomikoen berandutze-interesak jasotzeko; lege horrek, hain zuzen ere, merkataritza-eragiketetan berandutzearen aurkako neurriak ezartzen ditu. Kontratistak orobat izango du jasandako kalte-galerei dagozkien zenbatekoak jasotzeko eskubidea.

281. artikulua. *Obra-emakidako adjudikazio-prozesu berria, suntsiaraztea Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen denean.*

1. Kontratua Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik suntsiaraziz gero, kontratazio-organoak berriz ere lizitatu beharko du emakida, eta lizitazio-tasa hurrengo artikulutik ateratzen dena izango da. Lizitazioa goranzko enkante bidez egingo da, eta adjudikatzeko irizpide bakarra prezioa izango da.

Lizitazioa eman gabe geratzen bada, beste lizitazio baterako deialdia egingo da hilabeteko epearen barruan; orduan, lizitazio-tasa lehenengo lizitazio-tasaren ehuneko 50 izango da.

Lizitazioaren adjudikaziodunak lizitazioaren zenbatekoa bi hilabeteko epean ordaindu beharko du, emakida adjudikatzen den egunetik aurrera zenbatuta. Zenbateko hori ez bada ordaintzen ezarri den epean, adjudikazioa ondorioz gabe geratuko da, eta hurrenkeraren arabera hurrengo den lizitatuileari adjudikatuko zaio, edo, lizitatuile gehiagorik egon ezean, lizitazioa eman gabe geratu dela deklaratu da.

Lizitazioaren deialdia suntsiarazpen-espedientea hasi bada egin ahalko da, baina espedientea amaitu arte ezingo da adjudikatu. Nolanahi ere, emakida suntsiarazten denetik lehenengo lizitazioaren eskaintzak ireki arte, gehienez ere hiru hilabeteko epea igaroko da.

275. artikulua. 2. apartatua aurreikusita dagoenaren arabera administrazio-baimena lortu duten enpresaburuek parte hartu ahalko dute lizitazioan.

2. Emakidaren balioa, suntsiarazpenaren arrazoiak Administrazioari egotzi ezin bazaizkio, aurreko apartatua azaldu diren lizitazioen adjudikaziotik ateratzen dena izango da.

Bigarren lizitazioa adjudikatu gabe geratzen bada, emakidaren balioa bigarren lizitazio horren tasa izango da. Dena dela, jatorrizko emakidadunak edo gutxienez emakidadunaren pasibo galdagarriaren % 5aren titular diren hartzekodunek erosle berri bat aurkeztu ahal izango dute, gehienez ere hiru hilabeteko epean, lizitazioa adjudikatu gabe geratu zen egunetik aurrera zenbatuta. Erosle berri horrek gutxienez lizitazio-tasa hori ordaindu beharko du. Hala bada, emakidaren balioa erosle berriak ordaindutako zenbatekoa izango da.

Administrazioak jatorrizko emakidadunari emakidaren balioa ordainduko dio hiru hilabeteko epean, aurreko apartatua azaldu den lizitazioa adjudikatzen denetik edo bigarren lizitazioa adjudikatu gabe geratzen denetik aurrera zenbatuta.

Emakidadun berria beti subrogatuko da jatorrizko emakidadunaren tokian, eta jasotako kapital diru-laguntzei lotutako jarduketak egitera behartuta geratuko da, diru-laguntzaren xedea bete ez bada.

3. 1. apartatua azalduko lizitaziotik ateratzen den kontratua beti obra-emakidako kontratu bat izango da, eta kontratu horren baldintzak suntsitu den jatorriko kontratua ezarrita dauden berberak izango dira, iraupen-epea barnean dela.

282. artikulua. *Obra-emakidako lizitazio-tasa zehaztea, suntsiaraztea Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen denean.*

281. artikulua azaltzen den lehenengo lizitazioaren tasa ezartzeko, honako erregela hauei jarraituko zaie:

a) Sozietate emakidadunak kontratua suntsiarazten denetik eta itzuli arte geratzen den epean emakida ustiatzeagatik bere aurreikuspenen arabera lortuko dituen kutzako fluxuen arabera zehaztuko da tasa. Kutzako fluxu horiek Altxorraren obligazioen hamar urterako interesaren deskontu-tasaren arabera eguneratuko dira, 300 oinarri-puntu gehituta.

Batez besteko etekin hori kalkulatzeko, Espainiako Bankuak Zor Publikoaren Merkatuko Buletinean argitaratutako azken datuak hartuko dira erreferentzia gisa.

b) Arrazoizko errentagarritasuna kalkulatzeko oinarri gisa erabiliko zor-tresna eta diferentziala, lehenago aipatu diren horiek, Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delekatuak aldatu ahalko ditu, Ebaluazioko Bulego Nazionalak txostena egin ondoren, sektore publikoko kontratuetan ikusitako arrisku- eta errentagarritasun-egoeretara egokitzeko.

c) Kutzako etorkizuneko fluxu garbiak kuantifikatzeko, erakundeak amaierara arte geratzen diren urteen pareko denbora tarte batean lortu dituen kutzako fluxuen batez besteko aritmetikoa erabiliko da. Geratzen den denbora luzeagoa bada igarotako denbora baino, azken hori hartuko da erreferentzia gisa. Ez da prezioen eguneratzerik sartuko etorkizunerako zenbatetsitako inflazioaren arabera.

d) Kutzako fluxuen balioa hau izango da: Kontabilitate Plan Orokorrak eskudiru-fluxuen egoera-orrian ustiapen-jardueren eskudiru-fluxu gisa ezartzen duena; eta inola ere ez da zenbatuko interesen ordainketa eta kobrantzarik, dibidenduen kobrantzarik eta mozkinen gaineko zergak direla-eta egiten den kobrantza edo ordainketarik.

e) Kontratua azpiegitura eraikitzen amaitu aurretik suntsiarazten bada, gauzatutako inbertsioaren zenbatekoaren ehuneko 70 izango da lizitazio-tasa. Horretarako, hau hartuko da gauzatutako inbertsioetatik: onartu diren azken urteko kontuetan agertzen den zenbatekoa, onartu diren azken urteko kontuen ekitaldiaren amaieratik kontratua suntsiarazi arte egindako ziurtagirietatik atera den kopurua gehituta kontu horiei. Onuradunak jaso dituen baina xedea bete gabe duten kapital diru-laguntzei dagokien zenbatekoa kenduko da zenbateko horretatik.

283. artikulua. *Emakida azkentzen denean obrekin zer egin.*

1. Emakidadunak emakidako obrak entregatu behar dizkio administrazio emakida-emaleari, ondo zainduta eta erabiltzeko moduan; orobat haiek ustiatzeko behar diren ondasunak eta instalazioak, eta merkataritza-ustiapeneko eremuan sartutako ondasunak eta instalazioak ere bai, baldin eta halako eremurik badago. Betebehar hori kontratuan zehazturik dagoenari jarraituz beteko da, eta harrera-aktan jaso beharko da guztia.

Emakida bukatutakoan kontratazio-organoari ondasunak eta instalazioak entregatzen zaizkionean, harrera-akta formala egingo da. Akta hori egiteko zeregina eta haren edukia lege honen 243. artikuluan ezarritakoari egokituko zaizkio.

2. Dena dela, gerta liteke baldintza-agiriek bestelakorik agintzea ere, hau da, emakida azkentzen denean, emakidadunak obra, ondasun eta instalazio horiek guztiak edo batzuk eraitsi behar izatea eta euskarri zituzten ondasunak eraikuntzaren aurretik zeuden egoerara bihurtu behar izatea.

3. Emakidari atxikitako ondasunak, Administrazioari itzuliko zaizkionak, ezingo dira enbargatu.

### III. KAPITULUA

#### Zerbitzu-emakidako kontratua

##### 1. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua zedarritzea

284. artikulua. *Zerbitzu-emakidako kontratuaren eremua.*

1. Administrazioak, zerbitzu-emakidako kontratu baten bidez, zeharka kudea ditzake bere titulartasuneko edo eskumeneko zerbitzuak, baldin eta zerbitzu horiek partikularrek ekonomikoki ustiatzeko modukoak badira. Inola ere ezin dira zeharka kudeatu botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.

2. Zerbitzu-emakidako kontratazio bat egin baino lehen, zerbitzu publikoen kontratazio bat baldin bada, dagokion araubide juridikoa ezarri beharko da; araubide horrek espresuki adierazi behar du dagokion administrazioak bere egiten duela dena delako jarduera, herritarrentzako prestazioen helmenean zehaztu behar du, eta zerbitzua emateari lotutako alderdi juridiko, ekonomiko eta administratiboak arautu behar ditu.

3. Kontratuak, nolana ere, argi eta garbi adieraziko du emakidaren eremua, bai egitekoegi dagokienez, bai lurraldeari dagokienez ere.

##### 2. atala. Araubide juridikoa

1. azpiatala Zerbitzu-emakidako kontratua prestatzeko jarduketak

285. artikulua. *Baldintza-agiriak eta obra- eta ustiapen-aurreproiektua.*

1. Administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoaren agirietan, hemen aipatzen diren alderdi hauek azaldu beharko dira, gutxienez:

a) Kontratuaren objektua definituko dute, eta, atalak sortatan banatuta, atal haietako bakoitza bere aldetik gauzatu ahal izatea aurreikusitako beharko dute, prestazioaren



eraginkortasuna murriztu gabe, 99.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, konkurrentzia librea sustatzeko xedez.

b) Zerbitzua emateko baldintzak ezarriko dituzte, eta, kasua bada, honako hauek ere bai: erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak, horiek berrikusteko prozedurak eta Administrazioari ordaindu beharreko kanona edo partaidetza. Tarifak berrikusteari dagokionez, administrazio-klausulen agiriek lehen liburuko III. tituluko II. kapituluan ezarritakoarekin bat etorri beharko dute.

c) Administrazioaren eta emakidadunaren arteko arriskuen banaketa arautuko dute, zerbitzuaren ezaugarri zehatzen arabera; nolahi ere, eragiketa-arriskua kontratistak hartuko du bere gain.

d) Gaitasun eta kaudimen finantzario, ekonomiko eta teknikoko baldintzak zehaztuko dituzte, lizitatzailerik eska dakizkiekeenak. Kaudimena dela-eta, zenbait baldintza finkatu ahalgo dira, kontratuaren faseen arabera, 86.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, 214.2.c) artikuluan ezarritako baldintzetan lagapen bat egiten bada ere.

e) Halaber, 214. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz kontratuaren lagapena egiteko aukera aurreikusiko dute, bai eta sozietate emakidadunaren partaidetzen lagapena egitekoa ere kontratua betetzeko helburu zehatzarekin lizitatzailerik sozietate bat eratzen dutenean. Halaber, irizpide batzuk ezarriko dira zehazteko partaidetzen lagapena noiz hartu beharko den aintzat egiazko kontrol-aldaketa bat eragiteagatik, eta, kontratuaren ezaugarriak direla-eta justifikatuta badago, kontrol-mekanismo batzuk ezarriko dira kontratuaren lagapen batekin ezin pareka daitezkeen sozietate emakidadunaren partaidetzen lagapenentarako. Partaidetzen ehuneko 51 lagatzea, nolahi ere, egiazko kontrol-aldaketatzat hartuko da.

Zerbitzuen emakida zerbitzu publikoei buruzkoa denean, apartatu honetan ezarritakoa 284.2 artikulua aipatzen duen zerbitzuaren araubide juridikoaren arauen arabera beteko da.

2. Zerbitzu-emakidako kontratuetan, espedientea izapidetu baino lehen horien bideragarritasunari buruzko azterlan bat egin eta onetsiko da, edo, kasua bada, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlan bat; azterlan horiek lotesleak izango dira proiektua eginezina dela ondorioztatzen den kasuetan. Berekin obrak egitea dakarten zerbitzu-emakidako kontratuen kasuetan, emakida izapidetu baino lehen, gainera, 248.1 artikuluan xedatutakoaren arabera hala dagokionean, behar diren obrak eraikitze eta ustiatze aurreproiektuaren taxutze eta oneste administratiboa egingo da, hura gauzatzeari buruzko preskripzio teknikoak zehaztuta, eta, gainera, obra-proiektua idatzi, gainbegiratu eta onetsi beharko da eta zuinketa egin.

Emakida bideragarri izateko eraikuntzarako edo ustiapenerako laguntzak aurreikusten diren kasuetan, Estatuaren laguntza bat jaso daitekeen adieraziko da bideragarritasunaren azterlanean, bai eta hura Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunarekin bateragarria den ere.

2. azpiatala. Zerbitzu-emakidako kontratuaren ondoreak, betetzea eta azkentzea

286. artikulua. *Ondoreak, betetzea eta azkentzea.*

Zerbitzu-emakidako kontratuen ondoreak, betetzea eta azkentzea lege honek arautuko ditu, 208. eta 210. artikulua kenduta. Ez dira aplikatzekoak izango, ezta ere, eraikuntza-fasean ez bada eta fase horretan obrak egin behar direnean, 192. artikulua 2. apartatua, 193. artikulua eta 195. artikulua.

3. atala. *Zerbitzu-emakidako kontratua egikaritzea*

287. artikulua. *Zerbitzu-emakidako kontratua egikaritzea.*

1. Emakidaduna kontratuan ezarri diren ezaugarriak estu-estu lotuta antolatu behar du eta eman behar du zerbitzua, kontratuak adierazitako epeen barruan, eta, hala dagokionean, kontratazio-organoak onartutako proiektuaren arabera egin behar ditu obrak.

2. Emakida zerbitzu publiko batena baldin bada, direnak direlako zerbitzuek ondo dihardutela bermatzeko beharrezkoak diren polizia-ahalmenak gordeko ditu beretzat Administrazioak.

3. Zerbitzuen emakidak kasu honetan bakarrik hipotekatu ahalko dira: zerbitzua emango bada obrak edo instalazio finkoak egin beharra dakartenean berekin, eta soilik emakidarekin lotuta dauden zorrak bermatze aldera.

288. artikulua. *Betebehar orokorrak.*

Emakidadunak honako betebehar hauek bete beharko ditu:

a) Dena delako zerbitzua adostutako jarraitasunaz eman behar du, eta zerbitzua ezarri diren baldintzetan eta –hala badagokio– onartutako tarifen ordain ekonomikoa ordainduz erabiltzeko eskubidea bermatu behar die partikularrei. Kontratua azkentzen bada bera bete ez delako, kontratistak zerbitzua ematen jarraitu beharko du harik eta kontratu berria formalizatzen den arte.

b) Zerbitzua ondo dabilela zaintzea eta, horretarako, jarraibiderik behar bada, jarraibideak ematea, hargatik eragotzi gabe aurreko artikuluan zehazturiko polizia-ahalmenak.

c) Zerbitzua eman behar horretan inori kalterik eraginez gero, kalte-ordaina ematea, non eta kaltea ez den Administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik.

d) Nazionalitatea dela-eta inor ez diskriminatuzeko printzipioa errespetatzea, baldin eta zerbitzu-emakidaren ondorioz hornidura-kontratua egin behar badu Europar Batasuneko estatuetako enpresekin edo Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatua duten estatuetako enpresekin.

e) Legerian, administrazio-klausula partikularren agirian eta kontratuari buruzko gainerako dokumentazioan aurreikusitako beste edozein.

289. artikulua. *Prestazio ekonomikoak.*

1. Emakidadunak kontratuan zehazturik datozen diru-ordainak jasotzeko eskubidea du; horien artean izango da, zerbitzua ustiatzeko eskubidea benetan gauzatze aldera, zerbitzuaren erabileraren araberako ordainsari bat, zuzenean erabiltzaileengandik edo Administrazioetik beretik jasoko duena.

2. Itundutako kontraprestazio ekonomikoak, zeinei tarifa deituko baitzaie eta zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoak izango baitira, berrikusi egingo dira, kasua bada, kontratuan ezarritako moduan; kontratua, nolahi ere, lege honen lehen liburuaren III. tituluaren II. kapituluaren ezarritakoari egokituko zaio; sektore publikoko erakundeen kontratuen prezioak berrikusteari buruzkoa da kapitulu hori.

Emakidadunak emakidaren diru-sarrera eta gastu guztiak direla-eta eraman behar duen kontabilitate bereizian, zeinak erakunde kontratatzailearen eskura egon beharko baitu, behar bezala islatuko dira itundutako kontraprestazioetatik heldu diren diru-sarrera guztiak, 267. artikulua 6. apartatua ezarritako moduan.

3. Administrazio-klausula partikularren agiriak hala ezartzen baldin badu, emakidadunak administrazio emakida-emaileari kanon edo partaidetza bat ordainduko dio, zeina aipatutako baldintza-agirian eta kontratuari buruzko gainerako dokumentazioan ezarritako moduan eta baldintzetan zehaztu eta ordainduko baita.

#### 4. atala. *Zerbitzu-emakidako kontratua aldatzea*

290. artikulua. *Kontratua aldatzea eta haren oreka ekonomikoa zaintzea.*

1. Administrazioak soilik interes publikoko arrazoiak direla medio eta lege honen bigarren liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 3. atalaren 4. azpiatalean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen baldin badira aldatu ahalko ditu kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak eta erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak.

2. Aldaketekin kontratuaren finantza-araubideari eragiten bazaio, konpentsazioa eman beharko zaio kasuan kasuko aldeari, halako moduz non kontratua adjudikatu zenean oinarritzotzat hartutako baldintza ekonomikoen orekari eutsi ahalko zaion.

3. Zerbitzuaren garapenari buruz Administrazioak hartutako erabakiek ekonomian eraginik ez badaukate, emakidadunak ez du eskubiderik izango horiek direla-eta inolako kalte-ordainik jasotzeko.

4. Egoera hauetakoren bat gertatuz gero, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri beharko da, dagokion aldearen mesedetan:

a) Administrazioak artikuluko honen 1. apartatuan aipatutakoetatik aldaketa bat egiten duenean hartan ezarritako inguruabarrak gertatuta.

b) Administrazio publiko emakida-emailearen jarduketek, emakidadunak bete beharrekoak izateagatik, kontratuaren ekonomiaren funtsa haustea eragiten dutenean zuzen-zuzenean.

Aurreko letretan aurreikusitako kasuetatik kanpo, kontratuaren oreka ekonomikoa berrezarri ahalko da soilik ezinbesteko kausek dakartenean zuzenean kontratuaren ekonomiaren funtsezko haustura. Horrelakoetan, lege honen 239. artikuluan jasotako kausak hartuko dira ezinbesteko kausatzat.

Nolanahi ere, ez da izango oreka ekonomiko finantzarioa berrezartzeko eskubiderik Administrazioaren azterlanean edo emakidadunak egin duen azterlanean eskaerari buruz egindako aurreikuspenak ez betetzeagatik.

5. Aurreko apartatuan adierazitako egoeretan, kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak hartu beharko dira kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko. Neurri horiek izan daitezke: erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak aldatzea, administrazio emakida-emaileak ordaindu beharreko ordainsaria aldatzea, emakidaren epea laburtzea eta, oro har, kontratuaren klausula ekonomikoetako edozein aldatzea. Halaber, b) letran eta aurreko apartatuaren azken paragrafoan aurreikusitako kasuetan, hasierako iraupena ehuneko 15 gaitzen ez duen aldi baterako luzatu ahalko da kontratuaren epea, lege ezarritako gehieneko iraupen-epeak urratu gabe.

6. Kontratistak eskubidea izango du kontratuan atzera egiteko kontratu horrek kostu izugarri handia dakarkionean honako inguruabar hauetakoren bat tarteko:

a) Emakida-emaileaz beste administrazio batek xedapen orokor bat onestea kontratua egin ondoren.

b) Emakidadunak, legez edo kontratu bidez horretarako behartuta dagoelako, obretan edo haien ustiapenean haiek nabarmen hobetzen dituzten aurrerapen teknikoak aplikatu behar izatea; aurrerapen tekniko horiek merkatuan teknikaren egoeraren arabera kontratuaren formalizazioaren ondoren eskuragarri jarri direnak izan behar dute betiere.

Hau izango da kontratua betetzeak kostu izugarri handia izatea emakidadunarentzat: administrazioen xedapenen eraginak edo aplikatu beharreko hobekuntza teknikoaren diruzenbatekoak gutxienez ere emakidaren negozio-zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 5eko urteko igoera garbi bat ekartzea kostuetan, emakida amaitzeko gelditzen den epe osorako. Igoeraren kalkulua egiteko, kasua bada, neurriak sor ditzakeen diru-sarrera gehigarriak kenduko dira.

Kontratistak kontratuan atzera egiten duenean apartatu honetan ezarritakoaren ondorioz, suntsiarazteak ez dio aldeetako bakarrari ere emango inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

#### *5. atala. Zerbitzu-emakidarako kontratua betetzea eta haren ondoreak*

291. artikulua. *Itzultzea.*

1. Emakidaren epea amaituta, Administrazioari itzuliko zaio zerbitzua; kontratuaren arabera behartuta dagoen moduan entregatu behar ditu kontratistak bai obrak eta bai instalazioak, ondo zainduta eta ondo funtzionatzen dutela.

2. Zerbitzua itzuli baino lehenagoko epe bat ezarriko da baldintza-agirian, zuhertasunagatik, Administrazioan eskumenak dauzkan organoak ondasunak itundu bezala entregatuko direla egiaztatzeko behar diren xedapenak onar ditzan.

3. Emakidari atxikitako ondasunak, artikulua honetan ezarritakoaren indarrez Administrazioari itzuliko zaizkionak, ezingo dira enbargatu.

292. artikulua. *Kontraprestazio ekonomikoak eta baliabide lagungarriak ez ematea.*

Administrazioak emakidadunari ez badizkio ordaintzen kontratuan agindutako kontraprestazio ekonomikoak edo ematen baliabide lagungarriak kontratuan ezarritako epeetan eta, hala ere, kontratua ezin bada suntsiarazi, edo emakidadunak ez badu suntsiarazpenik eskatzen, emakidadunak eskubidea izango du zenbateko horien edo baliabideei dagozkien balio ekonomikoen berandutze-interesak jasotzeko, 198. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

293. artikulua. *Emakidadunaren ez-betetzea.*

1. Kontratua zerbitzu publiko bati buruzkoa denean, emakidadunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik edo hark kontratua ez betetzeagatik nahaste larri bat eratoritzen bada, zerbitzuan beste bitarteko batzuekin ezin konpon daitekeena, Administrazioak zerbitzua bahitzea edo hartan esku hartzea erabaki ahalko du, 263. artikuluan ezarritako baldintzetan. Nolanahi ere, benetan sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio emakidadunak Administrazioari.

2. Nolanahi ere, emakidadunaren ez-betetzeen kasuetan, lege honen 264. artikuluan obra-emakidetakarako ezarritako zigor-araubidea izango da aplikatzekoa, baldin eta zerbitzu-emakidarekin bateragarria bada.

#### 6. atala. *Zerbitzu-emakidako kontratua suntsiaraztea*

294. artikulua. *Suntsiarazteko kausak.*

Lege honen 211. artikuluan aipatutakoez gainera (artikulu horretako d) eta e) letrak salbu), hauek dira zerbitzu-emakidako kontratua suntsiarazteko kausak:

a) Hipoteka exekutatzeko prozedura huts deklaraztea, edo hipoteka exekutatzeko prozedura hastea ezinezko izatea interesdun baimendunik ez egoteagatik hala dagokionean, lege honetan ezarritakoaren arabera.

b) Administrazioa sei hilabete baino gehiago berandutzea kontratuaren arabera emakidadunari agindu zizkion kontraprestazioak edo baliabide lagungarriak entregatzen.

c) Administrazioak zerbitzua berreskuratzea interes publikoko arrazoiak tarteko, berak zuzenean kudeatzeko. Emakida berreskuratzeak, egiaztatu beharko da, gainera, zuzeneko kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa dela emakida bidezko kudeaketa baino.

d) Interes publikoko arrazoiak direla-eta zerbitzua ezabatzea.

e) Zerbitzua ustiatzea ezinezkoa izatea kontratua egin eta gero Administrazioak hartutako erabakien ondorioz.

f) Emakida bahituta edo esku hartuta edukitzea 263. artikulua 3. apartatuaren arabera ezarritakoaz gorako epe batez, eta kontratistak oraindik guztiz bermatu gabe izatea bere betebeharrak guztiak bere gain hartzen dituela.

295. artikulua. *Suntsiaraztearen ondoreak.*

1. Kontratua Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik suntsiarazten denean, egindako inbertsio hauen zenbatekoa ordainduko dio beti Administrazioak emakidadunari, zenbateraino amortizatu den kontuan hartuta: lursailak desjabetzeko inbertsioak, eraikuntza-lanak egitekoak eta emakidako zerbitzuak ustiatzeko behar diren

ondasunak eskuratzekoak. Horretarako, inbertsioaren amortizazio linealaren irizpidea aplikatuko da.

Kontratua Administrazioari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik suntsiarazten denean, emakidaren baloraziotik ateratzen den zenbatekoa izango da desjabetutako lursailak, egindako obrak eta eskuratutako ondasunak Administrazioari itzultzeagatik emakidadunari ordaindu beharrekoa, 281. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuta.

Nolanahi ere, emakidaren suntsiarazpena ezingo zaio Administrazioari egotzi 211. artikulua a), b) eta f) letretan eta 294. artikulua a) eta f) letretan aurreikusitako kausa batengatik gertatzen bada.

2. Lege honetako 213. artikuluan xedatutakoa alde batera dela, Administrazioak edo kontratistak kontratuko betebeharrak bete gabe uzten badituzte, zerbitzuaren xedapen berezien arabera kontratuotan eragina izan dezaketen ondorioak sortuko dira.

3. 294. artikulua b) letretan jasota datorren kasuan, kontratistak eskubidea izango du, entrega-epea amaitzen denetik eta suntsiaraztetik sortutako kalte-ordainaren likidazioa egin arte, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen berandutza-interesak jasotzeko, hau da, zor zaizkion zenbatekoen berandutze-interesak edo itundutako balio ekonomikoen berandutze-interesak jasotzeko; lege horrek, hain zuzen ere, merkataritza-eragiketetan berandutzearen aurkako neurriak ezartzen ditu. Kontratistak orobat izango du jasandako kalte-galerei dagozkien zenbatekoak jasotzeko eskubidea.

4. Lege honetako 294. artikulua b), c) d) eta e) letretako kasuetan –eta, oro har, kontratua Administrazioari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik suntsitzen den kasuetan–, artikulua honetako 1. apartatua xedatutakoari kalterik egin gabe, kontratistari sortutako kalte-galeren kalte-ordainak emango dizkio Administrazioak, jaso gabe utzitako geroko irabaziak barne, 280. artikulua 3. apartatuaren a) letretan ezarritakoari eta amortizazioaren zenbaterainokoa dela-eta berari itzuliko ez zaizkion obren eta instalazioen balio-galerari jarraituz kuantifikatuak.

#### *7. atala. Zerbitzu-emakidako kontratua azpikontratzea*

296. artikulua. *Azpikontratzea.*

Zerbitzu-emakidako kontratuan, prestazio osagarriak azpikontratatu ahalko dira soilik, eta, halakoetan, lege honen 215., 216. eta 217. artikuluetako arauak aplikatuko dira.

#### *8. atala. Zerbitzu-emakidako kontratuaren ordezkio arautzea*

297. artikulua. *Ordezko arautzea.*

Zerbitzu-emakidako kontratuei buruz kapitulu honetan aurreikusita ez dagoen horretan guztian, lege honetan obra-emakidako kontratuei buruz ezarritako arauak aplikatuko dira, baldin eta zerbitzu-emakidako kontratuen izaerarekin bateragarriak badira.

### IV. KAPITULUA

#### **Hornidura-kontratua**

##### *1. atala. Hornidura-kontratu jakin batzuen arautzea*

298. artikulua. *Errentamendua.*

Errentamendu-kontratuan, errentatzaile edo enpresaburuak kontratuaren objektuaren mantentze-lana egiteko betebeharra bereganatzen du, kontratua indarrean dagoen aldirako. Administrazioak mantentze-lanetako kanon moduan ordaindu beharko dituen zenbatekoak errentamenduaren prezioa osatzen dutenetatik bereiz finkatu behar dira.

299. artikulua. *Fabrikazio-kontratuak.*

Administrazio-klausula partikularren kasuan kasuko agirian kontratazio-organoak ezartzen dituen obra-kontratuko arau orokor eta bereziak aplikatuko zaizkie zuzenean fabrikazio-kontratuei, salbu eta haien publikotasunari eta adjudikazio-prozedurari buruzkoak; horiek, izan ere, hornidura-kontratukoekin bat etorriko dira.

2. atala. *Hornidura-kontratua egikaritzea*

300. artikulua. *Entregatu eta jasotzea.*

1. Kontratuan finkatutako denboran eta tokian eta preskripzio teknikoekin eta administrazio-klausulekin bat etorritik entregatu beharko ditu kontratistak horniduraren xede diren ondasunak.

2. Hornigaia edozein izanda ere, adjudikaziodunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango Administrazioari entregatu aurretik ondasunak galdu, matxuratu edo kaltetzen badira, ondasun horiek hartzeko garaian Administrazioa berandutu ez bada behintzat.

3. Baldintza-agiriko baldintzen arabera, ondasunak hartzeko egintza formala entrega baino geroago denean, Administrazioa da haiek zaintzeko erantzule ondasunak entregatzen direnetik hartzen direnerako denbora-tarte horretan.

4. Dena delako ondasuna edo produktua galkorra bada, Administrazioak adostasuna adierazi eta hura jaso ondoren, Administrazioaren ardura da hura kudeatzea, erabiltzea edo galtzen ez uztea; hori bai, hornitzailea izango da ondasun edo produktu horien ezkutuko akats edo hutsen erantzulea.

301. artikulua. *Prezioa ordaintzea.*

1. Adjudikaziodunak eskubidea du benetan entregatu dituen eta Administrazioak formalki jaso dituen horniduren prezioa jasotzeko kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

2. Prezioa prezio unitarioen arabera zehazten den hornidura-kontratuan, kontratuko prezioaren ehuneko 10era arte igo ahalko da hornitu beharreko unitateen kopurua, hau da, 205.2.c).3.a artikulua aipatzen duen ehunekora arte, kasuan kasuko aldaketa-espeditentea izapidetu behar izan gabe, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirian hala ezarri bada eta dagokion finantzaketa kontratuaren jatorrizko espeditentean egiaztatuta bada.

302. artikulua. *Eskudirutan ordaintzea eta beste ondasun batzuekin ordaintzea.*

1. Espeditentean behar bezala egiaztatutako arrazoi teknikoak edo ekonomikoak direla-eta hala egitea komeni bada, administrazio-klausula partikularren agirian jar daiteke hornigaien prezio osoaren zati bat eskudirutan eta beste zati bat mota bereko beste ondasun batzuk entregatuz ordain daitekeela, baina ordain-ondasun horien bidez ezin izango da inoiz ere ordaindu prezio osoaren ehuneko 50 baino gehiago.

Ondorio horietarako, kontratistari kontratuaren prezio osotik ondasunekin ordaintzen ez zaion zatira mugatuko da kasu bakoitzean gastu-konpromisoa, eta ez da aplikatuko azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontuen Lege Orokorren 27.4. artikuluan xedatutakoa, ez Toki Ogasunak Arautzeko Legearen 165. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen), ez eta lege honetara atxikitako administrazio publikoetako aurrekontu-arauetan xedatutakoa ere.

2. Kontratazio-organoak erabaki behar du Administrazioak ondasunak entregatzea, eta erabaki hori nahikoa da ondasun horiei inbentarioan baja emateko eta, kasua bada, desfektaziorako.

3. Halakoetan, Administrazioak entregatu beharreko ondasunei horniduraren prezio osotik dagokien zenbatekoa kontuan hartuko da kontratua adjudikatzeko orduan, osagai ekonomiko modura, eta enpresaburuek zenbateko hori berariaz adierazi behar dute eskaintzak egitean.



4. Artikulu honetan xedatutakoa honako hauei aplikatuko zaie: informazio-sistemak kudeatzeko zerbitzu-kontratuak, telekomunikazio-zerbitzuen gaineko kontratuak, eta sistema horiek mantentzeko, ekipamenduz eta terminalez hornitzeko eta beharrezkoak diren egokitzapenak (kableak jartzea, kanalizazioak eta antzekoak) egiteko kontratuak, baldin eta egokitzapenok zerbitzu horiekin lotuta badaude eta zerbitzu horiekin batera kontratatzen badira. Administrazioak entregatu beharreko ondasunak –baldin eta entregatzea badagokio– ondasun eta ekipamendu informatikoak eta telekomunikaziokoak direla ulertuko da.

303. artikulua. *Administrazioak fabrikazio-prozesuan dauzkan ahalmenak.*

Administrazioak eskua du kontratuaren arabera entregatu behar zaion produktua fabrikatzeko edo egiteko prozesua ikuskatzeko, eta haren berri izateko, eta berak zuzenean, edo beste norbaiti aginduta, erabiliko diren materialak analizatu ditzake, eta materialekin saioak eta probak egin, edo kalitatearen kontrolerako sistemak ezarri, bai eta itundutakoa zehatz-mehatz betetzeko bidezko deritzen xedapenak eman ere.

### 3. atala. *Hornidura-kontratua betetzea*

304. artikulua. *Entregatu eta jasotzeko gastuak.*

1. Kontrakorik itundu ezik, kontratistaren kontura izango dira horniduraren ondasunak itundutako lekuan entregatu eta hara garraiatzeko gastuak.

2. Ondasunak ez badaude hartzeko moduan, hala adieraziko da harrera-aktan, eta beharrezko diren jarraibideak emango zaizkio kontratistari, edo ikusitako hutsak zuzendu ditzan, edo itundutakoaren arabera beste hornidura bat egin dezan.

305. artikulua. *Berme-epeko akatsak edo hutsak.*

1. Horniduraren ondasunetan akatsik edo hutsik aurkitzen bada berme-epeak iraun bitartean, kontratistari erreklamazioa egiteko eskubidea edukiko du Administrazioak, egokiak ez diren ondasunen ordezkioak jar ditzan, edo ondasunak konpon ditzan, hori aski bada.

2. Kontratistak, berme-epe horretan, eskubidea edukiko du horniduraren ondasunak nola aplikatzen diren jakiteko eta iritzia emateko.

3. Kontratazio-organoak, berme-epea amaitu aurretik, atzera bota ditzake eta kontratistaren ardurari utzi horniduraren ondasunak, baldin eta berme-epearen barruan, ondasun horietan ikusi eta kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, irizten badio ondasun horiek ez direla egokiak lortu nahi den helbururako, eta ondasunok berriro entregatu edo konpontzea ustez nahikoa ez bada jarritako helburua lortzeko; horrela, ez du izango ordaintzeko betebeharririk, edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du, ordaindua badu.

4. Artikulu honetako 1. eta 3. apartatuetan aipatutako eragozpenik zein salaketarik formalizatu gabe amaitzen bazaio Administrazioari berme-epea, horniduraren ondasunak direla-eta izan zezakeen erantzukizunetik salbuetsita geldituko da kontratista.

### 4. atala. *Hornidura-kontratua suntsiaraztea*

306. artikulua. *Suntsiarazteko kausak.*

Kausa orokorrez gain, honako hauek dira hornidura-kontratua suntsiarazteko kausak:

a) Hornidura hasi baino lehen atzera egitea edo horniduraren hasiera etenda uztea Administrazioari egotz dakiokeen arrazoi batengatik lau hilabetetik gorako epe baterako –baldintza-agirian epe laburragarik ezarri ezearn–, kontratuan entregarako adierazitako egunetik kontatzen hasita.

b) Horniduran atzera egitea behin hornidura ematen hasita, edo hornidura zortzi hilabete baino gehiagoz etetea Administrazioaren erabakiz, baldintza-agirian epe laburragoren bat ezarri ezean.

307. artikulua. *Suntsiaraztearen ondoreak.*

1. Kontratua suntsiarazten bada, ondasunak eta egindako ordainketen zenbatekoak elkarri itzuli beharko dizkiote; baina Administrazioak, ezin badu halakorik egin edo komeni ez bazaio, benetan entregatu eta konforme hartutakoen prezioa ordaindu beharko du.

2. Aurreko artikulua a) letran ezarritako kasuetan, kontratistak kalte-ordain hau jasotzeko eskubidea izango du soilik, kontzeptu guztiengatik: kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 3, BEZik gabe.

3. Aurreko artikulua b) letran jasotako kasuetan, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 6 jasotzeko, BEZik gabe, egin ez diren hornidurengatik, mozkin industrial gisa. Egin gabeko horniduratzat hauek hartuko dira: jatorrizko kontratuan jaso zirenen eta onetsitako aldaketetan jaso direnen eta atzera egitea edo etetea jakinarazten den egunera arte egin direnen arteko aldeari dagozkionak.

## V. KAPITULUA

### Zerbitzu-kontratua

#### 1. atala. *Xedapen orokorrak*

308. artikulua. *Edukia eta mugak.*

1. Administrazio-klausulen agirietan edo kontratu-agirian besterik xedatu ezean, jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babespean dauden produktuak garatzeko eta eskaintzeko zerbitzu-kontratuak berekin ekarriko dute eskubide hori administrazio kontratatzaileari laga beharra. Edonola ere, kontratazio-organoak baimena eman ahal izango die beti sektore publikoko ente, organismo eta erakundeei dena delako produktu hori erabiltzeko, baita jabetza intelektualeko eskubideak lagatzeko aukera bazterten denean ere.

2. Erakunde kontratatzaileak ezingo ditu inolaz ere langileak kontratatu zerbitzu-kontratuaren bitartez, horren barnean direla zenbatekoa dela-eta kontratu txiki gisa izapidetzen direnak.

Zerbitzu-kontratua azkentzen denean, kontratuaren objektua diren lanak egin dituztenak ezingo dira inoiz ere geratu erakunde publiko kontratatzailearen langile modura. Horretarako, Administrazioak langileek edo arduradunek ezingo dituzte egin harreman juridiko eta lanekoaren zati gisa enpresa kontratistari dagozkion ahalmenez baliatzea berekin dakarten egintzak.

3. Aplikazio informatikoak garatzea edo mantentzea berekin dakarten zerbitzu-kontratuaren, zerbitzu-prestazioaren osagaiei erreferentzia eginez zehaztu ahalko da kontratuaren objektua. Horretarako, administrazio-klausula partikularren agirian jardueraren arabera, denbora-unitateen arabera edo bi modalitateen nahasketa baten arabera ezarriko da prestazioaren osagai bakoitzaren prezioa. Jarduera-unitate horiek kategoria profesionalen edo kostuaren arabera definituko dira, eta edozein garapenarako homogeneoak izango dira.

Definizio hori garatu beharreko funtzionaltasunei erreferentzia eginez osatu beharko da, eta haien esparrua hasiera batetik geratu beharko da zehaztuta. Hori, halere, ez da eragozpena izango funtzionalitate horiek Administrazioak zehazteko, inguruabar tekniko edo ekonomikoei edo erabiltzaileak betetze-epean dauzkan beharrei erreparatuta, betiere administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusitako moduan.

Kontratu horien finantzaketa eta ordainketa prestazioaren osagaiak exekutatzeko behar den erritmoa egokituko dira; horretarako, kontratuaren arduradunak behar diren

neurriak hartuko ditu urte bakoitzeko ordainketak programatzeko, kontratua egikaritzeko aldiari zehar.

309. artikulua. *Prezioa zehaztea.*

1. Administrazio-klausulen agiriak ezarriko du zerbitzu-kontratuaren prezioa zehazteko sistema. Zenbait aukera daude: prestazioaren osagaiei buruzkoa izatea, gauzatze-unitateei buruzkoa izatea edo denbora-unitateei buruzkoa izatea, edo, horrela xehakatzeko ezinezkoa bada edo komeni ez bada, honenbesteko finko bat ezartzea, edo tarifa jakin batzuk aplikatuz zehaztea, edo aukera horietako baten baino gehiagoren konbinazioa aplikatzea.

Prezioa gauzatze-unitateen bidez ezartzen denean, ez da aldaketatzat hartuko, baldin eta horrela ezarri bada administrazio-klausula partikularren agirian, kontratuan aurreikusitako unitateen kopurutik egiaz gauzatutako kopuruan bakarrik gertatzen den aldaketa, prestazioa modu egokian ematen den bitartean gertatutakoa betiere; halakoak likidazioan jasotzen ahalko dira, kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorako gastua goera sortzen ez badute.

2. Zenbait zerbitzu konplexutan, kontratua egikaritzeak berekin dakar hasierako inbertsio-kostuak izatea eta aurreikusi ohi da sortutako obrak edo ekipamenduak erakunde kontratatzailearen ondareari gehituko zaizkiola kontratua amaitu edo suntsitu ondoren; halakoetan, ordainsari-sistema bat ezartzen ahalko da haiek konpentsatzeko.

310. artikulua. *Irakaskuntza-jardunetarako kontratazio-araubidea.*

1. Kontratuak, batzuetan, ikastetxe publikoetan Administrazioako langileei prestakuntza-ikastaroak edo hobekuntza-ikastaroak emateko egiten dira, edo mintegi, eztabaida, mahai-inguru, hitzaldi, kolaborazio edo antzeko beste jarduerak batzuetarako. Halakoetan, jarduerak horiek pertsona fisikoek egin behar badituzte, lege honen xedapenak ez dira aplikatu behar kontratua prestatzeko eta adjudikatzeko.

2. Era honetako kontratuetan, ordainketa aurreratu partziala ezarri ahalko da, kontratistak lehenago bermerik jartzen badu; baina lagapena baimentzeko modurik ez da izango.

3. Artikulu honetan aipatutako kontratuak egon badaudela egiaztatzeko, aski da agintari eskudunak izendapena egitea.

## 2. atala. Zerbitzu-kontratua egikaritzea

311. artikulua. *Egikaritzea, kontratistaren erantzukizuna, eta zerbitzu-kontratuak betetzea.*

1. Kontratua bere klausuletan eta baldintza-agirietan ezarritakoari jarraituz egikarituko da, eta kontratuaren arduradunak kontratistari hura interpretatzeko emandako jarraibideekin bat, halako arduradunak izendatu den kasuetan. Bestela, eginkizun hori kontratazio-organoen mendeko zerbitzuei egokituko zaie.

2. Kontratista izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua egikaritzean izandako omisioak, errakuntzak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta Administrazioari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

3. Administrazioak erabakiko du kontratistak prestazioa ondo eman ote duen, hau da, kontratua egikaritzeko eta betetzeko jarritako baldintzak bete ote dituen, eta, beharrezkoa bada, kontratatutako prestazioak eman daitezzen eskatuko du, eta, prestazioak jaso dituztenean akatsik ikusi badu, akatsak zuzen daitezzen. Baldin eta kontratistak ez baditu lanak hitzartutako prestazioaren arabera egin, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egotzi ahal bazaizkio, Administrazioak ezetsi egin ditzake lanak, eta ez du izango haiek ordaintzeko betebeharririk, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

4. Eta, berme-epean ikusten badu lanetan badela gaizki eginik edo akatsik, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari halako guztiak konpontzeko eskatzeko.

5. Berme-epa amaitu eta Administrazioak ez badu aurreko apartatuetako eragozpenik edo salaketarik jarri, amaitu dira kontratistak prestazioarengatik zituen erantzukizunak. Nolanahi ere, kontratua obra-proiektuak egiteko bazen, halako kontratuetarako ezarritakoa eta akatsak konpondu beharraz eta erantzukizunaz 314. eta 315. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.

6. Jarduera edo bitarteko hutsezko kontratuak hasieran aurreikusitako epea edo adostutako luzapenak betetzen direnean azkenduko dira; hori, halere, ez da eragozpena izango Administrazioak duen prerrogatibarako; alegia, kontratistaren erantzukizuna garbitzeko geroztik edozein ez-betetze atzematen badu ere.

7. Kontratistak eskubidea edukiko du kontratatutako prestazioa ondo edo gaizki eman den adierazteko egiten diren oharrek jakiteko eta haietaz esateko duena entzun dakion.

312. artikulua. *Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuen berezitasunak.*

Herritarrentzako zuzeneko prestazioak berekin dakartzaten zerbitzu-kontratuetan, honako preskripzio hauek bete beharko dira:

a) Izaera hori duen zerbitzu bat kontratatu baino lehen, dagokion araubide juridikoa ezarri beharko da; araubide horrek espresuki adierazi behar du dagokion administrazioak bere egiten duela dena delako jarduera, herritarrentzako prestazioen helmena zehaztu behar du, eta zerbitzua emateari lotutako alderdi juridiko, ekonomiko eta administratiboak arautu behar ditu.

b) Izaera horretako zerbitzu-kontratu baten adjudikaziodunak zenbait betebeharrak izango ditu: zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin ematea eta zerbitzua ezarri diren baldintzetan eta –hala badagokio– ezarritako kontraprestazio ekonomikoa ordainduta erabiltzeko eskubidea bermatzea partikularrei; zerbitzuaren funtzionamendua egokia izateaz arduratzea; zerbitzua betetzeak hirugarrenei eragiten ahal dizkien kalteen ordainak ematea, Administrazioari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik eragindakoak direnak salbu; eta kontratuaren arabera obrak eta instalazioak entregatu behar baditu haiek kontserbazio-eta funtzionamendu-egoera egokietan entregatzea.

c) Artikulu honetan araututako zerbitzuei atxikitako ondasunak ezingo dira enbargatu.

d) Kontratistak kontratua betetzen ez badu eta hortik zerbitzuari nahasmendu larria eta beste baliabide batzuekin konpondu ezinikoa sortzen bazaio, eta Administrazioak kontratua suntsiarazteko erabakirik hartzen ez badu, Administrazioak erabaki dezake nahasmendua desagertu arte zerbitzu publikoa bahitzea edo hartan esku hartzea. Nolanahi ere, benetan sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari.

e) Kasuan kasuko herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuak ondo dabilzala bermatzeko, beharrezkoak diren polizia-ahalmenak gordeko ditu beretzat Administrazioak.

f) Oro har, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuak administrazio kontratatzailearenaz beste egoitza edo instalazio batzuetan emango dira. Hori ezinezkoa bada, horretarako arrazoi objektiboak jaso beharko dira. Horrelako kasuetan, plantillak nahastu ez daitezen, ahaleginak egingo dira enpresa kontratistako langileek ez ditzaten espazioak eta lantokiak partekatu Administrazioaren zerbitzuko langileekin, eta enpresa kontratistako langileak eta bitartekoak behar diren ikur bereizgarriekin identifikatuko dira; esate baterako, uniformeak edo errotulazioak erabiliko dira.

g) Kontratua suntsitzeko 313. artikuluan ezarritako kausez gainera, 294. artikuluan c), d) eta f) letretan aipatutakoak izango dira artikulu honetan aztertutako zerbitzu-kontratuak suntsiarazteko kausak.

*3. atala. Zerbitzu-kontratuak suntsiaraztea*

313. artikulua. *Suntsiaraztearen kausak eta ondoreak.*

1. Kausa orokorrean gain, honako hauek dira zerbitzu-kontratuak suntsiarazteko kausak:

a) Zerbitzua ematen hasi baino lehen atzera egitea edo kontratuaren hasiera etenda uztea kontratazio-organoari egotz dakiokkeen arrazoi batengatik lau hilabetetik gorako epe baterako –baldintza-agirian epe laburragorik ezarri ezearn–, kontratuan zerbitzua hasteko adierazitako egunetik kontatzen hasita.

b) Zerbitzu ematen hasi ondoren hartan atzera egitea, edo kontratua zortzi hilabetetik gorako epean etetea kontratazio-organoaren erabakiz, baldintza-agirian epe laburragoren bat aipatzen ez bada.

c) Kontratu osagarriak suntsitu egingo dira, betiere, kontratu nagusia suntsiarazten denean.

2. Kontratua suntsiarazteak eskubidea emango dio kontratistari, nolahi ere, berak kontratuaren arabera benetan egin eta Administrazioak hartutako azterlan, txosten, proiektu, lan zein zerbitzuen prezioa jasotzeko.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren a) eta c) letretan aurreikusitako suntsiarazte-kasuetan, kontratistak honako kalte-ordain hau jasotzeko eskubidea izango du soilik, kontzeptu guztiengatik: kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 3, BEZik gabe.

Artikulu honen 1. apartatuaren b) letretan jasotako suntsiarazte-kasuetan, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 6 jasotzeko, BEZik gabe, eman ez diren zerbitzuengatik, mozkin industrial gisa. Eman gabeko zerbitzutzat hauek hartuko dira: jatorrizko kontratuan jaso zirenen eta onetsitako aldatetetan jaso direnen eta atzera egitea edo etetea jakinarazten den egunera arte egin direnen arteko aldeari dagozkionak.

*4. atala. Akatsak konpontzea, kalte-ordainak eta erantzukizunak obra-proiektuak egiteko kontratuetan*

314. artikulua. *Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea.*

1. Zerbitzu-kontratua obra-proiektu bat osorik egiteko baldin bada eta kontratistaren eruz akatsik, trakeskeria teknikorik edo oker materialik baldin badago, egin beharreko zer edo zer egin gabe geratu baldin bada edo lege edo erregelamendurik urratu baldin bada, kontratazio-organoak aginduko dio egin beharreko zuzenketak egiteko. Horretarako, epe jakin bat utziko dio, baina inoiz ez bi hilabete baino luzeagoa.

2. Epe hori igaro arren akatsak zuzendu ez badira, Administrazioak, nondik norakoak kontuan hartuta, edo kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, edo kontratistari beste epe bat ematea.

3. Lehenengo kasuan, bermea bahitu beharko da, eta kontratistak Administrazioari kontratuaren prezioaren ehuneko 25ekoaren pareko kalte-ordaina emateko betebeharra edukiko du.

4. Bigarren kasuan, zuzendu gabeko akatsak konpontzeko emango den epe berria hilabetekoa eta luzatu ezina izango da, eta kontratuaren prezioaren ehuneko 25ekoaren pareko zigorra jasoko du kontratistak.

5. Kontratistak beste urraketarik egiten badu, suntsitu egin beharko da kontratua, eta Administrazioari prezio itunduaren adinako kalte-ordaina eman beharko dio eta bermea galduko du.

6. Kontratistak, proiektua egiteari uko egiten badio azken epea eman aurreko edozein unetan, kontratuaren prezioaren erdiaren pareko kalte-ordaina eman beharko du, eta bermea galduko du, gainera.

315. artikulua. *Obrak egitean gertatutako desbideratzeen ondoriozko kalte-ordainak eta proiektuaren akats edo okerren ondoriozko erantzukizuna.*

1. Proiektuan aurreikusitako obra egiteko aurrekontua obraren benetako kostutik ehuneko 20 baino gehiago urruntzea gerta daiteke, goitik zein behetik, kontratista-aholkulariari egotz dakizkiokeen errakuntzen edo egin gabekoen ondorioz. Halakoetan, proiektua egiteko kontratuaren prezioa gutxituko da, kalte-ordain gisa, desbideratzearen ehunekoaren arabera, gehienez ere haren erdiaren parera iristen den kopurura arte. Hau da kalte-ordainen baremoa:

- a) Ehuneko 20 baino gehiago eta ehuneko 30 baino gutxiago desbideratu bada, kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 30 izango da kalte-ordaina, BEZik gabe.
- b) Ehuneko 30 baino gehiago eta ehuneko 40 baino gutxiago desbideratu bada, kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 40 izango da kalte-ordaina, BEZik gabe.
- c) Desbideratzea ehuneko 40 baino gehiagokoa bada, kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 50 izango da kalte-ordaina, BEZik gabe.

Kasuan kasuko ebazpena jakinarazten zaionetik hilabeteko epean ordaindu behar du kontratistak kalte-ordainaren zenbatekoa; espedientea izapidetu eta interesdunari entzun ondoren emango da ebazpena.

2. Aurreko apartatuan, aurreko artikuluan eta 233.4 artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzita, kontratistak erantzun beharko du obrak egin edo ustiatzean kontratazio-organoari zein hirugarrenei sortutako kalte-galerengatik, proiektuko akats eta eskasia teknikoengatik edo berak egin eta berari egotz dakizkiokeen errakuntza materialengatik, hutsegiteengatik eta legezko zein erregelamenduzko aginduen aurkako arau-hausteengatik.

Kontratistari eska dakiokkeen erantzukizunetik datorren kalte-ordaina, bestalde, sortutako kalte-galeren zenbatekoaren ehuneko 50era artekoa izango da, eta proiektua dela-eta itundutako prezioaren bost halakoa gehienez ere, eta, Administrazioak proiektua hartzen duenetik kontatuta, hamar urteko epean eskatu ahalko zaio; horien kontura izango da kalte-ordainaren gainerako zatia, hirugarrenei ordaindu behar zaienean.

## HIRUGARREN LIBURUA

### Sektore publikoko beste ente batzuen kontratuak

#### I. TITULUA

#### Administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailen kontratuak

316. artikulua. *Araubide juridikoa.*

Administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailen kontratuak titulu honetako arauak gobernatuko dituzte.

317. artikulua. *Erregulazio harmonizatuko kontratuak prestatu eta adjudikatzea.*

Titulu honek aipatzen dituen botere adjudikatzailak ituntzen dituzten eta erregulazio harmonizatuari lotuta dauden kontratuen prestatzeko eta adjudikatzeko, lege honen II. liburuaren I. tituluaren I. kapituluaren 1. eta 2. ataletan ezarritako arauak jarraituko zaie.

318. artikulua. *Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak adjudikatzea.*

Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak adjudikatzean, honako xedapen hauek aplikatuko dira:

- a) 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak eta 15.000 eurotik beherakoa balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak zuzenean adjudikatu ahalko zaizkio



jarduteko gaitasuna duen edozein enpresabururi, baldin eta kontratuaren objektua den prestazioa emateko behar adinako gaikuntza profesionala bada.

b) 40.000 euro edo gehiagoko eta 5.225.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak eta 15.000 eurotik gorako eta 209.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak lege honen bigarren liburuaren, I. tituluaren I. kapituluaren 2. atalean aurreikusitako prozeduretatik edozeinen bitartez adjudikatu ahalko dira, publikitaterik gabeko prozedura negoziatuaren salbuespenarekin; azken hori, izan ere, 168. artikuluan aurreikusitako kasuetan erabili ahalko da soilik.

319. artikulua. *Ondoreak eta azkentzea.*

1. Administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzailerekin egindako kontratuen ondoreak eta ezeztatzea zuzenbide pribatuko arauak gidatuko dituzte. Aurrekoa gorabehera, honako artikulua hauetan xedatutakoak izango zaizkio aplikatzekoak: 201. artikulua, ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharreri buruzkoa; 202. artikulua, kontratuak egikaritzeko baldintza berezietan buruzkoa; 203. artikulutik 205. artikulurakoak, kontratuak aldatzeko kasuetan buruzkoa; 214. artikulutik 217. artikulurakoak, lagapenari eta azpikontratazioari buruzkoa, eta 218. artikulutik 228. artikulurakoak, kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeari buruzkoa; halaber, aplikatzekoak izango zaizkio 198. artikuluan 4. apartatuan, 210. artikuluan 4. apartatuan eta 243. artikuluan 1. apartatuan ezarritako ordainketa-baldintzak.

Halaber, kontratuaren aldaketa administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoen kasuetan, erakunde kontratatzailea zer ministerio-saili edo administrazio autonomikoko edo toki-administrazioiko zer organori atxikita dagoen edo haietako zeinen tutoretzapean dagoen, haren baimena beharko da, baldin eta zenbatekoa 6.000.000 eurokoa edo handiagoa bada eta aldaketaren zenbatekoa banaka nahiz osotara kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino handiagoa bada BEZik gabe. Baimen hori eman aurretik, betiere, Estatuko Kontseiluak edo autonomia-erkidegoaren aholkularitza-organo baliokideak nahitaezko txostena eman beharko du.

2. Kontratu horietan, nolana ere, suntsiarazteko kausa izango da prestazioa hasieran itundutako baldintzetan ezin ematea 204. eta 205. artikuluen arabera kontratua ezin alda daitekeenean, bai eta 211. artikuluan i) letran jasotakoa ere.

Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuei 279. artikuluan eta 294. artikuluan haietako bakoitzarentzat ezarritako suntsiarazte-kausak aplikatuko zaizkie. Aurrekoa gorabehera, botere adjudikatzailerekin zer ministerio-saili edo administrazio autonomikoko edo toki-administrazioiko zer organori atxikita dagoen edo haietako zeinen tutoretzapean dagoen, hark erabaki beharko du obra edo zerbitzua berreskuratzea, haien ustiapena etetea, haiek bahitzea edo haietan esku hartzea.

320. artikulua. *Proiektuko akatsen edo errakuntzen ondorioz kontratistak duen erantzukizuna.*

Obra-proiektu bat osorik egitean dautzan zerbitzu-kontratuetan, proiektuaren akats edo errakuntzen erantzukizuna eskatuko zaio kontratistari, 314. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

## II. TITULUA

### **Botere adjudikatzailerekin ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuak**

321. artikulua. *Botere adjudikatzailerekin ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuak adjudikatzea.*

Botere adjudikatzailerekin ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuak adjudikatzerakoan, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Erakunde horietako organo eskudunek jarraibide batzuk onetsiko dituzte, eta haietan kontratazio-prozedurak arautuko dira, halako moduz non publikotasun-,

konkurrentzia-, gardentasun-, konfidentzialtasun-, berdintasun-printzipioen eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren eraginkortasuna bermatuko den; era berean, bermatuko da eskaintza onena aurkezten dutenei adjudikatuko zaizkiela kontratuak, 145. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Arautzen dituzten kontratuen adjudikazio-prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarriko dira jarraibide horiek, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko dira.

Estatuko sektore publikoaren eremuan, jarraibideak onesteko, erakundeari aholkularitza juridikoa ematen dion organoak txosten bat egin beharko du aldez aurretik.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa gorabehera, artikuluko honek aipagai dituen erakundearen organo eskudunek kontratuak adjudikatu ahalko dituzte onetsiak dituzten jarraibideak aplikatu gabe, betiere honako arau hauei jarraituz:

a) 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak edo 15.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak zuzenean adjudikatu ahalko zaizkio jarduteko gaitasuna duen edozein enpresabururi, baldin eta kontratuaren objektua den prestazioa emateko behar adinako gaikuntza badu hala dagokionean.

b) Aurreko letran adierazitakoen balio zenbatetsi bera edo handiagoa duten kontratu edo akordioek, edo hornitzaileak hautatzeko ituntzen direnek, gutxienez ere honako arau hauek bete beharko dituzte, betiere berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren, publikotasunaren eta konkurrentzia librearen printzipioak errespetatuta:

1.a Lizitazio-iragarkia erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da; hori, halere, ez da eragozpena izango bestelako publizitate-bitarteko gehigarriak erabiltzeko. Eskaintzak aurkezteko behar den dokumentazio guztiak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko moduan egon beharko du lizitazio-iragarkia argitaratzen den unetik.

2.a Eskaintzak aurkezteko epea haiek aurkezteko arrazoizkoa eta beharrezkoa den denbora kontuan hartuta finkatuko du erakunde kontratatzaileak; epe hori ezingo da inolaz ere izan hamar egunetik beherakoa, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

3.a Kontratu eskaintzarik onenari adjudikatu beharko zaio, 145. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Kasu berezietan, beste irizpide objektibo batzuk erabili ahalko dira adjudikaziorako. Kontratuari buruzko dokumentazioan zehaztu beharko dira irizpide horiek.

4.a Arrazoitu egin beharko da, beti, zer kontratista hautatzen den, eta hautu hori erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

3. Beren trafikoari dagozkion eragiketetarako, artikuluko honetan aipatzen diren erakundeek kontratazioa arrazionalizatzeko sistemak ezarri ahalko dituzte; esate baterako, esparru-akordioak, eskuratzeko sistema dinamikoak edo hornitzaileen homologazioa. Prozedurak, sistema horietan sartu ahal izateko, gardena izan beharko du, eta inor diskriminatzen ez duena, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

4. Erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, eta alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoen eremurako haien arauetan ezartzen dena, erakunde kontratatzailea atxikita dagoen edo haren tutoretza duen organismoak eta ministerio-sailak kontrolatuko dute erakunde kontratatzaile horrek bete egiten dituen aurreko apartatuetan ezarritako arauak.

5. Artikuluko honetan aipatzen diren erakundeek kontratuak prestatzeko eta adjudikatzeko egindako jarduketak bide administratiboan aurkaratu ahalko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraituz, aurkaratze hori erakunde kontratatzailea atxikita dagoen edo haren tutoretza dagokion sail, organo, ente edo organismoaren titularrari zuzenduta. Erakunde kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, kontrol edo partaidetza handiena duen administrazioan dagokion organoak izango du eskumena.

322. artikulua. *Kontratuen ondoreak, aldaketak eta azkentzea. Proiektuko akatsen edo errakuntzen ondorioz kontratistak duen erantzukizuna.*

1. Botere adjudikatzailleak ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuen ondoreak, aldaketak eta azkentzea aplikatzekoak zaizkien zuzenbide pribatuko arauen bitartez erregulatuko dira.

2. Obra-proiektu bat osorik egitean dautzan zerbitzu-kontratuetan, proiektuaren akats edo errakuntzen erantzukizuna eskatuko zaio kontratistari, 314. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

## LAUGARREN LIBURUA

### Kontratazioa kudeatzeko administrazio-antolakuntza

#### I. TITULUA

#### Kontrataziorako organo eskudunak

#### I. KAPITULUA

#### Kontratazio-organoak

323. artikulua. *Estatuko kontratazio-organoak.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrean, ministroak eta estatu-idazkariak dira kontratazio-organoak. Horrek esan nahi du ahalmena dutela beren izenean kontratuak egiteko beren eskumeneko esparruan.

Ministerio-departamentuetan kontratazio-organo bat baino gehiago baldin badago, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuak egin behar badira baina kontratuak organo horietako baten baino gehiagoren esparrua ukitzen badute, ministroak izango du kontratuak egiteko eskumena, non eta ez den kontratazio-batzordearen esku uzten.

2. Organismo autonomoetan, enpresa-erakunde publikoetan eta estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakunde publikoetan, presidenteak edo zuzendariak izango dira kontratazio-organoak, eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideetan, berriz, zuzendari orokorrak, non eta erakunde horiek sortzeko edo arautzeko arauetan ez den horri buruzko berariazko xedapenik.

3. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari dagozkio, Kontratazio Zentralizatuko Batzordearen bitartez, lege honetako 229. eta 230. artikuluetan araututako kontratazio zentralizatuko estatu-sistemaren kontratazio-organoaren eginkizunak.

4. Ministerioetan eta organismo autonomoetan, enpresa-erakunde publikoetan eta Estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakunde publikoetan, bai eta Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileetan eta zerbitzu erkideetan ere, kontratu jakin batzuetan, bada beste aukera bat ere: kontratazio-batzordeak osatzea. Kontratazio-organoak balira bezala lan egingo dute, eta ministerio-departamentuaren titularrak jarriko ditu zenbatekoen mugak edo zehaztuko ditu kontratuen ezaugarriak. Hona hemen zeintzuk diren kontratu horiek:

a) 232. artikulua 1. apartatuaren b) eta c) letretan zehazturik dauden obra-kontratuak, non eta ez diren kontratazio zentralizatukoak deklaratu.

b) Ondasun kontsumigarrien edo erabiliz erraz hondatzeko moduko ondasunen hornidura-kontratuak, zentralizaturik eskuratu beharreko ondasunenak izan ezik.

c) Zentralizaturik kontratatu beharrekotzat jo ez diren zerbitzu-kontratuak.

d) Aurreko bi letren arabera kontratazio-batzordearen eskumenekotzat jo ez diren eta kontratazio-organo bati baino gehiagori eragiten dioten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, salbu eta zentralizaturik kontratatu beharreko ondasunak edo zerbitzuak dauzkatenak objektutzat.

Erregelamendu bidez zehaztu beharko da nola osatuko den kontratazio-batzordea. Kide guztien artetik, bat lege-aholkularia izango da, batzordeari lege-aholkuak emateko, eta beste bat, kontu-hartzailea. Aholku-emaile horrek funtzionarioa izan beharko du eta ardura hori legez edo erregelamenduz esleitu izan beharko du. Ordezkaritzako kargu publikoak dituztenek, goi-kargudunek, hautapen edo izendapen politikoko langileek eta behin-behineko langileek ezingo dute parte hartu kontratazio-batzordeetan, eta ezingo dute egin, ezta ere, eskaintzak baloratzeko txostenik. Behin-behineko langileek behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean parte hartu ahalko dute soilik kontratazio-batzordeetan. Kasuan kasuko kontratuaren dokumentazio teknikoaren idazketan parte hartu duten langileek ere ezingo dute parte hartu kontratazio-batzordeetan.

Adjudikaziorako prozedura ireki sinplifikatua erabiltzen den kontratuen kasuan, nolahi ere, lehendakaria, idazkaria, kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa legez edo erregelamenduz esleitu duen funtzionarioa eta kontu-hartzailea bertaratzen direnean iritziko zaio Kontratazio Batzordea balio duen eran eratu dela, salbu eta 159.6 artikulua kasuan; izan ere, azken horretan, ez da nahitaezkoa izango Mahaia 326.1 artikuluan xedatutakoaren arabera eratzea.

Kontratazio-batzordeek aholkua eskatu ahalko diete kontratuaren objektuarekin lotura duten gaietan ezagutza egiaztatua duten teknikari edo aditu independenteei. Laguntza hori berariaz islatu beharko da espedientean, teknikari edo aditu laguntzaileen izenak, haien prestakuntza eta haien esperientzia profesionala adierazita.

5. Erakunde edo ministerio-sail batek baino gehiagok baldin badute kontratua egiteko interesa baina kontratazio-organo bakar batek egin behar baldin baditu izapideak, beste aukera bat ere badago, hau da, gainerako erakundeek edo ministerio-sailek kontratua finantzatzen laguntzea, erregelamenduz ezarritako eran eta aurrekontu-araurik urratu gabe, eta jarduera-hitzarmen edo -protokoloetan ezarritako eran.

6. Estatuko arlo publikoko sozietateen eta fundazioen legezko ordezkariak kontrataziorako zer-nolako gaitasuna duten jakiteko, erakunde horietako bertako estatutuetan eta kasuan-kasuan zuzenbide pribatutik aplika daitezkeen arauetan begiratu beharko da.

#### 324. artikulua. *Kontratatze baimena.*

1. Lege honen 3. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren indarrez botere adjudikatzaielaren izaera duten Estatuko sektore publikoko erakundeetako kontratazio-organoek, kasu hauetan, Ministro Kontseiluaren baimena beharko dute kontratuak egiteko:

- a) Kontratuaren balio zenbatetsia, 101. artikuluan jasota dagoen moduan kalkulaturik, hamabi milioi eurokoa edo handiagoa baldin bada.
- b) Kontratuaren ordainketa finantza-errentamenduaren bidez edo erosteko aukeradun errentamendu-sistema bidez egitea hitzartu bada eta urtekoen kopurua lau baino gehiago bada.
- c) Hamabi milioi euroko edo gehiagoko balio zenbatetsiko esparru-akordioak. Esparru-akordio horiek eginda, ez da Ministro Kontseiluaren baimena beharko esparru-akordio horretan oinarritutako kontratuak egiteko.

2. Ministro Kontseiluaren baimen hori, aurreko apartatua aipaturik datorren hori, espedientea onartu baino lehenago lortu behar da. Baimen hori lortzeko, kontratazio-organoek gutxienez ere honako dokumentu hauek igorri beharko dituzte:

- a) Kontratuaren beharrari eta egokitasunari buruzko justifikazioa, zeinak lege honen 28. artikuluan aipatzen baitira.
- b) Kreditua badagoela egiaztatze ziurtagiria edo, aurrekontu zenbatetsia duten Estatuko sektore publikoko erakundeek kasuan, finantzaketa badagoela egiaztatzen duen agiri baliokidea.
- c) Administrazio-klausula partikularren agiria.
- d) Zerbitzu juridikoak baldintza-agiriari buruz egindako txostena.
- e) Eta, nahitaezkoa bada, artikulua honen 6. apartatua ezarritako txostena.

Ministro Kontseiluak ematen duen baimena kontratua egiteko baimen orokorra izango da, eta inolaz ere ez du berekin ekarriko kontratazio-organoak egindako izapidetak ontzat ematea, ez eta aldeak salbuestea ere espedientearen izapidetzea eta hura osatzen duten dokumentuen onespena direla-eta dagokien erantzukizunetik.

Ministro Kontseiluaren baimena lortu ondoren, kontratazio-organoari egokituko zaio espedientea onestea eta gastua onestea.

3. Ministro Kontseiluak aukeran eska dezake beretzat beste edozein kontratutan parte hartzea eta berak baimena eman behar izatea.

4. Ministro Kontseiluak, kontratu bat egitea baimentzen duenean, era berean baimendu beharko ditu haren aldaketak, baldin eta aldaketa horiek baldintza-agirian aurreikusi gabe egonda haien ehunekoa banaka edo osotara kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10etik gorakoa bada BEZik gabe; bai eta kontratua suntsiaraztea ere, kasua bada.

Informazio hori Ministro Kontseiluaren onesten den eguneko erreferentzietan argitaratuko da.

5. Estatu-idazkariek edo, bestela, lege honen 3. artikulua 3. apartatuan ezarritakoaren indarrez botere adjudikatzailearen izaera duten erakundeak atxikita dauden ministerio-sailtako titularrek finkatu ahalko dute balio zenbatetsiaren zer zenbatekotatik gora izango den beharrezkoa beren baimena izatea kontratuak egin ahal izateko.

Erakunde horiek, horretarako, atxikita dauden estatu-idazkaritzari edo, bestela, atxikita dauden ministerio-sailari aurkeztu ahalko diote kasuan kasuko proposamena.

6. Estatu sektore publikoaren eremuan, obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratu bat egin baino lehen, baldin eta hamabi milioi eurotik gorako balio zenbatetsia badu, nahitaezkoa izango da Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txosten bat, eta loteslea izango da. Txosten horretan, ministerioak iritzia eman beharko du kontratuak aurrekontuari eta finantza-konpromisoei dagokienez dakartzan ondorioei buruz, bai eta aurrekontuen egonkortasunaren helburua lortzeari buruz ere, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezarritakoari jarraituz.

Kontratu horietan, halaber, kontratuaren zenbatekoa zein den ere, beharrezkoa izango da Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txosten loteslea finantzaketan Estatuaren edozein laguntza edo ekarpen jasotzea aurreikusten denean edo mailegu nahiz aurrerakinak jasotzea aurreikusten denean.

Horretarako, kontratazio-organoak, kontratuaren iraunaldi osoan zehar, kontratuko finantza- eta aurrekontu-alderdiei buruzko informazio osoa eman beharko du, finantzaketa lortzeko mekanismoei eta erabiltzekoak diren bermeei buruzkoa barne.

Apartatu honen lehengo bi paragrafoetan aipatzen den txostena egitean, kontuan hartu beharko da, Estatu sektore publikoaren eremuan, horri buruz Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoak ematen duen txostena. Batzorde hori Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea sortzeko azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarriaren bidez sortu zen.

Hamabi milioiko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuen kasuetan, haien finantzaketan Estatuaren edozein laguntza edo ekarpen jasotzea edo mailegu nahiz aurrerakinak jasotzea aurreikusten bada, bat bakarria izango da apartatu honen lehen eta bigarren paragrafoetan aipatzen den txostena, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioarena.

Kontratazio-organoak, bestalde, artikulua honen lehen apartatuan aipatzen den Ministro Kontseiluaren baimena izapidetu baino lehen eskatuko ditu apartatu honen lehen eta bigarren paragrafoetan aipatutako txostenak txosten hori nahitaezkoa denean, eta, edonola ere, kontratazio-espedientea onetsi baino lehen eta gastua onetsi baino lehen.

## 325. artikulua. *Deskontzentrazioa.*

1. Kontratazioaren inguruko eskumenak beste edozein organoren alde deskontzentra daitezke, beste organo horiek kontratazio-organoaren menpe egon edo ez. Edonola ere, Ministro Kontseiluaren errege-dekretu baten bidez egin beharko da hori.

2. Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileetan eta zerbitzu erkideetan, zuzendariak kontratazio-gaietan dituzten eskumenak ere deskontzentra daitezke. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean dago jasota nola egin behar den eta zein baldintza bete behar diren (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bategina).

## II. KAPITULUA

### Laguntza-organoak

326. artikulua. *Kontratazio-mahaiak.*

1. Kontratatzeko eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahai eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organoak, salbu eta 168. artikuluan b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahai eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahai eratzea.

2. Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, lege honetan eta haren erregelamenduzko garapenean esleitzen zaizkion artean:

a) 140. eta 141. artikuluetan aipatzen diren alde aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztariak kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatuak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.

b) Lizitatuak proposamenak baloratzea.

c) Kasua bada, nabarmenki baxuegiztat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, lege honen 149. artikulua aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.

d) Kontratua eskaintza onena aurkeztu duen lizitatuari adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoari, 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz.

e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoak eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren agiriari jaso beharko da hori.

3. Presidenteak, erregelamendu bidez aukeratzen diren kideek eta idazkari batek osatuko dute kontratazio-mahaiak.

Mahaiaren osaera kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

4. Kontratazio-organoak izendatuko ditu mahaikideak.

5. Idazkaria funtzionarioen artean aukeratu beharko dute, edo, hala izan ezean, kontratazio-organoaren mendeko beste langile mota batzuen artean; mahaikideen artean, berriz, nahitaez, kontu-hartzaile bat egon beharko da, eta funtzionario bat, kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emateko betebeharra legez edo erregelamendu bidez aitortua dutenen artean aukeratua. Horiek ezean, kontratazio-organoarentzat lanean diharduten eta hari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duten pertsonetako bat izan beharko da kide, eta beste bat, ekonomiaren eta aurrekontuaren arloa kontrolatzeko eginkizuna dutenen artean aukeratua.

Dagokion kontu-hartzaile nagusiaren titularraren ebazpen batez erabaki ahalko da zein kasutan parte hartu ahalko duten aipatutako zentroko funtzionario berariaz gaituek kontratazio-mahaietan kontu-hartzailearen ordez.



Ordezkaritzako kargu publikoak dituztenek edo behin-behineko langileek ezingo dute parte hartu kontratazio-mahaietan, eta ezingo dute egin, ezta ere, eskaintzak baloratzeko txostenik. Behin-behineko langileek behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean parte hartu ahalko dute soilik mahaietan. Kasuan kasuko kontratuaren dokumentazio teknikoaren idazketan parte hartu duten langileek ere ezingo dute parte hartu kontratazio-mahaietan, bigarren xedapen gehigarrian aipatutako kasuetan izan ezik.

Kontratazio-mahaiek, halaber, aholkua eskatu ahalko diete kontratuaren objektuarekin lotura duten gaietan ezagutza egiaztatua duten teknikari edo aditu independenteei. Laguntza hori kontratazio-organoak baimenduko du eta berariaz islatu beharko da espedientean, teknikari edo aditu laguntzaileen izenak, haien prestakuntza eta haien esperientzia profesionala adierazita.

6. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa alde batera utzita, lege honen 159. artikuluan araututako prozedura ireki sinplifikatua esku hartzen duen kontratazio-mahaia balio duen eran eraberrita dagoela iritziko zaio, baldin eta lehendakari bat, idazkari bat, legez edo erregelamenduz kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa esleituta daukan funtzionario bat eta kontrol ekonomikoari eta aurrekontuaren kontrolari buruzko eginkizunak esleituta daukan funtzionario bat badaude.

7. Autonomia-erkidegoen legeek eta garapeneko legeriak ezarri ahalko dute lege honek kontratazio-organoari ematen dizkien adjudikazioari buruzko eskumenak ere balia ditzaketela kontratazio-mahaiek.

327. artikulua. *Lehia-elkarrizketarako mahai berezia edo berrikuntzarako elkartzeko prozedurarakoa.*

Administrazio publikoek bideratuko dituzten lehia-elkarrizketarako prozeduretan edo berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan, kontratazio-organoari aholku emateko, mahai bat eraberrita da, aurreko artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den moduan osatua. Mahai horretan, elkarrizketaren edo berrikuntzarako elkartzearen gaian bereziki prestatuta dauden kideak egongo dira, kontratazio-organoak izendaturik. Kide horiek mahai osatzen duten guztien herenak edo gehiago izango dira, eta eztabaidetan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute.

### III. KAPITULUA

#### Aholku-organoak

328. artikulua. *Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea.*

1. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea da Estatuko sektore publikoaren kontratazio publikoaren arloan erregulazio- eta kontsulta-organo espezifikoak, alde batera utzita erakunde kontratatzaileek zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren sektoreetan diharduten.

2. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea kide anitzeko organo bat da, osatzeko orduan sektore pribatuaren partaidetzari zabalik dagoena, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikia, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoari buruz ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkio.

Haren osaera eta araubide juridikoa erregelamendu bidez ezarriko dira, kontuan hartuta Kontratazio Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko lehendakariak eta Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalen ordezkari batek berezko kide gisa parte hartuko dutela hartan; hitza izango dute, baina botorik ez.

3. Lege honek eta beronen erregelamenduzko garapenak ematen dizkieten eginkizunak izango ditu Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, eta, nolana ere, honako hauek:

a) Kontratazio-sistemako alderdi administratibo, tekniko eta ekonomikoak hobetzeko egoki irizitako arau zein neurri orokorrak sustatzea.

b) Kontratazio-organoentzako gomendio orokor edo zehatzak onestea –argitaratu egingo dira horiek–, baldin eta administrazio-kontratazioari buruzko azterlanetatik edo kontratu zehatzen batetik ondorio interesgarriak ateratzen badira Administrazioarentzat.

c) Aztertze ematen zaizkion gaiei buruz informatzea eta, nahitaez, Estatuaren eskumeneko kontratazio publikoaren arloko legezko eta erregelamenduzko arau-xedapen guztiei buruz.

d) Kontratazioari buruzko zuzentarauek ezartzen dituzten informazio-betebeharrak betetzeko zeregina koordinatzea.

4. Halaber, Estatu Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak hiru urtez behin txosten bat egin eta igorriko dio Europako Batzordeari botere adjudikatzailer guztiei buruz, estatukoei, autonomikoei eta tokikoei buruz. Txosten horrek, besteak beste, honako gai hauek bilduko ditu erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen lizitazioa eta egikaritzea direla-eta:

a) 332. artikulua 8. apartatuak aipatzen duen gainbegiratze-txostenean jasotako informazioa, Kontratazio Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek igorritakoa.

b) Enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikoan duten partaidetza-mailari buruzko informazioa.

c) 20., 21. eta 22. artikuluetan ezarritako atalaseak ez gairatzeagatik erregulazio harmonizatukoak ez diren obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratu publikoei buruzko txosten estatistiko bat, zenbatespen bat egiten duena kontratu horiei dagokien aldiko guztizko balio metatuari buruz. Zenbatespen hori oinarritu ahalko da, bereziki, argitalpen-baldintzen indarrez eskura dauden datuetan edo, bestela, laginetatik abiatuta egindako zenbatespenetan.

d) Kontratazio publikoaren arloko Europar Batasunaren zuzenbidearen arabera hartutako betebeharrak betetzeaz zein organo arduratzen diren esaten duen informazioa.

e) Kontratazio publikoaren arloan Europar Batasunak duen araudia aplikatzeko orientabidea edo doako laguntza emateko edo haren aplikazioak dakartzan zailtasunei erantzuna emateko eta kontratazio-prozedurak planifikatzeko eta gauzatzeko hartutako neurriei buruzko informazioa.

Txostenak egin eta hurrengo hamabost egunetan igorriko zaizkio Europako Batzordeari. Aholku Batzordeak txosten nazionalen edukia argitaratuko du Europako Batzordera igorri eta hilabeteko epean, eta kasuan kasuko gardentasun-atarietan eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratuko ditu.

5. Ondorio guztietarako, Estatu Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea izendatzen da Europako Batzordearekiko lankidetzarako erreferentzia-gune kontratazio publikoari buruzko legeria aplikatzeari dagokionez. Halaber, elkarrekiko laguntza emateaz eta Europar Batasuneko gainerako estatuarekin lankidetzan aritzeaz arduratuko da, Europako araudian ezartzen diren gaiei buruzko informazio-trukea bermatze aldera, haien konfidentzialtasuna bermatuz.

6. Estatu Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak baliabide ekonomiko eta giza baliabide nahikoak eta egokiak edukiko ditu bere eginkizunak betetzeko.

329. artikulua. *Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzako Komitea.*

1. Estatu Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen barruan Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzako Komitea sortzen da, bere eskumenez baliatuz berariazko konpromisoak har ditzan administrazio publikoaren ekintza komunerako arloetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikulua printzipioei jarraituz. Lankidetzak, bereziki, honako helburu hauek izango ditu, besteak beste:

a) Kontratazio publikoaren arauak direla-eta administrazio publikoek jarraitutako interpretazio-irizpideak koordinatzea.

b) Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionalaren proposamena egitea. Proposamen hori, 332. artikulua 6.a) apartatuari jarraituz, Kontratazioa Gainbegiratzeko Bulegoari igorriko zaio, onets dezan.

c) Kontratazioa gainbegiratzeko jarduketak hautatzeko irizpideak proposatzea, eta jardura haientarako oinarriko metodologia komun bat prestatzea.

d) Sektorre Publikoaren Kontratazio Plataformaren eta Sektorre Publikoko Lizitazioen eta Enpresa Sailekuen Erregistro Ofizialaren funtzionamendua gainbegiratzeko.

e) Interes komuneak diren kontratazio publikoari buruzko gaiak aztertzea; eta

f) 328. artikulua 4. apartatuaren b), c), d) eta e) letretan aipatzen den informazioa biltzea –horretarako, behar diren jarraibideak ezarri ahalko ditu– eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen esku uztea.

Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzakomitea, halaber, sektorre publikoaren esparruan kontratazio elektronikoaren bultzada koordinatzeaz arduratuko da, bai eta Europak arlo horretan emandako zuzentarauen aginduak eta helburuak betetzen direla sustatzeaz ere.

Lankidetzakomitea kide anitzeko organo bat da, Osoko Bilkuran nahiz atalen bitartez jarduten duena. Halaber, haren barruan, eginkizunak zuzen garatze aldera, Osoko Bilkurak edo ataletako bakoitzak erabakitzen dituzten lantaldeak sortu ahalko dira. Lankidetzakomitearen Osoko Bilkurak funtzionamendurako barne-erregelamendu bat egingo du.

2. Lankidetzakomitearen Osoko Bilkurari dagokio aurreko apartatuan azaldutako helburuak lortzeko behar diren funtzioak betetzea eta lehendakariak daukaten garrantzia dela-eta aintzat hartzen dituen gaiak ezagutzea.

Komitearen Osoko Bilkurako lehendakaria Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Estatuko Ondarearen zuzendari nagusia da, eta hala Estatuko Administrazio Orokorreko ordezkariak, nola autonomia-erkidegoetakoek eta hiri autonomoetakoek osatzen dute Osoko Bilkura, bai eta toki-entitateen ordezkariak duten antolakundeetakoek ere, ondoren aipatzen den moduan:

a) Estatuko Administrazio Orokorrearen ordezkari gisa, bost kide izendatuko dira: batek Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusia ordezkatu du, azken horrek proposatuta; beste batek Estatuko Abokatutzak Orokorra ordezkatu du, hark proposatuta; beste batek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia ordezkatu du, azken horrek proposatuta; beste batek Lehendakariaren eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioko Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusia ordezkatu du, azken horrek proposatuta; eta Estatuko Kontratazio Publikorako Aholku Batzordearen laguntza teknikoaren organoko titularra, hain zuzen ere aurreko artikulua 4. apartatuan aipatutako gaiez arduratzen dena.

Halaber, berezko kide gisa, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko lehendakaria ere egongo da.

b) Autonomia-erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak ordezkatzeko, horietako bakoitzak izendatutako ordezkari bat egongo da Osoko Bilkuran. Ordezkarietako bat, hautatzen dena, Komiteko Osoko Bilkurako lehendakariordea izango da.

c) Toki-entitateak ordezkatzeko, ezarpen handiena duten toki-entitateen elkartearen edo federazioaren ordezkari bat egongo da, elkarte edo federazio horrek izendatua.

Idazkaritza Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Idazkaritzaren titularrak beteko du, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Aurrez aipatutako osaera alde batera utzi gabe, aztertu beharreko gaien arabera, beste ministerio, erakunde edo organismo batzuetako adituak edo ordezkariak ere joan ahalko dira Osoko Bilkuraren bileretara, deituz gero.

Halaber, bileretan Lankidetzakomiteko eta haren ataletako bileretan, hala dagokionean, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko kideek parte hartuko dute; hitza izango dute, baina botorik ez.

3. Atalak arduratuko dira Osoko Bilkurak aztertu behar dituen gaiak prestatzeaz, dela beren ekimenez, dagokien eremuan, dela lehendakariak adierazita.

Lankidetzak Komiteak zer atal izango dituen erregelamenduz ezarriko da; nolahi ere, bost hauek izango ditu:

a) Kontratazioa arautzeaz arduratuko den atala, lege honen 328. artikulua 3. apartatuaren a) eta b) letretan ezarritako moduan.

b) Kontratazio publikoaren arloko informazio kuantitatiboari eta estatistikoari buruzko atala, 328. artikulua 3. apartatuaren d) letretan ezarritako betebeharrak betetzeko eta 328. artikulua 4. apartatuaren c) letrak aipatzen duen informazioari buruzko betebeharrak betetzeko.

c) Kontratazio publikoa gainbegiratzeaz arduratuko den atala, 332. artikulua 6., 8. eta 9. apartatuetan ezarritako betebeharrak betetzeko.

d) Kontratazio publiko elektronikoen atala, zeina arduratuko baita Lankidetzak Komiteak arlo honetan daukan eskumenak baliatzeaz eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren funtzionamendua gainbegiratzeaz; eta

e) Lizitatzailen eta Enpresa Saikatuaren Sektore Publikoko Erregistro Ofizialaren funtzionamendua gainbegiratzeaz arduratuko den atala.

4. Erregulazioaren Ataleko burua Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Idazkaritzako titularra izango da, eta idazkaritza, berriz, Aholku Batzordeko idazkariordeak hartuko du. Gainbegiratzearen Ataleko burua Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komiteko lehendakariordea izango da.

Komiteko gainerako ataletako bakoitzaren burua Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde nagusi bat izango da; hain zuzen ere, kasuan kasuko gaien eskuduna dena.

5. Atal bakoitzean, Estatuko Administrazio Orokorreko ordezkariak, autonomia-erkidegoetako eta hiri autonomoetako ordezkariak eta, hala dagokionean, toki-entitateen ordezkari diren antolakundeetako ordezkariak egongo dira, honako modu honetan:

a) Estatuko Administrazio Orokorrearen izenean, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulegoaren, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren eta Estatuko Abokatutza Orokorrearen ordezkari gisa Komiteko Osoko Bilkuran dauden kideak; eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko laguntza teknikorako organoko titularra, 328. artikulua 4. apartatuan aipatzen diren gaiez arduratzen dena, buru ez den ataletan; bai eta aipatutako aholku-batzordeko idazkaria ere, zeina ataleko idazkaritzaz arduratuko baita; azken horrek hitza eta botoa izango ditu bertan.

b) Autonomia-erkidegoen izenean, txandaka, urtebeteko epeetarako, izendatutako hiru ordezkari, erkidego horien sorrerako hurrenkeraren arabera.

c) Aurreko a) eta b) letretan adierazitakoez gainera, ezarpen handiena duen toki-entitateen elkarte edo federazioen ordezkaria. Ordezkari hori –Osoko Bilkurako kidea bera– elkarte edo federazioak izendatuko du, eta honako atal hauetan parte hartuko du: Kontratazio publikoa gainbegiratzeaz arduratzen den atalean, informazio kuantitatiboari eta estatistikoari buruzko atalean eta kontratazio publiko elektronikoen buruzko atalean.

d) Kontratazio publiko elektronikoen buruzko atalak, a), b) eta c) letretan adierazitakoez gainera, kide hauek izango ditu: Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioko ordezkari bat eta Lehendakariaren eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioaren ordezkari bat.

Autonomia-erkidegoek bost ordezkari izango dituzte atal horretan, aurreko b) letretan ezarritakoaren arabera izendatuak. Horietatik hiru Estatuko Administrazio Orokorrekin Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko hitzarmena sinatu duten autonomia-erkidegoek izendatuko dituzte; gainerako biek, berriz, gainerako autonomia-erkidegoak ordezkatuak dituzte.

e) Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialaren funtzionamendua gainbegiratzeaz arduratuko den atalaren kasuan, autonomia-erkidegoen hiru ordezkariak Erregistro Ofizial horrek eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko kasuan

kasuko hitzarmena Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatu duten autonomia-erkidegoek izendatuko dituzte.

Atal bakoitzeko lehendakariordetza autonomia-erkidegoetako ordezkari bati dagokio, eta horien artean hautatuko da.

6. Aurrez aipatutako osaera alde batera utzi gabe, aztertu beharreko gaien arabera, beste ministerio, erakunde edo organismo batzuetako adituak edo ordezkariak ere joan ahalko dira atal bakoitzaren bileretara, deituz gero. 328. artikulua 3. apartatuaren d) letran ezarritako betebeharrak eta 328. artikulua 4. apartatuaren c) letran aipatzen den informazio-betebeharra betetzeko informazio kuantitatiboa eta estatistikoa xede duen atalaren kasuan, autonomia-erkidego guztietako ordezkariak joan ahalko dira bileretara gaiak hala eskatzen dutenean eta horretarako deitzen zaienean.

7. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak esleituko ditu Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komitearen funtzionamendurako behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta aurrekontuak.

330. artikulua. *Autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako kontratazio publikoaren arloko aholku-organoak.*

Autonomia-erkidegoek kontratazio publikoaren arloan sortzen dituzten aholku-organoek beren lurralde-eremuan izango dute eskumena sektore publiko autonomikoa osatzen duten erakundeen kontratazioari dagokionez eta, haien arauetan hala ezarrituz gero, lurralde-eremu horretako toki-entitateen kontratazioari dagokionez, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dituen eskumenak eragotzi gabe betiere.

331. artikulua. *Autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen informazio-ekarpena.*

Administrazio publikoen arteko harremanak gidatzen dituen leialtasun instituzionalaren printzipioaren barruan, zeina oinarrizko izaeraz jasota baitago Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikuluan, eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak 328. artikuluan Europako Batzordea dela-eta ezartzen diren betebeharrak bete ahal dituzan, autonomia-erkidegoek honako dokumentazio hau igorriko diote 329. artikuluan araututako Lankidetzak Komiteari, formatu elektronikoz, beren organo eskudunen bitartez eta beren lurralde-eremuei dagokienez:

a) 328. artikulua 4. apartatuaren b), c), d) eta e) letretan aipatutako gai guztiei buruzko txosten bat, gutxienez ere hiru urtez behin.

b) 332. artikulua 7. apartatuan aurreikusitako gai buri buruzko txosten bat, gutxienez ere hiru urtez behin.

Igorritako dokumentazioak informazioa izango du kasuan kasuko lurralde-eremuetan kokatutako toki-entitatei buruz, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraituz.

332. artikulua. *Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea.*

1. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea sortzen da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19. artikuluan aurreikusitako moduko kide anitzeko organo baten gisara; haren xedea izango da legeria zuzen aplikatzen dela zaintzea eta, bereziki, konkurrentzia sustatzea eta ilegaltasunen aurka borrokatzea kontratazio publikoari dagokionez. Bulegoak independentzia organiko eta funtzional osoarekin lan egingo du bere jarduerak garatzen eta bere helburuak betetzeko.

Lehendakari batek eta lau kidek osatuko dute, eta ezingo diote inongo erakunde publiko zein pribaturi jarraibiderik eskatu, ez eta inongo erakunde publiko zein pribaturen jarraibiderik jaso ere.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, eta antolakuntzako eta aurrekontuko ondorioetarako soilik, Bulegoa Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikiko zaio, Departamentuko Idazkariordetzaren bitartez.

Ebaluazioko Bulego Nazionala, 333. artikuluan arautua, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentean sartuko da.

2. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko lehendakaria eta kideak karrerako funtzionarioak izango dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren aplikazio-eremuan sartutakoak, testu bategin horren 76. artikuluko A1 azpitaldekoak –urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori–, eta gutxienez ere 10 urteko esperientzia profesionala izan beharko dute kontratazio publikoarekin lotutako gaietan.

Erregelamendu bidez ezarriko da Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko lehendakariaren eta gainerako kideen maila administratiboa, eta maila horri dagozkion organo laguntzaileen laguntza izango dute.

Beren karguetan dihardutela, Estatuko Administrazio Orokorreko Goi Karguen Jardunari buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 13., 14. eta 15. artikuluetan ezarritako araudiari lotuta egongo dira.

3. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko lehendakaria eta gainerako kideak Ministro Kontseiluak izendatuko ditu, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak proposatuta, sei urteko epe luzaezin baterako.

Edonola ere, Bulegoaren lehenengo berritzea partziala izango da eta izendapenak egiten direnetik hiru urtera egingo da. Adierazitako epea bete baino lehen, zozketa bidez erabakiko da zein bi kidek utzi beharko duten kargua. Epe hori iraganda, jardunean izango dira, ondorengoak izendatzen ez diren bitartean.

Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko kideak independenteak eta aldaezinak izango dira beren agintaldian, eta honako arrazoi hauengatik baizik ezingo dira kendu postutik:

- a) Agintaldia iraungitzea.
- b) Uko egitea eta Gobernuak uko hori onartzea.
- c) Espainiako nazionalitatea galtzea.
- d) Betebeharrak modu larrian bete gabe uztea.
- e) Delitu bat dela medio askatasunaz gabetzen duen epai irmo bat jasotzea, edota enplegu edo kargu publikoa betetzeko desgaitasuna absolutua edo desgaitasuna berezia ezartzen duena.
- f) Eginkizunak betetzeko gerora ezgaitasuna sortzea.

Gobernuak erabakiko du aurreikusitako kausetan oinarrituta kargugabetzea, iraungitzearen edo uko egitearen kasuetan izan ezik, espedientearen egin ondoren.

4. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearen lehendakariak kide anitzeko organoa ordezkatzeko du, eta harremanak izango ditu, haren izenean, haren jarduketek jomuga dituzten erakunde publikoekin. Halaber, atxikita dagoen ministerioarekin izango ditu harremanak, antolamendu- eta aurrekontu-ondorioetarako. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko eta Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzako Komiteko berezko kidea izango da. Lehenengo kasuan, bileretan, hitza izango du, baina botorik ez.

Bulegoko lehendakariak Gorteei eta Kontuen Auzitegiari urteko txosten bat igorriko die Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearen jarduketei buruz, eta Gortetean agerraldia egingo du urteko txostena eta haren ondorioak aurkezteko edo, Kongresuko edo Senatuko kasuan kasuko batzordeek eskatzen diotenean, bere eremu funtzionaleko gaiak buruz hitz egiteko. Txosten hori Gortetara eta Kontuen Auzitegira igorri eta hurrengo hilabetean argitaratu da.

Bulegoko kideek, kide anitzeko organoak onesten dituen funtzionamendu-arauetan zehaztutakoaren arabera, erantzukizun funtzional espezifikoa hartuko dituzte gainbegiratzearen arloan, Ebaluazioko Bulego Nazionalari eta metodologiari eta prestakuntzari dagozkien. Eginkizun horietan dihardutela, Kontratazio Publikoaren arloko



Lankidetzaren Komitearen eta haren atalen bilkuretan parte hartuko dute; hitza izango dute, baina botorik ez.

5. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko lehendakariarazko laguntza- eta aholku-organo gisa, errege-dekretu bidez, aholku-kontseilu bat sortu ahalko da, administrazio publikoen kontratazioaren eremuan ospe handia duten akademiko, profesional eta teknikari independenteek osatua.

6. Honako eginkizun hauek dagozkie Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari:

a) Sektore publiko osoko botere adjudikatzailen kontratazioaren arloan gainbegiratze-lana koordinatzea.

b) Kontratazio publikoaren arloko legeria zuzen aplikatzen dela zaintzea, ez-betetze zehatz edo arazo sistemikoak detektatze aldera.

c) Sektore publikoko kontratuen legeria zorrotz betetzen dela zaintzea, eta, bereziki, publikotasun- eta konkurrentzia-printzipioak eta Administrazioak kontratazioan dauzkan prerrogatibak begiratzen direla zaintzea.

d) Kontratazio publikoan konkurrentzia eta jardunbide egokien jarraipena sustatzea.

e) Gardentasunaren arloko betebeharrak eta jardunbide egokiak –bereziki, interes-gatazkei dagozkienak– ahal den zabaltasun handienarekin aplikatzen direla egiaztatzea, eta kontratazioaren arloan gertatzen diren irregulartasunak detektatzea.

Bulegoak, estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko maila duen delitu edo arau-hausteak izan daitezkeen egitateak gertatu direla jakiten badu, horiek berehala jakinaraziko dizkie, daukaten izaeraren arabera, fiskaltzari edo organo judizial eskudunei, edo erakunde edo organo administratibo eskudunei, horien barnean direla Kontuen Auzitegia eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala.

7. Aurreko apartatuan aurreikusitako eginkizunetan diharduela, honako hauek egingo ditu Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek:

a) Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzaren Komiteak proposatuta, Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionala onetsiko du, zeina 334. artikuluan aurreikusita dagoen eta loteslea izango den sektore publikoarentzat. Estrategia hori autonomia-erkidegoekin eta toki-entitateekin koordinatuta diseinatu eta gauzatuko da.

b) Inkestak eta ikerketak egin ahalko ditu; horretarako, kontratazio-organoetarako eta -zerbitzu-entitateetarako sarbidea izango du, eta horiek datu, dokumentu edo aurrekariak eman beharko dituzte, edo eskatzen zaien gainerako informazioa, halakoak isilpekoak edo erreserbatuak ez badira.

c) Txostenak igorri ahalko dizkiete, inkesten eta ikerketen emaitzak ikusita, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren bitartez, Gorte Nagusiei edo, kasua bada, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari.

d) Kontratazio publikoaren legeria interpretatzeko eta aplikatzeko jarraibideak finkatu eta onetsi ahalko ditu, eta gomendio orokor edo zehatzak egin ahalko dizkie kontratazio-organoei, baldin eta gainbegiratze-lana egin eta ondorioztatzen bada arazo, oztopo edo inguruabar garrantzitsuren bati konponbidea ematea komeni dela Bulegoa sortzea justifikatzen duten xedeak betetze aldera. Jarraibideak eta gomendioak argitaratu egingo dira. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearen jarraibideak betetzea nahitaezkoa izango da Estatuko sektore publikoaren kontratazio-organo guztientzat.

e) Esleitutako eginkizunei buruzko azterlanak egin ahalko ditu.

8. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek gainbegiratze-txosten bat egingo du, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari igorriko diona. Txosten hori Europako Batzordeari hiru urtez behin igorri beharreko txosten nazionalean sartuko da.

Txosten horrek, lizitazio publikoari dagokionez eta erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak eta obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak egikaritzeari dagokionez, honako gai hauek jasoko ditu, besteak beste, hala badagokio:

a) Kontratazio publikoaren arloan gainbegiratze-lana egiteko eskumena edo eskumen juridikzionala duten organo, erakunde eta botereek atzemandako ez-betetze nagusien zerrenda bat.

b) Kontratazio publikoaren legeria oker aplikatzeko edo segurtasun juridikorik ez izateko arrazoi ohikoenei buruzko informazioa.

c) Kontratazioetan gertatutako iruzurrak, ustelkeria, interes-gatazkak eta beste irregulartasun larri batzuk saihesteari, detektatzeari eta egoki jakinarazteari buruzko informazioa, bai eta detektatutako kolusio-arazoei buruzkoa ere.

9. Halaber, Bulegoak urteko txosten bat egingo du, zeinean jasoko baitira administrazio eskudunek egindako gainbegiratze-jarduera osotik heldutako ondorioak. Txostenak aurreko apartatuan aipatzen diren gai guztiak jasoko ditu, eta, bereziki, egiaztatutako ez-betetze nagusiak eta haien erantzule diren organoak aipatuko dituen zerrenda bat. Txosten hori Europako Batzordeari igorriko dio Kontratazioa Gainbegiratzeko Bulegoak, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen bitartez.

Administrazio eskudunek beren lurralde-esparruetarako izendatutako gainbegiraleek eta bulegoak, zeinak informazio osoa bateratuko baitu, jendearen esku jarriko dute beren gainbegiratze-prozesuaren emaitza, eta emaitza hori kasuan kasuko kontratazio-plataformetan argitaratuko da. Nolanahi ere, aurreko tartekian aipatutako txostena Europako Batzordera igorri eta hurrengo hilabetearen barruan argitaratuko du Bulegoak Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman.

10. Kontuen Auzitegiarekiko Harremanetarako Kongresuaren eta Senatuaren arteko Batzorde Mistoak, ganberetarako erregelamenduek xedatzen dituzten baldintzetan eratutako den batzorde txostengile iraunkor baten bitartez, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentetik informazio zabalena jasoko du, kontratazio publikoa kontrolatu eta zaindu ahal izateko eta gai honetan araudia hobetze aldera hartzen diren neurrietan parte hartu ahal izateko.

11. Gainbegiratze-lana Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiari dagozkion eskumenei kalterik egin gabe egingo da, Estatuko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa organo hark kontrolatzen duen aldetik, eta, halaber, beren lurralde-esparruetan maila autonomiko eta tokiko mailako organoei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe. Ondorio horietarako, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak eta maila autonomikoko eta tokiko mailako organo baliokideek txosten orokor bat igorriko diote urtero Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari. Txosten hori jaso eta hurrengo hilabetearen barruan emango da argitara, kontratazio publikoan kontrol-lana egiteko emaitza aipagarriekin.

12. Autonomia-erkidegoek kontratazioa gainbegiratzeko beren bulegoak sortu ahalko dituzte.

13. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioarekin eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearekin koordinaturik, Europar Batasuneko erakunde eta organismoekin lankidetzan ariko da, Europako Batzordearekin bereziki, kontratazioa arautzeko eta gainbegiratzeko eginkizunak aurrera eramaten. Kontratazioa gainbegiratzeko beste estatu kide batzuetako agintaritza independenteekin ere jardun ahalko du lankidetzan.

333. artikulua. *Ebaluazioko Bulego Nazionala.*

1. Ebaluazioko Bulego Nazionala kide anitzeko organo bat da, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearen barruan dagoena, eta haren xedea obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuen jasangarritasun finantzarioa aztertzea da, alde batera utzi gabe 3. apartatuaren b) letraren bigarren paragrafoan ezarritakoa.

2. Ebaluazioko Bulego Nazionaleko buru Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko lehendakariak egingo du.

Horko partaide izango dira Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteko kide bat, erabakitzen dena, eta Estatuko Administrazioaren Kontuhartzaitza Nagusiko, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiko eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europar Batasunaren Funtzen Zuzendaritza Nagusiko ordezkari bat, zuzendariorde nagusiaren mailakoa edo pareko mailakoa. Halaber, bi kide egongo dira: bata, kontratazio administratiboak ukitutako sektoreak ordezkatzeko dituzten enpresa-erakundeek proposatua, eta, bestea, akademiko, profesional eta teknikarien arteko izendatua, kontratazio publikoaren alorrean jantzizat eta gaituztat jotzen dena baina artikuluko honen lehen apartatuan aipatzen diren enpresa kontratistekin harreman zuzenik edo zeharkakorik ez duena. Kide horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

Ebaluazioko Bulego Nazionalaren bileretara, hurrengo apartatuan xedatutakoaren indarrez Ebaluazioko Bulego Nazionalari atxiki zaion autonomia-erkidego bati buruzko txostenak aztertu behar direnean, autonomia-erkidego horretako ordezkari bat joan ahalko da. Toki-korporazioei buruzko txostenak aztertzen diren bileretara, berriz, ezarpen handiena duen Toki-entitateen Federazioko ordezkari bat joango da, korporazioaren beraren ordezkari batekin batera, baldin eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluan aipatzen diren biztanleria handiko udalerriak baldin badira.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren aginduz, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek proposatu ondoren eta aurrez Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak txostena emanda, haren antolamendua eta funtzionamendua zehaztuko dira; hori, halere, ez da eragozpena izango Ebaluazioko Bulego Nazionalan ordezkaturako organoek aurkezten dituzten bitarteko espezializatu osagarriak erabiltzeko.

Ebaluazioko Bulego Nazionaleko kideek eta haren zerbitzuan diharduten langileek, beren eginkizunetan ari direla, ezingo dute ez eskatu, ez onartu inongo erakunde publiko zein pribatuen jarraibiderik.

3. Ebaluazioko Bulego Nazionalak nahitaezko txostena egingo du, botere adjudikatzailerik, erakunde adjudikatzailerik eta Estatuko Administrazio Orokorren eta toki-korporazioen mendeko bestelako erakunde, organismo eta entitateek obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak lizitatu aurretik, honako kasu hauetan:

a) Eraikuntzarako edo emakidaren ustiapenerako ekarpen publikoak egiten badira eta emakidadunaren finantzaketan laguntzeko edozein neurri hartzen bada.

b) Obra-emakidetan eta zerbitzu-emakidetan botere adjudikatzailerik eta emakidea-emaileak bere gain hartzen badu tarifa osorik edo zati batean, obren edo lehen ezarpeneko gastuen zenbatekoa milioi bat eurotik gorakoa denean.

Halaber, kontratuaren oreka berrezartzeko akordioei buruzko txostenak egingo ditu, 270.2 eta 290.4 artikuluetan aurreikusitako kasuetan, aurreko a) eta b) letren arabera txostena jaso duten obra-emakidei eta zerbitzu-emakidei dagokienez, edo txostena jaso ez arren letra horietan aurreikusitako elementuren bat kontratuan txertatzea dakarten emakidei dagokienez.

Ebaluazioko Bulego Nazionalak, Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionalan aurreikusitako jarduketetan lortutako emaitzei erreparatuta, proposatu ahalko du aurreko paragrafoetan jasotakoez bestelako kontratuei zabal dakiela artikuluko hau aplikatzeko esparrua. Esparrua zabaltzea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren aginduz onetsiko da, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek proposatuta, eta Gobernuaren Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak aurrez txostena eginda.

Autonomia-erkidego bakoitzak Ebaluazioko Bulego Nazionalarekin bat egin ahalko du, Bulegoak txosten horiek egin ditzan; bestela, organo edo organismo baliokideren bat sortu badu, nahitaezko txosten horiek organo edo organismo horri eskatuko dizkio, bere emakida-kontratuak ukitzen baditu.

Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komiteak gidalerro egokiak ezarriko ditu txostenak irizpide behar bezain homogeenok erabiliz egiten direla ziurtatzeko.

4. Aurreko apartatuan aurreikusitako txostenek ebaluatuko dute ea proiektuaren errentagarritasuna –inbertsioaren, emandako laguntzen, espero diren kutxako fluxuen eta ezarritako deskontu-tasaren arabera lortutako hori– arrazoizkoa den, kontuan hartuta emakidadunak bere gain hartutako eskari-arriskua. Ebaluazio horretan, kontuan hartuko da emandako laguntzek eskari-arriskua ez diren beste arrisku batzuk –operadore ekonomikoek normalean beren gain hartu behar dituzten horiek– arindu ahal dituztela.

Obra-emakidako kontratu batean emakidaren tarifa botere adjudikatzailerak ordaintzen badu, Bulegoak aurretiaz ebaluatuko du eskari-arriskua emakidadunari transferituko al zaion. Emakidadunak arriskua osorik bere gain hartzen ez badu, txostenean ebaluatuko da errentagarritasuna arrazoizkoa den ala ez, aurreko paragrafoan ezarrita dagoena kontuan hartuta.

Kontratuaren oreka berrezartzeko akordioetan, txostenak ebaluatuko du ea ezarritako finantza-konpentsazioek arrazoizko errentagarritasunari eusten dioten apartatu honen lehenengo paragrafoan xedatuta dagoenaren arabera.

5. Nahitaetzko txostenak botere adjudikatzailerak edo bestelako erakunde kontratatzaileak eskaera egiten duenetik edo hurrengo paragrafoan aipatzen den informazioa ematen denetik hogeita hamar eguneko epean emango dira. Epe hori erdira murriztu ahalko da, eskaeran urgentziatzko arrazoiak justifikatzen baldin badira. Txosten horiek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren mendeko administrazio publikoen Informazio Ekonomiko eta Finantzarioko Zentralaren bitartez argitaratuko dira, eta jendeak bitarteko elektronikoen bidez publikoki kontsultatzeko eskura egongo dira.

Eskaera egin duen erakundeak Bulegoari bidaliko dio beharrezko informazioa, eta hark, jasotako informazioan oinarrituta, txostena egingo du. Bulegoaren ustez igorritako informazioa nahikoa ez bada, osoa ez bada edo zerbait argitu behar bada, eskaria egin duen botere adjudikatzailerak eskatzaileari eskatuko dio behar den informazioa berak horretarako ezarritako epearen barruan eman dezala. Bulegoak jasotzen duen informazioa tratatzean, beti errespetatu beharko dira informazio konfidentzialera iristeko ezarritako mugak.

6. Txostena hartu behar duen administrazioak edo erakundeak, Bulegoaren nahitaetzko txosten batean bildutako gomendioak betetzen ez baditu, horretarako arrazoiak eman beharko ditu txosten batean. Txosten hori dagokion kontratuaren espedientean txertatuko da, eta argitaratu ere egingo da haren kontratatzaile-profilean eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, Administrazio Publikoen Informazio Ekonomiko eta Finantzarioko Zentralaren bidez argitaratuko da, gainera.

7. Bulegoak urtero jarduerari buruzko memoria argitaratuko du.

### 334. artikulua. *Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionala.*

1. Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionala, 332. artikuluan 7. apartatuaren a) letran eta 333. artikuluan 3. apartatuan aipatzen dena, tresna juridiko loteslea da, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek onetsia, eta sektore publiko osoak egindako kontratazio-jarduketan azterketan oinarrituko da, horren barnean direla Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo tokiko sektore publikoan sartuta dauden botere adjudikatzailerak edo erakunde adjudikatzailerak guztiak, bai eta haietako beste erakunde eta organismoak ere, botere adjudikatzailerak izaera ez dutenak.

Lau urteko denbora-tarte bat hartuko du aintzat, eta honako alderdi hauek landuko ditu, besteak beste:

a) Informazio kualitatibo eta kuantitatiboko iturri hauetan dauden datuen analisia: kontratazioarako plataforma nazionalak, Europar Batasunaren kontratazio publikoaren arloko informazio irekia (TED) eta gainbegiratze- eta kontrol-organoen eta lege-aholkularitzako organoen txostenak. Horiekin, kontratazio publikoaren egoerari buruzko

diagnostiko bat egingo du, eta lehenetsuneko neurriak proposatuko ditu atzematen diren disfuntzioak zuzentzeko.

Hala, aipatutako datu-base nazionalak eta kasuan kasuko gainbegiratze-, kontrol- eta aholkularitza-organismoek behar den informazioa eman beharko dute aipatutako estrategia lantzeko, onesteko eta gauzatzeko. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kontratazio publikoaren arlorako bere proposamenak igorri ahalko dizkio Kontratazio Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari, lehian eragina dutenak, Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionalean sartu ahal daitezten.

b) Kontratazio publikoa gainbegiratzeko lanaren hobekuntza, gainbegiratzeko jarduketak egiteko irizpide eta metodologia komunak koordinatuz, eta, nolana ere, bermatuz kontratazio publikoari buruzko zuzentzauek eta Europar Batasuneko erakundeek ezarritako gainbegiratzeko-betebeharrak betetzen direla.

Halaber, 333. artikuluan aurreikusitako kontratuen jasangarritasun finantzarioa bermatzeko behar diren jarraipen-jarduketan koherentzia jasoko du, eta, horretarako, ebaluazioa irizpide homogeenekin egiteko estrategiak eta metodologia jasoko ditu, bai eta kontratu horien oreka ekonomikoa ezartze aldera akordioetan jaso behar diren arauak ere.

c) Sektore publiko osoan kontratu publikoak eta emakidak adjudikatzeko prozeduren legezkotasuna aurretik eta ondoren kontrolatzeko mekanismoen analisia. Jarduketak aurreikusiko dira kontrol-mekanismo horiek indartzeko, besteak beste helburuak eta lehenetsunak zehaztuz, bai eta kontrol horien ardura duten giza baliabideak berresleitzeko proposamena ere. Halaber, gerta daitezkeen irregulartasunak identifikatzeko ezarritako prozedurak aztertuko dira, bai eta kudeaketaren arduradunek aplikatu behar dituzten neurri zuzentzaileen garapena ere.

d) Jardunbide egokien eskuliburuak edo gidak egitea, kontratazio-prozeduretan aplikatzeko gomendioak ezarriko dituztenak prozedura horietan jardunbide okerrak aldeztu aurretik eragotzi ahal izateko.

e) Kontratazio publikoan profesionalizazioa sustatzea, sektore publikoko langileentzako prestakuntza-jarduketan bitartez, langile espezializaturik ez duten erakundeetan bereziki, kontratazio publikoaren arloko prestakuntzarako berariazko plan bat diseinatuz eta kontratazio publikoan profesionalizazioa sustatzeko beste jarduketa osagarri batzuk eginez.

2. Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionala honako helburu hauek betetzeko neurriak ezartzeko diseinatuko da:

a) Ustelkeriaren eta irregulartasunen aurka borrokatzea kontratazio publikoari buruzko legeriaren aplikazioan.

b) Kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten eragile publikoen profesionalizazioa areagotzea.

c) Sektore publikorako ondasun, zerbitzu eta hornidurak lortzeko prozesuetan efizientzia ekonomikoa sustatzea, eskaria bateratzeko eta adjudikazio-irizpideak era egokian erabiltzeko bultzada emanez.

d) Kontratazio elektronikoaren erabilera orokortzea prozeduraren fase guztietan.

e) Kontratazio publikoaren aukerak erabiltzea ingurumenaren eta berrikuntzaren arloko politikak eta politika sozialak laguntzeko.

f) Kontratazio publikoaren merkatuan enpresa txiki eta ertainek parte hartzea sustatzea.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) eta c) letretan jasotako gainbegiratzeko-eginkizunak betetzen dituzten funtzionarioek ez dute inongo lotura funtzionalik izango gainbegiratzeko kontratuen egile diren organoen titularrekin.

Edonolako agintariek, bulego publikoetako buru edo zuzendariek, sektore publikoa osatzen duten erakundeetakoek eta, oro har, eginkizun publikoetan dihardutenek edo beren lana erakunde horietan egiten dutenek behar den sostengua eta laguntza eman beharko diete kontratuak gainbegiratzeko arduratzen diren funtzionarioei, eta haiek behar



duten heinean haien lanean parte hartu eta lankidetzan jardun, gainbegiratze horretarako behar diren agiri eta argibideak haien esku utziz.

4. Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komiteak Kontratazio Publikoaren Estrategia Nazionalaren bere proposamena aurkeztu ondoren eta hura Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek onetsi ondoren, Europar Batzordeari igorriko zaio. Bestalde, Ministro Kontseiluari jakinaraziko zaio proposamena, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak proposatuta, eta hark Gorte Nagusiei aurkeztuko die. Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek onetsitako estrategia Europako Batzordeari igorri zaionetik hilabete iraganda, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman aterako da argitara haren edukia.

5. Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komiteak, estrategia onetsi zenetik lehenengo bi urteak iraganda, haren aplikazioari buruzko lehen balorazioa egingo du, eta estrategia horretan, lortu nahi diren helburuak lortzeko, behar diren alderdiak aldatu edo doitu ahalko dira. Hori egin ondoren, aldaketa edo doikuntza horiek Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari aurkeztuko dizkio, onetsi ditzan. Aldaketa edo doikuntza horiek onetsi eta hurrengo hilabetearen barruan argitaratu beharko dira.

6. Estrategiaren denbora-eremua amaituta, Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzak Komiteak txosten bat egingo du haren aplikazioaren emaitzei buruz. Txostena Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari igorriko zaie, eta azken horrek Europako Batzordeari igorriko dio eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari emango dio ezagutzera, eta igorri eta hilabete epean emango du argitara haren edukia.

Bestalde, Ministro Kontseiluari jakinaraziko zaio txostena, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak proposatuta, eta hark Gorte Nagusiei aurkeztuko die.

Txostenak balioko du Kontratazioaren arloko Estrategia Nazional berria zehaztu eta onesteko, artikulua honetan aipatutako prozedura bera erabiliz eta ezaugarri eta iraupen bereberekin. Estrategia berria txostena onesten denetik sei hilabete epean onetsiko da.

7. Lehenengo estrategia Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek onetsiko du, lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta bederatzik hilabete epean.

8. Autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen eremuan, kontratazio publikoaren arloko estrategia bat landu ahalko da, zeina koherentea izango baita kontrataziorako estrategia nazionalarekin.

#### IV. KAPITULUA

##### Informazioa prestatu eta igortzea

335. artikulua. *Kontratuak Kontuen Auzitegira bidaltzea.*

1. Obretan, obra-emakidetan, zerbitzu-emakidetan eta esparru-akordioetan, kontratuaren adjudikazio-prezioa edo –esparru-akordioen kasuan– balio zenbatetsia 600.000 eurotik gorakoa bada, kontratua formalizatzeko erabilitako agiriaren kopia ziurtatua eta kontratuak jatorri duen espedientearen laburpena bidali beharko zaizkio Kontu Auzitegiari edo autonomia-erkidegoan kanpoko fiskalizazio-eginkizuna duen organoari, kontratua formalizatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, fiskalizazio-eginkizuna bete dezan. Gauza bera egingo da hornidura-kontratuetan, kontratuaren zenbatekoa 450.000 eurotik gorakoa bada, bai eta zerbitzu-kontratu eta administrazio-kontratu berezien kasuan ere, zenbatekoa 150.000 eurotik gorakoa bada.

Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen kasuan eta eskuratze-sistema dinamiko baten eremuan sinaturiko kontratu espezifikoaren kasuan ere, bidali beharko zaizkio aurreko paragrafoan aipatzen diren kopia ziurtatua eta espedientearen laburpena Kontuen Auzitegiari edo autonomia-erkidegoan kanpoko fiskalizazio-eginkizuna duen organoari, baldin eta kontratuaren adjudikazio-prezioa paragrafo horretan zehazten diren kopuruak baino handiagoa bada kontratuaren izaeraren arabera.



Gainera, egindako gainerako kontratuen zerrenda bat igorriko da, kontratu txikiak barne, bost mila eurotik beherako zenbatekoa izan eta kutxa finkoko aurrerakinaren sistemaren bitartez edo ordainketa txikiak egiteko sistemaren batez ordaintzen direnak kenduta, eta, hartan, adjudikaziodunaren izena eta kontratuaren objektua eta zenbatekoa jasoko dira. Zerrenda horiek adjudikaziodunaren arabera ordenatuko dira. Igorpen hori kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzaile profila kokatuta dagoen kontratazio-plataformak egin ahalko du zuzenean, bide elektronikoz.

2. Era berean, kontratu horien guztien gorabehera hauek jakinaraziko zaizkio Kontu Auzitegiari edo autonomia-erkidegoko kanpoko fiskalizazio-organoari: aldaketak, epeen luzapen edo aldaketak, prezioaren eta azken zenbatekoaren aldaketak, deuseztasun-kasuak eta kontratuen azkentze ohikoa edo ezohikoa.

3. Ulertu behar da aurreko bi apartatuetan xedatutakoak ez dituela eragozten Kontuen Auzitegiaren edo –hala badagokio– autonomia-erkidegoetako kanpoko fiskalizazio-organoen ahalmen hau: egoki irizitako datu, dokumentu eta aurrekariak eskatzea kontratuei buruz, izaera edo munta edozein dutela.

4. Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan eta administrazio haren mende dauden sektore publikoko erakundeen eremuan, kontratazio-organoak egingo ditu artikulua honetan aipatzen diren komunikazioak.

5. Artikulu honetan aipatzen diren igorpenak gauzatzeko modua eta prozedura Kontuen Auzitegiak edo autonomia-erkidegoko kanpoko fiskalizazio-organoak zehaztu ahalko ditu, kasuan kasuko jarraibideen bitartez.

336. artikulua. *Kontratuak adjudikatzen prozedurei buruzko berariazko txostenak.*

1. Kontratazio-organoek idatzizko txosten bat prestatuko dute erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratu edo esparru-akordio bakoitzari buruz, bai eta eskuratze-sistema dinamikoa bat ezartzen duten bakoitzean ere, eta, hartan, honako hauek jasoko dira, gutxienez ere:

a) Botere adjudikatzailearen izena eta helbidea, eta kontratuaren, esparru-akordioaren edo eskuratze-sistema dinamikoa objektua eta prezioa;

b) Kasua bada, hautaketa kualitatiboaren emaitzak eta eskaintza eta soluzio kopuruaren murriztapenaren emaitzak, lege honek prozedura murrizturako, lizitazio-prozedura negoziaturako, lehia-elkarriketarenerako eta berrikuntzarako elkartzearen prozedurarako ezartzen duenari jarraituz. Zehazki:

i) Aukeratutako hautagaien edo lizitatzailen izenak eta haiek aukeratu izana justifikatzen duten arrazoiak;

ii) Baztertutako hautagai edo lizitatzailen izenak eta haiek baztertu izana justifikatzen duten arrazoiak;

c) Nabarmenki baxuegiztat jo diren eskaintzak baztertu izanaren arrazoiak.

d) Adjudikaziodunaren izena, haren eskaintza aukeratu izanaren arrazoiak, eta adjudikaziodunak hirugarrenekin azpikontratatu asmo duen kontratu zatia edo esparru-akordioaren zatia, ezaguna bada; eta halakorik badago eta une horretan ezagutzen badira, kontratista nagusiaren azpikontratisten izenak;

e) Lizitazio-prozedura negoziatuarentako eta lehia-elkarriketako prozedurarentako, 172. artikuluan 3. apartatuaren 167. artikuluan ezarritakoetatik zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura horiek erabiltzea;

f) Aurretiazko publizitate-rik gabeko prozedura negoziatuei dagokienez, 168. artikuluan ezarritakoetatik zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura hori erabiltzea;

g) Kasua bada, botere adjudikatzaileak zer arrazoiengatik erabaki duen kontratu edo esparru-akordio bat ez adjudikatzea edo egitea edo zergatik uko egin dion eskuratze-sistema dinamikoa bat ezartzeari;

h) Kasua bada, zer arrazoiengatik erabili diren elektronikoz bestelako komunikabideak eskaintzen aurkezpen elektronikorako;

- i) Kasua bada, detektaturiko interes-gatazkek eta horiei dagokienez harturiko neurriak.
- j) Kasua bada, 70. artikuluaen esparruan hartutako neurriak.

Esparru-akordioetan oinarritutako kontratueta, txosten hori ez da exijituko kontratuak 221. artikuluaen 3. eta 4.a) apartatueta ezarritakoaren arabera egin direnean.

Kontratu-formalizazioaren iragarkiak apartatu honetan eskatzen den informazioa biltzen duen heinean, botere adjudikatzailleek iragarki horren aipamena egin ahal izango dute.

2. Txostena, edo haren elementu nagusiak, Europako Batzordeari edo Kontratazio Publikoaren arloko Lankidetzakomite 329. artikuluan arautuari igorriko zaio, eskatzen dutenean.

## II. TITULUA

### Erregistro ofizialak

#### I. KAPITULUA

##### Lizitzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak

337. artikulua. *Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Sektore Publikoko Erregistro Ofiziala.*

1. Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak xede hau izango du: administrazio publikoekin eta sektore publikoko gainerako organismo eta erakundeekin kontratatzeke enpresaburuek dauzkaten gaitasun-baldintzak egiaztatzeke garrantzitsuak diren datuak eta inguruabarrak –ordezkarien eta ahalordedunen ahalmenak barne– inskribatzea, bai eta sektore publikoko edozein kontratazio-organotan hori guztia egiaztatzea ere.

2. Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikita egongo da, eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari laguntza teknikoa emateko organoak arduratuko dira erregistro horretaz.

3. 341. artikuluan aipatzen den erregistroa ez edukitzea erabakitzen duten autonomia-erkidegoek artikulua honetan aipatzen den erregistroan egin ahalko dituzte inskripzioak, 340. artikuluaen 2. apartatuan ezarritako baldintzetan.

4. Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala eta Estatuko Administrazio Orokorren Ahalordetzen Erregistro Elektronikoa elkarrekin konektatuta egongo dira eta elkarrekin operatu ahalko dute.

Kontratazio-organoeke Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala kontsultatuko dute ahalordeen inskripzioa egiaztatzeke. Baldin eta ahalorde horiek inskribatuta ez badaude, ahalordetzei buruz administrazio publikoek dituzten erregistro orokorrak kontsultatuko dituzte. Erregistro horien kontsulta Estatuko Administrazio Orokorren Ahalordetzen Erregistro Elektronikoaren bitartez egingo da.

Inskribatutako ahalordeak zerbaitetan bat ez badatoz, Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatutakoak balioko du, ahalordetzen beste edozein erregistrotan inskribatutakoek ginetik.

338. artikulua. *Inskripzioak eta ofiziozko argitalpenak.*

1. Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean ofizioz jasoko dira Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak enpresaburuei emandako sailkapenei buruzko datuak. Halaber, enpresen sailkapenaren arloko eskumenez baliatzen diren autonomia-erkidegoetako organo eskudunek emandakoak jasoko dira, baldin eta horiek eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak emandakoak kontrajarrita ez badaude.

Enpresen sailkapenari dagokionez, 339. artikulua 1. apartatuaren a) eta c) letretan aipatzen diren inguruabarrak, Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta ez badaude, ofizioz inskribatuko dira, oinarritzat harturik horretarako egokiak diren eta sailkapenaren prozedurarako aurkeztu diren dokumentuak.

2. Halaber, 73. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren kontratatzeke debekuei buruzko datuak jasoko dira.

3. Aurreko apartatuan ezarrita dagoena betetzeko, kontratatzeke debekua ezartzen duen epaia edo ebazpena ematen duen organoak ofizioz epai horren lekukotasuna edo ebazpenaren kopia igorri beharko dio Estatu Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari. Dena dela, batzorde horrek, halakorik dagoela jakiten badu eta epai horren lekukotasunik edo ebazpenaren kopiarik jaso ez badu, eman zuen organoari eskatu ahalko dio.

4. Autonomia-erkidego batek duen lizitzaileen eta enpresa sailkatuen erregistroan inskribaturik egon behar duten kontratatzeke debekuek, beren eremuaren arabera eta deklaratu dituen organoaren arabera hor egon behar duten horiek, Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari jakinaraziko dizkio autonomia-erkidego horretan erregistroaz arduratzeko organo eskudunak, 345. artikuluan xedatutakoaren arabera argitara ditzan.

339. artikulua. *Inskripzioak, interesdunek eskatuta.*

1. Erregistroan, enpresaburuei buruzko honako datu eta inguruabar hauek jaso ahalko dira interesdunak hala eskatzen duenean:

- a) Nortasunari eta jarduteko gaitasunari buruzko datuak, pertsona juridikoen kasuan.
- b) Enpresaren izenean jarduteko eta kontratuen bidez enpresa behartzeko gaitasuna duten ordezkarien edo ahalordedunen ahalmenak zenbaterainokoak diren erakusten duten datuak.
- c) Bere jarduera-sektorean aritzeko beharrezkoak diren baimen edo lanbide-gaikuntzei eta gainerako baldintzei buruzko datuak.
- d) Ekonomia- eta finantza-kaudimenari buruzko datuak. Datu horiek enpresaburuaren sailkapenetik bereizita agertuko dira, hark sailkapenik badu.
- e) Kontratazio publikorako beste edozein datu interesgarri, erregelamendu bidez hala zehaztua dagoena.

2. Erregelamenduz ezarriko dira datu eta inguruabar horiek inskribatzeko prozedura eta baldintzak.

340. artikulua. *Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeko eskumena.*

1. Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean ofizioz egin beharreko inskripzioak, 338. artikuluan adierazitakoak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak haietaz arduratzeko izendatutako organoak egingo ditu, hurrengo apartatuan aipatzen direnak izan ezik. Halaber, organo horrek hartuko ditu 339. artikuluan aipatutako datu eta inguruabarrei buruzko erabakiak, hala eskatzen dioten interesdunen inskripzio-eskaerek dakartzatenak.

2. Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek, lizitzaileen eta enpresa sailkatuen erregistrorik ez sortzea erabakitzen badute, Sektore Publiko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egingo dituzte 341. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoan eta 338. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoaren bigarren tartekian aipatzen diren ofiziozko inskripzioak. Erregistroan egin ahalko dituzte, halaber, 341. artikulua 1. apartatuaren bigarren tartekian adierazitako inskripzioak, baldin eta beren lurralde-eremuan helbideratutako enpresaburuei badagozkie eta interesdunak hala eskatzen badie.

Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek erregistroan inskripzioak egiteko, alde zurretik, hartarako hitzarmena sinatu beharko dute Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioarekin.

3. Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egindako inskripzio guztiek, bereizketarik egin gabe, egiaztatze-ondorio berak eta eraginkortasun osoa izango dituzte sektore publikoko kontratazio-organo guztientzat.

341. artikulua. *Lizitatzailen eta enpresa sailkatuen autonomia-erkidegoetako erregistroak.*

1. Autonomia-erkidegoek lizitatzailen eta enpresa sailkatuen beren erregistroak eduki ahalko dituzte, eta haietan inskribatuko dituzte 81. artikuluaaren bigarren paragrafoan aipatzen diren sailkapenak, bai eta, nolana ere, beren organo eskudunek, beren lurralde-eremuko toki-entitateen edo batzuen zein besteen mendeko organismo eta erakundeen deklarazioak dituzten kontratatze-debekuak ere.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa bete ahal izateko, kontratatze-debekua ezartzen duen ebazpena eman duen organoak ofizioz ebazpen horren kopia igorri beharko dio erregistro horretaz arduratzen den organo eskudunari. Dena dela, organo horrek, halakorik dagoela jakiten badu eta ebazpenaren kopiarik jaso ez badu, eman zuen organoari eskatu ahalko dio.

Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon behar duten kontratatze-debekuak berdin argitaratuko dira autonomia-erkidegoetako lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistroetan, eta, horretarako, 345. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

2. Erregistroan inskribatu ahalko dira, halaber, interesdunak autonomia-erkidegoari hala eskatzen dionean, 339. artikuluan aipatutako datu eta inguruabarrak.

3. Autonomia-erkidego bateko lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistroan egindako inskripzioak enpresaburuen datuak eta inguruabarrak egiaztatuko ditu autonomia-erkidegoaren beraren, lurralde-eremuko toki-entitateen eta bataren zein besteen mendeko organismo eta erakundeen kontratazio-organoen aurrean.

342. artikulua. *Borondatez inskribatzeko aukera.*

1. 338. artikulua eta 341. artikuluaaren 1. apartatuak aipatzen dituzten nahitaezko inskripzioak ofizioz egitea eragotzi gabe, lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistroetako inskripzioa borondatezkoa izango da enpresaburuentzat, eta haiek erabakiko dute aurreko artikuluan aipatzen diren datuetako zeintzuk nahi duten erregistroetan jaso daitezkeen. Inskripzioak berekin ekarriko du enpresaburuak onespina emate inskribatutako datuak bitarteko elektronikoen bitartez zabaltzeko, legez edo erregelamenduz zehazten diren baldintzetan eta muga eta murriztapenekin.

2. Interesdunek une oro eskatu ahalko dute beraiei buruzko inskripzioak ezerezteko, salbu eta inskripzioa nahitaezkoa den kasu eta inguruabarretan.

343. artikulua. *Erregistroko informazioa eguneratzea.*

1. Lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistroetan inskribatutako enpresaburuek, erregistro horretan jasotako datuetan inolako aldaketarik izanez gero, jakinarazi egin beharko diote erregistroari; orobat jakinarazi beharko dizkiote kontratatze-debekua dakarten inguruabar berriak, erregistro horietan inskribatu beharrekoak.

71. artikuluaaren 1. apartatuaren e) letran xedatutakoa kendu gabe, komunikazio hori ez egiteak, dolua, errua edo zabarkeria tartean direla, berekin ekarri ahalko du enpresaburuaren inskripzioa eta hark kontratazio publikorako dituen ondorenak bertan behera gelditzea, bai eta enpresaburuaren ziurtagiriak emateko eskubidea ere, ofizioz egiten diren inskripzioei dagokienez izan ezik. Nolanahi ere, lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro batean inskribatuta dauden enpresaburu baten datuak ez eguneratzeak ez dio kalterik ekarriko erregistroan dauden datuetan oinarrituta enpresaburuarekin kontratu bat egin duen administrazio publikoari, organismoari edo erakundeari.

2. Erregistroaz arduratzeko organo eskudunak ofizioz zuzenduko ditu inskribatutako datuak egiaztatzen denean idazpen bateko datuak okerrak, osatu gabeak edo eguneratu gabeak direla.

344. artikulua. *Publikotasuna.*

1. Erregistroa publikoa izango da, eta modu irekian sartu ahalko da bertan, sartzen den pertsona identifikatu ondoren. Gainera, bilatzaile bat edukiko du, erabilera erraztuko duena.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira erregistroaren idazpenak publikoak izateko modalitateak eta baldintzak, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aginduz kanpoan utzi ahalko da enpresa sailkatuen publikotasuna, baldin eta talde, azpitalde eta kategoria jakin batzuetan sailkatutako enpresen kopurua beren artean kolusioaren arriskua eragiteko behar bezain txikia bada.

345. artikulua. *Erregistroen arteko lankidetzak.*

Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak eta lizitatzailen eta enpresa sailkatuen autonomia-erregistroetako erregistroek elkarri emango diote haietan inskribatuta dauden kontratatzekeo debekuei buruzko informazioa.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren aginduz informazio hori bitarteko elektronikoak erabiliz elkarrekin trukatzeko behar diren prozedura eta zehaztapenak ezarriko dira.

## II. KAPITULUA

### Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroa

346. artikulua. *Sektore publikoko kontratuak erregistratzea.*

1. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak kontratuen erregistro bat sortu eta mantenduko du, eta, bertan, administrazio publikoek eta lege hau bete behar duten sektore publikoko gainerako erakundeek adjudikatutako kontratuei buruzko oinarritzko datuak jasoko dira.

2. Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroa Espainiako kontratazio publikoari buruzko informazioa izateko sistema ofizial nagusia da. Kontratazio publikoari buruzko informazioak sistematizatuta egon beharko du, nazioartean ezarritako formatu eta estandar irekiei jarraituz.

3. Botere adjudikatzailak berek adjudikatutako kontratuen oinarritzko datuak jakinaraziko dizkiote Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari, inskriba ditzan; horien artean hauek egongo dira: adjudikaziodunaren izena, kontratuen adjudikazioaren zenbatekoa eta balio erantsiaren gaineko zergari dagokion xehakatzeta.

Halaber, kasua bada, haien aldaketak, luzapenak, epe- eta prezio-aldaketak, amaierako zenbatekoa eta azkentzea komunikatuko dituzte. Erregelamendu bidez zehaztuko dira komunikazio horien edukia eta formatua, bai eta haiek egiteko epea ere.

Apartatu honetan adierazitako komunikaziotik salbuetsita egongo dira lege honen bidez kanpoan utzitako kontratuak, bai eta BEZa barnean dela bost mila eurotik beherakoak direnak ere, baldin eta botere adjudikatzailak kutzako aurrerakinaren sistema erabili badute ordainketarako, edo ordainketa txikiagoak egiteko antzekoa den beste sistema bat Bost mila eurotik beherako gainerako kontratuetan, honako hauek jakinarazi beharko dira: kontratazio-organoa, kontratuaren izena edo objektua, adjudikazioduna, kontratua identifikatzeko zenbakia edo kodea eta amaierako zenbatekoa.

4. Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuei buruzko datuak jakinarazteko, bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliko dira, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehazturiko moduan.

5. Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroak bere datuetara telematikoki sartzeko aukera emango die legez eman zaizkien eskumenez baliatzeko hala behar duten administrazio publikoetako organoei.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoarekin bat, eta datu pertsonalak babesteko arauak ezarritako mugen barruan, herritarrek kontsultatzeko moduan jarriko ditu konfidentzialak ez diren datuak, baldin eta alde zuzenetik ez badira jarri jendaurrean bide telematikoen eta Interneten bidez.

6. Administrazio publikoek kontratuentzat antzeko erregistroak badituzte beren eskumenen eremuan, kontratuen erregistroen artean egin ahal izango dira datuen komunikazioak, artikuluko honen 3. apartatuan aipatzen diren datu-komunikazioak egin ordez. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehaztuko du zer-nolako baldintzak behar diren Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroaren eta kontratuen gainerako erregistroen arteko datuak trukatzeko.

7. Kontratu bakoitza zehaztasunez identifikatzeko modua egongo dela bermatzeko, administrazioek eta erakunde komunikatzaileek identifikazio-kode bat emango diote bakoitzari, eta kode hori bakarria izango da administrazio bakoitzaren eskumenen eremuan. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak erabakiko du identifikatzaile bakar horiek zer arauen arabera emango diren, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroan kontratu bakoitza zalantzarik gabe identifikatuko dela ziurtatze aldera eta kontratuen gainerako erregistroekin koordinatuta aritzeko modua izate aldera.

8. Gobernuak, urtero, Espainiako kontratazio publikoari buruzko txosten bat aurkeztuko du Gorte Nagusietan, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroak emandako datuak eta azterketak oinarri hartuta.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari ezagutzera emango dio aurreko paragrafoan aipatzen den txostena, Gobernuak hura Gorte Nagusiei aurkeztu ondoren.

### III. TITULUA

#### **Bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabilita kontratuei buruzko publikitate kudeatzea**

347. artikulua. *Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma.*

1. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak plataforma elektronikoa bat jarriko du sektore publikoko kontratazio-organoko guztien eskura, zeinak aukera emango baitie Interneten bidez beren kontratatzaile profila zabaltzeko, bai eta datu horien tratamendu informatikoari lotutako beste zerbitzu osagarri batzuk emateko ere.

2. Estatuko sektore publikoko erakunde guztien kontratazio-organoko kontratatzaile-profilak nahitaez Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman ostatatu behar dira, eta beraren bitartez bakarrik kudeatu eta zabaltzeko behar dira. Organo horien web-orri instituzionalan, esteka bat egongo da Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman kokatuta egongo den kontratatzaile-profilera sartzeko.

3. Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoek Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren antzeko informazio-zerbitzuak ezarri ahal dituzte, eta haietan ostatatu behar dituzte kontratatzaile-profilak bai haien kontratazio-organoei beraiek, bai haien lotutako edo haien mendeko ente, organismo eta erakundeen kontratazio-organoei ere, eta zerbitzu horien bitartez bakarrik kudeatu eta zabaltzeko dituzte. Zerbitzu horiek, gainera, kasu kasuko autonomia-erkidegoari atxikitako ente, organismo eta erakundeen profiletara sartzeko gune bakarria izango dira.

Beren informazio-zerbitzuak ezartzeko hautua egin ez duten autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek, zeinek, horrenbestez, kontratatzaile-profilak zuzenean Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman ostatatzen dituzten, aukera izango dute plataforma horrek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabiltzeko, bai eta haien kudeaketan parte



hartzeko ere, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan eta eran eta horretarako Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoko edo hiri autonomoko gobernu organoak izenpetzen dituzten itunen arabera.

Nolanahi ere, autonomia-erkidegoek edo hiri autonomoek apartatu honen lehenengo bi paragrafoetan adierazitakoetatik zein hautu egiten duten alde batera utzita, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman lizitazio guztien deialdia eta emaitzak argitaratu beharko dituzte, dela zuzenean, dela informazioa metatzeko dispositibo elektronikoen interkonexioaren bitartez, baldin eta beren informazio-zerbitzuak badauzkate.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen argitaratzeari dagokionez, dela zuzenean egiten denean, dela informazioa metatzeko dispositibo elektronikoen interkonexioaren bitartez egiten denean, baldin eta desadostasunen bat badago autonomia erkidegoaren informazio-zerbitzuan eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman jasotako informazioetan, lehenengokoak balioko du.

Toki-administrazioen kontratazio-organoei, bai eta haiei lotutako edo haien mendeko erakundeek ere, aukera izango dute, modu baztertzailerik eta eskusiboan, beren kontratatzaile-profilak ostatatzeke edo autonomia-erkidegoak bere lurralde-eremuan horretarako ezartzen duen informazio-zerbitzuan, edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman.

4. Plataformak denbora zigilatzeke sistema bat eduki beharko du, bertan sartzen den informazioa jendaurrean noiz jarri den zalantzarik gabe egiaztatuta ahal izateko.

5. Kontratuei buruzko iragarkiak eta bestelako informazioa kontratatzailearen profiletan argitaratzeak lege honetan aurreikusitako ondorioak izango ditu haiek Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman edo autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiri autonomoek ezartzen dituzten informazio-zerbitzuetan ostatatuta daudenean, artikuluko honen 2. eta 3. apartatuaren ezarritakoari jarraituz, baldin eta, azken kasu horretan, aipatutako 3. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatutakoa betetzen bada.

6. Interesdunak atari bakar baten bitartez sartuko dira Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformara.

7. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren agindu baten bitartez definituko dira Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformak ematen dituen zerbitzuetan jarduteko eta haiek erabiltzeko zehaztapenak.

8. Informazioa estandar ireki eta berrerabilgarrietan argitaratuko da.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Atzerrian kontratatzea.*

1. Atzerrian formalizatu eta egikarrituko diren kontratuak ondoren xedatutakoarekin bat arautuko dira; hala ere, horien aplikazioan sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak erabakitzeke orduan lege honetako printzipioak kontuan hartuko dira:

a) Estatuko Administrazio Orokorrean, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren organikoki eta funtzionalki mendekoa den Misioko edo Ordezkaritza Iraunkorreko buruari egokituko zaio kontratu horiek formalizatzea, eta hark beste erakunde, funtzionario edo norbanako batzuen esku utzi ahalko du zeregin hori. Hala ere, Defentsa Ministerioaren eremuan, kontratu mota hori formalizatzea departamentu horren titularraren ardura izango da, zeinak aukera izango duen eskumena eskuordetzeko; dena den, Espainiako segurtasun-indar eta -kidegoek parte hartu behar duten bake-misioak betetzeko sinatzen diren kontratuen kasuan, Barne ministroaren eginkizuna izango da kontratuak formalizatzea.

Organismo autonomoetan eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileetan eta zerbitzu erkideetan, haien legezko ordezkariak edo horiek eskuorde izendatuko dituztenei dagokie halako kontratuak formalizatzea.

Lege honen mendeko gainerako organismo eta erakundeetan, haien legezko ordezkariak edo horiek kontratuak formalizatzea.

Lege honen 323. artikulutik 325. artikulura bitartekoak aplikatuko zaizkie kontratu horiei.

b) Kontratua egiten den estatuko legeek kontratatze gaitasunari buruz eskatuko dituzten baldintzak edozein izanik ere, Europar Batasuneko estatuetakoa edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoa enpresek lege honetan esaten dena bete beharko dute.

c) Administrazio-klausula partikularren agiriaren ordean, kontratuaren klausulak ezarri ahalko dira.

d) Alde batera utzi gabe kontratu txikiak ezarritakoa, prozedura negoziatuaz adjudikatu ahalko dira kontratuak, baina, ahal den guztietan, kontratuak betetzeko gai diren hiru enpresaren eskaintzak lortu behar dira gutxienez.

e) Agiri fede-emailez formalizatu behar dira kontratuak, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari bidali behar zaizkio kontratu horien zehaztasunak, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari buruzko 346. artikuluan zehaztutako ondoretarako, eta Kontu Auzitegiari ere bidali behar zaizkio, 335. artikuluan adierazitako moduan. Kontratu txikiei dagokienez, lege honetan haiei buruz orokorrean xedatutakoa bete beharko da.

f) Kontratua egikaritzeko dela ziurtatzeko, lege honetan aurreikusitakoaren pareko bermeak eskatu ahalko zaizkio adjudikaziodunari, hori egitea posible bada eta kontratazioa egingo den estatuko baldintzen arabera; halakorik ezean, estatu horretan ohikoak diren eta onartzen diren bermeak edo nazioarteko merkataritzako usadioekin bat datozenak eskatuko zaizkio.

Estatuko Administrazio Orokorrean, bermeak Misio Diplomatikoan, Ordezkaritza Iraunkorrean edo kasuan kasuko Kontsuletxeko Bulegoan eratu dira. Organismo autonomoen, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideen eta Estatuko sektore publikoko gainerako entitate publikoen kasuan, bermeak organismoan bertan eratu dira, baldin eta atzerrian ordezkaritza badu, edo, bestela, Misio Diplomatikoan, Ordezkaritza Iraunkorrean edo kasuan kasuko Kontsuletxeko Bulegoan.

g) Kontratazio-itundutako prestazioa gauzatzea izango da prezioa ordaintzeko baldintza, delako estatuaren zuzenbideak edo ohiturek horren aurka ezer adierazi ezean; eta aurka ezer adieraziz gero, aurrerakina bermatuko duen bermea eskatu beharko da, aurreko e) letran aurreikusitako moduan emana.

Salbuespeneko kasuetan, eta egoerak hala eskatzen duenean, kontratazio-organismoak, ebazpen arrazoituaren bidez, berme hori jartzetik salbuestea erabaki ahalko du, nazioarteko merkataritzaren usadioekin bat etorritik gero.

h) Halako kontratuetan, ahalegina egingo da administrazioaren interesak kontratazioaren ez-betetzeetatik babesteko xedapenak sartzeko, bai eta kontratuan komenigarri izan daitezkeen aldaketak baimentzeko xedapenak sartzeko ere, betiere artikuluko honen laugarren apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

i) Kontratazio-organismoak lege honetan orokortzat ezarritakoaz besteko prezioak berrikusteko araubide bat sartu ahalko du kontratu-agirietan, kontratua egikaritzeko den herrialdeko legeria eta haren ezaugarri sozioekonomikoak kontuan izanda. Dena den, prezioak berrikusteko ezarritako araubidea parametro objektiboetan eta, ahal bada, publikoetan oinarrituko da, edo gutxienez erraz neurtzeko modukoetan; nazioarteko organismoek kalkulaturitakoak erabili ahalko dira horretarako.

2. Espainiako enprekin egiten diren kontratuetan, Espainiako auzitegien eskumendean jartzeko klausulak sartuko dira.

3. Atzerriko enprekiko kontratuetan, ahaleginak egingo dira Espainiako auzitegien eskumendean jartzeko klausulak sartzeko, gerta daitezkeen desadostasunei konponbidea emate aldera. Ezinezkoa denean, arbitraje-klausulak sartzeko ahaleginak egingo dira. Halako kontratuetan, transakzioak egiteko modua egongo da, Ministro Kontseiluak edo autonomia-erkidego nahiz toki-entitateetako organo eskudunak aurrez baimena ematen badu.

4. Artikulu honetan jasotako arauak ez dira eragozpen izango Europar Batasuneko gainerako estatuetan edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetan formalizatzen eta egikaritzen diren erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuetan lege honetan honako hauei buruz ezarri diren arauak bete behar izateko: Europan egin beharreko publizitatea; kontratuak adjudikatzeko prozedurak; kontratu-

aldaketetarako araubidea; azpikontratazioa; aplikatzekoak diren betebeharrak sozial, ingurumeneko eta lan arlokoak betetzearen gaineko kontrola; kontratua egikaritu bitartean egindako funtsezko aldaketa baten ondoriozko suntsiaraztea eta kontratua deusez deklaratzeko kontratua egin zuen unean adjudikazioduna kontratatzeke debekua izateko kausaren batean sarturik egoteagatik edo Europar Batasuneko zuzenbidearen ez-betetze astun batengatik.

5. Atzerrian formalizatu eta osoki edo partez Espainian egikaritu behar diren kontratuak, kulturaren, ikerketaren edo garapenerako lankidetzaren arloko lankidetzaprograma nahiz -proiektuekin zuzenean loturik badaude, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu ahalko dira, Administrazioak atzerriko kontratistarekin askatasunez hitzartutako baldintzen pean, baldin eta atzerriko kontratista horren eskuhartzea erabat ezinbestekoa bada proiektua edo programa gauzatzeko, lankidetzaprograma edo -proiektuetan parte hartu ahal izateko baldintzek hala eskatzen dutelako, eta espedientean hala egiaztatzen bada.

6. Kontratua osatzen duten dokumentuak eta kontratua prestatu, adjudikatu eta egikaritzeko behar diren dokumentu guztiak gaztelaniaz edo kasuan kasuko hizkuntza koofizialean egon beharko dira idatzita, eta, hala izan ezean, hizkuntza horietara itzuli beharko dira kasuan kasuko tokiko hizkuntzatik. Dena den, kontratazio-organismoak, erantzukizuna bere eginda, beste hizkuntza batzuetan idatzitako dokumentuak onartzeko aukera izango du, gaztelaniara itzuli behar izan gabe. Kasu horietan, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak dena delako atzerriko hizkuntzan idatzitako dokumentuen gaztelaniazko itzulpena izatea bermatuko du, kontratua fiskalizatu ahal izateko.

7. Botere adjudikatzaile bat nazioarteko lizitazio batera bitarteko propio pertsonifikatuekin aurkeztu den kasuetan, bitarteko propio horiek nahitaez parte hartu behar badute lizitazio-prozesuan –botere adjudikatzaileak zehaztutako baldintzekin bat–, botere adjudikatzailearen eta haren bitarteko propioen arteko harreman juridikoak lege honen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta harreman horiek bitarteko propio pertsonifikatu horiei emandako mandatutzat joko dira ondore guztietarako.

Halaber, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzekoa izango da botere adjudikatzaileak atzerrian egindako jarduketak nazioarteko itunen, nazioarteko akordio administratiboen edo arautzaileak ez diren nazioarteko akordioen esparruan egiten direnean.

**Bigarren xedapen gehigarria. Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenak.**

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organismo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organismo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

3. 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, halaber, Osoko Bilkuraren eskumena izango da obra baten ataletako bakoitzari buruzko proiektu independenteen erredakzioa eta lizitazioa baimentzea, obra egiteko epeak urte bateko aurrekontua gainditzen duenean, eta atal horietako bakoitza bere aldetik erabiltzeko modua baldin badago, zerbitzuaren edo erabilera orokorraz aparte, edo funtsean zer diren definitzea baldin badago.

4. Biztanle kopuru handia duten udalerrietan, hain zuzen ere Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikuluan aipatzen

direnetan, aurreko apartatueta aipatzen diren kontratazio-organoaren eskumenak tokiko gobernu-batzordearenak izango dira, kontratuaren zenbatekoa edo iraupena dena delakoa ere, eta Osoko Bilkura izango da administrazio-klausula orokorren agiriak onesteko eskumena duena.

5. Toki-entitateek aukeran izango dute kontratazio-batzordeak eratu edo ez. Kontratazio-batzorde horiek kontratazio-organo modura jardungo dute, bai konponketa errazak egiteko, kontserbatzeko edo mantentze-lanak egiteko obra-kontratueta, bai ondasun kontsumigarriak edo erabiliaz erraz honda daitezkeen ondasunak hornitzeko kontratueta, bai eta zerbitzu-kontratueta ere, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsiak entitatearen ohiko baliabideen ehuneko 10 gainditzen ez badu, edo, proportzio hori gainditu arren, dagokion ekitaldiko aurrekontuan jasota dauden ekintzak badira eta aurrekontua egikaritzeko oinarrietan xedatutakoaren arabera gauzatzen badira.

Osoko Bilkuraren eginkizuna izango da kontratazio-batzordeak eratzea eta nola osatuko diren erabakitzea; dena den, horietan kide izan beharko dute, nahitaez, idazkariak edo udalbatzari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularrak eta kontu-hartzaileak. Biztanleria handiko udalerrien kasuan, tokiko gobernu-batzarrak ezarriko ditu muga kuantitatiboak, zeinak aurreko paragrafoan adierazitakoak baino txikiagoak izan ahalko baitira, edo kontratazio-batzordeak kontratazio-organo gisa esku hartuko duen kontratuen ezaugarriak dagozkienak; gainerako toki entitateen kasuan, berriz, Osoko Bilkurak ezarriko ditu muga horiek, alkateak edo presidentek proposatuta, bera denean eskuduna kontratu horiei dagokienez 2. apartatuak xedatutakoarekin bat.

Prozeduran kontratazio-batzordeak jarduten duenean, kontratazio-mahaia ez du prozedura horretan parte hartuko.

6. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, lege honen 228. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eraturako organoek gauzatu ahalko dituzte kontratazioaren arloko eskumenak; akordio bidez eraturako organo horiek kontratazio-zentral gisa jarduteko.

Era berean, hitzarmenak sinatu ahalko dira kontratazio-prozeduraren kudeaketa probintzietako diputazioen edo probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen esku uzteko.

7. Kontratazio-mahaiko burua udalbatzako kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira udalbatzako idazkaria edo, hala behar duenean, udalbatzari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo, kasua bada, kontrol ekonomikoaren eta aurrekontukoaren gaineko eginkizuna esleitua duen organoaren titularra, bai eta, karrerako funtzionarioen edo udalbatzaren zerbitzura ari diren langile lan-kontratudunen edo zinegotzien artean kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago. Idazkaria udalbatzako funtzionario bat izango da.

Udal erako toki-entitateetan, mankomunitateetan eta toki-partzuergoetan posible izango da kontratazio-mahaian probintzietako diputazioen edo probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen zerbitzura diharduten langileak mahaikide izatea.

Behin-behineko langileek ezingo dute inolaz ere parte hartu kontratazio-mahaian, ez eta eskaintzak baloratzeko txostenik egin ere. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean.

Mahaia osatzen kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Kontratazio-mahaia iraunkorrak eratu ahalko dira.

8. Toki-entitateetan karrerako edozein funtzionario edo langile lan-kontratudun finko izan ahalko da lege honen 146. artikuluan 2. apartatuaren a) letran aipatzen den adituen batzordeko kide, hots, balio-iritzi baten mende dauden irizpideak baloratzeko eginkizuna duen adituen batzordeko kide, kualifikazio egokia badu eta kasuan kasuko kontratuaren dokumentazio teknikoaren erredakzioan parte hartu ez badu. Nolanahi ere, langile horien artean kontratazio publikoaren arloko teknikari legelari espezializatu bat egon beharko da.

9. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango da haietan kontratu pribatuak egitea, bai eta toki-entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea

eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua ez bada, 100.1 artikuluan zehaztutako baldintzekin bat, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioi euro baino gehiago; ondarea besterentzea ere beren eskumena izango da, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.

10. Osoko Bilkurari dagokio kontratu pribatuak egiteko eskumena izatea, toki-entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legeriaren mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea, edo ondarea besterentzea, baldin eta eskumen horiek ez bazaizkio alkateari edo presidenteari esleitu; baita balio historiko edo artistikoko ondareztat jotako ondasunak besterentzea ere, edozein dela ere haien balioa.

11. Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikuluan aipatzen diren biztanle kopuru handiko udalerrietan, aurreko apartatueta aipatzen diren eskumenak tokiko gobernu-batzarrarenak izango dira, kontratuaren zenbatekoa edo iraupena dena delakoa ere.

12. Lege honetan diputazio probintzialei buruz egiten diren aipamenak kasuan kasuko autonomia-erkidegoetan aurreikusitako udalez gaindiko toki-enteei buruzkoak ere badira, baldin eta ente horiek eskumenak badituzte udalentsako laguntzaren eta lankidetzaren arloan, bai eta tokiko zerbitzu publikoak ematearen arloan ere.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Toki-entitateetarako kontratazio publikoaren arau bereziak.*

1. Toki-administrazio publikoek lege honetan jasotako arauak aplikatuko dituzte, aurreko xedapen gehigarrian eta xedapen gehigarri honetan jasotako berezitasunekin.

2. Aurrez izapidetu ahalko dira benetan egikaritzen hurrengo ekitaldian hasi behar diren kontratuak edo finantzaketa beste erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako mailegu, kreditu edo diru-laguntza baten mende dutenak, eta adjudikazioa egiteko orduan, aintzat hartuko da baldintza etengarria, kasuan kasuko kontratua finantzatu behar duten baliabideen behin betiko bateratzeari dagokionez.

3. Fiskalizazio-lana, berriz, toki-entitateko organo kontu-hartzaileak egingo du. Fiskalizazio hori egingo da, halaber, kontratu berri bakoitzaren ondorioei buruz kontratazio-espeditentean sartzen den balioespenaren gainean, kontratu txikien kasuan izan ezik, toki-entitateak bete ditzan Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7.3 artikulua eskatzen dituen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak. Kontu-hartzailetzako organoak kontratu guztien harrera materialean lagunduko du, kontratu txikien kasuan izan ezik, inbertsioen fiskalizatze materialaren eginkizuna betetze aldera, horixe eskatzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duenak, 214.2.d) artikuluan. Harrera horretan, kontratuaren objektuan espezializatuta dagoen teknikari baten laguntza eduki ahalko du. Teknikari horrek obra-zuzendariaz eta kontratuaren arduradunaz beste bat izan beharko du. Diputazio probintzietako laguntza-zerbitzuek laguntza emango diete udal txikiei ondore horietarako eta legean aurreikusitako gainerakoetarako.

4. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan egindako kontratueta, gastuaren onespeneren orde, kreditua badagoela egiaztatzeke ziurtagiri bat erabili ahalko da, idazkari kontu-hartzaileak edo –hala behar duenean– udalbatzako kontu-hartzaileak emana.

5. Obra- eta zerbitzu-emakidako kontratueta, lege honetan araututako bideragarritasunaren azterketarekin batera izapidetuko da neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzen duen espeditentea, zeina Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 86.1 artikulua eskatzen baitu eta erregelamenduz zehaztutako edukia izango baitu.

6. Proiektuak gainbegiratzeko 235. artikuluan ezarritako arauak bete beharko dituzte obra-kontratuak. Gainbegiratze-lan hori erakunde kontratatzailearen barruan horretarako eskumena duten bulegoek edo unitateek egin ahalko dute, eta, halakorik ez duten



udalerrien kasuan, dagokion probintzia-diputazioko edo probintzia bakarreko administrazio autonomikoko bulegoek edo unitateek. Proiektuak onesteko erabakian, berariaz jasoko da haren aldeko gainbegiratzeari buruzko erreferentzia.

7. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, dena delako obra-kontratuaren finantzaketa urtebeteko aurrekontuarena baino handiagoa bada, obraren atal bakoitzerako proiektu berezitu bat idazteko aukera egongo da, atal horietako bakoitza bere aldetik erabiltzeko modua baldin badago zerbitzuaren erabilera orokorraz aparte, eta zehazki zer den definitzea baldin badago. Proiektuetako bakoitza kontratu baten bidez egikaritu ahalko da, 99. eta 101. artikuluen aplikazioa eragotzi gabe.

8. Legearen arabera zerbitzu juridikoek egin beharreko txostenak idazkariak egingo ditu. Halaber, idazkariaren txosten juridikoa nahitaezkoa izango da kontratazioak egiteko, kontratuak aldatzeko, prezioak berrikusteko, luzapenak egiteko, oreka ekonomikoari eusteko eta kontratuak interpretatu eta suntsiarazteko espedienteak onesteko. Halaber, idazkariari egokituko zaio Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezartzen diren publizitate- eta informazio-betebeharrak koordinatzea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren e) letran xedatutakoari jarraituz, X. tituluak xedatzen duen araubideari atxikitako udalerrietan, aholkularitza juridikoaren titularrari egokituko zaio apartatu honetan idazkariari esleitzen zaizkion txostenak egitea. Aipatu berri ditugun publizitate- eta informazio-betebeharrak koordinatzea Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoaren titularrari egokituko zaio.

9. Ondasun higiezinak erosteko kontratuen kasuan, erositakoa ordaintzeko epea lau urtez atzeratu ahalko da, toki-ogasunak arautzen dituen araudian etorkizuneko gastu-konpromisoen inguruan aurreikusitako izapideak beteta. Geroratze hori erabili ahalko da, halaber, toki-entitatearen sektore publikoa osatzen duten entitateen kapitalaren titulartasuna adierazten duten tituluak eskuratzeko, hura berregituratze aldera.

10. Toki-entitateak kontratazio zentralizatuko estatu-sistemari eta autonomia-erkidegoetako eta beste toki-entitate batzuetako kontratazio-zentralei atxiki ahalko zaizkio, bai eta lege honen arabera toki-entitateen elkarteek eta Estatuko Administrazio Orokorrak sortzen dituzten kontratazio-zentralei ere, 228. artikulua 3. apartatuak xedatuarekin bat; apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarriak aipatzen ditu toki-entitateen elkarte horiek.

11. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek erregulazio harmonizatukoak ez diren zerbitzu-emakidako kontratuak lizitatu ahalko dituzte, bi zerbitzu publikoren edo gehiagoren kudeaketari buruzkoak, baldin eta kontratuaren batez besteko urteko ordainketak ez badu 200.000 euroko kopurua gainditzen eta kontratazio-organoak kontratazio-espedientearen erabaki hori justifikatzen badu zerbitzu horien kudeaketa bateratua egiteko beharrian objektiboa dagoela azalduz. Nolanahi ere, administrazio-klausula partikularren agiriari zerbitzu-emakidako kontratuaren esparru funtzional eta lurraldekoa zehaztuko ditu.

Laugarren xedapen gehigarria. *Kontratu erreserbatuak.*

1. Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabakien bidez, gutxienerako erreserba-ehunekoak ezarriko dira zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait sorta adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezietan eta laneratze-enpresei erreserbatzeko, edo gutxienerako erreserba-ehuneko bat ezarriko da kontratu horiek enplegu babestuko programen barruan gauzatzeko, baldin eta enplegu-zentro berezietako, laneratze-enpresetako edo programetako langileen artean desgaitasuna dutenen edo gizartetik baztertuta daudenen ehuneko enpresa horien erreferentziako araudian aurreikusitakoa bada, eta, betiere, gutxienez 100eko 30 bada. Enplegu-zentro berezi eta laneratze-enpresa horiek arautu zituzten, hurrenez hurren, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen eta haien Gizarteratzearen Lege Orokorraren testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Gizarteratze Enpresen



Araubidearen Legeak (abenduaren 13ko 44/2007 Legea), eta lege horietan ezarritako betekizunak bete behar dituzte halakotzat hartuak izateko.

Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabaki horietan gutxieneko baldintzak ezarriko dira aurreko paragrafoan xedatutakoa bete dadin bermatzeko.

Ministro Kontseiluak lege hau indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen hartu behar du apartatu honetan aipatutako erabakia. Epe hori amaitutakoan, Ministro Kontseiluak erabakirik hartu ez badu, Estatuko sektore publikoko kontratazio-organoei ehuneko 7ko gutxieneko erreserba-ehunekoa aplikatu beharko dute VI. eranskinak jasotako CPV kodeetan bildutako hornidura eta zerbitzuak adjudikatzeko prozeduren guztizko zenbatekoaren gainean, apartatu honetako lehen paragrafoan adierazitako moduan; ehuneko hori ehuneko 10era igoko da lege hau indarrean jarri eta handik lau urtera.

2. Lizitazio-iragarkian, xedapen honen berri eman beharko da.

3. Xedapen gehigarri honek ezarritako erreserba aplikatzen zaien kontratazio-prozeduretan ez da eskatuko lege honen 107. artikuluan aipatzen den behin betiko bermea, salbu eta kontratazio-organoei, aparteko arrazoiengatik, beharrezkotzat jo eta espedientean horrela justifikatzen badu.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Iragarkien argitalpena.*

1. Kontratatzailearen profilean aurretiatzko informazioa emateko iragarkiek, lizitazio-iragarkiek, kontratuen formalizazioaren publikitatearen egitekoek, proiektu-lehiaketak eta horien emaitza iragartzekoek eta aldaketak iragartzekoek –134, 135, 154 eta 186. artikuluetan eta 207. artikuluan 3. apartatuan jasota– III. eranskinean aipatzen den informazioa jasoko dute *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu behar direnean, kasuan kasuko formulario normalizatuen formatuari jarraituz; horren barnean sartzen dira huts-zuzenketak egiteko iragarkiak.

2. Lehen apartatuan adierazitakoen moduko iragarki bat *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu behar duten kontratazio-organoei bitarteko elektronikoez igorri beharko diote hura Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoari, eta horrek kontratazio-organoei berretsiko dio hura jaso duela. Behin iragarkia *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratuta, kontratazio-organoei argitalpenaren jakinarazpen bat jasoko du, zeinak argitalpena egin izanaren frogabide gisa balioko baitu. Halaber, kontratazio-organoei bidea izan beharko dute frogatu ahal izateko iragarkiak noiz bidali dizkioten Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoari.

3. Lehen apartatuan aipatzen diren iragarkiek, aldaketa-iragarkia kenduta, nazio mailan argitaratzen direnean, artikulua honetan adierazitako informazioaz gainera, jaso beharko dute iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora noiz bidali zen edo kontratazio-organoen kontratatzailearen profilean noiz argitaratu zen, kasuaren arabera.

Seigarren xedapen gehigarria. *Unibertsitate publikoetan aplikatu beharreko xedapenak.*

1. Legearen 80. artikuluan 2. apartatutako xedatutakoaren ondoretarako, autonomia-erkidegoen mendekoak diren unibertsitate publikoek adjudikatzen dituzten kontratuen kasuan, dena delako autonomia-erkidegoan dagokion organoei sailkapenak egiteko eta sailkapenak berrikusteko onetsitako erabakiek izango dute eragina.

2. Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 83. artikuluan 1. apartatuan aipatzen diren kasuetan, unibertsitate publikoei ez zaie sailkapenik eskatuko kontratuen adjudikaziodun izateko.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak.*

Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasun higarrien eskuratzea berriazko araudiak erregulatuko du.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan egindako kontratuak.*

1. Lege honek xedatutakoari jarraituz egingo da honako hauen kontratazioa: uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurari buruzko legeria indardunaren aplikazio objektiboaren eremuan aipatutako jardueretako bat objektu duten administrazio publikoen kontratuen adjudikazioa; eta aipatutako legeria indarduna aplikatuko da soilik zehazteko zein kontratu hartuko diren erregulazio harmonizatuko kontratutzat.

2. Administrazio publiko ez diren sektore publikoko entitateek adjudikatzen dituztenean uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurari buruzko legeria indardunaren aplikazio objektiboaren eremuan aipatutako jardueretako bat objektu duten kontratuak, legeria horri jarraitu beharko zaio, salbu eta lege batek kontratu horiek lege honetan aurreikusitako araubidearekin lotzen baditu; izan ere, kasu horretan, erregulazio harmonizatuko kontratuetarako aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkie.

Jarduera bat baino gehiago egitera bideratutako kontratuetan, jarduera horietako bat Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko Legearen esparrukoa denean, jarduera nagusiaren araubide juridikoa aplikatuko da.

Baldin eta objektiboki ezin bada zehaztu kontratua nagusiki zein jardueretara bideratuko den, lege hau aplikatuko da.

Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko legeria indardunaren aplikaziotik salbuetsitako kontratuak –administrazio publiko ez diren sektore publikoko entitateek uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan egindakoek– lege honen kasuan kasuko xedapenak bete beharko dituzte, eta ez zaizkie aplikatuko, inoiz ere, lege honetan erregulazio harmonizatuko kontratuetarako bakarrik gordetako arauak.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren entitateek egiten dituzten kontratuen adjudikazioa lege honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, bertan ezarri bezala, kontratu horien objektua uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreko kontratazio-prozedurari buruzko legeria indardunaren aplikazio objektiboaren eremuan aipatutako jardueretako bat ez denean.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Datu-baseetarako irispidea kontratatzeke eta argitalpenen harpidetza egiteko arau bereziak.*

1. Aldizkarien eta beste argitalpen batzuen harpidetza –euskarria dena delakoa izanik ere– eta datu-base berezietan jasotako informaziorako irispidearen kontratazioa, bai eta, ezinbestekoak diren neurrian, aipatu berri diren harpidetzarako edo kontrataziorako beharrezkoak diren zerbitzuen kontratazioa ere egin ahalko dira lege honetan kontratu txikietarako zehaztutako baldintzen arabera eta hornitzaileek aplikatzen dituzten baldintza orokorren arabera –ordaintzeko formula barne–, zenbatekoa edozein delarik ere eta erregulazio harmonizatuko kontratuen multzokoa ez denean. Kasu horietan, zenbatekoa kontratuaren baldintzetan aurreikusitako moduan ordainduko da, eta posible izango da entrega egin edo prestazioa gauzatu aurretik ordaintzea, hori baldin bada merkatuko ohitura.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren kontratuak bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egiten direnean, kontratua egingo duten sektore publikoko entitateak kontsumitzailetzat joko dira, informazioaren gizarteko zerbitzuei eta merkataritzaren elektronikoaren arloko zerbitzuei buruzko legerian aurreikusitako ondoretarako.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Zenbatekoen eta epeen aldaketak, eta Europar Batasuneko zuzentarauetako eranskinen ondoriozko beste aldaketa batzuk.*

Baimena ematen zaio Ministro Kontseiluari lege honetako artikuluetan aipatutako zenbatekoak errege-dekretuz alda ditzan, autonomia-erkidegoei entzun ondoren eta

ekonomiaren egoera kontuan hartuta. Era berean, baimena eman zaio Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroari legean egin beharreko aldaketak egin ditzan, kontratazio publikoa arautzen duten Batasuneko zuzentarauen eranskinen ondoriozko aldaketak lege honetara ekartzeko.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Europar Batasunak finkatutako zenbatekoak eguneratzea.*

Europako Batzordeak aurrerantzean finkatuko dituen zenbatekoek lege honetako testuan ageri direnak ordezkatzeko dituzte. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak zenbateko horiek jendartean ezagutarazteko beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Epeen zenbaketa.*

Lege honetan epeak egunetan ezartzen direnean, egun horiek egun naturaltzat hartuko dira, egun baliodunak bakarrik zenbatu behar direla berariaz adierazten denean izan ezik. Edonola ere, epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko aipamenak.*

Balio erantsiaren gaineko zerga aipatzen denean, Kanarietako zeharkako zerga orokorra edo ekoizpenari, zerbitzuei eta inportazioari buruzko zerga ere aipatzen dela ulertu beharko da, zerga horiek indarrean dauden lurraldeetan.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *Kontratazio-mahaietan legelariak ordezkatzea.*

Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaile eta zerbitzu erkideei dagokienez, erregelamenduz ezarri ahalko da zein egoeratan hartuko duten parte kontratazio mahaiari berariaz horretarako gaitutako legelariak, legez edo erregelamenduz kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna esleiturik dutenen orde.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Lege honetan araututako prozeduretan erabili ahalko diren komunikazio-bideei buruzko arauak.*

1. Lege honek aipatzen dituen jakinarazpenak horretarako prestatutako helbide elektronikoa erabiliz edo, bestela, agerraldi elektronikoaren bidez egin ahalko dira.

Jakinazpenetik kontatzen diren epeak jakinarazpena edo jakinarazpenaren abisua igorri den egunetik hasiko dira kontatzen, baldin eta agerraldi elektronikoaren bidezko jakinarazpena bada, betiere jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Hala ez bada, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontatuko dira.

Aurrekoa gorabehera, kontratatzailearen profileko publizitatearen baldintza ez zaie aplikatuko errekurtsio bereziaren prozedura dela-eta egiten diren jakinarazpenei, zeinak prozedura ebazteko organo eskudunek egindakoak baitira; izan ere, halakoetan, epeak kontatuko dira hura edo jakinarazpenaren abisua igortzen den datatik aurrera, baldin eta agerraldi elektronikoaren bidezkoa bada.

2. Lege honetan araututako kontratuen adjudikaziorako prozeduren izapidetzeak berekin ekarriko du horiekin zerikusia duten jakinarazpen eta komunikazioak soilik bide elektronikoen bitartez egitea.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, ahozko komunikazioa erabili ahalko da kontratazio-prozedura baten funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, baldin eta ahozko komunikazioaren edukia nahikoa dokumentaturik badago. Horri dagokionez, kontratazio-prozedura baten funtsezko elementuak honako hauek dira: kontratazioaren baldintza-agiriak, parte hartzeko eskaerak eta eskaintzak. Bereziki, eskaintzen edukian eta ebaluazioan funtsezko eragina izan dezaketen lizitatzaileekiko

ahozko komunikazioak nahikoa dokumentatuta egongo dira, behar diren bitartekoen bidez; besteak beste, komunikazioaren elementu nagusien idatzizko edo ahozko artxibo edo laburpenak.

3. Parte hartzeko eskaintzak eta eskaerak aurkezteko, bitarteko elektronikoak erabiliko dira, xedapen gehigarri honetan ezarritako baldintzen arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, honako kasu hauetan kontratazio-organoez ez dute zertan bitarteko elektronikoak eskatu eskaintzak aurkezteko prozeduretan:

a) Kontratazioaren izaera espezializatua dela eta, bitarteko elektronikoak erabiltzeak berekin dakarrenean eskuragarri ez dauden tresna, dispositibo edo artxibo-formatu berriak behar izatea edo orokorrean erabilgarri dauden programak onartzen ez dituztenak behar izatea.

b) Eskaintzak deskribatzeko fitxategi-formatu egokiak baliatzen dituzten aplikazioek beste programa ireki batzuek edo guztien eskura daudenean prozesatu ezin dituzten fitxategi-formatuak erabiltzen dituztenean, edo aplikazio horiek erabilera pribatiboko lizentzia-araubide baten mende daudenean eta kontratazio-organoez ezin dituztenean haiek eskaini deskargatzeko edo urrutitik erabiltzeko.

c) Bitarteko elektronikoak erabiltzea bulegotikako ekipamendu espezializatua edukitzearekin loturik dagoenean; hain zuzen, kontratazio-organoez izan ohi ez duten ekipamendu espezializatua edukitzearekin.

d) Kontratazioaren baldintza-agiriek eredu fisikoak edo eskalara egindakoak aurkeztea eskatzen dutenean, bitarteko elektronikoak erabiliz ezin transmititu daitezkeenak.

Apartatu honetan ezarritakoaren arabera bitarteko elektronikoak erabiltzen ez diren informazio-trukeei dagokienez, informazioa postaz bidaliko da, edo beste edozein bitarteko egoki erabiliz, edo postaren eta beste bitarteko egoki baten edo bitarteko elektronikoaren konbinazio baten bidez. Kasu horretan, kontratazio-organoez berriazko txosten batean adieraziko dute zer dela-eta jo duten beharrezkotzat bitarteko ez-elektronikoak erabiltzea.

4. Halaber, kontratazio-organoez ez dituzte bitarteko elektronikoak eskatu beharko eskaintzak aurkezteko prozesuan bitarteko ez-elektronikoak erabili behar badira, dela aipatutako bitarteko elektronikoaren segurtasuna urratu delako, dela babes handia eskatzen duen informazio labain-labaina babestu nahi delako; hain zuzen, behar den babes hori hain handia denean eta ezin denean egoki bermatu operadore ekonomikoek eskura izan ohi dituzten gailu eta tresna elektronikoak erabiliz edo xedapen gehigarri honen 7. apartatuan xedatutakoaren ildotik irispiderako beste bitarteko batzuen bidez eskura ditzaketenak erabiliz. Kasu horretan, kontratazio-organoez berriazko txosten batean adieraziko dute zer dela-eta jo duten beharrezkotzat elektronikoez beste bitarteko batzuk erabiltzea.

5. Kontratazio-organoez eta haien mendeko organoez zainduko dute komunikazio, informazio-truke eta informazioa biltegiratu eta zaintzeko eragiketa guztietan datuen integritatea eta eskaintzen zein parte hartzeko eskarien konfidentzialtasuna gorde daitezela. Gainera, bermatu beharko da eskaintzen eta parte hartzeko eskarien edukia ez dela ezagutzen hura aurkezteko epea amaitzen den arte eta haiek irekitzeko finkatu den unera arte.

6. Obra- eta zerbitzu-kontratu publikoetan, obra-emakidako eta proiektuen lehiaketetako kontratu publikoetan, eta horien elementuak konbinatzen dituzten kontratu mistoetan, kontratazio-organoez exijitu ahalko dute tresna elektroniko berriazko batzuk erabili daitezela; esate baterako, eraikuntzaren informazioaren modelatu digitala (BIM) edo antzeko tresnak. Kasu horietan, irispiderako bitarteko alternatiboak eskainiko dituzte, xedapen gehigarri honen 7. apartatuan xedatutakoaren arabera, harik eta tresna horiek operadore guztien eskura egon arte.

7. Beharrezkoa denean, kontratazio-organoez exijitu ahalko dute guztion eskura ez dauden tresna eta gailuak erabili daitezela, baldin eta horren truke irispiderako bitarteko

alternatiboak eskaintzen badituzte. Honako kasu hauetan, kontratazio-organoek irispiderako bitarteko alternatibo egokiak eskaintzen dituztela ulertuko da:

a) Tresna eta gailu horietarako irispide osoa eta zuzenekoa doan eskaintzen dutenean bitarteko elektronikoen bidez, kasuan kasuko iragarkia argitaratzen den egunetik edo, kasua bada, gonbidapena bidaltzen denetik. Iragarkiaren edo gonbidapenaren testuak zehaztuko du Interneteko zein helbidetatik eskura daitezkeen tresna edo gailu horiek; bestela:

b) kasuan kasuko tresna eta gailuetarako irispiderik ez duten edo tresna eta gailu haiek finkatutako epean lortzeko aukerarik ez duten lizitatzaillei –irispide falta hori lizitatzaileri ezin egotz dakiokenean– kontratazio-prozedurarako irispidea bermatzen dietenean linean doan eskura daitezkeen irispide-mekanismo behin-behinekoak erabiliz; bestela:

c) eskaintzak modu elektronikoz aurkezteko bide alternatibo bat onartzen dutenean.

8. Bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen, gainera, lege honen hamaseigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren baldintzak ere bete beharko dituzte.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilitea legean araututako prozeduretan.*

1. Lege honetan aurreikusitako prozeduretan, bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera honako arau hauetara egokituko da:

a) Bitarteko elektronikoen bidez komunikatzeko erabili beharreko tresnek eta gailuek eta haien ezaugarri teknikoek ez dute diskriminaziorik eragingo, guztiontzat eskuragarri egongo dira, bateragarriak izango dira erabilera orokorreko produktu informatikoen eta ez die kontratazio-prozedurarako irispidea oztopatuko operadore ekonomikoek.

b) Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak, bai eta proiektuen lehiaketetako plano eta proiektuak ere –zifratua eta datuen balidatzea barne– modu elektronikoen aurkezteko behar diren informazioak eta zehaztapen teknikoek interesdun guztien eskueran egon beharko dute, ezingo dute diskriminaziorik eragin, eta bat etorri beharko dute estandar ireki, erabilera orokorreko eta ezarpen zabalekoekin.

c) Eskaintzen eta parte hartzeko eskaeren aurkezpen elektronikorako behar diren programa eta aplikazioek, berriz, erabilera zabal eta irispide errazekoak izan beharko dute, eta ezingo dute diskriminaziorik eragin, edo kontratazio-organoak interesdunen eskueran jarri beharko ditu.

d) Komunikazio-sistemek eta informazioa trukatzeko eta biltegitatzeko sistemek kapaz izan beharko dute, teknikaren egoeraren arabera, zentzuzko modu batean bermatzeko transmititzen diren datuen osotasuna; halaber bermatu beharko dute organo eskudunek bakarrik eduki ahal izatea irispidea datu horietara, horretarako zehaztutako datan, edo irispidea izateko debeku hori urratzen bada, debeku-urratze hori argi eta garbi detektatu ahal izatea. Sistema horiek, era berean, nahikoa segurtasuna eskaini beharko dute, teknikaren egoerari jarraituz, birus informatikoen eta bestelako programa edo kode kaltegarrien aurrean, eta beste neurri batzuk ere ezarri ahalko dira erregelamendu bidez. Neurri horiek eskaintzen konfidentzialtasun- eta osotasun-printzipioak eta lizitatzaileren arteko berdintasuna errespetatuko dute, eta birus edo kode horiek prozeduretan duten eragina ahalik eta txikiena izan dadin izango dute xede.

e) Kontratazio-organoaren eta lizitatzaileren edo kontratistaren arteko komunikazioak eta jakinarazpenak egiteko erabiltzen diren aplikazioek ahalmena izan beharko dute egiaztatzeko horiek bidali diren edo eskura jarri diren nahiz interesdunak jaso dituen edo haietara irispidea izan duen eguna eta ordua, haien edukiaren osotasuna, eta bidaltzailearen identitatea.

f) Kontratazio-organoek zehaztu beharko dute zein segurtasun-maila exijitzen zaien kontratazio-prozedura bakoitzaren fase bakoitzean erabiltzen diren komunikaziorako bitarteko elektronikoei; izan ere, segurtasun-maila horrek egin beharreko informazio-trukeei lotutako arriskuen proportzioan egon beharko du.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren agindu baten bitartez ezarriko dira Sektore Publikoaren kontratazio-prozeduretan sinadura elektronikoa erabiltzeko baldintzak.

g) Lege honetan idatzizko dokumentuen aurkezpenari buruz egiten diren erreferentziak ez dira eragozpena izango horiek bitarteko elektronikoz aurkezteko, ez eta, kasua bada, euskarri fisiko elektronikoa sortzeko eta gero aurkezteko ere, artikulu honetan eta hura garatzeko xedapenetan emandako arauari jarraituz.

h) Kontratuak adjudikatzeko prozeduretan, bitarteko elektronikoen bidez bi fasetan bidali ahalko dira eskaintzak: lehenengo, eskaintzaren marka elektronikoa helaraziz (sinadura hori jasotzearekin, egintzat hartuko da eskaintzaren aurkezpena ondore guztietarako), eta, gero, eskaintza bera gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da.

Eskaintzaren marka elektronikoa halako datu-multzo bat da, zeinaren sorrera-prozesuak bermatzen baitu datu horiek zalantzarik gabeko eran lotuta daudela eskaintzaren beraren edukiarekin; datu horiek, gainera, aukera ematen dute eskaintzaren edukian gerta daitezkeen aldaketak detektatzeko, haren integritatea bermatuz. Espedienteari gehitu beharreko dokumentuen kopia elektronikoen administrazio-prozedura erkidearen arloko indarreko legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta hartan ezarritako ondoreak sortuko dituzte.

i) Beren dokumentuak modu elektronikoa aurkezten dituzten lizitatuak edo hautagaiek kontratazio-organoari aurkeztu ahalko diote dokumentu horien segurtasun-kopia bat euskarri fisiko elektronikoa, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren aginduaren bidez ezarritakoarekin bat, betiere kontratazio-organoak horretarako ezarritakoari jarraituz.

j) Kontratazio-espeditentak osatzen dituzten dokumentu elektronikoen formatuak edonork eskuratzeko moduko zehaztapenen arabera izan beharko dira, eta murriztapenik gabe erabiltzekoak; bermatu behar dute, gainera, kontratazio-organoak, fiskalizazio- eta kontrol-organoek, organo jurisdikzionalak eta interesdunek irispide librea eta osoa edukiko dutela espeditentea gorde behar den epean zehar. Kontratuak adjudikatzeko prozeduretan, iragarkian edo baldintza-agirietan adierazi beharko da zer formatu onartzen diren.

k) Kontratuak bitarteko elektronikoz adjudikatzeko prozedurak izapidetzeko baldintza gisa, kontratazio-organoek lizitatuak exijitu ahalko diote beharrezko diren datuak dagokion Lizitatuak Erregistroan inskribatzeko.

Lizitazioa Europar Batasuneko kidea den edo Europako Esparru Ekonomikoaren sinatzailea den estatu bateko atzerriko enpresaburuak aurkezten direnean, haien gaitasuna, kaudimena eta kontratatze debeku-eza egiaztatu ahalko da, edo Europar Batasuneko kidea den estatu baten kontratatze baimena duten enpresaburuaren zerrenda ofizialean kontsulta eginez, edo inguruabar horiek egiaztatze dokumentazioa aurkeztuz, hain zuzen behin betiko bermea aurkezteko emandako epean aurkeztu beharko baitu.

2. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren agindu baten bitartez finkatuko dira Sektore Publikoaren kontratazio-prozeduretan bitarteko elektronikoa erabiltzeko zehaztapen teknikoak.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Dokumentuen harrera elektronikorako tresnei eta gailuei buruzko berariazko baldintzak.*

Eskaintzen, parte hartzeko eskaeren, proiektuen lehiaketetako plano eta proiektuen eta kontratazio-organoari aurkeztu beharreko dokumentazio guztiaren harrera elektronikoa egiteko tresna eta gailuek honako hauek bermatu beharko dituzte, gutxienez, behar diren bitarteko eta prozedura egokien bitartez:

a) Zehaztu ahal izatea eskaintzak, parte hartzeko eskaerak eta horiei lotutako dokumentazioa zein ordu eta data zehaztuta jaso diren eta plano eta proiektuak zein ordu eta data zehaztuta bidali diren.



b) Behar adina bermatu ahal izatea baldintza hauek direla-eta igorritako datu eta dokumentuetarako irispiderik inork ez duela izango ezarritako epeak iragan arte.

c) Baimena duten pertsonak bakarrik finkatu edo aldatu ahal izatea jasotako datu eta agiriak irekitzeko egunak.

d) Kontratazio-prozeduraren edo proiektuen lehiaketaren ezein fasetan, baimendutako pertsonak baizik ez dute irispiderik izango aurkeztutako datu eta dokumentu guztietara edo haien zati batera.

e) Baimendutako pertsonak baizik ezingo dute irispidea eman transmititutako datu eta dokumentuetara, eta soilik zehaztutako dataren ondoren egin ahalko dute hori.

f) Baldintza hauek aplikatuta jasotako eta irekitako datu eta dokumentuak irisgarriak izango dira soilik haiek ezagutzeko baimena duten pertsonentzat.

g) Baldin eta b) letratik f) letrara aipatzen diren irispiderako debeku edo baldintzak hausten badira edo haiek hausten saiatzen bada, behar adina bermatu ahal izatea arau-hauste edo horretarako ahaleginak argi detektatu daitezkeela.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Irisgarritasun-bermea desgaitasunen bat duten pertsonentzat.*

Kontratazio publikoaren eremuan, zein komunikabide onartuko diren zehaztu, elementu lagungarriak diseinatu eta prozedurazko izapideak ezartzeko orduan, irisgarritasun unibertsalaren irizpideak eta diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren irizpideak hartu beharko dira kontuan, termino horiek Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan definitzen diren bezala.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitate Orokorrak, Mutualitate Orokor Judizialak eta Indar Armaturen Gizarte Institutuak osasun-sorospeneko prestazioetarako egindako itunak.*

1. Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak, Mutualitate Orokor Judizialak eta Indar Armaturen Gizarte Institutuak, beren babes-eginkizuna garatze aldera, entitate publikoekin, aseguru-entitateekin, medikuntzako sozietateekin eta beste entitate eta enpresa batzuekin osasun-laguntzako zerbitzuak emateko egiten dituzten itunek zerbitzu-emakidako kontratuaren izaera izango dute, edozein delarik itun horien zenbatekoa eta modalitatea, eta mutualitate horietako bakoitzaren araudi bereziaren bidez arautuko dira; araudi horrek aurreikusten ez dituen gauza guztietan, berriz, sektore publikoko kontratuen legeriaren bidez.

2. Nolanahi ere, aipatutako entitateek aipatutako itunak egiteko daukaten asmoa eman beharko dute ezagutzera, aurretiazko informazioaren iragarki baten bitartez, zeinean lege honen III.B eranskinaren 3. atalean jasotako edukia agertuko baita. Eduki hori kontratatzaile-profilean eta *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko da.

Halaber, aplikatzekoa izango zaie lege honen 154. artikuluan eta lehen liburuaren I. tituluaren V. kapituluan aipatutakoa; izan ere, horiek formalizazio-iragarkia argitaratzeari eta kontratazio-arloko errekurtsio bereziari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

Hogeigarren xedapen gehigarria. *Informazioa eta komunikazioak tratatzeko ekipamenduak eta sistemak eskuratzeko eskumenei buruzko arau bereziak.*

230. artikuluan zehaztutakoa hala izanik ere, erosketa zentralizatuaren bidez erostekotzat jo ez diren informazio-tratamendurako ekipamenduak eta sistemak eta ekipamendu osagarriak erosteko eskumena Defentsa Ministerioaren eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen eta zerbitzu komunien kontratazio-organoen eginkizuna izango da, dagozkien eskumenen barruan.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. *Atzerriko enpresekiko hornidura-kontratuak.*

Atzerriko enprekin egiten diren hornidura-kontratuen kasuan, kontratuaren objektua lurralde nazionaletik kanpo fabrikatzen denean edo jatorria hortik kanpo duenean, lege honek xedatutakoa bete beharko da, alde batera utzi gabe nazioarteko merkataritzan indarrean diren arau eta erabilerekin bat alderdiek hitzartzen dutena. Halaber Defentsa Ministerioak enpresa horiekin egiten dituen eta lurralde nazionaletik kanpo egikaritu behar diren hornidura-kontratuen kasuan.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. *Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak ekonomia mistoko sozietateei adjudikatzea.*

1. Obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuak zuzenean adjudikatu ahalko zaizkio kapitalaren zati handiena publikoa duen ekonomia mistoko sozietate bati, baldin eta bazkide pribatua lege honetan kontratua esleitzeko ezarritako arauen arabera aukeratu bada –dagokion objekturako kontratua adjudikatzeko ezarritako arauen arabera esan nahi baita–, eta ez bada aldaketarik egiten bazkide pribatua aukeratzeko kontuan hartu ziren kontratuaren objektuan eta baldintzetan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat zuzenean esleitzen diren obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuen aldaketa soilik egin ahalko da bigarren liburuaren I. tituluak I. kapituluaren 3. atalaren 4. azpiatalean ezarritakoaren arabera (kontratuen aldaketari buruzkoa da azpiatal hori).

2. Ekonomia mistoko sozietateak nahi baldin badu emakidadun gisa irispidea izan 1. apartatuan aipatzen diren kontratuetatik desberdin diren beste batzuetara, dagokion lizitazio-prozedurara aurkeztu beharko da, lege honetan ezarritakoari jarraituz.

3. Zenbait finantzabide erabiltzeko aukera alde batera utzi gabe –adibidez, obligazioak, jesapenak edo partaidetza-kredituak jaulkitzea–, obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratu bat egikaritzeko eraturako ekonomia mistoko sozietateek honako hauek izango dituzte aukeran:

a) Kapital-gehikuntzetara jotzea; betiere, kapitalaren egitura berriak ez baditu adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen, kontratuan aurreikusita dagoenean salbu.

b) Kontratua adjudikatu duen entitatearen aurrean dituzten kobratzeko eskubideak titulizatzea, beraiei egikaritzea agindu zaien kontratuari dagokionez, alde aurretik kontratazio-organoaren baimena lortuta, betiere balore-merkatuei buruzko araudian aurreikusitako baldintzak betez.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Kontratazio-arloko errekurtsio bereziak ebazten dituzten organoen arteko koordinazioa.*

Sortzen diren errekurtsio-organoek beren erabakien koherentzia errazteko eta beren doktrina bateratzeko egokienak diren koordinazio- eta lankidetzeta-formulak adostuko dituzte, ezagut ditzaten aurkezten zaizkien gaiak direla eta. Organo horiek, gainera, kontratu publikoei buruzko araudian aurreikusitako errekurtsio-mekanismoak hobeki funtzionatzeko egokitzat jotzen diren arau-doikuntzak eta gomendioak proposatu ahalko dituzte.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Empresa de Transformación Agraria SA, SME, MP (TRAGSA) enpresaren eta haren filial Tecnologías y Servicios Agrarios SA, SME, MP (TRAGSATEC) enpresaren araubide juridikoa.*

1. Empresa de Transformación Agraria SA, SME, MP (TRAGSA) eta haren filial Tecnologías y Servicios Agrarios SA, SME, MP (TRAGSATEC) enpresen zeregina, besteak beste, funtsezko zerbitzuak ematea da, arlo hauetan: landa-garapena, ingurumena kontserbatzea, aplikazio informatikoak egokitzea eta mantentzea, abereen kontrol sanitarioa, larrialdietako laguntza eta horiekin lotutako beste eremu batzuk; xedapen honetan ezarritakoari jarraituz ematen dituzte zerbitzuok.

2. Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen, Ceuta eta Melilla hiri autonomoen, uharteetako kabildo eta kontseiluen, Euskadiko foru-aldundien, diputazio probintzialen eta horien mendekoak izan eta botere adjudikatzaileraren izaera duten sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatuztat eta zerbitzu teknikitaztat hartuko dira TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresak, baldin eta betetzen badituzte 32. artikulua 2. apartatuaren d) letraren 2. puntuan eta artikulua beraren 4. apartatuaren a) eta b) letratan ezarritako baldintzak, eta behartuta egongo dira 4 eta 5. apartatuaren adierazitako gaiekin loturik entitate horiek enkargatzen dizkieten lanak eksklusiboki egitera, betiere lehentasun berezia emanez presakoak direnei edo deklaritzen diren larrialdiegoeren ondorioz agintzen zaizkienei. Betebehar horren arabera, TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresen ondasun eta dirua babes zibileko eta larrialdietako planetan eta neurrietan sartu ahalko dira.

TRAGSAk eta haren filial TRAGSATECek bata eta bestea bitarteko propio instrumentaltzat eta zerbitzu teknikitaztat dituzten botere adjudikatzailerekin dituzten harremanak instrumentalak izango dira, eta ez kontratuzkoak, eta lege honen 32. artikuluan aurreikusitako mandatuen bidez egituratuko dira; hori dela eta, harreman horiek, ondore guztietarako, barnekoak, mendekoak eta menderatuak dira.

Botere adjudikatzailer hauetakoren batek taldeko sozietateetako bati jardueraren bat egiteko aginduz egiten dion jakinarazpena jarduera horri ekiteko agindua izango da, 32.6.b) artikuluan ezarritakoa bete dadin ezertan kendu gabe.

Halaber, TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresak sektore publikokoak izan eta botere adjudikatzaileraren izaera ez duten entitateen bitarteko propio pertsonifikatuztat eta zerbitzu teknikitaztat hartuko dira eta haien mandatuak jaso ahalko dituzte, betiere 33. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

3. TRAGSA enpresaren kapital soziala, oso-osorik, titulartasun publikokoa izango da.

Autonomia-erkidegoek, Ceuta eta Melilla hiri autonomoek, uharteetako kabildo eta kontseiluek, Euskadiko foru-aldundiek eta diputazio probintzialek sozietate horren kapitalean parte hartu beharko dute akzioak eskuratuz. Akzio horien besterentzea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak baimenduko du, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren ekimenez. Autonomia-erkidegoek eta artikulua honek aipatzen dituen gainerako entitateek Estatuko Administrazio Orokorraren alde bakarrik besterendu ahalko dituzte beren partaidetzak, edo hari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko organismoen alde.

4. TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresek, bitarteko propio pertsonifikatuak direneko sektore publikoko entitateen enkarguz, honako eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Mota guztietako jarduerak, obrak eta lanak egitea eta mota guztietako zerbitzuak ematea nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basogintzarekin, landa-garapenarekin, ingurune naturalaren eta ingurumenaren kontserbazio eta babesarekin, akuikulturarekin eta arrantzarekin loturik, bai eta baliabide naturalak hobeto erabili eta kudeatzeko beharrezko direnak ere. Halaber, era guztietako jarduerak egin ahalko dituzte zerbitzu eta baliabide publikoak hobetzeko, baldin eta berekin ez badakarte botere publikoei berez dagokien agintaritzaz baliatzea; horren barnean sartzen da Espainiako Ondare Historikoa landa-ingurunean kontserbatzeko edo aberasteko obrak egitea, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b) Nekazaritzan, abeltzaintzan, animalien arloko jardueran, basogintzan eta akuikulturaren aritzea, eta jarduera horietako produktuak merkaturatzea; finkak, mendiak, laborantza-zentroak, basogintza-zentroak, ingurumen-zentroak edo natura artatzeko zentroak eta gune eta baliabide naturalak administratu eta kudeatzea.

c) Laborantzako, basogintzako, ingurumeneko, akuikultura eta arrantzako, natura babesteko eta baliabideen erabilera iraunkorrerako teknika, ekipamendu eta sistema berrien sustapena, ikerketa, garapena, berrikuntza eta egokitzapena.

d) Bere eginkizunak betetzeko ondasun higigarriak fabrikatzea eta merkaturatzea.

e) Landareen eta animalien izurriteak eta gaixotasunak prebenitzea eta haien kontra eta baso-suteen kontra borrokatzea, bai eta presako obrak eta laguntza teknikoko lanak egitea ere.

f) Landa-guneetako laborantzako, ingurumeneko eta ekipamenduko azpiegituren eraikuntza edo ustiapena eta sistema informatikoen, larrialdietarako informazio-sistemen eta antzekoen garapena finantzatzea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, bai eta enpresaren xede sozialarekin lotutako sozietateak eratzea eta aurretik eratuta dauden horrelako beste sozietate batzuetan parte hartzea ere.

g) Abeltzaintzako, albaitaritzako, animalien eta elikagaien segurtasuneko eta osasuneko era guztietako zerbitzuak planifikatzea, antolatzea, ikertzea, garatzea, berritzea, kudeatzea, administratzea eta gainbegiratzea.

h) Animalia-, landare- eta mea-etorkiko produktuak, azpiproduktuak eta hondakinak biltzea, garraiatzea, biltegitratzea, eraldatzea, baloratzea, kudeatzea eta ezabatzea.

i) Administrazioei euskarri ematen dieten ekipamendu eta sistema informatikoak mantendu, garatu, berritu eta egokitzea.

j) Presaren edo larrialdiaren bidetik eskatzen zaizkien lanak edo aurrekoen osagarri edo lagungarri diren jarduerak egitea.

Halaber, TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresak behartuta egongo dira berak bitarteko propio pertsonifikatutzat dituzten sektore publikoko entitateen beharrak betetzera, entitate horien interes publikoko helburuak lortzeko, honako hauen bitartez: alde batetik, botere horien aginduz, era guztietako aholkularitzak eta zerbitzu teknikoak planifikatuz, antolatuz, ikertuz, garatuz, berrituz, kudeatuz, administratuz eta gainbegiratuz, aurreko apartatuan adierazitako jarduera-eremuetan; bestetik, eremu horietan garatutako esperientzia eta ezagutzak administrazio-jardueraren beste sektore batzuetara egokituz eta aplikatuz.

Era berean, TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresek, berak bitarteko propio pertsonifikatutzat dituzten sektore publikoko erakundeen aginduz, era guztietako larrialdiko eta babes zibileko lanetan parte hartu eta jardun beharko dute; bereziki, ingurumeneko hondamendietan edo nekazaritzako, abeltzaintzako edo ingurumeneko krisi edo beharrizetan esku hartu beharko dute. Gainera, era guztietako arrisku-prebentzioko eta larrialdietako lanak garatu beharko dituzte; eta, interes publikoko kasuetan, prestakuntza-eta informazio-jarduerak egin beharko dituzte; bereziki, arriskuak, hondamendiak eta larrialdiak prebenitzeko jarduerak egiteko.

5. TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresek nazioarteko eremuan Espainiak aurrera daraman lankidetzari lagundu ahalko diote eta zerbitzu instituzionala eman.

6. TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresek ezingo dute parte hartu berak bitarteko propio pertsonifikatutzat dituzten sektore publikoko entitateen kontratuak adjudikatzeko egindako deialdietan. Hala ere, lizitatzailerik aurkezten ez denean, sozietate horiei agindu ahalko zaie lizitazio publikoaren gai den jarduera gauzatzeko.

7. TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC enpresek egindako obra, lan, proiektu, azterlan eta horniduren zenbatekoa zehaztuko da bitarteko propioak zuzenean egindako unitateei dagozkion tarifak aplikatuz, eta erregelamenduz ezartzen den moduan; aintzat hartuko da mandatuaren jardueretarako enpresaburu partikularrekin egindako azpikontratuak direla-eta bitarteko propioak egiaz jasaten duen kostua.

Tarifa horiek, betiere, lanak egiteko benetako kostuen arabera kalkulatu dira, eta ekoiztiko unitateei tarifa hauek aplikatzea aski izango da bitarteko propioak zuzenean egindako inbertsioak edo zerbitzuak justifikatzeko.

Administrazioek prestatu eta onartuko dituzte tarifak –taldea bitarteko propio pertsonifikatutzat duten administrazioek, alegia–, erregelamenduz ezarritako prozeduraren arabera.

8. Lege hau aplikatze aldera, lege honen 3. artikulua 3. apartatuan aurreikusitako botere adjudikatzailetzat hartuko dira TRAGSA eta haren filial TRAGSATEC.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Datu pertsonalen babesa.*

1. Lege honetan araututako kontratuek, datu pertsonalen tratamendua dakartenek, oso-osorik errespetatu beharko dute abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, eta haren garapeneko araudia.

2. Baldin eta kontratazioa dela-eta kontratistak datu pertsonaletarako irispidea behar badu, eta datuon tratamenduaren arduraduna entitate kontratatzailea bada, kontratista izango da tratamendu-eragilea.

Kasu horretan, datu horietarako irispidea ez da hartuko datuen komunikaziotzat, baldin eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12.2 eta 3 artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada. Edozein kasutan, lege horretako 12.2 artikuluko aurreikuspenak idatziz jaso beharko dira.

Kontratu-prestazioa amaitzen denean, datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira, edo entitate kontratatzaile arduradunari itzuli, edo hark izendatutako tratamendu-eragileari.

Tratamendu-eragilea den hirugarrenak gorde egingo ditu datuak, behar bezala blokeatuta, tratamenduaz arduratzen den erakunde erantzulearekin izandako harremanagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.

3. Hirugarren batek datu pertsonalak tratatzen baditu tratamendu-eragilea den kontratistaren kontura, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Tratamendu hori zehaztuta egotea erakunde kontratatzaileak eta kontratistak sinatutako kontratuan.

b) Datu pertsonalen tratamendua tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera egitea.

c) Tratamendu-eragilea den kontratistak eta hirugarrenak kontratua formalizatzea, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12.2 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Kasu horietan, hirugarrena ere tratamendu-eragiletzat joko da.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Lurralde-lankidetzako talde europarrak.*

2006ko uztailaren 5eko Europar Batasuneko Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1082/2006 (EE) Erregelamenduan araututako lurralde-lankidetzako talde europarrek, egoitza soziala Espainian dutenean, lege honetan botere adjudikatzailleentzat ezarritako arauen arabera prestatuko eta adjudikatuko dituzte kontratuak.

Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Osasun Sistema Nazionalerako sendagaiak, osasun-produktuak eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko sistema zentralizatua.*

1. Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren aginduz, aurretik Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioiko Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena emanda, deklaratu ahaliko da organo eta organismoek Estatuaren eremuan kontratatzen dituzten botiken eta osasun-produktuen hornidura eta osasun-zerbitzuak kontratazio zentralizatuaren bidez eskuratzekoak direla. Kontratazio hori Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren bitartez egin beharko da. Organismo edo entitate eskatzaileak finantzatuko ditu kasuan kasuko kontratuak. 229. artikulua Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioiko Kontratazio Zentralizatuko Batzordeari esleitzen dizkion eskumenak Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioarenak izango dira botikak, osasun-produktuak eta osasun-zerbitzuak hornitzeko kontratuei dagokienez.

Autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek, bai eta haien mendekoak diren eta Osasun Sistema Nazionalen sartuta dauden entitate eta organismoek ere, aukera izango dute sendagaiak, osasun-produktuak eta osasun-zerbitzuak modu zentralizatuan eskuratzeko estatu-sistemara atxikitzeko, produktu eta zerbitzu horiei guztiei edo kategorija jakin batzuei baino ez lotutakoei dagokienez. Sistemara atxikitzeko, hitzarmen bat egin beharko dute Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioarekin.



2. Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako kontratazio-organismoek, baita haien mende dauden eta Osasun Sistema Nazionelean sartuta dauden entitate eta erakundeek ere, modu bateratuan egin ahalko dituzte 219. artikuluan aurreikusitako esparru-hitzarmenak, enpresaburu batekin edo gehiagorekin, xedapen honen lehenengo apartatuan aipatzen diren eta epe jakin batean adjudikatu nahi dituzten kontratuak bete beharko dituzten baldintzak finkatzearen; dena den, bitarteko horiek ezingo dira gehiegikeriaz erabili edo ezingo dute lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu.

3. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitakoaren ondoretarako, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak, Osasunaren eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari agindu ahalko dio Estatuko Osasun Sistemarako eskuratzeko-zentralizatuko prozedurak gauzatzeko eta bukatzeko sendagai eta osasun-produktu eta -zerbitzu guztiei edo batzuei dagokienez.

4. Xedapen gehigarri honen babesean sendagaiak erosteko egindako kontratuei ez zaizkie aplikatuko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak –defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak onartzen dituen– 9. artikuluan eta 10. artikuluan hirugarren paragrafoan ezarritako neurriak, baldin eta erosketa zentralizatuaren ondorioz lortutako aurrezkiak maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren artikulua horietan ezarritako kerkariak baino handiagoak badira.

Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoen zerbitzura dauden agintarien eta langileen erantzukizuna.*

1. Administrazio publikoen zerbitzura diharduten agintariei eta langileei ondare-erantzukizuna exijituko zaie kontratazio publikoaren arloan egindako jardunen ondorioz partikularrei zein Administrazioari eragindako kalteengatik; hain zuzen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta hura garatzeko erregelamenduzko araudian ezarritakoarekin bat etorriko den ondare-erantzukizuna.

2. Administrazio publikoentzat diharduten langileek lege honetan biltzen diren arauak hautsi edo behar ez bezala aplikatzeak diziplina-arloko erantzukizuna ekarriko du, zeina arlo horretako berariazko araudiari jarraituz exijituko baita.

Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorraren eta hari atxikitako erakunde kontratatzaileen errekurtsioak ebazteko eskumena duten organoen araubidea.*

1. Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusiak aztertu eta ebatzi beharreko gaien kopuruak hala eskatzen duenean, kontratu-errekurtsioen lurraldekako administrazio-azitegiak eratu ahalko dira, eta egoitza dagokien autonomia-erkidegoko hiriburuan izango dute.

Auzitegi horiek eskumen eskusiboa izango dute lege honen 44. artikuluan aipatzen diren errekurtsioak ebazteko; zehazki, Estatuko lurralde-administrazioaren edo haren mendekoak diren eta eskumena dagokien autonomia-erkidego osoan edo zati batean daukaten organismo eta entitateen egintzen aurka jarritakoak.

Auzitegi horietako presidentea eta kideak Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusirako aurreikusitako modu eta baldintza berberen arabera izendatuko dira, baina hamar urteko antzinasuna bakarrik eskatuko zaie.

2. Lurralde-azitegiak osatzen dituzten kideen kopurua erregelamenduz handituko da, haien ardurapean utzitako auzien bolumenak kide gehiago izendatzeko beharra sortzen duenean.

Auzitegiak berritzeko lehenengo saioan –kideak izendatu zirenetik hiru urtera egingo da– zati bat berrituko da. Hala, zozketa bidez erabakiko da, adierazitako epea bete baino lehen, zein kidek utzi beharko duten kargua.

Dena den, kide batek, kargua uzten duenean, bere eginkizunak betetzen jarraituko du, ordezkioak kargua hartu arte.



Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Estatuaren eskumenekoak diren autobideen emakidetan Ministro Kontseiluak baimena ematea.*

Estatuaren eskumenekoak diren autobideen emakidarako kontratuak egiteko eta, hala badagokio, aldatzeko eta suntsiarazteko, Ministro Kontseiluaren baimena beharko da.

Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Baterako esparru-hitzarmenak formalizatzea lan-bitartekaritza errazteko zerbitzuak kontratatzeko.*

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Orokorrak, autonomia-erkidegoetako kontratazio-organo eskudunek eta autonomia-erkidegoen mende izanik Enplegu Sistema Nazionalean sartuta dauden entitate eta organismoek aukera izango dute esparru-hitzarmen bateratuak egiteko enpresaburu batekin edo batzuekin hurrengo paragrafoak arautzen dituen hitzarmenetan zehazten diren eta denbora-epe jakin batean esleituko diren ezaugarri homogeneousko zerbitzu-kontratu guztiek bete beharko dituzten baldintzak finkatzeko. Enplegu zerbitzu publikoei lan-bitartekaritza erraztea izango da hitzarmen horien xedea, eta bitartekaritzarako tresna horiek ezingo dira gehiegikeriaz erabili, eta ezingo dira baliatu lehia oztopatu, murriztu edo faltsutzeko.

Esparru-hitzarmen horiek modu bateratuan egiteko, lege honen bigarren liburuan I. tituluaren II. kapituluaren 2. atalak xedatutakoak bete beharko dira, eta aldez aurretik, dagokion lankidetzeta-hitzarmena izenpetu beharko dute Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoek edo horien mendeko diren eta Enplegu Sistema Nazionalean sartuta dauden entitate eta organismoek.

Esparru-kontratu horiek ezin izango dira egin administrazio publikoek aldi baterako langileak hartzeko hautaketa-prozeduretan egitekoak diren lan-bitartekaritzako jardueretarako. Bitartekaritza-lana hura egitea dagokien enplegu-zerbitzu publikoek bakarrik eta zuzenean egin ahalko dute.

Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Fakturak administrazio-erregistro batean aurkezteko eta organoak identifikatzeko betebeharra.*

1. Emandako zerbitzuengatiko edo entregatutako ondasunengatiko fakturak aurkeztu beharko ditu kontratistak dagokion administrazio-erregistroan, haiek tramitzatzeko eskudun den administrazio-organo edo -unitatera igor ditzaten.

2. Xedapen hau indarrean sartu ondoren onartzen diren kontratuak prestatzeko administrazio-klausulen agerietan, alderdi hauek adieraziko dira, eta fakturretan jaso beharko dira: kontabilitate publikoaren alorreko administrazio-organo eskudunaren identifikazioa, kontratazio-organoarena eta kontratu-hartzailearena.

3. 2018ko ekainaren 30a baino lehen, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak Erregistro Elektroniko Bakarra jarriko du operadore ekonomikoen eta partikularren eskura; erregistro horrek, besteak beste, aukera emango du egiaztatzeko azpikontratistek kontratista nagusiari fakturak aurkezten dizkioten data eta faktura horiek hartzaileari helarazten zaizkion datak, enpresen direktorioan faktura elektronikoak jasotzeko finkatzen den konfigurazioari jarraituz.

Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Beharren araberako horniduren eta zerbitzuen kontratuak.*

Administrazio publikoek eta aurrekontu mugatzailea duten sektore publikoko gainerako entitateek izapidetzen dituzten hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan gehieneko aurrekontua onartu beharko da, enpresaburuak bere burua behartzen duenean era askotako ondasunak entregatzera edo zerbitzua ondoz ondo ematera prezio unitario batez, nahiz eta kontratuaren objektuan jasotako entregan edo prestazioen guztizko kopurua definitua egon ez hura egiteko orduan, dena delako administrazioaren beharren mende dagoelako.

Baldin eta kontratuaren indarraldian egiazko beharrak handiagoak badira hasiera batean zenbatetsitakoak baino, kasuan kasuko aldaketa izapidetu beharko da. Horretarako, lizitazioa arautzen duen dokumentazioan aurreikusi beharko da zer aukera dagoen

kontratua inguruabar horren ondorioz aldatzeko, lege honen 204. artikuluan ezarritako moduan. Aipatutako aldaketa hasiera batean onetsitako gehieneko aurrekontua agortu baino lehen izapidetu beharko da, eta horretarako behar den kreditua erreserbatu beharko da, beharizan berrien gehieneko kopurua berdintze aldera.

Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuei buruzko aipamenak.*

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuari buruz legeria indardunean ageri diren erreferentziak zerbitzu-emakidako kontratuari buruzkoak direla ulertuko da lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, lege honetan kontratu horretarako araututakoaren arabera diren neurrian.

Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Datuak e-Certisen argitaratzea eta Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren zuzendaritzari buruzko txostena.*

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, laguntza teknikorako bere organoen bitartez, e-Certis onlineko ziurtagiri-gordailuan argitaratuko du Espainiako enpresaburuen kaudimen- eta gaitasun-baldintzak egiaztatzeko informazio garrantzitsua duten datu-baseen zerrenda eta gaurkotuta mantenduko du, kontratazio publikoaren ondoretarako.

Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala aurreko paragrafoan aipatzen den informazioaren oinarritzko datu-basea izango da.

Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, halaber, erregistro horren helbidearen eta haren gainean dagoen gainerako informazioaren berri emango die Europako Batzordeari eta gainerako estatu kideei. Erregistro horretara igorri beharko dizkiote gainerako estatu kideen botere adjudikatzaileek kontsulta-eskaerak.

Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *IV. eranskineko zerbitzu berezien emakidarako kontratuen lizitaziorako deialdia.*

IV. eranskineko zerbitzu berezien emakidako kontratuak egiten dituzten kontratazio-organoei lizitaziorako deialdirako bide gisa aurretiazko informazioaren iragarki bat erabiliko dute, zeinean III.B eranskineko 3. atalean ezarritako edukia jaso beharko baita.

Iragarki horiek *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* eta kontratatzailearen profilean emango dira argitara.

Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak.*

Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legearen arabera isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuei arau hori aplikatuko zaie, eta, hartan ezarritakoa nahikoa ez bada, lege honetan xedatutakoa.

Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Gastuak ez handitzea.*

Arau honetan jasotako neurriek ezingo dute berekin ekarri zuzkidurak handitzea, ez eta langileen ordainsariak edo bestelako gastuak handitzea ere, salbu eta lege honetan Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eta Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independenteari esleitutako eginkizunetatik heldu diren gastuak.

Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Portuak erakundearen eta portu-agintaritzaren kontratazio-araubidea.*

Estatuko Portuak erakundeak eta portu-agintaritzek egiten dituzten kontratuen araubide juridikoa lege honetan sektore publikoaren entitateentzat ezarritakoa izango da; hain zuzen

ere, botere adjudikatzailleak izan bai baina Administrazio Publikoa ez direnentzat ezarritakoa.

Berrogeigarren xedapen gehigarria. *Telekomunikazioen sektoreko operadore publikoak.*

Baldin eta Administrazio Publikoak bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz zuzenean gauzatzen baditu telekomunikazioen arloko prestazioak, 32.2.b) artikuluan jasotako baldintzaren betetzea baloratzeari begira, mandatuaren hartzaile den entearen negozio-bolumen orokorretik kenduko dira interes orokorreko arrazoiak direla-eta ezarritako betebeharrak betetzearen ondorioz egindako jarduerari dagozkion kopuruak; Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Legearekin eta hura garatzeko araudiarekin bat operadore publikoa izateagatik ezarritako betebeharrak dira horiek.

Administrazio publiko batek baliatu nahi duen bitarteko propioak, nolahi ere, bere jardueraren zati nagusia administrazio publiko horrentzat egin beharko du, administrazio horrek bitarteko propioaren gainean duen kontrola bere zerbitzu propioen gainean izango lukeenaren parekoa bada.

Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. *Arkitektura-, ingeniari- eta aholkulari- eta hirigintza-zerbitzuen kontratazio publikoaren berriazko arauak.*

Prestazio intelektualen izaera aitortzen zaie arkitektura-, ingeniari-, aholkulari- eta hirigintza-zerbitzuei, lege honek aurreikusitakoaren ondoreekin.

Berrogeita bigarren xedapen gehigarria. *Pradoko Museo Nazionalaren eta Reina Sofía Zentroa Museo Nazionalaren merkataritza-jarduera.*

Merkataritza-jarduerarekin lotutako kontratuetan –zehazki, Pradoko Museo Nazionala arautzen duen azaroaren 25eko 46/2003 Legearen 16.2 artikuluan eta Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionala arautzen duen urriaren 4ko 34/2011 Legearen 18.2 artikuluan aipatzen diren horietan–, administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailentzako arauak aplikatzen jarraituko dute entitate horiek. Kontratu horiek ez dira administrazio-kontratu izango.

Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Zuzenbide pribatuaren araubidearen pean obra publikoak ustiatzearen edo zerbitzu publikoak ematearen ondoriozko kontraprestazio ekonomikoaren izaera juridikoa.*

Zuzenean pertsonifikazio pribatuaren edo zeharkako kudeaketaren bitartez obra publikoak ustiatzeagatik edo zerbitzu publikoak emateagatik jasotzen diren kontraprestazio ekonomikoak, derrigorrean ezarritakoak, zergaz kanpoko ondare-prestazio publikotzat hartuko dira, Konstituzioaren 31.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Zehazki, halakotzat hartuko dira emakida-araubidearekin bat obrak ustiatzeagatik edo zerbitzuak emateagatik eskatzen direnak, ustiaketa edo zerbitzu-emate hori honakoentzat bitartez egiten denean: ekonomia mistoko sozietateen, enpresa-entitate publikoen, kapital guztiz publikoa duten sozietateen eta zuzenbide pribatuko gainerako formulen bitartez.

Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. *Estatuko organo konstituzionalen eta autonomia-erkidegoetako legegintza- eta kontrol-organoen kontratazio-araubidea.*

Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko, Kontuen Epaitegiko, Arartekoaren, autonomia-erkidegoetako legebiltzarretako eta Kontuen Auzitegiaren eta Arartekoaren baliokide diren erakundeetako organo eskudunek lege honetan administrazio publikoentzat ezarritako arauetara egokituko dute beren kontratazioa.

Era berean, Gorte Nagusietako organo eskudunek, hala dagokionean, eta bakoitzari dagokion kontratazio-esparruari dagokionez, errekurso bereziaz arduratuko den organoa finkatuko dute, hots, lege honen I. liburuko I. tituluaren V. kapituluaren araututako errekursoaz

arduratuko den organoa finkatuko dute; horretarako, lege honen 45. artikuluan aurreikusitako kualifikazio-, independentzia- eta mugiezintasun-baldintzak errespetatu beharko dira.

Berrogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoari igortzea.*

Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoak txosten bat emango du kontratua egiteak administrazio kontratatzailearen kontu ekonomikoetan izango dituen eraginei buruz, sektore publiko autonomikoaren eta tokikoaren eremuetan adjudikatutako obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratuei dagokienez, baldin eta kontratu horien balio zenbatetsia hamabi milioi eurotik gorakoa bada edo haien finantzaketan edozein motatako estatu-laguntza edo -ekarpen ematea edo mailegu edo aurrekariak ematea aurreikusten bada. Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea sortzeko azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarriaren bidez sortua da batzorde tekniko hori. Ondore horietarako, aipatutako Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoari igorri beharko zaizkio kontratu horiek.

Berrogeita seigarren xedapen gehigarria. *Sektore publiko autonomikoaren eta tokikoaren kontratazioari buruzko informazioa Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoari igortzea.*

Sektore publiko autonomikoaren eta tokikoaren eremuan, aurreko xedapen gehigarrian aipatutako Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoari igorri beharko zaizkio kasuan kasuko eremuetan adjudikatutako obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratu guztiak, baldin eta kontratu horien balio zenbatetsia hamabi milioi eurotik gorakoa bada edo haien finantzaketan edozein motatako estatu-laguntza edo -ekarpen ematea edo mailegu edo aurrekariak ematea aurreikusten bada.

Horiek direla eta, Kontu Nazionalen Batzorde Teknikoak txosten bat emango du, kontratua egiteak administrazio kontratatzailearen kontu ekonomikoetan izango dituen eraginei buruz.

Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *IV. eranskineko zerbitzu-emakidako kontratuei eta izaera sozialeko edo sanitarioko edo hezkuntza-izaerako zerbitzu-kontratuei aplikatu beharreko printzipioak.*

Lege honen xedapenen aplikazioa eta besteak beste preskripzio teknikoak, kaudimeneko gutxieneko baldintzak, adjudikazio-irizpideak eta egikaritzarako baldintza bereziak ezartzeari buruzko xedapenen aplikazioa ezertan ere kendu gabe, IV. eranskinean ageri diren zerbitzu-emakidako kontratuak lizitzatzeko prozeduretan eta orobat IV. eranskinean jasota dauden arlo sozial, sanitario edo hezkuntzakoaren kontratuak lizitzatzeoetan, kontratazio-organismoek fase guztietan zainduko dute zerbitzuen kalitatea, jarraitutasuna, irisgarritasuna, lorgarritasuna, eskuragarritasuna eta exhaustibotasuna bermatzen dela, bai eta erabiltzaile-kategoria bakoitzaren beharrian berariazkoak –talde kaltetu eta ahulen beharrianak barne–, zerbitzuetako erabiltzaileen inplikazioa eta zerbitzu-ematearen berrikuntza ere.

Halaber, xedapen gehigarri honek aipagai dituen kontratuak adjudikatzeko irizpideak ezartzerakoan, kontratazio-organismoak honako alderdi hauek jarri ahalko ditu erreferentzia gisa: kontratuari atxikitako langileek bereziki kaltetutako sektoreentzako zerbitzuak edo antzeko izaera duten zerbitzuak 145. artikuluan ezarritako moduan ematen daukaten esperientzia; ematen dituzten zerbitzuak hobetzen lortutako etekinak berriro inbertitzea, eta erabiltzaileek parte hartzeko mekanismoak ezartzea, bai eta haien informaziorako eta orientaziorako mekanismoak ere.

Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuetako kontratu jakin batzuk antolakunde zehatz batzuentzat uztea.*

1. Laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan kendu gabe, botere adjudikatzailen kontratazio-organoez zenbait erakunderi erreserbatu ahalko diete izaera sozial, kultural eta osasuneko zerbitzuen kontratuak lizitzatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea; hain zuzen ere, honako kode hauen pean IV. eranskinean aipatzen direnetan: CPV 75121000-0, 75122000-7, 75123000-4, 79622000-0, 79624000-4, 79625000-1, 80110000-8, 80300000-7, 80420000-4, 80430000-7, 80511000-9, 80520000-5, 80590000-6, 85000000-9tik 85323000-9ra, 92500000-6, 92600000-7, 98133000-4 eta 98133110-8.

2. 1. apartatuan aipatzen diren erakundeek honako baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

a) Haien helburua izatea lehenengo apartatuan aurreikusitako zerbitzuak ematearekin lotutako zerbitzu publikoko misio bat egitea.

b) Etekinak berriz inbertitzea erakundearen helburua lortzeko; edo etekinak banatzen edo berriz banatzen badira, parte-hartzeari lotutako irizpideen arabera egin beharko da banaketa edo birbanaketa hori.

c) Kontratua egikaritzen duen erakundearen zuzendaritza- edo jabetza-egiturak langileen jabetzan edo partaidetza-printzipioetan oinarriturik egotea edo langileen, erabiltzaileen edo interesdunen partaidetza aktiboa eskatzen duten printzipioetan.

d) Kasuan kasuko botere adjudikatzailak aurreko hiru urteetan dena delako erakunde horri kasuko zerbitzuetarako kontraturik adjudikatu ez izana artikuluko honi jarraituz.

3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoarekin bat adjudikatzen den kontratuaren gehieneko iraupena ez da hiru urtetik gorakoa izango.

4. Lizitazioaren deialdia egiteko baliatzen den iragarkian, xedapen gehigarri hau aipatuko da.

Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Autonomia-erkidegoen legeria, izaera sozialeko zerbitzu publikoak emateko kontratuzkoak ez diren tresnei buruzkoa.*

Lege honetan ezarritakoa ez da oztopoa izango autonomia-erkidegoek, esleituta dauzkaten eskumenak baliatuz, legeak eman ditzaten; izan ere, kontratuez bestekoak diren tresnak artikulatu ahalko dituzte arlo sozialeko beharrianak betetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko.

Berrogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Paradisu fiskalak.*

1. Gobernuak paradisu fiskalen kalifikazioa duten herrialde eta lurraldeen zerrenda gaurkotu beharko du, Iruzur fiskala prebenitzeko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriaren aurreikusitako moduan. Gaurkotze hori egingo da ELGA eta Europar Batasuna prestatzen ari diren jurisdikzio ez-kooperatiboei buruzko zerrendak argitaratzen direnean, lortutako emaitzak kontuan hartu ahal izan daitezten.

2. Gobernuak 2017ko abenduaren 31 baino lehen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 13. artikulua aldatu beharko du –uztailaren 10eko 634/2015 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen– erakunde jakin batzuek herrialdez herrialde eman behar duten informazioari dagokionez, taldearen negozio-zifraren zenbateko garbia gutxienez ere 750 milioi eurokoa denean. Aldaketa horrek aukera eman beharko du guztiz egokitzeko nazioarteko eremuan ezarritako esparruari, bai eta baliabide publikoak efizientzia handiagoz erabiltzeko eta enpresa-talde multinazionalen gaineko karga administratiboa gutxitzeko ere, matrizeaz beste erakunde batzuei aukera ematen baitzaie txostena herrialdez herrialde aurkezteko.

Hala eta guztiz ere, talde multinazional horientzat jada ezarrita dauden betebeharrei utsiko zaie, diru-sarrerei, emaitzei, zergei, aktiboei edo plantillari buruzko datuak herrialde edo jurisdikzio bakoitzaren arabera xehakaturik emateari dagokionez. Bankuen eta

erauzketa-industrien sektoreetako talde multinazionalak informazio horri buruzko datuak herrialdez herrialde eman beharko dute argitara, nazioarteko araudiak hala aurreikusten dituenean.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Azpikontatistentzako zuzeneko ordainketak.*

1. 216. eta 217. artikuluetan aurreikusitakoa kendu gabe, eta 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean, kontratazio-organoak administrazio-klausulen agirietan aurreikusi ahalko du azpikontatistei zuzeneko ordainketak egin dakizkiela.

2. Zuzeneko ordainketak jasotzeko adostasuna duen azpikontatistak bere kobrantza-eskubideak laga ahalko ditu 200. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

3. Azpikontatistaren alde eginiko ordainketak kontratista nagusiaren kontura egindakotzat joko dira, eta, administrazio kontratatzaileari dagokionez, kontu onerako ordainketak izango dira horiek ere, obra-ziurtagiriek bezalaxe.

4. Administrazioari ezingo zaio inolaz ere egotzi kontratista nagusia azpikontatistak aurkeztutako fakturarekin ados ez egoteagatik ordainketan gertatutako atzerapena.

5. Baimena ematen zaio Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari Estatuko sektore publikoaren eremuan gara ditzan aurreko apartatuetan jasotako aurreikuspenak, aurkeztu beharreko dokumentazioaren ezaugarriari, jakinarazpenen eta ziurtagirien araubideari eta kontabilitateko eta fakturazioko operatibari dagokienez.

Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Legean Ceuta eta Melilla hiri autonomoei buruz egiten diren aipamenak.*

Lege honetako artikulua batek autonomia-erkidegoak aipatzen dituenean, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak ere aipatzen ari dela ulertuko da, artikulua horrek arautzen dituen arloetako eskumenak badituzte beren autonomia-estatutuen arabera.

Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Estatuaren titulartasuneko albiste-zerbitzu publikoa.*

1. Estatuaren titulartasuneko albiste-zerbitzu publikoa, Agencia EFE SAU Estatuko merkataritza-sozietateari esleitutakoa, interes ekonomiko orokorreko zerbitzu bat da, zeinak helburu baitu euskarri guztietan albisteak eta informazio orokor eta espezializatua modu inpartzialean, independentean eta objektiboan bildu, landu eta banatzea, Espainiako gizartearen informazio-beharrizanak bermatzeko eta Espainiaren kanporako proiektzioa sustatzeko.

2. Zerbitzu publikoaren eginkizunak barnean hartzen du Espainiarentzat interes berezia duten ekitaldi eta gertakarien estaldura eta, bereziki, Errege Familiaren, Estatuko Burutzaren, Gobernuako kideen eta Estatuko goi-erakundeen jardueren estaldura; autonomia-erkidego eta hiri autonomo guztietako informazio-estaldura; Estatuko Administrazioarentzako informazio zerbitzuak ematea; Espainiako irudiaren eta haren aniztasun kulturalaren zabalkundea, eta Espainiaren eta munduaren gainerakoaren arteko informazio-trukea, arreta berezia eskainiz Espainiaren kanpo-ekintzarako lehentasunezkoak diren eremuei.

3. Zerbitzu publikoaren betebeharrak betetzeagatik urteko konpentsazioa kostu saihestu garbiaren metodoaren arabera egingo da, eta ezingo du gainditu aurrekontu-ekitaldian zerbitzu publikoaren betebeharrak gauzatzeko kostu garbia estaltzeko behar dena. Kostu garbiaren zenbatekoa urtero gaurkotuko da, eta EIOZ Ekonomia Interes Orokorreko Zerbitzuen Kontrol Batzordeak berrikusiko du. Hark auditore bati edo auditoria-enpresa independente bati enkargatuko dio EIOZ fiskalizatzeko, berrikusteko eta kontrolatzeko lana.

4. Gobernuak, Lehendakartzaren eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioak proposatuta, Gorte Nagusiak informatuko ditu eta behar diren xedapenak emango ditu



xedapen hau garatu eta gauzatzeko eta, berariaz, zerbitzu publikoaren eginkizunari lotutako betebeharrak eta kasuko ordaina kalkulatzeko modalitateak ezartzeko.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako espedienteak eta adjudikatutako kontratuak.*

1. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako kontratazio-espedienteak aurreko araudiaren bidez arautuko dira. Horretarako, kontratazio-espedientea hasita dagoela ulertuko da, baldin eta kontratua adjudikatzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, kontratuaren hasiera-unea zehazteko, baldintza-agiriak onartutako data hartuko da kontuan.

2. Lege hau indarrean sartu aurretik adjudikatutako administrazio-kontratuak aurreko araudiaren bidez arautuko dira haien ondoreei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, haien aldaketa, iraupena eta luzapen-araubidea barnean direla.

3. Lege hau aplikatzekoa izango da erreskate-akordioetan eta indarra hartu ondoren egiten diren mandatuetan. Mandatu bat eman dela ulertuko da dokumentu bidez formalizatu denean.

4. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 34. eta 40. artikuluen babesean egindako ofiziozko berrikuspenak eta errekurso-prozedurak, hurrenez hurren, testu haren arabera izapidetuko dira aurrerantzean ere, ebatzi arte; testu hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako kontratazio-espedienteen kasuan, 44. artikuluan aurreikusitako errekursoa jarri ahalko da, artikulua horretan xedatutakoaren arabera kasuan kasuko egintzaren aurka errekursoa jar badaiteke, eta egintza Legea indarrean sartu ondoren eman bada.

5. Esparru-akordioetan edo eskuratzeko-sistema dinamikoetan oinarritutako kontratuak haien aplikatzekoa zaien araudia beteko dute.

6. Sei hilabeteko epea egongo da lege honek indarra hartzen duen unean autonomia-erikidegoetan jada onetsita zeuden administrazio-klausula orokorren agiriak egokitzeko 121. artikuluan 2. apartatuan aurreikusitakoari.

Bigarren xedapen iragankorra. *Ministerio-departamentuek berei atxikita dauden botere adjudikatzaileentzat zenbatekoak zehaztea.*

Harik eta estatu-idazkariek edo, bestela, ministerio-departamentuetako titullarrek 324. artikuluan 5. apartatuan ezarritako baimenaren gaineko zenbatekoa finkatzen duten arte, 900.000 euro izango da aplikatu beharreko zenbatekoa, 101. artikuluan arabera kalkulatua.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Lizitatzailen Erregistroan inskribatzea, 159. artikuluko prozedura ireki sinplifikatua.*

Lege honek indarra hartu eta sei hilabete iragan arte eta, horrenbestez, 159. artikuluan 4. apartatuaren a) letran prozedura ireki sinplifikaturako ezarritako betebeharrak –Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo baliokidea den erregistroan inskribatuta egotea– exijitzekoa izan arte, gaitasuna, kaudimena eta kontratatzekeo debeku eza orokorrean ezarritako moduan egiaztatuko dira.

Laugarren xedapen iragankorra. *Bitarteko propio pertsonifikatuen estatutuak.*

Lege honek indarra hartu eta sei hilabete iragan arte eta, horrenbestez, 32.2.d) artikuluan bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duten entitateen estatutuen edukari buruz ezarritako betebeharrak exijitzekoak izan arte, entitate horiek beren estatutu indardunen arabera jarduten jarraituko dute, baldin eta 32. artikuluan 2. apartatuaren a), b) eta c) letretan ezarritakoa betetzen badute.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Kontrataziorako barne-jarraibideak.*

Hirugarren tituluan aipatzen diren enteek 318. eta 321. artikuluetan ezarritakora egokitu beharko dituzte kontrataziorako dituzten barne-jarraibideak, lege hau indarrean jartzen denetik gehienez ere lau hileko epean. Ordura arte, beren jarraibide indardunen arabera kontratatzen jarraituko dute, artikulua horietan ezarritakoaren aurkakoak ez badira.

Xedapen indargabetzailea. *Arauk indargabetzea.*

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, indargabeturik geratzen da, baita lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-tituluak.*

1. 27. artikulua Konstituzioaren 149.1 artikulua 6. arauak Estatuari prozesu-legegintzaren gainean esleitzen dizkion eskumenen babespean eman da; hots, arlo horretan beharrezkoak diren berezitasunei kalterik egin gabe, halako berezitasunak izan baitaitezke autonomia-erkidegoetako zuzenbide substantiboan.

2. Jarraian aipatzen diren artikulua Estatuak legeria zibila eta merkataritza-legeria emateko dauzkan eskumen eskusiboen babespean eman dira (Konstituzioaren 149.1.6.a eta 8.a artikuluan, 271.1 artikuluan, 272.1.a eta 2.a artikuluan, 273.1 artikuluan, 274. artikuluan, 275. artikuluan eta 276. artikuluan xedatutakoaren arabera).

3. 347. artikulua 3. apartatua oinarritzko legeria da eta Konstituzioaren 149.1.18. artikulua babespean eman da, zeina «administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak» arlokoa baita. Bestetik, lege honen gainerako artikulua oinarritzko legeria dira, Konstituzioaren 149.1.18.a artikulua babespean emandakoak, zeina kontratuen eta administrazio-emakiden oinarritzko legeriaren arlokoa baita; beraz, administrazio publiko eta haien mendeko organismo eta entitate guztiei aplikatuko zaizkie.

Hala eta guztiz ere, honako artikulua edo artikulua-atal hauek ez dira oinarritzkoak izango: 21. artikulua 1. apartatuaren a) letra; 22. artikulua 1. apartatuaren a) letra; 30. artikulua; 32. artikulua 5. apartatuaren c) letra; 45. artikulua eta 46.1 artikulutik 46.3 artikulurakoa; 69.3 artikulua; 71.1.f) artikulua; 76. artikulua; 83. artikulua; 95. artikulua; 104. artikulua; 105. artikulua; 107. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoa; 116. artikulua 3. apartatuko bigarren paragrafoa eta 5. apartatua; 118.2 artikulua; 119. artikulua 2. apartatuaren a) eta c) letrak; 120.1 artikulua b) letra; 121. artikulua 1. apartatua; 122. artikulua 5. 6. eta 7. apartatuak; 123. eta 124. artikulua; 149. artikulua 4. apartatuaren laugarren paragrafoa; 153. artikulua; 154. artikulua 2. apartatua; 191.2 artikulua; 192.2 eta 3 artikulua; 193. artikulua 2. apartatutik 5. apartaturakoa; 194. artikulua; 212. artikulua 2. eta 5. apartatuak; 215. artikulua 8. apartatua; 228. artikulua; 229. artikulua 1. 2. eta 5. apartatuak, 6. apartatuaren bigarren paragrafoa eta 7. eta 8. apartatuak; 230. artikulua; 232. artikulua 1.e) eta 4. apartatuak; 234. artikulua; 235. artikulua; 236. artikulua; 237. artikulua; 238.2 artikulua; 240. artikulua; 241. artikulua 1. apartatua; 242. artikulua 4. apartatua, lehenengo paragrafoa b) letraren aurreikuspena eta bigarren paragrafoa izan ezik, eta 5. apartatua; 243. artikulua; 253. artikulua; 256. artikulua; 260. artikulua; 263. artikulua 2. eta 3. apartatuak; 266. artikulua; 267. artikulua 5. apartatua; 268. artikulua; 272.6 artikulua; 273.2 artikulua; 294.b artikulua; 298. artikulua; 300. artikulua 2. eta 3. apartatuak; 302. artikulua; 303. artikulua; 304. artikulua; 305. artikulua; 307. artikulua 2. eta 3. apartatuak; 313. artikulua 2. eta 3. apartatuak; 314. artikulua 3., 4., 5. eta 6. apartatuak; 315. artikulua; 323. artikulua; 324. artikulua; 325. artikulua; 326. eta 327. artikulua; 328. artikulua, 4. apartatua izan ezik; 335.4 artikulua; 347. artikulua 1., 2. eta 7. apartatuak; lehenengo xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren a) letra eta f) letraren bigarren paragrafoa; laugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren hirugarren paragrafoa; hamalagarren xedapen gehigarria; hemeretzigarren xedapen gehigarria; hogeigarren xedapen gehigarria; hogeita

laugarren xedapen gehigarria; hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria; hogeita hamargarren xedapen gehigarria; lehenengo xedapen iragankorra; azken xedapenetako zazpigarrena, eta azken xedapenetako zortzigarrena.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondore beretarako, gutxienez hartuko dira 118.1 artikuluan kontratu txikietarako ezartzen diren baldintzak, eta handienekotzat hartuko dira, ordea, honako ehuneko, zenbateko edo epe hauek:

- 106.2 artikuluan aipatutako 100eko 3ko ehunekoa.
- 107.1 eta 2 artikuluan aipatutako 100eko 5eko ehunekoa.
- 131.4 artikuluan aipatutako zenbatekoak.
- 210. artikuluko 2. eta 4. apartatuetan ezarritako hilabete bateko epeak.

4. Lege honetan aurreikusitakoak autonomia-erkidegoei aplikatzekoak izango zaizkie aurreko 1. 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera; hori, halere, ez da eragozpena izango erakunde-sistemaren arloan eta funtzio publikoarekin eta auto-antolakuntzarekin loturiko eskumen eskusibo eta partekatuen arloan egon daitezkeen jarrera berezietarako, Espainiako Konstituzioak eta autonomia estatutuek xedatutakoarekin bat.

Azken xedapenetako bigarrena. *Nafarroako Foru Komunitatea.*

Erkidegoaren foru-araubidea dela-eta, Nafarroako Foru Komunitateari lege honetan xedatutakoa aplikatuko bazaio ere, ez da alde batera utziko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoa.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Euskal Autonomia Erkidegoa.*

Erkidegoaren foru-araubidea dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoari lege honetan xedatutakoa aplikatuko bazaio ere, ez da alde batera utziko Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean ezarritakoa.

Azken xedapenetako laugarrena. *Lege honetan araututako prozedurei eta bitarteko propio pertsonalizatuei aplikatu beharreko arauak.*

1. Lege honetan araututako prozedurak, lehenik eta behin, legean bertan eta legearen garapeneko arauetan jasotako aginduen bidez arautuko dira eta, era subsidiarioz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta haren arau osagarrietan jasotako aginduen bidez.

2. Dena dela, interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada eta xedetzat diru-zenbatekoak erreklamatzeari, administrazio-prerrogatibak baliatzea edo administrazio-kontratu bat egikaritzeari, betetzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai badute, behin ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero, interesdunak administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ahalko du bere eskaera, nahiz eta bere horretan iraungo duen ebazteko betebeharrak.

3. Bitarteko propio pertsonifikatuen araubide juridikoari dagokionez, lege honetan aurreikusita ez dagoenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bidez, kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua sartzen da antolamendu juridikoan, zeinak indarrik gabe uzten baititu 2004/18/EE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida-kontratuaren adjudikazioari buruzkoa; hori, halere, ez da eragozpena izango azken zuzentarau horri dagokionez Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio prozedurei buruzko Legearen bidez arautu denerako.

Azken xedapenetako seigarrena. *Bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen arloan arauak egiteko gaikuntza eta faktura elektronikoen erabilera.*

1. Baimena ematen zaio Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroari, Estatu Kontseiluaren irizpena jaso ondoren, hamaseigarren xedapen gehigarriko garapen-arauak onartzeko; lege honetan arautzen diren prozeduretan bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen erabilera erabat eraginkor egiteko beharrezko diren arauak onartzeko, hain zuzen ere.

2. Orobat, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak, agindu baten bidez, lege hau betetzeko egin behar diren datu-komunikazioei buruzko zehaztapen teknikoak finkatuko ditu, eta erabili behar diren ereduak zehaztuko ditu.

3. Ministro Kontseiluak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren eta Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren ministroaren proposamenez, Estatuko sektore publikoarekin kontratuak egiten dituzten pertsonak eta entitateek faktura elektronikoa errazago egiteko beharrezkoak diren neurriak ezarriko ditu, eta enpresentzat ezarritako laguntza-zerbitzuen doakotasuna ziurtatuko du (enpresen negozio-zifra, aurre-aurreko urtean eta beren jarduera guztietarako, aurreko paragrafoan aipatzen den aginduan ezarritako atalasearen petik egon beharko da).

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloko negozio eta kontratuak egin daitezzen sustatzea.*

Ministroen erabaki baten bitartez, 8. artikuluan aipatzen den ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren arloarekin lotutako negozio eta kontratuak finantzatzera bideratutako funtsak erreserbatu ahalko dira.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

Gobernuak, bere eskumenen eremuan betiere, lege honetan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko behar adina xedapen eman ahalko ditu.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Tasa eta Prezio Publikoen Araubide Juridikoaren apirilaren 13ko 8/1989 Legea aldatzea.*

Tasa eta Prezio Publikoen Araubide Juridikoaren apirilaren 13ko 8/1989 Legearen 2. artikuluari c) letra berri bat gehitzen zaio; honela idatzita geldituko da:

«c) Obra erabiltzeagatik edo zerbitzuarengatik erabiltzaileek obra- eta zerbitzu-emakidadunei sektore publikoko kontratuei buruzko legeriaren arabera ordaintzen dizkieten tarifak, zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoak baitira.»

Azken xedapenetako hamargarrena. *Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzea.*

Aldaketa hauek egin dira Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legean:

Bat. Aldatu egiten da 7. artikuluan 8. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«8.a. A) Ondasunak entregatzea eta zerbitzuak ematea, administrazio publikoek eta zenbaki honetako C) eta D) letretan aipatzen diren entitateek zuzenean egindakoak, kontraprestaziorik gabe edo tributu izaerako kontraprestazioaren bidez.

B) Ondore horietarako, honako hauek izango dira administrazio publiko:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak eta toki-administrazioa osatzen duten entitateak.

b) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.

c) Organismo autonomoak, unibertsitate publikoak eta estatu-agentziak.

d) Berezko nortasun juridikoa duen zuzenbide publikoko entitate oro, aurrekoen mendekoa, independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia duena, eta sektore edo jarduera jakin bat kanpotik arautzeko edo kontrolatzeko eginkizunak esleituak dituena.

Ez dira administrazio publikotzat joko Estatuaren enpresa-entitate publikoak eta autonomia-erkidegoen zein toki-entitateen mendeko organismo parekatuak.

C) Sektore publikoko ente, organismo eta entitateek egindako mandatuen bidez ematen diren zerbitzuak ez dira zergaren menpe egongo, baldin eta erakunde haiek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, mandatu eman duen botere adjudikatzailaren baliabide propio pertsonifikatua badira lehen aipatutako 32. artikuluan ezarritako moduan.

D) Halaber, ez dira zergapekoak izango sektore publikoko edozein erakunde, organismo edo erakunde emandako zerbitzuak –Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 3.1 artikuluan aipatutako moduan– haien gaineko administrazio publikoei edo administrazio publiko horien mendeko den beste bati zuzentzen bazaizkie eta administrazio publiko horiek aipatutako erakunde, organismo edo erakundeen gaineko titulartasun osoa badute.

E) Eragiketak zergapekoak izatetik salbuesteko C) eta D) letretan adierazitakoa aplikatuko zaie letra horietan aipatzen diren entitateek elkarri ematen dizkioten zerbitzuei ere, osorik administrazio publiko beraren mendeko badira.

F) Edonola ere, zergapetuta egongo dira sektore publikoko administrazioek, enteek, organismoek eta entitateek hemen zerrendatutako jarduerak gauzatzean egiten dituzten ondasunen entregak eta ematen dituzten zerbitzuak:

- a) Telekomunikazioak.
- b) Ura, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia-modalitateak banatzea.
- c) Pertsonak eta ondasunak garraiatzea.
- d) Portu- eta aireportu-zerbitzuak eta trenbide-azpiegiturak ustiatzea; ondore horietarako, barnean egongo dira 9. zenbakiak xedatutakoarekin bat zergapekoak diren emakidak eta baimenak.
- e) Produktuak eskuratzea, fabrikatzea edo eraldatzea, ondoren eskualdatzeko.
- f) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan esku hartzea, produktu horien merkaturaren erregulatzeko xedez.
- g) Azokak eta merkataritza-erakusketak ustiatzea.
- h) Biltegiatzea eta gordailatzea.
- i) Publizitateko merkataritza-bulegoen jarduerak.
- j) Enpresetako kantina eta jantokiak, ekonomatoak, kooperatibak eta antzeko establezimenduak ustiatzea.
- k) Bidaia-agentziak.
- l) Irrati eta telebistako erakunde publikoen komertzio- edo merkataritza-jarduerak, beren instalazioen erabilera lagatzeari buruzkoak barne.
- m) Hiltegi-jarduerak.»

Bi. Aldatu egiten da 78. artikuluan Bi apartatuaren 3. zenbakia; hona nola geratzen den idatzita:

«78. Bi.3.a. Zergari lotutako eragiketen prezioari zuzenean lotutako diru-laguntzak.

Entregatutako unitate kopuruaren arabera edo emandako zerbitzuen bolumenaren arabera ezarritako diru-laguntzak zergapetutako eragiketen prezioari zuzenean lotuta egongo dira, eragiketa egin aurretik finkatu badira.

Halere, ez dira prezioarekin lotutako diru-laguntzat hartuko, eta ez dira inola ere sartuko artikuluan honen Bat apartatuan aipatzen den kontraprestazioaren

zenbatekoan, administrazio publikoek ondoren aipatzen diren jarduerak finantzatzeko egiten dituzten diruzko ekarpenak, edozein dela ere haien izena:

- a) Zerbitzu publikoen edo kultura sustatzeko kudeaketa, horietan lehiaren distortsio nabarmenik ez badago, edozein dela ere kudeatzeko modua.
- b) Interes orokorreko jarduerak, haien hartzaileak ezin badira identifikatu eta ez badute inolako kontraprestaziorik ordaintzen.»

Hiru. Aldatu egiten da 93. artikulua Bost apartatua; hona nola geratzen den idatzita:

«93. Bost. Zergapetutako eta lege honetako 7.8.a artikuluan xedatutakoarekin bat zergapetu gabeko eragiketak batera egiten dituzten subjektu pasiboek horiek bereizi gabe gauzatzeko eskuratutako ondasunengatik eta zerbitzuengatik jasandako kuotak kendu ahalko dituzte, zergapeko eragiketak gauzatzeko erabilitako ondasunei eta zerbitzuei dagozkien kuotak egozteko arrazoizko irizpide homogeneo baten arabera; ondore horietarako, lege honen 94.Bat.2.a artikulua aipatutako eragiketak sartzen dira horien barruan. Irizpide horri denboran eutsi beharko zaio, arrazoizko kausengatik hura aldatu behar izanez gero izan ezik.

Ondore horietarako, aintzat hartu ahalko da urte natural bakoitzerako zehaztu den zergapeko eragiketei dagokien ondasun-entregan eta zerbitzu-emateen zenbateko osoaren proportzioa (balio erantsiaren gaineko zerga kenduta); hain zuzen, subjektu pasiboak bere jarduera osoagatik urte natural bakoitzean izaten dituen sarrera guztiekikoa.

Irizpide hori aplikatzearen ondoriozko kalkulua behin-behinean zehaztu ahalko da aurreko urte naturaleko datuak aintzat hartuta, eta hori ez da eragozpena izango urte bakoitzaren amaieran dagokion erregularizazioa egiteko.

Aurrekoa hala izanik ere, zergapekoak ez diren eragiketak –lege honen 7.8 artikulua jasoak– gauzatzeko baino ez diren ondasun eta zerbitzuen eskuraztea edo inportazioa dela-eta jasandako edo ordaindutako kuotetan ez da inolako kenketarik egingo

Apartatu honetan aipatutako kenkariak ere lege honetako VIII. tituluko I. kapituluaren jasotako baldintzetara eta betekizunetara egokituko dira, eta, bereziki, hainbanaketa-arauari buruzkoetara.

Apartatu honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko zerbitzu publikoak kudeatzeko jardueretan lege honen 78.Bi.3 artikulua a) letran adierazitako baldintzetan.»

Lau. 78. artikulua Hiru apartatuaren 4. zenbakia kentzen da.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren lehen xedapen gehigarria aldatzea.*

Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren lehen xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Lehenengo xedapen gehigarria. *Ondare-prestazio publikoak.*

1. Ondare-prestazio publikoak dira Konstituzioaren 31.3 artikulua aipatu eta hertsapenez exijitzen direnak.
2. Aurreko apartatuan aipatutako ondare-prestazio publikoek tributu-izaera edo tributuz kanpoko izaera izan ahalko dute.  
Tributu-izaerakoak izango dira 1. apartatuan aipatutako prestazioak, baldin eta lege honen 2. artikuluan aipatzen diren tasak, kontribuzio bereziak eta zergak badira.  
Tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak dira hertsapenez exijitzen diren eta interes orokorra xede duten gainerako prestazioak.



Bereziki, tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikotzat hartuko dira halako izaera izanik pertsonifikazio pribatuaren bitartez zuzenean kudeatutako zerbitzua emateagatik edo zeharka kudeatutako zerbitzua emateagatik exijitzen direnak.

Zehazki, halakotzat hartuko dira exijitzen direnak obrak ustiatzeagatik edo zerbitzuak emateagatik honako formula hauen bidez: emakida-araubidea, ekonomia mistoko sozietateak, enpresa-erakunde publikoak, kapital guztiz publikoa duten sozietateak eta zuzenbide pribatuko gainerako formulak.»

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzea.*

Aldatu egiten da Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, eta apartatu berria gehitzen da, 6.a, 20. artikuluan; honela geratzen da idatzita:

«6. Artikulu honen 4. apartatuak aipatzen dituen zerbitzu publikoak emateagatik jasotzen diren hertsapenezko kontraprestazio ekonomikoak tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikotzat hartuko dira, Konstituzioaren 31.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz; prestazio hori pertsonifikazio pribatuaren bidez zuzenean emandakoa edo zeharka kudeatutakoa izan daiteke.

Zehazki, halakotzat hartuko dira exijitzen direnak obrak ustiatzeagatik eta zerbitzuak emateagatik honako formula hauen bidez: emakida-araubidea, ekonomia mistoko sozietateak, enpresa-erakunde publikoak, kapital guztiz publikoa duten sozietateak eta zuzenbide pribatuko gainerako formulak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 103. artikuluan ezarritakoa ezertan kendu gabe, apartatu honetan aipatzen diren kontraprestazio ekonomikoak ordenantza bidez arautuko dira. Ordenantza hori onesteko prozeduran zehar, toki-entitateek nahitaezko txostena eskatuko diete haien zereginetan esku hartzeko ahalmena –ordenamendu juridikoak aitortua– duten administrazio publikoei.»

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Sektore Publikoaren Informazioa Berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Sektore Publikoaren Informazioa Berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita 2. artikulua:

«2. artikulua. *Aplikazio-eremu subjektiboa.*

1. Lege hau sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira honako hauek:

- a) Estatuko Administrazio Orokorra.
- b) Autonomia-erkidegoen administrazioak.
- c) Toki-administrazioa osatzen duten entitateak.
- d) Sektore publiko instituzionala.

2. Hauek sartzen dira sektore publiko instituzionalean:

- a) Administrazio publikoei loturik edo haien mendean dagoen zeinahi organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitate.
- b) Administrazio publikoei loturik edo haien mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak, zeinek lege honen arauak beraiei buruz diotenari jarraitu beharko baitiote, eta betiere administrazio-ahalak baliatzen dituztenean.
- c) Unibertsitate publikoak, zeinek beren araudi espezifikoki jarraituko baitiote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.

3. Administrazio publikotzat hartzen dira: Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta 2. apartatuaren a) letran aurreikusitako organismo publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.»

Bi. 3.2. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Lege hau sektore publikoko administrazioek eta organismoek egindako edo gordetako dokumentuei aplikatuko zaie.»

Hiru. Aldatu egiten da 7.1. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Berrerabiltzekoak diren dokumentuak hornitzeagatik tarifa bat aplikatu ahalko da, Estatuko indarreko araudian jasotako baldintzekin bat, edo, kasuan-kasuan, autonomia-erkidegoen edo tokiaren eremuan aplikatu beharreko araudietan jasotako baldintzekin bat, baina tarifa hori dokumentuak erreproduzitzeak, erabilgarri jartzeak eta zabaltzeak eragiten dituen kostu marjinaletara mugatuko da.

Baldin eta administrazio batek edo sektore publikoko organismo batek dokumentuak berrerabiltzen baditu esleituta dauzkan eginkizun propioez beste merkataritza-jarduera batzuetarako oinarri gisa, jarduera horietarako dokumentuak emateari aplikatu beharko zaizkio gainerako erabiltzaileei aplikatzen zaizkien tasa edo prezio publiko eta baldintza berberak.»

Lau. Aldatu egiten da 7.6. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Sektore publikoko administrazio eta organismoek, bitarteko elektronikoen bitartez argitaratuko dituzte, posible eta egoki den neurrian, sektore publikoko organismoen esku dauden dokumentuak berrerabiltzeko finkatutako tarifak, baita aplikatu beharreko baldintzak eta horien benetako zenbatekoa ere, erabili den kalkulu-oinarria barne.

Tarifa bat aplikatzen den gainerako kasuetan, aldeztatik adieraziko du dagokion sektore publikoko organismoak zer faktore hartuko diren kontuan hura kalkulatzeko. Eskatuz gero, aipatutako organismoak tarifa hori nola kalkulatu duen adieraziko du, berrerabiltzeko eskaera jakinari dagokionez.»

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aldatzea (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen).*

4. apartatua gehitzen zaio Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 43. artikuluari (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen testu bategin hori):

«4. Gizarte ekimeneko enplegu zentro berezitzat hartuko dira artikuluan honen 1. eta 2. apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta irabazi asmorik gabekoa izan edo bere estatutuetan izaera soziala aitortua duen entitate batek edo batzuek zuzenean edo zeharka sustatuak direnak eta zentroaren ehuneko 50 baino gehiagoko partaidetza dutenak, elkarteak izan, fundazioak izan, zuzenbide publikoko korporazioak izan, gizarte ekimeneko kooperatibak izan edo ekonomia sozialeko bestelako entitateak izan; bai eta merkataritza-sozietateen titulartasunekoak direnak ere, baldin eta sozietate horietan kapital sozialaren gehiengoa aurrez aipatutako entitatearen baten jabetzakoa bada, dela zuzenean, dela zeharka Merkataritza Kodearen 42. artikuluan araututako sozietate nagusiaren kontzeptuaren bitartez. Baina kasu guztietan, estatutuetan edo akordio sozialean beren burua behartuko dute beren etekinak guztiz berrinbertitzera desgaitasuna duten pertsonentzat enplegu-aukerak sortzeko eta beren lehiakortasuna eta ekonomia sozialeko jardueraren etengabe hobetzeko, eta aukeratu ahalko dute enplegu zentro berezian bertan

berrinbertitzea edo gizarte ekimeneko beste enplegu zentro berezi batzuetan berrinbertitzea.»

Azken xedapenetako hamabosgarrena. *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 82. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Inbentario hori integratzeaz, kudeatzeaz eta argitaratzeaz Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailletza Nagusia arduratuko da.»

Bi. 84. artikulua 2. apartatuaren azken paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Apartatu honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko Estatuak nazioarteko organismoetan edo nazioz gaindiko entitateetan izan dezakeen parte-hartzeari, ezta normalizazio eta egiaztapenerako organismo nazionaletan edo Birmoldaketari eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen babesean sortutako sozietateetan izan dezakeen parte-hartzeari ere.»

Azken xedapenetako hamaseigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta lau hilabete igarota.

Hala ere, 159. artikulua 4. apartatuaren a) letra eta 32. artikulua 2. apartatuaren d) letra argitalpen hori egin eta hamar hilabeteren buruan jarriko dira indarrean; eta 328. artikulutik 334. artikulura bitartekoak eta azken xedapenetako hamargarrena argitalpen hori egin eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

150. artikulua 1. apartatuaren hirugarren paragrafoa indarrean jarriko da berak aipatzen duen erregelamenduzko xedapena indarrean jartzen den une berean.

Beraz,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2017ko azaroaren 8an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
MARIANO RAJOY BREY

## I. ERANSKINA

## 13. artikuluan jasotako lanak

CPV eta NACE sailkapenen artean interpretazio ezberdinak diren kasuetan, CPV nomenklatura erabiliko da.

NACE 2. berrikuspena (*)					CPV kodea
F sekzioa			Eraikuntza		
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharrak	
45			Eraikuntza.	Sail honek honako hauek hartzen ditu barnean: – Eraikuntza berriak, zaharberritze-lanak eta konponketa arruntak.	45000000
	45,1		Obrak prestatzea.		45100000
		45,11	Eraikinak eraistea; lur-mugimenduak.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – Eraikinak eta bestelako egiturak eraistea, – obra-hondakinak garbitzea, – lur-mugimenduetako lanak: induskatzea, obra-kokalekuak betetzea eta berdintzea, zangak induskatzea, harkaitzak kentzea, leherketak, eta abar, – meatze-ustiapenak prestatzea: – lur azpiko lanak, meategiko sarbidetik mineral-hondakinak kentzea eta meategiak prestatzeko beste jarduera batzuk.  Mota honek honako hauek ere hartzen ditu barnean: – obra-kokalekuak drainatzea, – nekazaritza- eta baso-lurrak drainatzea.	45110000
		45,12	Zulaketa eta zundaketak.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – eraikuntza-, geofisika- eta geologia-helburuak edo beste helburu batzuk dituzten zulaketak, zundaketak eta laginketak.  Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – petrolio eta gas naturala ekoizteko putzuak zulatzea (ikus 11.20), – putzu hidraulikoak zulatzea (ikus 45.25), – meategietako putzuak zulatzea (ikus 45.25), – petrolioko eta gas naturaleko hobien prospekzioa eta ikerketa geofisiko, geologiko edo sismikoak (ikus 74.20).	45120000

NACE 2. berrikuspena (1)					CPV kodea
F sekzioa			Eraikuntza		
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharrak	
	45,2		Higiezin eta ingeniari-tza zibileko obren eraikuntza orokorra.		45200000
		45,21	Eraikinak eta ingeniari-tza zibileko obra bereziak eraikitzea (zubiak, tunelak, eta abar).	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- era guztietako eraikinak eraikitzea, ingeniari-tza zibileko obrak egitea:</li> <li>- zubiak (goratutako errepedeetakoak barne), biaduktuak, tunelak eta lur azpiko pasabideak,</li> <li>- energia-, komunikazio- eta eroanbide-sareak, distantzia luzekoak,</li> <li>- hirietako hoditeria, energia- eta komunikazio-sareak jartzea,</li> <li>- hiri-obra atxikiak,</li> <li>- eraikuntza aurrefabrikatuak <i>in situ</i> muntatzea.</li> </ul> <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- gasa eta petrolio ateratzearekin zerikusia duten zerbitzuak (ikus 11.20),</li> <li>- norberak fabrikatutako piezak (hormigoizkoak ez direnak) erabilita aurrefabrikatutako eraikin osoak muntatzea (ikus 20., 26. eta 28. sailak),</li> <li>- estadioetako, igerilekue-tako, gimnasioetako, tenis-pistetako, golf-zelaietako eta gainerako kirol-instalazioetako ekipamenduak egitea, haien eraikinak salbu (ikus 45.23),</li> <li>- eraikinen eta obren instalazioak (ikus 45.3),</li> <li>- eraikinen eta obren akabera (ikus 45.4),</li> <li>- arkitektura- eta ingeniari-tza-jarduerak (ikus 74.20),</li> <li>- eraikuntza-obren zuzendaritza (ikus 74.20).</li> </ul>	<p>45210000</p> <p>Hauek izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 45213316</li> <li>45220000</li> <li>45231000</li> <li>45232000</li> </ul>
		45,22	Estalkiak eta itxidura-egiturak egitea.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- teilatuak eraikitzea,</li> <li>- teilatuak estaltzea,</li> <li>- eraikinak eta balkoiak iragazgaitzea.</li> </ul>	45261000
		45,23	Autobidea, errepedeak, lurreratze-eremuak, trenbideak eta kiroldegiak egitea.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- autobideak, kaleak, errepedeak eta ibilgailuak zein oinezkoak ibiltzeko beste bide batzuk egitea,</li> <li>- trenbideak egitea,</li> <li>- lurreratze-pistak eraikitzea,</li> <li>- estadioetako, igerilekue-tako, gimnasioetako, tenis-pistetako, golf-zelaietako eta gainerako kirol-instalazioetako ekipamenduak egitea, haien eraikinak salbu,</li> <li>- errepedeetako eta aparkalekue-tako seinaleak pintatzea. Honako hauek ez dira mota horretan sartzen:</li> <li>- aurretik egin beharreko lur-mugimendua (ikus 45.11).</li> </ul>	<p>45212212 eta DA03 45230000</p> <p>Hauek izan ezik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 45231000</li> <li>- 45232000</li> <li>- 45234115</li> </ul>
		45,24	Obra hidraulikoak.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ondokoak eraikitzea:</li> <li>- bide nabigagarriak, portu- eta ibai-instalazioak, kirol-portuak, eskusak, eta abar,</li> <li>- presak eta dikeak,</li> <li>- dragatzeak,</li> <li>- lur-azpiko obrak.</li> </ul>	45240000

NACE 2. berrikuspena (1)					CPV kodea
F sekzioa			Eraikuntza		
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharra	
		45,25	Beste eraikuntza-lan espezializatu batzuk.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitura mota desberdinek duten alderdi erkide batean espezializatutako eraikuntza-jarduerak, gaitasun edo material espezifikoak behar dituztenak,</li> <li>- zimendatze-lanak, piloteak sartzeari buruzkoak,</li> <li>- putzu hidraulikoak egin eta zulatzea, meategietako putzuak induskatzea,</li> <li>- Altzairuzko piezak muntatzea, norberak eginikoak ez direnean,</li> <li>- altzairua kurbatzea,</li> <li>- adreiluak eta harria jartzea,</li> <li>- aldamiok eta lanerako plataformak muntatu eta desmuntatzea, horiek alokatzea barne,</li> <li>- industria-tximiniak eta labeak muntatzea.</li> </ul> <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldamiok alokatzea, muntaketarik eta desmuntaketarik gabe (ikus 71.32).</li> </ul>	45250000 45262000
	45,3		Eraikinetan eta obretan instalazioak jartze.		45300000
		45,31	Instalazio elektrikoa.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <p>eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan honako hauek instalatzeko obrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- kableak eta material elektrikoa,</li> <li>- telekomunikazio sistemak,</li> <li>- berokuntza elektrikorako instalazioak,</li> <li>- etxebizitzetako antenak,</li> <li>- suteen kontrako alarmak,</li> <li>- lapurretatik babesteko alarma-sistemak,</li> <li>- igogailuak eta eskailera mekanikoak,</li> <li>- tximistorratzak, eta abar.</li> </ul>	45213316 45310000 Hauek izan ezik: - 45316000
		45,32	Isolamendu-lanak.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan isolamendu termikoa, akustikoa edo bibrazioak moteltzeko instalatzea.</li> </ul> <p>Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- eraikinak eta balkoiak iragazgaiztea (ikus 45.22).</li> </ul>	45320000
		45,33	Iturgintza.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan honako hauek instalatzea:</li> <li>- iturgintzako aparatuak eta sanitarioak,</li> <li>- gas-aparatuak,</li> <li>- berotzeko, aireztatzeko, hozteko- edo haize girotuko aparatuak eta eroanbideak,</li> <li>- su-itxalgailu automatikoak instalatzea. Honako hauek ez dira mota honetan sartzen:</li> <li>- berokuntza elektriko instalazioak jartzea eta konpontzea (ikus 45.31).</li> </ul>	45330000
		45,34	Eraikin eta obretako beste instalazio batzuk.	<p>Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- errepedeak, portuak eta aireportuak argitzeko eta seinalezatzeko sistemak instalatzea,</li> <li>- eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan beste inon sailkatuta ez dauden gailuak instalatzea.</li> </ul>	45234115 45316000 45340000



NACE 2. berrikuspena (1)					CPV kodea
F sekzioa			Eraikuntza		
Saila	Taldea	Mota	Deskribapena	Oharra	
	45,4		Eraikinak eta obrak amaitzea.		45400000
		45,41	Entokatzea.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan igeltsua eta estukoa – barnekoa zein kanpokoak– aplikatzea, dagozkien zerrendako materialak barne.	45410000
		45,42	Zurgintzako instalazioak.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – ateak, leihoak eta markoak, sukalde hornituak, eskailerak, laneko altzariak eta antzekoak, zurez edo beste material batzuek eginak, instalatzea, eta betiere norberaren ekoizpenekoak ez badira, – barneko akaberak, esate baterako: sabaia, hormetako egurrezko estalkiak, trenkada mugikorak, eta abar.  Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – parketez eta beste egur batzuek eginiko zorueterako estaldurak (ikus 45.43).	45420000
		45,43	Lur eta hormen estaldura.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – eraikinetan eta beste eraikuntza-obra batzuetan honako hauek jartzea: – zeramikazko, hormigoizko edo harri landuzko estaldura horma eta zorueterako, – parketez eta beste egur batzuek eginiko estaldurak zorueterako eta moketazko eta linoleozko estaldurak zorueterako, – kautxua eta material plastikoak barne, – terrazozko, marmolezko, granitozko edo arbelezko estaldurak hormetarako eta zorueterako, – paper margotuak.	45430000
		45,44	Pintura eta beirak jartzea.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – eraikinak barrutik eta kanpotik pintatzea, – ingeniari zibileko obrak pintatzea, – kristalak, ispiluak, eta abar jartzea.  Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – leihoak jartzea (ikus 45.42).	45440000
		45,45	Eraikinen eta obren beste akabera batzuk.	Mota honek honako hauek hartzen ditu barnean: – igerileku partikularrak instalatzea, – eraikinetako kanpoko aldea garbitzea, lurrunez, hareazko txorrotaz edo antzeko metodoak erabiliz, – eraikinak amaitzeko beste obra batzuk, beste inon aipatu ez direnak.  Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – eraikinen eta obren barruko aldeak garbitzea (ikus 74.70).	45212212 eta DA04 45450000
	45,5		Eraikina egiteko edo botatzeko ekipoa alokatzea, langile eta guzti.		45500000
		45,50	Eraikina egiteko edo botatzeko ekipoa alokatzea, langile eta guzti.	Honako hauek ez dira mota honetan sartzen: – eraikina egiteko edo botatzeko ekipoa alokatzea, langilerik gabe (ikus 71.32).	45500000

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1893/2006 (EEE) Erregelamendua, 2006ko abenduaren 20koa, jarduera ekonomikoen Europako sailkapena ezartzen duena.

## II. ERANSKINA

**Defentsa arloko kontratazio-organoek adjudikatutako hornidura-kontratuei dagokienez 21.1.a) artikuluan aipatutako produktuen zerrenda**

25. kapitulua:	Gatza, sufrea, lurrak eta harriak, igeltsuak, kareak eta zementuak.
26. kapitulua:	Mineralak, zepak eta errautsak.
27. kapitulua:	Erregai mineralak, olio mineralak eta horiek destilatuz lortutako produktuak, gai bituminosoak, argizari mineralak. Hauek izan ezik: ex ex 27.10: erregai bereziak.
28. kapitulua:	Produktu kimiko ez-organikoak, metal preziatuen, elementu erradioaktiboen, lur arraroetako metalen edo isotopoen konposatu ez-organiko eta organikoak. Hauek izan ezik: ex ex 28.09: lehergaiak. ex ex 28.13: lehergaiak. ex ex 28.14: gas negar-eragileak. ex ex 28.28: lehergaiak. ex ex 28.32: lehergaiak. ex ex 28.39: lehergaiak. ex ex 28.50: produktu toxikologikoak. ex ex 28.51: produktu toxikologikoak. ex ex 28.54: lehergaiak.
29. kapitulua:	Produktu kimiko organikoak. Hauek izan ezik: ex ex 29.03: lehergaiak. ex ex 29.04: lehergaiak. ex ex 29.07: lehergaiak. ex ex 29.08: lehergaiak. ex ex 29.11: lehergaiak. ex ex 29.12: lehergaiak. ex ex 29.13: produktu toxikologikoak. ex ex 29.14: produktu toxikologikoak. ex ex 29.15: produktu toxikologikoak. ex ex 29.21: produktu toxikologikoak. ex ex 29.22: produktu toxikologikoak. ex ex 29.23: produktu toxikologikoak. ex ex 29.26: lehergaiak. ex ex 29.27: produktu toxikologikoak. ex ex 29.29: lehergaiak.
30. kapitulua:	Farmaziako produktuak.
31. kapitulua:	Ongarriak.
32. kapitulua:	Larru-zuruketaren edota tindaketaren aterakinak; taninoak eta horren eratorriak; pigmentuak eta beste gai koloratzaile batzuk; pinturak eta bernizak; mastikeak; tintak.
33. kapitulua:	Olio esentzialak eta erretxinoideak; lurringintzako, apain-mahaiko eta kosmetikako prestakinak.
34. kapitulua:	Xaboiak, gainazaletarako eragile organikoak, garbitzeko prestakinak, lubrifikatze prestakinak, argizari artifizialak, argizari prestatuak, garbitzeko produktuak, kandelak eta antzeko artikulua, modelatzeko oreak, odontologiarako argizariak eta odontologiarako igeltsuzko prestakinak.
35. kapitulua:	Materia albuminoideak; kolak, entzimak.
37. kapitulua:	Argazkigintzako produktuak edo produktu zinematografikoak.
38. kapitulua:	Industria kimikoko produktuak, hauek izan ezik: ex ex 38.19: produktu toxikologikoak.

39. kapitulua:	Materia plastikoak, zelulosako eterrak eta esterrak, erretxina artifizialak eta materia horien manufakturak, hauek izan ezik: ex ex 39.03: lehergaiak.
40. kapitulua:	Kautxu natural edo sintetikoa, kautxu artifiziala eta kautxuzko manufakturak, hauek izan ezik: ex ex 40.11: ibilgailuetarako pneumatikoak.
41. kapitulua:	Larruak (larrugintzan izan ezik) eta larruazalak.
42. kapitulua:	Larruzko manufakturak, uhalgintzako edo gerrikogintzako artikulua; bidaia-artikulua, eskuko poltsak eta antzeko zorroak; hestezko manufakturak.
43. kapitulua:	Larrugintza eta larrugintzako jantziak; larrugintza artifiziala.
44. kapitulua:	Zura, egur-ikatza eta zurezko manufakturak.
45. kapitulua:	Artelazkia eta artelazkiko manufakturak.
46. kapitulua:	Espartzugintzako edo saskigintzako manufakturak.
47. kapitulua:	Papera fabrikatzeko materialak.
48. kapitulua:	Papera eta kartoia; zelulosa-orezko, paperezko edo kartoizko manufakturak.
49. kapitulua:	Liburu-dendako artikulua eta arte grafikoko produktuak.
65. kapitulua:	Kapelak eta gainerako burukoak eta horien atalak.
66. kapitulua:	Euritakoak, eguzki-babesak, makilak, zartailuak, ustak eta horien atalak.
67. kapitulua:	Luma eta lumatxa prestatuak eta lumazko eta lumatzeko artikulua; lore artifizialak; ilezko manufakturak.
68. kapitulua:	Harri, igeltsu gogorri, zementu, amianto (asbestoa), mika edo antzeko materialzko manufakturak.
69. kapitulua:	Zeramika-produktuak.
70. kapitulua:	Beira eta beirazko manufakturak.
71. kapitulua:	Perla finak, harribitxiak eta erdibitxiak, metal preziatuak, metal preziatuzko xaflatuak (plakea) eta antzeko materialzko manufakturak; imitaziozko bitxiak.
73. kapitulua:	Burdinurtua, burdina eta altzairua.
74. kapitulua:	Kobrea.
75. kapitulua:	Nikela.
76. kapitulua:	Aluminioa.
77. kapitulua:	Magnesioa, berilioa.
78. kapitulua:	Beruna.
79. kapitulua:	Zinka.
80. kapitulua:	Eztainua.
81. kapitulua:	Beste metal arrunt batzuk.
82. kapitulua:	Erremintak, aitzogintzako artikulua eta mahai-tresnak, metal arruntezkoak, hauek izan ezik: ex ex 82.05: erremintak. ex ex 82.07: erreminten piezak.
83. kapitulua:	Metal arruntezko askotariko manufakturak.
84. kapitulua:	Galdarak, makinak, aparatu eta tramankulu mekanikoak, hauek izan ezik: ex ex 84.06: motorrak. ex ex 84.08: gainerako propulsaileak. ex ex 84.45: makinak. ex ex 84.53: informazioa tratatzeko makina automatikoak. ex ex 84.55: 84.53 zk.ko piezak. ex ex 84.59: erreaktore nuklearrak.

85. kapitulua:	Makina eta aparatu elektrikoak eta erabilera elektroteknikoetarako balio duten objektuak, hauek izan ezik: ex ex 85.13: telekomunikazioak. ex ex 85.15: transmisio-aparatuak.
86. kapitulua:	Trenbideetarako ibilgailuak eta materiala, komunikazio-bideak seinaleztatzeko aparatu ez-elektrokoak, hauek izan ezik: ex ex 86.02: lokomotor blindatuak. ex ex 86.03: gainerako lokomotor blindatuak. ex ex 86.05: bagoi blindatuak. ex ex 86.06: lantegi-bagoiak. ex ex 86.07: bagoiak.
87. kapitulua:	Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta gainerako lurreko ibilgailuak, hauek izan ezik: ex ex 87.08: tankeak eta gainerako automobil blindatuak. ex ex 87.01: traktoreak. ex ex 87.02: ibilgailu militarrek. ex ex 87.03: konponketetarako ibilgailuak. ex ex 87.09: motozikletak. ex ex 87.14: atoiak.
89. kapitulua:	Itsas nabigazioa eta ibai nabigazioa, hauek izan ezik: ex ex 89.01A: gerrako ontziak.
90. kapitulua:	Optikako, argazkigintzako eta zinematografiako tresnak eta aparatuak, neurtzeko, kontrolatzeko edo doitzekoak; medikuntzako eta kirurgiako trenak eta aparatuak, hauek izan ezik: ex ex 90.05: binokularrak. ex ex 90.13: hainbat tresna, laserra. ex ex 90.14: telemetroak. ex ex 90.28: neurgailu elektriko edo elektronikoak. ex ex 90.11: mikroskopiaok. ex ex 90.17: medikuntzako tresnak. ex ex 90.18: mekanoterapiarako aparatuak. ex ex 90.19: ortopediarako aparatuak. ex ex 90.20: X izpietako aparatuak.
91. kapitulua:	Erlojuen fabrikazioa.
92. kapitulua:	Musika-tresnak, soinua grabatzeko edo erreproduzitzeko aparatuak, telebistako irudiak eta soinua grabatzeko edo erreproduzitzeko aparatuak, eta aparatu horien atal eta osagarriak.
94. kapitulua:	Altzariak; medikuntzako eta kirurgiako altzariak; oherako artikulua eta antzekoak, hauek izan ezik: ex ex 94.01A: aireontzietarako eserlekuak.
95. kapitulua:	Zizelkatzeko edo modelatzeko materiak, landuak (manufakturak barne).
96. kapitulua:	Eskuilagintzako manufakturak, brotxak eta pintzelak, erratzak, borlak eta baheak.
98. kapitulua:	Salgaiak eta era askotako produktuak.

### III. ERANSKINA

#### Iragarkietan agertu beharreko informazioa

A) Kontratatzailearen profilean egitekoa den aurretiazko informazioaren iragarkian, lizitazio-iragarkian, formalizazio-iragarkian eta obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak aldatzeko iragarkian agertu beharreko informazioa.

1. atala. Kontratatzailearen profil batean egitekoa den aurretiazko informazioaren iragarki batean agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzailearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea, NUTS kodea barne, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Botere adjudikatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.

3. Horrela denean, botere adjudikatzailea erosketa-zentral bat dela adieraziko da edo baterako beste kontratazio mota bat erabiliko dela edo erabil daitekeela.

4. CPV kodeak.

5. «Kontratatzaile profilarren» Interneteko helbidea (URL).

6. Kontratatzailearen profilean aurretiazko informazioaren iragarki bat argitaratzeari buruzko iragarkia zein egunetan bidali den.

2. atala. Aurretiazko informazioaren iragarkietan agertu beharreko informazioa,  
3. atala aplikatzea egokia ez denean:

1. Botere adjudikatzailearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea, NUTS kodea barne, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Kontratazioaren baldintza-agiriak eskuratu ahalko diren helbide elektronikoa edo Internetekoa, haiek libreki, zuzenean, osorik eta doan eskuratzeko.

138. artikuluan jasotako arrazoiengatik irispide libre, zuzen, oso eta doakorik ez dagoenean, kontratazioaren baldintza-agiriak eskuratzeko moduari buruzko jarraibide bat.

3. Botere adjudikatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.

4. Horrela denean, botere adjudikatzailea erosketa-zentral bat dela adieraziko da edo baterako beste kontratazio mota bat erabiliko dela edo erabil daitekeela.

5. CPV kodeak. Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

6. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-kontratuaren kasuan; edo entregaren edo egikaritzaren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, hornidura- eta zerbitzu-kontratuaren. Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

7. Kontratazioaren deskribapen laburra: obren izaera eta norainokoa, horniduren izaera eta kopurua edo balioa, zerbitzuen izaera eta norainokoa.

8. Iragarkia lizitazioaren deialdirako bitarteko gisa erabiltzen ez denean, lizitazio-iragarki bat edo batzuk argitaratzeko kalkulatzeko diren datak, aurretiazko informazioaren iragarkiak aipatzen duen kontratuari edo aipatzen dituen kontratuei dagokienez.

9. Iragarkiaren bidalketa-data.

10. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

11. KPA (kontratu publikoen inguruko akordioa) kontratuari aplikatzekoa den edo ez adieraziko da.

3. atala. IV. eranskineko zerbitzu berezien aurretiazko informazioaren iragarkietan agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzailearen izena, identifikazio-zenbakia (legeria nazionalean aurreikusita dagoenean), helbidea (NUTS kodea barne), helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. Kasuan kasuko kontratuaren deskribapen laburra, horren barruan direla kontratuaren guztizko balio zenbatetsia eta CPV nomenklaturari buruzko erreferentzia-zenbakiak.

3. Ezagutzen diren neurrian, honako hauek:

- a) Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kasuan; edo entregaren edo gauzatzearen kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kasuan;
- b) Ondasunak entregatzeko, obrak egiteko edo zerbitzuak emateko egutegia, eta kontratuaren iraupena;
- c) Parte hartzeko baldintzak, eta, zehazki, honako hauek:

Horrela denean, adieraztea kontratu publikoa tailer babestuei mugatuta dagoela edo aurreikusita dagoela enplegu babestuko programen esparruan soilik gauzatzea.

Horrela denean, aipatzea legezko edo erregelamenduzko xedapenen edo xedapen administratiboen arabera zerbitzuaren prestazioa lanbide jakin bati erreserbatzen zaiola.

d) Aplikatuko den adjudikazio-prozeduraren ezaugarri nagusien deskribapen laburra.

4. atala. Lizitazio-iragarkietan agertu beharreko informazioa, 5. atala aplikatzea egokia ez denean:

1. Botere adjudikatzailearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea, NUTS kodea barne, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Kontratazioaren baldintza-agiriak eskuratu ahalko diren helbide elektronikoa edo Internetekoa, haiek libreki, zuzenean, osorik eta doan eskuratzeko.

138. artikuluan jasotako arrazoiengatik irispide libre, zuzen, oso eta doakorik ez dagoenean, kontratazioaren baldintza-agiriak eskuratzeko moduari buruzko jarraibide bat.

3. Botere adjudikatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.

4. Horrela denean, botere adjudikatzailea erosketa-zentral bat dela adieraziko da edo baterako beste kontratazio mota bat erabiliko dela.

5. CPV kodeak. Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

6. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kontratuen kasuan; edo entregaren edo gauzatzearen kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kontratuetan. Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

7. Lizitazioaren deskribapena: obren izaera eta norainokoa, horniduren izaera eta kopurua edo balioa, zerbitzuen izaera eta norainokoa. Kontratua sortatan banatuta badago, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da. Hala dagokionean, aldaeren deskribapena.

8. Kontratuaren edo kontratuen zenbatetsitako guztizko magnitudearen ordena: kontratuak sortatan banatuta daudenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

9. Aldaeren onarpena edo debekua.

10. Hornidurak edo obrak entregatzeko edo zerbitzuak emateko egutegia eta, ahal den neurrian, kontratuaren iraupena.

a) Esparru-akordio bat erabiltzen denean, aurreikusi zaion iraupena adieraziko da, zeina lau urtekoa baino gehiagokoa bada justifikatu egin beharko baita; ahal den neurrian, magnitudearen balioa edo ordena adieraziko da, bai eta adjudikatuko diren kontratuen maiztasuna eta kopurua ere, eta, egokia denean, gehienez ere parte hartuko duten operadore ekonomikoen kopurua.

b) Eskuratzeko-sistema dinamiko baten kasuan, sistemarako aurreikusi den iraupena; ahal den neurrian, magnitudearen balioa edo ordena adieraziko da, bai eta adjudikatuko diren kontratuen maiztasuna ere.



11. Parte hartzeko baldintzak, besteak beste:

- a) Horrela denean, adieraztea kontratu publikoa tailer babestuei mugatuta dagoela edo aurreikusita dagoela enplegu babestuko programen esparruan soilik gauzatzea;
- b) Horrela denean, aipatzea legezko edo erregelamenduzko xedapenen eta xedapen administratiboen arabera zerbitzu-ematea lanbide jakin bati erreserbatzen zaiola; legezko edo erregelamenduzko xedapen edo xedapen administratibo horren aipamena;
- c) Operadore ekonomikoak baztertzea eragin dezaketen egoera pertsonalei buruzko irizpideen eta hautapen-irizpideen aipamena eta deskribapen laburra; gutxieneko maila onargarriak; eskatutako informazioari buruzko aipamena (interesdunen adierazpenak, dokumentazioa).

12. Adjudikatzeko prozedura mota; horrela dagokionean, prozedura azkarra erabiltzeko arrazoiak (prozedura irekietan, murriztuetan edo lizitazio-prozedura negoziatuetan).

13. Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena:

- a) Esparru-akordio bat aplikatzen den;
- b) Eskuratze-sistema dinamiko bat aplikatzen den;
- c) Enkante elektronikoa erabiltzen den (prozedura irekietan, murriztuetan edo lizitazio-prozedura negoziatuetan).

14. Kontratua sortatan azpibanatu behar denean, aipatzea eskaintzak aurkeztu ote daitezkeen sorta bakar baterako, sorta batzuetarako edo sorta guztietarako; aipatzea ea lizitazailer bakoitzari adjudikatu ahalko zaion sorta kopurua mugatuta egongo den. Kontratua sortatan azpibanatuta ez dagoenean, aipatzea horretarako zer arrazoi dauden, informazio hori berariazko txostenean ematen ez bada.

15. Prozedura murriztuen kasuan, lizitazio-prozedura negoziatuetan, lehia-elkarrizketaren prozeduran edo berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaien kopurua murrizteko ahalmena baliatzen denean, hau da, eskaintzak aurkezteko, negoziatzeko edo elkarrizketan parte hartzeko gonbidapena egingo zaien hautagaien kopurua murrizteko ahalmena baliatzen denean: hautagaien gutxieneko kopurua eta, kasua bada, gehieneko kopurua, eta hautagai horiek aukeratzeko erabiliko diren irizpide objektiboak.

16. Lizitazio-prozedura negoziatuan, lehia-elkarrizketaren prozeduran edo berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, aipatuko da, hala dagokionean, ondoz ondoko fasetan garatuko den prozedura batera joko dela, negoziatu beharreko eskaintzen edo aztertu beharreko konponbideen kopurua pixkanaka gutxitzeko.

17. Hala dagokionean, kontratua egikaritzea zer baldintza zehatzen menpe dagoen.

18. Kontratua edo kontratuak adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak. Eskaintzarik onena prezioan soilik oinarrituta zehatzen den kasuan izan ezik, aipatuko da zer irizpideren arabera zehaztuko den eskaintzarik onena, 145. artikuluari jarraituz, bai eta haren haztatzea ere, irizpide horiek baldintza-agirian ageri ez direnean edo, lehia-elkarrizketaren kasuan, deskripzio-agirian ageri ez direnean.

19. Eskaintzak jasotzeko epea (prozedura irekietan) edo parte hartzeko eskaerak jasotzekoa (prozedura murriztuetan, lizitazio-prozedura negoziatuetan, eskuratze-sistema dinamikoetan, lehia-elkarrizketetan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduretan).

20. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak zer helbidetara transmititu behar diren.

21. Prozedura irekien kasuan:

- a) Lizitazailer eskaintza mantentzera behartuta dagoen epea;
- b) Plikak irekitzeko data, ordua eta tokia;
- c) Irekitze horretara joateko baimendutako pertsonak.

22. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak zer hizkuntzatan (batean edo batean baino gehiagotan) idatzi beharko diren.

23. Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena:

- a) Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak bide elektronikoz aurkeztea onartuko den.
- b) Eskari elektronikoak erabiliko diren.
- c) Fakturazio elektronikoa onartuko den.
- d) Ordainketa elektronikoa erabiliko den.

24. Kontratua Europar Batasunaren funtsekin finantzaturako proiektu edo programa batekin lotuta egoteari buruzko informazioa.

25. Errekurtso-prozeduran eta, kasua bada, bitartekaritza-prozeduran organo eskudunaren izena eta helbidea. Errekurtsoak aurkezteko epeei buruzko aipamena; edo, kasua bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

26. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialeko* aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkian ezagutzera ematen den kontraturako edo ezagutzera ematen diren kontratueterako garrantzia dutenak.

27. Aldizkako kontratuen kasuan, geroko iragarkiak argitaratzeko kalkulatu den egutegia.

28. Iragarkiaren bidalketa-data.

29. KPA kontratuari aplikatzekoa izateari buruzko aipamena.

30. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

5. atala. IV. eranskineko zerbitzu berezietarako kontratuei buruzko lizitazio-iragarkietan agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzaillearen izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kontratuen kasuan; edo entregaren edo gauzatzearen kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kontratuetan.

3. Kasuan kasuko kontratuaren deskribapen laburra, horren barnean direla CPV nomenklaturari buruzko erreferentzia-zenbakiak.

4. Parte hartzeko baldintzak, eta zehazki honako hauek:

– Horrela denean, adieraztea kontratu publikoa tailer babestuei mugatuta dagoela edo aurreikusita dagoela enplegu babestuko programen esparruan soilik gauzatzea,

– Horrela denean, aipatzea legezko edo erregelamenduzko xedapenen edo xedapen administratiboen arabera zerbitzu-prestazioa lanbide jakin bati erreserbatzen zaiola.

5. Botere adjudikatzaillearekin harremanetan jartzeko epea(k), parte hartzeari begira.

6. Aplikatu beharreko adjudikazio-prozeduraren ezaugarri nagusien deskribapen laburra.

6. atala. Kontratazioa formalizatzeko iragarkietan agertu beharreko informazioa, 7. atala aplikatzea egokia ez denean:

1. Botere adjudikatzaillearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea, NUTS kodea barne, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. Botere adjudikatzaillea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.

3. Horrela denean, botere adjudikatzaillea erosketa-zentral bat dela adieraziko da edo baterako beste kontratazio mota bat erabiliko dela.

4. CPV kodeak.

5. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kontratuen kasuan; edo entregaren edo gauzatzearen kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kontratuetan.

6. Lizitazioaren deskribapena: obren izaera eta norainokoa, horniduren izaera eta kopurua edo balioa, zerbitzuen izaera eta norainokoa. Kontratua sortatan banatuta badago,

informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da. Hala dagokionean, aldaeren deskribapena.

7. Adjudikatzeko prozedura mota; baldin eta aurretiazko publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili bada, hautu hori justifikatu beharko da.

8. Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena:

- a) Esparru-akordio bat aplikatu den.
- b) Eskuratzeko-sistema dinamiko bat aplikatu den.

9. Kontratua edo kontratuak adjudikatzeko erabili ziren irizpideak, 145. artikuluan aurreikusitakoak. Horrela denean, aipatzea enkanter elektronikoa erabili dela (prozedura irekietan, murriztuetan edo lizitazio-prozedura negoziatuetan).

10. Kontratua edo kontratuak edo esparru-akordioa edo -akordioak adjudikatzeko data, emakidari edo gauzatzeari buruzko erabakia hartu ondoren.

11. Adjudikazio bakoitzerako jasotako eskaintzen kopurua, eta zehazki:

- a) Enpresa txiki eta ertainak diren operadore ekonomikoengandik jasotako eskaintzen kopurua.
- b) Europar Batasuneko kide den beste estatu batetik edo hirugarren herrialde batetik jasotako eskaintzen kopurua.
- c) Bide elektronikoz jasotako eskaintzen kopurua.

12. Adjudikazio bakoitzerako, hautatutako lizitatuzailearen edo lizitatuzaileen izena, IFZ, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea, honako hauek zehaztuta:

- a) Lizitatuzaile adjudikazioduna enpresa txiki eta ertain bat den.
- b) Ea kontratua enpresa talde bati adjudikatu zaion.

13. Hautatutako eskaintzaren edo eskaintzen balioa edo kontratuen adjudikaziorako edo adjudikazioetarako aintzat hartu diren kostu handieneko eta kostu txikieneko eskaintzen balioak.

14. Horrela dagokionean, esleipen bakoitzerako, hirugarrenekin azpikontratutzea aurreikusten diren kontratuen balioa eta proportzioa.

15. Kontratua Europar Batasunaren funtsekin finantzatutako proiektu edo programa batekin lotuta egoteari buruzko informazioa.

16. Errekurtso-prozeduraren eta, kasua bada, bitartekaritza-prozeduraren ardura duen organoaren izena eta helbidea. Errekurtsoak aurkezteko epeari buruzko aipamena; edo, kasua bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

17. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* egindako aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkian ezagutzera ematen den kontraturako edo ezagutzera ematen diren kontratueterako garrantzia dutenak.

18. Iragarkiaren bidalketa-data.
19. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

7. atala. Gizarte-zerbitzuen eta beste zerbitzu berariazko batzuen kontratuak formalizatzeko iragarkian agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatuzailearen izena, identifikazio-zenbakia (legeria nazionalean aurreikusita dagoenean), helbidea (NUTS kodea barne), helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. Kasuan kasuko kontratuaren deskribapen laburra, horren barnean direla CPV nomenklaturari buruzko erreferentzia-zenbakia edo zenbakiak.

3. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kontratuen kasuan; edo entregaren edo gauzatzearen kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kontratuetan.

4. Jasotako eskaintzen kopurua.

5. Ordaindutako prezioa edo prezio-tartea (gutxienekoa/gehienekoa).
6. Adjudikazio bakoitzerako, operadore ekonomiko adjudikaziodunaren (edo adjudikaziodunen) izena eta helbidea (NUTS kodea barne), IFZ, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.
7. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.
8. atala. Proiektuen lehiaketen iragarkietan agertu beharreko informazioa:
  1. Botere adjudikatzailearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea, NUTS kodea barne, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa.
  2. Kontratazioaren baldintza-agiriak eskuratu ahalko diren helbide elektronikoa edo Internetekoa, haiek libreki, zuzenean, osorik eta doan eskuratzeko.
  138. artikuluan jasotako arrazoiengatik irispide libre, zuzen, oso eta doakorik ez dagoenean, kontratazioaren baldintza-agiriak eskuratzeko moduari buruzko jarraibide bat.
  3. Botere adjudikatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.
  4. Horrela denean, botere adjudikatzailea erosketa-zentral bat dela adieraziko da edo baterako beste kontratazio mota bat erabiliko dela.
  5. CPV kodeak. Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.
  6. Proiektuaren ezaugarri nagusien deskribapena.
  7. Hala dagokionean, sari kopurua eta haien zenbatekoa.
  8. Lehiaketa mota (irekia edo murriztua).
  9. Lehiaketa irekien kasuan, proiektuak aurkezteko epea.
  10. Lehiaketa murriztuak direnean:
    - a) Aintzat hartu den parte-hartzaileen kopurua;
    - b) Jada hautatuak izan diren parte-hartzaileen izenak, kasua hori bada;
    - c) Parte-hartzaileak hautatzeko irizpideak;
    - d) Parte hartzeko eskarierarako epea.
  11. Kasua bada, aipatzea parte-hartze hori lanbide jakin batera murriztuta dagoela.
  12. Proiektuak baloratzeko aplikatuko diren irizpideak.
  13. Aipatzea ea epaimahaiaren erabakia loteslea den botere adjudikatzailearentzat.
  14. Hala dagokionean, parte-hartzaile guztiei ordainketak egingo zaizkiela.
  15. Aipatuko da ea lehiaketaren ondorengo kontratuak lehiaketa horretako irabazleari edo irabazleei adjudikatuko zaizkien.
  16. Iragarkiaren bidalketa-data.
  17. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.
9. atala. Proiektuen lehiaketa baten emaitzei buruzko iragarkietan agertu beharreko informazioa:
  1. Botere adjudikatzailearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea, NUTS kodea barne, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa.
  2. Botere adjudikatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.
  3. Horrela denean, botere adjudikatzailea erosketa-zentral bat dela adieraziko da edo baterako beste kontratazio mota bat erabiliko dela.
  4. CPV kodeak.
  5. Proiektuaren ezaugarri nagusien deskribapena.
  6. Sarien zenbatekoa.
  7. Lehiaketa mota (irekia edo murriztua).
  8. Proiektuak baloratzeko aplikatu diren irizpideak.
  9. Epaimahaiaren erabakiaren data.
  10. Parte-hartzaileen kopurua.
    - a) Enpresa txiki edo ertain diren parte-hartzaileen kopurua.
    - b) Atzerriko parte-hartzaileen kopurua.

11. Lehiaketaren irabazlearen edo irabazleen izena, helbidea (NUTS kodea barne), IFZ, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa, eta aipatzea enpresa txiki eta ertainak diren.

12. Proiektuen lehiaketa Europar Batasunaren funtsekin finantzaturako proiektu edo programa batekin lotuta egoteari buruzko informazioa.

13. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialeko* aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkian ezagutzera ematen den proiekturako edo ezagutzera ematen diren proiektuetarako garrantzia dutenak.

14. Iragarkiaren bidalketa-data.

15. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

10. atala. Indarrean den kontratu bat aldatzeko iragarkietan agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzailaren eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea, NUTS kodea barne, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Internetekoa.

2. CPV kodeak.

3. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obren kontratuen kasuan; edo entregaren edo gauzatzearen kokaleku nagusiaren NUTS kodea, horniduren eta zerbitzuen kontratuetan.

4. Kontratazioaren deskribapena, aldaketa baino lehen eta aldaketaren ondoren: obren izaera eta norainokoa, horniduren izaera eta kopurua edo balioa, zerbitzuen izaera eta norainokoa.

5. Halakorik dagoenean, aldaketak eragin duen prezio-igoera.

6. Aldaketa beharrezko egin duten inguruabarren deskribapena.

7. Kontratua adjudikatu den eguna.

8. Halakorik dagoenean, operadore ekonomiko berriaren edo berrien izena eta helbidea (NUTS kodea barne), IFZ, telefono- eta fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

9. Kontratua Europar Batasunaren funtsekin finantzaturako proiektu edo programa batekin lotuta egoteari buruzko informazioa.

10. Errekurtso-prozedurak eta, kasua bada, bitartekaritza-prozedurak gainbegiratzeko organoaren eta horien ardura duen organoaren izena eta helbidea. Errekurtsoak aurkezteko epeari buruzko aipamena; edo, kasua bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

11. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialeko* aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkian ezagutzera ematen den kontraturako edo ezagutzera ematen diren kontratuetarako garrantzia dutenak.

12. Iragarkiaren bidalketa-data.

13. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

B) Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak lizitzatzeko, formalizatzeko eta aldatzeko iragarkietan agertu beharreko informazioa.

1. atala. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak lizitzatzeko iragarkietan agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzailaren edo entitate adjudikatzailaren eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia (legeria nazionalen aurreikusita dagoenean), helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. Botere adjudikatzaila edo entitate adjudikatzaila zer motatakoa den eta zein den haren jardura nagusia.

3. Eskariekin batera eskaintzak aurkeztu behar badira, emakidari buruzko dokumentuak kontsultatu ahal izateko helbide elektronikoa eta Internetekoa, irispide zuzen, oso eta doakoarekin eta murriztapenik gabe. 138. artikuluan jasotako kasuetan irispide

zuzen, oso, doako eta murriztapenik gabekorik ez dagoenean, kontratazioari buruzko dokumentazioa kontsultatzeko moduaren aipamena.

4. Emakidari buruzko deskribapena: obren izaera eta magnitudea, zerbitzuen izaera eta magnitudea, magnitudearen ordena edo zenbatetsitako balioa eta, ahal bada, kontratuaren iraupena. Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da. Hala dagokionean, aldaeren deskribapena.

5. CPVaren nomenklaturaren erreferentzia-zenbakia(k). Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

6. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-emakiden kasuan, edo zerbitzu-emateen kokaleku nagusiarena, zerbitzu-emakidak direnean; emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

7. Parte hartzeko baldintzak, besteak beste:

a) Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena: emakida tailer babestuei mugatuta dagoela edo haren gauzatzea enplegua babesteko programen esparrura mugatuta dagoela.

b) Hala dagokionean, honako hauei buruzko aipamena: zerbitzu-ematea lanbide jakin bati erreserbatzen zaiola, legezko eta erregelamenduzko xedapenen eta xedapen administratiboen arabera; legezko edo erregelamenduzko xedapen edo xedapen administratibo horren aipamena.

c) Hautapen-irizpideen zerrenda eta deskribapen laburra, hala dagokionean; eska daitezkeen gutxieneko maila edo mailak; eskatzen den informazioaren aipamena (interesdunen adierazpenak, dokumentazioa).

8. Eskaerak aurkezteko edo eskaintzak jasotzeko muga-eguna.

9. Emakida adjudikatzerakoan aplikatuko diren irizpideak, emakidari buruzko beste dokumentu batzuetan ageri ez direnean.

10. Iragarkiaren bidalketa-data.

11. Errekurtso-prozeduren eta, kasua bada, bitartekaritza-prozeduren ardura duen organoaren izena eta helbidea. Errekurtsoak aurkezteko epeari buruzko aipamen zehatza; edo, kasua bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

12. Hala dagokionean, emakida gauzatzea zer baldintza zehatzen menpe dagoen.

13. Parte hartzeko eskaerak edo eskaintzak zer helbidetara bidali behar diren.

14. Hala dagokionean, komunikaziorako bitarteko elektronikoak erabiltzeari buruzko baldintzen eta betekizunen aipamena.

15. Emakidak Europar Batasunak finantzaturako proiektu edo programa batekin lotura izateari buruzko informazioa.

16. Obra-emakiden kasuan, aipatzea emakida KPAk estaltzen duen.

2. atala. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak formalizatzeko iragarkietan agertu beharreko informazioa, 5. atala aplikatzea egokia ez denean:

1. Botere adjudikatzailaren edo erakunde adjudikatzailaren eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne) eta, hala dagokionean, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. Botere adjudikatzaila edo entitate adjudikatzaila zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.

3. CPV kodeak.

4. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-emakiden kasuan, edo zerbitzu-ematearen kokaleku nagusia, zerbitzu-emakiden kasuan.

5. Emakidari buruzko deskribapena: obren izaera eta magnitudea, zerbitzuen izaera eta magnitudea, eta kontratuaren iraupena. Emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da. Hala dagokionean, aldaeren deskribapena.



6. Erabilitako adjudikazio-prozeduraren deskribapena; aldez aurreko argitaratzerik gabeko adjudikazioaren kasuan, haren justifikazioa.

7. Emakida edo emakidak adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak, 145. artikuluan aurreikusitakoak.

8. Emakidak adjudikatzeko erabakiaren edo erabakien data.

9. Esleipen bakoitzerako jasotako eskaintzen kopurua, honako hauek zehaztuz:

a) Enpresa txiki eta ertainak diren operadore ekonomikoengandik jasotako eskaintzen kopurua;

b) Atzerritik jasotako eskaintzen kopurua;

c) Bide elektronikoz jasotako eskaintzen kopurua.

10. Esleipen bakoitzerako, hautatutako lizitatzaillearen edo lizitatzaillearen izena, helbidea (NUTS kodea barne), IFZ eta, hala dagokionean, telefono- eta fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea, honako hauek zehaztuta:

a) Lizitatzaille adjudikazioduna enpresa txiki eta ertain bat den.

b) Emakida partzuergo bati adjudikatu zaion.

11. Adjudikatutako emakidaren balioa eta baldintza ekonomiko nagusiak; honako hauek, zehazki:

a) Ordainsariak, prezioak eta isunak, halakorik dagoenean.

b) Sariak eta ordainketak, halakorik dagoenean.

c) Emakidaren baliorako bidezkoak diren beste xehetasun batzuk, 101. artikulua 3. apartatuan ezarritakoaren arabera.

12. Emakidak Europar Batasunaren funtsekin finantzatutako proiektu edo programa batekin lotura izateari buruzko informazioa.

13. Errekurtso-prozeduraren eta, kasua bada, bitartekaritza-prozeduraren ardura duen organoaren izena eta helbidea. Errekurtsoak aurkezteko epeari buruzko aipamen zehatza; edo, kasua bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

14. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialeko* aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkiaren xede den emakidarekin edo emakidekin zerikusia dutenak.

15. Iragarkiaren bidalketa-data.

16. Emakidaren balio zenbatetsia kalkulatzeko erabili den metodoa, 101. artikulua 3. apartatuan arabera emakidari buruzko beste dokumentu batzuetan zehazten ez bada.

17. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

3. atala. IV. eranskineko zerbitzu berezien emakiden aurretiazko informazioaren iragarkietan agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzailearen edo erakunde adjudikatzailearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia, helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. Hala dagokionean, zehaztapenak eta balizko dokumentu osagarriak eskuratu ahaliko diren helbide elektronikoa edo Interneteko helbidea.

3. Botere adjudikatzailea edo entitate adjudikatzailea zer motatakoa den eta zein den haren jardura nagusia.

4. CPV kodeak; emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

5. Zerbitzu-emakidak gauzatu edo emango diren kokaleku nagusiaren NUTS kodea.

6. Zerbitzuen deskribapena, eta magnitudeari edo balioari buruzko ordena.

7. Parte hartzeko baldintzak.

8. Hala dagokionean, botere adjudikatzailearekin edo entitate adjudikatzailearekin harremanetan jartzeko epea(k), parte hartzeari begira.

9. Hala dagokionean, adjudikazio-prozeduraren ezaugarri nagusien deskribapen laburra.

10. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

4. atala. Obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratu-aldaketei buruzko iragarkietan agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzaillearen edo entitate adjudikatzaillearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia (legeria nazionalean aurreikusita dagoenean), helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. CPV kodeak.

3. Obren kokaleku nagusiaren NUTS kodea, obra-emakiden kasuan, edo zerbitzu-ematearen kokaleku nagusiaren NUTS kodea, zerbitzu-emakiden kasuan.

4. Emakidaren deskribapena, aldaketa baino lehen eta aldaketaren ondoren: obren izaera eta magnitudea, eta zerbitzuen izaera eta magnitudea.

5. Hala dagokionean, emakidaren balioaren aldaketa, horren barnean direla aldaketak eragindako ordainsarien edo prezioen igoera.

6. Aldaketa beharrezko egin duten inguruabarren deskribapena.

7. Emakida adjudikatu den eguna.

8. Hala dagokionean, operadore ekonomiko berriaren edo berrien izena eta helbidea (NUTS kodea barne), IFZ, telefono- eta fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

9. Emakidak Europar Batasunaren funtsekin finantzatutako proiektu edo programa batekin lotura izateari buruzko informazioa.

10. Errekurtso-prozeduraren eta, kasua bada, bitartekaritza-prozeduraren ardura duen organoaren izena eta helbidea. Errekurtsoak aurkezteko epeari buruzko aipamen zehatza; edo, beharrezkoa bada, informazio hori lor daitekeen zerbitzuaren izena, helbidea, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa.

11. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialeko* aurreko argitalpenen datak eta erreferentziak, iragarkiaren xede den emakidarekin edo emakidekin zerikusia dutenak.

12. Iragarkiaren bidalketa-data.

13. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

5. atala. IV. eranskineko gizarte-zerbitzuen emakidak formalizatzeko iragarkietan agertu beharreko informazioa:

1. Botere adjudikatzaillearen edo entitate adjudikatzaillearen eta, desberdina bada, informazio osagarria lor daitekeen zerbitzuaren izena, identifikazio-zenbakia (legeria nazionalean aurreikusita dagoenean), helbidea (NUTS kodea barne), eta, hala dagokionean, telefono- eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

2. Botere adjudikatzaillea edo entitate adjudikatzaillea zer motatakoa den eta zein den haren jarduera nagusia.

3. CPV kodeak; emakida sortatan banatuta dagoenean, informazio hori sorta bakoitzari buruz emango da.

4. Emakidak duen xedearen aipamen laburtua.

5. Jasotako eskaintzen kopurua.

6. Adjudikatutako eskaintzaren balioa, barnean direla ordainsariak eta prezioak.

7. Hautatutako lizitatzaillearen edo lizitatzaillearen izena eta helbidea (NUTS kodea barne), telefono- eta fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta Interneteko helbidea.

8. Hala dagokionean, beste informazio batzuk.

## IV. ERANSKINA

**22.1.C) eta 135.5 artikuluek eta hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituzten zerbitzu bereziak**

CPV kodea	Deskribapena
75200000-8; 75231200-6; 75231240-8; 79611000-0; 79622000-0 [Etxeko langileak hornitzeko zerbitzuak] 79624000-4 [Erizaintzako langileak hornitzeko zerbitzuak] eta 79625000-1 [Medikuntzako langileak hornitzeko zerbitzuak] 85000000-9tik 85323000-9ra; 98133100-5, 98133000-4; 98200000-5; 98500000-8 [Enpleguak dituzten etxe pribatuak] eta 98513000-2tik 98514000-9ra [Partikularrentzako eskulan-zerbitzuak, partikularrentzako agentzia langileen zerbitzuak, partikularrentzako administrarien zerbitzuak, partikularrentzako aldi baterako langileak, etxeko lanetan laguntzeko zerbitzuak eta etxeko zerbitzuak].	Gizarte- eta osasun-zerbitzuak eta haiei lotutakoak.
85321000-5 eta 85322000-2, 75000000-6 [Administrazio publikoaren, defentsaren zerbitzuak eta gizarte-segurantzaren zerbitzuak], 75121000-0, 75122000-7, 75124000-1; 79995000-5etik 79995200-7ra; Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak 80000000-4tik 80660000-8ra; 92000000-1etik 92342200-2ra; 92360000-2tik 92700000-8ra; 79950000-8 [Erakusketak, azokak eta biltzarrak antolatzeko zerbitzuak], 79951000-5 [Mintegiak antolatzeko zerbitzuak], 79952000-2 [Ekitaldietarako zerbitzuak], 79952100-3 [Kultur ekitaldiak antolatzeko zerbitzuak], 79953000-9 [Jaialdiak antolatzeko zerbitzuak], 79954000-6 [Festak antolatzeko zerbitzuak], 79955000-3 [Moda desfreak antolatzeko zerbitzuak], 79956000-0 [Azokak eta erakusketak antolatzeko zerbitzuak].	Gizarte, hezkuntza, osasun eta kultura arloko administrazio-zerbitzuak.
75300000-9.	Gizarte-segurantzako zerbitzuak, nahitaezko afiliaziokoak.
75310000-2, 75311000-9, 75312000-6, 75313000-3, 75313100-4, 75314000-0, 75320000-5, 75330000-8, 75340000-1.	Gizarte-prestazioen zerbitzuak.
98000000-3; 98120000-0; 98132000-7; 98133110-8 eta 98130000-3.	Beste zerbitzu komunitario, sozial eta pertsonal batzuk, sindikatuek, erakunde politikoek, gazteen elkarteek emandako zerbitzuak eta elkarteek emandako beste zerbitzu batzuk barne.
98131000-0.	Erlijio-zerbitzuak.
55100000-1etik 55410000-7ra; 55521000-8tik 55521200-0ra [55521000-8 Etxerako otorduak hornitzeko zerbitzuak, 55521100-9 Etxez etxe otorduak entregatzeko zerbitzuak, 55521200-0 Otorduak entregatzeko zerbitzuak]. 55520000-1 Otorduak kanpotik hornitzeko zerbitzuak, 55522000-5 Garraio enpresentzako otorduak hornitzeko zerbitzuak, 55523000-2 Beste enpresa eta erakunde batzuentzako otorduak hornitzeko zerbitzuak, 55524000-9 Eskolentzako otorduak hornitzeko zerbitzuak. 55510000-8 Taberna zerbitzuak, 55511000-5 Taberna zerbitzuak eta bezero jakin batzuentzako kafetegiko beste zerbitzu batzuk, 55512000-2 Taberna kudeatzeko zerbitzuak, 55523100-3 Eskoletarako otordu zerbitzuak.	Ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak.
79100000-5etik 79140000-7ra; 75231100-5.	Zerbitzu juridikoak, 19.2.d) artikuluan aipatzen direnez bestelakoak.
75100000-7tik 75120000-3ra; 75123000-4; 75125000-8tik 75131000-3ra.	Beste administrazio-zerbitzu batzuk eta gobernu zerbitzuak.
75200000-8tik 75231000-4ra.	Gizartearentzako zerbitzuak ematea.

CPV kodea	Deskribapena
75231210-9tik 75231230-5era; 75240000-0tik 75252000-7ra; 794300000-7; 98113100-9.	Kartzelekin lotutako zerbitzuak, segurtasun publikoko zerbitzuak eta salbamendu zerbitzuak, 19.2.f) artikuluan jasotakoak ez direnak.
79700000-1etik 79721000-4ra [Ikerketa- eta segurtasun-zerbitzuak, Segurtasun-zerbitzuak, Alarma-sistemen zainketa-zerbitzuak, Zainketa-zerbitzuak, Lokalizazio-sistemarekin lotutako zerbitzuak, Iheslariak bilatzeko zerbitzuak, Patruila-zerbitzuak, Identifikazio-ikurrak emateko zerbitzuak, Ikerketa-zerbitzuak eta Detektibe-agentzien zerbitzuak] 79722000-1 [Grafologia-zerbitzuak], 79723000-8 [Hondakinak analizatzeko zerbitzuak].	Ikerketa- eta segurtasun-zerbitzuak.
98900000-2 [Lurraldez kanpoko erakunde eta entitateek emandako zerbitzuak] eta 98910000-5 [Lurraldez kanpoko erakundeen eta entitateen zerbitzu berariazkoak].	Nazioarteko zerbitzuak.
64000000-6 [Posta eta telekomunikazioetako zerbitzuak], 64100000-7 [Posta eta bidalketa azkarreko zerbitzuak], 64110000-0 [Posta-zerbitzuak], 64111000-7 [Egunkari eta aldizkarietara lotutako posta-zerbitzuak], 64112000-4 [Gutunekin lotutako posta-zerbitzuak], 64113000-1 [Fardelekin lotutako posta-zerbitzuak], 64114000-8 [Postako leihatilako zerbitzuak], 64115000-5 [Posta-kutxen alokairua], 64116000-2 [Posta-zerrendako zerbitzuak], 64122000-7 [Barne-postako zerbitzuak].	Posta-zerbitzuak.
50116510-9 [Pneumatikoak birkautxuztatzeko zerbitzuak], 71550000-8 [Erremeraritze-zerbitzuak].	Askotariko zerbitzuak.

## V. ERANSKINA

### 201. artikuluan aipatzen diren gizarte- eta ingurumen-eremuetako nazioarteko hitzarmenen zerrenda

- LANE-Lanaren Nazioarteko Erakundearen 87. hitzarmena, askatasun sindikalari eta sindikatzeko eskubidearen babesari buruzkoa,
- LANEren 98. hitzarmena, sindikatzeko eskubideari eta negoziazio kolektiborako eskubideari buruzkoa,
- LANEren 29. hitzarmena, lan behartuari buruzkoa,
- LANEren 105. hitzarmena, lan behartuaren abolizioari buruzkoa,
- LANEren 138. hitzarmena, gutxieneko adinari buruzkoa,
- LANEren 111. hitzarmena, diskriminazioari buruzkoa (enplegua eta okupazioa),
- LANEren 100. hitzarmena, ordainsari-berdintasunari buruzkoa,
- LANEren 182. hitzarmena, haur-lanaren modurik okerrenei buruzkoa,
- Vienako Hitzarmena, ozono-geruza babestekoa, eta horren Montrealgo Protokoloa, ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa,
- Hitzarmena, hondakin arriskutsuen ezabapena eta mugaz gaindiko garraioa kontrolatzeko (Basileako hitzarmena),
- Stockholmeko Hitzarmena, kutsatzaile organiko iraunkorrei buruzkoa,
- Rotterdameko Hitzarmena (PIC hitzarmena), nazioarteko merkataritzaren xede diren zenbait pestizidari eta produktu kimiko arriskutsuri aplikatzeko zaien aurretiazko adostasun funtsaturako prozedurari buruzkoa –Rotterdamen izenpetua 1998ko irailaren 10ean– eta haren hiru herrialde-protokoloak (NBIP/FAO).

**VI. ERANSKINA****Laugarren xedapen gehigarriak edo kontratu erreserbatuei buruzkoak aipatzen dituen zerbitzu eta horniduren CPV kodeak**

## Garbiketa-zerbitzuak:

90610000-6, 90611000-3, 77211500-7, 77310000-6, 77311000-3, 77313000-7, 77314000-4, 90917000-8, 77211400-6, 90910000-9, 90911300-9, 90919200-4, 90690000-0.

## Bilketa- eta birziklatze-zerbitzua:

90511300-5, 90511400-6, 90531000-8.

## Baso-zerbitzuak:

77200000-2, 77231000-8, 77231800-6, 77312000-0, 77312100-1, 79930000-2.

## Ikuztegiko zerbitzuak:

98311100-7, 98311200-8, 98312100-4, 98314000-7, 98315000-4, 98311000-6.

## Ostalaritza- eta otordu-zerbitzua:

79952000-2, 55130000-0, 79952100-3, 55120000-7, 79950000-8, 55512000-2, 55330000-2, 55400000-4, 55410000-7.

## Garraio-zerbitzuak:

60112000-6.

## Inprimategiko zerbitzuak:

79824000-6, 79821000-5, 79820000-8, 79800000-2, 79810000-5, 79823000-9, 79971000-1, 79971200-3, 79971100-2.

## Gizarte-zerbitzuak:

85320000-8, 85312000-9, 85300000-2, 85310000-5.

## Biltegiatze- eta banatze-zerbitzuak:

63100000-0, 63120000-6, 63121100-4.

## Ostatu eta landa-turismoko zerbitzuak:

63500000-4, 75125000-8.

## Administrazio-lanetako zerbitzuak:

92500000-6, 92510000-9, 92511000-6, 92512000-3, 79500000-9, 98341120-2, 98341130-5, 79511000-9, 92520000-2, 92521000-9, 92521100-0, 72312000-5.

## Kudeaketako eta lan osagarrietako zerbitzuak:

45233294-6, 45316000-5, 79993100-2, 79993000-1.

## Posta- eta publizitate-zerbitzuak:

79571000-7, 79340000-9, 79341000-6, 64121100-1, 64121200-2, 79520000-5, 79920000-9, 79921000-6.

Mantentze- eta konpontze-zerbitzuak:

45422000-1, 45420000-7, 50850000-8, 45262500-6, 45262520-2, 50000000-5,  
71314100-3, 45330000-9, 45442100-8, 50232200-2, 45262680-1, 45259000-7, 50115000-4.

Urte-sasoiko landareen, konpostaren, landare eta zuhaixken, lorategiko altzarien eta abarren ekoizpena eta salmenta:

03121100-6, 03451300-9, 39142000-9, 03110000-5.

Esku-xaboiaren ekoizpena eta salmenta:

33711900-6, 33741100-7, 39831700-3.

Zurezko sukalde-tresnen ekoizpena eta salmenta:

39220000-0, 44410000-7, 39221100-8, 39221180-2, 39141000-2.

Arotzeriako altzarien ekoizpena eta salmenta:

39100000-3, 03419100-1, 37800000-6, 37810000-9.

Salmenta eta banaketa:

30199000-0, 39000000-2.

Ekitaldietarako gaiak:

18530000-3.

Enpresa-opariak eta esku-erakutsiak:

39516000-2, 39295500-1, 39561140-5, 39200000-4, 39290000-1, 39170000-4,  
44111300-4, 39298900-6, 44812400-9.